KARDABERAZ BILDUMA - 11

KOMEDIAK - B

W. SHAKESPEARE'REN ANTZERKI GUZTI-GUZTIAK EUSKERAZ

LARRAKOETXEA'tar BEDITA Y.'ek
euskerazturik

Es propiedad

Autor: W. Shaketpeare
Edita: Juan Joté Garmendia - Librería Técnica de Difutión - Tolota
Imprimt: Grdficat ESET - Seminario Vitoria
Depótito Legal VI 937 - 1974
I S. B. N, 84- 7/6**7**-*022-4*

II ATALA

SEI KOMEDI

NON ZER

Orrlaldo

SARRERA 7

BINIXA'KO SALEROSLA 13
ZEUK ZELAN NAI 53
BASATIA EZITA 97
ONDO DATOR AZKEN ONIK DAUAN ORO 139
AMABIGARREN GAUA: NAIZ, ZEUK ZER GURA 183
NEGU-IPUIN 223

IZTEGUI - ERASKIN 269

S A R R E R A

WILLIAM SHAKESPEARE'n bizitzeari buruzko barri gitxi be gitxi dakigu: eneixek bakarrik eskiertzat: Ingelanda'ko Stratford-on-Avon urian yaio zan, an ezkondu ta seme-alabak izan ebazan: ogei ta iru edo lau urte ebazalarik London'erako bidea artu eban; bein London'en, antzezlari egin zan ango antzokietan eta andik laster antzerkiak eta osteango olerkiak idazten ekin eutsan; berogei ta amar bat urte ebazalarik, London itxita, bere yaioterrira aldatu zan atzera; bere errian azkenengo urte bi edo iru egin, ilburukoa egin eta il zanean, antxe obiratu eben. Amen itz gitxiz Shakespeare'z eskier dakiguna.

Ezin dogu garbi atera Shakespeare zein egunetan yaio zan, baña ugutzau 1505'karren urteko Yorrailaren 26'garrenean egin eben, eleiz-idaztietatik agiri danez.

Yon eretxon gure olerkariaren aitari, Miren Arden, barriz, amari; aita etzan berengo mallakorik bere urikideen artean, estu-estuka barik nasaisamar bizi zana baño; ogibide edo bizibidez, batzuen ustez, arakin zan, beste batzuen ustez, artiledun eta eskuzorrogin eta orretarako bere artaldetxorik be ba-leukean. Gure William'ek zazpi anai-arreba izan ebazan.

Stratford-on-Avon aldeko Ingelanda zoragarri yatzu udabarri-udaz; bedarra ugari ta guri-guri; zugatzak loraz eta orriz ezin yantziagorik; txoriak eurrez eta abeslari; landak guztitariko loraz yantzirik; etxe-leioetatik be dingilika lorak; Avon ibaiak astiro daroaz bere ur gardenak itxasorantza; lurra bizkartxo-zelaitsu; eguraldia geien baten sargoriz astun; sarri eurizaparadak; ostotsak gogatsu ta astrapalatsu; lur landuetan udan gari, garagar eta olo; neguan, arbi, ardien yanaritzat; astegunez, mutikoa>c irakastegietan, igandez, landak zear, baña, zarata gitxi.

Bai etxean, bai irakastegian mutiko okerrai bizkarra ta atzeak erruki barik berotzen yakiezan barda, zarta naiz abarrez. Garai atan eta oraintxe be Ingelanda'n mutiko okerrakaz samurkeri tq koipekeri gitxi erabilten da.

Shakespeare'n aldian Stratford'en Elizti-Irakastegirik ba-zan eta Shakespeare irakastegi orretara ibilikO' zala uste dogu zortzi urte bete ebazanetik amasei bat bete arte. Irakastegi orretan lenengo mailako ikaskizunez ganera Latera ta Eladera be irakasten ziran-eta, William'ek antxe ezagutu ta ausmertuko ebazan Latera ta Eladera-olerkariak. Olerkariok ondo ezagun ebazala agiri da Shakespeare'n lanetatik. Izkuntzok sakonsakon ez ebazala ezagun diñoe bere adiskideak be, euren artean Ben Jonson'ek, baña ori etzan ízan eragozpenik gure olerkariak idazle orreik idatzia beretzeko.

Etcfl izan be, Shakespeare gazte yakinzale, geldigor, urduri ta ameslari zan. Etxetik landa zanean begiak zur erabilten ebazan, etcr bere biotza ederzale zan-eta, atetiko edozein ukututxok iratzarten eban,- aren biotza iñoz loak artu ba'eban artu, lo ori erbi-loa zan. Izadi enparauari adi ba'yakon, izadi-errege gizonari adiago.

Irakastegira íbiltea utsca da ara dabilenak bere adimena ta biotza bazkatzeko gogorik izan ezik; gogo-biotzak elikatzeko gogo bizia izanaskero, barriz, irakastegia onenetarikorik izan ez-arren be, ikasleak berak beteten dauz irakastegiaren utsak.

Eladetar eta Erromarren olerkietotik biztu izango yakon Shakespeare'ri ederrerako gose-egorri ase-ezina ta ludi au ederrez beteago egiteko gogo bizia. Amaikotxo irudi-notin itzalezko ederto antzeztu izan dauskuz gure olerkariak. Urteak dira au il zala, baña onek antzeztuko irudi-notinok ez dira ilgo gizadiak ludi onetan diraueño. Notinok ez dira zartzen, beti diraue gordin, gizonen seme-alabak belaunik belaun legetxe. Shakespeare'k ilezin eta zar-ezin sortu ebazan-eta.

Ez dakit nik ludi onetan Shakespeare'ri irabaztekorik izan danik, eta izango danik be. Onen lanak eztabe negurik, ez zartzarorik, beti dira udabarriko.

Shakespeare'k gizon gitxik bestean dazauz giza-biotza ta onen zirkinak; margolariak gizon naiz beste edozeren azal-aldakuntzak adi-adi ikusi ta zapira eroaten dabezan legetxe, gure olerkari ccu onako zer onen, naiz orrako zer orren aurrean bere ta besteen barruan gure biotzak ze aldakuntza,, ze zirkin izoten dauen adi be adi ibili zan, eta aldakuntza-zirkinok itzalez egoki ingiratu ebazan.

Gizona gizon dan artean gizonak zer bardinen aurrean beti bardin yokatuko dauta, orrexegaitik Shakespeare'k bere olerkietara itzuliko giza-biotza beti yatzu alangoxe, beti dirau egiazko, beti izten gauz arriturík, poz-darioka, egi utsa dirauskuta. Bai ba, Egia ta Ederra biak zer bat izan! Guztiok maite dogu Egia, eta Shakespeare'k egia eskeintzen dauskunazkero, gizon au begiko-begiko yaku. Geu yakinkide ezkarealarik, iñok orretara bultzaubaga, egiak berak eta egiaren ederrak, guk igarteka, orretara bultzaurik, txaloka asten gara. Zegaitik? Gitxien uste genduana dogulako aurrean; zer eder-zoragarria sortu da utsetik, eta otoz otoan sortu be. Burrukan gazte gordinek agure zarreri irabazteak eztausku eragingo txalorik: lendik genkian gazteak irabaziko ebana, baña agure zarrak gazteari irabazi ba'dagio, orduan bai txaloka eskuak urratu-bearra. Gazteari irabazi dautsan agure ori ondo ezagun ebanik ez da geldituko, gu lez, agoa zabalik eta txaloak yo-bear gorrian; ak ba-ekian zarrak irabaziko ebana, zarra ezagun ebalako.

Olangoxe yatzu Shakespeare: zeatz dauz ezagun giza-biotzaren okoluak, eta guk ez dakusaguzan biotz-okoluak ak argi ikusita, guk gitxien uste doguna argitara atereaz, uste-bako ondorenaren aurrean pozaren pozez zoratuta izten gauz. Nondik sortu da ikuskizun eder ori? Guk ez, baña Shakespeare'k ba-ekian tokitik. Or dagoz, esaterako, gure antzerki onetan Yesike ta Laurentzi maitasun-udabarri gozoan alkarren aldamenean, ire-

targi-argitan. arri-malletan yezarrita; ortzea izar kiñulariz yosirik dago; Laurentzi'k begiak gora eragita, Yesike'renak be ara gorantza bidaltzen dauz, eta urren Laurentzi'k Yesike'n buru-biotzetan sortu-azoten dauzan gogorapen eta biotz-zirkinak ezin zoragarriago yatzuz. Maite lora-barrien biotzetan olango gogorapen eta biotz-zirkinak erne-azoten dauzan olerkaria bere aurrean txapela erantzi ta "I langorik etxagok" esateko da.

Egi utsa da Shakespeare'n urrengo itzak diñoena:

"Not marble nor the gilded monuments
Of princes shall outlive this powerful rhyme"
Ez arri zuririk, ezta errege-semeen oroigarri urreztaurik
Ezta biziko olerkiok baño luzaroago ezelanik.

Shakespeare'n irazaki arrigarrien artean bat "BINIXA'KO SALEROS-LEA" deritxona da ta beste batzuen artean euskaldunen asti-emongarritzat ouxe euskerara-barri garean-azkero, sarrera onetan lan onetaz zertxobait esan-bearrean gara.

BINIXA'KO SALEROSLEA

I Ekitaldi.

Irakurla maite, lan au Shakespeare'n lanik onena, ez txarrena, ez bien bitarteko danik eztautzut esango. Zeuk ebatzi ori. Asko da Shakespeare'na ta, beraz, eder-eder dala yakitea. Zer eder-atsegingarririk idoroteko olloa lez azterka, edo-ta txarria lez musturraz induska ibili-bearrik izango dozunik eztot uste: agiri-agirian dozu zer atsegingarririk asko.

Antzerki onetako notinik urtenena ta antzerkiari izena damotsona Binixa'ko salerosla aberats eta gizon on Andoni yatzu. Urrengoak, Basani ta Portze senar-emazteak.

Antzerkiaren aria auxe da:

Itali'ko Belmonte'n neska lirain-lirain, umezurtz eta aberats bat bizi da. Neska orren edertasunaren barria urrin-urrinera zabaldu da-ta, bere esku-billa alderdi guztietatiko andiki-semeak datoz. Euren arteko da Binixa'tar gazte, odol-garbi, lerden, Andoni'ren adiskide mami, Basani izenekoa.

Basani onek eztau odol garbiaz beste ondasunik, eta beste bein bere adiskide Andoni'gana yo dau diru-eske, diru orregaz andikien bizi-mallan yarri ta Belmonte'ko neska lirainaren esku-billa yoateko.

Andoni'ren ontziak or dira itxasoak zear ondasun-billa ta onik ba'dator-koz zenbat gura diru egingo dau eurak dakarrenaz, baña bein-beinean ez dau dirurik bere adishkideari aurreratzeko. Ori goitik beitik ez etsiteko dirautso Andoni'k Basani'ri; Andoni'ren izen eta entzute onak ezetarako gei izatekotan astirik galtzeka diru-billa asteko dirautso, zorrari Andoni'k berak erantzungo dautsala-ta.

Aldi atan Binixa'n dirutsu Sailok izeneko yudar zan eta agana yoten dau Basani'k. Yudarra dirua zorrean aurreratzera oitua da izan, baña ez utsean eta iñoren ona-arren, irabazi-ordez baño. Yudarrak ondo baño obeto ausmer eginda ta buruari bein baño geiagotan atz eginda ba-damotso dirua (iru milla duket) Basani'ri, eta iru ilebeterako emon be baña zorrari Andoni'k ercmtzuteko, ez Basani'k. Agure maltzur orrek dirua irabazi baga aurreratzen dautso, baña Andoni'k zorra izentauko egunez ez ordaintzekotan, Yudarak Andoni'ri onen soinetik libera bat aragi kentzeko baldintzeaz. Zorragiria lege^gizonak idatzi ta Andoni'k izenpetu ta ikurraztu dau.

II Ekitaldi.

Basani'k artu dauz iru milla duketak Yudarragandik eta Belmonte'rako bidea artu bcrño len apari langO aparia emoten dautse bere adiskide mamiai. Aparitara deituen arteun aurkitzen da Sailok yudarra bera be. Laurentzi, Basani ta Andoni'ren adiskidea, Yudarraren alaba Yesike'kin maitemindua ta alkarrekin ezkontzeko itza emona da-ta, apal-ostean maitik yagita, Laurentzi ta beste batzuk Sailok'enera yoanik, onen alaba ta dirumoltso ez makalaz andik alde dagie. Yudarrak kistarrai lendik ba'eutsen areriarik asko, orain areago. Zorra bere egunean ordaindu ezpa'dagio, Andoni'ri gorriak ikusiazoteko zin dagi asarre bizian. Basani'k gau atantxe artzen dau Belmonte'rako ontzia, Gartzen lagun dauela. Yudarra Binixa'ko Dukeagana doa zuzentza-eske ta Binixa'ko etxarte ta enparantzak zear sekulako zarata ta gedarrak egiten dauz.

III Ekitaldi.

Sailok'ek bere leñuko Tubal bidali dau bere alaba Yesike'n billa, baña alperrik. Yudarra barri txarrokaz añenka dabil, baña Andoni'n ontzien batzuk urpera yoan dirala yakiteak arintzen dautsa naibagea. A baño pozago ez katurik sagua erpetan dauenean. Basani'k, bitartean, irabazi dau Belmonte'n Portze lirain-aberatsaren eskua. Zcri on au lortuaz bat eta ezti-eztitan dalarik, geznari datorko Binixa'tik Andoni'ren idazkiaz, eta geznariakin batera Laurentzi ta Yesike datoz. Andoni'rí arako zorra ordaíntzeko epea bete yako ta Andoni'k zorra ordaintzeko dirurik ez: Yudar katuak Andoni sagua erpa zorrotzen artean dau. Andoni'k zor-agiriko galena, bere soineko libera bat aragi, ordaindu bearko dautso Sailok'eri.

Espetxean, baitegian dago Andoni, epaitegira noz dei egingo begira. Andoni'ren gurari bakarra il-aurretik Basani ikustea da, Basani'k bere zorra kituturik dagola ikusi dagian.

Portze, Basani'ren adiskide Andoni zelango istillu gorrietan aurkitzen dan yakitun egin danean, gertu dago Andoni'ren zorra edo obeto esan Basani'ren zorra birritan eta geiagotan ordaintzeko be ta Basani'ri len-baño-

len Andoni'gana yoateko itza alkarri emonda, Basani'k Binixa'rako bidea oxtzen dau.

Bitartean, Portze ta bere otsein Nerixe be beste bidez Binixa'ra doaz gizonezkoen ycmtziakaz, eta Portze bere lengusu Belari Padoba'ko lege-irakaslearen bidalia bailitzan.

IV Ekitaldi.

Binixa'n, idigi da Dukearen epaitegia. An dagoz Sailok eta Andoni. Sailok'ek bere galena bear ei dau, ez dirurik. Dukeak iñondiko aleginak egiten dauz Sailok'en biotza bigundu ta beratzeko: dana alperrik. Belari egun atantxe eldu ezpa'dadi, epaia geroagoratzeko asmotan dago Dukea, baña ordurako epaitegi-atetan da Belari'ren bidali ta ordeazkotzat Portze, Eromar lege-irakasla gazte bailitzan.

Dukeak bertatik dei egiten dautso Portze'ri ta epaia bere gain artzeko eskatu. Yezarten da Portze epaitegian eta epaia aurrera doa. Portze ebazla zur be zur agertzen da. Lenengotan Sailok yudarra pozarren yarten dau, Andoni'riaragi-libera kentzeko eskubide osoa dauela esanda, baña crpurka-apurka gizon setati ori okolurantza daroa ta, azkenerako, estu ta larri iminten dau. Sailok'ek dana galdu dau: yarei da Andoni.

V Ekitaldi

Epai-ostean bereala bai Portze ta Nerixe, bai Basani ta Andoni, batzuek eta besteak, bide banazez, Belmonte'ra doaz eta an amaitzen da antzerki biotz-ukigarri au erastunagazko eztabaida beroaz eta Andoni ta Laurentzi-Yesike'ntzako barri pozkarriekaz.

Eriotzarearen aurrean Andoni'ren biotz-baretasuna ta gizatasun arrigarriak ikusirik, edonori datorko burura Sokarta elendar yakintzazale andiaren eriotza biotz-eragikorra. Ba-leiteke Shakespeare'k elendar guren onen eriotzako zertzeladak gogoan izatea Andoni orren irudi atsegingarrri au antzeztu ebanean.

1957'gko. Urriaren 19'garrenecm.

Larrakoetxea iar B'ak.

BINIXA'KO SALEROSLA

(THE MERCHATN OF VENICE)

«BINIXA'KO SALEROSLA»

(THE ŕ/.ERCHATN OF VE.NiiCE)

NOTIN ANTZEZTUAK

BINIXA'KO DUKEA.
MARROKO'KO ERREGE-SEME, , PORTZE'n senarxgaiak.
ARAGOE'KO ERREGE-SEME, S
ANDONI, Binixa'ko Salerosle.
BASAPJI, aurrekoaren adiskide.
SOLANI. I
SALARIN, > Andoni ta Basani'ren adiskíde.
GARTZEN.)
LAURENTZI, Yesike'n rnaite.
SAILOK, Yudarr.
TUBAL, Yudarr au be, Sailok'en adiskide.
LAUNTZELOTA GOBBO, Ergel, Sailok'en otsein.
GOBBO ZARRA, Launtzelota'ren aita.
SALERI, Binixa'tiko Geznari.
LONARTA, Basani'ren Otsein.
BALTAZAR. , „ , . , .
ESTEPAN. I Portaenotsein.
PORTZE, Etzandera-geiaberats.
NERIXE, Portze'ren laguntzako neskame.
YESIKE, Sailok'en Alaba.

Binixa'ko Andiki, Epaitegiko Otseinak. Baitegi-zai, Otseinak, eta Lagungoko beste batzuk.

I EKITALDI

I AGERLEKU.-Binixa'n. Etxartebide.

ANDONI, SALARIN eta SOLANI datoz aurrera.

ANDONI'k.—Egiz, nik etxakiat zegaitik nazan onen goibel; gogait eraginda nau onek eta zuok be gogait eraginda zabezala diñozue; baña nik goibeltasun au nolan oratu dodan, nolan idoro dodan, edo neu berari urreratu ncúakon, zegazko dan, nondik sortu dan yakiteko naz oraindik; eta zurrtasun-urri egiten nauen goibeltasun au dala-ta neure burua ezagutzen Ianik asko izango dot.

SALARIN'ek.—Itxasoan yabillc ire gogoa gora-goraka; an, ire ontzi nagusiak euren ontzi-oial itzal ta guzti, uretako yaun eta gizaki aberats-antzo, edo-ta itxasoko erakusketa ikusgarri bailitzaz, euren eunezko egoz arin doazala, aldarnenetan adeika, burumakurrka, txeraka izten dabezan salerosleontzítxonk goiñk bera arro begiratzen dabezan tokian.

SOL. •— Siñetsi egidak, yaun, nik ba' neu ortik zear olango gal-irabazirik, nire biotzlerarik onenak nire itxaroakaz batera eurak be ortik zearr litzatekez. Oraindik bedarurratzen (1) nintzateke, axeak nondik nora yoten dauen yakiteko; itxas-legor-imdiak begira kai, itxas-zubi, ta aingura-lekuak norago diran yakiteko; eta nire ondasunai galbidea lekarrkien edozeren bildurrak eskierki goibeldu egingo nindukie.

SAL.—Ni nire axeak, axe indarrtsuegiak itxasoan zelango kalteak egin leikezan gogoratuz, nire arnasea otzituta, putz eta putz otzikaratu egingo ninduke. Ez neunke begiratuko ibili dabilen ondarrezko erloiurik, baña bai gogoratu ur azalak eta urpeko arrkatxak eta an ikusi Ander nire ontzi aberatsa ondarrezko kaian bere burua saietsak baño berago dauela bere obiari mun egiten. Elexara ba'nadi ta arrizko etxe gurena ikusi, nolan ez gogora bertatik aitz galgarriak, nire ontzi bigun-samurra alboan yoaz beste barik ontziko ogasun guztiak uretan sakabanatu, orroaka daragoion itxasoa nire sedaz yantzi ta, laburr esateko, ia ointxe onenbeste gei izan eta orain ezer be ez dirala itxi leikiezanak? Au gogoratzeko izango ete dot gogoramenik, eta ez izan, ostera, onangorik yazotekotan goibel nintzatekela gogoratzeko? Baña ez esan niri; neuk dakit bere salgeiak dirana Andoni goibeltzen dauena.

AND.—Sinis egidazu, ez; eta au dala-ta nire zori oneri esker oneko naiako. Nire ondasunak ez dagoz ontzi baten sabelari entzinda, ezta toki bateri be; nire ondasun guztiak ez dagoz urte onetan zer yazokoaren bendean be; au dala-ta, nire salgeiak ez dira ni goibel nabenak.

SOL.—Ba, orrazkero maitemín zauguz zu.

AND.—Utikan! Utikan!

SOL.—Ezta maite-min be? Orrazkero, pozik etzagozalako zagozala goibel esan daigun; eta zuri goibel egotea bestean errez litzakizu barre egin, yauzika eragon eta pozik zagozala esan, goibel etzagozalako. Ara! Buru biko Yan-arren (2), izamenak bere aldian amaika gizaki bakan eratu izan dau; onako onek, begiak erdi- itxirik, zarrabetea begira barre egingo dautzu, loroak legelxe; orrako orreik, euren ozpinarpegiz, ez dautzue irribarrez aginik erakutsiko, izkirimiria barregarri dala Nestor'ek (3) zin eginda be. Emen datorkuz zure senide zindo-zindo Basani, eta Gartzen eta Laurentzi. Ondo ibili; lagun obeakin izten zauguz orain.

SAL.—Zu gogargitu arte geldituko nintzatekean adiskide zergarriagoak eragotzi ezpa'leuste.

AND.—Oso begiragarri yat zure zergarritasuna. Nire ustez, zuri zeure zeregina dagotzu deiez eta ereari eltzen dautsazu alde egiteko.

BASANI, LAURENTZI ta GARTZEN aurrera.

SAL.—Egun on, yaun onok.

BAS.—Yaun on biok, noz egingo ete dogu barre? Esan, noz? Bakan be bakan eginez zoaze: alan-bearrak eragiten ete dautzue **ori?**

SAL.—Gure astia zuonaren otsein egingo dogu. (SALARIN'ek eta SOLANI'k alde).

LAUR.—Ene yaun Basani, Andoni idoro dozunazkero, guk biok or itxiko zaueguz zuok zuotara; baña ez aiztu bazkaltzeko non batu bear dogun.

BAS.—Eztautzuet utsik egingo.

GARTZ.—Andoni yaun, zuk eztozu onik zagozanaren antzik; adei geiegi dozu zuk mundu onetan, eta ekizu ori aperturi geiegiz erosi daroenak galdu egiten dabela. Sinis egidazu, zu itzalez aldatu zara.

AND.—Gartzen, nik mundua dan añakotzat yoaL bakotxak bere egitekoa dauen antzokitzat, eta nire egitekoa goibel-ilun dok.

GATZ.—Zoroarena egiten itxi egidazu: betoz pozez eta barrez beñolako tximurrak, eta beroagotu bedi nire gibela ardaoz nire biotza intziri mingorrez otzitu baño. Zer dala-ta egon bear ete dau gizon odol-beroak arrtzurizko bere aitaita bailitzangoaren arpegiaz? Lo egon iñor, atzarrik dalarik? Eta laruena goatu gogaldi txarraren txarrez? Amen zer diñotzudan, Andoni: nik maite zaudaz eta maitasuna da zuri daragoiotzuna. Ba-dira arpegi batzuk osin geldiari azalean legetxe ganean mintz edo estalgirik egiten yakienak, eta olangoak beren- beregiko ixiltasunean irauten dautzue iñok yakitun, yarri ta sakontzat etsi degizan, esan bailegie: Asmatzalle nozue ni, nik ezpanak idigiazkero, ez begi txakurrek ausirik egin".

(1! Emendik agiri danez, Ingelandarrak, axeak nondik nora putz egiten dauen igarteko, bedarrak urratu ta axeari emoten eutsoezan. Beste erri batzuk, orretarakoxe, axeari autsa emoten dautsoe.

(2) Yan (Janus) Erromarren yainko-aizuna yatzun buru bi ei ebazan: bata aurrera, bestea atzea begira. Buru bi buru askotxo dira batentzat. Orrako yaun orreri buru bi ezarten ibilteka, zegaitik ez ete eutsoen imini irugarren begirik or belarri bien ostean eta alkaregandik bide-bardin? Ez ete zan ori asko?

(3) Nestor. Eneunke nire burua nire eretxi onen alde oso-osoan yokatuko, baña Nestor dalako au Omer olerkari entzutetsuak bere "ILIAS" eta "ODYSSEIA" olerkietan eurrez aitatzen dauen Pylos'ko errege, agure zar, barritsu, ixil-ezina yatzu. Baña ez uste izan agure uts-utsa danik, agure giarratsu baño.

Ai! Andoni maite, ba-dazagut nik onetarikorik; ezer esaten eztabelako, yakituntzat dabezanak; eta, orraitiño, eskier nago olangoak itz ba'legie egin, entzungo leuskienen belamak su-Iezara bidaliko Ieukiezala, euren anaiai "zorook" esan izanagaitik (4). Beste bein oneri buruz geiago. Baña ez egin arrantzurik onango moztasun-amuzkiaz, eta izan be, zoroaren amuzki au, entzute au... -Ator, Laurentzi on,..~ Onik izan bitartean: zuretzako nire itzak bazkal-ondoan amaituko dodaz.

LAUR.—**Tira ba, bazkaiterarte agur egingt» dautsagu. Nik be olango gizon zur izkeetariko izan bearko dot, Gartzen'ek bein be eztaust itz egiten izten-eta.**

GARTZ.—**Ori ondo, urte bi geiagotan bakarrik Iagun zakidaz. Ez dok ezagutuko ire miñaren otsik.**

AND.—**Agur; barritsu egingo naiako itz-ontzi oneri.**

GARTZ.-—**Eskerrik asko, benetan; ixiltasuna idi-min legorrari ta salgei eztan neskeari bakarrik datorrkie etorri be ondo. {GARTZEN'ek eta LAURENTZI'k alde).**

AND.—**Eta orregaz zer?**

BASAN.—**Amaikatxu uskeri esaten dau Gartzen'ek, Binixa osoan beste iñok baño geiago. Aren zegaitiak zankada bi galautsetan galduko gal-garau bi lez dira: egun osoa egingo dozu euren bila ta idoro dagizuzanean eztautzue ordainduko bila-lana be.**

AND.—**Ondo dago; esan egidazu orain nor dan zuk bera ikusteko ixileko yoan-etorria egiteko zin egina zarean emakumea, aretaz niri gaur Itz egiteko Itza emona nozu-ta.**

BASAN.—**-Ondo dakizu, Andoni, nik nolan urritu dodazan nire ondasunak nire on urriai dagokien baño eralketa arroagorik eginik, baña enabil orain negar-darioka be lengo bidean yarraitzeko gei enazalako. Nire ardurarik andien eta beinena igaroko aldían eralkorregi izanaz egín dodazan zorretatik zelanbait nlre burua ateratea da. BestP iñori baño zorrago dautzut zuri, Andoni, bai maitasunetan bai dirutan; eta zure niganako maitasunak nire zorrak garbitzeko izan daikedazan asmo ta burubideak zuri iragarrteko eskubidea damost.**

AND.—**Iragarri egidazuz, Basani, ta asmo ta burubideok giza-legezko ba'dira, bein-beinean zeu zarean legetxe, bildurge zagoz ta nasai, nire sakel, nire buru, nik dagikedan oro. giltzapean barik zure begira dagozala-**

BASAN.—**Irakastegira nenbllenean, gezien bat galtzen nebanean, galdua bilatzeko bere laguna yaurtiten neban a baxen urrin, aren bidea zear, baña nora yoian adiago nintzala; eta biak galtzeko zorian yarrita, sarritan biak idoroten nebazan.** Indazu **umearoko bide au barriro artzeko erarilc,** bai? **orren ondorena ezetariko kalterik eziakarrena data. Asko zor dautzut nik, eta,** gazie leragaizto **Iez, nik zor dauízudana be galdua da; baña zuk lengoxe bidez-bide beste gezi bat yaurtin ba'dagizu, nora** egiten dcr.-j.en **begira egongo naz-eta,** eskier nago edc **biak Idoroko dodazala edo zure** lsngo zona barriztau **ta lengoaren zorrean** geíditu esker **onez,**

AND.—**Zuk ondo nazaguzu** ia asíia alperrik **galdu baño eztozu egin** era au **dala-ta nire maitasunaz eragoka, ta irain andia egin daustazu nire aleginik andienen ezpairik izateaz, nik dodan guztia zuk galduaz egin zeinskidana bañc** Au dala-ta, **nik-zure alde zer egin negikean esatea** baño **eztozu ni zure gurarira beartuteko. Esan ba.**

BAS.—Aberats geldituko andera dago Belmonte'n; lirain eta lirain itza baño lirainago, ta ekandu onez Itzalez yantzia da bera; **bein baño geiagotan aren begíeiatík gezna ixilik artua nozu: Portze yako izena, eia Kato'ren alaba, Burta'ren emazte, Portze zana baño ez da bape gitxiago. Eta ez uste ízan mundu osoak aren zergarritcsuna ezagun ez daueník: Iau axeak dakarrez ara itxas-bazter guztletatik aren senar isan gura leukien andikiak, eta aren lokiak-bera ule-moltso gorriak dagoz dingilizka arrezko artile antzo; eta guzti onek aren Belmonte'ko tokia Kolkoíz'eko (5) ilxacbazter egiíen**

(4) GUJ^ Gh "ike:spoare'k ovnon difícna aituteko, Itun Barri'ko itzok izan bear doguz *qo*qoan, Sbakespoarc'k izan ebnzancz: ".. .senideri k'rten dioísana, batzarroan errndun boqo; ía zantnl (zoro) diot^an. i_f r;u-W.arako orrudun" (¥af(r, 5, 20-24. "Urto Guz.iko Moza-Bezp^rak", Orixe). Or "zoro" Mza nire da.

(5) Yayon au elendarron miti-izMko yatzu, Aison'en serne; Aison bera, barriz, Tepab'ko Yolkos'ko errego. Yason au, bosíe olondar baízukin, bein Arqo ontzian Uxaso Banznren ertzeko Kolkotz errira yoa.n z^n, an oqacm Urrezko Árdi-narruaron billa. Beni an Kolkotz'eko errogo Aletos'en alaba Modoa'z maitomindu zan; Modea'k liiuro.pcnoz laann oq'n da, Yason Urrezko Ardi-narruaz yoKetu znn. Urrezko Ardi-narrua ta emaztotzat Modoa artuta, Yason Yolkos'era yoan zan atzcra bere ontzian. Ipuinak Yason'az badakar qeiaqorik,

dau, eta Yason asko doaz ara aren bila. Ene Andoni, biotzak diñost, nik areitako edonorkin nor geiagoka ekiteko erarik eta biderik ba'neu, ezpai baga zori ona nire litzatekela.

AND.—Ba-dalrizu nire ondasun guztiak itxasoan dirana: eta ez dot ez dirurik, ez ezetariko salgeirik orain diru egitekorik; orrazkero, aurrera yo; asi zirika ta ikusi nire izen onak zer dagikean Binixa'n; ekin nire entzute onari igutzi, igurdi ta arrazka ta kendu berari zu Belmonte'ra, Portze lirainagana eroateko bear dozuna. Zoaz, asi zadiz usma ta bila dirua non dagon; neuk be beste orrenbeste egingo dot; eta bein diru ori Iortuazkero, ez daust bape ardura nire ederragaitik naiz nik erantzuteko lortu. (AIde dagie).

II AGERLEKU.-BELMOTE. PORTZE'neko Gela

PORTZE ta NERIXE aurrera.

PORTZ.—Egiz, Nerixe, nire sointxo au ludi onez asperturik dago.

NER.—Andera maite, bai, ba-zengokez zure ezbearrak zure ogasunak añako ba'Iitzaz; eta a ta guzti be ugariaren ugariz eta betearen betez gexorik dagoz, gosearen gosez eta ezeren ezez dagozanak legetxe. Au dala-ta, ez da zori on txiki be bien bitartean egotea. Lar izanak lenago ekarten dauskuz ule zuriak, baña bizia irabazi-bearrak bizia luzatu egiten dausku.

PORTZ.—Esalrune eder eta ondo esanak.

NER.—Ederrago litzatekez ondo yarraiazkero.

PORTZ.—Egiteko on zer dan yakitea *aña* errez ba'Iitz egitea, elexatxoak elexa litzatekez eta txiroen txabolak yauregi; iñori agindua berak egin daroan zilegiztilaria on yatzu; errezago yat ogeiri irakatsi zer egitea litzateken on, neronen irakatsiak egiteko ogeiotatik bat neu izan baño. Gure adimenak asmau leiz odolarentzako legeak, baña odol-beroak agindu otzaren ganeazear yauzi egiten dau; olangoxe erbi yatzu zorakeria, ots, gaztea, elbarritua yatzun yarraibide onezko sareen ganetik yauzi egiteko. Baña erago au nik senarrik autesteko ez da egoki. Ai ene! autu itza aitatu dot? Nik ezin daiket on deritxadanik artu, ez iguin yataneri ezetzik esan: orrenbesteraño lotu dau aita zanaren gurariak alaba biziarena. Nerixe, ez ete da benetan gogorra nik onako au ezin artu ta besteai ezetz ezin esan al izatea?

NER.—Zure aita beti izan zan ekanduz on; eta gizon onak euren eriotz-aldian goiargi onak izaten dabez. Au dala-ta, zure aita zanak urre, zidar eta berunezko iru kutxa edo upeltxotan yarriko zoria euren esan-gurea zer dan igarri dagianak bere izango dau, baña ez dau zuzenez igarriko zeuk zuzenez maite dozunaz beste iñok. Baña zure biotzeko gili-gilietan zelango berotasuna somatzen dozu zure esku-bila erdu diran andikientzako?

PORTZ.—Aitatu egidazuz, arren, banan-banan, eta nolango diran nire agotik entzuna-Ia, zeuk ebatzi nire biotzaren eurekanako lerak.

NER.—Lenen, or dozu Napoli'tar andikia.

PORTZ.—Bai, sekuleko moxala bera, zaldíai buruzkoz beste auturik ez dau-ta; eta bere buru-goragarri anditzat dau bere zaldia eraasten yakitea. Bildur naz aren ama nire anderea ez ete zan ibili artu-emon ez-garbiegietan zaldi- eraasleren batekin.

NER.—Urren, or dozu Palatin-Kondea.

PORTZ.—Ak betozkoa okerrtuaz besterik ez dautzu egiten, esan gura baileu: Ni gura ezpa'nozu zuretzat, zeuk ikusí; ipuin barregarririk entzun-arren eztau egiten barrerik; bildur naz, a zarrtu dadinean arako pilosopo negartiren bat izango ez ete dan, gaztearoan olango goibeltasun egoki-ezez betea danazkero. Agoan azurra dauen eriotzearen buruaz ezkondu be oba litzakit biotarik bata naiz besteakin baño. Yaungoikoak yagongo al nau orreik biotatik!

NER.—Zer diñozu Monsiour Le Bon Pantzetar yaunari buruz?

PORTZ.—Yaungoikoak egina da-ta, gizontzat bego. Benetan. ba-daki iñori irri ta barre egitea oben dana. baña, a! Ara, arek arako Napoli'tarrak baño zaldi oberik dau; betozko txarra egiteko Palatin-Kondeak baño ekandu oberik; edozein gizon da ta ezta bape gizon; birigarrok abestu ba' dagi, bertatik asiko yatzu zangoai eragiten; bere itzalari ekingo dautso sastakaika; arekin ezkondu ba'nendi ezkondu, ogei senarrekin ezkonduko nintzateke. Aren begiko baña ipuin osoa emen yarri-bearrik eztogu. Begoz, ba, ganetiko zortzeladak emen azal-^zeka, ixilik sukiteko obeak dira izan be-ta.

ezpa'nintz, asketsiko neunke; zoratzeraño maíte ba'nagi be nik eztautsot erantzungota.

NER.—Zer diñozu Ingelanda'ko "baron" gazte Falconbridge'ri buruz?

PORTZ.—Zuk ba-dakizu nik areri ezer esaten ez dautsodana, alkarreri eztautsagu ulertzen-eta. Ak ez daki ez Laterarik, ez Pantzerarik ez ta Italerarik; eta zu yoan zeintekez epaitegira eta an zin egin nik eztakidala txakurrtxiki baten Ingelanderarik. Benetako gizonaren irudi yatzu a; baña, ai! Nok egiteko itzik itz-bako itzalekin? Eta aren yanzkerearen bakan! Nire ustez, ak yipoia Itali'n erosi eutzun, galtzerdiak Pan tze'n, Doitxerri'n txcpela, eta bere izakerea edonon.

NER.—Zer eretxi dozu orrako orren auzoko, Eskolandar yaun aretaz?

PORTZ.—Auzotar maitasuna dauela aldean; eta izan be, zorrean artu eban belarrondokoa Ingelandarragandik eta zin egin eban al ebanean emongo eutsola ordea; nire ustez, agindua betekoaren sendagarritzat Pantzetarrak emon eban bere itza ta agiriaren barrenean ikurratza yarri eban.

NER.—Zer Sasoni'ko Dukearen iloba doistar gazteaz?

PORTZ.—Eretxi kaskarra aretaz a goxean edanbaga danean, eta oso kaskarra arrastian, mozkor-mozkor eginik danean; bere onenean be gizon baño zerbait gitxiago da; eta bere txarrenean, abere baño zertxobait oba da. Iñoz yazo danik txarrena yazo ba' dadi, zirrist egingo dot, a ganera ez dakidan.

NER.—Aututera yarri ba'ledi yarri ta zuzenezko kutxea autu, ta zuk alan be senartzat artu ez, etzeunke egingo zure aitaren guraria.

PORTZ.—Ori dela-ta, txarrena yazokoaren bildurrez, arren bai arren, okerreko kutxa-ganean imini zuk. Errin-ardaoz beterik edontzi salcon bat; izan be, nik ba-dakit, barruan txerrena bera ba'lego ta zirikaldi ori landan, ak zirikaldiari men-egingo leuskiola. Nerixe, edozer egingo dot belakikin ezkondu baño len.

NER.—Ene andera, ez dozu zetan izan yaunotatik iñor zure izangoaren bildurrik; eurak iragarri dauste euren erabagia; erabagi ori eurak eurenera yoan eta zu bakean iztea da, zuk ezarrikoaz beste bidez ezin irabazi ba'zauez; ezetara bez kutxa-autsspidez.

PORTZ. Sibile (6) baxen zar izatsraño bizi ba'nadi be, Dine (7) bestean garbi izango naz nire aitaren gurari-bidez iñok lortu ezpa'nagi. Pozik nago ni emaztetzat bilatu nauen gazte-mordo au zuzen ibili dalako! euren artean bat be ezta emen eztanean ezik maite dodanik, eta beti nagoko Yaungoikoari eske eriotza on bana emon dagitsela.

NER.—Ez ete dozu gogoratzen, zure aita bizi zala, Monperrate'ko Markesakin ona otorriko gazte buru-argi gudariakin?

PORTZ.—Bai, neskato, bai; Basaní zan; oker ezpa'nago, olantxe eretxon.

NER.—Benetan, andera, nire begi zoroen aurrera eguño agertu diran gizon guztietarik axe da andera ederreri ondo letorkona.

PORTZ.—Ondo gogoratzen dot bera, ta zuk eginiko gorapena ondo irabazita dauela be bai. (Otsein dator aurrera).
Eta? Ze barri?

OTSEINAK.—Lau errbestetarrak zure bila datoz, andera, zuri agur egiteko; eta boskarrenaren aurrelari be emen dago, Marroko'ko errege-semearena, ta bere ugazaba errege-semea arratseon emen izango dalazko geznea dakar.

PORTZ.—Boskarrenari ondo-etorria beste laurai agurra lez pozik emon al ba'nengio, bere etorrerea pozkarri litzakit. Izate-ekanduz gizon guren ba'litz eta soinez txerrena bera, berakin ezkondu baño gurago neunke berakin autortu. Goazen. Ezkontza-eskale bateri atea itxi-orduko besterik dogu ate-yoka. (Alde dagie).

(6) Sibile. Beñolako ipuin-edestian izen au emakumezko igarleri emoten eutsoen. Sibilen artean entzute andiko yatzu Kumai'ko Sibile, Itali'n.

(7) Dine. Erromarren Dine ta elendarren Artemis bat dira biak: emakumezko yainko--aizun, Tzeus eta Leto'ren alaba, Apoion'en arreba. Delos izaroan yaio ei zan eta bein be gizonezkokin ez ei eban izan aragizko ar--emonik. Eiztaritzea atsegín yakon.

III AGERLEKU.--BINIXA. Erri-enparantza.

BASANI ta SAILOK aurrera.

SAIL.—Iru milla duket... ori ondo.

BAS.—Bai, yaun, iru ilebeferako.

SAIL.—Iru ilebeterako... ederrto.

BAS.—Eta esan dautzudanez, zor orreri Andoni'k erantzungo.

SAIL. Andoni'k erantzungo... ondo baño obeto.

BAS.—Zuganako beartuta ete nozu? Atsegin ori emongo ete daustazu? Yakin ete nengike zure erantzuna?

SAIL.—Iru milla duket iru ilebeterako, ta Andoni erantzuteko.

BAS.—Bai, eta zure erantzuna orreri.

SAIL.—Gizon on da Andoni.

BAS.—Besterik entzun dozu, ala?

SAIL.—Ba! ez, ez; ez, ez; Andoni gizon on dala esanaz iragarri gura izan dautzudana Andoni asko dala izan da; a ta guzti be aren erantzun-bideak izakizun dira; aren ontzi nagusietatik bat Tirpoli'ra bidean da; beste bat Indietarakoan; Errialto'n (8) yakin dodanez, beste irugarren bat Mexiko'n da ta laugarren bat Ingelanda'ra bidean; eta galdu-gordeko beste ogasun batzuk be badauz mundua zear sakabanaturik.-Baña ol baño ez dira ontziak; gizon baño ez itxasgízonak; ba-dira izan legor-arratoiak eta ur-arratoiak, legorr-lapurrak eta ur-lapurrak; itxas-lapurrak esan gura dot; eta orrez ganera, ur, axe ta atxetatiko galbideak. Orraitiño, gizonik asko da a; iru milla duket; aren erantzuna ontzat artu daikedala uste dot.

BAS.—Ez izan artuko ez ete dozunaren bildurrik.

SAIL.—Artuko ez ete dodanaren bildurra uxatu ta bildurra uxatzeko ausmer egin bear dot. Itz egin ete neínke Andoni'kin?

BAS.—Bai, geukin bazkaldu nai ba'dozu.

SAIL.—Bai, txarriki-usaina artzeko; Nazareteko zuon igarrleak, Yaungoikoarren, txerrena bidaliko bizi-Iekukia yateko; nik erosi egingo dautzuet zuoi, saldu egingo dautzuet zuoi, zuokin itz-asperturik egingo dot, zuokin ibili ta beste olangorik egingo dot; baña ez dot yango zuokin, eztot edango zuokin, ezta otoitzik egingo be zuokin.-Ze barri da Errialto'n? Nor da or datorrena?

(ANDONI aurrera)

BAS.—Andoni yauno" dozu au.

SAIL.—(Bere kitean) Orrek dauen zergalari laban-antza! Iguin eta gorroto dautsat, Kistar da-ta; baña orregaitik baño gorrotoago dot bere xalotasun apalez dirua zorrean utsik emonda, gure artean Binixa'n oituten dan irabazia eratsiazoten dauskulako; bein nire benderatu ba'dagit benderatu, ederto gizenduko dot aspaldidanik dautsodan gogo txarra. Gorroto dau orrek gure erri gurena; eta salerosleak geien batzen diran tokian bertan be nitaz txarto esaka ibilten da, nire egiune, bide onetiko nire irabazietaz, eta berak irabazi oneri diru-irabazi ereisten dautso. Su-lezara bedi nire erria nik ori asketsi ba'dagit.

BAS.—Sailok, entzuten ete dozu?

SAIL.—Orain dodanarí buruz daragoiot, eta nire gogoratuaren gogoratuak diraustanez, bertatik ezin batu daiket eskatu daustazun guztia: iru mila duketak. Zer deretxatzu? Nire leñuko Ebertar aberats Tubal izenekoak emongo daust moltsoa osotuteko bear dodana. Baña, etxon! Zenbat ilebeterako bear dozu? Nasai zagoz zu, yaun ori (ANDONI'ri); zu, adeigarri ori, izan zara gure agotan oraintsuen aitatuko gizona.

AND.—Sailok, nik dirua zorrean artu, naíz emoten dodanean, ganerakorik ez emon ez artu-arren, nire adiskide onen bearr-izan gorria betete-arren nire ekandu au ausi egingo dot.-Ebatzi ete dau zenbat diru gura leuken?

SAIL.—Bai, bai, iru milla duket.

AND.—Eta iru ilebeterako.

SAIL.—Aiztuta neban..., iru ilebeterako; olan esan dozu. Ederto, eta zeu erantzuteko; ikusi egin bear dot..., baña entzun; oker ezpa' nago, zuk irabazi-bidez dirurik ez dozu ez artzen ez emoten; ez ete dozu cri esan?

AND.—Bai, orixe esan dot.

SAIL.—Yagoba'k bere osaba Laban'en ardiak larraratuten ebazanean (Yagoba au oure aita Abarran'gandik asita irugarren etxagun zan, bere amak aren alde egíniko *ale*ginai zor; bai, irugarren etxagun).

AND.—Eta ortik zer? Diru-irabazirik artu ete eban?

SAIL.—Ez, diru-irabazírik artu ez; ez, zuk esango zeunkeanez, diruaren beraren irabazirik; begira Yagoba'k egina. Laban'ek

(8) Errialto. Italeraz "Ríalto". Biriixa'ko sa-
' ^rc"t-'q;etn':k sntzute andikon.

eta ak egiune egin ebenean, nabar yaioko ziran arkumek Yagoba'ren alogertzat izateko, ardiak udagoien-atzenetan arkeratu ta aarí- bil'a asten ziran, eta aita-ama uletsu bitzuon arteko sortze-egitekoa egiten eragoioenean, artzai burutsuak abar batzuk zuritu egiten ebazan eta ardi beroen aurrean imni, fa ardiak abar zurituen aurrean umea artuta, umeak egiterakoan asurí nabarrak egiten ebezan, ela olangoak Yagoba'ren ziran. Aberastuteko bide yatzun onako au, eta Yaungoikoak onetsi egin eban; eta aberastutea onespen yatzu, gizonak lapurretaz aberastu ezik.

AND.—Orrako ori galdu-gorde utsa yatzun, yaun, eta orrexen orde izan zan Yagoba bestearen otseín. Yazoa yazotea ez egoan Yagoba'ren eskuan, Yaungoikoaren eskuetan eta yoka-bidean baño. Eta guzti au diru-irabazia ontzat emoteko ekarri dauskuzu, ala? Ala zure urre ta zidarra ardi ta aari dira?

SAIL.—Nik ezin esan; nik umeak eragiten dautsedaz alik eta arinen. Baña, begira, yaun.

AND.—Entzun au, Basani. Txerrenak ekarri leiz bere arirako Idazti Deunak. Lekuko gurena dakarren gogo gaiztoa irribarre-arpegidun zitala langoxe yatzu: sagar barruustela azal zindoaz. Azal-eder yatzuz guzurrtiak-

SAIL.—Iru milla duket..., diru-moltso borobil ederra yatzu. Amabitik iru ilebete; orrazkero, ikusi dagidan euneko zenbatean.

AND.—Sailok, ori ondo; zorrean geldituko ete gaiatzuz?

SAIL.—Andoni yaun, sarri be sarri erago dozu zuk Errialto'n nire diru ta ekanduez txar ío £saka, eía orrcriíiño nilc sor.curuak eragita apalik eta ixilik yasan izan dot ori; epea gure leñuaren ezaugarri da-ta. Zuk sinistebagako ta samea ebagi-bearreko txakur dsitu ízan nozu, ta nire Yudar-tjcnrtesari txu-egin dautsazu, eta guzti ori nik neurea darabildalako. Aor ba, zu orain nire laguntza-bearrean aurkitzen zara, urrean; zoakioz ba; zu etorri zatorkidaz eta diraustazu: "Sailok, guk diru gura geunke"; zuk diñozu ori, zuk, ni zure atetara elduko txakur zistriña lez ostikoka erabili nozun orrek. Zure eskakizuna dirua da. Zer esan bear ete neunskizu? Ez ete neunskizu esan bear: "Txakurrek ba-dau dirurik, aía? Txakur txatxar-merrok emon ete leikez zorrean iru mi-Ua duket?". Ala makur-alean burua mkurrtu ta yopu-erara arnasea lotu ta apaltasun otzanez onan itz egin: "Yaun on, igaroko eguaztenez txua egotzi zeunstan, urli egunetan ostikoka erabili ninduzun; beste bein txakur deitu ninduzun; eta adeiokaitik onenbeste diru emongo dautzut zorrean"?

AND.—Ba-leiteke nik ostera be zu txakur deitutea, zuri txu egitea ta zuri ostikoka egítea be. Díru au zorrean emon gura ba' dozu, ez emon zure adiskideri bailitzan (eta jzan be, noz emon izan dau adiskidetasunak adiskidearen diru antzuarentzako umerik?). Zure arerioari emon egiozu zorrean. eta orrek porrot ba'dagi, mosu argiagoz ezarri eragingo dautsazu zigorra.

SAIL.—Bai? Begira, zelan gañetuten nozun! Nik zuretzako gogo oneko izan eta zure maitasuna gura neunkez; aiztu zuk eurekaz orbandu nozun loísagarrikeriak, zure bearrizanak bete ta ornidu, ez arlu lxakurrtxikirik nik zorrean emoneko diruakaitik, eta zuk eztaustazu yaramonik be egingo. Begiko da nire agíndu au.

BAS.—Txeratsu-atsegingarri izatea litzateke ori.

SAIL.—Onangoxe gogo-ontasuna erakutsiko dot. Zatoz nikín Ialzinlarigana, ikurraztu egidazu an zor-agiria, eta agiri orretan izenlauko dan diru-mordoa ordaindu ezpa'dagistazu urli egunetan, berendi lekutan yolas argitzat, zure aragi zurizko Iibera bat bedi galena, nik zure soñean non-gura ebagi ta kentzekoa.

AND.—Ederto, benetan; olango zorr-agiria izenpetuko dot eta ikurratza ezarriko dautsat, eta ganera Yudar bíotz oneko zareala esango dot.

BAS.—Zuk eztozu izenpeluko nigaitik olango zor-agiririk; gurago dot nire bearrizanean bizi.

AND.—Ba! Ez izan bildurrik, gizon; ez naz yausiko galen orren azpira. Ilebete bi onein barruan, ots, zor-agiri-egunak bete baño ilebete lenago elduko dirala uste dot iru bider irutan baño geiago gei diran ogasunak.

SAIL.—Aita Abarran, izaiekoak yalzuz Kislarrok, euron ar-emon larriak iñoren asmoen bildur izatea irakasten dautse-ta. Esaidazu, arren; orrek arako egunekoari erantzun ez ba'legio, zer aurreratuko neunke nik galena ordainduazota? Gizongandíko olango libera bat gizaki ez litzateke aariki, beiki naiz auzki *aña* gei, ezta irabazpide be. Ara! orren maitasuna irabazte-arren idazten dot nik adiskide-agiri au. Orretara aitu ba'dau, ondo; ez ba'dau, agur. Eta nire

maitasuna dala-ta, *ez* egin niri gatxik, arren.

AND,—**Bai, Sailok, ikurraztuko dot zor-agiri ori.**

SAIL.—**Orrazkero, bertatik batu gadizan latzinlariarenean; zeuk emon ari zor-agiri barregarri orren zertzelada edo garbitasunak; ni neu bein etxera noa dirua batzera ta zazkil zitalen ardurape bildurgarrian itxi dodan etxea ikustera ta beingo baten nozu zukin.**

AND.—**Arin egin, Yudar biozpera. (SAILOK' ek alde).**

BAS.—**Ez yataz begiko itz eder eta zital-gogoa.**

AND.—**Ba! ez dogu zegaitik larriturik: nire ontziak izentauko eguna baño ilebete lenago etorrten dira. (Alde dagia).**

II E ITALDI

I AGERLEKU.--BELI)NTE. PORTZE'neko gela.

Turuia-otsak. Marroko'ko errege-semea ta Yarraigoa; PORTZE, NERIXE ta PORTZEren beste Begiralari batzuk datoz aurrera.

MARiiOKATARRAK,—**Ez al yatzu izango íguingarrí nire izakera baltzerana, auzoko ta urreko senide naiakon eguzki dizdizkorraren yantzi itzaldu au. Ekazu Pebu'ren (9) suak leikerraldoak ozta-ozta urtzen dauzan iparraldean sortuko izakirik lirainena, dagigun ak eta nik soñean epai bana zure maitasuna-arren, zeñen odola, arena ala nirea, dan gorriago ikusteko. Ba-diñotzut, andera, nire arpegi onek adoretsurik bat baño geiago ikaratu ta lauorritan imini izan dauela; dautzudan maitasuna-arren zin dagitzut, gure lurraldeko neskarik onentzakoak nire arpegi au maite be izan dabela; azal-margokera au eneunke aldatu gurako zure oldozpenak ostute-arren ez beste ezegaitik, errege eme lirain.**

PORTZ.—**Aukera-bidean nire begien eretxiak** bakcirrik **ez naroa ni; orrez ganera, nire aduaren zoriak nik nire kitetik aukeratzetik cldendu egin nau, baña nire aitak moztu ez ba'nindu ta bere zurrtasunez esitu, aginduko bidez ni bere emaztetzat irabaziko nindukenari amore egiteko, orrazkero zu, entzute andiko errege-seme ori, zure aurretik etorriko iñor baño baztarrerago etzengokez nire biotzean.**

MAR,—**Orrexegaitik esker oneko naiatzu; eroan nagizu, beraz, zure upeltxoetara, arren, nire zoria zirikatu dagidan. Sopi (10) ta Soliman Sultanaren iru gudaketa irabazitako Iran'dar errege-semea il ebazan zimitarra au-arren zin dagit baietz begiratu aurrezaurre eta ikarabaga iñongo begirik bildurgarrienak; baietz itxi utsean lurreko biotzik azarriena; baietz kendu abitik artz emeari ume gazteak; areago, baietz irri egin yaki-billa orroaka dabilen leoiari zu irabazte-arren, andera. Baña ai! bitartean; Erkul'ek (Ul) eta Lika'k (12) kulatz-zubil-yokoan ba' daragoioe, zein dan gizonago erabagiteko, alan-bearra bitartean sartu ta galtzekoari irabaziazo leio. Onantxe benderatu eban Alkide (13) bera otseínak; beste orrenbeste yazo lekiket niri be, ni zori itsuak eskutik goatuta; nik uts egin eta lortu ez. gitxiago danak lorturik, eta biotz-minez il.**

PORTZ.—**Zure adua yokatu bear dozu, eta ori ezean ez egin zirkinik; edo-ta yoka-aurretik zin egin, yokatu ta okerrekorik autu**

(9) Pebu. Izen au Apolon'en izenetank lenengoa yatzu. Omer'ek beti PHOIBOS APOLON deitzon dau, eta sarritan eguzkia deitzeko erabilten dabe olerkariak.

(10) Sopi. Sopi izengoit:a, aldi baten, Iran edo Persi'ko erregeai ezarten eutsen.

(l'l) Erkul. Elondarren miti-iziiko giza-gurenetariko yatzu. Elendarrak eurak Heraklees ereisten eutsoen. Tzeus etn Alkmene'ren sasi-kume. Erkul'en Amabí Lanak oso aitatuak dira. Alkides be ereisten yako aitaitaren izeneíik.

(12) Lika. Lika au ogibidez geznan zan. Bei,n, Deianiro'k Neses'en atorra edendua emon eutson Lika'ri, onek Erkul'eri eroateko. Atorra edenduak Erkul asarrez irakiten imini eban-ota, buruko uleetatik eldutn, Lika itxasora yaurtin eban.

* Kulatz-zubil-yoko. Yoko au beñola oso oitun znn. Kulatz-zubileko zubila ezta edozein zubil, luzetara, zabaletara ta go:tik berako neurrak bardinak eta alkarreganako zutunak eta sei arpegink laukotu dauzan zubila ba ño.

(13) Alkide. lkur:: Erkul.

ba'dagizu, bein geiago emakumeri eztautsazula aitatuko ezkontzarik, Zeuk ikusi orain.

MAR.—Eztautsat aitatu be egingo; goazen, eroan nagizu nire zoria dakusadan.

PORTZ.—Lenen, elexara goazen; bazkal-ondoan zirikatuko dozu galdu-gordeko zure zoria.

MAR.—Zori ona, beraz! Gizonen artean onetsia edo txarretsia izango naz.

(Eresia, ta alde dagie)

II AGERLEKU.-BINIXA. Etxartebide.

LAUNTZELOTA GOBO aurrera.

LAUNTZ.—Egiz nire yakinkidetzea lagun izango yat nire ugazaba Yudar onegandik igesteko.-Txerrena dot aldamenean niri zirika ta esaka: "Gobo, Launtzelota Gobo, Launtzelota on, naiz Gobo on, naiz Launtzelota Gobo on, aztindu ire zangoak, urten, igesi". Nire yakinkidetzeak diñost: "Ez, begira ondo, Launtzelota zindo; begira ondo, Gobo zindo", edo, len esan danez, "Launtzelota Gobo zindo; ez igesi, irri egiok ire zangoz igesi egiteari". Ederto, txerrenik oldartsuenak bide-zorroa egin eta igesi egiteko agintzen daust. "Alde" diño txerrenak; "Oa, Yaungoikoa-arren" diño txerrenak; "bizkortu ire gogoa ta igesik" diño txerrenak. Ondo dago, nire yakinkidetzeak, nire biotzari idunetik ez elduko bai elduko dagoala, zurtasunez diraust: "Launtzelota, adiskide zindo, gizon zindoren seme" edo obeto esan, emakume zindoren seme az-eta; eta izan be, nire aitak zerbaiten usaña artu eban, zerbaiteri azi egin yakon eta atsegina dalakorik izan eban; ederto, nire yakinkidetzeak diño: "Launtzelota, geldi or, ez egin zirkinik". "Igi adi" diño txerrenak. "Ez adi igi" diño nire yakinkidetzeak. "Yakinkidetza, -diñot nik--, aolku ona damostazu zuk"; "txerren, -diñot nik-, ik aolku ona damostak"; nire yakinkidetzearen esanera egotekotan, nik nire ugazaba Yudarrakin yarrai bear dot, eta au (Yaungoikoak asketsi begist esana) txerren-antzeko, txerrenki yatzu; eta Yudarragandik igestea txerrenaren esanera ibiltea litzateke, eta au (parkatu zuoi lotsea galtze au) txerrena bera da. Egia esateko, Yudarra txerrena bera da aragiz yantzita; eta nire yakinkidetzeaz, nire yakinkidetzea yakinkidetza gogorrtuetariko da, Yudarrakin yarraitzeko onua emoten daustanazkero. Txerrena da onurik atsegingarriena damostana; igesi egingo dot, txerren; nire orpo-zangoak ire agindura yagozak; igesi egingo dot.

GOBO zarra dator aurrera otzareaz.

GOBO'k.—Gazte yauntxo, esaidazu, arren, zein dan Yudar yaunaren etxerako bidea.

LAUNTZ.—(Bere kitean) Ene Yaungoikoa! au nire aita berbera yatzu! eta erdi-itsu ez, itsu-itsu da-ta, enau ezagun. Burua naasi bear dautsat.

GOB.—Gazte yauntxo, esan, arren, Yudar yaunarenerako bidea.

LAUNTZ.—Eskoatara artu urrengo bide-kurutzean, baña guztietarik azkenengoan ezkerretara artu; kontxo, kontxo; lenengoxe bide-kurutzean ez artu ez eskoatara, ez ezkerretara, Yudarrarenera kako-makoka yoan baño.

GOB.—Yaungoiko gurena-arren, gaitz izango yat etxe ori yotea. Esan ete daikedazu arekin bizi dan Launtzelota dalakoa oraindik arenean bizi dan ala ez?

LAUNTZ.—Launtzelota gazte yauntxoaz ete daragoiozu?-(Bere kitean) Oraintxe nirea; oraintxe iminiko dot itxasoa asarre.-Launtzelota gazte yauntxoaz daragoiozu, ala?

GOB.—Ez iñongo yaunez, gizon txiroren semeaz baño. Aren aita gizon zindo txirotan be txiro da, neuk esan-arren, eta, Yaungoikoari eskerrak, onik dago.

LAUNTZ.—Bego; dana dalako bedi aren aita; guk daragoioguna Launtzelota gazte yauntxo da.

GOB.—Zu adeigarri orren adiskide ta Launtzelota, yaun.

LAUNTZ.—Bañа, arren bai arren, "ergo", agure, "ergo", benetan nagotzu eske, Launtzelota gazte yauntxoaz ete daragoiozu?

GOB.—Launtzelota'z, yaun orreri atsegin eta eder ba'yatzu.

LAUNTZ.—"Ergo", Launtzelota yaun. Ez erago, aita, Launtzelota yauntxoaz; eta izan be, *a* zaldun gaztea, Adu, Alan-bear, beste olango esakune bakan, Iru Aizta ta nik dakit nor geiagoren erabagiz ilik da; edo-ta zuk itz lauagoz esango zeunkeanez, zerura yoana da.

GOB.—Ara! Ez al da! A mutikoa nire urtee-

tarako rnakillea bera yatan, nire euskarria bera.

LAUNTZ.—Adakiren, txabola-zutikoren, makillaren naiz euskarriren antzik ete dot? Ezagun ete nozu, aita?

GOB.—Egun onen zori txarreko; etzaudaz ezagun, zaldun gazte; baña esaidazu, arren, nire mutikoa (Yaungoikoak atsedena emongo *cú* dautso aren gogoari) bizirik, ala ilik dan.

LAUNTZ.—Enozu ezagun ala, aita?

GOB.—Ai! yaun, itsuturik nago, etzaudaz ezagun.

LAUNTZ.—Bai, izan be zure begiak ba'lekuse, yazo leiteke zuk ni ez ezagutzea; gizon zur da bere semea dazauena. Ara, agure, neuk emongo dautzut zure semearen barri. Indazu zure onespena; urtengo da egia arçiiarcú. Gizaki-ilterik ezin egon leiteke luzaroan iiunetan; giza-semerik egon lei*teke; haña* egia, lenago-geroago, urtengo da.

GOB.—Zuiundii zadíz, arren, yaun; eskier nago zu etzareala Launtzelota, nire mutikoa.

LAUNTZ.—itxi daiguzan, arren, txitxarikeriak alee batera baña indazu zure onespena; neu naz Launtzelota zure mutíko izana, zure seme dana, zure seme izango dana.

GOB.—Nik ezin sinistu dot zu nire seme zareanik.

LAUNTZ.—Nik eztakit orretaz ze uste izan neinkean; baña neu naz Launtzelota, Yudarraren gizona; eta nik eztot ezpairik Margarite zure emaztea dala nire ami.

GOB.—ízan te, Margarite yako ari izena; zu Launtzelota ba'zara, zin egingo dot neure aragi ta odol zareala. Gurtua bedi Yaungoikoa! Ene! ik dokan bizartzarra! Ik ire okotzean gure burdi-zaldi Uletsu'k buztanean baño ule geiago dok.

LAUNTZ.—Onazkero, Uletsu'ri buztaneko ulea aizeraka azten yakola dirudi. Eskier nago azkenengoz ikusi nebanean ak buztanean nik orain arpegian dodan baño ule geiago ebala.

GOB.—Yaun, ik izan dokan aldakuntzea! Nolan alkar aituten dozue otsein-ugazabok? Emaitza yakat ire ugazabarentzako. Zelango ar-emona dozue alkarrekin?

LAUNTZ.—Bikaina, bikaina; baña nire aldetik nire atsedena agandik alde egitean yarri dodanazkero, eztot artuko atsedenik agandik bide-arloren bat aldendu arte. Benetako Yudar yatzu nire ugazaba. Emaítzik emon ari? Begiten-lokarririen bat emon egiozu ari; goseak ilik nabil aren otseintzan; nire saietsakaz zenbatu zeinkez nire atzak. Aita, pozik naz zu etorriaz; Basani dalakoari emoiou zure emaitza, ak bere otseinei yaki-yantzi barri bikainak emoten dautsez-eta; ari otseintza egin ezpa'dagiot, Yaungoikoak lekurik emongo daustan bestean urrin igesiko dot.-Zoriaren bakan! Or dator gizona; orregana, aita; bein geiago Yudarraren otsein izan ba'nadi, neu be yudarrtu egingo naz-eta.

BASANI aurrera, LONARTA ia beíite Yarraile batzukin.

BAS.—Bai, olan egin zeinke; baña, arren bai arren, gero? aparia beranduenez be bostetarako gertu egon dadilla. Eroan txantelok artzekoai; otsein-yantziak yosien asi dadizala; eta Gartzen'eri esaiok datorrela bertaiik nirera. (Otsein batek alde).

LAUNTZ.—Orregana, aita.

GOB.—Yaungoikoak onetciko al dau zure adeigarritasuna!

BAS.—Eskerrik asko; zeren billa zaiorrkidaz?

GOB.—Amen, yaun, nire seme, mutiko txiroa.

LAUNTZ.—Ez muiiko txirorik, yaun, aitak eskatuko dauena gura leuken Yudar aberatsaren gizona baño.

GOB.—Onek lera andi dau, yaun, txarretariko esan giñeion lera, otsein izaterakoa.

LAUNTZ.—Izan be, argi ta garbi, luze ta labur esateko, Yudarraren otsein naz ni, eta nire aitak azalduko dautzuna izateko gogo dot.

GOB.—Au ta onen ugazaba -eta parkatu nire lotsabakokeria- ozta-ozta dira urrineko senide.

LAUNTZ.—Labur eta egia esateko, Yadarrak iraindu egin nau, eta orrek bultzau nau nire ustez zar dan nire aitak azalduko dautzunera.

GOB.—Azpil sakon bete uso dot emen eta zuri, adeigarri orri emon gura neunskioz; eta nire eskakizuna zera da...

LAUNTZ.—Nigazko da eskakizuna, zuk adeigarri orrek agure zindo onegandik yakingo dozunez; eta, neuk esan-arren, agure izanarren eta gizon txiro, a ta guzti be ene aita.

BAS.—Batak itz begi, ez biok. Zer gura dok?

LAUNTZ.—Zure otsein izatea, yaun.

GOB.—Ori, yaun, gauzearen akatsa bera yatzu.

BAS.—Ondo ezagun aut nik; lortu dok ire guraria; Sailok ire ugazaba izan dok gaur nikin berbetan, eta ik nire oisein izatea gurago ba'dok, ak be ik Yudar aberatsa-

ren otseintzea iztea gurago izan yok, zaldun txiro-txiro onen yarraigoko izateko.

LAUNTZ.—Esakune barrak diñona ederrto erdibituta dago, yaun, nire ugazaba Sailok'en eta zure artean: Zuk Yaungoikoaren eskerra dozu, yaun, eta ak asko dau.

PAS.—Ondo esan dok. Zoaz, aita, zure semeakin.-Agur egiok ire ugazaba zarrari, eta or itandu egik ni non bizi nazan.-(Bere yarraigokoai) Emon egiozue otsein-yantzien bat, bere lagunena baño apaingarri geiagokoren bat; zuon ardurapean ori.

LAUNTZ.—Barrura, aita. Nik ezin lortu daiket otseintzarik, ez: ez dot buruan miñik. - (Bere esku-zabala begira) ondo yagok; ete dago Itali osoan be idazti-ganean zin egiteko deika dagon au baño esku-zabal ederragorik?... Aurrera, mutil, bizitza-marra bakun dok au; ire izango dok zori ona! Emen agiri dana eztok emazte-mordo makala; kontxo, amabost emazte eztok ezer be, amaika emakume alargun eta bederatzi neska sartze utsa dok gizon batentzat! Orrez ganera, itotetik iru bider alde egin, eta bein lumazko oe-ertza yota nire bizia galdu-aginik aurkitu.-Alde egite utsak dira emen! Ederto, emakume ba'da adua, ezta emagaldu txarra yoko onetarako.-Erdu, aita; Yudarrari begi-itxi-idigi baten agur egingo dautsat. (LAUNTZELOTA'k eta GOBO'k alde)j

BAS.—Lonarta on, oldoztu egik, arren, onetaz; onango zerak erosi ta emonazkero, arin etorrten dozak atzera, arrats onetan nire adiskiderik mamienai oturuntza eman bear yautset-eta; iraduz abil; oa.

LON. Onetctn aleginik andienak egingo dodaz.

GARTZEN aurrera.

GARTZ.—Non dok ire ugazaba?

LON.—An aragoan, yaun, ara ta onaka dabil. (Alde dagi).

GARTZ.—Basani, yaun.

BAS.—Gartzen!

GARTZ.—Zuretzako eskakizunik ba-dot.

BAS.—Iritxi dok.

GARTZ.—Ez al daustazu ukatuko, Belmonte'ra lagun bear zaudaz.

BAS.—3ai? Orrazkero, lagun bear nok, Baña entzuik: i basatiegi, gordinegi, zakarregi ta itzetan lotsabakoegi az; guzti ori iri ondo datorrkik etorri; orrako ire zerok i azagunontzat eztozak akats; baña i ez azaguenen artean ez yoek eder egiten. Arren, bai, arren, ire izakera bizi. txitxari ta geldigor orreri naasi egiozak lotsortasunaren tantan otz batzuk, ire yardunbide zazkil-ganorabakoa dala-ta, noan tokian ni nazanaz bestetzat artuta, nire itxarokizuna lorrindu eztagidan.

GARTZ.—Basani yaun, entzun nagizu: nire yardunbidea neurrizko ezpa'dadi, lotsaz ezpa'dagit itz, nozean bein baño sarriagotan zin ba'dagit, nire sakelean otoi-idaztirik eroan ezpa'dagit; arpegi bena yarri, areago, mai-otoitza asterakoan begiak onan, onan nire txapelaz estali, aspera egin eta "amen" esan ezpa'dagit; azkera-ezkera onari dagokionez yokatu ezpa'dagit; amamaren ederra-arren egitekoak ondo ikasiak ereti goibelean benaz egingo leukezanez, nik be ezpa'dagidaz, ez yarri nigan bein geiagotan zure uste on edo entziterik.

BAS.—Ondo yagok, ikusiko yoagu ire yardunbidea.

GARTZ.—Bai, baña arrats onetakoa ez artu aintzakotzat; arratseon egingo doguna ez al dozu artuko ebazpidetzat.

BAS.—Ez, ori tamalgarri litzatekek: dana bestera, gaur eguño baño txibtariago agertu bear dok, etorriko yakuzan adiskideak alaitasun-billa yatozak-eta. Baña, ondo abil; zeregin bat yoat.

GARTZ.—Ni neu be Laurentzi ta enparauekana yoateko naz; baña aparitarako aldian etorriko gaiatzuz. (Alde dagie).

III AGERLEKU.-Lengoxea. SAILOK'eneko gela.

YESIKE ta LAUNTZELOTA aurrera.

YES.—Min artzen yoat ik nire aitagandik olan alde egiteaz; gure etxea su-lezea bera dok, eta ik, txerren gogargiko orrek. ostu egin dautsak gogaikarritasun-zati bat. Baña onik eta ondo abil; autso duket bat; eta, Launtzelota, laster ikusiko dok Laurentzi ire ugazaba barriaren maian, ak apaitera deituta. Emoiok idazki au; ixilpean egik egitekoa; agur, ba; ez naieunkek gura nire aitak ni ikin izketan ikusterik.

LAUNTZ.—Agur! Negar-malkoak dira nire miñ-ordeko.-Sinistebako lirain-lirain, Yudar maitagarri! Kistarren batek zitalarena egin eta beretu ezpa'zauz, nire ustec oker be

okerra da. Baña agur. Negar-malko zorook nire giza-adorea erdi-itorik dabe. Agur. (Alde dagi).

YES.—Agur, Launtzelota on. Ai ene! Nire aitaren alaba izateaz lotsa izate au bai badala nire oben itsusi! Baña, odolez aren alaba izan-arren, eragobidez enaz. Ene Laurentzi, ik ire aginduari eutsinazkero, ekina amaituko dok; Kistar eta ire emazte maite izango nok. (Alde dagi).

IV AGERLEKU.-Lengoxea. Etxartebide.

GARTZEN, LAURENTZI.SALARIN eta SOLANI aurrera.

LAUR.—Bai, apari-aldian ixil-muxilka alde agin, nire bizi-lekuan kokomarro yantzi ta ordubete -barru guztiok atzera etorriko gaIO.

GARTZ.—Ezkagoz gertakizunak ondo eginik.

SALAR.—Oraindik eztautsagu alkarri esan zuziak nortzuk eroan.

SOL.—Edertosko ez egitekotan, oba da ezer be ez egin.

LAUR.—Oiaindik lauiak baño ez diia; oidu bi doguz gertakizunak egiteko.

LAUNTZELOTA aurrera, idazkiren bategaz.

Launtzelota adiskide, ze barri dok?

LAUNTZ.—Dakadan au urratu gura ba'dozu, beronek esango dautzula uste dot.

LAUR.—Ba-dazagut eskua! egiz, esku ederra da; eta ganean idatziko papela baño zuriago da or idatzi dauen esku lriaina.

GARTZ.—Maite-barriak, egiz.

LAUNTZ.—Zure ederretsiz, yaun.

LAUR.—Nora *oa?*

LAUNTZ.—Ba, yaun, nire ugazaba izaneko Yudarrari dei-egitera, arratseon nire ugazaba barri Kistarrakin apaltzera etorteko.

LAUR.—Geldi emen, autso au. Esaiol: Yesike zindoari nik eztautsadala utsik egingo; eta iñok yakiteka esaiok ori; oa. (LAUNTZELOTA'k alde).

Gertauko ete zarie yaunok arratseon kokomarroak egiteko? Nik ba-dot zuzia nok eroan.

SALAR.—Bai, mutil; neu be bertatik naioak baten billa.

SOLAN.—Bai neu be.

LAUR.—Zatoze oraindanik ordubete inguru ni ta Gartzen'gana, nire bizi-tokira.

SALAR.—Ori ondo, ta olantxe egingo guk. (SALARIN eta SOLANI'k alde).

GARTZ.—Ez ete zan a idazkia Yesike lirainagandiko?

LAUR.—Iri dana esan-bearrean naiagok; berak emon yaustazak a bere aitarenetik aterateko zertzeladak; zenbat urre ta pitxi dauen; zelango otsein-yantzia dauen gerturik. Iñoz bere aita Yudarra zerura ba'dadi, bere alaba ona-arren izango dok; eta ezbearrak etxautsak iñoz bidean ostoporik iminiko akats onegaitik ezpa'dok Yesike'ri, zeragaitik, Yudar sinisgearen alaba dalakogaitik. Gaioazan, ator nikin; bidean yoan-ala irakur egik au. Yesike lirain-polita izango dok nire zuzi-eroalla. (Alde dagie).

V AGERLEKU.-Lengoxea. SAILOK'en etxe-aurre.

SAILOK eta LAUNTZELOTA aurrera.

SAILOK.—Bai, euk ikusiko dok; ire begiak izango ire epaikari; Sailok zarraren eta Basani gaztearen arteko aldea; ..ba, Yesike!... Ez dok salo ta mizke yango, nirean lez; ee, Yesike!...; ezta arrantzaka lo egingo, ezta yantzirik urratuko be. Eee, Yesike! Non ago, neskato?

LAUNTZ,—Eee, Yesike!

SAIL.—Noren aginduz dei egiten dautsck? Nik eztauskat agindu dei egitekorik.

LAUNTZ.—Adeigarri orrek sarri-sarritan esaten zeunstan nik ez nekiala agindubaga ezer egiten.

YESIKE aurrera.

YES.—Deiez zagotaz. ala? Zer gura dozu?

SAIL.—Aparitara deitu nabe, Yesike; or dozan giltzak!. Baña zer dala-ta yoan bear ete dot? Ez nabe deitu maitasunez, zurikeriz baño; baña orraitiño yoan egingo naz gorroto-artera, Kistar eskuzabalen lepotik yateko... Yesike, ene alaba, zaindu nire etxea. Yoaten lotsa-lotsa naz; nire bakearen aldeko eztan zerbait sortzen dago, bart diruzorroezko ames egin dot-eta.

LAUNTZ.—Zoaz, arren, yaun; nire ugazabak ba-daki zu gogo txarrez yoango zareana.

SAIL.—Neuk be ori uste yoat.

LAUNTZ.—Eta aik alkar artuak dira. Ez dot esan gura kokomarrorik ikusiko dozunik; baña ikusi ba'dagizuz ikusi, nire surra etzan izan alperrik odola eriola igaroko igaratz-astelenez, ezta igaroko Auts-egun arrastiz urtebete be.

SAIL.—Zer? Kokomarroak be ba-doguz, ala? Entzun. Yesike: ondo ibd nire etxeko ateak, eta arratz-otsik eta txistu sama-biurraren irrintze zitalik entzun dagizunean ez igon leioetara, ezta bururik atera be leiotik gizostsa dabilen etxartebidera, kistar zoroen arpegi baltzik ikusteko. Itxi nire etxearen belarriak, zera, nire leioak; ez bedi sartu nire etxe-barrura gizon ergel buru-arinen zaratarik. Yagoba'ren esku-makilea-arren zin dagit gaur ez dodala bape gogorik iñonean yateko. Baña yoan egingo naz... I, yauntxo, nire aurretik oa; ba-noala esaiek.

LAUNTZ.—Zure aurretik yoango naz, yaun... -Etzandera, begiratu zuk leiotik orrek esana gora-bera; emakume Yudar begien ikusgarri dan kistarra etorriko da leiopera.

SAIL.—Zer diño Agar'en yatorriko zoro orrek? Zer?

YASIK.—Orren itzak "Agur, andera" izan dira, ez besterik.

SAIL.—Adabaki ori gogargi begikorik asko da izan, baña yatun itzala, lanean barakulloa baño nagiagoa ta egunez basa-katuak baño lo geiago egiten dauena; erlanagiak eztabe lekurik nire erlategian; au dala-ta, alkarregandik banandu egiten gara, eta banandu be ori zorrean artuko dirua murratuten lagunduko dautsonarenera yoateko. Ondo dago, Yesike; Yesike, barrura oa i; ba-leiteken ni atzera bertatik etortea; nik agindua egin; ateak itxi i barrura sartu-ala: "Sendo lotua, arin idoroa" don esakunea, ta esakune au iñoz be ezta usteltzen gogo zurrean. (Alde dagi).

YESIK.—Agur; eta nire aduak oztoporik izan ezpa'dagi, aita galdu dot nik, alabea zuk. (Alde dagi).

VI AGERLEKU.-Lengoxea.

GARTZEN eta SALARIN aurrera, kokomarrotuta.

GARTZ.—Au da gu gelditzeko Laurentzi'k esaneko arresiz inguratuko etxea.

SAL.—Aren garaia yoana da larri-larri.

GARTZ.—Andia dok ari orduak aurrea artzea, maiteminduak erloiuari aurreak artzen yakiek-eta.

SAL.—Ba! Benuts'en (14) usoak bein aginduko itza yanbaga ta galdubaga, eukiteko baño bost bider bizkorrago egaz egiten yoek maitasun asparria sendotzeko!

GARTZ.—Betikoa yak ori. Eta izan be, nor yagiten dok maitik maira eroaneko yan-gar biziaz? Nongo zaldik egiten yok etxera-bide luze- gogaikarria etxetik aiakoan izaneko bizkortasun eta bizitasunaz? Diran zer guztiak gogatsuago ta aperturi andiagoz billatzen doguz, bein lortuazkero eurak gu asebete baño. Alkarreri yositako olezko ontzitxoak, axe emagaldu dalakoak pa-egin eta besartean artuta aren berezko kaitik eroan daroanean, gazte ondatzallearen antz andiandia dau, eta ez antz gitxiagorik ekatxak saietsak eiota, axe-oialak urratuta, arrakalduta, ta axe emagalduak eskekotuta atzera datorrenean!

SAL.—Or yatok Laurentzi; onetaz gero ekingo barriro.

LAURENTZI aurrera.

LAUR.—Adiskide maiteok, epe-eske nagotzue nire begira egonagaitik. Nik ez, nire egitekoak euki zauez begira. Emazte-lapurretara zuok yokatu dagizuenean. neu egongo nok zuon begira beste onenbeste... Urreratu; emen bizi dok nire aita Yudarra. Eup! Nor da barruan?

YESIKE aurrera, goitegian, mutil yantzita.

YES.—Nor zauguz? Esaidazu, eskierrago yakin dagídan, zure berbaroa ezagun dodala zin egingo neunkean-arren.

LAUR.—Laurentzi, ire maitea.

YES.—Laurentzi! bai izan be, ta bai nire maitea be. Eta izan be, nor besterik maite dot nik onenbestean? Eta orain, Laurentzi, zuez beste nok daki ni zure nazana?

(14) Benuts. Elendarren Aphrodile yatzu. Emakumezko yainkono. Batzuen eretxiz, Tzeus'en alaba; beste batzuenez, itxas-bitsetik sortua. Bere senarrn Epnistn zan, yainkoerrementari meikin.

Benuts dalako ciu soñez ederrago zan qogoz baño, ta bere senarrn kirten ergel ondirik izan ezpa'litz, eieuskion emongo lekurík etxean, Benuts ori edonokin, baita parkaz pantzitako txuxonz be maitemindulci* zan-eli.

LAUR.—Zerua ta zure oldozpenak dira lekuko ta autorla ba-zarsala zu nire.

YES.—Aiko amen, eldu egiok upeltxo oni. Nekagarri dok. Eskerrak gaua dala ta ez nokala begiratzen, nire aldakuntzearen lotsalotsa nok-eta. Baña maitasuna itsu dok-eta maiteminduak ezin ikusi izaten yoezak euren tentelkeriak; eta ikusteko gei ba'litzozak, lizunkeri-yainkoaizuna (Kupida) bera be lotsaz gorri-gorri egingo litzakek ni onan mutildurik ikusita.

LAUR.—Yatsi adi, nire zuzi-eroala izan bec;r don-eta.

YES.—Bai zera! Zuziri eutsin bear ete dautsat nire lotsariai argi egiteko? Benetan, eurak eurenez dira argiegi. Ara! Maitasuna berez yatzu zerak eragertzekoa, ta ni ilundu egin bear nindukezu.

LAUR.—Ilun ago, maite, mutil- apaingarri lirain orregaz be. Baña ator bereala. gau itsuak igesiarena egiten daragoio-ta, ta gu orregaitik izan gara Basani'ren oturuntzean.

YES.—Ateak itxi bear dodaz eta nire burua urrez yantzi, duket batzuk geiagoz, eta bertatik zuganatu. (Goitegitik alde dagi).

GARTZ.—Aiko, nire txotiñoa-arren, ori eztok Yudarrik, beste erritariko baño.

LAUR.—Izurriak eroango al nau, baña biotzbiotzez mcúte yoat, ni ebazle izatekotan zur be ba-dok-eta; eta nire begiak guzurrik ez esatekotan, bai lirain be; zintzo be badok, berak erakutsi dauenez; eta, beraz, bera langoxe zur, lirain eta zintzo. Nire biotz alda-ezinean yarriko yoat.

YESIKE aurrera, bean.

YES.—Eupa! Etorri az?„. Aurrera, yaunak, alde. Onazkero gure kokomarro-kideak gure begira dira. (Alde dagi YESIKE ta SALARIN'ekin).

ANDONI aurrera.

AND.—Nor dator or?

GARTZ.—Andoni yaun!

ANO.—Eupa! Eupa! Gartzen! Non dozak besteak? Bederatziak dozak; gure adiskide guztiak zuon begira dozak. Kokomarrorik ez arrats onetan: erako *axsa* urten dok; Basani gesu baten ontzian dok. Ogei gizon bidali yoadaz zuon billa.

GARTZ.—Pozik dantzut diñozuna; nire pozik andiena ontzi-oialpean izatea ta arrats onetantxe alde egitea da. (Alde dagie).

VII AGERLEKU.--BELMC NTE. PORTZEneko gela.

Turuta-ots. PORTZE aurrera, Marroko'ko errege-seme ta euren Yarraigokoakin.

PORTZ.—Oa ta albora eragin errezelai ta erakutsi, urrengorik urrengo, errege-seme zindo oneri... -Autu orain.

MAR.—Urrezko da lenengoa ta idazkune auxe daroa: "Ni autetsi nagianak gizon askok gura leukiena irabaziko dau"... Zidarrezko, bigarrena, ta agindu au dakar: "Ni autetsi nagianak zor yakon-ala artuko dau". Berun motelezko, irugarrena, ta dakarren oarra bera bestean motel da: "Ni autetsi nagianak dauen oro emon eta gal-gordean yarri bear dau". Zelan yakingo nik erakoa autetsi dodanentz?

PORTZ.—Iruretarik batek nire irudia dau barruan, errege-seme; a autetsi ba' dagizu, zure nozu arekin batera.

MAR.—Yainkoren batek zuzenduko al dau nire erabagia! Dakusadan, barrien-barri ikustauko dodaz idazkunok; zer diño berunezko upeltxo onek? "Ni autetsi nagianak dauen oro emon eta gal-gordean yarri bear dau". Emon egin bear dau... zeren orde? Berun-ordez, ala? Gal-gordean yarri berunagaitik? Upeltxo au zemaika datorku; eta izan be, oro gal-gordean yarten daben gizonak irabazi andiren baten itxaroak eraginda egiten dabe olangorik. Urrezko gogorik ez da makurtzen sarramarra-erakusketara. Au dalata, ni enoa ez berun-ordez ezer emoten, ez ezer gal-gordean yarten.

Zer diño zidarrak bere neska-margoaz? "Ni autetsi nagianalc zor yakon-ala artuko dau". Zor yakon-ala!... Geldi emen, Marrokotar, eta esku bardinez neurtu zor yakana, ire irabazia, ire laintasuna; zor yakana euk uste dokana izatekotan, asko zor yak iri, askoren lain az i; eta ba-leiteke asko ori anderea añako ez izatea; eta orraitiño be, nire laintasunaren bildur izatea, kikilen kikilez nire buruari bideak istea litzakit. "Zor yatan-ala!... Ba! orrazkero, anderea da ori. Sortzez yat ori zor, baita ogasunez, berezko edergarriz eta aziereak emoneko zer onez be: baña orreiz baño be areago zor yat maitasunez. Zer, or nora yo eztakidala ibilteka, ementxe autetsi ba'dagit?... Dakusagun bein barriro urretan idatziko esakune au: "Ni autetsi nagianak gizon askok maite-maite dabena irabaziko dau". Ba! an-

dererr vatzu ori; mundu ouziiak dciu mciíemaite; munduaren lau ertzetatik datoz gorpuzki-ontzi oneri, guren bizi ta arnasadun oneri mun egitera. Orain Irkani'ko Iurrgoriiak eta Arabi zabaleko bascsmcrtu neurribakoak Portze Iiraina ikustera datozan errege-semeentzcko bidezab~I fira. 2ere buIU airoak zeruaii txu-egiten dautsan uvetako errege-erria ezta oztoporik erbesteko gogoai ona etorl-n gcriczctek-; PoríEcs 'ir~ine. ikustera etorri datoz, errekatxuen b^í igarotea baiiitzcn.. Irurotarik batek dau crren irudia. Izan ete Ieiteke irudi ori berunezkoak eukitea? Olangorik gcgoratzea bera bakarrik su-lezea irabaztea litzalce; zakarregi litzateke olango mosu ederra ilobi ilunean sartzea. Ala zidarretan zikinduta dagola uste izango ete dot urre utsa lango amar gei dana? Gogaketearen zitala! Olango pitxi ederrik eguño ezta imini izan urretan ezik. Ingelanda'n, urretan irarriko angeru-irudidun dirua dabe; baña irudi ori gar?~n dago irarriia; emen, csiera, angerua urrezko oean barruan datza... Indazu c^iltzeG; emen autetsiko dot eta aberastu alean aberastuko naz.

PORTZ.—Eutsi, artu, errege-seme; eta nire irudia or bct'datza, zure nozu. (Urrezko upeltxoa didigi errege-semeak).

MAR.—Su-lezako txerrena! Zer dogu emen? Eriotza azur-utsa, bere begi-zuloan papel borobildu ta idatzia dauela! Irakurri egingo dot idatzia.
Ez da urre diz-diz dagian oro.
Sarritan entzun dozu ori esaten:
Amaika gizonek bere burua saldu dau
Nire azala bakarrik ikusteko;
Urrez yantzita obi asko dago arrez beterik.
Oldetsu baxen zur izan ba'zintzazan,
Soñez gazte, burubidez zar,
Incji corobilek ez eutzun erantzungo.
Zoaz ondo; otz da zure maitasuna.

Otz *áa* izan be, ta alperriko lana; agur, ba, bero; ator ona, otz.- Agur, Portze! Agur Iuzeagorik egiteko atsekabetuegi dot biotza; onantxe alde egiten dabe galtzalleak. (AIde dagi bere Yarraigokoakin).

VIII AGERLEKU.-BINIXA. Etxartebids.

SALARIN eta SOLANI aurrera.

SALAR.—Ba, gizon, neuk ikusi yoat Basani ontzian, axe-putzak ontzi-oialak zabal-zabal eginik; berakin yoana dok Gcrizen; eta eskier be eskier naiagok Laurentzi ez dala arein ontzian.

SOL.—Yudar zitalck gedar ta zarataka ircitzarri yok dukea, ta Basani'n ontzia arakatzen yoanak dozak biak.

SALAi:.—Bsluegi yoan do-~k; cni::i~ Míenn zoan ordurako; baña norfcaitek dukeari iragarri yautsak Laurentzi ta bers maite Yesike gondolan ilcusi dabezala; orrez ganera, Andoni'k dukeari aik biak Basani'n ontzian eztirala baietsi yautsok.

SOL.--Sguño cteoat ez e.r.í-iUi e?, iku'-i Yuiarrarena langO Iarritasun naasi, bakan, irainez bete ta aldakorrik. Yudar txarriak etxartebideetan onan erago yautsak-eta: "Ai, ene duketak! Ai, ene alaba! Kistarrakin igesia!... -Ai, ene kistar duketena! Zuzentza! Legea! Ene duketak eta ene alaba! Ikurratzez itsiko ziskua; ikurratzez itsiko duketzorro bi, duket bikodun zorroa nire alabeak niri ostua! Eta pitxiak: arri bi, arri yori eder bi niri nire alabeak ostu! Zuzentzakook! billatu nire alabea! Ak aldean dauz arriak eta duketak!".

SAl.AR.—Ba! Binixa'ko mutil kozkor guztíak car.raik;z gedarrsz: "Bere arriak, bere alaba ta duketak".

SOL.—Andoni'k bere egunekoari erantzungo al yautsok, ostean dan au ordaindu bearko yok.

SALAR.—Kontxo, gogoratu ba'daustak goçoratu ciaustak. Egin-eginean be autua izan naioan atzo Pantzetar batekin eta ak esan yaustan Pantie ta Ingelanda-bitarteko itxasadar estu-bedarrean zama-ontzi ondasun ugariz betea galdu edo urperatu egin zala; ak ori rs:.:i';.z *^aí* niri Andoni bururatu yatan eta bai nire kolkorako esan be: "Ez al dok izango arena".

SOL.—Oba litzakik ik entzuna Andoni'ri esatea, ez baña otoz-otoan, atsekabetu ez dadin.

SALAR.—Yaun maitagarriagok etxok zapaltzen Iudi au. Keuk ikusi yoadaz Andoni ta Bcs^ri alkarreri agur egiten. Basani'k Ien baño len atzera etorten aleginduko dala esan yautsok, eta bestearen erantzun au izan yok: "Ez egik olangorik; Basani, ire egikoa ez egik muskildu nigaitik; ago an garaia umatu-arteño; eta nik Yudarrari izenpetuko zor-agiriaz. a ez bekik ire maite-

bururatu be. Gogo-argi ta txitxari adi; eta gogaketarik beinenak adei-agiriak erokusteko izango al dozak i an azan bitartean". Eta antxe be, begiak negarrez andituta ebazala, arpegia beste alderaturik, eskua besteari bizkarrean ezarrita, eta biotz-lera itzalez minbereaz, Basani'ri eskutik estu-estu eldu yautsak. Eta olan alkarreri agur egin yautsek.

SOL.—Nire ustez, Andoni'k agaitik bakarrik maite yok ludi au. Arren bai arren, gaioazan bere billa ta. zelan edo alango poztasunez a.índu yaiguan aren goibeltasuna.

SALAR.—Orixe dagigun. (Alde dagie).

IX AGERLEKU.-BELMONTE. PORTZE'neko gela.

NERIXE ta Otsein aurrera.

NER.—Arin, arin, arren bai arren; aldera eragin errezelari bertatik; Aragoe'ko erregesemeak zin egin dau ta bertatik dator bere autespena egitera.

Turuta-ots. Aragoe'ko errege-semea, PORTZE ta euren Yarraigokoak aurrera.

PORTZ.—Ara, an dozuz upeltxoak, errege- seme zindo. Ni barruan nauena autetsi ba'dagizu, gure ezkontza-egitekoak bertatik eta andiro beteko dira. Baña porrot ba'dagizu, berealakoan eta itzik geiago egiteka ald-3 egin bear dozu emendik, ene yaun.

ARAGO.—Zin-bidez iru zeretara nago beartuta; lenengoa ta beinena, iñoz be ez esateko iñori zein upeltxo autetsi izan dodan; urrengoa, erako upeltxoari uts egin ba'dagiot, iñoz be nire bizian neskari ezkontzarik ez dautsadala aitatuko; azkenez, nire autespenean aduak ziria sartu ba'dagist, zuri beingoan agur egin eta emendik alde egiteko.

PORTZ.—Ezer enazan onegaitik gal-gordean yarten diranak oro zin egiten dabe iru aginduok beteteko.

ARAG.—Orixe da nik agindua be. Adua lagun bekio orain nire biotzeko itxaroari! Urre, zidar eta berun apal, "Ni autetsi nagianak dauen oro emon eta galbidean yarri bear dau"; obeto begiratu egik, ezer emon, naiz galbidean yarri baño len. Zer diño urrezko kutxeak? Eupa! dakusadan: "Ni autetsi nagianak gizon askok maite-maite dabena irabaziko dau"... Gizon askok maite-maite dabena... Aslco itz orrek ba-leiteke ergel-mordoa iragartea, azal ederra agoa zabalik begiratu, zurtasunez barik begi utsez ederretsi; barruan ez begirik yosi, bai ostera, lrirrikil edo sorbaltzak lez landa-aldeko orman, eguratsetan, abia egiten dauenarena, egin-eginean be galbidearen bidebidean eta eskuetan egiten dauenarena. Nik eztot autetsi gura gizon askok guia dabenik; enoa ni erri arrontekin norgeiagoka, nire burua gizeli basatiakin bat egin gura eztodalako; au dala-ta, igana naioak, zidar, altxor-ontzi; esaidak beste bein ire idazkuneak zer diñoan "Ni autetsi nagíanak, zor yakon aña artuko dau"; ondo esana alan be, eta izan be, nor yoateko ortik zear zori onari zurikeriak egiten ibazien ederretsi barik, íbazien ikurratz barik, zindo izateko ames utsakaz? Iñori ez dakiola bururatu ibazi bako nagusitasunik. Oi, ez al letorkez okerreko bidez gizarteko goibeak, mallak eta ogibideak! Eta zindotasun argia, daroanaren ibaziz erosia al litz! Olan ba'litz, orain billusik dagozan amaikatxo yantzita lebilkez! Orain agintzen daben amaikatxori iñok aginduko leuskie! Amaika baserritar eta erri arrontekori dizdiz eragingo leuskie zindotasunaren azi yatorrak! Eta amaika benetako zindo agertuko litzatekez aldien galauts eta ondakinartean, azal-edergarri barria ezarteko!

Ederto, baña noan nire autespenera. "Ni autetsi nagianak zor yakon aña artuko dau". Dagigun zor yatala.-Indazu onen giltzea, ta idigi bertatik emen dan nire zori ona. (Zidar-upeltxoa didigi).

PORTZ.—Zuk or idoro dozunarentzako geldiune luzeegia da ori.

ARAG.—Zer dogu emen? Ingitxo idatzia opatzen daustan ergel begi-itxi-idigilariaren irudi! Irakurri egingo dot. Ik ez dok Portze'n antzaren urrik be! Nire itxaroak eta nire ibaziak be eztabe iñondiko alkarren antzik! "Ni autetsi nagianak zor yakon aña artuko dau". Ergel-buruaz besterik ez ete dot ibazi? Ori ete da nire saria? Ezer oberik ez ete yat zor?

PORTZ.—Iraintzea ta ebaztea banazeko yardungoak yatzuz, eta izatez alkarren aurrako izan be.

ARAG.—Zer da emen?

Suak zazpi aldiz aztertu dau au;
Eguño okerrekorik autetsi eztauena
Zazpi aldiz aztertuko ebatzia da;

Batzuk itzalai mun egiten dautse;
Batzuk zori on-itzalaz besterik eztabe;
Bizirik be ba-da ergelik. ondo daltit,
Zidarrez yantzita: au be olangoxe yatzun.
Gogoko yatzun emazte zure oeratu,
Ní izango naz beti zure buru:
Yoan, ba. yoan: ireak egin yok.

Emen luzaroago nagon eta ergelagorena egingo dot; ergel-bururi maitemin-agirika ibilteko etorri naz ona, eta yoan ergelburu bikin noa. Agur, maite! Beteko dot nire lotsaria epez eroateko nire zina. (Aide dagi bere Yarraigokoakin).

PORTZ.—Onantxe, erre-muskiltzen dau argizai-suak sitsa. Andia da euren burua ergeltzen dabenena! Autesten dabenean autetsi, euren zurtasuna euren buruari galdu eragiteko izaten da.

NER.—Esakune zarrak eztiño guzurrik: "Eskegitea ta ezkontzea alanbearreko dira".

PORTZ.—Oa, zabaldu egin errezela, Nerixe.

OTSEIN dator aurrera.

OTSEINAK.—Non da nire anderea?

PORTZ.—Ementxe; zer gura dau nire yaunak?

OTSEIN.—Andera, or landako atetan yatsi da zaldi-ganetik bere yauna ba-datorrela iragarten datorren Binixar gazte; eta agandik naibage-agiri sentsurik ba-dakar, zera, gorapen eta itz adeitsuez ganera emaitz yori ezin ederragoak. Oindokoarren eztot ikusi orren antzeko maitasun-geznaririk; Yorrailean eguño ezta izan olango egun ederrik udea nekez be nekez datorrela iragarteko, aurrendari au bere yaunaren aurretik datorren bestekorik.

PORTZ.—Bego, arren; bildur nok laster ire senideren bat etorri dala esango ete daustakan, ori goratzen orrenbeste buru-argitasun darabilkanazkero... Oa, oa, Nerixe, orren adeitsu datorren Maite-yainko bizkorraren geznaria ikus-naiak erreta nauka-ta.

NER.—Baietz izan Basani, Maitasun-yauna,

III EKITALDI

I AGERLEKU.-BINIXA. Etxartebide.

SOLANI ta SALARIN aurrera.

SOL.—I, ze barri dok Errialto'n?

SALAR.—Ba, or yaragoioek esaten, ez baña eskiertzat, Andoni'n ontzi zama yoriz betea itxas-adar bedarrean galdu dala; ontzia galduko toki orreri Gooditiins eresten yautsoek; toki ori itxas-azalune galbidetsu-ondakor dok; esan daroenez, toki orretan itxasontzi andi askoren azurrak daizae urperaturik, niri barri au emoneko esamesa emakume zindo-berbako izatekotan.

SOL.—Eguño txitxiparrarik eztauela edan, edo ta irugarren senarraren eriotzeagaitik negar egin ebala auzokoai sinistuazo eutsela diíionean lez guzurra esan izango al yok emakume orrek. Baña itz-darioka ibilteka eta autuaren bidezabal bakun-Ieunean kakomakoka yarduteka, egia dok Andoni ona, Andoni zintzoa... goi-izen egokirik al neu bere izenari lagun egiteko!...

SA.LAR.—Ba! Or kulatza yatok ondoen; orixe, kulatza.

SOL.—E? Zer diñok?.. Izan be kulatza; ak ontzia galdu yok, zera labur esateko.

SALAR.—Bere galtzeen azkena izango al dok.

SOL.—Garaiz esango al dot "olantxe", nik otoi egin-ala txerrenak trikitx egin eztagistan, txerrena Yudar-antzez emen yatok etorri be-ta.

SAILOK aurrera.

Ze barri, Sailok? Ze barri salerosleen artean?

SAIL.—Zeuok dakizue iñok baño obeto, iñok eztaki zuok baño obeto nire alabearen igesía.

SALAR.—Egia da ori; nik ba-dazagut beintzat igesteko egoak egin eutsozan yostuna.

SOL.—Eta Sailok'ek berak be ba-ekian txoria egakiak (lumak) urtena zana; eta orrazkero txori guztien ekandua da ameagandik alde egitea.

SAIL.—Orrexegaitik *a* gaiztetsirik dot.

SALAR.—Egia *da* ori. aren ebazle txerrena izatekotan.

SAIL.—Neronen odola ta aragia yagi ta asaldatu!

SOL.—Ken, ken! Gorputz ustel zar ori dauzan urteakaz yagi?

SAIL.—Nire aragi ta nire odol nire alabea dala esan gura izan dot.

SALAR.—Zure aragitik arenera ikatzetik bo lira baño alde andiagoa dago; eta zur*

odoletik arenera ardao gorritik Errin-ardaora baño alde andiagoa„. Baña esaiguzu. entzun ete dozu Andoni'k itxasoan galtzerik izan dauenik?

SAIL.—Or dot nik beste yokaldi txar bat; esku-zabal, ondatzalle, porrot-egina, bere burua Errialto'n ozta-ozta erakusten dauena; sal-erostegira orratzetik ara yantzita etorten zana eskeko eginik; begiratu begi bere zor-agiria! Bere dirua kistar-adei aldereko zorrean emotera oitua zan; begira begi bere zor-agiria!

SALAR.—Ba! Eskier nago ak erantzun-ezik eztautsazula kenduko aragirik. Zetarako zenduke?

SAIL.—Arrain-amuzkitzat iminteko; beste ezeren yaki izan-ezik, nire apenarena izango da; ak ni eratsi egin nau ta milloa-erdi galazo daust; nire galtzeai barre egin dautse, irri nire irabaziai, eta nire yatorri-erria ez artu aintzakotzat; nire ar-emonak ezindu, nire adiskideak otzitu, nire arerioak sutu egin dauz. Eta zegaitik ori? Ni Yudar izan! Yudarrak ez ete dau begirik? Ez ete dau Yudarrak eskurik, soin-iñcírknirik, r.eunirik, sentzurik, biotz-lerarik? Arena ta kistarraren soña ez ete dabe yaki berak elikatzen, iskillo berak zauritzen, osakai berak osatzen, uda-negu berak berotu-otzituten eta gaitz berak benderatzen? Zauritu ba' gagizuz, ez ete yaku odolik urtengo? Gili-gili egin ba'dagiskuzu, ez ete dogu barrerik egingo? Edenik emon ba'dagiskuzu, ez ete gara ilgo? Eta iraindu ba'gagizuz, ez ete dogu apenik artuko? Enparauetan zuok langoxe ba'gara, orretan be ba-gara. Yudarrek kistarrik iraindu ba'dagi, zer da kistarraren apaltasuna? Apena. Kistarrek yudarrik iraindu ba'dagi, zelango izan bear dau yudarraren epeak kistar-irakaspenez? Ba! apena. Zeuok irakasten daustazuen zitalkeria egingo dot; egitekoa gogor eta itzal izango da, baña nik zuon irakaspena obatu egingo dot.

OTSEIN aurrera.

OTSEINAK.—Yaunak, nire ugazaba Andoni etxean dago ta zuok biokin itz egin gura Ieuke.

SALAR.—Or ibili gozak batera ta bestera bere billa.

SOL.—Or dator leñu bereko beste bat; irugarren bardinik ezetz idoroko txerrena bera yudartu-ezik. (SOLANI'k, SALARIN'ek eta Otseinak alde).

TUBAL aurrera.

SAIL.—Ze barri, Tubal, ze barri Genoa-aldetik? Idoro eta dok nire alabea?

TUB.—Sarritan eldu izan nok aretaz zerbait entzuneko tokira, baña bera ezin idoro izan yoat.

SAIL.—Au dok au! Au dok au! Nik Prankoport'en bi milla duketean erosiko ikatzarria yoana! Orainarte gure erriaren ganera ez dok yausi izan gaitzespenik; orainarte ez nok oartu izan ni olangoz; atan bi milla duket, eta aren ganera beste pitxi ederеder asko. Nire alaba ori nire oñetan ilik al lego eta duketak aren gorpu-kutxean! Euren barririk ez? Ori be ba-dogu; eta batek ba-dakí bere billa zenbat eralgi dodan. Bai, galtzea galtzearen ganera! Lapurra ainbestegaz yoana, ta ainbeste eralgi lapurraren bílla; eta asazkatzerik ez, aspertzerik (apenik) ez; eta ezetariko ezbearrik ez bidean, nire bizkarrekoaz besterik; ezetariko asperen eta intiririk ez, neureez besterik; negarrik ez, neureez besterik.

TUB.- -Bai, beste batzuk be ba-dabe zori txarrik; Andoni'k, Genoa'n entzun dodanez.

SAIL.—Zer, zer, zer? Zori txarra? Zori txarra?

TUB.—Tirpoli'tik etorkon ontzi andia urpera yoan yakok.

SAIL.—Yaungoikoari eskerrak, eskerrak Yaungoikoari. Egia ete dok, gero? Egia ete?

TUB.—Urperatuko ontzitik igesiko gízon batzukin itz egina nok.

SAIL.—Eskerrak iri be, Tubal on. Barri onak, barri onak. Ja! Ja! Ja! Non? Genoa'n?

TUB.—Entzun dodanez, ire alabeak gau baten, Genoa'n, larogei duket eralgi yoazan.

SAIL.—Sastakaia sartzen daustak biotzean... Iñoz geiago etxoat ikusiko nire urre ori. Aldiko larogei dultet! Larogei duket!

TUB.—Andoni'k zor dautsen batzuk etorri zoazan nikin batera Binixa'ra ta aik zin egiten yoen ak porrot egiteaz beste biderik eztaueia.

SAIL.—Pozkarri yatak orixe; nik ondatuko yoat a; gorriak ikusiazo, lerrenak eragingo yautsazat; bai, pozkarri yatak ori.

TUB.—Euretaiko batek ire alabeak matxangoordez emoniko erastuna erakutsi yeustan.

SAIL.—Pardela! Alangoa! Ik gorriak ikusiazoten daustazak. Tubal. Nire arri yori-urdina zoan; Lea'k emon izan yeustan ni mutilzar nintzoanean; ez naioan emon izango ludi guztiko matxangoakaitik be.

TUB.—Baña Andoni agiri-agirian lur yota yagok.

SAIL.—Bai, ori egia dok; ori egia dok. Oa, Tubal, egik egiunea legelarikin; itz egiok amabost bat egun aurretik. Zor-agiriari erantzun-ezik, biotza aterako yautsat; eta izan be, a ez ba'laiegok Binixa'n, nik gura *añadiru* egingo naieunkek. Oa, oo, Tubal, eta ator nire billa gure otoi-etxera; oa, oa. Tubat; gure otoi-etxecn aurkituko nok. Tubal. (Alde dagie).

II AGERLEKU.-BELMONTE. PORTZE'neko gela.

BASANI, PORTZE, GARTZEN, NERIXE ta Begiraleak aurrera.

PORTZ.—Emen yarrai. arren; etxon egun bat edo bien, gal-gordean yarri-aurretik, zure autespena okerrekoa izanazkero, zure laguntzea galdu egingo neunke-ta; au dalata, artu epe apur bat. Maitasunak ez, baña zerbaitek zuok etzauedazala galdu gura diraust eta zeuok be ba-dakizue onez besterako onuai iguin dautsedana; eta zuok ni ez ulertzerik yazo ez daiten (neskak ez dau miñik, gogaketak baño), nik emen lotu gura zindukiedaz ilebete edo bian, zuk zure burua gal-gordean imini baño len. Nik irakatsi neiskitzu zelan autetsi erakoa, baña olangorik egin ba'negi zin-ausle nintzateke-ta, olangorik iñoz be eztot egingo, ezta zu nire egarri izanda be. Zuk olangorik gura izatekotan, niri oben eragitea gurako zeunke, ni zin-ausle izatea. Izurriak eroango al dauz íkusiz bat zatitu naben zure begiak: zure da niretik erdia, baita beste erdia be, -nire, nesake; baña nire izateko tan zure litzake-ta, olan, osorik zure. Ai! al dion gaiztoa! esiak iminten dabez yabeen eta euren eskubideen bitartean; eta olan, zure dana ez da zure. Ori izatekotan, boa orrexegaitik adua su-lezara! Ez ni. Itz-ontziegi naz, baña erago au asti-betagarri yat, aldi-utsuneak bete ta luzatzeko, zure autespena geroagotzeko.

BAS.—Itxi egistazu autesten, nire bizi au oñazkai-ganean dot-eta.

PORTZ.—Oñazkai-ganean, Basani? Orrazkero, autortu ze zitalkeriz nastuta dagon zure maitasuna.

BAS.—Entziterik ezaren zitalkeri itsusiaz besterík ez: maitea niganduko eztodanaren bildurra. Nire maitasunean zitalkeririk izatekotan, edurra ta sua be alkarren adiskide izan leitekez eta alkarrekin bizi.

PORTZ.—Baña zuk oñazkai-ganean itz egiteari bildur dautsat, olango lekuan edonok bearren bearrez edozer esan daroa-ta.

BAS.—Bizia agindu egistazu, bai? eta egia esango dautzut.

PORTZ.—Ondo dago; autortu ba, ta bizi.

BAS.—Autortu ta maite izan, orixe izan yatzu nire autorpen laburra: oñaze zoragarria oñazea damostanak berak azke urteteko bideak erakusten daustazana! baña itxi egistazu nire adu ta upeltxoetarc yoaten.

(Errezela bazterreratzen da upeltxoen aurretik)

PORTZ.—Aurrera ba; orreitariko baten barruaon nago ni; maite ba'nozu, idoroko nozu. Nerixe ta ganetikook, alde emendik. Ereslariak yo begie onek autespena dagian artean. Galdu ba'dagi galdu, bere azkena zisnearenaren antzeko izango da: eresitan iristuta geldituko da; antza andiago izan dadin, nire begia izango yako ur-bide ta eriotza-oe ezo. Ba-leiteke orrek irabaztea, ta orduan norako eresia? Orduan eresia bendeko zintzoak errege burestun ezar-barriari burua makurtzen dautsoen bitartean yoten dan eresia langoxe da. Olangoxe yatzu egun-sentian senargei ameskorraren belarrietara zirristean eldu ta ezkontzara dei egiten dautsana. Alkides (15) gaztea oldartsu ta azarri sartu zan ekinean Toroia'tarrak negarraren negarrez nesknzerga ordaintzen eutsoen itxas-bidutzi-zergea amaitzeko. Orrek daroan erabagia ezta arena baño txikiagorik, maitasuna, barriz, arena baño andiago„ Ni gertu nago opageitzat; or alde egin dabenak Dardaní'tar emazteak dira; begiak zabal-zabal, baña lausotuta, aurrera datoz egikizun itzalaren ondorena ikus-guraz. Aurrera, Erkul! Bizi adi ta ni be biziko nok... Larriago nok ni i begira, i eu ekinean baño.

Eresia ta urrengo abestia BASANI'k upeltxoen aurrean bere buruari itaunka daragoiola.

Esaidazue: non sortzen da burukeria?
Biotzean, ala buruan?
Zelan sortu, zelan azi?
Erantzun, erantzun.
Begietan sortzen da,
Begiratuz azi; eta burukeria il

(15) Alkide ta Erkul bat dira-ta, íkusi Erkul.

Datzan seaskan ilten da.
Yo daiguzan guztiok burukeri-il-kanpak;
Neuk yoko lenen:din, dan, yoale.
Din, dan, yoale.

BAS.—**Azal-edertasunak azal uts izan-arren, ludia azal-ederrak ziria sartuta dago oraindik. Legetan, naiz ta auzia zikin eta ustel izan, abots gozoz ongarrituazkero, ez ete da ederragotzen gaiztakeri-mosua? Uzkurtzari, yaureskuntzeari dagokiona ba'da, ze guzur eta uste oker ez dau onetsiko betozko benbenekoren batek, arako arira idazti-txatalen bat ekarrita ta guzur garbia ederrez yantzita? Eztago akatsik eta lera txar agirienik azalean edergarriren batzuk eztauzanik. Amaika koldarrek, euren biotzak ondarrezko zurubi-mallak baxen mengel izanarren, euren okotzetan Erkul'ek eta Marte asarreak baño bizar andiagorik ba-daroe, eta orraitiño, barrua arakatuazkero, esnea baño gibel-zuriago izan! Eta adorearen ordez adorearen azikin utsak diran bizartzarrokaz gelditzen dira, iñok adoretsutzat etsi dagizan. Begira edertasuna, ta or ikusiko dozu astun-neurriz erosten dala, berezko izatean aldakuntza arrigarriak egiten dauzala, eta edergarriok astun izan-arren, eurak darabiltzanari arinenaren antza emoten dautsoela. Olangoxe yatzuz sugea letxe kirimildutako urre-ulemoltsoak: axeak yota iñondiko yauzi ta yolasak egiten dabez lirain dalakoaren buruan, eta sarritan besteak yakin dakie uleok iñoren buruan aziak dirala ta bere yakozan kaskazurra ilobian dala. Au dala-ta, apaingarriak itxaso mukerraren itxasbaster urreztauak baño ez dira. Indifar lirainaren burua estaltzen dauen buruko ederra; itz gitxitan esateko, egiantz, aldi maltzurrak, euren buruak areikaz estalita, gizonik zurrenari ziria sartzeko.**

Au dala-ta, i, urre dizdizkor, Midas'en (16) yaki gogor, ikin ez yoat zer-ikusirik; ezta ikin be, gizon eta gizonaren bitarteko otsein zurbil ori; baña i, berun argal-makal, ezer agindu barik zemaitu egiten dokan ori, ire itz lauak itzaldi arroak baño geiago bultzatzen naiok, eta emen autesten yoat nik. Poza bedi ondorena!

PORTZ.—**Or doaz arin be arin eguratsetara beste biozkada guztiak; esaterako, ezpaigogaketak eta etsi arin besarkatua, eta bildur kikilkorra, eta ikusi-ezin begi-orlegia! Maitasun ori, neurriko adi, arindu ire poz-loa, neurriz eralgi ire poza, gitxiagotu egik geiegitasun au; geiegi somatzen yoat ire onespena; gitxiagotu egik, beteegi nagonaren bildur nok-eta!**

BAS.—**(Berunezko upeltxoa idigiaz bat). Zer dogu au? Portze lirainaren irudia? Ze erdi-yainko da au *aña* iraskuntzeari urreratzen yakonik? Igi egiten ete dira begíok? Ala nire begi borobil-ganean yarrita, igiarena egiten ete dabe?** Ona **emen ezpanok, alkarregandik berezita, arnasa gozoak bananduta; eta olangoxe esi gozoak berezi bear leukez olango adiskide maiteak. Emen bere adatsetan margolariak armiarmearena egin dau ta urrezko sarea eundu, gizonen biofzak amaraunak eltxoak baño arinago goatzeko. Baña begiok! Nolan ikusi ele eikezan eurok egiteko? Bata egin-ordukoxe, nire ustez, bakar orrek bere egilleari bere biak ostuteko aña indar izan bear eukean, eta ainbarik itxi. Baña ara, nire gorapenaren makalak, gitxiegi goratuz, itzalari irain egiten dautsan legetxe, itzala meiki-antzo doa itzal-mamiaren atzetik, yarrai-ezinik... Nire aduaren laburgoa dakarren ingitxo borobildua dogu emen.**
Ustebageko zer ain lirain ta autespen ain

yator
Begiz autesten ez dozun ori;
Zori on au zuri datortzunazkero,
Zagoz pozik, eta ez billa besterik.

(16) Midns au Phrygia'ko ipum-errege yatzu. Bein zer eskergarrien bat egin eutson Baka'ri ta on-egite orren sari-eske onetarabait itz egm eutson Baka'ri: "I, Baka, nik iri egmiko on orren aide nik zer ukutuko axe urre egitea emon bear daustak" Bnka txurrut-zale izan bai, ta txurrut egin-barri aurkitu edo-ta, baietz erantzun eutson bere adiskide Midas'eri, bnña bide batez begi-ertza arean itxi-idigita, ta orretantxe ígarri eikean Midas'ek Bakak'k buruan barrabaskerien ba' erabilela. Eta izan be, Midas'eri berak ukutu--ala urre egiten yakon, bai yakiak eurak b^, Midas'eri aginek mollatu-mallatu egin yakozan urrea yaten eta, ganera, urroa urdallarakorik izan ez-eta, goseak il-bear gorrian eta ondo larri aurkitu zan. Negar baten yoan ycikon atzera Baka'ri ta, arren bai arren, zerak lenean izteko eskatu eutson, urrea ikusteak berak be iguin emoten eutsola-ta. Baka orduan be eztarria busti-barri izan-eía, Midas' eri gogoa bete eutson. Orixe bai, edalek emcn leikean agindurik bakanena emon eutson Midas'eri: bere burua Paktolus ibaian ikuzteko, íbaiko ura edatea agindu gogorregi izangc zainkcian-edo.

Onekin pozik ba'zara.
Eta ondasun au zure zori ontzat ba'dozu,
Zoaz zure andereagana
Ta zutzako eska, mosu maitekorrez.

Ingi biribil atsegingarri. Andera lirain, zure baimenez: (Mun dagio).

Ingitxo-bidez natortzu, emotera ta artzera. Sari-billa doazan bitik batak, txaloak eta gizeliaren gedarrak entzunik, ikusleen eretxiz ondo yokatu dauela uste, pozaren pozez burua zorabiauta, baña orraitiño gora-txalook beretzako diran ala ez eztakialarik. ago-begizabalik aurkitzen danez, olantxe nago ni be amaika aldiz lirain zarean andera; dakustana egia dala sinistuezinik, zuk zeuk baietsi, izenpetu ta sendetsi-arte.

PORTZ.—Emen nakutsu, Basani, nagon toki onetan, nazana langoxe; nire aldetik nazan eta dodan baño geiago izan-galerik izan ez-arren, a ta guzti be zu-arren nazan au ogei bider amaika izan gura neunke: milla bider lirainago, amar milla bider aberatsago; zure aurrean ni aintzakoago izateko, aintzako guztien ganetik al nengo ekandu onez, edertasunez, aberastasunez, adiskidez; baña nire kopuru osoa utsezko kopuru da; garbi esateko, ni neska irakatsibaga, ikasbaga, eginbaga naz; baña zori onez, enaz orren zar, eta ikasi negike; eta au baño zori ontsuago dana, enaz yaiotzez buru-motel, eta ikasi daiket; eta guzti ori baño are zori ontsuago, nire gogo argia zurearen ardurapean iminten dodala, zureak nirea, nirearen yaun, yaurla ta errege bailitzan, zuzentzeko. Ni ta nire oro zure ta zureena gara orainganik atxina. Ointxe-ointxe arte neu nintzan etxalde eder onen yaun, nire otseinen yabe, nire buruaren erregeno; eta oraindik ara etxalde au, otseinok eta ni neu be zure gara, ene yaun; or dozuz nire erestun onelrin, eta au or itxi, galdu, naiz iñori emon ba'dagiozu, ori bedi zure maitasuna banatu dalaren ezagungarri, ta au zuri arpegi-arpegira esatea bedi nire aldea.

BAS.—Andera, Itz barik itxi nozu; nire zanetako odolaz besterik eztot zuri itz egiteko; eta nire al guztiak itzalez dagoz nastuta, erriak maite-maite dauen errege-semek edertoskoren baten itz egindakoan pozez beteriko gizeli erlategia baxen durundutsuari yazo oi yakon legetxe; an esaten dan edozer alkarregaz nastauta, ez da besterik poz-agiria baño, iragarria ta iragarrigabea. Baña erastun onek nire atzetik alde dagianean, biziak alde egingo dau nigandik. Orduan ez izan bildurrik Basani il dala esateko.

NER.—Ene yaun eta andera, zuon begira egon gareanean gure gurariak loratu dirala ikusi dogunon garaia da orain guk "Zori onak" gedar egiteko. Zori onak, ene yaun eta andera!

GARTZ.—Ene yaun Basani ta ene andera maitagarri; zuok gura aña zori on opa dautzuet, ba-dakit nigandik ezer ezin gura zeinkiela-ta; eta adeigarriok zuon itxaroak iritxi izana yai-bidez burutu dagizuenean, neu be egun atantxe ezkontzea ontzat emongo al dozue.

BAS.—Biotz-biotzez emaztegeirik lortu ba'dagik.

GARTZ.—Eskerrak yaun orreri; euk lortu daustak bat. Nire begiak, ene yaun, eztozak ireak baño nagiago, begiratzeko. Ik etzanderea ikusi enduan, nik otseina; maite izan dok ik, nik be maite, nire maitasunak ireak baño eragozpen geiagorik etxokeeta. Ire zori ona upeltxoetan yegoan eta bai nirea be aduen erabagiz; eta izan be, izerdia urten-arterañoko maite-erakutsiak egin eta zintzotasun-zinez ago-sapaia legortuta, azkenean, aginduak azkeneraño iraun ba'dagi, lirain onen agindua iritxi naioan, bere maitasuna nitzako izango zala bere anderearena itzako izatekotan.

PORTZ.—Egia ete da. Nerixe?

NER.—Egia, andera, ondo ba'deretxatzu.

BAS.—Eta i, Gartzen, benetan ete abilku?

GARTZ.—Bai, benetan, ene yaun.

BAS.—Zuon ezteguak gureen edergarri izango dozak.

GARTZ.—Lenengo mutikoa yokatuko dautsegu milla duketegaitik.

NER.—Zer, posturea be yarrita?

GARTZ.—Ez; yoko orretan irabazi ba'daigu, ez da postura-bearrik, Baña nor dator emen? Laurentzi ta bere siniskea? Ara, bai nire adiskide zar Binixa'tar Solani be!

LAURENTZI, YESIKE ta SOLANI aurrera.

BAS.—Laurentzi ta Solani, ona ondo etorriak. emengo nire eskubide yaio-barriak zuoi ondo etorria agintzeko eskubiderik ba'dau... Zure baimenaz, Portze kutun, ondo etorria nire adiskide-adiskide ta erritarroi.

PORTZ.—Bai neuk be, ene yaun; guztiz dira ondo etorriak.

LAUR.—Eskerrik asko adeigarri orreri.-Nire asmoa, ene yaun, etzan zu emen ikustea; baña bidean Solani'kin trikitx eginda, onek,

otoi-bai-otoi, beronekin ona etorteko eskatu eustan.

SOL.—Bai, olantxe da, ene yaun, eta ba-dot orretarako biderik. Andoni yaunak zure eskuetan yarten dau bere burua. (BASANI'ri idazki damotso).

BAS.—Idazki au nik idigi-aurretik esan, arren, nire adiskidea nolan dabilen.

SOL.—Ez gexorik, ene yaun, gogoz ez ba'da; ezta onik be, gogoz ez izatekotan. Idazkiak berak iragarriko dautzu a nolan dagon. (BASANI'k idazkia irakurten daragoio).

GARTZ.—Nerixe, iragarri zure maitasuna erbestetar neskato orreri; emon zure ondo etorria.-Ire eskua, Solani; ze barri Binixa'tik? Nolan yabilk errege-antzeko saleroslea, Andoni ona? Ba-yakiat gure zori ona dala-ta a pozik egongo dana. Yason'ak gozak gu; guk irabazi yoagu ardi-narrua.

SOL.—Ak galduko ardi-narrua irabaziko al zenduen!

PORTZ.—Barri mingarrien batzuk dakaz orrako ingitxo orrek; Basani'ri mosuko margoa ostuten dautsoen barri mingarrien batzuk; adiskide mamien bat il yako, ostean ludiko beste ezek eleukean olan aldatuko gizon aldagatxaren barrua. Arean txarragoren bat, eta zure baimenaz, Basani: ni zure erdikina naz-eta, orrexegaitik, ingi orrek ekarri leikeanetik erdia be nire da.

BAS.—Portze kutun, iñoz ingirik lorrindu leíkien itz naibagegarrietarik banaka bat emen dozu! Ondera maitagarri, eguño lenengoz nire maitasuna iragarri neuntzunean nire ogasun guztia nire zanak zear ebilen odola zala esan neuntzun; aitonen seme nintzan ni; ta orduan egia esan neuntzun; eta orraitiño, andera kutun, zeuk ikusiko dozu, nire burua ezertzat etsi ez-eta, ni nolango arroputz agertu nintzan. Nire ondasunak utsa zirala esan neuntzunean, ni utsa baño gitxiago nintzala esan bear neunskítzun; eta izan be, ni adiskide maiteri lotu naiako. ta nire adiskidea aren arerio gorriari lotu dautsat, olan nik yateko. Emen dozu idazkia, andera; ingia nire adiskidearen soña langO da-ta bertako itz bakotxa, zauri ago-zabal, bizitza-odola dariona. Baña, egia ete dok, Solani? Aren ogasun-bíde guzti-guztiak uts egin ete yoek? Zer! Bat be ez ondo urten? Tirpoli'tik eta Mexiko'tik; Lisboa, Barbari-erri, ta Indietatik? Ontzi batxo batek be ez ete yok ondo urten salerosketa-ondatzalle diran arkatxen ukutu bildurgarrietatik?

SOL.—Batek bez, ene yaun. Ganera, agiri danez, arako Yudarrari dirua zorrean artu eutsanean bererik izan ba'IIok izan, eleuskion artuko. Eguño etxoat ezagutu izan aurrekoa ondatzeko ain zorrotz eta leiati izan leitekean giza-antzeko izakirik. Gau ta egun eske ta eske dagoko dukeari; eta zuzena emon ezpa'dagioe, legerriaren azkatasuna gal-bidean iminten dau; gizon oneri bere setatik alde eragiteko, ogei salerosle, dukea bera, ta erriko andikírik urtenenak iñondiko aleginak burutuak yatzuz, baña alperriko izan dira gizon orreri burutik bere galen, zuzentza ta zor-agiri-eskea aterateko.

YESIK.—Akin bizi nintzanean neuk entzun neban Tubal'en aurrean zin egiten Andoni'ri zorrean emona ogei bider baño gurago ebala Andoni'n aragia; eta ondo dakit nik, ene yaun, legek, Agintarik, naiz indarrek galazo-ezik, Andoni errukarria gorriak ikusteko dana.

PORTZ.—Zuon adiskide mami ete da olango galzorian dagona?

BAS.—Nire adiskiderik maiteena; edonorentzako gizonik maitagarriena, adei egiten lerarik oneneko ta asper-ezineko gogoa: eta beragan beñolako Erromarren adeigarritasuna Itali'n arnasea artzen dauen beste edozeinegan baño agiriago Iurmentzen da.

PORTZ.—Zenbat zor eta dautsa Yudarrari?

BAS.—Nire aldetik, iru milla duket.

PORTZ.—Ba! ez geiagorik? Sei milla ordaindu egiozuz, eta banatu zor-agiria; beste ainbestetu sei milla, ta gero ori sei bidertu, olango gizonek Basani'n erruz buruko ulerik galdu baño len. Beinen, zatoz nikin elexara ta zure emazte deitu nagizu, ta, urren, Binixa'ra, zura adiskideagana, iñoz be gogo artegeaz Portze'n aldamenean etzara etzango-ta. Urrerik izango dozu zor pitin ori ogei bider ordaintzeko aña be; ordaindu dagizunean, ekarri ona zeukin batera adiskide yator ori. Bitartean nire otsein Nerixe ta ni neska-alargunak legetxe biziko gara. Yoan, yoan; emendik zure ezkontza-egunean alde egiten dozunazkero, emon ondo etorria 2ure adiskideai, gogo-argitasuna erakutsi; askoz erosi zaudazanazkero, asko maite izango *zaudaz.* Baña dantzudan zure adiskide kutunaren idazkia.

BAS.—(Irakurri dirakur) "Basani kutun, nire ontziak guztiak dira urpera yoanak, niri zorrean emonak eztabe errukirik, nire ogasunak urri-urri dira. Yudarrari zor dautsadana ordaindu-bearrean nago; eta ordaintzekotan, ni ezin bizi naitekenazkero, zure ta nire arteko zorrak kitutuak dira, ni il-au-

rretik zu ikusterik ba'litz; au ta guzti be, gogoko yatzuna egin; zure maiteak zu ona etorteko indarrik egin ezpa'dagitzu, ez al dautzu egingo idazki onek be".

PORTZ.—Maite orrek baztartu egizuz beste arazo guztiak, eta zoaz.

BAS."—Yoateko zure baimen ona ba-dodanazkero, iraduz yoango naz; baña ni atzera ona-arte, oerik ezta izango ni an yarraitzearen errudun: atsedenek ez al gauz alkarregandik bananduko. (Alde dagie).

IU AGERLEKU.-BINIXA. Etxartebide.

SAILOK, SALARIN, ANDONI ta Baitegizai auirera.

SAIL.-Baitegizai, yagoik ori. Ez aitatu niri errukirik.- Au dok dirua zorrean utsean emoten eban ergela,- Yagoik au, baitegizai.

AND.—Entzun nagik bein, Sailok on.

SAIL.—Nik nire galena bear yoat; ez egin itzik nire galenaren aurrka. Ni zin eginik naiagok nire zorr-agirikoa artzeko. Orretarako bide-barik, ik ni txakur deitu nindukan; baña txakur nokanazkero, zur ibili nire aginekaz; dukeak emongo yaustak zuzena.- Baitegizai txarri, nik etxakiat i zegaitik urteten azan orren gogoz orren esanera ta orreri lagun egiteko.

AND.—Entzun nagik. arren.

SAIL.—Nik ire zor-agirikoa bear yoat; eztauskat egingo yaramonik. Nik nire zorragirikoa bear yoat; eta ez egik geiago itzik egin. Ni enok izango ergel bigun begimotel, burua makurtu, asperen egin eta kistar bitartekoai men egiteko. Ez akit etorri yarrai; ez etorri nigana itzakin; nik nire zoragirikoa bear yoat. (Alde dagie).

SALAR.—Eguño gizon-artean izaniko txakur txatxarrik bigun-ezinena dok ori.

AND.—Geldi itxi egik; enaiakok geiago yarraiko alperriko eskariz. Nire biziaren billa yabik ori; orren zegaitia ondo ezagun yoat; negarrez etorrita, nik orren galenetatik amaika yarei izan yoadaz; orregaitik yaustak orrek gorroto.

SALAR.—Ni eskier naiagok dukeak eztauela iñoz be onetsiko galen ori.

AND.—Dukeak ezin galazo leio legeari biderik. Eta izan be, nikin legea bete-ezik, emen Binixa'n euren ondasun eta irabazpideak gukin batera dabezanak eleukie yarriko entziterik edo uste onik Iegearen zuzentzean; eta gure erriko ar-emona ta irabazia guztitariko lege-erriena da. Oa, ba; naibaga ta galtzeokaz lur yota ta etsita naukak-eta, azurretan nekez geldituko yatak libera bat aragi niri dirua zorrean emonarentzat... Ondo dago, baitegizai; aurrera.-Eskatu Yaungoikoari datorrela Basani, aren zorra ordaintzen ni ikusi nagian, eta orrekin asko dot (Alde dagie).

IV AGERLEKU.-BELMONTE. PORTZE'neko gela.

PORTZE, NERIXE, LAURENTZI, YESIKE ta BALTAZAR aurrera.

LAUR.—Andera, diñodan au zure aurrean esan-arren. zuk yainkotiar adiskidetasunez dozun bulkoa garaiko ta egiazko da, zure yauna emen ez egotea adoretsu eroanez ori ondo iragarten dozu-ta. Baña zuk ba'-zenki nolango gizonari egin dautsazun adeiagiri ori, zelango benetako yaunari bidali dauísazun laguntzea, nire yaunaren nolango maitale zintzo dan, ba-dakit on-egite utsak sortuazokoa baño arrotasun andiagorik somatuko zeunkela zeugan.

PORTZ.—Eguño etxat damutu on eginik, eta orain be etxat damutuko; eta izan be, euren buruak buztarri bateri buztartuak dira-ta, alkarrekin itz egin eta asti-aldiak alkarrekin emoten dabezan lagunen artean nai ta nai ez izan bear dau zelango edo alango bardintasunak: arpegi, ekandu ta gogo- bardintasunak; eta emendik ateraten dot Andoni ori, nire senarraren adiskide mami eí da-ta, ezinbestez, nire senarraren antzeko izango dala. Olan izatekotan, neure gogoaren irudia su-lezako gogorkeri latzetatik aterateko gitxi be gitxi eralgi izan dot! Nik esanetik nire burua zuritzera bide gitxi dago-ta, ez geiagorik onetaz; entzun orain beste zerik, Laurentzi; nire yauna atzera ona-arte ire eskuetan iminten yoadaz nire etxaldeko nagusitasuna ta ardurea; ni nire aldeiik, zerua begira, ixilpeko agindua zinbidez egina nok, Nerixe'z beste lagunik eztodala, onen senarra *ta* nire yauna *atzera* etorri-arte otoitzari ta gogo-geiai eragote-

ko; emendik milla biko bidean lekaime-etxerik ba-dago ta an biziko gara. Nire maitasunak eta egin-bearren batek eragingo agindu oneri ez al dautsazu ezetzik erantzungo-

LAUR.—Andera, zure agindu zuzen guztiai biotz osoz men egingo dautset.

PORTZ.—Nireak nire gogoa lendik dakie-ta, zu ta Yesike Basani yaunaren eta nire ordeazkotzat autortu ta ezagutuko zauez. Agur, ba, barriro alkargana-arte.

LAUR.—Asmo zuzenak eta aldi atsegingarria lcigun bekitsuez!

YES.—Andera, nik biotzeko atsegin oro opa dautzut.

PORTZ.—Eskerrik asko zure gurariagaitik, eta biotzez beste ainbeste zuri; agur, Yesike. (YESIKE ta LAURENTZI'k alde).

Orain. Baltazar, i beti zintzo ta zindo izan cz-eta, aurrentza be olangoxe izango al az. Artu egik idazki au, ta gizonek egin leienik eta arinen egik emendik Padoba'rako bidea; idazki au nire lengusu Belari Irakaslearen eskuetaratzen alegindu agit; eta, begira, ak emongo dauskazan ingi ta yantziak albait arinen ekarri egizak, arren, Binb:a'ra yoan-etorria egiten dauen ontziaren urbide-burura. Ez galdu astirik iñogaz aututan, beingoan yoan baño; an izango nok ni i baño len.

BALT.—Andera, bear añako iraduz yoango naz.

PORTZ.—Bizkor adi, Nerixe; ik oraindik ez dakinan egitekoa yaukanat esku-artean; eurak uste baño len ikusiko yonaguz gure senarrak.

NER.—Ikusiko ete gabez?

PORTZ.—Ikusiko gabez, Nerixe; baña gure yantziak guk eztoguna ba-dogula sinistu eragingo dautse. Zeuk zer-gura egingo dautzut, gu gizon gazte antzera yantzi gadizanean. uaietz emon nik gu bíotarik liraínen. nire ezpatatxoa baietz eroan gatzik andienaz eta baietz abots latzez itz egin mutikoak mutiltzerakoan lez; baietz oinkadatxo bi gizon-oinkadatu; baietz erago burrukez, gazte lerden arroputz-antzera; baietz esan iñondiko guzur bakanik: entzute oneko anderak, maite-minak yota, nire billa ibili dirala, nik ezetza emon dautsedala, eta, gexoturik, il egin dirala. orrenbeste ezin iruntsita; olangorik egin izana damutu egingo yat, eta aik nigaitík ez al ziran ilgoren guraria iragarri, eta onango eskubete guzurtxo esango dot, eta gizonak zin egingo dabe ni irakastegitik urten nintzanetik urtebete baño geiago dala... Onango arroputzak erabilten dabezan amaika okerreri ta arropuzkeri ba-dot nik buruan, eta eurak erabilteko gogo dot.

NER.—Zer, gizondu egingo ete gara?

PORTZ.—Utikan! Eta orregaz zer, gizon-lizunkeririk egin-ezik? Baña goazen; zugaztiko ate-ondoan dagon nire burdiratu gadizanean azalduko dautzut nire asmo osoa; bizkortu, ba, gaur ogei millako bidea iruntsi bear dogu-ta (Alde dagie).

V AGERLEKU.-Lcngoxea. Igali-zugazti.

LAUNTZELOTA ta YESIKE aurrera.

LAUNTZ.—Bai, benetan; begira, aitaren obenak seme-alaben ganera-bearreko dira-ta; au dala-ta, ekizu, bildur dautzudala. Ni beti izan naz zukin xalo, ta olantxe azaltzen dautzut oraintxe be nire artegatasuna; nasai ta gogargi zagoz, ba; egia esateko, nire ustez, gaiztetsia zara-ta. Zuri on egin leikitsunik zer bat bakarra da, eta orixe be itxaro sasi-kume baño etxatzu.

YES.—Eta ze itxaro da ori arren?

LAUNTZ.—Ba! Zu zure aitak sorturik etzareanaren itxarotxorik izan zeinke; zu etzareala Yudarraren alaba.

YES.—Orrako ori iíxaro sasi-kume edo olangoren bat dok izan be; orrazkero, nire amaren obenak etorri bearko leukie nire ganera.

LAUNTZ.—Orrazkero, ni benetan naz bildur zu aitak eta amak, biak gaiztetsia zareala; olan, Eskila (17) zure aitagandik alde eginarren, Karidi (18) zure ama yoten dot: ara, bata naiz bestea yo, galdua zara.

YES.—Nire senarrak aterako nau onik; kistar egingo nau ak.

(17) Eskíla ta Karidi Italia ta Sikili bitarteko itxas-bedarruneko uretan euren buruak ur-ganera ateraten dabezan aitz bi dira; Eskila itali-alderago dago, Karidi Síkili-alderago. ltxas-bedarrune orretan urak aurrera-bidea indar edo oldar andíz egiten dau-ta, ura ontziaren yabe egiten da ta, sarrí-sarritan, arkaitz bata ezpa'da bestea yoazoten dautso bide atatik doan ontziari. Ikus Enearena III, 410-433.

(18) Ikus (17).

LAUNTZ.—Orrexegaitik erru geíago ak; lendifc gintzazan kistarrik asko, alkarren ondoan ondo biziteko aña ta geiago. Kistar egite onek txarriak karutu egingo dauz; guztiok txarriki-zaietu ba'gadiz, laster eztogu izango txarriki-giarrarik diruz erosita burduntzian erreteko.

YES.—Launfzelota, nire senarrari esango yautsat ik zer esan dokan,- emen yatok bera.

LAURENTZI aurrera.

LAUR.—Launtzelota, laster iri espa txarra izango dauskat, nire emaztea okoluetara ba'daroak.

YES.—Ez, Laurentzi, eztozu zetan izan gure bildurrik; Launtzelota ta ni landan gara; argi fa garbi dirausf onek nifzako errukirik eztala zeruan, Yudar-alaba nazalako; eta zu etzareala erri-seme on, yudarrak kistaríuaz txarrikia karutu egilen dozulako.

LAUR.—Ik emakume baltzaren sabela azieraginaz baño obeto erantzungo yoat nik orretaz; í, Launtzelota, íre umea yok emakume baltzak.

LAUNTZ.—Asko ba Baltza bide dan baño andiago izatea: baña emakume izen oneko baño gitxiago ba'da, nire egiterako arlu nebanean baño geiago da.

LAUR.—Bai asmau ergelak izkirimiri ta itzyokorik! Nire ustez, gesu baten adimen zorrotzaren gatza ixil-bearrean yarriko da, ta loroen txatxukeriak bakarrik izango dira goragarri. Barrura oa, yauntxo; bazkaltzeko gertau dadizala esaiek...

LAUNTZ.—Ori eginik da, yaun: guztiak dira urdalladun.

LAUR.—Yaungoiko on! a zelango izkirimiriontzi augun i! Orrazkero, bazkaria gertau dagiela esaiek.

LAUNTZ.—Ori be eginik da, yaun; estali da itza, ez besterik.

LAUR.—Estaliko dok, beraz, yaun?

LAUNTZ.—Ezta ori be, yaun; nik ba-dakit nire egikizuna.

LAUR.—Egokitasuna gazko aiko-maiko geiago oraindik! Ire buru-zorroztasun osoa une baten erakutsi gura ete dok? Arren-baiarren, gizon bakuna bere esan-gura bakunez ulertu egik: oa ire lagunakana; esaiek maia mai-zapiz estali dagiela, okelea yatokira ekarri dagiela ta gu an gareala bazkaltzeko.

LAUNTZ.—Maiaz, yaun, barruan orniduko da; okeleaz, yaun, estaliko dogu; zuok barrura bazkaltzen yoateaz, yaun... ba, zuon gogaldi ta buruaren aginduz bedi, (Alde dagi).

LAUR.—Egokitasunaren eder! Orren itzen egoki! Ergel orrek bere oroimena koikobete itz onez bete dau; eta nik ba-dazagudaz leku obean bizi diran ergel bat baño geiago, orrena langoxe zer edergarria izan-eta, izkirimiri-itzen bat dala-ta, aurrekoari eupadea yaurtiten dautsoenak... -Nolan zagoz, Yesike? Eta orain kutun on orrek, emon zure eretxia.-Ze eretxi dozu Basani yaunaren emazteaz?

YES.—Itzik ez bera goratzeko. Bizitza zuzena dagoko Basani yaunari; bere emaztea arentzako alango onespena danazkero, zeruko pozak ludi onetan aurkitzen dauz-eta; eta ludian ori aintzakotzat artu-ezik, zeruan zuzenez iñoz be eieuke bear lekurik. Ara, yainko bik zeratar nor-geiagoketarik ba'lebe, saritzat lurreko emakume bana izentau, biotarik bata Portze dala, sariak bardintzeko Portze'ri ez, besteari zerbait erantsi bearko litzakio, ludi gaxo-beartsuak Portze langorik eztau-ta.

LAUR.—A emaztetzat dauena añako nozu senartzat.

YES.—Ondo dago; baña eskatu orretaz be nire eretxia.

LAUR.—Gesu baten eskatuko dautzut; lenen, bazkaltzera goazen.

YES.—Ederto, baña gogo dodan-artean zu goratzen itxi egistazu.

LAUR.—Ez, arren; mairako autugai bedi ori; orduan, zuk edozelan ítz egin, beste zerakaz batera ausiko dot.

YES.—Ondo dago, aurrean yarriko zaudaz, (Alde dagie).

IV EK:ITALDI

I AGERLEKU.-•BINIXA. Epaitegi.

DUKEAK, Andikiak: ANDONI, BASANI, GARTZEN, SALARIN, SOLANI ta beste batzuk aurrera.

DUKEAK.—Zer, Emen ete da Andoni?

AND.—Gertu, zure guraria egiteko.

DUK.—ire erruki nok; arrizko areriori erantzuteko etorri az, bioz-bako zital, errukirik izateko gei eztan, errukiaren izperrik be eztauenari erantzuteko.

AND.—Zure biotz onak ak artuko bide gogorra biguntzeko iñondiko aleginak egin dauzala entzun dot; baña a berean gogorturik dagonczkero, ta ezetariko lege-bidek aren areria eltzen dan baño arago ezin imini nauenazkero, nik aren asarre biziari epez erantzuten dautsaL eta aren gogorkeri ta asarre bizia gogo-bare yasateko gertu nago.

DUK.—Boa bat, eta dei egin begio Yudarrari epaitegira.

SOL.—A gertu dago atetan; ba-dator, ene yaun.

SAILOK aurrera.

DUK.—Leku egin, eta zutunik eta guri arpegiz-arpegi bego. Sailok, munduck uste yok eta bai neuk be, ik ire zitalkeri dalako ori ekinaldiaren azkenengo ordura-arte erakutsi gura dokala, eta bein une ori elduazkero errukia ta damua erakutsiko dozakala, eta orain darakuskan ankerkeria bakan ba' dok, ustez, ik egingo dokana are bakanago izango ei dok; eta orain i salerosle errukarri onen libera bat aragizko galena iri emonazotera ba'ago, gero, galena utsean itxi ezeze, giza-biozpeiatasunak eta maitasunak iri biotzean ukutua eginik, asierako zorerdikina asketsi egingo dautsakala, orreri oraintsu bizkarreratu yakozan galtze andiak ik erruki-begiz begíraturik; eta izan be, galtzeok asko dozak gizonik bulartsuenari adorea kendu ta lurra yoazoteko ta adei-egikizun samurreíara eguño eginak ez diran Turkar eta Tertaritar setatsuen burdinezko barru ta suarri gogorrezko biotzetatik be errukarri orren alde errukia erakusteko. Gu zure erantzun atsegingarriaren begira gara.

SAIL.—Nik zure adeigarritasunari lendik dot esanda nire asmoa; eta gure baDDath gurena-arren zin egina nozu niri zor yatana ta zor-agiriko gaiena eskuratzeko. Zuk ori ukatu ba'dagizu, boa gaibidea zure agintza-Dizkarrera ta lege-erri-azkatasun-bizkarrera; ba-leiteke zuk niri itandutea zegaitik dodan gurago aragi ustel orretatiko iibera bat aragi, iru milla duket artu baño; nik orreri ez erantzungo besterik, gogoak emona yatala bano. Erantzun ete dot? Dagigun etxean arratoien bat dodala ta bera edenez ilte-arren amar milla duket eraltea datorkidala burura. Erantzun dot? Batzuk iguin dautsoe agoa zabalik dagon txarriari, beste batzuk, katurik ikusi ba'dagie, zoratu egiten yake; beste batzuk, euren surretan zarrabetea yo ba'dagizu, txiz-estuari eutsin-ezinik yarten dira; eta izan be, biotz-igibideak, biotz-igikunen yabe da-ta, berak zer maite dauen edo zeri iguin dautsan, atara bultzatzen dauz biotz-igikuneak. Orain, zuri erantzutekoagazko, urliak zegaitik ezin ikusi áauen txarria agoa zabalik; zegaitik berendiak ezin ikusi katu bearreko ta kaltebagea; zegaitik sandiak ezin ikusi zarrabete puztua, ta bai oben egin bere burua ta aurrekoak lotsariz beteta; egiteon zegaiti argi ta eskierrik ezin emon leitekean lez, nik be ezin emon neinke zegaitirik, eta emon gura be eztot; gorroto zarra, ta iguina dalakoa baño geiago dautsat nik Ondoni'ri ta orregaitik artu dot auzi galbidetsu au orren aurka. Erantzun ete dautzut?

BAS.—Gizon biotz-gogor, ori eztok erantzunik, ire ankerkeri-uriola zuritzeko.

SAIL.—Ni enaiagok bearturik ire gogoko erantzunik emotera.

BAS.—Gizonak oio ilten ele yoek maite ez dabena?

SAIL.—Iñok gorrotorik ete yautsok il gura eztauenari?

BAS.—Irain oro ezta gorroto lenengotan.

SAIL.—Ba! Sugek iri bigarrenez usigitea gura dok, ala?

AND.—Arren! Yudarrakin eztabaidan daragoiok? Bardin litzakik yoan itxas-bastarrera ta andik itxasoari oi dan baño azalago izateko agindu; bardin litzakik yoan otsoagana ta itandu ia zegaitik ardiari gedai era-

gin dautsan asuriari deiez; bardin litzakik axe-boladeak artegatuko mendi-lerrai euren buru yagiaí eragin eta zaratarik ateratea galazo; bardin litzalák orren biotz yudarra beratzeko bearko litzaken añako zer gogorren eta latzenak egin; eta izan be, zer orren biotza baño gogorrago ta latzagorik? Au dala-ta, arren-bai-arren, ez opatu geiagorik, ez artu beste biderik, eta bai lenbaño-len eta egoki danez niri epaia ta Yudarrari berak gurea emon.

BAS.—(SAILOK'i) Ire iru milla duketen ordez autsoz sei milla.

SAIL.—Sei milla duketeko bakotxa zazpi zati egingo ba'litz, eta zati bakotxa duket oso izan, eneunkez artuko; nik nire zor-agirikoa gurako neunke.

DUK.—Euk iñori errukirik izan-ezik. nolan itxaroko dok errukirik?

SAIL.—Zuon artean yopu erosi asko dozusz, eta zuok erosiak diralako lanik apalen eta berengoetan erabilten dozuez, zuon asto, txakur eta mando bailiran. Eurak yarei ta zuon etxagun-goiekin ezkontzeko esango ete dautzuet? Zegaitik dabiltzan izerdi-bitsetan zamearen zamaz lertu-bearrean? Euren oeak zuonak langoxe aztin-bigunak, eta euren yakiak zuonak langoxe ago-sapai-gozagarri izan dadizala? Zuon erantzuna au izango da: "Gure dira yopuak"; orixe da nire erantzuna be: ni eske nagon okela-liberea be karu erosia dot, neure da, ta neutzako bear dot. Ukatu ba'dagistazue, agur zuon legea! Binixa'ko aginduak eztabe indarrik. Epaiaren begira nago; erantzun; emongo eie daustazue?

DUK.—Nire eskubideari dagokionez, epai-batzar au banatu egiten dot, auzi au ebazteko deitu dodan legegizon yakintsu Belari gaur berean ona eldu ez ba'dadi.

SOL.—Ene yaun, or landan dago, Padoba'tik etorri-barri, Lege-Irakasle orren idazkia dakarren geznari.

DUK.—Ekak idazkia; dei egiok geznariari.

BAS.—Poztu adi, Andoni: gora, gizon, ez galdu oraindik adorerik. Ik odol-tantan bat galdu baño len, nire aragia, odola, azurrak eta dana izango yok Yudarrak.

AND.—Ni artaldeko aari nabar irendua nok, ilteko gizendua; igalirik makalena yalgiten dok lenen eta olan yalgiko al nok ni be. Itzako, Basani, oraindik bizirik yarrai ta nire il-obi-ganekoa idaztea baño egiteko oberik etxagok.

NERIXE aurrera, legegizon-idazkari yantzita.

DUK.—Padoba'tik, Belari'gandik zatoz, ala?

NER.—Batetik eta besteagandik, ene yaun; Belari' n gorantziak zutzako.

BAS.—Zer dala-ta zorroztuten dok ire aiztoa orren gogatsu?

SAIL.—Orrako porrot egin orreri galena ebateko.

GARTZ.—Yudar anker, ik ire oski-soruan ezeze ire biotzean be zorroztu dok aiztoa; baña ire areria zorrotza añako metal zorrotzik etxagok, ezta giza-iltzalleren azkorarik be. Ez ete ori zulatzeko otoitzik?

SAIL.—Ez; ik orretarako dokan buru-zorroztasuna baño geiagorik.

GARTZ.—Gaiztetsia adi, txakur amurratu ori! eta i biziagaitik salatu bedi zuzentzea. Ik, larri-larri, nire sinistearl ikara eragiten dautsak, eta ni Pitagoras'en (19) eretxiaren aldeko egin. Onek abereen gogoak giza-soñetara alde egiten dauela yiñok; ire txakur txatxar-gogoa otsoen baten yaun eta yabe izana dok, eta gizonak ilte-arren eskegita, eskegita egoan lekutik be aren gogoak egaz egñn, eta i oraindik ire ama dongearen sabelean intzalarik ire barrura sartu zoan, ire lera ta gurariak otsorenak, odolzcleak, goseak ilak eta salo utsak dozak-eta.

SAIL.—Nire zor-agiriko ikurratza igurdika manatu-arte, ik zaratearen zarataz ire biriak ondatu baño eztok egiten. Barriztau egik ire buru-zorroztasuna, gazte on, ostean gauz eztala ta osatu-ezinik geldituko dok-eta. Nik emen legea eskatzen yoat.

DUK.—Belari'n idazki onek epaitegi onetarako lege-gizon gazte-yakituna artzeko eskatzen dausku. Non da bera?

NER.—Emen onen baten dago begira, artuko dozun ala ez zure erantzunaren begira.

DUK.—Biotz-biotzez artuko dogu; zoaze irulau, *a* ona adeiz ekarri dagizuen; bitartean, epaile-batzarrak Belari'n idazkia entzungo dau.

(Epaitegi-idazkariak irakurri dirakur). "Ekizu yaun orrek zure idazkia artzerakoan ondo-ezik aurkitzen nazala; baña zure agur

(19) Pitagoras (582-? K. A.). Elendar yakintsu; Samos'en yaio zan. Gitxi gora-bera, 529 K. A.'tiko urtean Itali'ren beoldeko Krotona urian yarri zan biziten, eta an irakastegi edo lagungorik irasi eban, eta irakasteqi au erdi yauresteaz, erdi yakintzaz izan zan.

Giza-gogoa il-ezintzat eban, eta ílen qogoak beste soñen batzuetara aldatzen zirala uste ta irakatsi eba.n, bein soña ilazkero alperkeri utsean ez biziteko.

biotzekoa ekarren zure geznaria gurera sartu zanean, egin-eginean be ementxe aurkitzen zala Erroma'ko lege-irakasle gazte, Baltazar izenekoa; Yudarra ta Andoni'ren bitarteko auzia azaldu neuntsan nik; bion artean guk idazti asko eskuartean erabili ta aztertu genduzan; nire adiskide da ori, ta oneri guk azaldu-ezineko bere yakituria erantsita, or doatzu nire eretxia orrekin eta orrenakin batera, nire eskarien eskariz zuk niri eskatuko egitekoa nire ordez orrek egiteko; orren urteen urria ez al da izango eragozperúk zuk orretaz uste ezin-obea izatskc, eguño nik olango soin gazterik buru zarreri deutsola eztot ezagutu-ta. Or dozu bera. zuk adeigarri orrek artzeko, bere arbiderik onena bere epaia izango da-ta".

DUK.—Entzun dozue Belari yaun yakitunak idazkiz zer diñon; eta nire ustez, emen da lege-irakasle ori.

PORTZE aurrera, lege-irakasle yantzita.

Ekak esku ori: Belari zarragandik atorku, ala?

PORTZ.—Bai, ene yaun.

DUK.—Ondo etorria augu; yezarri ire tokian. Bai ete dakik zegazko dan esku-artean dambilgun auzi-mauzi au?

PORTZ.—Auzia ondo be ondo dazagut. Zein da emen saleroslea, ta zein Yudarra?

DUK.—Andoni ta Sailok, biak dozek emen ire aurrean.

PORTZ.—Sailok dok ire izena, ala?

SAIL.—Sailok derist.

PORTZ.—Ire auzia bakanetan be bakan dok, baña ik artuko bidea Binixa'ko legeak ezin txarretsi leikeanc dok. (ANDONI'ri) Orrek i galdukoren bidean ago i, eztok?

AND.—Bai, orrek beintzat olan diño.

PORTZ.—Autortzen dok zor-agiria?

AND.—Bai, ba-dautort.

PORTZ.—Orrazkero, Yudarrak errukior izan bear dau.

SAIL.—Zek beartuta erakutsi bear ete dot errukirik? Erantzun oni.

PORTZ.—Errukia eztok indarrez erabiltekorik; zerutik lurrera euri samurra legetxe yausten dok; birritan dok onetsia; artzen dauena ta emoten dauena biak onesten yozak; indartsuenik indartsuena dok; bere yarlekuan yezarrita dagon erregeri buruan daroan burestuna baño egokiago yatorkok; bere agintza-makilleak lurreko agintza-indarra diragar, itzalaren eta nagusitasunaren agiria dok, eta or yagok egon be erregeri yakon itzal eta bildurra; baña errukia makilladun agintza au baño goragoko dok, onek bere errege-yarlekua erregeen biotzetan yok eta Yaungoiko beraren ezaugarri dok; eta lurreko aginpidea, zuzentzea errukiak beratu ta gozatzen dauenean dok Yaungoikoarenaren antzekoen. Orrazkero, Yudar, ik zuzentzea eskatu-arrén, au ausmertu egik: Zuzentzabidez ez gareala yareiko; errukieske gabiltzak gu, eta eske orrek errukieginenak egiteko irakasten yauskuk. Ik ire eskakizunaren zuzena biguntzeko nik esana asko dok; eta nire esan au egin ez ba' dagik, Binixa'ko epaile-batzar estu onek, besterik ezinez, orrako salerosle orren aurka emon bearko yok epaia.

SAIL.—Betoz nire buru-ganera nire eginak. Lege-eske nago ni; nire zor-agiriko zigor eta galenaren eske.

PORTZ.—Ezin ordaindu ete yok dirua?

BAS.—3ai; ementxe epaitegi onetan nagoko opaka; bai, eta zor yakona langa bi opatu be; ori asko ezpa'da, ori amar bider ordaintzeko neure burua beartuten dot, eta galentzat nire eskuak, nire burua, nire biotza eskeñiko dodaz; au be asko ezpa'Iedi, zitalkeriak egia ostikoperatu bear daueia agertuko da. Nik auxe eskatzen dautzut: indar egin bein legeari, zure aginpidearen alde, irain txikiri zuzentza andiz erantzuteko ta txerren amurratu oneri burua makurtuazoteko.

PORTZ.—Olangorik ezin leike; Binixa'n eztago bein yarriko legerik aldatu leien agintzadunik; olangorik egitekotan, gero yarraigarritzat artuko leukie ta, ori dalata. oker andiak letorkioz lege-erriari; olangorik e2in leike.

SAIL.—Danel (20) dogu epaitegian! Bai, Danel barri! Epaile gazte onen zur! Zure aurrean txapela erasten dot!

PORTZ.—Itxi egistak, arren, nire begiak zor-agirian yerten.

(20) Danel, Ebertarren igarle nagusietankc. Ebertarrak Babiioni t;i banmeko urietan e'besteturik bizi ziranean, euren eta euretar;ko epaile gaizto bik Susane. Yokin'en emazte gazte-liraina, guzurrez salatu ta eriotza--epaia emon eutsoen, euren zantarkeri lizunar; men ez egite-arre.n. Emekurne zindo-garbi au eriotzara eroela, Dane) igarlea aren alde yagi, epaile lizunak erriaren aurrean banazemi aztertu [1]a epaitu ebazan; eia euren ga.ztakoria ta epai makurra zurtasun sakc nez erriaren aurrean immiía Susane yarei ta epaile m-akur-guzurtiak eriotzara bidali ebazan.

SAIL.—Amen bera, Irabasle adeigarri-adeigarri; or dozu.

PORTZ.—Sailok, zor yakana langO iru eskeintzen dauskae dirutan.

SAIL.—Zina, zina; zina dot zeruan, Zinik ausiko ete dot nire gogo-ordez? Ez, ez Binixa osoaren ordez be.

PORTZ.—Ara! Zor-agiri onek galena dau; eta lege-bidez, Yudairak eskubiderik ba-dau saleroslearen biotzaren ondorengo tokitik libera bat aragi ebateko.- Errukior eta biozpera adi! Ar egik iru bider ire dirua; zor-agiria urratzeko agindu egistak.

SAiL.—Diñona bein zeatz beteazkero bai. Agiri danez, zu etzara epaile txarrik; zuk ezagun dozu legea; zure azalpena zindoetariko izan da. Legearen abe izatea ondo irabazita dozu-ta, emon egizu epaia; legearen izenez eta indarrez deskatzut; nire gogoa-arren zin dagitzut eztagola gizonen miñean ni aldatu eragiteko indarrik.-Emen nagotzu ni nire zor-agiriaren alde.

AND.—Biotz-biotzez eskatzen dautsat epaileari epaia emon dagiala.

PORTZ.—Orrazkero, auxe da epaia. Gertau zure bularra orren aiztoarentzako.

SAIL.—Epailearen zindo! Gizon gaztearen bikain!

PORTZ.—Eta izan be, legearen elburu ta asmoak ba-dau zer-ikusirik zigorraz, eta zigorra emen agiri da, zor-agiri onetan.

SAIL.—Egi utsa; epaile zur-zuzen, zu zure arpegiak diragarren baño askozaz zarrago zara!

PORTZ.—Orrazkero, billustu zure bularra.

SAIL.—Bai, bere bularra; olantxe diño zor-agiriak; ez ete diño, epaile zindo?... Bere biotzetik urren; orreik dira ango itzak eurak.

PORTZ.—Olantxe da; bai ete dago emen aragia astatuteko astakinik?

SAIL.—Neuk dot gertu.

PORTZ.—Sailok, ete dok or ire aldamenean ik euk ordainduta ekarriko osagillerik, odolustu ez dadin, zaurietatiko odola gelditu eragiteko?

SAIL.—Olangorik aitatuten ete da zor-agirian?

PORTZ.—Olangorik aitatu ez da aitatzen; baña zer orregaz? Maitasuna-arren orrenbeste egitea ondo legokik.

SAIL.—Ezin dot aurkitu; olangorik eztago zor-agirian.

PORTZ.—Zu, salerosle, ete dozu esatekorik ezer?

AND.—Oso gitxi; ni iskilloz ondo orniduta ta ondo gerturik nago.-Ekak esku ori, Basani; agur! Ez adi naibagetu ni igaitik onenbesteraño yausiaz; oraingoan zoria oi dauen baño adiskideago agiri dok-eta; zoriolt bayakik gizon porrot eginari ogasunai baño luzaroago bizi-azoten, zartzaroko ezereza begiak sakonduta ta bekokia izur-izurtuta erakusteko; eta niri etxaustak emoten olango atsekabe luzerik. Gogora nagik ire emazte zindoaren aurrean eta Andoni'n auzia amaitu dala esan egiok; nik i asko be asko maite indudala esan egiok; eriotza ederra izan dodala esan egiok; eta bein esatekoa esanazkero, beñola Basani'k iñor maite ebanentz berak ebatzi dagiala agindu egiok. Ire adiskidea galtzen dokalako ez egik izan tamalik, berak be ire zorra ordainduarenik etxok-eta. Eta izan be, Yudarrak sakonik asko ebagiazkero, zor ori beingoan eta biotz-biotzez ordainduko yoat.

BAS.—Andoni, nik artuko emaztea nik nire burua *aña* maite yoat, baña bizitzea bera, nire emaztea ta ludi guztia eztozak nitzako ire bizia añako; baí, i yareite-arren dana galdu gura naieunkek, dana opatu ementxe ta oraintxe txerren orreri.

PORTZ.—Ire emazteak eleuskik esker andirik emongo orregaitik, bera emen ba'lego ta eskeintze ori entzun.

GARTZ.—Nik be ba-dot emazterik eta nik maite dot; eta, orraitiño, gurago neunke zeruan ba'lego, an aldunen bategandik Yudar txakur au aldatzerik lortu al ba'legi.

NER.—Eskerrak eskeintze ori emaztearen ostean egiten dokala, ostean etxean ez eunkake bake andirik.

SAIL.—Oneik kistar senar dira; nik alabea dot; gurago neunke nire alabearen senarra kistar baño Barrabas'en leñukorik ba'litz. (SAILOK'ek itzok bere kitean esan dauz) Astia alperrik galtzen gabiltz.- Aurrera epaia, arren.

PORTZ.—Orrako salerosle orren libera bat aragi ire dok; epaile-batzarrak onesten yok eta legeak emoten dauska.

SAIL.—Epailearen zuzen-zuzen!

PORTZ.—Eta aragi ori bularretik kendu bear dautsak; legeak izten dauska ta epaileak emoten.

SAIL.—Epailearen yakitun!... Epaia; goazen, gertau.

PORTZ.—Etxon apur baten; ezta ori bakarrik. Zorr-agiri onek eztauska emoten odoltantan bat bera be; argi ta garbi libera bat aragi diño; artu egik, ba, ire galena, artu egik ire aragi-liberea; baña ebaterakoan kistarodol-tantantxo bat ixuri ba'dagik, Binixa'ko legearen arauz ire lurrak eta ganetiko ondasunak erri-kutxarako dozak.

GARTZ.—Epailearen zuzen!_. Entzun, Yudar; epailearen yakitun!

SAIL.—Legezko ete da ori?

PORTZ.—Euk ikusiko dok agindua; eta izan be, zuzentza-eske ba'ago. ago eskier zuzentzea izango dokala, ta ik gura baño cureago.

GARTZ.—Epailearen yakitun! --Entzun, Yudar, epailearen yakitun!

SAIL.—Orrazkero, eskeñia artzera noa; ordaindu zor-agirikoa iru bider, eta doala kistarra yarei.

BAS.—Eutso dirua.

PORTZ.—Geldi! Yudarrari zuzentza osoa egingo yako; geldi! ez ibili iraduz. Galena bakar-bakarrik emongo yako.

GARTZ.—A. Yudar! Epaile zuzen, epaile *ya*kitun!

PORTZ.—Orrazkero, gertau adi aragia ebateko. Ez ixuri odolik; eta ez ebagi libera bat aragi baño ez geiago, ez gitxiago, libera egin-egina baño; libera bat aragi baño geiago naiz gitxiago ebagi ba'dagik, naiz eta alde ori izpertxorik txikienaren egeirena izan; bai, astakina ule baten lodierea aña alderatu ba'dadi be, ilgo az eta ire ondasun guztiak erri-kutxara yoazak.

GARTZ.—Danel barri, Yudar, Danel barri! Orain, sinistebagako. mokorretatik elduta aukat

PORTZ.—Zer dala-ta dago Yudarra geldi? Ar egik ire galena.

SAIL.—Indazue nire artuen beinena, ta yoaten itxi.

BAS.—Lendik yoat gertu; autso.

PORTZ.—Eztau artu gura izan epai-aldian; zuzentzea ta bere galenaz besterik eztau izango.

GARTZ.—Danel, yiñoat nik oatera be; Danel barri! Eskerrak iri, Yudar; ik irakatsi daustakalako.

SAIL.—Ez ete dot izango beinengo artuena bera be?

PORTZ.—Ire galbide larriz artuko dokan galenaz besterik eztok izango ik, Yudar.

SAIL.—Orrazkero, txerrenak on begio orregaz. Nire egitekoa amaitu da.

PORTZ.—Etxon, Yudar; legeak ba-yok oraindik iri nondik eldu. Binixa'ko legeak agintzen dabenez, erritarreri bizia artez naiz zearka kentzeko asmotan erbestetarrik dabilela, naiz ibili dala argi erakutsi ba'dadi, bizia galtzeko zanak bectearen ondasunen erdia beretzako izango dau; beste erdia lege-erriaren díru-kutxarako izango da, ta, orrez ganera, iraintzallearen bizia dukearen eskuetan gelditzen da, beste inoren esanek indarrik eztauelarik; eta i or ago orretan buru-belarri sartuta. Eta izan be, agiri-agirian yagok ik zearretara ezeze, artez be bere burua zuritzen daragoionaren bizia-ren aurka yokatu dokala; eta i nik]en aitatuko galbide gorrian yausia az. Belaunikatu adi, ba, eta eska egik dukearen arrukia,

GARTZ.—Ire burua eskegiteko baimena eska egik; eta ire ondasunak oro, galenez, lege-erriaren kutxara yoan-arren, orregaz ire burua eskegiteko lokarria be eztok ordaintzen. Orrazkero, lege-erriaren lepotik eskegi bearko dok ire burua.

DUK.—Gugandik zuotara dagon aldea ikusi dagikan, ik eska-aurretik askesten dauskat ire bizia; ire ondasunen erdia Andoni'ren izango dok; beste erdia erriarentzako, baña apaltasunak ori galenaz ordeaztu lei.

PORTZ.—Bai, erriarentzako, ez Andoni'ntzako.

SAIL.—Zer? Artu nire bizia ta guzti, ez asketsi au; nire etxea be ba-daroazu ari deutson abea eroanazkero; zegaz-bizi kentzen daustazunean bizia be kentzen daustazu.

PORTZ.—Andoni, ze erruki izan ziñeio orri?

GARTZ.—Begiztea utsean; besterik ez; Yaungoikoa-arren.

AND.—Zure ta epaitegiko epaile guztien gogoko ba'da, kituturik bedi orren zorra ta zigorra berorren ondasunen erdiaz; nitzat asko da ondasunen beste erdía; bizi nazaño erabili ta ni iltzerakoan orren alabeakin ezkonduko yaunari emotekotan; eta orrez ganera, beste zer bi: esker onegaitik bertatik kistar egin dadilla; eta bestea, ementxe epaitegi onetan izenpetu dagiala agiria, bere eriotza-aldian izan leikezan ondasun guztiak bere seme Laurentzi ta bere alabearentzako izango dirala.

DUK.—Egingo dau ori, ostantxean nik emoneko asketsa utsean geldituko da.

PORTZ.—On eresten ete dok, Yadar? Zer diñok?

SAIL.—On eresten dot.

PORTZ.—Idezkari, idatzi emaitz-agiria.

SAIL.—Emendik alde egiten itxi egistazue; ondo-ezik nago; gero bidali egistazue emaitz-agiria ta izenpetuko dot.

DUK.—Oa, baña egik, gero?

GARTZ.—Kistartzerakoan aitabitxi bi izango dozak: ni izan ba' nintzok epaile, amar geiago eunkabezan i urkamendira, ez uguztegira, eroateko. (SAILOK'ek alde).

DUK.—Yaun, nirera zatoz, nikin bazkaltzeko.

PORTZ.—Askespen-eske nagotzu apal-apal; arrats onetan artu bear dot Padoba'rako bidea; eta oraintxe urtetea yat egokien.

DUK.—Zure astirik ezaren tamala dot. Andoni, eskerrak emon yaun oni, nire ustez zor andi dautsazu-ta. (DUKE, Andiki ta Yarraigokoak alde).

BAS.—Yaun goragarri, zure yakituriak gaur ni ta nire adiskidea zigor astunetik yarei gauz; au dala-ta, zure neke adeitsuen alderako Yudarrari zorreko iru billa duketak gure kitetik damotzuguz.

AND.—Eta orainganik ara batez be zuganako maitasun-zorretan gelditzen gara.

PORTZ.—Asko etsia, ondo ordaindua. Zuok yareiaz ni asko etsita nago-ta, nire burua ondo ordaindutzat dot. Nire gogoa ezta izan eguño orain baño arotzago. Urren nikin trikitx egin dagizunean ezagutu nagizue. Onik yarrai, eta beste barik agur.

BAS.—Yaun maite, nai-ta-nai-ez ekin bear dautzut oraindik; ordaintzat ezean, eskuerakutsitzat artu gugandik; indazuz, arren, zer bi: zeuri, ez ukatzea, ta zuk, niri askestea.

PORTZ.—Lar estututen nozu-ta, amore egingo dot. Indazuz zure esku-zorroak eta zeugaitik erabiliko dodaz; eta zuganako maitetasunagaitik erestun au kenduko dautzut. Ez atzeratu zure eskua; oriz besterik eztautzut artuko; eta maitetasuna-arren ori eztaustazu ukatuko.

BAS.—Erestun au, yaun on.„. ai ene! uskeri utsa yatzu; au emonaz eztot bete gura lotsariz nire burua.

PORTZ.—Oriz besterik eztot gura; eta, nire ustez, orixe bear dodala sartu yat buruan.

BAS.—Onegan berau berez gei dan baño geiago dago; Binixa'n izan leitekean erastunik onena billatuko dautzut, errian dei eginda, ta zuri emon, Onexegaitik bakarrik asketsi, yaun.

PORTZ.—Agintzen eskuzabal zareala dakust, yaun; eskatzen irakatsi daustazu beinen, eta orain, nire ustez, eskekoari zelan erantzun dirakastazu.

BAS.—Yaun on, erestun au nire emazteak emona dot; eta atzean sartu eustanean ez saldu, ez amon, ez galtzeko agindu eustan.

PORTZ.—Euren emaitzak aurreratzeko, akiakula ori gizon askok erabiten dabe. Eta zure emaztea zoro ezpa'da ta erestun au ondo irabazita dodala ba'leki, au niri emote-arren eleuskizu izango betiko areriarik. Ondo dago, bakez zagoz.

(PORTZE'k eta NERIXE'k alde dagie)

AND.—Ene yaun Basani, emon egiok erestuna; orren ibaziak eta niganako ire maitetasuna ire emaztearen agindua baño beinago izango al dozak.

BAS.—Oa, Gartzen, aringa ta goatu egik. Emoiok erastuna; eta ekarrik, al ba'dok, ona Andoni'nera; alde, arin egik. (GARTZEN'ek alde).

Gaioazan, i ta ni bertatik yoango gozak ara; eta goxean goiz biok Belmonte'ra egaz egingo yoagu. Gaioazan, Andoni. (Alde dagie).

II AGERLEKU.-Lengoxea. Etx~rts':i:'e.

PORTZE ta NERIXE aurrera.

PORTZ.—Billatu Yudarraren etxea, emon agiri cu, ta izenpetu dagiala; arratseon alde egingo yonagu ta gure senarrak baño egun bat lenago eldu gurera. Agiri oneri Laurrentzi'k txera argi egingo yautson.

GARTZEN aurrera.

GARTZ.—Yaun lerden, atzenean be goatu zaudaz; obeto ausmertuta, nire yaun Basani'k erestun au bidaltzen dautzu, ta bazkaltzen lagun zakiozala deskatzu.

PORTZ.—Ezina yat ori; aren erestuna gogoz eta esker onez ertzen dot, eta au esan berari. Ganera, erakutsi, arren, gazte oneri Sailok zarraren etxea.

GARTZ.—Egingo dot ori.

NER.—Yaur, itz egin gura neunke zukin; (PORTZE'ri) ia nik be nire senarraren erestuna Iortzen dodan, beti aldean eukiteko zin eragina dot-eta.

PORTZ.—Lortuko don, baietz. Eta gero zin eta zin egingo d.abe erestunak gizonezkoai emon dautsezala. Baña guk arpegi gogorragoa erakutsiko dautsegu, baita eurak baño gogorrago zin egin be.....Oa; arin yoan; ba-dakin non etxongo dausnadan-

NER.—Goazen, yaun on; etxe orretara-bidea erakutsiko ete daustazu? (Alde dagie).

V EKITALDI

I AGERLEKU.-BELMONTE. PORTZE'neko atsegin-landak.

LAURENTZI **ta** YESIKE **aunera.**

LAUR.—**Iretargiak argi be argi dagi! Axeak zugatzai leun-leun mun egin eta eurok zaratarik ateraten eztaben gau au langoxean, nire ustez, Toril'ek (21). Toroi'ko arresien ganetik bestalderaturik, Elendarren txoznetarako bidea artu eban, bere gogoa intzirika ebalarik, Kerside gau atan an etzaneta.**

YES.—**Onangoxe gabaz Tisbe bildurrez eta erdi-tatarrez yoan zan iñontzaren ganetik eta leoiaren itzala leoia bera baño len ikusirik, larrituta igesi egin eban.**

LAUR.—**Onangoxe gabaz egon zan Dide (22) itxaso ezigatxaren ertzean, eskuetan sarats-abarra ebala, ta bere maiteari atzera Kartago'ra etorteko deiez.**

YES.—**Onangoxe gabaz batu ebazan Medea'k (23) Aison zarra zuzpertu eben bedar liluratuak.**

LAUR.—**Onangoxe gabaz igesi eban ixil-muxilka Yesike'k Yudar aberatsagandik, eta maite txiroakin aringa yoan zan Binixa'tik Belmonte'ra.**

(2il) Toril au Pirama Toroi'ko erregeren seme zan. Karside, barriz, Shakespeare'k Kalkas'cn alabatzat dakar, naiz ta Omer'ek Kirsa'rentzat ekarri (Ikus "ILIAS" D. Ba-leiteke Kerside bi izatea. Dana dala, gazte biok maiteminduak ziran eta alkar maite--rra:te ebcn eta laster ezkontzeko asmotan ebiltzan. Onetcn, Toroiatartai elendarren atxilo egoan Antenor buruzagia etxeratzea otuten yakie; elendarrak Aníenor'en ordez Kerside eskatu; egiunea egin da, alde biak onetsita; Antenor Toroi'ra, Kerside e'.endarren txoznetara doa. Toril'ek bere maitea aberria baño maiteago dau-ta, eto bai Kerside'k be berea-ta, asko dozu au or irakurría aituteko.

?21 bis) Tfsbe ta Pirama eguzki-aldeko gazte lerden-lirain bi zíran. Euren gurasoak alkarreri areria itzala eutsen, naiz ta etxez alkarren aldame.nean bizi ta auzoko izan. Etxaldea etxaldetik berezten ebana baratz bicu bitarteko ormea zan; ormeak sasi-artean arrakalík ba-eban; gazte biok alkar maite eben eta gaboro orma-arrakala zear alkarrekin autu gozorik izaten eben, baña okm ix.l-mux:!ka ta gurasoak yakingoaren bildurrez ibiltea eurak latz aurkituta, landako iturri-ondoko masusta-zugazpera yoatea erabagi eben, an bildurga ta nasai itz-asperturik izateko.

Goxean goiz, eguna argitu-aurretik iturricndoan zan T.sbe, soña estaltzeko burutik bera soñik geiena estaltzen eutscn buru--zapi luzea bere ganera egotzita. Oraindik etzan agiri Pirama; laster agertu zan, ostera, nn txaraka-artetik leoi eme bat musturra odolez zikindurik ebala. Leoia ikusiaz bat Tisbe'k an urrean aurki'zen zan artzulorako bidea artu eban eta bidean, ikarearen ikaraz, buru-zapia galdu. Leoiak Tisbe'k galduko burii-za'iv.a "-'in eta erpakaz zuzituta ta odolez loituta itxi eban eta gero txarara alde egin. Geroxeago eltzen *da* arako iturrira Pircima gaztea ta... Tisbe'rik ez an, bai, ostera, ondartzan leoi eta neskuío-oñatzik eía aragoan Tisbe'n buru-zapia txikituta tn odolez loi-loi eginik. Pirama'k orduan bere buruari: "A emendixe, zugatz onetatik yoan dok beste mundura. Zegaitik ez ni ara yarrai? eta an batera bizi?". Au bere kitean esanaz bat, bere buruari ezpata zorro'.za sartzen dautso tn il-aginik dagola elízen yako aldamenera Tisbe. "Lo ete?" diñotso Tisbe'k, baña aldameneraturik, il-aginik dagola dakus. Tisbe'k, etsita, eltzen dautso erabagiz Pirama'ren soñean odol berotan dagon ezpateari ta ezpata-kirtena Pirama' ren soin-ganean kokatuta moko-qanera izten dautso bere soñari, ta gorpu biak alkarren ganean yarten dira.

(22) Dide, Kartago'ko emakumezko errege edo erregeno. Enea ara eldu zanean arekin maitomindu zan eta ak a.ndik alde egiteaz naibage itzala artu eban eta, etsiz, bere burua il. Ikus Enearena IV.

(23) Medea, Aietes erregeren akiba. Yason Kolkotz'era Urrezko Ardi-narru billa yoan zanean alkarrekin maitemindu ziran. Yason, Medea emaztetzat arturik, Yolkos'era yoan zan ortzera. Ara eldutakoan bere aita Aison onen erdi anai Pelias'ek il egin ebala yakin eben. Medea'k Aison, baña, bedar liluratuz biztu egin eban.

YES.—Onangoxe gabaz zin eqin eban Laurentzi'k Yesike maite-maite ebala; zintzotasun-aginduren aginduz biotza ostu eutson, eta bat be etzan zintzo.

LAUR.—**Onangoxe gabaz Yesike Iirainak, sorgintxo-antzera, iraindu eban bere maitea, eta onek asketsi egin eban.**

YES.—Inor ezpa'letor, gaua nikin emonazoko neunskisu; bañn, adi, gizonen baíen oinotsak dantzudaz.

ESTEPAN **aurrera.**

LAUR.—**Nor dator orren arin gau íxilez?**

ESTEP.—Adiskide.

LAUR.—Adiskide! ze adiskide? Zer yak izena, adiskide?

EST.-—Estepan yat izena, adiskide, eta nire etzanderea eguna argitu-aurretik emen Belmonte'n izango dalako barria dekartzut; kurutze gurenetik kurutze gurenera dabil belauniko yarri ta otoika ezkontza zori ontsu izan dagian.

LAUR.—**Nor ete dator berakin?**

EST.—Eremutar guren eta bere neskameaz besterik iñor bez. Esaidazu, nire ugazaba etorri ete da?

LAUR.—Eztok etorri ta bere barririk be etxoagu. Baña gu barrura goazen, Yesike, arren, eia etzandereari ondo-etorri txeratsu gertau dagiogun.

LAUNTZELOTA aurrera..

LAUNTZ.—**Sola, sola, ja! ja! eup! sola, sola!**

LAUR.—**Nor dago deiez?**

LAUNTZ.—Sola! Ikusi ete dozuez Lauientzi yauna ta Laurentzi'n anderea? Sola, sola!

LAUR.—Ez adi ibili zarataka, gizon; ator ona.

LAUNTZ.—**Sola! Nora? Nora?**

LAUR.—**Ona, mutil.**

LAUNTZ.—Nire ugazabag:mdiko bidaria eldu dala ta adarrak artu-ala barri dakarrela esan egiok; nire ugazaba eguna argitu baño len emen izango dok. (Alde dagi).

LAUR.—**Maite oñ, goazen barrura ta gagozan an aik noz elduko begira. Eta orraitiño eztau ardura; zegaitik yoan barrura? Estepan adiskide, zure etzanderea ur-ur dala iragarri, arren, etxe-barrukoai; eta atera Io:ndara zure erespatza. (ESTEPAN'ek alde). Yezaríeku onen ganean lotan dagon iretargi-argiaren gozo! Ementxe yezarriko gara, ta betoz eresi-otsak bigun-Icigun belarrietarc;; ixil biguna ta gaua dira ots-kidetasun gozoarsn ukututxoak (edergarriak). Yezarrí. Yesiks. Begira zeru-sapaia sarri-sarri yosten daben urrezko untze-burutxoak! Zuk an ikusi dakusazun zer borobilik txikienak be, bers burutxoari txairo eraginda, angeru-antzo abestu egiten dau, kerubi gazte-begiakcz eresbatz ixila osoturik. Olangoxe ots kidetasuna dozu il-ezinen gogoetnn; baña lupeízezko yantzi ustslkor onek esi lcdiz barruan artzen dauen artean ezin entzun dogu.**

Ereslariak aurrera.

Erdu, eup! eta ereserkiz iratzarri Dine; idigi ukutu gozoz zuon etzanderearen belarri-ateak, eta eresiz ekarri egizue a etxera. (Eresia yoten daragoioel.

YES.—-Eresi gozorik entzuten dodanean enago ni eguño be txitxari.

L.AUR.—Zure gogoa adi egotea da orren zio edo zegaitia; eta izan be, eztozu begirata baño abelgorri, umerri, naiz beoka-talde uxo, crtega, ezibako; or dabiltzuz bein arineketan, bein yauzika, bein orroaka ta irrintzeka, bein gora-goraka ta iutika, bein puzka, euren cdol gaztearen bizitasunciri erantzunik, bañci otoz-otoan turuta-otsik naiz olangoren durundurik belarrietara elc.u ba'dakie, or ortuko zara, guztiak katzatean gelditu, belarriak aurrerantza iizuli, soñeko giarrak nasaitu, ta Iengo begirakune uxoak bigunduta, apal eta bare begiratzen dabela, eresiaren indar gozoa dala-ta; orrexegaitik asmau dautzue olerkariak Orpeu'k H5; zugatz, arri ta ibai-latsak beragana

(24) Ereca edo Erebu. Su-leza; guiztoen eriotza-osteko tok;a, bein ludi onetatik alde eginuzkero; bizitza cnetan gaizto izanak etoikizunekoan bere z:gorru ízan bear dauela antxiña-antx;ñatik s:nistu izan dau gizadiak.

(25) Orpcu. Elendurreri miti-izti Kaliope'n seme zan. Lireu yoten Apolon'ek irakutsitu, itzalez edorto yoten eban ereskin ori. Argoitxasgizonen lagun ízan ei zan Itxaso Bultzaren ertzerako arem txangoan, eta bere eresiz Urrezko Ardi-narrua y.agoten eban iransugeari lo-arrazoto, Urrezko Ardi-narru cri ostuten ez eutsen gitxi be lagun egin. *Eix*^-rakoen, Tarake'n yarri zan biziten, eta an sugek usigita ;1 yakon bere emazte Eurudike. Bere emazteaganuko maitetasuna-arren beste emakumekín aragizko ar-emonik gura ez-ta, emakumeok, apenez, suntsitu egin ei eben Orpeu errukarria.

Beñolakoen ipuinok be egizko buño ederiM-

eratorten ebazala; eresiak izakerea aldi baterako aldatu-ezin-aleko ze gogor, latz eta asarreak errerik eztagonazkero, bere barruan eresirik izan ez-eta, ots kidetsuak eragiten eztautsoen gizona gizon egokia da azpikerietarako, maltzurkerietarako ta lapurretarako; olangoren gogo-igikuneak gaua baxen ilun dira, ta olangoren biotz-zirradak Ereba (26) bestean baltzak. Ez imini zure entzite edo uste onik olango gizongan.-Oartu eresiaz.

PORTZE **ta** NERIXE **aurrera, urrintxotik.**

PORTZ.—**Nire etxekoa da an dakusgun argia. Argizagitxo ak urrin be uirin yaurtiten dauz bere argi-izpitxoak! Olantxe argi egiten dau egite onak ludi gaiztoan.**

NER.—**Iretargiaren argitan ez gendun ikusten argizagi-argirik.**

PORTZ.—**Olantxe lausotu daroa aintza andiagok txikiagoa; errege urreratu-arte errege--ordekoak argi egiten dau, erege bailitzan; gero aren izakerea berez banatzen da, mendi-tarteko latsa ibairakoan legetxe. Eresi! Adi!**

NER.—**Zure etxetíko eresia yatzu, andera.**

PORTZ.—**Lotsabaga ezer onik eztala oraintxe dakust.Ire ustez, ots orrek egunezkoaren aldean guztiz eder emoten dau.**

NER.—**Ixilak damotso edergarri ori, andera.**

PORTZ.—**Larratxoriak bestean gozo abestuten dau beleak, ez batari ez besteari yaramoten etxakonean; nire ustez, urretxindorrak egunez, antzarrak karrakaz daragoionean, abestuko ba'leu, txepetxa baño abeslari obetzat elitzake etsiko. Aroak daroaz amaikatxo zer euren benetako osotasun eta gorapen eginera! Ixil! a! Itargia loak artu dau Endimion'ekin, eta iñok iratzarterik eleuke gurako! (Eresia atertu da).**

LAUR.—**Portze'n berbaroa da ori, guzurra ezpa'da.**

PORTZ.—**Itsuak kukua lez, orrsk abots txarretik ezagutu nau.**

LAU.—**Andera maite, ondo etorria etxera.**

PORTZ.—**Gure senarren onaren alde otoi egiten izan gara, eta gure otoiai eskerrak, obeto izango dirala ditxarogu. Etorri ete dira?**

LAUR.—**Andera, ez oraindikoarren, baña arein etorrerea iragarten geznari etorria da.**

PORTZ.—**Yoan barura, Nsrixe, eta barrukoai gu ortik zear ibili gareanik ezetara be ez íragarteko esan; ez zuk be, Laurentzi; ezta zuk be, Yesike. (Turuta-ots).**

LAU.—**Ur da zure senarra; aren turuta dantzut; gu ezkara itz-ontzi. andera; ez izan bildurrik.**

PORTZ.—**Gau au egun motel iruditzen yat.-Orixe bai, eguna baño arean motelago dala; eguzkia estalita dagon eguna langoxe da.**

3ASANI, ANDONI, GARTZEN **eta euren yarraigokoak aurrera.**

BAS.—**Gure oñez beste aldekoakin batera litzakigu egun, eguzkia sartuazkero zu ibili ba'zenbiltz.**

PORTZ.—**Dagidan argi, baña enadila izan nagi, andera nagiak senar bizkorra bear dauta, eta nik ez al dot Basani orretara beartuko; baña Yaungoikoak berezten dau oro! Etxera ondo etorria zauguz, ene yaun.**

BAS.—**Ezkerrik csko. andera; emon ondo etorria nire adiskideari.-Au da arako gizona; au da Andoni, berari ainbesteraño lotuta naukana.**

P3RTZ.—**Zuk edozelan be orreri estuta egon bear zeunke, rrtrun dodanez, ori zugaitik ondo estu ta larri egcn da-ta.**

AND.—**Ez orain ondo yarei nagon baño areago.**

PORTZ.—**Yaun, zu gurera ondo be ondo etorria zauguz; itz utsez barik beste bidez erakutsi bear dogu ori; au dala-ta itzszko txerarik asko dogu. (GARTZSN'ek eta NERIXE'k eurak euretara izketan daragoioela dirudi).**

GATZ.—**Iretargia-arrsn zin dagitzut iraindu egin nozula: benetan, epaile-idazkariari emon neuntsan; maite, zuk zera orren be-**

go ta zoragarriago yatzuz. Gizo-irudimen bizkorrak amaikatxo guzur asmau izan dau, baña geien baten gazur utsa barik, egi guzurrez yantziak yatzuz ipuinok; egizgo mamia, guzurrezko aznln.

(26) Arga edo Argos. Elendarren miti-iztiko gizaki yatzu. Eun begi ei ebazan, eta begiototik, batzuen eretxiz, aldien bik, beste batzuen eretxiz, aldien berrogei ta amarrek lo egiten ei eben. Tzeu'k Io bigantxatu ebanean aren emazte Here'k Arga Io bigantxatua zaintzen bidali eban. Tzeu'k Hermes bidali Io'ren billa ta, batzuen ustez, Hermes'ek Arga arrika il; beste batzuen ustez, eresi gozoz lo-arrazota, Io Tzeu'ganatu eban. Orrazkero, Here'k Arga'ren begiak indiolar edo pauma dalakoari buztanean imini eutsozan, egazti au Here'n kutun izan-eta.

netan artzen dozunazkero, ni goitik-beitik a artu ebana irendu baño eztaukie.

PORTZ.—Zer? Dagoneko alkarrekin burrukn? Zer yazoten da?

GARTZ.—Urrezko uztai dala-ta, beronek em^-neko erestun zirtzil bategaitik; eta berak eukan ikurritza, -ludia bedi lekuko, -aiztoginak aiztoan imini daroan olerki-txatal ou zan "Maite nagizu, ta enagizu yarei".

NER.—Zer? Ikurritzaz ala geiaz daragoiozu? Nik emon neuntzunean zin egin zeunstan eriotzararte aldean erabiliko zendula; eta il--obian zukin etzango zala; nigaitik ezsan, zure zin bero-beroen lotsea-arren beintzat aldean izan bear zendukean. Epaile-idazkariari emon zeuntsola- Ez, Yaungoikoa bedi nire epaile, erestun ori artuko idazkariak eztau izango bizarrik bere arpegian.

GARTZ.—Izango dau, gizondu ba'dadi.

NER.—Bai, emakumerik iñoz gizondu ba'ledi.

GARTZ.—Ara! Esku au-arren, nik emon neuntsona mutil gazte zan, esateko, mutiko; mutiko; mutiko txaparro, ez zeu baño andiago, epailearen idazkari; mutiko itz--ontzi, sari-eskale; nire biotza-arren, nik ezin ukatu neiskion.

POROTZ.—Zure emaztearen lenengo emaitza orren errez zugandik aienatzea lotsagarri yatzu; aor argi ta garbi esanda; zinen zinez zure atzari eutson zera, zure aragiari zintzotasun-untzez gcgor yosiko zera. Nik nie maiteari erestuna emon neuntson eta bein be aldetik ez kentzeko zin eginazo neuntson, ta emen dago bera; zin egingo neunke nik bere alde, ak ezetz kendu izan *a* bere atzetik, ezta or itxi be ludiko ondasun guzticrkaitik.-Orain, Gartzen, zuk zure emazteari atsekaberako zio edo zegaiti baltzegia damctsozu; niri olangorik yazo izan ba'litxat. zoratu egingo litxakit.

Bas. Ara! Oba litxakit esku eskerra ebagita zin egin erestuna bera yagote-arren galdu nebala (Itzok BASANI'k bere kitean esan dauz).

GARTZ.—Nire yaun Basani'k bere ersstuna epaileará emon eutson, ak eskatu egin eutson-eta, eta izan be, ak orrenbeste ibazi be ibazi eban; eta gero, mutikoak, aren idazkarick. idazten bere nekeak izanak, niri nirea eskatu eustan, eta ez gizonak, ez yauntxoak ez eben artu gura izan erastunez beste ezer.

PORTZ.—Ze erastun emon zeuntson, ene yaun? Ez al zeuntson emongo nik zuri emona!

BAS.—Nire utsari guzurrik erantsigi al ba' neio, ukatu egingo neunke; bañx dakusazunez, erestuna eztago nire atzean; yoana da.

PORTZ.—Zure biotz guzurtia be olantxe utsa da. Yaungoikoa-arren, erestuna ikusiarte eztot zapalduko zure oerik.

NER.—(GATZEN'i) Ezta nik be zurerik nirea ikusi-arte.

BAS.—Portze kutun, erestuna nogaitik emon neban yakin ba'zenki, eta zegaitik e^non neban ulertu al ba-ziñei, eta erastuna zelan gogoaz bestera itxi neban, ak beste ezer artu gura ez ebalarik, bigunduko zeunke zuk zure naibagearen indarra.

PORTZ.—Eta zuk yakin izan ba'zendu erestunaren ederra ta erestuna emon eutzunarren aingarritasunaren erdia, edo-ta erestuna aldean izateko zuk emoneko itza, etzendun yarei izango erestuna; erastunari eusten zuk aleginak egin izan ba'zenduz, iñongo gizonik izango ete zan ain bidebako ta lotsabako, oroigarritzat zeunkan erastuna emotera ekinaren ekinez zu beartuteko? Nerixe'k dirakast zer sinetsi. Nire bizia yokatuko neunke baietz izan erestun ori emakumeren batek.

BAS.—Ez, nire entzute ona-arren, nire gogoaarren; ez dau emakumek, legegizon Iralcaslek baño; iru mila duket artu gura ez-eta, erestuna eskatu eustan; nik ezetz biribila emon neuntson eta ak, zapuzturik, alc'e egin, eta ori ak nire adiskide mamiaren bizia aurrera aterata. Zer esango, andera kcutun? Lotseak eta adeiak atara beartuta, alc alde eginda atzetik bidali neuntson erestuna. Nire entzute onak ez eustan itxi bera esker txarrez muskil-muskiltzen. Asketsi nagizu, andera on; eta izan be, gabelco argi onetsiok-arren, zeu an izan ba'zintzaz, nire ustez, zeuk eskatuko zeunskidan erestuna legegizon goragarriari emoteko.

PORTZ.—Legegizon *a* ez al da iñoz be ona urreratuko: nik maite ta zuk ni-arren gordetzeko zin egin zendun pitxia ak dauenazkero, neu be zu legetxe eskuzabal egingo naz; dodanik eztautsat ukatuko. Ez, ez nire soñik, ezta nire senarraren oerik be; ezagutuko dot nik a, bai orixe; ez egin gaurik etxetik landa; Arga'k (26) legetxe yagon nagizu; ezpa nagizu, bakarrik itxi ba'nagizu, ara! nire entzute ona-arren, -eta au neure-neure da, -legegizon a nire oe-lagun izango dot.

NER.—Eta nik aren idazkaria; orrazkero, zeuk ikusi ni nirera itxi ala ez.

GARTZ.—Ondo, orixe egin; ez al dot nik a

etxean artuko; artu ba'dagit artu, idazkari aren idazkortza Iorrinduta itxiko dot-eta.

AND.—Nli naz zori txarreko asarre onen errudun.

PORTZ.—Yaun, ez naibagetu zu; au goiti?beiti zu ondo etorria zara.

BAS.—Portze, besterik ezinez eginiko irain au asketsi egistazu, ta, adiskide au entzuten dala, euretan nire burua dakustan zure begi Hrainak-arren zin dagitzut

PORTZ.—Onetaz bakarrik oartu zu: orrek nire begietan bere burua bikoizturik dakus; begiko bat; zure buru biak-arren zin egizu, bai? ta orduantxe izango da zure sinisgarri.

BAS.—Bai, baña entzun; asketsi nire utsa, ta nire gogoa-arren zin dagitzut, gaurdanik ara eztodala ausiko zuri eginiko zinik.

AND.—Nik bein neure soña emon neban zorrean bere ondasunkaitik; eta zure erestuna artu ebanagaitik izan ezpa'litz soin au ondaturik zan; ni, galentzat nire gogoa imínita, nire burua barrien barri lotutera azartzen naz, zure yaunak ezetz gaurdanik ara bein be berbarik yan beren-beregi.

PORTZ.—Orrazkero, zuk erantzungo dozu orren ordez: au emon egiozu; eta lengoa baño obeto yagoteko agindu.

AND.—Autso, Basani yaun; erestun au aldean eukiko dokala zin egik.

BAS.—Yaungoikoa-arren, au nik arako Irakasleari emona berbera da.

PORTZ.—Berak emon eustan; asketsi, Basani, erestun onen alderako Irakaslea nikin etzan zan-eta.

NER.—Asketsi ni be, Gartzen zintzo, erestun onen alderako Irakaslearen idazkari mutil motxorra bart nikin etzan dok-eta.

GARTZ.—Kontxo, au onako zer au bidegintzea udan egitea langotsu yatzu, zera bideak onik asko dagozanean; zer? Guk irabazi-aurretik saldu ete gabez gure emazteak?

PORTZ.—Ez egik esan olango astakeririk.- Zuok guztiok zagoze arriturik: amen idazkia, irakurri astiro. Padoba'ko Belari'gandik dator; or dakusazue arako Irakaslea Portze izan zala, ta emen dogun Nerixe au, aren idazkari; emen dogun Laurentzi izango da lekuko ta autorla zuok alde eginda laster nik be alde egin nebala esateko, ta etxera ointxe-ointxe eldu nazala; oraindikoarren enaz sartu nirera.-Andoni, ondo etorria zatxakuz zu, eta zuk uste baño barri oberik ba-dot kolkoan zutzako; len baño len urratu idazki onen ikurratza; or ikusiko dozu zure ontzi nagusietatik iru ondasunez beterik kairatu dirala. Zuk eztozu yakingo zelango alan-bear bakanez idazki au nire eskuetaratu dan.

AND.—Sor-gorturik nozu.

BAS.—Zu izan arako Irakaslea, ta nik ezagutu ez?

GARTZ.—Zu izan zintzazan saldu bear ninduzun idazkaria?

NE.—Bai, neu; baña olangorik iñoz be egiteko asmorik eztauen idazkari, gizon izaterarte bízi ezpa-nadi.

BAS.—Irakasle kutun, zu izango zara nire oe-lagun,- ni enagonean nire emazteakin etzan.

AND.—Andera maitagarri, bizia ta bizibidea emon daustazuz zuk; eta izan be, ementxe dirakurt eskiertzat nire ontziak onik eldu dirala kaira.

PORTZ.—Ze barri, Laurentzi? Nire idazkariak zutzako be ba-dau barri pozkarririk.

NER.—Bai, eta utsean emongo dautsadaz; or damotzuet zuri ta Yesike'ri Yudar aberatsaren aldetiko berarizko emaitz-agiria: bein a ildakoan aren ondasun guztien yabe izango zarie.

LAUR.—Andera lirainok, zuok "mana" zabaltzen dozue goseak ilen bidean.

PORTZ.—Goxa da larri-larri ta, orraitio, egingo neunke zuok etzariela oraindik barríz ase. Goazen barrura; itandu an alkarreri eta guk zeatz erantzungo doguz zerak.

GARTZ.—Olan bedi; Nerixe'k zin-bidez erantzungo dautsan itauna auxe izango da: goxeko ordu biak diranazkero, orain oera yoan baño gurago dauen urrengo gaberarte yagita egon; baña dagoneko egun ba' litz, nik gau gurako neunke, Irakaslearen idazkariakin etzanik egoteko. Ondo dago, bizi nazaino, Nerixe'n erestuna yagotea baño latzagoren bildurrik eztot. (Alde dagie).

AMAIA

ITZ GITXI EZAGUN BATZUK

APEN.—Okerrik egin dauskunari emoten dautsagun ordea. "Bengaketa".

AUSI (YANA).—Yakiak egosi zer bizien urdallan. "Afarie egoan, urrean, ausi-barik" (Nire ama zanari entzuna).

AROTZ.—Egunka, asteka, naiz ileka ordainordez lan egiten dauena. Ileka egiten dauenari "il-arotz" deretxoe Arratia'n, Zeanuri'n beintzat. "Il-arotzean dabil". "Otsein", ostera, urterako, naiz urteetarako artzen dan langillea yatzu. "Otsein" itz onetaz beste bein zerbaii geiago esateko gogorik ba-dot. Ingelanderazko "mercenary"'ren ordezkotzat "arotz" imini dot. Egia esan, "arotz" itza langille alogerean artukotzat il-aginik dago, onenean be.

ASTAKIN.—Zeren astuntasuna neurtzeko tramankulua. Euskel-gaiztoz "pixuak".

BELAKI.—Ura, naiz beste zer zirin irunsteko erabilten dan itxasotiko, naiz gizonak asmauriko zer arro-apitz-begitsua.

BOLI.—Elepantearen aginkia. Zer zuri-orizka-gogorra yatzu.

ETXARTEBIDE.—Aldea bietatik etxe-erreskadea dauen bidea.

GONDOLA.—Binixa'ka ur-bideetan erabilten daben itxas-ontzi azpi-lau arina.

ITXAS-LEGOR IRUDI.—Euskel-gaiztoz "mapa".

ITXAS-ZUBI, ITXAS-GORTA.—Ingelandarrak "pier" esaten dautsoena; "pier" dalakoa lurrean asi ta itxasoa barrura doan zubiantzeko balkoia yatsu.

KULATZ.—Orban txiki-txiki borobil. Euskel-gaiztoz "puntu".

LATZINLARI.—Euskel-gaiztoz "eskribau".

MEIKI.—Erren, "lcoxo". Iltz au Naparroa'ko Arbizu'n beintzat bizi da.

SABBATH.—Gure igandea yudarrentzako.

USIGI.—Aginka egin. Itz au Arratia'n guri bizi da.

YAKINKIDE.—"I, txotxo, lk sagarrak ostu ei dozak.-Ez, nik etxoat ostu sagarrik; ni enok olargorik egin dodanaren yakinkide". *Lateraz* "conscius".

YAKINKIDETZA.—Yakinkidetzeak salatu ta usika egiten eztautsan biotza nasai egon leiteke. Yakinkidetzearen arrak ainbateri eztautso izten lorik egiten. Yakinkidetzeak dirauskuna egin bear dogu beti. Yakinkidetzea oker egon dateke, baña a ta guzti be yakinkidetzeak barruan egiten dauskun gedarra entzun eta aren esana egin bear dogu. Itz au eta aurrekoa neuk asmauak dira izan. Yakikide ta yakikidetza begikoago litzakidaz, yakituri ta yakitun itzen arauz, baña "yaki" yan-gai da-ta, bata bestetzat norbaitek naiz norbaitzuk artukoaren bildurrak bultzau nau itz barriok asmau dodazanez asmatzera. Yakinkidetza euskel-gaiztoz "kontzentzi" deretxona yatzu. Laterazko "consciantia" scire cum alio" tik datorrenez, orixe diño "yakinkideetza" itzak be. Eta izan be, guk dakiguna bestek ezpa'leki, eta batez be beste ori Yaungoikoa ezpa'litz. okerrik egin izan-arren, nasai gengokez; ostean baño nasaiago bai beintzat.

ZERGARRI.—Duin, aintzakogarri; zer onik. naiz txarrik ibazi dauena.

ZILEGIZTILARI.—Zer dan eta zer eztan zillsgi irakasten daragoiona. Au, naiz ori egin leike, zillegi dalako; au, naiz ori egitea galazota dago, berezko, naiz Yaungoikogizon-legek olangorik ez egiteko diñolako; olangorik egitea ezta zillegi.

TXITXARI.—Zeanuri'n beintzat aurrez darabille itz au eta "gogargi", "alai" esan gura dau.

AUSI.—Zaunka. Txakurrak, otsoak eta azeriak egiten dabe ausi, bakotxak bere erara.

ARERI, ARERIA.—Areriotasuna, gorroto. Itz au Oñati'ko Zanartu'n Mugartza etxelco etzandera Merzedes zanari entzun neuntson esakera onetan: "Arerian esango ba' litxako be", ta ak esan gura ebana, bestera esanda, auxe da: "Gorrotoz esan ba'litxako be".

BEGO.—Asko, aski da; naiko da.

SASTAKAI.—Mokoaz bakarrik zauritzen dauen galtzaiduzko iskillo.

ENTZIN.—Euskel-gajztoz "konpíantza".

YAREI.—Askatu; lokarriak kendu; ate-barruan ba'dago, atea idigi, yoan gura ba' dau yoan al izateko.

ZERGA.—Euskel-gaiztoz "petxu".

KOLDAR.—Bildurti, adorege.

MALTZUR, LUKI.—Aurrekoari ziririk sartzeko ganora ta terbetasunik eurrez dauena.

POZ-LO.—Erderazko "extasis" iragarteko asmau izan dot.

IRASKUNTZA.—Gauzak ezerezetik izatera ateratea, ta olan izatera ekarriko zer edo izakiak eurak.

GIZELI.—-Gizatalde andi.

KOKOMARRO.—Iñoren arpegi ta yanzkerea dauzan izakia. Gu mutiko gintzazanean, aratisteetan yoaten gintzazan basetxetik urira kokomarroak ikusten.

ERAASLE.—Abereai burdiñezko oñatakoak iminten dautsozana. Olangorik abereai egiten dautsenari guk Zeanuri'n "eraasle" deretxogu, baña beste leku batzuetan, itz zarra galdu, noiz baztartuta, "perralzalle" deretxoe.

ERAANTSI.—Euskel-gaiztoz "perratu". "Idiek eraasten yoan da urlia" esaten da Arratia'n.

Aditz au "intsigi'"tik dator etorri, "eroan". "yoan"'dik legetxe. Ikusi EUZKO-GOGOA VlH'garren urtea, 1957 gko, Ilbeltza-Otsaila. 9S'karren orrialdea. An Kapanaga'k "intzigiu" dakar, baña azkeneko "du" ori oraintsuko bearbako eraskina yatzu; "intzigiu"ko "z" barriz, Arratia'n eta Otxandiano'n "z" ta "s" alkarregandik berezten eztiralako. Agiri danez, Azkue yauna etzan oartu "intsigi" ori "erantsi"ren guraso zanik. "Intsigi"tik "erantsigi" sortuko zan lenen eta, gero, "g" galdu ta "i" biakaz bat egin. Au nitzako agiri-agirian dago. Eta ízan be, "erantsi"k gurasoen bat bear-bearreko dau eta guraso ori "intsigi" izan bear, aditz biak ikurrez be alkarren senide-senide dira-ta; bata iragakorra, bestea ez-igarakorra.

Lan au bere egilleak Paris'ko "Eusko-Biltzarra'k eratuko nor-geiagoketara bidalirik, lenengo saria iritxi eban". "Navarre shall be the wonder of the world" eroan eban ikurriztzat

BINIXA'KO SALEROSLEA antzezkei onek bere sarrerea be ba'daroa, Paris'ko norgeiagoketara yoan zanez argitaratzearren daroa.

ZEUK ZELAN NAI

(AS YOU LIKE)

ZEUK ZELAN NAI

(A5 YOu LiKE)

AURRERA AGERTUKO DIRAN LAGUNAK:

DUKEA, erbesteratuta dago.
PERDEIKA, Dukearen anaia ta duketzea ostu dautsona
AMIEN, YAGOBA, Dukearen lagunak erbestean.
EDER, Yauiegiko, Peideika'n lagun.
KARLA, Peideika'n Buimkaii.
OLIBER, YAGOBA, ORLANDA, > De Bois'ko ERROLANDA yaunaren semeak.
ADAN, / DUNIXI. (OLIBER'en otseinak.
TATXESTON, Yostari.
OLIBER MARTEXT Yauna. Abade.
KORIN, SILBI. Aitzaiak.
GULLELMA, basenitar, ODERE'az maitemindua.
IMEN'ena egiten dauen lagun.
ERROSALINDE, Duke eibesteratuaren alaba.
KELE, PERDEIKA'n alaba.
PEBE, Artzaino.
ODERE, Baseni-neska.
DUKE bien Yaunak; Esku-mutilak, Basazaiak. eta beste otsein batzuk.

AGERLEKUA. lenen OLIBER'en etxe-ondoa; geio, bein Duke lapurrarren Yauregia, ta bein ARDEN'go basoa.

I EKITALDI

I AGERLEKU.-OLIBER'en etxe-ondoko igali-baiatz.

ORLANDA ta ADAN auirera.

ORLANDA'k.—Adan, ni okei ezpa'nago, onetaia izan zan zeia, beie azken-guiaiiz niií milla ogeileko puitzil baño ezeustazan ibri, eta, zuk diñozunez, onespena emoteiakoan, nire anaieari ni ondo azteko agindu eutson: eta ortik datoi ni gogo-yausi ta goibel ibiltea. Ak nire anai Yagoba irakastegian dauka eta, 01 diñoenez, iñondiko auirerapenak egiten ei dauz: nigazko, ak ni etxean nauka bape landu barik, edo obeto esateko, ni emen etxeon nauka bape yagoteka; eta izan be, ni lango gizon yatoria yagoteiik dala esango ete dozu idia itoian letxe eukitea? Aien zaldiak be ni baño obeto azita dagoz; eta izan be, ai yaten ondo emonaz ganera, zer egin bear daben be irakasten dautse, oiretarako zaldi-ezleak diiu edeirez akuiatuta: baña nik, aien anai onek, aien bendean irabazten dodan zer bakarra nire soña aztea da; eta alde onetatik aren itoiko abereak nik *aña* esker on zor dautsoe ari. Ganera, orien eskuzabalki emoten daustan uskeri au be, izamenak berak emon daustan apurtxo au be, aren begiiakuneak kendu egiten daustela diiudit: aren solo-bearginekin yan eragiten daust, anaieri dagokon tokirako bideak itxi egiten daustaz, eta ak, al dauenez, nire yatortasunari azpia yaten dautso nire azi-ezikereagaz. Au da, Adan, gotilun, goibel naukana, ni erretan nauena; eta nik aldean dodala uste dodan niie aita zanaien gogoa bendekotasun eta yoputza

onen aurka asaldatzen asi yat: onangorik eztot yasango geiago, orretarako ze bide artu oraindik yakin ezarren.

ADAN'ek.—Or dator nire ugazaba, zure anaiaea..

ORLANDA'k.—Alde egizu emendik, Adan, eta ikusi egizu zelan aztinduko nauen orrek (ADAN'ek alde).

OLIBER aurrera.

OLIBER'ek.—Yaun! Zer egiten dok ik emen?

ORLANDA'k.—Ezebez: niri iñok eztaust irakatsi ezer egiten.

OLIBER'ek.—Orrazkero, zer muskiltzen daragoiok, yaun?

ORLANDA'k.—Ba, yaun, Yaungoikoak egina muskiltzen iri lagun egiten yaragoiokat, ezetarako gauz eztan ire anaiea alperkeriz muskiltzen.

OLIBER'ok.—Ba, yaun, zerbait oberi ekiok, etaapur baten ezteus adi.

ORLANDA'k.—Ire txarriak yagon eta eurak yaten dabezan ondakinak yango ete yoazat eurekin? Niri emoneko zer galdu ele yoat nik aiperrik ni onango narru-garritasunera eltzeko?

OLIBER'ek.—Ete dakik non agon, yaun?

ORLANDA'k.—Ene! yaun, nik ondoegi yakiat ori: emen ire igali-zugaztian naiagok.

OLIBER'ek.—Ete dakik noren aurrean agon, yaun?

ORLANDA'k.—Ni bere aurrean nauenak ezagutzen nauen baño obeto dazagut nik a. Nik ba-yakiat i nire anaiarik zarrena azana, eta odol-yatortasunez ik be ni ire anai etsi bear nindukek. Errien arteko adei eta deduak i ni baño beinegotzat au izan, i ni baño zarrago azalako; baña errien arteko zer orrexek niri etxaustak kentzen nire odolik gu bion artean ogei anai ba'laiegozak be; nik nigan nire aitarenik ik aña bayoat, nik autortzen dodanez, i ni baño lenago yaio izanagaitik i aganako lotsotik urrago egonarren.

OLIBER'ek.—Orreik dozak esatekoak, mutil!

ORLANDA'k.—Erdu, erdu, anai nagusi, i onetarako gazteegi az.

OLIBER'ek.—Eskuak ezarri gura daustazak ala, ziztrin orrek?

ORLANDA'k.—Ni enok ziztrinik: ni De Bois'ko Errolanda'n semerik gazteena nok: a izan zoan nire aita; eta ziztrin-ziztrin dok alango aitak seme ziztrinak izan ebazala esan dagiana. Nire anai ezpa'intz enaieunkek kenduko esku au ire idunetik orrako ori esanagaitik beste esku onek ire miña zustarretik atera arte: ik eure buruaz esan dok txarto.

ADAN'ek.—(Aurrera etorri-ala) Ugazaba maiteok, epe artu; zuon aita zanaren oroitzarren adiskidetu zaiteze.

OLIBER'ek.—Itxi nagik, gero?

ORLANDA'k.—Neuri deretxadanean itxiko aut: ik entzun egin bear daustak. h'i nire aita zanak bere azken-gurarian ik niri azikera ona emoteko agindu euskan: ik, ostera, baserritar bainintzok azi nok, gizon yatorri dagokiozan geitasun guztisk nigan ilundu ta estalita: nire aita zanaren gogoak nigan indarra artu yok, eta olangorik etxok yasango luzaroago; beraz, edo emoidak gizon yatorreri dagokion azikerea, edo ekak nire aitak bere azken-gurariz itxi eustan yarauntsi zirtzila; ori artuta nire zorio erosten yoango nok.

OLIBER'ek.—Eta zer egiteko ik? Ori eralgitakoan, eskean urten ala? Tiruk, ba, yaun, artuik; nik etxoat ikin luzaroko lorrik izango; ik gura dokanaren zati bat artuko dok: itxi nagik, arren.

ORLANDA'k —Nire onerako danaz ganerako lorrik eztauskat emongo nik.

OLIBER'ek.—Txakur zar atsitu ori, oa i be orrekin (ADAN'í).

ADAN'ek. Txakur zar atsitu da nire ordaina ala? Bai izan be, nire aginak zure otseintzan galdu dodaz-ta.-Bedi Yaungoikoa nire ugazaba zanakin! ak eleukean esango olango itzik. (ORLANDA ta ADAN'ek alde).

DUNIXI aurrera.

DUNIXI'k.—Zuk yaun orrek dei egin daustazu ala?

OLIBER'ek.—Ez ete dok izan emen Karla, Dukearen burrukaria, nikin itz egiteko?

DUNIXI'k.—Gogoko izango al yatzu, a emen otetan dago, zugana eltzen izteko eske ta eske.

OLIBER'ek.—Esaiok datorrela barrura. (DUNlXI'k alde).Bide ona izango yat ori; eta biar izango da burrukea.

KARLA aurrera.

KARLA'k.—Egun on yaun orri.

OLIBER'ek.—Karla yaun on ori! oraintsuko ze barri dok Duke barriaren yauregian?

KARLA'k.—Yauregian ezta ezetariko barririk, yaun, barri zarrak ezik: zera, bere anai gazteago duke barriak Duke zarra erbesteratu egin izan dauela; eta *a* maite daben iru-lau andikik euren buruak euren kitetik erbesteratu dabezela, arein lurrak eta lurrak dakarrenak duke barria aberastute-

ko; orrazkero. duke barriak gogoz emoten dautse ortik zear aldarrai ibilteko baimena.

OLIBER'ek.—Errosalinde, dukearen alabea be aitakin batera erbesteratu ete dok?

KARLA'k.—A! ez; dukearen alabea. seaskatik ara biak batera aziak diralako, bere lengusina maite-maite dau-ta, bere lengusinari erbestera yarrai izango yakon, edo ori ezinean atzean gelditu izanagaitik il egingo zan. A yauregian dago, ta bere osabeak bere alabea bestean maite dau; eta eguño emakume bik eztabe alkar maiteago izan aik daben baño.

OLIBER'ek.—Non biziko ete dok duke zarra?

KARLA'k.—Dagoneko Arden basoan bizi dala diñoe or, eta berakin batera ainbat gizon biotz-argi; eta an beñola Ingelanda'ko Robin Hood'en antzera bizi yatzuz; or diñoenez, egunoro doakoz gazte yator asko. eta astia ardura barik emoten ei dabe, urrearokoak emoten eben legetxe.

OLIBER'ek.—Biar duke barriaren aurrean burruka egiteko ete augu?

KARLA'k.—Bai, ba. yaun: eta ni zuri zertxobait iragarten etorri naiatzu. Norbaitek ixilrnuxilka esan daustanez, zure anai gazte Orlanda kokomarrotuta nikin burruka egiteko asmotan ei da nor dan geiago yakiteko. Yaun, ni biar nire izen onaren alde yokatzeko nozu, ta azurren bat austeka nigandik alde dagianak bere burua zori onekotzat etsiko dau. Zure anaiea oraindik gazte ta samur da; eta zuri dautzudan maitasunarren, a alperrik galtzeak lotsatu egingo ninduke, eta orraitiño nik a lorrindu egin bearko dot nire izen onarren, nikin bumika egitekotan; orra, ba, dautzudan maitasunarren, zuri orixe esaten etorri naiatzu ona; zuk ari edo asmo ori burutik kendu, edo ari yazo lekikion okerraren aurrean burua makurtu dagizun; olango okerrik ba'letorko, bere erru izango da, ta osoosoan nire gurariaz bestera.

OL.IBER'ek.—Karla. autsoz nire eskerrak niganako ire maitasunaren alderako, eta nik ire maitasun ori ondo ordainduko dauskat. Neuk be oartu yoat nire anaiearen asmo ori, eta ixilpeko bidez oren burutik olango asmoak aterateko aleginak egina nok; baña a berean yagok; Yukik, Kurlu, u Pantze osoan dan gazterik buru-gogorrena dok; gallenbera-gallenbera, gizonik onena baño gitxiago izan gura eztauena, ni aren anai odolkidearen aurka azpiyalekeri zitalak asmatzen daragoiona; orrazkero, ik ire berezimenari deretxona egik: ni bardin poztuko naiindukek ik ari lepazurra naiz atza austeak. Eta itzako oba izango dok ik ori egitea; eta izan be, ik ari min txikien bat egin ba'dagiok, naiz a igaz osoan asazkau ezpa'daitekek, a or ibiliko dok asma-asmaka i edenduteko, iri azpiyalekeri zirtzilen baten sareetan yausi eragiteko, eta iñoz ez galditu iri bizia bide batez naiz bestez kendu arte: eta izan be, sinistu egidak. aldi onetan etxagok aren urteetako gazierik *a* beslean zital danik; larri-larri negarrak emoten yaustak au esan-bearrak. Nik aretzaz anaikiro itz egiten yoat. baña nik a zeatz aztertu ta iragarri bear izatekotan, a bera dan letxe azaldu bear izatekotan, ni lotsearen lotsaz mosua gorritu ta negar egin-bearrean aurkituko nintzatekek, i ostera, zurbildu ta andi eretxita agoa zabaldu-bearrean.

KARLA'k.—Zori onez be zori onez etorri naiatzu ona. Bier etorri ba'ledi, berea artuko dau. A eguño geiago bakarrik ibili ba' daite, nik eztot egingo burrukarik eguño geiago sarigaitik; eta orrazkero, bedi Yaungoikoa zukin!

OLIBER'ek.—Agur, Karla on.-Orain burrukari au zirikatu bear dot; oraingoxean arenak egingo dauela uste dot; eta izan be, ori zegaitik dan nik yakin ezarren, nire biotzak ari añako gorrotorik ezeri be eztautso. Orraitiño be yator da; eguño irakastegira yoanbako, baña ikasia; asmo yatortsu da; edonok maite-maite dau; edonok dau maite, batez be a ondoen ezagun daben nireak, eta orregaitik osoan ni ez aintzakotzat nabe: baña olangorik ezta yazoko luzaro; burrukari onek garbituko dauskuz bideak; orain niri dagokidan zer bakarra mutil orri burua berotzea da, ta orixe egingo dot (Alde dagi).

II AGERLEKU.-DUKEA'ren yauregi-aurreko bedartza

ERROSALINDE ta KELE aurrera.

KELE'k.—Pozik zagoz, arren, ene lengusin maite, Errosalinde.

ERROSALINDE'k.—Kele maite, ni al dodan baño pozago izanda, areago izatea gura dozu ala? Nire aita erbesteratua zelan aiztu ezin irakatsi ba'daustazu, eztaustazu irakatsi bear zelan gogoratu atsegin bakanik.

KELE'k.—Emen agiri da zuk enozula maite nik maite zaudazan aña; nire osaba, zure

aita erbesteratuak zure osaba nire aita dukea erbesteratu izan ba'leu, eta zu oraindik nikin izan, nik nire maitasunari zure aita niretzat artzen irakatsi izango neuntsan; zeuk be orixe egingo zendukean zure maitasuna nírea bestean zindo izan ba'litz.

ERROSALINDE'k,—**Tira. ba, ni nazana aiztu egingo dot, zu zareanagaz poztuteko,**

KELE'k.—Ba-dalrizu nire aitak niaz beste seme-alabarik eztauena, ta urrean izango be eztauena; eta, benetan, *a* il daitenean, zu aren yarausle izango zara; eta izan be, nire aitak zureari indarrez kendu dautsanaren yabe egingo zaudaz nik biotz onez: nire entzute onarren, nik egingo dot ori; &ta nik agindu au ausi ba'dagit ausi, mamutuko al naz ni; orrazkero, Errosalinde ezti, Errosalinde maite, biotz-argi zadiz.

ERROSALINDE'k.—O**raindik ara izango naz, lengusin, eta yolas-asmatzen ekingo dautsat: dakustan; zer deretxatzu ni maitemindu ba'nadi?**

KELE'k.—**Ba! maitemindu zaitez, yolas-bidetzat; baña ez maite izan gizonik benetan; eta yolas-bidetzat bez ortik izen onagaz eta mosua gorri garbiz dala ez urtetekotan.**

ERROSALINDE'k.—O**rrazkero, ze yolas-bide artuko dogu?**

KELE'k.—**Yezarri ta etzandera Zoriaren txirrinkeari irri ta barre dagiogun, aren emai edo esku-erakutsiak oraindik aitzina bardinak izan daitezan.**

ERROSALINDE'k.—O**langorik al genduke; eta izan be, aren on eginak geien baten bear eztan lekura yoaten dira; eta emakume itsu ori bere esku-erakutsietan emakumeakaz ibilten da okerren.**

KELE'k.—Egia da, ak edertasuna emoten dautsenak zindo nekez izaten dira-ta; eta zindotasuna emoten dautsenai soin-itsusitasuna emoten dautse geien baten.

ERROSALINDE'k.—**Ez, ori ez; zu zoriaren egikizunetik izamenaren egikizunera yoan zara; zoriak ludiko esku-erakutsietan agintzen dau, ez izamenaren taiukeretan.**

KELE'k.—**Ez; izamenak izakien bat eder egin izanarren, izaki ori zoriaren erruz ezin yausi ete leiteke sutara? Izamenak guri zoriari irri egiteko adimena ta zurtasuna emon izanarren, ez ete dau zoriak bidali yostari au gure geiaren aria ebateko?**

TATXESTON **aurrera.**

ERROSALINDE'k.—O**lantxe da izan be, zoriak izamena trakets eta gogorregi artzen dau, zoriak ergelak buru-argien aria ebateko darabiltzanean (1).**

KELE'k.—Ba-leiteke orrako ori be zoriaren eginik ez izatea, izamenarena baño; bear ba'da, izamenak gure zurtasuna olango yainkonoetzaz eragoteko amutsegi ta motelegitzat etsi izan dau, ta ergel au bidali dausku gure zorroztarritzat: eta izan be, ergelaren moteltasuna beti da buru-zorroztasunaren zorroztarri.-Egun on, buruzorroztasun, zer darabiltzu zuk emen aldarrai?

TATXESTON'ek.—**Anderaño, zuk zure aitanera yoan bear dozu.**

KELE'k.—**Geznari egin zauez ala?**

TATXESTON'ek.—**Ez, nire izen onarren, ez olangorik: baña zure billa agindu nabe.**

ERROSALINDE'k.—**Non ikasi dozu zin-egikera ori, ergel?**

TATXESTON'ek.—**Bein zalduni entzun neuntson taloak txarrak zirala bere izen onarren zin egiten, eta yeben-azi-orea etzala on bere izen onarren zin egiten, eta axegandik ikasi neban onan zin egiten; orain ni be orretan nagotzu. arako taloak etzirala onak, baña bai yeben-azi-orea; eta orraitiño arako zaldunak ez eban egin guzurrezko zinik.**

KELE'k.—**Zure yakituri andi orregaz be nolan erakutsiko dozu ori?**

ERROSALINDE'k.—**Bai, orrano; azkatu egiozu musturra zure yakituri orri.**

TATXESTON'ek.—**Zutundu zaíteze orain biok:**

(1) Shakespeare'n antzerkietan txitean-pitean agiri dira "ergel" izeneko lagunak. Erri zearen etxetan eztozu idoroko olaBgorik; beti agirlko yatzuz andiki naiz erregeen etxe, gaztelu, ta yauregietan; olango ergelak andiki ta bakaldunak otseintzat artzen ebezan euremetan, euren ugazabai astia atsegin-eztitan emonazoteko; andiki-mandikiak eta bakaldunak ergelok erri zeetik aututen ebezan, eta ergela soñez itxusiago ta oba. Onako otseinoi "ergel" eresten yaken, baña ez eurenez tentelak edo burutik egindakorik ziraloko, sarritan, euren ugazabai barre eragiteko, beren-beregi tentelkeriak esaten ebezalako baño. Izan, geien baten buru-argi ta adimen-zorrotz izaten ziran. Andiki ta bakaldunen etxeetan orrako ergelak eukiteko ekandua ontxiña-onbtíñako da; millaka urteetatík onakoa; eta izan be, Omer'en Ilias'enean agiri dan Thersites orretariko dala uste dogu, eta aldi ori ezta atzokorik. Ikusi Iliasena, II, 212^27,7. Bestetariko otseinei legetxe, neurritik urtenda, gordinegi ifz egííen ebenean euren ugazabak narrua berotzen eutsen, Shakespeare'n lanetan ikusiko dozunez.

ígurdi zuon okotzak, eta zuon bizarrakarren zin egizue ni zital nazala.

KELE'k.—Gure bizarrakarren, guk bizarrik ba' geu izan, zu zital zara.

TATXESTON'ek.—Nire zitalkeriarren, nik ba' neu olangorik, orduan bai ba-nintzateke; baña eztanarren zin egin ba'dagizue, eztozue egiten guzurrezko zinik arako zaldunak be bere izen onarren zin egin ebanean ez eban egin guzurrezko zinik, izen onik ez eban-ta; eta izen onik eukitekotan be ortik zear uxatu eban talorik eta yeben-azi-orarik ikusí-aurretik.

KELE'k.—Arren-bai-arren, nori buruz daragoiozu?

TATXESTON'ek.—Zure aita Perdeika zarrak maite dauen bateri buruz.

KELE'k.—Nire aitak maite izatea bera da asko urli orrí izen ona emoteko; ez ekin geiago urli orri buruz; egunotan zuri bizkarra berotuko dautzue zuk iñor laidotzearren.

TATXESTON'ek.—Orrexegaitik tamalgarriago ergelek zurtasunez zurrak ergelkiro esaten dabena bera ezin esan al izatea.

KELE'k.—Benetan, egi-egia da zuk diñozuna: eta ízan be, ergelen zurtasun apurra ixilduazo danazkero, gizon zurren ergelkeri apurrak arro erakusten dau bere burua. Emen dator Eder yauna.

ERROSAUNDE'k.—Agoa bete barrigaz.

KELE'k.—Eta orrek guri usoak euren umesi yana emoten dautsen lez emongo dauskuz.

ERROSALINDE'k — Orrazkero, barriz asebeteko gauz.

FELE'k.—Askoz obeto olan: saneurri obe egingo dogu.

EDER aurrera.

Egun on. Eder yaun. Ze barri dogu?

EDER'ek.—Errege-alaba, yolas bikaina galdu dozu.

KELE'k.—Zeíariko yolas?

EDER'ek.—Zetariko, anderaño? Zer esateko nik?

ERROSALINDE'k.—Zure zurtasunak ete zoriak irakatsiko dautzuenez.

TATXESTON'ek.—Naiz alan-bearrak erabagita dauenez.

KELE'k.—Ondo esanda: orrako ori argin-txaliz ganean ezarria dozu.

TATXESTON'ek.—Ez, nik nire lekua yagon ezpa'dagít...

ERROSALINDE'k.—Zure yezarlekua galdu dozu.

EDER'ek.—Zurtuta nozue, anderañook: nik esan gura izan dautzuedana burruka bikain izan dala ta zuok galdu egin dozuela izan *áa.*

ERROSALINDE'k.—Baña esaiguzu zelan izan dan burrukea.

EDER'ek.—Nik burrukearen asierea azalduko dautzuet ,eta anderañook gura izatekotan. zeuok ikusi daikezue aren atzena, burrukearen zatirik onena oraindik egiteko da-ta; eta ona, zuok zagozen toki onetaraxe etorteko dira, burrukeari atzena emoteko.

KELE'k.—Tira, ba, asierea ilik eta obiraturik dago.

EDER'ek.—An dator agure bat bere iru semeakin...

KELE'k.—Asiera oneri ipuin zar bategaz parra egingo neunskio.

EDER'ek.—Iru gizon gazte benetako, ondo aziak eta azal-ederrak, idunean iragarki banagaz...

ERROSALINDE'k.—"Beki mundu guztiak iragarkion bidez...".

EDER'ek.—Iruretarik zarrenak Dukearen burrukari Karla'kin egin dau burruka; Karla'k beingoan yaurtin dau ortik zear, iru saiets ausi dautsoz, eta osatzeko itxaropen gitxi dau; orrazkero, bigarrenari eldu dautso, gero irugarrenari, ta irurena egin dau. An datzaz irurak lurrean: agure errukarri, arein aitak arei egiten dautsezan negarrak eraginda, ikusleak be negarrez dagoz.

ERROSALINDE'k.—Olangorik!

TATXESTON'ek.—Baña ze yolas da, yaun, anderañook galdu izan dabena?

EDER'ek.—Ba, nik eralgiten daragoiodana bera.

TATXESTON'ek.—Onan gizonak egunoro zurrago egin leitekez; eguño lenengoz oraintxe entzuten dot saiets austea anderañoentzat yolas danik.

KELE'k.—Bai neuk be, bai orixe.

ERROSALINDE'k.—Baña ete dago saiets-tarratadazko eresi ori bere saietsetan entzun gurako leukean besterik? Ete dago saietsak austeak poztuten dauen besterik? Lengusin, ikusiko ete dogu ukabilketa au?

EDER'ek.—Emen egotekotan, ikusi bearko dozue; au da burrukarako izentauko lekua, eta aik gertu dagoz burrukarako.

KELE'k.—Andik aragotik datoz, urrean: orrazkero, gagozan emen eta dakusgun.

Eresi alai. PERDEIKA DUKEA, Yaunak, ORLANDA, KARLA, ta Lagunak aurrera.

PERDEIKA D.'k.—Tira, ba; gazte orrek eskariri yaramon gura eztautsonazkero, galtzoriari bere leieak erantzun begio.

ia ete da gizo-

eta orraitino

znba-lengusinok?
- torri zarie ixil-

un: zure ede-
orretarako.
rtuko poz eta
onok alde an-
uen gaztearen
neunskio bu-
:rrek eztau en-
egiozue zuok,
eragiten dau-

zuk esaiozu

s egongo zucn
rrinagora).
errege-alabak

= eta nire egin-

eztot-eta: ludiari eztautsot egingo minik, ludian ezer be eztot-eta; ludian toki bat bete baño eztot egiten nik, *eta* nik toki ori ustuazkero, ni baño obek bete legike.

ERROSALINDE'k.—Nik dodan indar-apurra zukin izango al da.

KELE'k.—Eta bai nirea be orrena osotuteko.

ERROSALlNE'k.—Ondo yoango al yatzu. Nire eretxia oker izatea gurako al dau Yaungoikoak!

KELE'k.—Zure biotzeko gurariak iritxiko al dozuz.

KARLA'k.—Tira, nor da ama lurraren altzoan etzateko orren urduri ta artega dagon gazte adoretsua?

ORLANDA'k.—Gertu nozu, yaun: baña zure eginak ez dira elduko zure gurarien neurriraño.

PER. D.'k.—Burrukaldi bat bakarrik egingo dosue, lenengoz bats yausi arte.

KARLA'k.—Ez; zagoz seguru yaun ori, eztozula orreri bigarrenerako eskatu-bearrik izango, lenengorik be ez egitsko ekin eta ekin eskatu dautsozun orri.

ORLANDA'k.—Ik niri gero irri egiteko asmoa dok, urrean; eta orrazkero, aurreztik ez «-J---iTi egin bear irririk: baña ator euk

K%tiuuKo zure
- sírik dozuz gi-
jskantza gordi-
^s_ik ikusi, naiz
m- ba'tíozuz, zu-
egiteko bardi-
Heuskizu. Zure
~»_ire burua be-
^starrera eragi-

egizu, gazte
n onak eztau
dautsogu Du-
in eztaiten.
;nagizue min-
ok langO nes-
-:»• ukatzeaz ni-
t. Baña betoz
maitoikorrak
eta orretan
eguño eder
) da; orrek il
;uen bat ba-
:kideri eztau-
negar eginik

^i mtiL., gizon indartsu orreii zangotik eltzeko.

(KARLA'k eta ORLANDA'k burruka daragoioe).

ERROSAUNDE'k.—Gizon gaztearen bikain!

KELE'k.—Tximistarririk ba'neu nire begian, nik esan al izango neuke nor Iioaken lurrena.

(KARLA lurrera. Gora-gedcrrak).

PER. D'k.—Ez geiagorik, ez geiagorik.

ORLANDA'k.—Bai, arren-bai-arren; oraindik enaz nekatu.

PER. D'k.—Nolan ago i, Karla?

EDER'ek.—Orrek ezin dau itzii egin, ene yaun.

PER. D.'k.—Eroan egizue emendik. (KARLA eroan daroe).

Zer dok ire izena, gizon gazte?

ORLANDA'k.—Orlanda, ene yaun; De Bois' ko Errolanda'n semerik gazteena.

P. Dukeak.—Gurago naioan beste norbaiten seme izan ba'intz. Ludiak ire aita zindotzat yaukan, baña nik nire arerio etsi izan naioan; poz andiagoa emongo eunskidan ire egite ots andiko onegaz beste etxeren

bateko izan ba'intz, baña ondo abil; gazte adoretsu az i, beste norbaiten seme azala esan izango al eunstan.

(P. Dukea, Yarraígokoak, eta EjER'ek alde).

KELE'k.—Lengusin, ni nire aiía izatekotan, olangorik egingo ete neuke?

ORLANDA'k.—Nitzako arrokizunago *áa* Errolanda yaunaren seme, aren semerik gazteena izatea; -eta izen au er.euke aldatuko Perdeika'n oñordeko izatearren be..

ERROSALINDE'L—Nire aitak Errolanda yauna bere seme legetxe maite eban, eta ludi osoa zan nire aitaren eretxiko: gizon gazte au aren semetzat lenago ezagutu izan ba' neu, nik negarrez eskatuko neunskion, au onan galdu-gorde gorrian yarri baño len.

FELE'k.—Lengusin maitagarri, goazen orri eskerrak egiten eta ori adoretzen: nirs aitaren gogaldi zakar eta bekaizkeritsuak biotza mindu daust.-Yaun, edsrto yokatu dozu: zuk zure agindua ganezka bete dozun lez, zure maite-aginduak bete ba'dagizuz, geiagcko barik, zure emaztea zori cnisu izango da.

ERROSALINDE'k. —Yaun yator,

(Bere idunetik katetxo emon-ala)

erabili au nire ordez eta nire aldetik: zoriak emona yaísu, ta geiago emongo leuke, eskuarterik ba'leu.-Ba-goaz ala, lengusin?

KELE'k.—Bai. Agur, gazte yator lerden.

ORLANDA'k.—2skerrik asko esaten ibtiko eíe daustazue? Nire geitasunik onenak lurra yoak dira; eta emen zutunik gelditzen dcma abe baño ezta, bizibako taket ut^.

ERROSALINDE'k.—Atzera yoateko deiez dagoku: nire arrokeriak eta nire zoriak kiak batera lurra yo dabe: zer gura dauen itanduko dautsot.-Dei egin dauskuzu ala, yaun? -Yaun, zuk burruka ederra egin dozu, ta zure arerioak baño geiagorik lurreratu dozu.

KELE'k.—Ba-goaz ala, lençusin?

ERROSALINDE'k.—Or nozu.-Agur.

(ERROSALINDE'k eta KELE'k alde)..

ORLANDA'k.—Nongo biotz-aldik astunduten daust onan nire miña? Ezin dautsot itzik egin neska orri, eta orraitiño oirek itz egiteko gogoa iragarri daust. Orlanda errukarriarena! i benderatuta ago: Karla'k, naiz *a* baño makalagoren batek benderatu au i.

EDER aurrera ostera be.

EDE^{p}iVk. —Yaun on, eure onarran, yauregi onetatik alde egiteko onua emoten dauskat. Ik gorapen, txalo, ta maitasun andiak irabazi izanarren, dukearen gogaldia dalata, ik eginiko guztia ak oker aitu yok. Dukea gogalditsu ta muker yagok; a nor eta zer dan gogoraturik iri obeto datorkik ortik zer letorken bururatu ta ausmer egitea, nik orretaz itz egitea baño.

ORLANDA'k.—Eskerrik asko, yaun; eta, arren, iiu csaidazu; emen burrukaldicn izan diran bietarik zein da dukearen alabea?

EDER'ek.—Bata bez dukearen alaba, euren izakeratik ebaztekotan; baña orraitiño be, txikiena da dukearen alabea: bestea duke erbesteratuaren alabea da, ta duke lapurrak emen geldituazo dautso bere alabeari lagun egiteko; orreik alkarri deutsezan maitasun-lokarriak eurenezko aiztenak baño sendoagoak dira. Baña nik esan daiketzudana da, oraintsu duke onek iguin artu dautsola bere illoba maitagarri orri, ez beste ezegaitik, erriak bere ekandu onakaitik goratzen dauelako ta bere aitagaitik erruki dautsolako baño; eta, neure bizia yokatuko neuke, neska orrentzako aren gogo txarra laster agertuko dala.-Agur, yaun! Emendik aurrera, au baño ludi obean, iretzako maitasun geiago eskatuko yoat, baita i ezagunago izatea be.

ORLANDA'k. — Zor andi dautzut: agur! (EDER'ek alde).

Onan nik lañapetik ilunetara alde egin bearko dot: duke gordinagandik anai gordinagana: -Baña Errosalinde'n zerutar! (Alde dagi).

III AGERLEKU.-Yauregiko geia.

KELE ta ERROSALINDE aurrera.

KELE'k.—Ara, lengusin; ara. Errosalinde; -Kupida erruki bekingu! -Itzik bez?

ERROSALINDE'k.—Ez txakurri egoztekorik.

KELE'k.—Ez, zure itzak ederregi dira txakurrai egozteko, egotzi egidazuz batzuk niri: argibideak egotzita ausi egidazuz nire zangazurrak.

ERROSALINDE'k.—Orrazkero. lengusin bi legokez lurrean zerraldo ta luze, bata argibidez meikitu ta bestea argibiderik ezagaitik zoratuazkero.

KELE'k.—Baña dan au zure aitagaitik ete da?

ERROSALINDE'k.—Ez, orren zati bat nire aitaren alabeagaitik da. Ene! astegun-ludi au bai ba-dagola sasi ta asuarrez beterik!

KELE'k.—Lengusin, onako orreik etxatzuz yai-egun-zorakerietan zuri egotziko lapatxak baño; ondo zapaldutako bide-zidorretatik ibili ezpa'gaitez, gure barruko gona laburrei be intsigiko yakez.

ERROSALINDE'k.—Olangoak nire yantzitik aztinduko neukez: lapatxok nire biotzean dagoz.

KELE'k.—Aztindu ta egotzi egizuz ortik zear.

ERRO.SALINDE'k.—Orretan aleginduko nintzateke, gedar egin al ba'neu ta a nikin izan.

KELE'k.—Tira, tira, zure biotz-aldiakaz burruka egizu.

ERROSALINDE'k.— Ene! oneik ni baño burrukari oberen alde dagoz.

KELE'k.—Ba! eutsi gurari on au! edozer yazoko be, nozbaiten aleginduko zara,- Baña yostaketok baztartuta, benetan itz dagigun; izan ete leiteke Errolanda zanaren semerik gazteenagaz zu beingo ba!?n orr3nboster~-ño maiteminduterik?

ERROSALINDE'k.—Nire aita dukeak aren aita maite-maite eban.

KELE'k.—Eta ortik berez ete dator zuk aren semea maite-maite izan bear dozunik? Bide ori artzekotan, nik ari gorroto izan bearko neunskio, nire aitak arenari eutson-eta; eta orraitiño nik eztautsat gorrotorik Orlanda'ri.

ERROSALINDE'k.—Ez, Yaungoikoarren, ez izan gorrotorik ari, neugaitik.

KELE'k.—Eta zegaitik ez? Ez ete dauka ak irabazita?

ERROSALINDE'k.—Orrexegaitik nik maite izango *al* dot *a: eta* zeuk be maite egizu nik maite dodalako.-Begira, or dator dukea.

KELE'k.—Begietatik asarre gorria dario.

P. DUKEA ta Yaunak aurrera.

P. DUKEAK.—Anderaño, zabiltz al dozunik bizkorren eta seguruen, eta alde egizu gure yauregitik.

ERROSALINDE'k.—Nik, osaba?

P. DUKEAK.—Bai, zuk illoba: amar egunon buruan gure yauregitik ogei millaren <2) barruan aurkitu ba'zaitez aurkitu, eriotzea dozu orregaitik.

ERROSALINDE'k.—Zuri maitagarri orri eske nagotzu, nire okerreria zer izan dan dakidala yoan naitela: nire burua ezagun ba' dot, naiz nire gurarien yakinkide ba'naz; amesetan ezpa'nago naiz burutik eginda, -eta nik eztot uste olan nagonik, -orrazkero, osaba maite, nik eguño eztautzut egin ezetariko okerrik sortu bako oldozpenez be.

P. DUKEAK.—Olan egiten dabe etoi guztiak: euren burua itzez zuritu al izatekotan, aik eskerra bera baxen erruge litzatekez: asko bedi zuretzat nik eztodala zugan uste onik entzinik, yakitea.

ERROSALINDE'k.—Orroitiño zure entzinik ezak ezin egin ni etoi, azpiyale: esaidazu zetan tí.odan olangoren antzik.

P. DUKEAK.—Zu zure aitaren alabea zara; eta orixe da asko.

ERROSALINDE'k.—Orixe nintzan ni zuk aren duketzea artu zendunean; orixe zuk a erbesteratu zendunean; etoikeririk eztator odoletik, ene yaun; naiz, orrako ori gure adiskideetatik etorri ba'yaku, zer dot nik orregaz zer ikusirik? Nire aita etzan izan etoirik; orrazkero, ene yaun on, ez egizu orrenbesteraño oker uste izan nire txirotasuna etoiarenik danik.

KELE'k.—Nagusí maite, entzun nik esango dodana.

P. DUKEAK.—Bai, Kele; guk orri zugaitik gelditu eragin geuntson. Ostean bere aitakin batera yoan izango zan.

KELE'k.—Nik eneuntzun eskatu orduan orri emen gelaitu eragiterik; ori zeure gogo ta zure damu izan zan: ni aldi atan gazteegi nintzan orren alde ezer egiteko; baña orain ori ezagun dot; ori etoi ba'da, neu be ba-naz; orain arte ta oraintxe be guk biok batera lo egiten dogu, biok batera yagiten gara, biok batera ikasi, biok batera yolas egin eta yan; eta gu nainora yoan, Yune'n zisneen antzera, gu biok batera ta alkarregandík *aláe* egiteka yoan izan gara.

P. DUKEAK.—Ori zutzako zorrotzegi ta zurregi da; orrek bere leuntasunaz, ixilik egonaz beragaz, eta bere epeagaz erriari itz egiten dautso, ta erriak erruki dautso; zu tentel zara zuri orrek zure izena ostu egiten dautzu; eta orrek alde egindakoan, zuk argi biziago emongo dozu ta ekandu obedun agertuko zara: orrazkero, ez idigi zuk ezpa-

(2) Milla itza etxatzu emen zenbakirik, zerbaiten luzerea neurtzeko Ingelandarrak eta beste errietako itxas-gizonak be erabilten daben neurri-bateko baño. Itz au Loteratik dator etorri. Legor-millea ta itxas-millea dozuz. Legor-milleak 5.280 oin dauz, itxas-milleak 6.080 oin.

nik; nik orreri buruz artuko erabagia sendo ta alda-ezin da: ori erbesteratua da.

KELE'k.—Orrazkero, ene yaun, epai orixe emon nitzaz be: ni ezin bizi naiteke ori lagun ez izalekolan.

P. DUKEAK.—Zu tentel uts zara.-Zu, illoba, egin zuk gertakuntzak: nire izen onarren eta nire itz gurenarren, esaneko epeaz gora emen yarraitzekotan, eriotzea dozu.

(P. DUKEAK eta Yaunak alde)

KELE'k.—Ene Errosalinde errukarri ori! Nora yoateko zu? Gurasoak aldatu gura ete dozuz? Nik neurea emongo dautzut. Neuk agintzen dautzut, etzaitez naibagetu neu baño geiago.

ERROSALINDE'k.—Nik naibage-bide geiago dot zuk baño.

KELE'k.—Eztozu, lengusin; txitxari ta gogargi zagoz, arren: eztakizu dukeak ni bere alaba au erbesteratu nauenik ala?

ERROSALINDE'k.—Etzauzala bai.

KELE'k.—Ez! efoesteralu ez? Orrazkero, Errosalinde'k eztau ni ta zu, gu biok bat gareala irakasten dautson maitasunik: bananandu egingo gara ala? Alkarregandik alde egingo dogu ala, neska ezti? Ez; nire aitak besíe oñordekoren bat billa dagiala. Orrazkero, biok batera asmau dagigun zelan guk igesi, nora yo, eta aldean zer eroan: eta ez ibili zure aldantzea zeuk zelan egin-billa, zure naibageak zeuk zelan eroangoren bílla, „i emen itxita; eta izan be, gure naibageak dirala-ta goibel agiri dan ortzi auarren, zuk zer esango, ni zukin batera yoango naz.

ERROSALINDE'k. -Ba, norantza, yoteko guk?

KELE'k.—Nire osabearen billa Arden basora.

ERROSALINDE'k.—Ene! gu neskak izanda, orren urrin yoatea izango dan galtzoria gutzako! Edertasunak urreak baño geiago zirikatzen dauz lapurrak.

KELE'k.—Ni yantzi zirtzil-txiroz, sorkiz yantziko naz ela arpegia baltzitu egingo dot; beste onenbeste egin zuk; olan egingo dogu bidean aurrera, eta lupurrik zirikatu ez.

ERROSALINDE'k.—Ni emakumeak oi diran baño luzeago nazanazkero, ez ete litzakit oba gizonez yanztea? Ezpatatxo arro nire iztarretik dingilizka, basaurde-aztamakilla eskuetan; begoz nire biotzean gura daben emakume-bildurrak, -guk antz arrigarri, lerden eta martzal izango dogu azalean, gigon-antzeko dollor askok euren arpegietan erakusten daben legetxe.

KELE'k.—Ze izen ezarriko dautzut gizondu zoitezanean?

ERROSAiLINDE'k.—Eztot izan gura Yupiter'en esku-otseinak baño izen zirtzilagorik, eta orrazkero, Ganimeda deitu nagizu. Eta zeuri ze izen emoteko?

KELE'k.—Nire oraingo izanari dagokonen bat; oraindik aurrera ez Kele, Erbesteko baño.

ERROSALINDE'k.—Zer deretxatzu; lengusin, ergel yostaria zure aitaren yaursgitik ostu ba'dagigu? Ez ete litzakigu a pozkarri gure bidaldian?

KELE'k.—A ludi zabala zear yoango litzakizu nikin: neuk iminiko dot a orretara. Goazen emendik, eta batu dagiguzan gure pitxiak eta gure ondasunak; asmau zuk aldirík egokiena ta biderik seguruena nire igesaren ostean egingo dan nire billaketatik gure buruak ostonduteko. Orain gu pozik goaz askatasunera, ez erbestera (Alde dagie).

II EKITALDI

I AGERLEKU.-Arden basoa.

DUKE izana, AMIEN, eta beste Yaun batzuk, basa-gizonez yantzita.

DUKE izcmak.—Nire lagun eta erbeste-anaiok, ekandu zarrak ez ete dau egin basa-bizitza au irudi ulsezko andi-mandikeria baño eztiago? Ez ete dira oianok yauregi bekaizkeritsua baño galtzori gitxiagoko? Emen Adan' en zigorra baño eztogu somatzen: urtearoen bardin-eza; negu-axearen agin otzak eta agirika zakarrak nire soñari putz eta usika egin, eta otzaren otzez merrotzen nauenean be, nik irribarre egin eta "au eztok labankeririk" esaten dot: oneko oneik niri nor eta zer nazan biotz onez esaten dausten onulari yataz. Gozo dira ezbearraren ondoren onak; kunkunaren antzeko dira ezbearrak! ak be, itsusi ta edentsu izanarren, buruan pitxi ederra dau; eta olan gure bizitzo onek, erririk gure billa ibilteka, zugatzetan miñak aurkitzen dauz, idaztiak aurrera arin doazan errekatxuetan, itzaldiak arrietan, eta ona edozetan; nik eneuke ori ezegaitik aldatuko.

AMIEN'ek.—Zori ontsu zara yaun maitagarri ori, zure zoriaren mukerkeria olango begi gozo ta baketsuz begiratu daikezunazkero.

DUKE izanak.—Ator, oreinak ilten yoango ete gozak? Eta orraitiño iguin emoten yaustak ergel-nabar ernikarriok, uri soil onetan berton yaioko uritar izanda, euren mugabarruan, euren buru kakotsuakaz eper-mokor borobilak odolduta ikusiak.

I YAUNAK.—Izan be, ene yaun, Yagoba gotilunbereak orretan naibage artzen dau; eta, alde orretatik, ak zin egiten dau zu lapurrago zareala zu erbesteratu zauzan zure anaiea baño. Gaur Amien'go nire yauna ta ni aren ostean ostondu gara a aretx-azpian atzanda egoala; aretxaren zuztar zarrak musturra erakusten dautsoe baso au zear moTmarka doan errekatxuari; toki orretaraxe eldu da orein bakandu bat azkenak egiteko, eiztariak zaurituta; eta, benetan, ene yaun, abere errukarriak egozten izan dauzan urrumak aren saietsetako narrua ia eztanda eragiteraño nasaitzen izan dabe; eta negar borobil andiak yalgiten izan dira urrengorik urrengo aren sur erru^ea ':era errukarriz; eta onan ergel uletsua, Yagoba gotilunbereak ondo oarturik, errekatxu bizkorraren ertz-ertzean egon da, aren urak bere negaTrez geitzen.

DUKE izanak.—Baña zer esan yok Yagoba'k? Ikuskizun orretatik ez ete yok atera ekandu-ondorenik?

I YAUNAK.—Ene! bai, eta milla bat irudi ekarrita. Lenen, ur-bearrik eztausn errekarxuari negar eginagaitik: "Orein errukarri" diño berak, "ik be luditarren antzeko azkengurari-agiri egiten dok, lendik lar dauenari geiago emonda". Gero, an berea lango narru apitzekoak bere kideak bertanbera itxita, an bakarrik ikusirik: "Zuzen dok", diño berak, "olan alde egiten yok lagun-artetik ezbearrak eioak"; gero, ardurabako ta narruak artu-ala yandako oreintalde osoa igaroten da yauzika aren aurrea zear, ari agur eta txerarik egiteko be gelditzeka: "Bai", diño Yagoba'k, "Aurrera, boá, aurrera, urikide gizen-koipatsuok: ori da oitu dana: zetarako begiratu or dagon errukarri lur yoa, porrot egina?". Olan zipladaka daragoio ak erri, uri, errege-yauregi, bai, gure bizitza oneri narrua berotzen eta erasten: ak zinka daragoio gu lapur utsak, gordin utsak gareala esaten; areago, guk abereak bildur-ikaratu ta euren tokian bertan il egiten doguzala esaka.

DUKE izanak.—Olango amesetan itxi dozue ala?

II YAUNAIC. —Bai, ene yaun, arnas-estuka eragoion oreinari negar egiten eta *a* zalata esatakoak esaten.

DUKE izanak.—Erakutsi egidazue orrako toki ori: gogoko yat ari olango aldikadetan kide izatea. orduan zer-esanik asko izaten dauta.

II YAUNAK.—Artez eta bertatik eroango zaudaz agana. (Alde dagie).

II AGERLEKU.-Yauregiko gela.

P. DUKEA, Yaunak, eta Otseinak aurrera.

P. DUKEAK.—Izan ete leiteke aik iñok ikusi ez izanik? Ezin izan leiteke olangorik: nire yauregiko zitalen batzuk kide ta lagun dira onetan.

I Yaunak.—Nik eztot entzun aik iñok ikusi izan dauzanik. Aren lo-gelako arduradun emakumeak *a* oera yoaten ikusi eben; eta goxean eztabe idoro oean oeko altxorra euren anderañoa.

II YAUNAK.—Ene yaun, zuri ainbeste bidar barre eragin dautzun ergel zorritsu-zikina be nonbaitera alde egina da, ezta agiri. Espere, arrege-alabearen lagun emakume yatorrak autortu ta diño berak ixilean zure alabea ta aren lengusina Karla zantsua alperrik galdu eban arako gaztearen zer onak eta lerdentasuna goratzen entzun iznn dauzala; eta aren ustez, aik nora yoan izan, *a* gaztea be aikin izango dala, urrean.

P. DUKEAK.—Bidali norbait aren anaieanera: ekaxri egizue adoretsu *a ona: a an* ez izatekotan aren anaíea, ekarri ona, neuk bi-Uatu eragingo dautsot bere anaiea: bertatik egin egiteko au: eta aztarketea ta bi-Uatzea eztaitela otzitu ta atertu igesitako buru-arinok ostera be ona arte. (Alde dagie).

III AGERLEKU.-l IBER'en etxe-surrea

ORLANDA ta ADAN aurrera, alkarrekin trikitx aginda.

ORLANDA'k.—Nor dago or?

ADAN'ek.—Ene! nire ugazaba gaztea ala? Onangorik! nire ugazaba maitagarria! Ene; ene ugazaba ezti ori! Errolanda zanaren oroigarri ori! ene bada, zer egiten dozu zuk emen Zegaitik zara zu ekandu oneko? Zegaitík maite zauz zu edonok, eta zegaitik zara zu yator, sando ta adoretsu? Zegaitik zendun zuk orrenbesteko leiarik duke gogalditsuaren burrukari azurtsua benderatzeko? Zure gorapena arinegi etorri da fftxera zure aurretik. Ez ete dakizu, ugazaba, gizon batzuentzako euren zer onak eztirala euren arerio baño? Zureak be olangoxeak dira; zure ekandu onak, ene ugazaba, Yaungoikoari opatutako etoi deunak yatzuz. Ene! ludi onena, emen eder danak edertasuna daroana edendu egiten dau-ta!

ORLANDA'k.—Zer, ba? Zer yazoten da?

ADAN'ek.—Zori txarreko gazte, ez adi sartu ateotatik barrura: ire zer onen arerioa te-Ilatu onen azpian bizi dok-eta: ire anaieak, ez, ire anaieak ez; orraitiño Errolanda yaunaren semeak..., ez, aren semek bez; nik atxautsat seme deituko, aren seme deitu-aginik egon izanarren, ire gorapenak entzun izan yozak; eta arrats onetantxe i etzaten azan tokiari su emoteko asmotan dok i barruan azala: i ilteko bide orrek uts egin ba'dagio, i galtzeko beste bideren batzuk artuko yozak; nik ak ez-yakinean entzun yautsazat bere asmoak. Au eztok itznko lekurik; etxe au arategi baño ez yak: gorroto izan egiok, bildur izan egiok, ez al az barrura sartuko.

ORLANDA'k.—Ba, Adan, ni nora yoatea gura dozu zuk?

ADAN'ek.—I ona ez etortekotan, i nora yoangok etxaustak ardura.

ORLANDA'k.—Zer? Ni ortik zear eskean yoatea gura dozu ala? Ala guztien bidean ezpata dollor-arroz, indarrez kendu iñori niretzako bizigarriak? Nik onako au egin bearko dot, besterik zer egin eztakit-eta: baña ez, onangorik eztot egingo, al izana^ rren: gurago dot nire ansi gordin sasikoodoldunaren gaiztakeriaren bendean yausi.

ADAN'ek.—Ez egik olangorik. Bcsteun ogerleko dodaz nik ire aitaren otseintzan nire alogeretik zurki aurreratuta; otseintza-lanak nire soin-adar zarrok meikitu ta begirapenbako adinak baztarrera egotzi nagianean eurok nire gexo-zai izateko asmoz batuta dodaz txanponok; autsoz txanponok; eta belai yaten emoten dautseno, bai, artatxoriari aurre-ikusiz yaten emoten dautsona bedi nire zartzaroko poz eta naiera! Emen dok urre au; guzti-guzti au itzako. Ire otsein nadi ni; nik zar-antza eukiarren, orraitiño ni sendo ta guri nok, nire gaztearoan nire odolari edari bero ta asaldarirík nastu eneuntsolako; arpegi lotsabakoz eneuntsan egin txera argirik aul-makaltasunerako bideri be; orrazkero, nire adina negu guri antzeko dok, otza bai, baña ez gordina; ikin yoaten itxi egidak; ire egiteko ta bear-izanetan nik gizon gazteagoren otseintzea egingo dauskat.

ORLANDA'k.—Agure on ori; zugan bai agertzen dala ondo beñolako ludiko otseintza zintzoa, otseintzea bearra betetearren eta ez sarigaitik otseinak izerdia ateraten ebana! Zu etzara aldiotan oituten danetikorik, orain gorago igotearren izan-ezik iñok eztau izerdirik atera gura-ta; eta bein gorago igonazkero, ori iritxita be, euren otseintzea len baño epelago da; zu etzara orretarikorik. Baña, agure errukarri, zuk zugatz ustela iñausten dozu, ardura ta naiera guztiakaz be lora bat bera be ezin emon daikeana; baña yarrai zure bideari, gu biok batera yoango gara; eta zure gaztearoko alogerak agortu baño lenago elduko gara poz apal bai, baña yarrien batera.

ADAN'ek.—Aurrera, ugazaba; eta nik nire azkenengo arnasaraño lagun egingo dautzut, zindo ta zintzo.-Amazazpi urte nenduzanetik ona ia larogei urtean bizi izan noz emen, baña orain enoa emen luzaroago biziten. Aamazazpi urte dabezanean asko yoaten dira ortik zear euren zoriaren billa; baña bein larogei urterazkero, aste bat be beranduegi da; orraitiño zoriak ezin emon legisket sari oberik ondo iltea baño, eta ez nire ugazabaren zordun (Alde dagie).

IV AGERLEKU.--ARDEN basoa.

ERROSALINDE mutil yantzita. KELE artzainoz yantzita, ta TATXESTON aurrera.

ERROSALINDE'k.—Yupiter ori! nire indarren makal!

TATXESTON'ek.—Niri eleuskit ardura nire indarrakaitik nire zangoak nekatuta ezpa-legoz.

ERROSALINDE'k.—Nik idoroko neuke nire biotzean nire gizon-yantzia lotsatu ta emakumek lez negar egiteko lain indar: baña nik ontzi makalagoa adoretu egin bear dot, gizon-yantziak emakume-yantziaren aurrean adoretsu agertu bear dau-ta: orrazkero, gora gogo ori, Erbesteko on.

KELE'k.—Arren, epe artuizu nikin; ni ezin yoan naiteke aurrerago.

TATXESTON'ek.—Niketz, nik gurago dot zukin epe artu, zu eroan baño; orraitiño zu erootea elitzateke kurutzerik eroatea nitzako; eta izan be, nire ustez, zuk eztaroazu txanponik zure ziskuan (3).

ERROSALINDE'k.—Tira ba, au da Arden basoa.

TATXESTON'ek.—Bai, orain Arden'en nago ni: ni len baño ergelago; etxean nengoanean toki obean nengoan; baña bideztiak pozik egon bear dabe.

ERROSALINDE'k.—Bai, olan zadiz, Tatxeston on ori.- Begira, begira, nor dator emen? Gizon gazte ta agure alkaxri ben-ben itz egiten.

KORIN eta SILBI aurrera.

KORIN'ek.—Ori yatzu bidea neska ari oraindik zuri irri eragiteko.

SILBI'k.—Korin ori, zuk al zenki nik a zen. bateraño maite dodan!

KORIN'ek.—Zati bat igarten yoat; neu be iñoz maite izana nok-eta.

SILBI'k.—Ez, Korin, zu zar zara-ta, zuk ezin igarri zengike; gaberdiko aurtikori eguño intziri egin izan dautson maitalek *aña* zure gaztearoan maite izan ba'dozu be; baña iñoz zure maitasuna nirea lango izan ba' litz, -eta nik eztot uste eguño gizonek onenbestean maite izan dauenik--, zenbat egite barregarrira etzindukezan eroango zure irudimenak?

KORIN'ek.—Nik aztuta dodazan amaikatxora bai.

SlLBI'k.—Ba! orrazkero zuk eztozu eguño biotzez maite izan: maitasunak eragin izan dautzun zorakeririk txikiena be gogoratzen ezpa'dozu, zuk eztosu maite izan; ni orain lez, eguño egon ezpa'zara yezarrita biotzeko emakumeaientzako gorapenen gorapenez aurrekoari gogait eragiten, zuk eztozu maite izan; naiz, lagunekandik bat-batean alde egin ezpa'dozu, orain biotzaldiak niri eragiten daustan Iegetxe, zuk eztozu maite izan: Pebe, Pebe, Pebe ori! (SILBl'k alde).

ERROSALINDE'k.—Ene artzai orren errukarri! Zure zauria aztertu ta arakatuta, zori latz-bidez neurea idoro dot.

TATXESTON'ek.—Eta nik nirea. Gogoan dot, ni maiteminduta nengoanean bein arria yota nire ezpatea ausi egin nebala, eta axriari *a* ezpatakadea artzeko agindu neuntsala gabaz Yone Irribarre ikusten etorten zalako; baita gogoan dot neska aren soñekoak uretan yoteko txibiteari ta aren esku latz eta itzekarroz beterikoetan beiak batzeorduan intsigiten yakozan pekorotzai be nik mun egiten neuntsela; baita gogoan dot, bein areri ustez idar-landarari nire maitasuna iragarten ibili nintxakola; leka bi kendu, ta biak atzera emonda, negarrez esan neuntsala; "Erabili egizuz oneik nigaitik". Guk benetako maitaleok iñondiko zorakeriak egiten doguz; baña izadian edozer ilkor dan lez, izadiko oro be bere maitasuneko zorakerietan ilkor da.

ERROSALINDE'k.—Zuk zeuk uste dozun baño zurrago itz egiten dozu.

TATXESTON'ek.—Bai, ni enozu izango eguño nire zurtasunaren yakinkide nire zangazurrak nire zurtasuna yota ausi arte.

ERROSALINDE'k.—Yupiter, Yupíter! artzai onen biotzaldia nirearen antz-antzeko da.

TATXESTON'ek.—Bai nirea be; baña nirea zarren zarrez usteltzen asia da.

KELE'k.—Arren, zuotariko batak itandu egiozue an aragoko artzaiari ia urre-ordez yakirik salduko leuskigun: larri-larri ni goseak ilik nauka.

TATXESTON'ek.—Eee! ergel ori!

ERROSALINDE'k,—Ixilik zagoz, ergel; ori ezta zure ogibidekorik, ez zure seniderik.

(3) Emen Tatxeston'ek diñona aituteko gogora egízu aldi atako Ingelanda'ko txanponok alde edo arpegí batean kurutze-irudia ebela, oraíngoxe txelinak be daroan lez. Olan ba, Tatxeston'ek Kele kallo-kallo eroan bear izatekotan eta Kele'k aldean txanponik ez izatekoton, ak ez eban eroango bizkarrean kurutzerik.

KORIN'ek.—Nor dago deiez?
TATXESTON'ek.ek,—Zu baño obeak, yaun.
KORIN'ek.—Ostean zori txar-tzarreko litzatekez izan be.
ERROSALINDE'k.—Ixilík, gero.-Arrasti on zuri, adiskide.
KORIN'ek.—Baita zuri be, yaun txeratsu, ta bai zuoi guztioi be.
ERROSALINDE'k.—Arren, artzai, leku soil onetan biotz onek naiz urrek naierarik erosi al ba'dau, atseden artu ta yan dagikegun tokira eroan gagizuz; ibiliaren ibiliz ebainduta ta laguntza-bearrez larritu-aginik dago emen neska gazte bat.
KORIN'ek.—Yaun lirain, erruki dautsat, eta nigaitik baño geiago beragaitik, nire eskuartea dan baño andiago al litz orri lagun egiteko: baña ni beste gizonen artzai nozu, ta nik eztodaz moztuten nik larraratzen dodazan ardien uleak: gogaldi mukerreko do nire ugazaba; ta eztau alegin andirik egiten iñor etxean artu ta yaten emonaz zerurako biderík artzeko; ganera, aren ardi-tvabolea. aren artnlrteak eta larrak orain salgei dagoz; eta gure tjcabolan, *a* andik alde egínik dalako, orain eztago ezer zuk yan al izatekorik; baña erdu ta ikusi zer dagoan eta nik ondo etorririk beroena egingo dautzuet.
ERROSALINDE'k.—Nor da aren artaldeak eta larrak arosteko dana?
KORIN'ek.—Apur bat lentxoago emen ilcusi dozuen txarri-zain gaztea, edozer erosísak ardura gitxi emoten dautsona.
ERROSALINDE'k.—Arren, zeuk erosi abeletxea, artaldeak eta larrak, eta geuk eniongo dautzugu zegaz ordaindu.
KELE'k.—Eta zure alogerak be osotuko dautzuguz. Toki au begiko yat, eta ponik emongo neuke emen nire astia.
KORIN'ek.—Egia esateko, zerok salgei dagoz: yarrai niri; nik esangoz, lurra, berak dakarrena, eta bizikera au begiko ba'yatzuez, zuon otsein zintzo izango naiatzue, ta bertatik erosiko dautzuedaz zuon urreagaz (Alde dagie).

V AGERLEKU.-Basoko beste arlo.

AMIEN, YAGOBA ta beste batzuk aurrera.

ABESTI

AMIEN'ek,—
Zugatz muskerpean,
Nire albo etzan,
Ta txori-eztarri
Ezti-zoragarriz
Dagigun abestu. Nor ona?
Emen ez ikusiko ak
Negu-axe zakarraz
Beste arerio gorririk.

YAGOBA'k.—Areago, areago, arren, areago.
AMIEN'ek.—Gotilunbera egingo induke, Yagoba youn.
YAGOBA'k.—Eskerrik asko orregaitik. Areago, arren, areago. Nik abestiari gotilunberatasuna edoski daikeot, ogigaztaialc arrautzak edoskilen dauzan legetxe. Areago, arren, areago.
AMLEN'ek.—Nire abotsa latza dok; nik bayakíat ire gogokorik ezin dodana.
YAGOBA'k.—Nik etxoat eskatzen ik nire gogokorik egiterik, ik abestutea baño. Tiruk, areago: beste aapaldi bat: izen ori ezarten ete dautsek?
AMIEN'ek.—Euk zer-gura, Yagoba yaun.
YAGOBA'k.—Ez, niri eixaustak emoten ardurarik euren izenak; niri etxaustiek ezer zor. Abestuko ete dok?
AMIEN'ek.—Ire eskarizago nire gogoz baño.
YAGOBA'k.—Tira, ba, eguño iñori eskerrik egitekotan, eskerrak iri: baña or txeratsu Izatea esaten dautsoen zera maíxango epermokorgorri bi aurrez-aurre aurkitzea lango baño eztok; eta iñok biotzez eskerrak egiten daustazanean, txakurrandia edo olangoren bat emon dautsodala iruditzen yatak, eta alc eskekok lez eskerrik asko esaten daustala. Tiruk, abestu egidak; eta gura eztozuenok geldi euki zuon miñak.
AMIEN'ek.—Tiruk ba, abestia amaitu egingo yoat.-Yaunak, bitartean zuok ostondu zaiteze: dukeak zugatz onen azpian edango dau; a egun oso onetan zuon billa ibili da.
YAGOBA'k.—Eta ni egun oso onetan agandilc zelan alde egingoka ibili naz. A ezta niri dagokidan lagunik; ak *aña* arazo dot nik niri oldoztu eragiteko; baña nik Yaungoikoari eskerrak egiten dautsodaz, eta ara zook dirala-ta enaz arropuztuten. Tiruk, egizak txorrotxio batzuk, tiruk.

ABESTI

Geiago-leiatik alde (Emen guztiak batera)
Egin, ta eguzkizale
Danak, berak yaten
Dun ogi billa ta ase,
Dagigun abestu. Nor ona?
Emen ez ikusiko ak
Negu-axe zakarraz
Beste arerio gorririk.

YAGOBA'k.—Orrako ire ukutu orri nik olerki bat ezarriko yautsat, nire asmatze urriarren nik atzo egina,

AMIEN'ek.—Eta nik abestu egingo yoat.

YAGOBA'k.—Onetara dok:

Yazo ba'dadi yazo,
Iñor biurtu asto,
On eta naieia asko
Or itxita atzo,
Gogo setatsu-erako,
Asto, asto, bai asto;
Emen ak ikusiko
Erorik bai naiko
Ami'gana etorriko?

AMIEN'ek.—Zer dok orrako "asto"?

YAGOBA'k.—Orrako ori Eladetarren oles dok, ergelak korroan batzeko. Lo egingo yoat, al ba'yoat; ezin ba'yoat, Aigito'ko lenyaio guztiai marmarka narrua eratsiko yautset.

AMIEN'ek.—Eta ni dukearen billa yoango nok; aren oturuntzea gertu yagok. (Alde dagie banazean.

VI AGERLEKU.-Basoko beste arlo.

ORLANDA ta ADAN aurrera.

ADAN'ek.—Ugazaba maite, ni ezin yoan naiteke aurrerago: Ene! ni goseak il bear nau! Emen etzango naz ni, nire ilobia betean. Agur, ugazaba maite.

ORLANDA'k.—Zer, zer da ori, Adan! Ez ets dozu ori baño biotz geiagorik? Bizi zaitez apur baten; poztu zaitez apur bat; gogargitu zaitez apur bat. Baso muker onek basokorik ezer ba'dakar, edo ni aren yanari izango naz, edo zure yanaritzat ekarriko dautzut. Zure- indarrak baño urrago dago eriotzatik zure ustea. Neugaitik, nasaitu zaitez: zure besoa betean arago eukizu eriotzea beinbeinean; laster nozu emen ostera be; eta nik zuri yatekorik ez ekartekotan, ni gorabera il baño eztozu: baña zu ni ona baño len il ba'zadiz, zuk nire nekeari irri egingo dautsazu. Ondo esanda! Orain argiago dirudizu; eta ni laster naz zukin.-Orraitiño, zu egurats leitu- gordinean zagcz; tira, estalperen batera eroango zaudaz; eta etzara ilgo bazkaririk ezagaitik; basamortu onetan ezer bizi ba'da. Argitu gogo ori, Adan on! (Alde dagie).

VII AGERLEKU.-Basoko beste arlo.
Mai iminita.

DUKE izana,, AMIEN, eta beste batzuk.

DUKE izanak.—Nire ustez ori aberetu egin dok; gizon-antzegaz iñon ezin yoat idoro-ta.

I YAUNAK.—Ene yaun, oraintxe-oraintxe alde e-gin dau ak emendik; emen egon da txitxari abesti entzuten.

DUKE izanak.—Belarribako uts a abeslari egin ba'yaku, laster izarrak alkar yoka ikusteko gara. Zoaze ta billatu egizue; berakin itz egin gogo dodala esan egiozue.

I YAUNAK.—Bera urreratuaz nekeak aurreratu egiten daustaz.

YAGOBA aurrera.

DUKE izanak.—Ara! egun on, yaun! Ze bizikera dok ori, ire adiskide errukarriak ire laguntza-billa eskean ibili bear dabela-ta? Ara! i gogargi augu.

YAGOBA'k.—Ergel, ergel! -Ergel bat idoro dot basoan, ergel yantzinabarra: -ludi onen ziztrin! Ni yanez bizi nazan lez, ergel batekin egin dot trikitx, eta lurrean etzanda eguzkia artzen egoan, eta Zori Andereari marmarka eragon dautso adiskideitzez eta itz apainez, -eta orraitiño a ergel nabar da. "Egun on, ergel" nik esan; "Ez, yaun" ak, "Enagizu deitu ergel Yaungoikoak niri zori ona bidali arte". Gero, sakeletik erloiua atera, ta ari bizitasunbako begiz begiratuta, zurtasun andiz au esan dau: "Amarrak dira; emen ikusi daikegu ludia zelan dabilen bein batera, bein besteraka. Bederatziak izan dirala ordubete baño ezta; eta beste ordubete barru amaikak izango dira; eta olan, ordurik ordura, gu elduaz goaz. eta gero, ordurik ordura usteldaz; eta orrek ba-dau bere ipuña". Ergel nabarra aldiaz olangorik esaten entzun dodanean, nire bidiak ollarrak lez kukurruku egiten asi yataz, ergelak orren oldozkari sakonak izan bear dabela-ta; eta etentzaka barreka eragon dautsat aren erloiutik ordubetean.-Ergel yator ori! ergel air.tza-

kogarri ori! Soñeko nabarra bere yantzi bakarra (4).

DUKE izanak.—Ze ergel dok orrako ori?

YAGOBA'k.—Ergel aintzakogarri ori! -Yauregiko izaneko; eta ak áiñonez, emakumeak gazte ta lirain izanazkero, bai ei dabe olango dirana ezagutzeko lain buru ta geitasun; eta ak bere garaunetan, -garaunok biderako artuko ogia bidaldi-atzenean egoten dan baño legorrago ta igarragoak izanarren, -ak garaunetan iñondiko lekuak dauz berak ikusi ta ikasiko zerez bete-beterik, eta andik estu-estu ta sakatu-sakaturik ateraten dauz.-Ergel al nintz neu be! Neuk be ergel-soñeko-leia dot,

DUKE izanak.—Emongo yak bat.

YAGOBA'k.—Ori da nire soñeko bakarra, baña zuk zure usteetatik zarren zarrez usteltzen doazan bedar txarrak aterata ni enazala gizon zurrik uste izatekotan. Nik ergel-soñekoagaz batera azkatasuna bear dot, axearena langoxe azkatasuna nik norigura putz egiteko, ergelak ori egiten dabe-ta; eta nire ergelkeriak minduagotzen dabezanak egin bear dabe barrerik geien. Eta zegaitik, yaun, egin bear dabe olan? "Zegaitik" erri-elexarako bidea baxen ezagunа da: ergelek zurtasunez ukututen dautsonak, min artu izanarren, ergelkiro yokatzen dau, ukutua, zipladea somatu dauela iragarriaz: ostera, ergelaren begiraleune galduak eurak be zeatz ikusten dabe gizon zurraren ergelkeria. Yantzi egidazu nire ergel-soñekoa; emoidazu baimena nire gogoa iragarteko, eta nik ludi kutsatuaren soin loi-zikina ukuziko, garbituko dct, nire osakaia epez artu gura ba'dabe.

DUKE izanak.—Oa ortik zear! Nik ba-yakiat ík zer egingo endukean.

YAGOBA'k.—Nik bidera iñori aurrez-aurre urtenda, zer egiteko on baño?

DUKE izanak.—Ik oben itsusi-itsusia egingo enduke, obenari agirika eginda; eta izan be, i eu nasai uts izana az, zantarkeribera abereen zantarkeri-leiea bestean; eta ik ludi guztiaren ganera okadaka egotziko endukez ik lokarri ta esibarik batu dokazan zauri ustel eta gaiztakerírik andienak.

YAGOBA'k.—Ba! arrokeriaren aurka norbaitek iñondiko gedarrak egin eta asarrerik gorriena erakutsi ba'dagi, orregaz urlia naiz berendia arro diranik esaten dau ala? Orrako orren gedarrak eta asarrea ez ete doaz aurrera ta aurrera itxaso asarreko urak lez, ekinaren ekinez nekatuta atzeraka asi arte, bítartean iñon gelditzeka? Uriko emakumeetatik zein izentatzen dot nik, esan ba' daoit "Uriko emakumek aintzakoçrorrri eztan bere bizkarrean daioaz errege-semeak eralgi ta ondatu dabezan ondasunak"? Nor etorri lekikit esaten bera izentau dodala, bere auzokoa be bera langoxe danean? Naiz ogibiderik apalenekoen bat, nire zipladea beretzako izan dalakotan etorri ba' dakit eta esan "Iri zer dausk ni arro naiz apal izanagaitik?", orrako orregaz ez ete dau ak iragarten bere ergelkeria ta nire itzen zindotasuna? Aor ba; orrazkero zer? Orrazkero zer? Nire miñak ze irain egin izan dautsan yakin gura neuke; ni zindo ta zuzen izan ba'naz, ak bere buruari egin dautso irain; bera garbi ba'da, errudun ezpa'da, ori izatekotan, nik eralgiko itzak eztautsoe ukututen, or doaz egaz, basaatea lez, iñok beretzako artzeka.-Baña nor datorku or?

ORLANDA aurrera, ezpatea eskuetan dauela.

ORLANDA'k.—Geldi, ez yan geiagorik.

YAGOBA'k.—Zegaitik? Nik oraindik etxoat ezer yan.

ORLANDA'k.—Eztok yango be, bearrekoari emon arte.

YAGOBA'k.—Nondiko ete dogu ollar au?

DUKE izanak.—Ire zori txarragaitik ete augu, gizon, azarri, orren adoretsu? Ala berenberegi ostikopetzen dozak lotsarik arean barik era-mera onak, azikera orren urriko agiri azanazkero?

ORLANDA'k.—Lenengotik ukutu daustazu nire arian. Zori txar gorriaren arantzak eztauste itxi nire azikera leunik erakusten; orraitiño be basoan barik urian azia nozu ta ba-dot ezikerarik. Baña epe artu, gero; niri ta nire arazoai erantzun arte igalioi ukutu dagiena il egingo dot.

YAGOBA'k.—Orrazkero, iri ondo ez erantzutekotan, nik il egin bearko yoat.

DUKE izanak.—Zer gura dok? Ire era onak geiago eragingo yauskuek, ire indarrak biotz oneko izateko guri aregingo dauskuen baño.

(4) Ergelak margo askotariko soñekoak erabilten ebezan: parkak onetariko margokoak, yakea orretariko margokoa, galtzerdiak beste margoko ta, olan, soñekoetatik bakotxak bere m>argo berezia; *ái* zan eta margorik geien batera. Buruan be berarizko txapel barregarri ta margo biziko, •"ergel-txapel" eretxona; soñekoetatik dingilízka txilinak be erabilten ebezan; orregaitik eresten dautse Shakespeare'k ergelai "yantzi-nabarrak".

ORLANDA'k.— Yaiekorikezagaiik ni il-aginik nago, eta yakirik izango al dot.

DUKE izanak.—Yezarri ta yan agik, eta gure maira ondo etorria az.

ORLANDA'k.—Orren yator itz egiten dozu? Azketsi egidazu, arren; nik emen edozer zala zakar-basati uste neban; eta orregaitik artu dot agindu gordinaren arpegia. Baña zarienak zariela, basamortu elkaitz onetan, adar goiilunberaen itzalpean, tarraz astiro doazan orduak galdu ta aintzakotzat artu-ez egiten dozuezanok; eguño egun oberik ikusi izan ba'dozue, iñoz izan ba'zarie elexarako dei egiten dauen yoalerik dagon tokian, iñoz yezarri izan ba'zarie edozein gizon onen maian, eguño zuon betazaletatik negarrik legortu izan ba'dozue, eta iñoren erruki izatea ta iñor zuon erruki izatea zer dan ba'dakizue, biguntasuna bedi, nire eragin-bidea: eta itxaropen onegaz nik lotsaturik nire ezpatea zorroan sartzen dot.

DUKE izanak.—Egia dok guk egun oberik ikuizan doguna, eta yoale deunak be elexarako dei egin izan yauskuk, gizon onen maian be yezarriak gozak, eta erruki samur-deunak sortuazoko negarrak be gure begietan legortu izan yoguzak: eta orrazkero, yezarri adi maitakiro, eta geuk aginduta artu egik guk dogun lagungarria, ire bearrizanari berea emoteko,

ORLANDA'k.—Orrazkero, epe apur bat artu zuok yateko, ni, orein amearen antzera, nire umearen billa yoan eta ari yaten emon arte. Agure errukarri bat dago an, niri maitasun utsez yarraitzearren amaikatxo oinkada neketsu meikika egin izan dauena; gaitz makal bik, adinak eta goseak, estuestu daukien ari bear aña emon arte, nik eztautsot yaki-bilderreri ukutuko.

DUKE izanak.—Oa aren billa. Eta guk etxoagu ezer artuko i etorri arte.

ORLANDA'k.—Eskerrik asko zuri; eta Yeungoikoak onetsiko al zauz zure laguntza onagaitik! (Alde dagi).

DUKE izanak.—Ba-dakusazue gu bakarrik ezkareala zori txarreko; guk gurea egiten dogun agerleku onek baño ikuskizun itzalagorik erakusten dau antzoki luze-zabal eta guziion onek.

YAGOBA'k.—Ludi oso au da antzoki, eta emen gizon eta emakume guztiak norbaitena egiten dabenak baño ez dira; ori bai, emen bakotxak berea egin daroa; gizonemakumeak emen euren sartu-urtenak egiten dabez; eta gizon bakotxak bere bizian ainbat egin-arlo dauz, bere ekitaldiak bere zazpi bizi-aroak dirala. Lenen, sein-aroa edo seinizaroa, ela iñudearen besoetan urrume ta botaka egiten dau; gero, irakastegi-mutiko negartiaren aroa, ta an doa irakastegira idazti-zorroa idun-besapeak zear dingilizka dauela arpegi gazte-guriagaz gogoaz bestera, muker, barakulloaren antzera, astiro. erdi-tatarrez. Urren, maite-aroa, labeak baño putz eta intziri geiago egiten dauela, ta bere neska maíteari abesti samurrak abestuten dautsozala. Geroago, gudari-aroa, ta or dabiltzu iñondiko ziñak egiten, biraourtika, leoi nabarrak baño bizar andiagoa azi, iñok baño izen oberik izan gura, asarre-burruketarako zoli ta bizkor bits-zorro utsa dan entzuts onagaitik, kañoi-agoan ba' da be. Urren, ebazle-aroa, sabel borobil ikusgarri ollaskoz ondo orniduaz, begirakunea ben, bizarra apain eta polito ebagita, esakune ta atsotitz zurrik ugari, ta orain-tsuko amaika ikasbide; eta olan egiten dau bere egitekoa. Seigarren bizi-aroa, parka zírtzíl eta nasaiekaz, betaurrekoak sur-ganean, eta txanpon-ziskuak aldamenetan; ondo yagonda euki dauzan bere gaztearoko galtzerdiak nasaiegi ta loka datorkez bere mami-bako zangoai; eta aren gíza-abots beñola garratza ume-abotsaren ikarea artzen asita, txisíuka ta eíenka dabilkola. Guztietarik azkenengo agerraldi ta aroa, yazokunez beteriko iñondiko edesti au amaitzen dauena, bigarren umearoa ta oroimenik-ez utsa da; aginik ez, begirik ez, ago-sapairik ez, ezer ez.

ORLANDA aurrera ADAN'ekin.

DUKE izanak.—Ondo etorriak zuok. Lurrean ezarri egizu zure zama begiragarri ori, ta yan dagiala.

ORLANDA'k.—Eskerrik asko alan be beronen izenez.

ADAN'ek.—Orixe egin be egin bear zendun zuk; nik nekez dagiket itzik neutzako.

DUKE izannk.—Ondo etorria; ekin; bein-beinean eztautzut emongo nekerik zure zori txarraz itaunka.-Yo egizue eresien bat; eta ik, lengusu on orrek, ik abestu.

AMIEN'ek abestu egiten dau.

ABESTI

I

Putz, putz, negu-axe orrek,
Zu etzara giza-eskertxarra
Bestean zakar-gordin;
Zure aginak ez dira ain zorrotz

Zu ikus-ezina zara-ta,
Zure arnasea zakar izanarren.
Abestu gora! goraá gorosti orlegiri;
Aiskidetasunik geiena azal-uts da,
Maitasunik geiena zorakeri uts;
Orrazkero, gora! zorakeri
Bizitza au bai dala argi-argi.

n

Lei egin, lei egin ortzi latz orrek,
On-egite aiztuak bestean
Usigiten eztozun orrek:
Zuk urak gogortuarren,
Zure ezíena estc es. cdiskids
Aiztu gauzana baxen zorrotz.
Abestu gora! gora! e. a.

DUKE izanak.—I Errolanda yaun onaren seme ba'az, ik benetan izan azala agopean esan, eta nire begiak ire arpegian aren antza irarrita ta bizirik dakustanez, ondo etorria adi, toki onetara; ni ire aita maite eban dukea nok. Ator nire artzulora ta an eralgi egidazak ire zoriaren ganetiko gora-berak.- Agure on ori, zu zure ugazaba letxe ondo etorria *zaia* emen; eldu egiok besotik.-Ekazu zure eskua, eta zuon gora-beraen barri yakingo al dot. (Alde dagie).

III EK.;iTALDI

I AGERLEKU.-Yauregiko gela.

P. DUKEA, OLIBER, Yaunak, eta Otseinak aurrera.

P. DUKEAK — Eztokala ikusi arrazkero? Yaun, yaun, olangorik ezin izan leitekek(baña nik dodanik onena errukia ezpa'litzok, eu emen egonazkero, nire apenerako enien eztagon izpiderik enaiendukek bearko. Baña atzarrik ago: dagon lekuan dagola, billa egik ire anaiea: iziotu argizagia ta billa egik; amabi ilebeteotan ekarrik a bizirik naiz ilik, ostean ez adi etorri atzera gure lurretan bizibide-billa. Ire lurrak eta ik oratzekorik dokan oro ta iretzakotzat dozakanak gure eskuratuten yoguzak ik ire burua guk ire aurka uste dogunaz ire anaiearen agoz zuritu arte.

OLIBER'ek.—Onako zer onetan zuk nagusi orrek ezagun al zendu nire biotza! Eguño nire bizian nik eztot maite izan nire anai ori.

P. DUKEAK.—Orrazkero, i ainbat dollorago.- Tira, atera egizue ori bultzaka etxe onetatik, eta arazo orretarako diran nire bendekoak orren lur eta etxeak zeintzuk, zanbat, eta zenbat gei dirian ainbatu dagiezala: arin egin au, eta etxetik egotzita doala or ortik zear (Alde dagie).

II AGERLEKU.-ARDEN basoa.

ORLANDA aurrera, eskuelan ingi dauela.

ORLANDA'k.—Egon or eskegita, nire olerki ori. nire maitasunaren lekukotzat; eta zuk, gabeko erregeno iru burestundun orrek arakatu nire bizi osoaren yabe dan zure eiztarinoaren izena. Ene Errosalinde ori! zugatzok izango dira zure idaztiak, eta euron azaletan sakostaka irarriko dodaz nik nire gogapenak eta bulkoak, baso au begiratzen daben begi orok zure ekandu onen lekukoa edonon ikusi dagien. Arin egin, arin, Orlanda; irarri zugatz bakotxean No lirodn, garbi, azal-ezina, (Aldi dagie).

KORIN eta TATXESTON aurrera.

KORIN'ek.—Tatxeston yaun, zer deretxatzu artzai-bizitza oni?

TATXESTON'ek.—Benetan, artzai, berez bizitza on da izan, baña artzai-bizitza dan aldetik ezta. Bakarreko bizitza dan aldetik, gogo-gogoko yat; baña dizdizbako dan aldetik, bizitza zirtzil da. Ori bai, zelai-basoetako dan aldetik, begiko-begiko yat; baña yauregiko eztalako, gogaikarri da. Gitxi yateko bizitza dan aldetik, ara, nire gogaldiari ondo datorkona da; baña betekadarik ezin egitekoa dan aldetik, nire sabelari txarto be txarto datorko. Ba-dozu yakiturizaletasunik zure kitean, artzai?

KORIN'ek.—Nik dakidan zer bakarra zera da gizona geiago artegatzen dan eta urduriago aurkitzen dala; eta txanponik, eskuarterik eta nozik eztauena íru adiskide on barik aurkitzen dala; euriari dagokona bustitea dala, ta suari dagokona erretea; larra onak ardiak loditu egiten dauzala; eta gauaren

errurik geien eguzkirik ezak dauela; yaiotzaz naiz aleginez buruan argirik eztauena alaiu leiteke eztauela aziera onik, edo ostean odol motel-moteletiko da.

TATXESTON'ek.—Orrako ori dakiana berezko yakituri-zale da. Eguño izan zara erregeurian ala, artzai?

KORlN'ek.—Egiz, eguño bez.

TATXESTON'ek.—Orrazkero, zu gaiztetsia zara.

KORIN'ek.—Ez, eztot uste olangorik...

TATXESTON'ek.—Benetan, zu gaiztetsia zara; eta arrautza txarto errea lez alde batetik erreta.

KORIN'ek.—Yauregi-urian egonezagaitik ala? Zer dala-ta?

TATXESTON'ek.—Ba, zu eguño izan ezpa' zara yauregi-urian zuk eztozu iñoz ikusi izan era-mera onik; eta zuk eguño eramera onik ikusi ezpa'dozu, zure era-merak txarrak izan bear; eta txarkeri edo gaiztakeria oben da, obena barriz, gaitzespena. Zu, artzai, zu galbide gorrian zagoz.

KORIN'ek.—Orren urrik bez, Tatxeston: yauregirako on diran era-merak barregarri dira baserrian, baserrikoak yauregian diran letxe. Zuk esan daustazunez, zuk yauregian eztozu agurrik egiten, eskuetan mun egin baño; era-mera ori zikin litzateke yauregikoak artzai ba'litzaz.

TATXESTON'ek.—Esaterako... arin; tira, esaierako.

KORIN'ek.—Ba, gu gure ardiak esku artean darabilguzala gabiltz; eta arein narruak eta uleak koipatsu dira.

TATXESTON'ek.—Ba! yauregikoen eskuak ez dira egoten izerdia dariela ala? Eta ariren koipea ezta gizon-izerdia bestean osasungarri ala? Orrek eztau mamirik, ekarri odibide oberik, gero; tira.

KORIN'ek.—Orrez ganera. gure eskuak Iatz díra.

TATXESTON'ek.—Egin-eginean be orrexegaitik zura ezpanak lenago somatuko dabez. Ori be mamibako adibide da: adibide sakonagorik ekarri egizu; tira.

KORIN'ek.—Eta sarritan gure eskuak ardiak osatzen ibilita uiez beterik egoten dira, eta guk uiari mun egiterik gurako ete zeuke? Yauregikoen eskuak katakilurrun gozoz usainduta egoten dira.

TATXESTON'ek,—Gizon azal-azal ori! Benetan. zu aragi-zati onaren aldean, arrez betea zara! -Ikasi gizon zurrakandik eta ausmer egin: orrako katuki-usaiki ori uia baño iturri zirtzilagotiko da, -katuari darion ur zikina. Adabau egizu adibide ori, artzai.

KORIN'ek.—Zure zurtasuna nitzako yauregikoegi da: enoatzu aurrerago.

TATXESTON'ek.—Eztozu aurrera yo gura gaiztetu orrek? Bekitsu Yaungoikoa lagun, gizon azal! Yaungoikoak mentatuko al zauz! eda'dega zara zu.

KORIN'ek.—Yaun, benetako beargin nozu ni: irabczísn dodana yaten dok nik nire soñekoak erosi egiten dodaz; iñori eztautsot zor gorrotorik, iñoren zori onari eztautsot bekaitzik; iñoren onak poztu egiten nau, eta asko dot neure gatxa; eta nire arrokizunik andiena nire ardiak bedarra yaten eta nire asuriak esnea edoskiten ikustea da.

TATXESTON'ek,—Orrako ori zuk dozun beste oben agiri, izurbako yatzu; ardi ta ariak alkarganatu, ta zure ogia abere ar-emeai alkarrekin aragizkoa eragitez irabazteko zu gertu egotea: ariaren zantarkerikide izatea; amabi ilebeteko arkaztarik arkera danean, adinkidetasunari yaramonik egiteka ta lotsarik txikienik izateka, ari adar-oker, zar, ardi askokin aragizkoa eginari arkaztearen ganera eragitea. Zu orregaitik gaiztetsia ezpa'zara, txerrenak berak be eztau gura artzairik; ostean ezin dot ikusi zuk zelan alde egin zengikean txerrenagandik.

KORIN'ek.—Emen dator Ganimeda yaun gaztea, nire etzandera barriaron nebea.

ERROSALINDE aurrera, ingi írakurten daragoiola.

ERROSALINDE'k.—
Sorkaldetik sarkalde-Indietara
Eztago Errosatinde lango pitxirik.
Aren aintzakogarriak, axe-bizkarrean,
Ludia zear daroa Errosalinde.
Irudirik ederrenen erreskadea
Baltz baño ez Errosalinde'n aldean.
Ez gogoratu arpegirik
Errosalínde'n dotoreaz besterik.

TATXESTON'ek.—Nik olango olerkiak zazpi urtean egingo neunskizuz, bazkaitordu, apaitordu ta Io-orduetan izan ezik: orrako ori gurin-emakumek azokara-bidean daroan kirats garratza yatzu.

ERROSALINDE'k.—Oa ortik zear, ergel ori!

T ATXESTON 'ek,—Adibidez...

Orein arrak emea bear ba'dau.
Betor Errosalinde'n billa.
Katuk beretaikorik gura ba'dau,
Olantxe, urrean, Errosalinde'k gurako dau.
Negu-yantziak azpi lodi bear dabe,
Bai Errosalinde irisiak be.
Eballak eskutadak egin ta estu bear.

Gero burdiratu Errosalinde'gaz.
Intxaurrik gozoenak azalik mingotsena,
Orretariko intxaur Errosalinde da.
Larrosarik eztiena idoro dagianak.
Maite-arantza ta Errosalinde idoroko.
Onako au olerkien lau-oinka ustela bera yatsu: zegaitik kutsututen dozu zure burua orretarikogaz?

ERROSALINDE'k.—bdlik. ergel motel ori! Orrako orreik zugatzetik eskegita idoro dodaz.

TATXESTON'ek.—**Benetan, zugatz orrek igali txarrak dakaz.**

ERROSALINDE'k.—**Zugaz mentatuko dot eta gero ori mizpiraz mentatuko dot: eta orrazkero, lur-arlo onetako igalirik goiztarrenak arenak izango dira: eta izan be, zu guztiz eldu baño len ustelduta egongo zara, ta egin-eginean be orixe da mizpirari yazoten yakona.**

TATXESTON'ek.—**Zuk esan dozu; baña zuzen ala oker, basoak ebatzi dagiala.**

KELE aurrera, ingi irakurriaz.

ERROSALINDE'k.—**Ixilik! Or dator nire arrebea, irakurten: alde egizu:**

KELE'k.—

Zer dala-ta izan bear onek basamortu?
Emen iñor bizi eztalako ala? Ez;
Zugatzai min bana emongo nik,
Esakera landuak erasateko;
Batzuk, bidean aldarrai dabilen
Gizonaren biziaren laburra,
Azkenean "Plaust" egiten dau-ta.
Batzutan, gogo ta gogo adiskide
Arteko agindu ausiai buruz;
Baña adarrik lerdenenetan, naiz
Esakera bakotxaren azkenean.
Nik idatziko Errosalinde'n izena.
Irakurri dagiani ezautuazota zeruak
Estuan darakusan iratxoen mamia.
Orrazkero Yaungoikoak izamenari agindu
Soin bana artu-ala betetzeko
Andi-anditutako edertasun oroz:
Yaungoikoak bertatik irasi
Elene'n masallak, baña ez aren biotzik;
Kelopatere'n andi-itzala;
Atalante'n alderik onena;
Lukertze gotilunaren lotsortasuna.
Onan zeruko batzarrak Errosalinde'ri
Atal asko asmau eutsozan edergarri,
Arpegi, begi ta biotzik boñ ugari,
Ukuturik ederrenak eukiteko nabari.
Yainkoz izango al dauz ak emaitzok,
Eta ni biziko al naz aren yopu izateko.

ERROSALINDE'k.—**Yupiter maitagarri-maitagarri ori! Ene! zuk zure eiiztarrai egin dautsatzuen itzaldiaren gogaikarri, eta bein be esan ez ai "Epe artu, lagun onok!".**

KELE'k.—**Egun on! atzera, adiskideok; -artzai, alde egizu apur batan: -zoaz orrekin, zu yauntxo.**

TATXESTON'ek.—**Tira, artzai, dagigun alde lotsaz; gure ondasun guztiakaz ezarren, bai gure zorro ta zorroetakoagaz.**

(KORIN **eta** TATXESTON'ek **alde)**

KELE'k.—**Olerlriok entzun dozuz ala?**

ERROSALINDE'k.—**Entzun ez, ostera? Guztiak eta geiago be entzun dodaz, batzuk bear daben baño oin geiagoko be izan dira-ta.**

KELE'k.—**Eztau ardura orregaitik; oñak olerkiak eroateko dira.**

ERROSALINDE'k.—**Bai. baña oñak meiki izan dira-ta, olerki barik be ezin egin izan dabe zirkinik, eta olerkian gelditu dira meiki.**

KELE'k.—Baña entzun-ala ez ete zara arritu zure izena zugatzetatik dingilizka ta zugatzazaletan irarrita aurkitu izanagaz?

ERROSALINDE'k.—**Zu ona baño len bederatzi egunetik zazpian arrituarenetik urrin egcn naiatzu; eta izan be, begira zer idoro dodan palmondo-ganean; ni enau iñok olan izkidetu Pitagora'n aldiazkero, eta ni aldi atan Eire'ko saguto nintzan, nik ozta-ozta gogoratzen dodanez (5**

KELE'k.—Ete dozu zuk au nok egin izan leikeanaren susmorik?

(5) Ainbat izkuntzetan Irlanda eresten dautsoen Europa-sarkalde-iparraldeko erriari bertako seme-alabak Eire (Eeré oguzi) eresten dautsoe. Pitagora, eladetar yakintzaloa Samos izaroan yaio ta Yosu-Kristo'z aurretiko seigarren gizaldian Itali bealdeko Krotona'n bizi ta il zan, am ainbat ikasle beragana batuta. An izan eban bere drakastegia. Pitagora'n ustez, gizonarem gogoa ilezina da, ta bera daroan soña bein ilazkero, gogo ori beste zer bizien batera soñera sartzen da, a-n biziteko. Gogoa beretzat izan dauen gizakia on eta zintzo izan ba'da, bein andik a]de egindakoan, beste gdzaki onen batera aldatuko da, baña len bere bizi-lekutzat izan dauena gaizto izan ba'da, orduan abere naiz piztiren baten soñean sartu bearko dau, ta an bizi luzaroago-laburrago bere gaiztakerien apena ordaindu arte. Orregaitik diño Errosalinde'k bera beñola Eire'ko saguto edo arratoi izan zala, baña ori antxiñako zera izanda, olangorik nekez oroitzen dauela.

ERROSALINDE'k,—Gizonik ete da?

KELE'k.—Bai, eta zuk bedola emon zeuntson katetxoa be idunean dau. Arpegia gorrítu egiten yatzu?

ERROSALINDE'k.—Nor, arren?

KELE'k.—Ene Yaungoikoa, ene Yaungoikoa! zer gatxa benetan adiskideak alkarrekin trikitx egitea; baña lur-ikarak mendiak be ikaratu daikiez, eta olan alkarganatu.

ERROSALINDE'k.—Bai, baña nor izan ete leiteke?

KELE'k.—Izan ete leiteke olangorik?

ERROSALINDE'k.—Bai.eta esaidazu arren-bai-arren, nor izan ete leiteke orren larri eskatzen dauena?

KELE'k.—Arrigarri, arrigarri, arrigarri ta erdi! ostera be arrigarri, eta orraitiño be txakur-eztulik eragiten eztauena!

ERROSALINDE'k.—Nire antzarena! Ní gizon yantzita egonarren, antzari dagokionik badodala uste dozu ala? Unetxo bat luzaroago begira egon-bearra Ego-itxasoa idorotea bestean nekor egiten yaL Arren eta arren, esaidazu nor dan arin be arin; arin itz egingo al dozu. Motelka itz egingo al deustazu, gizon ezezagun au zure agotik bonbil idun-estutik ardaoa urteten dan legetxe darion; aldien geiegi, edo bapez, Arren, atera egizu zure agoko txorkoa, nik zure barriak edan *al* izateko.

KELE'k.—Zuk olan gizon ori zure sabeleratzeko.

ERROSALINDE'k.—Yaungoikoak eginetarikorik ete da? Zetariko gizon da- Buruan txapelik, naiz okotzean bizarrik eroangarri ete da?

KELE'k.—Ez, bizar-iskirik baño eztau.

ERROSALINDE'k.—Ba! Yaungoikoak emongo dautso geiagorik esker oneko ba'yako; etxongo al dot nik aren bizarra azi arte zuk geroagoratzen ezpa'daustazu aren okotza nik ezagutzea.

KELE'k.—Orlanda gaztea da orrako ori, arako burrukariaren orpoak eta zure biotza beingoan itzuli ebazana.

ERROSALINDE'k.—Ez, txerrenarentzako itxi egizuz irriak: itz egin zuk neska betozkoilun eta zintzo orrek.

KELE'k—Sinistu egidazu, lengusin, bera da.

ERROSALINDE'k.—Orlanda ala?

KELE'k—Bai. Orlanda.

ERROSALINDE'k.—Ene! egun onen zori txarreko! Zer egiteko nik gizon-soñekookaz?-Zetan eragoion ak zuk ikusi dozunean? Zer esan dau? Zelan egon da? Nora yoan da? Zetan daragoio emen? Nitzaz itaunik egin dautzu ala? Non gelditu da? Ze agur egin dautzu? Eta noz ikusiko dozu barriro? Itz bategaz bertatik erantzun egidazu.

KELE'k.—Lenen, Gargantua'ren agoa artu bear daustazu zorrean: aldi onetako edozein agorako andiegi da itz ori. Zertzeladoi baietz eta ezetz erantzutea kistarrikasbideari erantzutea baño geiago da.

ERROSALINDE'k.—Baña ak ete daki ni emen baso onetan eta gizon yantzita nagonik? Arako burruka egin abanean bestean gordin ete dago?

KBLE'k.—Maitaleen itaunai erantzutea kizkiak (atomoak) zenbatzea baño be gatxago yatsu; artu egizu nik a idoroaren txastapentxoa, zurrutoidatxoa bakarrik eta lotsabegirapenez eztitan egon zaitez txastapentxo, zurrutadatxo orregaz. Nik a zugazpean idoro dot, lurrera yalgitako uzkurraren antzera.

ERROSALINDE'k.—Ondo esanda Yupiter'ena (6) oiango igaliak yalgiten yakozan zugatzari.

KELE'k.—Entzun egidazu, emakume on.

ERROSALINDE'k,—Aurrera yo.

KELE'k.—An egoan luze-luze etzanda, zaldun zaurituren antzera.

ERROSALINDE'k.—Olango ikuskizun ikustea negargarri izanarren, tokiari eztatorko txarto.

KELE'k.—Zure miñari "geldi" gedar egiozu; arren; eztau yagoten tertziorik. Eiztariren zerak ebazan aldean.

ERROSALINDE'k.—Ene! adu txarreko yatzu ori! a nire biotza ilten dator.

KELE'k.—Nik nire abestia zama barik, nasai abestu gura neuke: zuk ereskidetasuna galdu eragiten daustazu.

ERROSALINDE'k.—Eztakizu emakume nazana ala? Egin bear dodala uste dodanean, nik itz egin bear dot. Ezti orrek, aurrera yo.

KELE'k.—Zuk ereskidetasunetik alde eragiten daustazu.-Ixilik! ez ete dator or bera?

ERROSALINDE'k.—Bera da izan be: alde arduraz baztarrera ta so orri.

(KELE ta ERROSALINDE'k alde)
ORLANDA ta YAGOBA aurrera.

YAGOBA'k.—Eskerrik asko ik lagun eginagaitik; baña egia esateko, bakarrik egotea gurago baño enaieunkek.

(£) Lenagoko erri batzuen ustez edo siniskeriz areitza Yupiter'i opaturiko zugatz zan, eta orregaitik aretxari Yupiter'en zugatz eresten eutsoen.

ORLANDA'k.—**Bai neuk be; eta orraitiño. oiíurearren, ik iagun eginagaitik be eskerrak egiten dauskadaz.**

YAGOBA'k.—**Yaungoikoa bekik lagun: al danik eta meatzen alkarganatuko al gozak.**

ORLANDA'k.—**Banazean obeto egongo al gozak.**

YAGOBA'k.—**Ez muzkildu. arren, zugatzik euren azaletan maite-olerkirik geiago idatzita.**

ORLANDA'k.—**Arren. ez muzkildu nire olerkirik, gogo txarrez irakurrita.**

YAGOBA'k.—**Ire maitearen izena Errosalinde dok ala?**

ORLANDA'k.—**Bai, egin-eginean.**

YAGOBA'k.—**Izen ori etxatak gogoko.**

ORLANDA'k.—**A ukuzi zanean etzoan izan iri gogoko yakana egiteko asmorik.**

YAGOBA'k.—**Luzanga ala motz ete dok?**

ORLANDA'k.—**Nire biotza destean luze.**

YAGOBA'k.—**I erantzun lirainez beterik augu. Ez ete dok izan ik artu-emonik zillarrarotzen emazteakaz, eta ez ete dautsek kendu al izan elastunik?**

ORLANDA'k.—**Ez; baña ik, margo egokidun eun orrek, ik ire itaunak nondik ikasi dokazan bai erantzungo dauskat (7).**

YAGOBA'k.—**Ik buru-argitasun bizkorra dok: nire ustez ori Atalante'n (8) orpoz egina dok. Gurok nikin batera yezarri?** O**lan, guk biok gure ludi andera onen aurka ta beronen zori txar guztien aurka eragoko yautsaguk.**

ORLANDA'k.—**Ludi onetan arnasarik artzen dabenetatik neuaz besteri nik etxautsat agirikarik egíngo, neuk yoat akatsik asko-ta.**

YAGOBA'k.—**Ik dokan akatsik andien eta txarrena i maiteminduta egotea dok.**

ORLANDA'k. --**Akats au nik eneuke aldatuko ire ekandu onik onenagaitik be. Ik gogait eraginik nok.**

YAGOBA'k.—**Egia esan, nik ikin trikitx egin dodanean ni ergel-billa naienbillan.**

ORLANDA'k.— O**rrako ori errekatxuan ito dok; begiratu egik ara, ta an ikusiko dok.**

YAGOBA'k.—**An neure irudia ikusiko naieunkek.**

ORLANDA'k.—**Eta nire ustez orrako ori edo ergel edo ezer ez yak.**

YAGOBA'k.—**Enok egongo luzaroago ikin; agur, Maitasun Yaun ori.**

(YAGOBA'k **alde.-** KELE **ta** ERROSALINDE **aurrera).**

ERROSALINDE'k,—**Otsein zakar-antzean itz egingo dautsot, eta irudi orretan lotsabakoarena egin.-Entzuten dozu ala, basazaie orrek?**

ORLANDA'k.—**Bai, eta ondo; zer gura do2U?**

ERROSALINDE'k.— **Arren, ze ordu iragarten dau erloiuak?**

ORLANDA'k.—**Zuk ze ordu dan itandu bear zenduke; basoan eztogu erloiurik.**

ERROSALINDE'k— O**rrazkero eztago basoan benetako maitalerik, ostean minutorik minutoko asperenak eta ordutik orduko urrumek iragarriko leukie aldiaren oinkada geldoa erloiuak bestean.**

ORLANDA'k.—**Eta zegaitik ez aldiaren oinkada bizkorrik?** O**ri be ez ete litzateke bestea aña egoki?**

ERROSALINDE'k.—**Ezetara bez, yaun. Aldiak lagun batzuentzat onetariko oinkada dau, eta bestetarikoentzat bestetariko. Neuk esango dautzut aldia norentzako doan astiro, norentzako txaka-txaka, norentzako lauoñean, eta norentzako dagon geldi.**

ORLANDA'k.—**Arren, norentzako doa txaka-txaka?**

ERROSALINDE'k.—**Ba! txaka-txaka nekeza daroa neska gaztearentzako ezkontzeko egiunea egin eta eztagu-eguneraño; bitarte ori zazpi gabeko baño ezpa'da be, aldiaren oinkada geldoen geldoz, zazpi urte bestean luze iruditzen yako.**

ORLANDA'k.—**Norentzako doa aldia astiro?**

ERROSALINDE'k.—**Lateraz eztakian abadearentzako ta azur-giltza-minik eztauen aberatsarentzako: eta izan be, bata loak errez artzen dau, ezinikasi dauelako; eta bestea alai bizi da, neke-lorrik eztauelako; batak,**

(7) "Margo argiz margoztutako eun orrek...". Lendik dogu esanda ergelak margo biziko soñekoak erabilten ebezala. Orlanda'k zipladea egozten dautso Yagoba'ri ta zearretcrra, ez artez, ergel dala .dirautso.

(8) ATALANTE. Eladetarren miti-iztiz Atalante Arkadi'tar neska izan zan. Ezkondu gura ez-ta, bere yarrai ebílkozan mutil gazteai esan eutsen eurekin ezkonduko zala, zeñek arinagoketan berari írabaztekotan. Milanion gazteak irabazi eutson, baña orretarako marro ou egín eutson Atalante'ri, zera, Apordite'k emoneko urrezko sagarrak eralgi ebazan Milanion'ek ariñeketea egiteko bide-bidean; Atalante bidean gelditu egiten zan urrezko sagarrok batzeko ta ariñeketea olan galdu egin eban. M-iti orrexek diñonez, Atalante Yason'en bide-lagun izan zan onako au "Urrezko crrdinarruar'en" billa yoan zanean.

alperriko ta irabazirik emoten eztauen yakituriaren zamarik eztauelako;besteak, ezerezaren zama aztunik zer dan be eztakialako. Onako oneintzako aldia astiro ta geldiro doa.

ORLANDA'k.—Norentzako doa lau-oñean?

ERROSALINDE'k.—Eskegiteko lekura daroen lapurrarentzako: eta izan be, oña berez lurrera yausi-ala astiro yoanarren be, ak ara bizkorregi doala uste dau.

ORLANDA'k.—Norentzako dago geldi?

ERROSALINDE'k.—Oporraldian dagozan legegizonentzako: eta izan be, aik epai-alditik epai-aldira lo egiten dautzue, eta gero be eztabe somatzen aldiak aurrera egiten dauenik.

ORLANDA'k.—Non bizi zara zu, gazte lerden?

ERROSALINDE'k.—Nire arreba artzaino onekin; emen baso onen ertzean; gonan gonearen ertza legetxe.

ORLANDA'k.—Emen yaioa zara ala?

ERROSALINDE'k.—Sortu dan lekuan bizi dan kuia legetxe.

ORLANDA'k.—Zure itz-egikerea politegi da onen urrin dagon tokian erosia al izateko.

ERROSALINDE'k— Anitzek esan dauste orixe: baña egia esateko. osaba zar yaungoikazalek irakatsi eustan itz egiten, eta a gaztetan errian bizi izan zan; ak yauregiko era-merak ondo ezagun ebazan, an maitemindu zan-ta. Ak maitakeriaren aurka itzaldirik asko egin eta irakurri daustaz; eta nik Yaungoikoari eskerrik asko emoten dautsodaz emakume egin enauelako, ak zorabioak eraginda-edo emakume guztiai ezarri izan dautsezan akats ugariak nigaz zerikusirik izan eztagien.

ORLANDA'k.—Aipatu ete zengike ak emakumesi ezarri izan dautsezan akatsik andienenetatik bat edo bests?

ERROSALINDE'k.—Etzan an nagusienik; aik alkarren antz-antzeko ziran, txakurrandi bat besteren antzekoxe dan lez; eta akats bakotxak mamu irudian urren etorrenak a bardindu arte.

ORLANDA'k.—Arren, aipatu egizuz euretariko batzuk.

ERROSALINDE'k.—Ez; enoa ni gexoai ez besteri osakairik emoten. Or dabil baso enetan bertoko landara gazteak alperrik galtzen daragoion gizona, euretan koskaka Errosalinde'n izena irarrita; gorapen-olerkiak eskegiten dauz elorrietatik, eta negarrolerkiak asuarretatik; guztiak, egia esateko, Errosalinde'na baño izen ederragorik eztagola eupada egiteko; irudimen utsezko gizon orrekin nik trikitx egitekotan, onu onik emongo neunakio, ak beragan maitasunaren sukarra egunoro dauela dirudi-ta.

ORLANDA'k.—Neu nozu maitasunak olan eragin ori: esaidazu orrako orrentzako se osakai dozun.

ERROSANLIDE'k.—Zuk eztozu aldean nire osabeak niri emoneko ezaugarririk; ak irakatsi eustan zelan igarri noz dagon gizonik maiteminduta; eta nik eztot uste zu orretariko ii-otzaratan atxilotuta zagozanik (9).

ORLANDA'k.—Zeintzuk ziran aren ezaugarriak?

ERROSALINDE'k.—Mosu igarra; eta zuk eztozu olangorik: begi urdin-sartu; eta zuk eztozu olangorik: agiri-agiriko kemen, adore; eta eztozu olangorik: yaramonbako bizar; eta zuk eztozu olangorik; baña nik bizarra gazko ori azkesten dautzut; eta izan be, zuk dozun bizarra ezta zeurea zure anai gaztoagok zuri zergatzat emona baño; orrazkero, zure galtzerdiak lokarribakoak izan benr leukie, zure txapela galartzubakoa, zure soñekoaren besoa botoibakoa, zure oskiak lotubakoak, eta zugan edozer dana bertanbera itxita dagola iragarten dauela. Baña zu etzara olango gizonik; zu, bestera, orratzetik arako agiri zara, eta zuk iñor baño geiago zeure burua maite dozula dirudi.

ORLANDA'k.—Gazte lerden, sinistuazoko al dautzut nik maite dodala.

ERROSALINDE'k.—Niri sinistuazoko be olangorik! zuk maite dozunari sinistuazo egiozu: Eía a, zagoz seguru, a itzuliago dago ori sinistera, sinisten dauela autortzera baño: eta orixe yatzu zer bat emakumeak euren yakinkidetzeari guzurra esaten dautsoena. Baña, benetan, benetan, zu ete zauguz Errosalinde orrenbeste goratzan daben olerkiak eskegiten dauzana?

ORLANDA'k.—Gazte. Errosalinde'n esku zuriarren zin dagitzut, neu nazala orrako ori, zori txarreko ori.

ERROSALINDE'k.—Baña zuk zure olerkiak diñoen bestean maite ete dozu?

ORLANDA'k.—Ez olerkiz, ez izpidez ezin iragarri nik zenbateraño maite dodan.

(9) "Ii otzaratatur atxilotuta zagozanik". Iia landara bigun-leuna *da*, ta baserritarrak iitzetan ebagita yezarlekuen sarea egiteko be erabilten dabe; baita yai-egun andietan yaureíxe *ta* eŕxartebideetan zabaltzeko be. *Mai*tasuna zer bigun-leuna yatzu ta orregaitik maitasunaren lokarriak eta ii-otzarea bitzuek bigun-leunak.

ERROSALINDE'k.—**Maitasuna zorakeri baño etxatzu; eta. neuk diñotzut, etxe ilun eta txibitagarri da zoroak legetxe ta zoroak bestean: eta maitasuna zegaitik olan artu ta olan osatzen eztan ezta besterik, zorakeri ori oituegia dala ta ori zigortu bear leukienak eurak be maiteminduta dagozala baño. Baña orraitiño be ni orrako ori onuz osatzen dakiana nazala iragarten dautzut.**

ORLANDA'k.—**Eguño osatu izan dozu olangorik ala?**

ERROSALINDE'k.—**Bat bai: eta onetara osatu be. Arako ari ni maite nindula irudituazo neuntson, ni nintzala aren neska maite: eta nik a niri egunoro ni maite ninduarena egitera yarri neban: nik orduan, gazte aldakor oldetsu izanda, naibagetuarena, emakume-antzekoarena, aldakorrarena, mukerrarena, luze eretsiarena, negartirena, barretiarena, iñondikorena, matxangorena, azalarena egiten neuntson; biotzaldia zelango, alango zerbait, eta biotzaldirik ezean edozer, umeak eta emakumek geien baten onetariko abere yatzuz-ta: bein gogoko egiten yatan, bein iguin izaten neuntson; bein ari yaramon egin, bein zinka ortik zear bidali; bein agaitik negar egin, bein arí arpegira txu egin: nik olan, maitearena egiten ebilkidana bere maitasun-biotzaldi zorotik aterata zorakeri-gogaldi maitakorrera aldatu neban, zoratu egin neban; zera, ludi onetako uriolari agur eragin, eta baztar ezkutuan bizi eragin neuntson, lekaide bailitzan. Olan osatu neban nik arako a; eta bide au artuko dot nik zura gibela ardiaren biotz zindoa bestean garbitu ta ikuzteko, ta or maitasunaren lorratzik be gelditu eztaiten.**

ORLANDA'k.—**Nik eztot gura osatzerik, gazte.**

ERROSALINDE'k.—**Nik osatuko zindukedaz zuk Errosalinde niri deitu, ta egunoro nire txabolara niri maite nozunarena egiten etorriko ba'zintzaz.**

ORLANDA'k.—**Nire maitasunarren, yoango naiatzu; esaidazu zure txabolea non dan.**

ERROSALINDE'k.—**Zatoz ara neukin, eta neuk erakutsiko dautzut; eta, bide batez, baso onetan non bizi zarean esango daustazu. Ba-goaz ala?**

ORLANDA'k.—**Biotz osoz. gazte on.**

ERROSALINDE'k.— Ez, zuk Errosalinde dei egin bear daustazu.-Tira, arreba, ba-goaz ala? (Alde dagie).

III AGERLEKU.-Basoko beste arlo.

TATXESTON **eta** ODERE **aurrera:** YAGOBA **urrintxotik aik begira.**

TATXESTON'ek.—**Zatoz arin,** O**dere on ori: neu yoango naz zure auntzen billa,** O**dere. Eta,** O**dere? O**n**azkero zure gizon ete naz? Nire taiu izurga-lauak** asetzen ete ZCUT?

ODERE'k.—**Zure taiuak! Yaungoikoa lagun bekigu!** Z**e taiuk?**

TATXESTON'ek.—**Ni emen nozu zukin eta zure auntzakin, arako olerkari gogalditsu-gogalcitsu** O**kiíi zirdoa Gotarrakin egon** izan **zan lez (10).**

YAGOBA'k.—**(Bere kitean) Leku txarrean bizi dan yakituri orrena!** O**ri or lastoz estaliko etxean Yupiter *hcña* txartoago dago.**

TATXESTON'ek.—**Gizonari bere olerkirik aitu ezpa-dagioe, naiz bere urteera zorrotzik ume azkarrak lez erantzuteko lain argi buruan ezpa'dabe, orrako gizon orrek zartada andiago ta gogorragoa artzen dau yatetxean ainbatze andia aurrera ekarten dautsoenean baño.-Benetan, yainkoak olerkariago egin izango al zinduen.**

OCERE'k.—Nik eztakit tutik be "olerkariago" orrek zer esan gura dauen: izatez eta iznez zer zindorik ete da orrako ori? Ezer eta da, gero?

TATXESTON'ek.—**Ez, benetan, ez; eta izan be, olertirik benetakoena irudituena da-ta; eta maiteminduak olertira itzuliak yatzuz; eta aik olerti-bidez egiten dabezan zinak maitale diran aldetik irudi utsa dirala esan leike.**

(.10) "Obidi zindoa Gotarrakm egon izan zan lez". Zogaitik aipatzen dauz emen Shakespeare'k Gotarrak? Ez ete da "goat (gout = au.ntz) 'ta Golh 'Goz) itzakaz yoic.s egiteko? Dana dala, Gotarrak Europa-iparraldeko erritarrak zira:n; gotarrok, euren lurretatik goseak naiz beste errien batzuk bultzauta, Errcmarren yaurerriko ateak sarritan yo ebezan barrura sartzeko samotan, eta ekinen ekinez bai azkenean sartu be.

Obidi, Erromar olerkari ospetsua Yosu-Kisto'z aurretiko 43 gn. urtean yaio zan eta Yosu-Kisto'z onako I17gn. urtean Tomi urian, oraingo Konstantza'n il zan, Kaisar'ak ara erbesteratuta. Uri ori Itxaso Baltzeko sarkaldeko izpazterrean dago, baña aldi atan toki areitan Gotarrik egoanik nik neuk eztakit. Arden'go basoaren ertzetako uriak eta baserriak bai ba-dira Gotarrak an biziten yarri zirianak, eta ba-leiteke Odere odolez Gotar izatea.

ODERE'k.—Orrazkero, zegaitik dozu zuk gurago ni yainkoak olerkariago egin izan ba' nindue?

TATXESTON'ek.—Bai, benetan orixe gura dot, zuk zindo zareala zin egiten daustazu-ta; baña, zu olerkari ba'zintzaz, nik izan neike zuk iruditu egiten dozunaren itxaropen apurrik.

ODERE'k.—Enindukezu etsiko zindo ala?

TATXESTON'ek,—Ez, eta benetan dirautzut, zu itsusi ez izatekotan; eta izan be, zindo ta lirain batera izatea eztia gozakiari gozagarritzat ezartea litzateke.

YAGOBA'k,—(Bere kitean) Ergel utsa!

ODERE'k.—Tira, ba, ni enaz lirainik; eta orrazkero, nik yainkoai esker ona zor dautset zindo egin nabelako.

TATXESTON'ek.—Egiz, zindotasuna neska galduri emotea, okela garbia ontzi zikinera egoztea legetxe litzateke.

ODERE'k.—Ni enaz neska galdurik, nik itsusi izanagaitik yaínkoai eskerrak eginarren.

TATXESTON'ek.—Tira ba, goratuak bediz yainkoak zure itsusitasunagaitik! neska galdu izatea gerora etorri leiteke. Baña, dana dala, nik zukin ezkondu gura dot: eta orretarako emendik urren dagon auzoko erri-abade Oliber Martext'ekin egona nozu: eta basoko leku onetaraxe etorri ta ezkonduko gauzala agindu daust.

YAGOBA'k.—(Bere kitean) Atsegingarri litzakit orrako batzar ori.

ODERE'k.—Tira ba, yainkoak poza ekarriko al dauskue!

TATXESTON'ek,—Olantxe bedi. Bildurti izatekotan, gizona ibili leiteke erabagi-ezinik arazo onetan; eta izan be, emen eztogu yauretxerik (elexarik), basoa baño, ezta lagunik be, adardun abereak ezik. Eta ze ardura dau? Adoretu! Adarrak gorrotagarri dira, baña bearreko. Esanda dago: "Ainbat gizonek eztakie euren ondasunak norañoko diranik, noz arteko diranik": tira ba, amaika gizonek adar onak dabez, eta eztakie noz arte iraungo dabenik. Tira ba, orrako ori bere anderearen ezkontsari da; orretan senarrak eztau zer-ikusirik. Adarrak? Beti gizon txiroentzako bakarrik? Ez, ez; oreinarrik yatorrenak be zitalak bestekoak dauz. Orregaitik mutilzarra zori oneko ete da? Ez; arresidun uria baserria baño aintzakoago dan legetxe gizon ezkonduaren bekokia be mutilzar utsarena baño aintzakoago da; eta burua zegaz yagon eukitea ezetarlko trebetasunik ez eukitea baño oba dan bestean adarra oba da ainbarik egotea baño. (OARRA. Emen Shakespeare'k adarraz diñona aituteko buruan eukizu, irakurle, ak buruan zer erabilen. Emazte ustela dauen senarra adardun ei da. Bai adardun izango da, baña adarrok zetarako dauz emaztea iñorekin ba'dabilko bide txarrak zear, senarrari ziri ederra sartuta? Olango senarrak oba Ieu bere adarrak moztu ta ortik zear yaurtin, bere oea yagoteko gauz ez izatekotan). Emen dator Oliber yauna.

OLIBER MARTEXT Yauna aurrera.

Oliber Martext yaun, ondo etorria zu toki onetara. Emen zugatz onen azpian egingo dogu gugazkoa, ala zukin batera zure yauretxera yoango gara?

OLIBER Y.'k.—Ez ete dago emen iñor emakumea zuri emoteko?

TATXESTON'ek,—Nik eztot artuko gizonek emotekotan.

OLIBER Y.'k.—Egiz. edo emakumea norbaitek emon bear dau. edo ezkontzea ezta legezko.

YAGOBA'k.—(Agertuta) Aurrera, aurrera: neuk emongo dautsot emakume ori.

TATXESTON'ek.—Arrasti on, Zer-yatzu-izen yaun ori: nolan zagoz, yaun? Ondo aurkitua zu: Yaungoikoak ordainduko al dautzu zuk oraintsuengoz guri lagun egin izana: pozik nozu zu ikusiaz: -egin-eginean yosta-Ilu dozu emen zure begira, yaun (OARRA, Onako au bere emaztegaiaz diraulso Tatxeston'ek abadeari, ta abadeak neskeari agur egiteko txapela erantzi egin dau): ez: estali zure burua, arren.

YAGOBA'k.—Baña ezkontzera goaz ala, ergel?

TATXESTON'ek.—Idiak buztarria, zaldiak mustur-buru-lokarria, eta aztoreak txilinak dauzan lez, gizonek be bere leiak dauz, yaun; eta usoak mokoaz alkarri kutunkeriak egiten dautsezan lez, ezkonduak be alkarri maitekeriak egin gura izaten dautsez.

YAGOBA'k.—Eta zuk, zareana langO gizon izanda, eskeko baizintzaz, zugaztxoren azpian eskondu gura dozu? Zoaz yauretxera ta billa egizu ezkontzea zer dan esango dautzun abade onik; urli onek zuok alkarrekin zur-arotzak olak alkarregaz lez lotuko zauez; eta gero zuotariko bata laburtuta bestea okertu egingo yok, zur ezoari yazoten yakon lez.

TATXESTON'ek— Enozu eretxi orretako; ni orrek ezkontzea, eta ez bestek, oba dala uste dot nik; eta izan be, orrek enau ondo ezkonduko, urrean; eta ondo ezkonduta egon ezik, ori akiakula ona izango yat ge-

ro níre emaztea bertan-bera izteko (Bere kitean).

YAGOBA'k.—**Zatoze nikin, onu batzuk emon** dagitzudazan.

TATXESTON'ek,—**Tizu. Odere ezti: ezkondu egin bear dogu edo lizunkerian bizi. Agur. Oliber yaun on!--Ez--**

Oliber ezti ori.
Oliber adoretsuoi,
Ez itxi ni atzean:
Bafia,-
Zoaz axean, -
Zoaz, gero:
Etzaudaz bear nire ezkontzean.

(Alde dagie YAGOBA, TATXESTON **eta** ODERE'k)

OLIBER Y.'k.—**Eztau ardura: eguño dollor oldetsu orreitatik iñok eztaust irririk egingo nire zeregin eta arloan (Alde dagi).**

IV AGERLEKU.-Basoko beste arlo. Txabola-aurrea.

ERRASALINDE **ta** KELE **aurrera.**

ERROSALINDE'k.—**Ez egin itzik niri: negar egin gura dot.**

KELE'k.—**Bai, egizu, arren; baña orraitiño be gogoratu ta oldoztu egizu negarrik eztatorkola ondo gizoni.**

ERROSALINDE'k.—**Bafia ez ote dot nik negar egiteko biderik?**

KELE'k.—**Iñok gurako leukeanik eta geien; orrazkero egizu negar.**

ERROSALINDE'k.—**Aren ulea bera be marro egiteko morgoko da.**

KELE'k.—**Yuda'na baño arean ílunago: denganiño, aren mosuak Yuda berberaren umeak dira.**

ERROSALINDE'k.—**Egiz. aren ulea margo oneko da.**

KELE'k.—**Margo bikaineko: zure gaztaña-margoa izan <*ia* beti margo bakarra.**

ERROSALINDE'k.—**Eta aren muna oteunaren ukutua añan deuna da.**

KELE'k.—**Ak Dine'ri begi garbi bi erosi dautsoz: lekaime atsok eleuke ak baño lotsa geiagoz munik egingo; orretarikoak garbitasunaren otza berbera dabe.**

ERROSALINDE'k.—**Bafia zer dala-ta zin egin dau ak gaur goxean etorriko dala ta agiri ez?**

KELE'k.— **Ez, benetan, agan eztago ezetariko egirik.**

ERROSALINDE'k.—**Ori uste dozu zuk ala?**

KELE'k.—**Bai; nire ustez ezta a sakel-lapurrik, ezta zaldi-lapurrik be; baña maitasunagazko zintzotasunez ontzi utsa bestean, naiz mamia arrak yandako itxaur-mokola bestean arro.**

ERROSALINDE'k.—**Maitasunagazko eztala zintzo?**

KELE'k.—**Bai, manteminduta dagonean bai; bafia nik eztot uste *a* maiteminduta dagonik.**

ERROSALINDE'k.—**Zeuk entzun dautsozu ari argi ta garbi zin egiten maitaminduta egoala.**

KELE'k.—**"Egoala" etxatzu "dagola"rik: ganera, maiteminduaren zina ezta sinisgarriago ardao-saltzallearena baño; biak dagotzuz ainbatze guzurrezkoen alde. A emen baso onetan dago zure aita dukearen yarraigoan.**

ERROSALINDE'k.—**Atzo egin neban nik trikitx dukeakin, eta ak ainbat zer itandu eustazan. Ze senitarteko nintzan itandu eustan; nik berea bestean oneko nintzala erantzun neuntson; orrazkero, barre egin eta geiago barik alde egiten itxi eustan. Baña zetarako aipatu bear dogu guk gurasorik Orlanda langO gizonik izanazkero?**

KELE'k.—**Ene! a gizon adoretsu yatzu! ak olerki adoretsuak idazten dauz, adoretsu itz egiten dau, adoretsu zin egiten dau, eta adoretsu austen dauz zinak, eta maitearen biotza alderik alde zearretara zulatzen dau, zaldun aztamakil-burrukari zakar, burruka ori ondo ikasibakoak, zaldiari aztalak aldea batetik bakarrik sartuta, aztamakilea austen dauen antzera (11); ba-**

Olil) Erdi-aroan eta oraintsuago be oitu ízan diran yolasik edo nor-geiagoketarik oituenetarikoa zaldunen arteko aztamakilla-norgeiagoketea izan da. Yoko orretarako, gizon bi zaldi banaren ganean yarten dira aztamakil naiz ezpata banagaz, eta zaldiai eztalak saietsetan sartuta, artez-artez eta bete-betean, aurrez-aurre yoan bear dabe alkarregana, burruka! daragoioen arien antzera, ez akerren antzera, eta alkar bularrean yota alkar lurreratzen alegindu. Edozein yokok lez, onek be bere arauak ebazan, eta arauotarik bat, alkar aurrez-aurre yotea zan. Orretarako, lenen zaldia zelan eroan ikasi bear. Yokalariak ez eban yo bear bestea zearretara, albotik ara; olangcrik egiten eban yokalariari irri ta. isc-

ña dana da eder zaldiganekoa gazte lerden ba'da ta zaldia adore itsuz arteztu *ha'* dagi.-Nor dator or?

KORIN aurrera.

KORIN'ek.—Ugazabandera ta ugazaba, zuok sarritan itandu izan daustazue arako maitasunaz alatzen zan artzaiari buruz, nire aLdamenean bedartzan yezarrita bere maíte izaniko artzaino muker-arroa goratzen eragoiola zuok ikusiko artzaiaz.

KELE'k.—Bai, eta ortik zer?

KORIN'ek.—Benetako maitasun zurbilaren eta irxi ta mukertasun arroaren argi bizi gorriaren arteko erakusketea benetan iruditua ikusi gura ba'dozue, alde egizue emendik apur bat, eta gura ba'dozue neuk eroango zauedouz ikusteko lekura.

ERROSALINDE'k.—Ene! goazen, alde dagigun: maitsminduen yanari do alkar maite dabenak ikustea. Eroan gagizuz ikuskizun orretara, eta zeuk ikusiko dozu nik nire egitekoa zoli egingo dodala euren antzerkian (Alde dagie).

V AGERLEKU.-Basoko beste arlo.

SILBI ta .PEBE aurrera.

SILBI'k.—Pebe ezti, ez egidazu irririk; ez. Pebe; enozula moite esan egizu; baña ez esan olan asarre. Eskegitzalleak berak be, eriotzea ikusiaren ikusiz biotza gogortuta eukiarren, aizkorea idun makurtuaren ganera eztau egozten aurreztik azkespena eskatu fcarik. Odol-tantanez il eta bizi ten dana baño be gordinago izango ete zotra?

ERROSALINDE, KELE ta KORIN aurrera, urrintxoan.

PEBE'k.—Nik eneuke izan gura zure eskegitzallerik: nik zugandik igesi egiten dot, zuri minik ez egitearren. Nire begian eriotzea dagola diraustazu zuk; begiak zerik samurrenak eta bigunenak izan eta euren ate bildurtiak bilderrai be itxirik eukita. andia, segurua ta egi-antz-antzeko yatzu izan be iñok begiai gordin, arakin, giza-erale deitzea! Orain betozko egiten dautzut biotz-biotzez: eta nire begiok iñor zauritzeko izatekotan, ilgo al zauze: larrituarena egin orain; lurrera yausi orain; naiz, olangorik ezin ba'dozu, Ene! lotsarren, lotsarren, ez esan guzurrik, nire begiok giza-erale dirala esanda. Erakutsi orain nire begiak egin dautzuen zauria; urratu batzuk egin orratzez, zauratzen bat agertu daiten; iiaren ganean zure eskuaz sakatu ba'dagizu be apur baten, sakatuaren atza an geldituko yatzu: baña nik ganera egotzi dautzudazan nire begiak, eztautzue minik egin; seguru nago, begiak eztabela iñori minik egiteko indarrik.

SILBI'k.—Pebe maite, eguño. -eta eguño ori ur izango al da, -eguño masalla guritan irudimenaren almenik aurkitu ba'dagizu, orduan ezagutuko dozuz maitasunaren gezi zorrotzak egiten dabezan zauri ikus-ezinak, ka egiten yakon, eta yokoa galdu. Yakina, yokalaria lerden eta martzal izatekotan, ikusleak galtzallearentzako etziran izaten ain gordin, alan be ikusleen arteko emakumeak.

PEBE'k.—Baña ordurarte etzakidaz urreratu; eta aldi ori eldu daitenean zure irriz naibagetu nagizu, ez ízan niri errukirik; neuk be ordurarte errukirik izango eztautzudan lez.

ERROSALINDE'k.—(Aurrerago etorri-ala) Eta zegaitik, arren? Nor ete *da* zure ama, zuk olan, dana batera, errukiaren lepotik irain, laido egin eta zu poztuteko? Zer dalata izan bear dozu zuk, orrazkero, arro ta errukibako, nik zugan, benetan, oera argi barik ilunetan be ondo yoan leitekeana baño Iiraintasunik geiago aurkitu ez-ta? Zer esan gura dau orrek? Zegaitik begiratzen nozu? Nik eztakust zugan izamenak saltzeko egiten dauen lan oitua baño zer oberik: -Yaungoikoarena da nire bizitxoa; nire ustez orrek nire begiok be kirimildu gura dauz! £z, ez orixe, neska arro, ez izan olangoren itxaropenik; ez zure bepuru baltzak, ez zure seda baltzezko adatsak, ez zure begi-bola luzangak, ezta zure masalla zuriak be ezin bendaratu izango dabe nire adorerik zure otsein izateko.-Artzai ergel, zegaitik arraikio neska orreri egoe-axe lañotsuaren antzera, axe ta euri dala arnasoska? I amoika bidar gizonago az ori emakume baño. I lango ergelak beteten yoek ludi au ume itsusiz: orrerí bere burua eder iruditzen ba'yakok, eztok bere arpegi ederrez, ire ederrari eskerrak baño; eta ire bitartez bere zerak erakusiko leuskioen baño ederTago eginik ikusten yok orrek bere burua;- baña neska, ezagutu zeure burua; belaunbikotu ta barau eginda egin eskerrak Yaungoikoari, gizon onaren maitasu-

nagaitik: eta izan be, adiskidek lez esan bear Hmitzuf belarririri: Al dozunecrn sa!-du; zu etzara edozein saltegirakorik: gedar egiozu gizon orri erruki-eske: maite egizu; artu orrek eskeintzen dautzuna: motza oso motza da, motz izanda zapuzlari ba'da. Orrazkero, artuizu zutzat neska ori, artzai; agur.

PEBE'k.—Gazte ezti, urte osoan egidazu agirika: gurago dot zuk niri agirika egin, gizon au maite dodala iragarri baño.

ERROSALI'NDE'k.—Gizon ori neska orren itsusitasunera itzuli da, eta neska ori nire agirikeak itzuliko dau maitasunera. Au onan izatekotan, neska orrek zuri betozkoz erantzun-ala, nik' neska orri gozagarritzat itz latz-mingotsak egotziko dautsodaz.-Zer dala-ta begiratzen nozu olan?

PEBE'k.—Asmo txarrk eztozulako maite zaudaz.

ERROSALINDE'k.—Arren, ni enagizu maite, ni mozkorraren zinak baño be ustelago nozuta: ganera, zu ezatxataz begiko.-Nire etxea ezagutu gura ba'dozu, emendik ur ur dagon oliondo-mordotxoan dago,- Bagoaz ala, arreba? -Artzai, ekiok gogor. -Goazen, arreba.- Artzaino, obeto begiratu egizu gizon ori, eta ez izan arro; mundu guztiak ikusi daike, gizon ori bestean txarto erabilirik iñor ezin izan leitekela. Erdu gure artera.

(ERROSALINDE'k eta KORIN'ek eta KELE'k alde)

PEBE'k.—Artzai il ori! orain oartzen yoat nik arako ire esakune edo supitearen indarra: "Nok eguño maite izan dau ikusiaz bat maite izateka?".

SILBI'k.—Pebe ezti ori.

PEBE'k.—Ene! zer diñozu, Silbi?

SILBI'k.—Pebe ezti, erruki zakidaz.

PEBE'k.—Ba! erruki dautzut, Silbi yator.

SILBI'k.—Errukirik dagon lekuan laguntzea be bear litzateke; nik nire maitasunean dodan naibagearen errukirik zuk izatekotan eta zuk niri maitasuna erakustekotan, zure errukia ta nire naibagea biak yoanak litzatekez.

PEBE'k.—Or dozu nire maitasuna: ez ete da ori adiskide izatea?

SILBI'k.—Bai, baña nik zeu gura zindukedaz.

PEBE'k.—Ba! orrako ori geiagokeri litzateke zikoizkeri. Silbi, lenago nik gorroto neuntzun; eta oraindik be maite etzaudaz: baña maitasunaz orren ederto itz egin dagikezunazkero, zure laguntzea, len iguingarri izanarren, orain yasahgo dot; eta nire otseintzan artu be egingo zaudaz: baña ez itxaror: nigandik beste saririk zu nire otseintzan nik artu izanak emongo dautzun pozaz besterik.

SILBI'k.—Batetik nire maitasuna garbi ta oso-oso izan, eta bestetik ni eskarrez landerlander nozu-ta, nik uzta ugari-ugaritzat etsiko dot gari-ebaten daragoion gizonari lurrera yausten yakozan galburuak bctzea: egin zuk nozik-bein irribarretxorik bai, ta ni ortik biziko naz.

PEBE'k.—Ezagun dozu niri oraintsu itz egin daustan gaztea ala?

SILBI'k.—Ez ondo-ondo; baña sarritan egin dot akin trikitx: eta ak erosi dauz beñola agure zakarrarenak ziran txabola ta lurrak.

PEBE'k.—Ez uste izan nik a maite dodanik, nik ataz itandu izanarren; a mutil oldetsu baño ezta: -orraitiño itz egiten ondo dakiana da; -baña ze ardura dauste niri itzak? Orraitiño itzak ondo artzen dira itz dagiana entzuten dagokonari begiko ba' yako. Gazte lirain da urli ori; ez lirain-lirainik: -baña, egia esateko, arro da: eta orraitiño bere arrokeria ondo datorko; gizonarena ondo egingo dau ak: ak dauenik onena aren soin-eraketea da; eta aren miñak irainik egin baño len aren begiak osatu egiten dau. A ezta luze, ezta garraztarik; baña bere urteetarako luze da; aren zangoa alasoko baño ezta; eta orraitiño ondo dago: aren ezpanak gorri polita dabe; bere masalletako gorri nastua baño gorri elduago ta guriago; orixe da egin eginean be gorri utsaren eta damasko-gorriaren arteko aldea. Silbi, emakume batzuk, nik a txatalka arakatu dodan lez arakatu izan ba'lebe, a maite izatera yausi izango ziran: baña nik, nire aldetik, ni a eztot maite, ez iguin be; eta orraitiño nik bide geiago dot ari iguin izateko a maite izateko baño; eta izan be, zer dala-ta *ák* niri agirikarik egin bear eustan? Ak nire begiak baltzak eta nire ulea be baltza dala esan daust; eta, orain gogoratzen yat, ak zapuztu egin nau: andia da nik zelan erantzun eztautsodan atzera: baña bardin da; ez egin izanik ezta aintzakotzat artzerik. Nik a zapuztuteko gutunen bat idatziko dot eta zeuk eroango dautsozu; eroango ete, Silbi?

SILBI'k.—Biotz osoz, Pebe.

PEBE'k.—Bertatik idatziko dot, geia buruan eta biotzean dot: garratz eta laburlabur idatziko dautsot: zarraikidaz, Silbi (Alde dagie).

IV EKITALDI

I AGERLEKU.-Arden basoa.

ERROSALINDE, KELE, **ta** YAGOBA **aurrera.**

YAGOBA'k.—**Arren, gazte polit obeto ezagutuko al zaudaz.**

ERROSALINDE'k.—**Or diñoenez, gotilunbera zara zu.**

YAGOBA'k.—Orixe naiatzu izan be; ori izatea barre egitea baño gurago dot.

ERROSALINDE'k.—**Batera naiz bestera yausiegi diranak mozkorrak baño barregarriago dira.**

YAGOBA'k.—Ba! gotilun izan eta ezer ez esatea on da.

ERROSALINDE'k.—**Ba, orrazkero, taket izatea on da.**

YAGOBA'k.—**Eztot nik yakintsuren gotilunberakeririk, orrako ori nor-geiagokeri yatzuta; ezta ereslarienik be, ori iñondiko yatzuta; ez yauregikoenik be, ori arrokeri yatzu-ta; ezta gudarienik be, ori geiagokeri yatzu-ta; ez legegizonenik be, ori marrokeri yatzu-ta; ezta emakumenik be, ori lirainkeri yatzu-ta; ez maitalenik be, orrako ori orretariko zer guztiak batera yatzu-ta: gotilunberakeri au neure-neure da, askotariko zerez nastua, zer askotatik aterea: eta izan be, nire yoan-etorri ugarietatik aterea dot, olango biltaldietan ni sarritan gotilunberakerian batu-batu eginik ausmer egoten naiatzu oldetsu.**

ERROSALINDE'k.—**Ibiltari! egia esateko, biderik asko dozu gotilunbera izateko; zure eskuak iñorenak ikustearren saldu ez ete dozuzan bildur naz; orrazkero, asko ikusi izan eta ezer ez eukitea, begi aberatsak eta esku Ianderrak eukitea da.**

YAGOBA'k.—**Bai, nik neuk ikusitik aterea irabazi dot.**

ERROSALINDE'k.—**Eta zuk ikusiak egiten zauz, zu gotilunbera: nik gurago neuke ergelen bat euki ni alaitzeko, ni gotilunbera egiteko ikusitikorik euki baño, eta orretarako ortik zear ibili baño be.**

ORLANDA **aurrera.**

ORLANDA'k.—**Egun on, eta zori ona, Errosalinde maite!**

YAGOBA'k.—**Ez, orrazkero, Yaungoikoa lagun bekizu, oskide eztiran olerkiz zuk itz egitekotan.**

ERROSALINDE'k.—**Agur, ibiltari yaun: zazeatu egizu zuk eta iñondiko soñekoak erabili; zapuztu ta laidotu zure aberriko zer on guztiak; ez maite izan zure aberririk, eta larri-larri Yaungoikoari asarre egiozu zarean ori egin zauzalako; ostean nik nekez sinistuko dot zuk "gondola"n uger egin izan dozunik (12) (YAGOBA'k alde). Ba! zelan zagoz, Orlanda? Non izan zara bitarte luze onetan? Zu bai maitale argi! -Olango marrorik niri geiago egitekotan, ez etorri bein geiago nire aurrera.**

ORLANDA'k.—**Ene Errosalinde lirain, agindutik ordubete barruan natorkizu.**

ERROSALINDE'k,—**Ordubetez ausi maitasunaren agindurik! Maitasun-arloan minutoa milla txatal egin eta millarenetik txatal bat bera austen dauenagazko esan leike ari Kupida'k sorbaldan zartadaxoa emon dautsola, baña neuk erantzuten dot aren biotza zaurizeka dagola.**

ORLANDA'k.—Azketsi **egidazu, Errosalinde maite.**

ERROSALINDE'k.—**Ez, orren belu etortekotan, ez agertu geiago nire aurrera; gurago dot berakulloa bera ni moite nauela esaka ibili.**

ORLANDA'k.—**Barakulloa!**

ERROSAUNDE'k.—**Bai. barakulloa; ak, astiro etorriaren, bere etxea bere ganean ekarten dau-ta; nire ustez, zuk emakumeri egin zeinkiona baño ondasun eta esku-erakutsi obea; ganera, ak bere zoria aldean daroa.**

ORLANDA'k.—**Zer yatzu orrako ori?**

012) "Gondola". Binixa'ko ur-bideetan erabilten daben edo beintzat len erabilten eben ontzi azpi-zopal, arin, atze-aurre-yagí, ta atzekaldetik arraun bakarragaz eragiten yakona da "gondola" deretxona. Lagunak ontziaren erdi-erdian yoaten dira. Ontziok uger edo igeri egiteko oxinak be eukiten ebezan barruan.

Emen Shakespeare'k ziplada ederrik egozten dautse an-or-emenka eurrez aurkituko dozuzan txatxu, tentel eta buru-OTÍnai, euren aberriko zerak ezetsi ta ez-aintzakotzat artuta, erbesteko edozer obetzat daben arroputz-gangarrai. Gizona beti bcrt, orain eta aldi aitan. Bedar txar ori gure' artean be' ugeriegi azten da. ta bedarrok ateraten zereginik asko izango dogu. Euzkotcrr, eure buTua ezagutu egik; ez adi bizi beti alboetara begira, eure etxeari yaramonik egiteka.

ERROSALINDE'k.—**Ba! adarrak: zulangoak.. ostera, zuon emazteai eskatu bear dautsazuez adarrak: baña a bere altxorra aldean dauela iskilloakaz dator, eta aren emazteak eztau laido-bildurrik.**

ORLANDA'k.—**Ekandu onik ezta eguño adarginik; eta nire Errosalinde ekandu oneko da.**

ERROSALINDE'k.-—**Eta ni nozu zure Errosalinde ori.**

KELE'k.—**Deitu olan deitzen dautzu; baña orrek zu baño laba obetiko beste Errosalinde'ren bat dau.**

ERROSALINDE'k—**Tira, maitekatu nagizu, maitekatu nagízu; orain gogaldi txitxari doteta, eta itzul-erraz nozu-ta.-Zer esango ete zeunskit orain, ni benetan zure Errosalinde ba'nintz?**

ORLANDA'k.—**Itzik egin baño len mun egingo neunskizu.**

ERROSALINDE'k. **Ez. oba litzakizu lenen itz egin; eta zer-esanik ezagaitik ertzak amustutakoan, orduan yo mosu ta munetara. Izlari onak, zer esan eztakienean, txua yaurtiten dabe; eta maitaleak zer-esanik eztabenean, -Yaungoikoak zurtuko al gauz-, egitekorik garbientzat mosuetara yoten dabe.**

ORLANDA'k.—**Eta mosua ukatzekotan zer?**

ERROSALINDE'k.—**Orduan eskatuazo egiten dautzu, ta orra or barrien-arri itz egiteko bidea.**

ORLANDA'k.—**Nori agortzeko itzik, bere neska maitearen aurrean aurkituazkero?**

ERROSALINDE'k.—**Ba! zeuri, ni ba'nintz zure neska maitea; ostean nire garbitasuna nire buru-argitasuna baño ustelago litzateke.**

ORLANDA'k.—**Ni soñekobarik ala eskaribarik nengokealalco?**

",RROSALIN'DE'k.—**Ez soñekobarik eskaribarik zengokezalako baño. Enozu ni zure Errosalinde ala?**

ORLANDA'k.—**Ba-zareala esateak emoten daust poz apurrik, baña nik aretzaz itz egin gogo dot.**

ERROSALINDE'k.—**Tira ba, aren izenez neuk esaten dautzut etzaudazala gura.**

ORLANDA'k.—**Orrazkero, ni neure izenez, il egingo naz.**

ERROSALINDE'k.—**Ez, ez orixe. bitartekoz il zaitez. Ludi errukarri onak larri-larri sei milla urte dauz, eta aldi-arlo luze onetan ezta il gizonik bere kitean, zera, maitasunagaitik. Toril'eri Elcsdetarralc garaunak *alera* eutsoezan adakigaz yota: eta orraitiño ak egin-alak egin ebazan lenago ilteko; eta orraitiño a yatzu maitaleen eredueta-rik bat. Lander 013) urte eder askotan bizi izctngo *an, Hero'k scctztitu izanarren, uda-erdiko gau bero bategaitik izan ezpa' litz; eta izan be, gazte on *a* Elesponti'n soña ikuzteko asmoz urten zan etxetik, eta, giarra-minak yota, ito egin zan; eta aldi atako egun-barriak diñoenez, Sestos'ko Hero izan zan a il ebana. Baña onako zer guztiok guzur utsa dira: gizonak il dira aldirik aldi, eta arrak yanda dagoz, baña ez dira il maitasunarren.**

ORLANDA'k.—**Nire benetako Errosalinde ez al da izango eretxi orretakorik; eta izan be, autortu dautort, aren betozkoa litzateke asko ni ilteko.**

ERROSALINDE'k.—**Esku auarren zin dagit, ak eztauela ilgo eulirik be. Baña tira, orain zure Errosalinde izango naiatzu gogaldi itzuliagogaz; eta zuk zer eskatuko, nik a emongo dantzut.**

ORLANDA'k.—**Orrazkero, maite nagizu, Errosalinde.**

ERROSALINDE'k.—**Bai, barikuetan maite izango zaudaz, larunbatean e!a egun guztietan.**

ORLANDA'k.—**Artu gura nozu ala?**

ERROSALINDE'k.—**Bai, eta zulango ogei be bai.**

ORLANDA'k.—**Zer diírazu?**

ERROSALINDE'k.—**Zu etzara on ala?**

ORLANDA'k.—**Olan uste dot.**

ERROSALINDE'k,—**Ba, orrazkero, zer onik geiegi maite izan ete leiteke?-Tira, arreba, zuk egingo dozu abadearena, zuk ezkonduko gozuz.-Ekazu esku ori, Orlanda; -zer diñozu zuk, arreba?**

ORLANDA'k.—**Arren, ezkondu gagizuz.**

KELE'k.—**Nik eztakit orretarako itzik.**

ERROSALINDE'k.—**Zuk onan asi bear dozu: "Gurozu, Orlanda-.".**

(13) Toril'ek Kerside neskea maite ebnn, eta bikonde oni buruz Shakespeare'k antzerkí bíkain bat atondu eban; ba-leífeke, Yaungoikoa lagun, antzerki au be gure euzkerara laster aldatzea. (Aldaturik dago).

Lander'ek Hero neskea maite-maite eban. Lander Abidos urian bizi zan, Hero Sestos'en; urí bien bitartean Elesponti'ko itxas-adar estua. Hero Sestos'ko Apordite'n yauretxeko yaupari eme zan. Gazle biak alkarrekin bero-bero maitemindu ziran. Lander gabero etorten yakon Hero'ri,itxas-adarra zear uger eginda, ta orretarako Hero'k bera bizi zan dorreko leiotik argi eginda. Zori txarreko gau baten, Lander uger eragoiola giarretako miñak yota ito egin zan. Au ikusirik, Hero'k dorreko leioa bera bera buruari itxita bera be il egin zan, bere maítearen eríotzea epez eroanezínik.

KELE'k.—Tira ba;--Gurozu, Orlanda, Errosalinde zure emaztetzat?

ORLANDA'k.—Bai, gura dot.

ERROSALINDE'k.—Bai, baña noz?

ORLANDA'k.—Ba! oraintxe; orrek gu ezkondu-ala.

ERROSALINDE'k.—Orrazkero, onan esan bear dozu: "Nire emaztetzat artzen zaudaz, Errosalinde".

ORLANDA'k.—Emaztetzat artzen zaudaz, Errosalinde.

ERROSALINDE'k.—Nik itandu neiketsu zuk orretarako ze eskubide dozun; baña, -nire senartzat artzen zaudaz, Orlanda; emen dozu abadeari aurreak artzen dautsozan neska; eta, benetan, emakume-oldozpenak beti artzen dautsez aurreak bere eginai.

ORLANDA'k.—Oldozpen guztiak egiten dautzue ori; egoak dabez.

ERROSALINDE'k.—Esaidazu orain, noz arte eukiko dozu zeuretu dozun neska ori?

ORLANDA'k.—Beti baño egun bat luzaroago.

ERROSALINDE'k.—Egun bat esaizu, "beti" barik. Ez, ez, Orlanda; Yorrail dira gizonak maitakatzen daragoioenean, Lotazil, ezkontzen diranean; Orril dira neskak neska diranean, baña ortzia goibeldu egiten da bein ezkondu diranean. Barbari-erriko uso arrak bere emeari dautson baño maite-bekaizkeri geiago izango dautzut zuri; lorok euriari egiten dautson baño gedar geiago egingo dautzut; matxangorik baño oldetsuago izango naz; nire gurarietan matzango emerik baño lotsabakoago; utsagaitik negar egingo dautzut, Dine'k arako iturrian lez, eta nik ori zu txitxari izateko zareanean egingo dautzut; ienak legetxe barre egingo dautzut, eta ori zu lo-gura zareanean.

ORLANDA'k.—Baña nire Errosalinde'k olangorik egingo ete dau?

ERROSALINDE'k.—Nire biziarren, nik egiten dodan lez ak be egingo dau.

ORLANDA'k.—Olangorik! baña a zur da.

ERROSALINDE'k,—Ostean ak ezin izan leikean au egiteko bururik; zurrenak yatzuz oldetsuen; itxi egiozuz ateak emakumearen zurtasunari bai, eta leiotik urtengo yatzu; itxi egiozu leioa be, ta giltza-zuloa zear urtengo yatzu; itxiozu a be, ta keagaz batera ke-bidea zear urtengo yatzu.

ORLANDA'k.—Olango zurtasuneko eroazterik dauen gizonak bai esan leikela: "Zurtasun, nora zoaz?".

ERROSALINDE'k.—Ez, orrako zure itaun ori zeure kitean eukizu zure ernaztea zure auzokoaren oera doala ikusi arte.

ORLANDA'k.—Eta ze zurtasun, ze akiakula, ze buru-garbigarri lekarke emazte orrek bere burua zuritzeko?

ERROSALINDE'k — Ba! ara zure billa yoan dala esan. Eztozu goatuko bein bere erantzun barik, miña kendu ezpa'dagiozu. Ene! bere okerraren errua gizonari azarten ezta» kian emakumeak eztagiola emon bularrik bere umeri, ostean ume ergelen bat aziko dauta.

ORíLANDA'k.—Ordu biotan, Errosalinde, nik emen itxiko zaudaz.

ERROSALINDE'k.—Ene! maite ori, ni ezin egon neinteke ordu bian zu barik!

ORLANDA'k.—Nik dukeakin bazkaldu bear dot; ordu bietarako emen izango nozu zukin ostera be.

ERROSALINDE'k.—Bai, zoaz zeuk nora-gura; nik ba-nenkian zu nolango izango zintzazan; ori nire adiskideak esan dauste, eta neuk be ba-neban orrenbesteren susmorik; zure min zuritzalleak irabazi nau ni; -ni zapuztu ta ortik zear bidali nozu, eta orrazkero..., erdu, eriotza; -Ordu biak dira zure ordua ala?

ORLANDA'k.—Bai, Errosalinde ezti.

ERROSALINDE'k.—Nire itzarren, eta bene-benetan, Yaungoikoa bekit lekuko, eta galgarri ez diran beste zin politakarren, zure aginduaren bilderrik txikienik ausi ba'dagizu ausi, naiz ordua baño minuto bat bakarrik geroago etorri, zinauslerik andientzat, maitalerik arro utsentzat. eta zuk Errosalinde deitzen dautsozunarentzako gitxiengarritzat etsiko zaudaz, ustel ugarien artean autatu leiteken ustelik ustelentzat; orrazkero, zure agindurik eztozu yango, nire zemaiok zure ganera etorri eztaitezan.

ORLANDA'k.—Zu nire benetako Errosalinde ba'zintzaz be eneuke beteko zeatzago nire agindurik; orrazkero. agur.

ERROSALINDE'k.—Tira ba, aldia da onango okerreriak ebazten dauzan ebazle zarra, bera bedi ebazle: agur (ORLANDA'k alde).

KELE'k.—Maitasunagazko zure eragoan zuk gure emetasunari iñondiko akatsak ezarri baño eztozu egin: zuri giza-soñekoak erantzi egin bear leuskizuez mundu guztiak ikusi dagian zuk txori orrek zelan manatu dozun zeure abia.

ERROSALINDE'k.—Ene lengusin, lengusin, ene lengusin polit ori, zuk al zenki ni maitasunaren sakonean noraño sartuta nagon! Baña zuk olangorik ezin susmau be; nire biotzeko lerearen sakon-ondoa ezagun-ezina da, Portugal'go itxas-sabela legetxe.

KELE'k.—Edo obeto esateko, ondobakoa; zuk ara egotzi-ala biotz-Ierea andik urteten yakona.

ERROSALINDE'k.—Ez; Benuts'en seme sasikume gaizto berbera, lenen oldozpenaren seme, gibeletik sortu, ta zorakeriak argilaratua bera; berak begirik eztauelako iñonai gaitz egiten dautsen mutiko itsu dollor ak ebatzi dagiala nire maitasunaren sakona norañoko dan: -Erbesteko, nik auxe esango dautzut, ni ezin bizi nazala Orlanda'ren aurrean ezik: ni itzalpe-billa noa, a etorri arte negar-intzirika egoteko.

KELE'k.—Eta nik lo egingo dot. (Alde dagie).

II AGERLEKU.--Basoko beste arlo.

YAGOBA ta Yaunak aurrera, basatarrez yanttita.

YAGOBA'k.—Nor da oreina il dauena?

I Yaunak.—Yaun, neu izan naz.

YAGOBA'k.—Dukearen aurrera daroagun, Erromar erri-benderatzalle bailitzan; eta ondo letorke orri buruan gurenda-orrollotzat oreinaren adarrak imintea.--Ez ete dozu zuk, basatar, ereti onetarako abestirik?

II Yaunak.—Bai, yaun.

YAGOBA'k.—Abestu egizu; doñuak eztau ardura ainbestekorik, otsik asko egitekotan.

ABESTI

1. Zer emongo oreina il dauenari?
2. Daroazala aren narru-adarrak.
   1. Orrazkero, abestu ari gogor:
   (Enparauak zama au eroango dabe)
   Ez artu iraintzat adarra eroatea;
   Gangar izan zintzazan adar-aurrean.
   1. Ire aitaitak eroan yoan;
   2. Ire aitak be eroan yoan:

Guztiak...
Adar, adar, adar guri.
Ezta, ez, barre-irrigarri. (Alde dagie).

III AGERLEKTJ.--Basoko beste arlo.

ERROSALINDE ta KELE aurrera.

ERROSALINDE'k.—Zer diñozu orain? Ez ete da ordu biak baño geiago? Eta Orlanda etxaku agiri!

KBLE'k.—Sinistu egidazu, maitasun garbiak eta buru nastuak eraginda, a, bere makoa ta geziak arturik, urten da... lo egiten. Begira, nor datorren or.

SILBI aurrera.

SILBI'k.—Zutzako da nire geznea, gazte lirain; -nire Pebe txeratsuak au zuri emoteko agindu daust (Idazki damotso): nik eztakit orrek zer dakarrenik; baña, ori idatzi-ala ak izan dauen betozko gogor eta erlabio-eginetatik susmatzen dodanez. idazki ori latz-zorrotz izango dala nik uste; asketsi egidazu, ni errubako geznari baño enozu.

ERROSALINDE'k.—Epea bera ikaratu egíngo leuke idazki onek, eta asarre gorria iragarriazo; au yasan dagianak edozer yasango dau: ni enazala lerden diño ak; nik eramera onik eztodala; arro nazala diraust. eta ni ezin maite izango nindukeala, gizona. Poinitz bestean urri ba'litz be. Yaungoikoarena da nire biotza! Ezta aren maitasuna ni billa nabilkon erbirik; zer dala-ta idazten ete daust onan? -Tira, artzai, tira, idazki au zeuk asmaua da.

SILBI'k.—Ez, benetan dirautzut, nik eztakit zer dakarrenik; Pebe'k idatzi dau.

ERROSALINDE'k.—Tira, tira, ergel zara zu ta maitasunen maitasunez ganaz eginda zagoz. Nik ikusirik dot aren eskua; ak narruzko esku dau, are-arri margoko esku; nik benetan uste neban bere eskuzorro zarrak aldean ebazala, baña bere eskuak ziran; ak etxe-bearrak egiten dauzan emakumeren eskuak dauz, baña orrek eztau ardura; nik dinodana da ak eztauela asmau eguño idazki au; au gizonek asmaua ta bere eskuz idatzia da.

SILBI'k.—Seguru-segurutik Pebe'na da.

ERROSALINDE'k.—Danarena dala, arro ta gordin idatzita dago; eupada egiten dabenen erazkoa: ara! ak eupada egiten daust, Turkarrek Kistarreri legetxe: emakumeren garaun bigunek ezin eralgi leikean asmakunetzar zakarrik, onango Etiopitarren itzik, azalez baño mamiz baltzago danik.-Entzun gura dozu idazkia ala?

SILBI'k.—Gogoko izango al yatzu, oraindik entzuteko dot-eta; orraitiño be Pebe'n gordinkeririk asko entzuna nozu lendik be.

ERROSALINDE'k.—Ak Pebe'nak eta erdi esaten daustaz; oartu zelan idazten daustan neska gordin ak. (Irakurri dirakur).

"Artzaituko yainko ete zara,
Neska-biotza olan itzul dauana?"

Emakumek egin ete lei olango agirikarik?

SILBI'k.—Orrako orri agirika deitzen dautsozu ala?

ERROSALINDE'k.—

"Ara! zure yainkotasuna alde,
Emakume-biotzi gudu zuk gaur be?".

Entzun ete dozu eguño onango akarrik?

"Giza-biotzek maitearena egiten eustanean
Orrek ez eustan biotzik austen, ez, arean",

Ak ni piztitzat nau--,

"Zure begi argien zaputzak
Nigan onango maitasunik bizteko almenik ba'dabe,
Ene! zer egingo ez ete leukie,
Samur begiratuko ba'lebe?
Zuk agirika zengistanean nik maite zindudazan:
Orrazkero, zelan eragingo zure eskariak?
Maitasun au daroatzunak nire maitasun
Onen susmo gitxi dau bere buru-barrun:
Aren bidez iragarri zure maitasuna:
Ia zure gaztetasun maitagarriak nire
Opa zintzoa ta nik dagikedan oro
Zuk ontzat artuko dozun orain-gero;
Ostean, orren bidez nire maitasuna zapuztu,
Orduan asmauko dot zelan eran nire buru".

SILBI'k.—Eta zuk orri agirika deitzen dautsozu?

KELE'k.—Olangorik! artzainoaren errukarri!

ERROSALINDE'k.—Erruki dautsozu ala? Ez, a ezta errukarririk. Zuk olango emakumerik maite izango zenduke ala? -Ba! -zu ereskin egin, eta gero zuri guzurrezko eresiak yoazoteko! Ori yasan-ezina da! -Tira, zoaz zure bidea zear neska agana, -maitasunak zu suge otzan-ezi egin zauzala dakust-eta, —eta au esan ari, ni maite ba'nau, zu maíte izateko agintzen dautsodala: eta olangorik gura ezpa'dau, nik iñoz eztodala artuko nitzat, zuk otoika eskatu ezik.- Benetako maitale ba'zara, alde emendik, eta ez esan itzik be; emen lagun geiago dator-ta. (SILBI'k alde).

OLIBER aurrera.

OLIBER'ek.—Egun on, lirainok: arren, ete dakizue baso onen ertzean norago dagon oliondoz inguraturik dagon ardi-txabolea?

KELE'k.—Emendik eguzki-sarrerara, bean or urreko sakostan: errekatxu-ertzeko zumaeireskadeak, zure eskoatatik ezkerretara, zaroaz artez-artez bertara. Baña tertzio onetan txabolea bera bakarrik (utsik) dago; iñor eztago barruan.

OLIBER'ek.—Begik miñetik onik atera al izatekotan, azalbenez ezagutuko zindukedaz: oretariko soñekoak, eta onenbestetsu urte. "Mutilla lirain da, emakume-antzeko, ta aizta eldutzat artu leitekena: emakumea labur da, ta bere nebea baño baltzeranago". Etzarie zeuok nik itanduten dodan etxearen yabeak ala?

KELE'k.—Iñok itanduazkero, ba-gareala esatea eztot uste arrokeririk danik.

OLIBER'ek.—Orlanda'k gorantziak bidaltzen dautzuez zuoi bioi; eta ak Errosalinde deitzen dautson gizon gazteari sur-zapi odoldu au bidaltzen dautso: -zu ete zara orrako ori?

ERROSALINDE'k.—Neu nozu: zer esan gura dau onek?

OLIBER'ek.—Nire lotsari-zati bat; nigandik yakin gura ba'dozue, ni zetariko gizon nazan, eta nolan, eta zegaitik, eta non orbandu dan sur-zapi au.~

KELE'k.—Esaizu, arren.

OLIBER'ek.—Orlanda gazteak zuokandik orain-tsuengoz alde egin dauenean, ak agindua itxi dautzue ordubete barru atzera etorteko; bere irudipen ezti ta garratzak ausmertuaz bidean yoan yoiala, ara zer yazo yakon! Begiai alborantza eragin eta ara zer agertzen yakon begi-begietan! Zarren zarrez adarrak oroldiz yantzita, ta burua igartuta ta soil eukan aretxaren azpian sorkiz yantziriko gizon uletsu bat egoan aratinik lo: aren idunaren inguruan batu-batuta agoan suge musker-urre-margoko, eta bere burua bizkor, zemaika, aren ago idigira ez sartuko bai sartuko; baña bat-batean, Orlanda ikusita, arako gizonaren iduna itxi, ta tarraz yoanez bere soñagaz gora-berak eginda sasipera sartu da: sasipe atan leoi eme egon da, kukuka ta errapea zimel dauekx, burua lurrari deutsola, ta katu legetxe zai ta begira adi-adi lo egoan gizonak bere buruari noz eragingo; eta izan be, pizti orren errege-izakereak eztautso izten ilik dirudianeri ukutzen: au ikusirik, Orlanda gizonari urreratu yako, ta bere anaiea, bere anai nagusia dala igarri dau.

KELE'k.—Olangorik! Nik sarri entzun izan dautsot ari anai orretaz itz egiten: eta ak

bçre ancd ori izGteaz besterckccn gi_cnt_at erakusten eban.

OLIBER'ek.—Eta bidez erakutsi be, a izateaz besterako zana ondo dakit-eta.

ERROSALINDE'k,—Baña ekin Orlanda'z: -ak bere anaiea leoi eme gose ta esneak batuari yakitzat itxi ete dautso?

OLIBER'ek.—Birritan emon dautso ak bere atzea, asmo orrexegaz; baña apena baño beti be ederrago dan zindotasunak, eta zuzentzea baño indartsuago dan gizatasunak, leoi emeagaz burruka egitera itzuli dabe, ta laster benderatu dau, eta burruka orren zaparradeak iratzarri nau nire lo galtzoritsutik.

KELE'k.—Aren anai zara ala?

ERROSALINDE'k.—Zu yarei zauz ala?

KELE'k.—Zu ete zara a ilteko amaika bidar aleginak egina?

OLIBER'ek.—Bai, neu naz; baña ez, ni enaz: eztot lotsarik ni zer izan nazan zuoi esateko, ni nazana izanik nire aldakuntzea gozo-ezti da-ta.

ERROSALINDE'k.—Bana, sur-zapi odolduaz zer?

OLIBER'ek.—Bertatik. Burutik atzeneraño; guk biok alkarri gure gora-berak, esaterako, ni toki bakar onetara zelan etorri nintzan, azaldu-ala begietatik negar samurrak yalgiten yakuzan; labur esateko, ni duke maitagarriagana eroan nau, ak soñeko barriak eta yaten emon izan daust, eta nire anaiearen maitasun-ardurapean itxi nau; nire anaieak bertatik eroan nau bere artzulora, an berak soñekoak erantzi egin dauz, eta aren besoko onango tokitik leoi emeak bitarte osoan odola dariola egon dan aragizatia eroan dautso; eta orduan larritu egin da, ta larrituaz Errosalinde gedar egin dau. Labur esateko, bere senera ekarri dot, zauria batu dautsot, eta, andik laster, ak biotz sendo izanda, ona bidali nau, ni zuontzako ezezagun izanarren, yazokuneok zuoi esateko, zuri ak eginiko agindua ausi izana aren odoletan bustita, ak yolasez bere Errosalinde deitzen dautson mutil gazteari, zuri emoteko.

KELE'k.—Ene! olangorik, Ganimeda! Ganimeda! Ganimeda ezti ori! (ERROSALINDE larritu egiten da ta sena galdu).

OLIBER'ek.—Asko dira odola ikusiak larritu ta sena galdu eragiten dautsenak.

KELE'k.—Ezta ori bakarrik: -Lengusu..., Ganimeda!

OLIBER'ek.—Begira, ba-dator senera.

ERROSALINDE'k.—Etxean al nengo!

KELE'k.—Ara eroango zauguz: -arren, besotik artuko ete dozu?

OLIBER'ek.—Gora gogo ori, gazte: -gizon ete zara?-Zuk eztozu gizonaren adorerik.

ERROSALLNDE'k.—Nik onako au asmau. iruditu egin dot, autortzen dot. Ba, yaun, Ba! yaun, enazanena ondo egin dodala uste izango leuke soin utsek. Arren, esaiozu zure anaieari nik ederto egin dodala enazanena. *Ja,* ja, ja!

OLIBER'ek.—Ori ezta izan etzareanena egiterik; zure arpegiak geiegi iragarten dau orrako ori benetako biotzaldia izan dala.

ERROSALINDE'k.—Enazanena, seguru zagoz orretan.

OLIBER'ek.—Ba, orrazkero, adore izan ta gizonarena agin.

ERROSALINDE'k.—Orixe egin be egiten dot: baña, benetan, nik legez emakume izan bear neukean.

KELE'k.—Tira, zu geroago ta zurbilago zagoz; arren, goazen etxerantza;--yaun on ori, zatoz gukin.

OLIBER'ek.—Orixe egingo dot, Errosalinde, nire anaieari zuk aren buru-zuriketea zelan artu dozunaren barria eroan bear dautsoteta.

ERROSALINDE'k.—Zerbait asmau bear dot: baña, arren, nik enazanena zelan egin dodanaren barri emon egiozu.-Ba-goaz ala? (Alde dagie).

V EKITALDI

I AGERLEKU.-Arden'go basoa.

TATXESTON eta ODERE aurrera.

TATXESTON'ek.—Izango dogu eretirik. Odere; epe artu, Odere samur.

ODERE'k.—Benetan, agure *yalorraren esana* gora-bere, abadea onik asko izan da.

TATXESTON'ek.—A OUber yaun gaizto-gaiztoa yatzu, Odere, Martext zirtzil-zirtzila. Baña, Odere, baso onetan dago gazte bat zu beretzat zauzana-

ODERE'k.—Bai, ba-dakit nik orrako ori nor dan: nire ardurarik eztau ak ludi onetan; emen dator zuk esan gura Izan dozun gizona.

GULLELMA aurrera.

TATXESTON'ek.—Poz andia yat ergelen bat ikustea: sinistu egidazu, buru argia dogunok erantzukizun andi dogu; irri egin bear dautsogu, ezin eutsin dautsagu irri eginbearrari.

GULLBLMA'k,—Arrasti on, Odere.

ODERE'k.—Arrasti on zuri be, yaun.

TATXESTON'ek.—Arrasti on, adiskide yator. Yantzi txapela, yantzi txapela; bai, arren, yantzi txapela. Zenbat urte dozuz, adiskide?

GULLELMA'k.—Ogei ta bost, yaun.

TATXESTON'ek.—Adin eldu. Gulelma yatzu izena ala?

GULLELMA'k,—Gullelma, yaun.

TATXESTON'ek.—Izen polit. Emen basoan yaioa zara ala?

GULLELMA'k.—Bai, yaun, Yaungoikoari eskerrak.

TATXESTON'ek.—Yaungoikoari eskerrak; -ondo erantzunda. Aberats ete zara?

GULLELMA'k.—Alasoko bat, yaun.

TATXESTON'ek.—Alasoko bat ondo dago. itzalez ederto dago: -eta orraitiño eztago; alasoko bat baño ezta. Zurretariko ete zara?

GULLELMA'k.—Bai, yaun, buru-argitasun polita dot.

TATXESTON'ek.—Ba! ondo esanda. Oraintxe datorkit burura arako esakunea: "Eroak zur dala uste dau, baña gizon zurrak bere burua erotzat dau". Kistar etzan yakiturizalek matsa yan gura ebanean, ezpanak idigi egiten ebazan matsa agora sartzeko; orregaz matsa yateko zala ta ezpanak idigiteko iragarten eban. Zuk neska au maite dozu ala?

GULLELMA'k.—Bai, maite dot. yaun.

TATXESTON'ek.—Ekazu esku ori. Yakíntsu zara ala?

GULLELMA'k.—Ez, yaun.

TATXESTON'ek.—Orrazkero, onako cra ikasi egidazu: eukitea eukite yatzu; eta izan be, izlari-iztiko esakera yatzu edaria ontzi batetik bestera aldatzen danean, bata beteala bestea ustu egiten dala: gure idazle guztiak dira erizkide "ipse" bera dala; orain, zu etzara" ipse", bera neu nozu-ta.

GULLELMA'k.—Nongo bera, yaun?

TATXESTON'ek.—Emakume onekin ezkondu bear dauena bera, yaun. Orrazkero, zuk ergel orrek, au bertan-bera itxi bear dozu, -eta ori garbi esanda oni agur egitea yatzu, onen "lagungoari" agur egitea, eta ori baserritar landugaen agotan onen "laguntzeari" agur egitea yatzu; eme oneri agur egitea, edo geienak esan oi dabenez, emakume oneri agur egitea; eta guztia batera yota, ori eme onekin batera biziteari agur egitea yatzu; ostean zu. ergel, galdua zara; edo, obeto aitu dagizun, ilgo zara; edo, zera, neuk ilgo zaudaz, aurretik kenduko zaudaz, zure bizia bizitzatik eriotzara aldatuko dot, zure azkatasuna yoputzaratu: edena arrazoko dautzut, naíz zangoak makillaka ausi ta birrindu, naiz galtzaiduz il; narrua berotuko dautzut beste batzukin batera; ertzañak ezctrriko dautzudaz; amaika ta erdi era ta bidez ilgo zaudaz; orrazkero, emendik lauorritan eta lau oñean alde egizu«

ODERE'k.^Zoaz bai, Gullelma.

GULLELMA'k.—Yaungoikoz txitxari yarraiko al zara, yaun (Alde dagi).

KORIN aurrera.

KORIN'ek.—Gure ugazaba ta ugazabanderea zure billa dabiltz; arin egin.

TATXESTON'ek.—Goazen zoli-zoli, Odere, goa. zen zoli-zoli, Odere; ba-noa. (Alde dagie).

II AGERLEKtT.-Basoko beste arlo.

ORLANDA ta OLIBER aurrera.

ORLANDA'k.—Izan ete leitekek ik orren gitxi ezagututa neska ori maite izaterik? Ikusiaz bat neska ori maite izaterik? Eta maite izanaz batera maite-erakutsiak egiterik? Eta maite-erakutsiak eginda ara, ak baietza emoterik? Ire emaztetu arte ekingo ete dautsok?

OLIBER'ek.—Ez izan ezpairik arazoaren zorabioaz, neskearen txirotasunaz, gure alkar ezagutza urri-laburraz, nire maitasunerakuste bat-batekoaz, ezta aren bat-bateko baietzaz be; euk be esan nikin: Maite dot Erbesteko; euk be esan akin batera; ak ni maite nauela; izan i be a ta nikin, biokin, erizkide, gu alkarrekin ezkondu geintekezala: ori ire onerako izango dok; eta izan be, nire aitaren etxaldea, ta Errolanda yaun zanaren ondasun guztiak ire izenean iminiko yoadaz, eta ni emen artzai bizi ta il.

ORLANDA'k.—Or dok nire ederretsia. Biar ezkondu aite: ezteguetarako dei egingo yautset nik dukeari ta bere yarrai euren kitetik dabiltzanai. Oa ta gertau egik Erbesteko; eta izan be, ara, emen yatok nire Errosalinde.

ERROSALINDE aurrera.

ERROSALINDE'k.—Yaunkoíkoa Iagun bekizu. neba.

OLIBER'ek.—Bai ta zeuri be. aneba lirain. (Alde dagi).

ERROSALINDE'k.—Ene Orlanda maite ori. zuk zure biotza idunekoan batuta dozula ikusiak emoten daustan naibagearena!

ORLANDA'ek.—Nire besoa da, ez biotza.

ERROSAUNDE'k.—Leoiaren erpak biotza zauritu dautzuela uste izan dot nik.

ORLANDA'k.—Zaurituta dago egon, baña emakume-begiak zaurituta.

ERROSALINDE'k.—Zure anaieak esan ete dautzu zelan nik egin izan dodan sena galduz yausiarena ak sur-zapia erakutsi daustanean?

ORLANDA'k.—Bai, eta ori baño zer arrigarriarik be bai.

ERROSALINDE'k.—Ostera! Ba-dakit nik zuk buruan zer darabiltzun: -bai, egia da; ezta izan eguño olango bat-bateko zerik, ari bien burrukea ta arako Kaisar'en arroputzesakune "Eldu, ikusi ta benderatu neban" alde; izan be, zure anaieak eta nire aizteak alkarganatuta ara. alkar begiratu dabe; alkar begiratu ta ara, alkar maite izan dabe; alkar maite izanda ara, intzirika asi dira; intzirika asita ara, alkarri orren zegaitia itandu dautse; zegaitia yakinda ara, osapide-billa yarri dira; eta orrako orreík eginda ara, ezkontzarako malla bi gorago igon dira, ta beingoan ezkonduko dira, ostean ezkonduena egin ezkondu-aurretik; maitasunezko suak artuta dagoz, eta alkarrekin bat egin gura dabe: makillaka be etzendukez aldenduko orreik alkarregandik.

ORLANDA'k.—Biar ezkontzeko dira; eta neuk dei egingo deulsal dukeari ezleguetara, Baña-ene! Zer ondo mingotsa da sori ona iñoren begiz begiratzea! Egin-eginean be orrexegaitik nik biar biotza astunago izango dot berak gura izan dauena iritxiaz nire anaieak dauen zori ona ikusiaz.

ERROSALINDE'k.—Ba! orrazkero, nik ezin dagiket egin zutzako Errosalinde'na ala?

ORLANDA'k.—Ezin bizi naiteke luzaroago irudipen utsez.

ERROSALINDE'k.—Orrazkero, eztautzut gogaitik eragingo luzaroago izketa eroz. Yakizu, orrazkero, nik orain benetan itz egingo dot-eta, nik zu gizon yator sentzuntsutzat zaudazala: eta nik eztiñot au zuk nire yakituriaz eretxi onik izan dagizun, nik zureaz dodan lez; enabil ni zuk nitzaz erelxi goregikorik izan dagizun billa be, zure onerako lain, eta ez nire ederrerako, izan daitekeanaren baño. Orrazkero, sinetsi egizu, gura ba'dozu, ni iñondiko zerak egiteko gei nazala; nik, ni iru urteko nintzanazkero, bere zeretan trebetasun andiko, baña orraitiño okerreribako magokin artu-emonik izan dodala. Zuk zure erakusketak eta mosuak iragarten daben bestean maite ba'dozu Errosalinde, zure anaíeak Erbesteko emaztetzat artu dagianean, zu be ezkonduko zara Errosalinde'kin: -nik ba-dakit *a* zoriak zelango istillu ta estukuretara eroan izan dauen; eta zuri txarto ezpa'deretxatzu, nitzako ezta bape ezinik a bier zure aurrean, bera dan lez eta ezetariko galtzori barik imintea.

ORLANDA'k.—Benetan ete daragoiozu?

ERROSALINDE'k,—Bene-benetan, eta nire biziarren dirautzut; eta nik nire bizia mailemaite dot, nik zuri mago nazala esanarren. Orrazkero, yantzi egizuz zure soñekorik ederrenak, eta dei egin zure adiskideai, zuk gu*la* izatekotan biar ezkonduko *zaiata; eia* Errosalinde'kin ezkondu be, zuk gura izatekotan. Begira, emen dator Errosalinde ta ni, gu biok maite gauzana.

SILBI ta PEBE aurrera.

PEBE'k.—Gazte, zu nitzako zakar-zakar izan zara, nik zuri idatziko idazkia iñori erakutsi dautsozulako.

ERROSALINDE'k.—Izan ba'naz, eztau ardura: beren-beregi izan naiatzu zakar eta zapuzle: artzai zintzo ori darraikizu zuri; begira egizu, maite egizu; orrek zu gurtu egiten zauz.

PEBE'k.—Artzai on, maite izatea zer dan esaiozu gazte oni.

SILBI'k.—Orrako ori antzi ta negar uts izatea da; -eta ori naz ni Pebe'ntzako.

PEBE'k.—Eta ni Ganimeda'ntzako.

ORLANDA'k.—Eta ni Errosalinde'ntzako.

ERROSALINDE'k.—Eta ni ez emakumentzako.

SILBI'k.—Orrako ori zintzotasun eta otseintza uts izatea da; -eta ori naz ni Pebe'ntzako.

PEBE'k.—Eta ni Ganimeda'ntzako.

ORLANDA'k.—Eta ni Errosalinde'nizako.

ERROSALINDE'k.—Ez ni emakumentzako.

SILBI'k.—Orrako ori irudimen uts izatea yatzu; gurtze uts, adi uts, men uts, apaltasun uls, epe uls, ela artegatasun uts; biolzaldi uts, gurari uts, garbitasun uts, zelango dan ikuste uts. zintzotasun uts da; eta ni ori naz Pebe'ntzako.

PEBE'k.—Orixe ni be Ganimeda'ntzako.

ORLANDA'k.—Orixe ni be Errosalinde'ntzako.

ERROSALINDE'k,—Orixe ni be, baña ez emaktimentzako.
PEBE'k.—Au onan izatekotan, zegaitik ezarten daustazu zuk zu maite izanaren errurik? (EEROSALINDE'ri).
SILBI'k.—(PEBE'ri) Au onan izatekotan, zegaitik ezarten daustazu zuk zu maite izanaren errurik?
ORLANDA'k.—Au onan izatekotan, zegaitik txartzat emoten dozu nik zu maite izatea?
ERROSALINDE'k,—Zegaitik diñozu zuk be "Zegaitik txartzat emoten dozu nik zu maite izatea?".
ORLANDA'k.—Nik orrako ori emen eztagon, eta entzuten eztaustan neskeari dirautsot.
ERROSALINDE'k.—Arren, ez geiagorik onetzaz: orrako ori ta Eire'ko otsoak (14) illargiari egiten dautsezan ausiak bat dira.-Neuk lagunduko dautzut (SILBI'ri), al ba'dot: -nik maite izango zindukedaz (PEBE'ri), al ba' neu.-Erdu guztiok nigana biar. Ni zukin ezkonduko naz (PEBE'ri), eguño emakumekin ezkontzekotan, eta ni biar ezkonduko naz; nik asebeteko zaudaz (ORLANDA'ri), nik eguño gizonik asebetetzekotan, eta zu biar ezkonduko zara: -nik pozik yarriko zaudaz (SILBI'ri), gogoko yatzunek zu poztutekotan, eta zu biar ezkonduko zara.-Zuk (ORLANDA'ri) Errosalinde maíte dozuta, akin batuko zara; -zuk (SILBI'ri) Pebe maite dozu-ta, akin batuko zara; eta nik emakumerik eztot maite-ta, ni be bctuko naz-Orrazkero, agur eta ondo ibili: nik emon dautzuedaz aginduak.
SILBI'k.—Nik eztot utsik egingo, bizi ba' nadi.
PEBE'k.—Ez nik be.
ORLANDA'k.—Nik gitxiago. (Alde dagie).

III AGERLEKU.-Basoko beste arlo.

TATXESTON eta ODERE aurrera.

TATXESTON'ek.—Biar da gure egun pozkarria, Odere; bier izango dira gure ezteguak.
ODERE'k.—Poz-eztitan nago egun orren begira: eta munduko emakume ízatea gurari zantar danik eztot uste. Emen datoz duke erbesteratuaren esku-mutil bi.

Esku-mutil bi aurrera.

I Esku-mutilak.—Ondo trikitx egina, gizon yator.,
TATXESTON'ek.—Egia esateko, ondo trikitx egina. Tira, yezarri, yezarri, ta abestu.
II Esku-mutilak.—Zure alde gagolzuz: erdian yezarri zaitez zu.
I Esku-mutilak.—Eztulik egiteka, txurik egozteka, naiz eztarria latz dogula esateka, artez asiko ete gara abestuten, orrako zerok abots txarraren aurretiko zurikeriak baño eztiranazkero?
II Esku-mutilak.—Bai, olantxe, olantxe, artez: eta biok doñu berean, jitanu bik zaldi-ganean legetxe.

ABESTI

í

Mutila ta bere neska maitea ziran
Ijiji ta ajaja gogatsu eginaz
Garitza muskerra zear igaro ziar
Udabarrian, urtearo bakar politan,
Txorik abestuten dabenean ii ia,
Maitale eztik maite dabe udabarria.

W

Artatxiki-gizalanen bítartean,
Ijiji ta ajaja gogatsu egin-ala
Baserritar politok etzaten zirean,
Udabarrian, urtearo e. a.

jni

Abesti au abestu eben ordu berean.
Ijiji ta ajaja gogatsu egin-alean.
Bizitzea loreaz besterík eztela.
Udabarrian, urtearo e. a.

IV

Artu, ba, orrazkero oingoxe aldia
Ijiji ajaja goga-gogatsu einda
Bizi barria da maitasun-sari-ta.
Udabarrian, urtearo e. a.

TATXESTON'ek.—Egiz, mutil gazte yatorrok, zuok abestuaren mamia garrantzi andiko izanarren, belarri txarra erakutsi dozue.
I Esku-mutilak.—Oker zagoz, yaun; guk yagon dogu aldia guk eztogu galdu gure aldirilc

{44) "Eire'ko otsoak". Zer ete dabil emen Shakespeare'n buruan? Otsoak, Eire'ko naiz beste edonongo izan, ausi bardin egiten dau. Zipladem bat ete dakcrr or ezkutuan? Eire' tarrak euren eskubide ta azkatasunaren alde gedarrik eta zaratarik asko aginarren, etxakiela yaramonik egiten eta egingo be esan gura ete dau?

TATXESTON'ek,—Nire ustez bai; olango abesti zororik entzuten emoneko aldia nik galdutzat dot. Yaungoikoa lagun bekitzue; eta Yaungoikoak atondu ta adabauko al dautzuez abotsok! Goazen, Odere. (Alde dagie>.

IV AGERLEKU.-Basoko beste arlo.

DUKE izana, AMIEN, YAGOBA, ORLANDA, OLIBER, eta KELE aurrera.

DUKE izanak.—Orlanda, mutil orrek agindu dauen guztia egin daikela uste dok ik ala?

ORLANDA'k.—Bein sinistu egiten dot, eta bein ez; zerbait eztabela lortukoaren bildur izanarren, a ta guzti be lortuko dabela uste dabenen antzera.

ERROSALINDE, SILBI, ta PEBE aurrera.

ERROSALINDE'k.—Epe artu beste bein, gure egiunea borobildu arte: (DUKE'ari> Zuk eztozu esan nik Errosalinde ona ekartekotan, Orlanda oneri emongo dautsozula ala?

DUKE izanak.—Nik egingo neuke ori, akin batera emoteko yaurerriak ba'neuz be.

ERROSALINDE'k.—(ORLANDA'ri) Eta zuk diñozu zuk artuko dozula a, nik ekarri ba'dagitzut?

ORLANDA'k.—Nik a artuko neuke, yaurreri guztietako errege ba'nintz be.

ERROSALINDE'k.—(PEBE'ri) Zuk diñozu zu ezkonduko zintzatekezala nikin, nik gura izatekotan?

PEBE'k.—Ni ezkonduko nintzateke, andik ordubetegarrenean il bear ba'neu be.

ERROSALINDE'k,—Baña zuk nikin ezkondu gura ez izatekotan, zuk zure burua emongo ete dautsozu artzai zintzo-zintzo oni?

PEBE'k.—Egiunea olantxe dago eginda.

ERROSALINDE'k.—(SlLBl'ri) Zuk diñozu Pebe artuko dozula, ak gura ba'dau?

SILBI'k.—Bai, a artzea ta iltea biak bat izatekotan be.

ERROSALINDE'k,—Nik arazo guzti au atondutea aginduta dot. Duke orrek, zuk ez yan zure alabea emoteko aginduko itzik: -zuk bez, Orlanda, aren alabea artzeko emon izan dozunik; -Pebe, zuk be ez yan zuk emoneko itzik, nikin ezkonduko zareala; ostean, nikin ezkondu gura ez izatekotan, artzaiakin ezkontzekoa: -Silbi, yagon zuk be zure itza, neska orrekin ezkonduko zereala, orrek ni ez artzekotan: --eta orain asiko naz ni zalantzok argitzen. (ERROSALINDE'k eta KELE'k alde).

DUKE izanak.—Artzoi gazte orregan nik nire alabearen edertasunaren ukututxo bizi batzuk oartu ta gogoratzen dodaz.

ORLANDA'k.—Ene yaun, nik ori lenengoz ikusi nebanean zure alabearen nebatzat artu neban: baña, ene yaun on, gazte ori basoan yaioa yatzu, ta bere osabeak irakatsi dautsoz ikasketa-iskibco batzuk, eta orrek diñonez, osaba ori entzute andiko mago izan ei zan, baso onetako lur-arlo txiki onetan bakarrik ezaguna.

YAGOBA'k.—Beste uriolen bat datorku, urrean, eta bikondeok ontzíra datoz. Emen datar iñondiko pizti-bikondea, edonok ergel deretxenak.

TATXESTON eta ODERE aurrera.

TATXESTON'ek. —Agurra ta zori onak guztioi!

YAGOBA'k.—Ene yaun on, emon egiozu ondo etorria. Au da nik ainbeste bidar basoan aurkitu dodan gizon yator eta ergel-lerak dauzana: berak zin egiten dauenez, yauregiko izana ei da.

TATXESTON'ek,—Orrako orren zalentzarik iñok izatekotan, erakutsiazo dagistala. Yantzan egina nozue; emakumekin labankerietan ibilia nozue; nire adiskideakaz zur eta maltzur, eta nire arerioakaz laban-leun izana nozue; iru yostun murratu dodaz; lau eztabaida izan dodaz, eta bein burruka egin-aginik gelditu nintzan.

YAGOBA'k.—Eta zegaitik etzenduen egin burrukarik?

TATXESTON'ak.—Onezkoak egin genduzan, eztabaidea zazpigarrenetariko zala ikusi gendun-ta.

YAGOBA'k.—Zelan zazpigarrenetariko? Zer esan gura dozu orregaz?... (Dukeari) Ene yaun, begiko izango al yatzu urli au.

DUKEAK. — Begiko-begiko yat.

TATXESTON'ek.—Eskerrik asko, yaun; orrako orren eske nagotzu egon be. Emen natortzu ni, yaun, beste baserritar ezkongeion artean estu-estuka, zin egiteko ta zina austeko; ezkontzeak lotu naiz odolak azkatzen dauen neurriz: -neska txiro au dakat, itsusirik asko da izan, yaun, baña au neure dot; gogaldi lango gogaldia eldu yat, yaun, beste gizonek artu gura eztauena artzeko: zindotasun aberatsa, yaun, zikotza legetxe, etxe txíroan bíziten da; pifxia be ispel zi-

DUKE izanak.—**Bene-benetan, gizon ori bizi ta buru-argi dogu.**

TATXESTON'ek.—**Bai, beie eigel-esakunetan eta beste olango Ieietan.**

YAGOBA'k.—**Baña goazen osteia be arako zazpiganenetaiiko auziia; zelan yakin zendun zuk zuie auzia zapiganenetariko zana?**

TATXESTON'ek.—**Nik a zazpi bidai guzuitau nebalako ian zan; -atondu zuie soña obetotxoago. Odeie: -onetara izan zan, yaun: niri etxatan bape gogoko yauiegiko urliien bizai-moztukeiea: ak eiantzun eustan esanaz, nik aren bizarra ondo moztutzat ezpa'neban, berak ondo moztutzat ebala; ara ba, onetariko erantzunari "Yauregierantzun" deretxo. Nik ari ostera be esatekotan aren bizarra ez egoala ondo moztuta, eta ak erantzun bere gogora moztu ebala, orrako "ezta-baida'"ri "Ziplada arin" deretxo. Nik barrien-barri aren bizarra txarto moztuta egoala esatekotan, eta ak nire eretxia zapuztu, or dozu "Erantzun zakar" deretxona. Nik beste bein aren bizarra txarto ebagita egoala esatekotan, eta ak erantzun nik esana etzala egia, or dozu "Erantzun ordotz" deretxona. Nik barriro be aren bizarra eztagola ondo moztuta esatekotan, eta ak erantzun nik guzurra diñodala, 01 dozu "Auzietantzuna"; eta onan goaz auneia, uiiengoiik uiiengo, "Zeanetarako guzuneia" ta "Artezeko guzuneia" edo "Guzur biiibilera" {15).**

YAGOBA'k.—**Zuk zenbat bidar esan zeuntson uili ari aien bizana ez egoala ondo moztuta?**

TATXESTO'N'ek.—**Enintzan azaitu "Zearretarako guzurra" baño aurrerago yoten; eta a bera be etzan azartu niri "Guzur biribila" esan nebalarik erantzuten; orrazkero, gure ezpatak alkarregaz neurtu, ta alde egin gendun eta bakotxak bere bidea artu.**

YAGOBA'k.—**Esan ete daikedazu orain guzurrak zenbatariko diran?**

TATXESTON'ek,—**Ba! Yaun, guk auzi-mauzietarako arauak idatzita doguz, zuok zuon alkarregazko artu-emonetarako era-merak idaztietan irarrita dozuezan lez; neuk izentauko dautzudaz guzurtatze-mallak. Lenengoa, Yauregi-erantzuna; bigarrena, Ziplada arina; irugarrena, Erantzun zakarra; laugarrena, Erantzun ordotza; boskarrena, Burrukarako erantzuna; seigarrena, Guzurra dalakoa; zazpigarrena, Artezeko guzurra edo Guzur biribila. Guzur biribiletik ez, besteetatik zuk zirrist egin zengike: eta guzur biribiletik be zirrist egin-ezinik eztozu "ba" bategaz. Gogoan dot zelan bein zazpi ebazlek ezin ebatzi izan eben eztabaida bat; baña auzilariak alkarrekin batu ziranean euretaiko batari "ba" otu yakon, eta esan eban, "Zuk olan esan ba'zendun, nik onan esan neban"; eta orrazkero, aik alkarri eskuak estutu, onezkoak egin eta andik ara alkarrekin anaiak Iez yokatzeko zin egin eben. Zura "ba" da onezkoak egiteko bide bakarra: --"ba" orrek indar andia dau.**

YAGOBA'k.—**Urli au ez ete da gizon bakan, yaun? Au edozetarako yatzu on, eta orraitiño ergel da.**

DUKE izanak.—**Orrek bere erokeria estalgitzat erabilten dau, ta aren atzetik arrika egiten dau bere esakune zorrotzakaz.**

ERROSALINDE, **emakumez yantzita, ta** KELE **aurrera; euren aurretik Imen datorrela.**

Eresi ixila

Imenek.—

Zeruan poza lurrean maiteak
Alkarganatzen, batzen diranean.
Duke on, artu zuk zure alabea;
Imen'ek zerutik yarri dautzu aurrean,

415) Bien arteko burrukari ta burrukearen lepotik Shakespeare'k irrí ta barre gozorik egiten dau emen, ta egin-eginean orretarakoxe dakar emen atal au, berak esan gura dauena Tatxeston'i esanazota. Izan be, orduan, eta bai oraintxe be, ainbat lekutan urliak norbaitegaitik au edo bestea esan dauela-ta beste barik, norbait ori or doako urliari burrukarako eupadaka, izen eta entzute cna garbitu egin bear dirala-ta. Urli ta norbait orrek euren aitabitxiak eta lekukoak aututen dabez; aitabitxiok izentauko dabe non, ze izkilloz, zein egunetain eta burrukanak zenbana eraso alkarri egingo, Burrukan irabazi dagiana erruga ta garbi geldituko da, galdu dagiana, ostera, a izango da errudun eta laidotzalle. Zer ba? Aurrekoa zauritzeko naiz ilteko trebeago dana garbi ta erruga ala? Ori ta Erdí-aroko "Yaungoiko-epaia" esaten yakon zuribidea, izenez ezarren, mamiz bat dira. Yaungoikoak nor dan iraindua ta nor iraintzalle iragarri gura ba'leu ta, orretarako, errugearen besoari burrukea irabaziazo, bein uste zanez, ori olan litzateke, baña Yaungoikoak eztau orretan zer sarturik; Yaungoikoa ezta umekerietan ibiltekorik; ak gu iñok masalla batean yotekotan, beste masallea be eskeintzeko agindu euskun, ez iñori eupadarik egiteko.

Bai, andik, andik dakartzu alabea,
No ta To'ren eskuak batu daizuzan,
To'ren biotza No'ren bularrean dozu-ta.

ERROSALINDE'k.—(DUKE izanari) Zuri damotzut nire burua, zure nozu-ta. (ODLANDA'rí) Zuri damotzut nire burua, zure nozu-ta.

DUKE izanak.—Dakustana egia ba'da, zu nire alabea zara.

ORLANDA'k.—Begiak diraustena egia ba'da, zu nire Errosalinde zara.

PEBE'k.—Begiak eta antzak diñoena egia izatekotan, ba! orrazkero. agur, ene maite!

ERROSALINDE'k.—(DUKE izanari) Zu ez izatekotan nire aita, nik eztot aitarik. (ORLANDA'ri) Zu ez izatekotan nire senar, nik eztot izango senarrik; (PEBE'ri) ezta eguño emakumekin ezkonduko be ni, zukin ez izatekotan.

IMEN'ek.—

Ixilik! neuk uxatukot naste au!
Iñondiko yazokunotatik nerauk
Ondoren au ateraten dot neuk:
Emen dira zortzi eskuen eske,
Imen'ek oindik lokarriz esteke,
Emoneko itzak egirik ba'dau,

Zu ta zu etzauez bananduko ezetariko kurutzek: (ERROSALINDE ta ORLANDA'ri).
Zu ta zu biotzean biotz zarie, zuok ori gure: (OLIBER eta KELE'ri).
Zu ta orren maitasuna kide izan bear, gaurbiar: (PEBE'ri).
Ostean emakume izan zure yauntzat, ez ein nigar.
Zu ta zu alkarren lagun zare betiko orain-txe. (TATXESTON eta ODERE'ri).
Negua ta eguraldi txar-zakarra legetxe.
Guk eztegu-abestia abestu-ala,
Asebete zaiteze itaun-itaunka,
Buru-argiz arritzea gitxituta,
Gu onan batu ta zerok amai-ala.

ABESTI

Ezkontzea Yune andian buruntza da;
Mai-oekidego-lokarrin eder-eder!
Imen'ek beteten dau uri oro ganaz;
Izan ezkontza gureni lotsea bere;
Lotsa, adei eta andizuren eta garba
Uri oroko yainko dan Imen'i, ara!

DUKE izanak.—Nire illoba maite ori, ondo etorria zu nigana! Neure alabea bestean maite zaudaz.

PEBE'k.—(SILBI'ri) Nik eztot yango nire itzik, orain nire zara; zure zintzotasunak eta nire irudikortasunak alkarrekin bat egiten dabe.

De BOIS'ko YAGOBA aurrera.

D. B. YAGOBA'k.—Entzun egidazuz iru-lau itz; ni Errolanda yaun zanaren bigarren seme nozu, eta barriok dakartsodaz batzar eder oneri; Perdeika Dukeak, egunean-egunean baso onetara entzute andiko gizonak etorri ta etorri etozala ikusirik, onako bidea artu dau bere indar andien aurrean; indarrok, bera buru dala, beren-beregi batu dauz emen dagon bere anaiea benderatu ta ilteko; asmo askarri onegaz baso onen ertzeraño eldu da; an gizon yaungoikozale zarrekin trikitx egin dau, eta alkarren artean autu-mautuka eragon ondoren, agureak andik alde eragin eta zapuztuazo dautsoz bai aren asrao askarria, bai ludi au be: bere buruntzea bere anai erbesteratuarentzako itxi dau, ta akin batera erbesteratuta dagozanai euren lur eta etzaldeak atzera emon dautsez. Neure bizia yokatzen dot au egia dala erakusteko.

DUKE izanak.—Ondo etorria i, gizon gazte: ik opari ederra dakak ire anaiearen ezkontzarako: batari, baitutako lur-etzaldeak; eta besteari lur-arlo zabal-zabalak, dukego asarrea Baña lenen, amaitu dagigun baso onetantxe ondo asi ta sortua; eta gero, gukin batera egun eta gau latzak igaro dabezan guztiok guri atzera etorri yakun zori onetik atal bana artuko dabe, bakotxari dagokion neurriz. Bitartean, aztu guri ganera etorri yakun nagusitasuna, ta ekin guztiok yolas eta yai egiten: -yo, eresi!- eta zuok, neska ta mutil ezkonbarriok, eresiaren neurrira eragin zuon zangoai.

YAGOBA'k.—Yaun. epe artu. Nik ondo aitu ba'dautzut, dukeak lekaide-bizitzeari eldu dautso, eta yauregiko andi-mandikeriak zapuztu egin dauz, ezta?

DE B. YAGOBA'k—Bai, orize egin dau.

YAGOBA'k.—Ni agana yoango naz: Yaungoikoagana biurtutakookandik zer asko entzun eta ikasten dira.«(DUKE izanari) Zure lengo andizurena zuri izten dautzut; zure epeak eta zure zintzotasunak eta zure ekandu onak ondo írabazita dabe orrako ori:--(ORLANDA'ri) Ik maite izan ire zintzotasunak irabazi dauen neska ori;~(OLIBER'eri) I ire lur eta maitasunetara, eta ire kide andikiekana:-(SILBI'ri) I luzarorako ondo irabazita dokan oera;-(TATXESTON'i) eta i, eztabaida-burruketara, ik ire maite-bidaldirako ilebete birako lain yaki bafio eztok-eta.-Orrazkero, zuok zuon atseginetara, ni neu yantza-

ko neurrietarako barik bestetarako naz-ta.

DUKE izanak.—Etxoik, Yagoba, etxoik.

YAGOBA'k.—Nik eztot astirik alperrik galtzeko; zerbait esan gura ba'daustazu, zuk bertan-bera itxiko artzuloan izango nozu entzuteko. (Alde dagi).

DUKE izanak.—Aurrera, aurrera; asi dagiguzan eztagu-egitekook pozez, amaitu be pozez egingo dirala uste dogun eztegu-egitekook. (Yantzan asten dira).

AZKENENGO ITZAK

ERROSALINDE'k.—Ez dira azkenengo itzak emakumek esan oi dauzanak; baña ezta bape itsusiago gizonek Ienen-itzak esatea baño. Egia ba'da ardao onak eztauela bear ardandegiko atetan orrollorik, egia da onek be eztauela azkenen-itz-bearrik. Orraitiño be ardao ona iragarteko orrollo ona erabilten dabe; eta antzerki onak be ederrago emoten dabe azkenen-itz onaren laguntzeagaz. Nik dodazan istilluen gorria. ezkenenitz errukarriak baño esateko gauz enazanazkero, eta antzerki au aintzakogarri dan txalorik irabazteko gauz enazanazkero! Ni enago eskekoz yantzita, ta, orrazkero, eskean ibilterik eztagokit: nire bide ta urteiera bakarra zuok zinkidetzea da; eta emakumeetatik asiko naz. Neuk agintzen dautzuet. Emakumeok, zuok gizonak maite dozuezalako, antzerki au gogoko izango al yatzue, begiko yatzuen neurriz; eta zuoi gizonoi agintzen dautzuet, emakumeai dautsezuen maitasunagaitik, -eta zuon irribarreak iragarten dabenez, zuotarik iñok eztautse iguinik--, zuotariko ta emakumeen arteko antzerki au gogoko bekitzue. Ni emakume ba'nintz, zuotarikoen bizarrak atsegin yatazan bakotxari, bere giza-taiua begiko yatan bakotxari, bere arnasea iguingarri etxatan bakotxari nik mun egingo neunskio; eta nik eztot ezetariko zalantzarik, bizar onik, arpegi onik, eta arnasa gozorik daben guztiak, nik adeiz burua makurtu dagidanean, nire eskeintza onegaitik txeratsu agur egingo daustela. (Alde dagie).

AMAIA

Salta'n 1959-VII-15'gnean.

ITZ GITXI EZAGUN BATZUK

AINBATZE.—Sartu zara, esaterako, yatetxean; yan dozu ondo edo txarto; yatetxeko uçrazaba naiz otseina zuk eginiko zorra zenbat dan esaten urreratu ezpa'yatzuz, txalo eginda erdu daitezanean zure zorra zenbat dan itanduten dautsezu; eta aik itzez naiz idatziz ainbat dirautzue. Ara ba, orrako ainbat ori yatzu ainbatze. Euskel-gaiztoz kcntu be esaten yako.

AKURATU,—Zorrean artu.

ANITZ.—Guk sarkaldeko euzkeldunok asko erabilten dogunetan, sorkaldekoak anitz erabiliko leukie geuk be esan-gura orretarako /nitz erabiliko ba'gendu oba, askok naiko^ be esan gura dau-ta.

ANDIZUREN.—Ospa, omen, ots andi.

A'NTZOKI.—Batzuk iñorena egiten, iruditzen iñoren antza egiten, eta besteak orrako of ikusten yoaten diran tokia. Beñola olango egitekoak aterpean barik agirian egiten ziran; gerora legorrean, eta geroago berarizko etxeetan. Bilbao'n Arriaga izeneko olango etxerik ba-dozu.

APEN.—Norbaitek okerren bat egin dautzu-Ia-ta, aren lepotik asazkatzea.

ARTZAINO,—Artzai eine.

AUSI.—Zaunka; txakurra ausika dago ta txakurra zaunka dago biak dira bat.

AZOKA.—Zerak salgei egoten diran toki agiri naiz legorra.

BILDER.—Zar txiki-txiki, ze-ze: auts-bildar, ogibildar, e. a.

BURUNTZA, BURESTUN.—Bakaldunak buruan eroaten dabena naiz aren antzeko estuna.

EDADEGA.—Arratia'n mentatu edo txartatubako zugatzari edadega esaten dautsoe; itz onen azkeneko ga ori bageko edo bako esan gura dauena da-ta, edade itza bera iragarteko noizbait erabili izan da gure izkuntzan. {Edandu da aditz au\

EDEN.—Euskel-gaiztoz bereno, naiz pozoi, naiz sikilikitu,

EIZTARINO.—Eíztari eme.

ENTZIN.—Norbaitegan dogun uste ona: gizon gaiztogan eztogu izaten entzinik.

ERAN.—Itz zar-zarra berau eta iñor iltea esan gura dau.

ERESI.—Gure belarriai gozo yaken neurriko ots.

ERREGENO.—Errege eme.

ETOI.—Azpiyale, saltzalle. Yuda, Yosu saldu ebana etzan izan etoi makal.

GARRAZTA edo GARRASTA.— Zeanuri'n, iñausi barik gora artez yoaten izten yakon zugatzari garrasta esaten yako; areitz-garrasta, pago-garrasta, e. a. Gizonen bat luze ba'da be ori dok garrastea esaten da.

GALTZORI.—Galtzeko bide, galdu-gorde, galtzeko zori.

GEZI.—Beñolako guduetan makoagaz yaurtiten zan makillatxoa, ertz batean burdiñezko naiz arrizko ezten zorrotza ebala. Ezten ori kako bikoa izaten zan.

GEZNA.—Norbaiteri beren-beregi eroaten yakon barri naiz deia.

GURENDA.—Ekinaren ekinez zer zailen bat lortzea.

GURTU.—Norbait andi dala iragarteko burua, naiz belauna makurtu. Gurtu Yaungoikoa bakarrik gurtu bear dogu, iñor baño andiago Bera da-ta.

INGI.—Eunki, zerbait bertan idazteko eunegaz naiz beste zerbaitegaz egindako izara zabal-zelai? euskel-gaiztoz papel, paperesaten dautsoe.

INTSIGI.—Itz au be, zori txarrez, il-aginik dogu gure artean; orren egitekoa be bere alaba zoli erantsi(gi)k artu dau bere lepora.

ISPEL.—Ikusi dozu, irakurle, gaztañak eltzen diranean zelan idigiten dan kirikiñoa ta aren barruko gaztañak agirian yarri? Izpazterreko atxetan be idoroko dozuz euren koskola olantsu idigiten daben zer biziak. Orrako orrei deretxe ispelak, euren koskola itxiidigi egiten dabelako.

LANDER.—Ondasunik ez naiz oso gitxi dauena; ez-euki, bearreko.

LEKUKO.—Euskel-gaiztoz, testigu, destigu.

MAKO.—Adaki bat artu ta makurtu egizu, eta bein makurtuazkero, moko batetik bestera ugela naiz beste lokarrien bat imini, adakia arteztu eztaiten; or dozu makoa eginda. Beñola guduetan eta eizean asko erabilten eben makoa, beragaz geziak yaurtiteko. Orain ba-dogu ori baño iskillo oberik. "Arranbel".

MEIKI.—Itz au Naparroa'ko Arbizu'n beintzat bizi da, eta euskel-gaiztoz "koxo" esaten yakona iragarten dau.

ONU.—Neskari izarrak agertu-aurretik etxean egoteko esan ba'dagiozu, onu onik emoten dautsozu.
ONULARI.—Onuak emoten dauzana.
OIAN.—Baso.
OLES.—Dei.
OLERKI.—Euskel-gaiztoz, bertso. "Lizardi" zana olerkari bikain izan zan.
OREIN.—Auntz-antzeko abere, baña auntza baño andiago, ta adarrak kakotuta dauzana.
OTEUN.—Ogi deun; Yosu-Kristo'k gure yakitzak itxi euskun Bere soña.
UKUZI.—Urez garbitu zerbait. Baita "Ikuzi" be.
YARAUNTSI.—Norbait ilten danean aren ondasunen yabetu.
YARAUSLE.—Norbait ilten danean aren ondasunak bere dauzana.
YEBEN.—Gaztel-erderaz "mostaza" deretxon landarea yatzu. Yeben-aziagaz egindako orea Ingelanda'ko maietan uts barik aurkituko dozu; yan-galea irrikatzeko erabilten dabe; ora ilun-samarra yatzu, baltzerana.
YAKINKIDETZA.—Euskel-gaiztoz. "kontzentzi".
TXIRO.—Ezer gitxi naiz ezer eztauena; ezeuki, bearreko.
TXIROTASUN.—Ezer ez naiz zer gitxi eukitea.
ZAURATZ.—Zauri-atz; zauririk egon dan lekuan gelditzen dan ezaugarria.

T> \ *n* A TTT *X* C ^ T T ^

(THE TAMING OF THE SHREVV]

BASATIA EZITA

(THE TAMING OF THE SHREW)

LAGUN ANTZEZTUAK

Andiki.
KISTOBAL SLY, Ontzi-adebatzalle mozkorti.
Arroztegi-andera, Esku-mutila. Antzezlariak, Eiztariak, eta Otseinak) **Sarrerako lagunak.**

BATISTA, Padoba'ko aiton-seme aberats.
BINGEN (Vincentio), Pisa'ko aiton-seme zar.
LUKENTI (Lucentio), BINGEN'en seme, BIANKE'ganako maitemindurik.
PERUTXO (Petruchio), Berona'ko aiton-seme, KATARINE'n esku-billa.

GERMI 'Gremio).
ORTENSI (Hortensio) **Biak BIANKE'n maitale.**

TARNI (Tranio)
BIONDEL (Biondello) **Biak LUKENTI'n otsein.**

GURMI (Grumio)
KURTI (Curtis) **Biak PERUTXO'n otsein.**

Ume-irakasle, BINGEN'ena egiteko agure.

BIANKE.
KATARINE, Basatia, **Biak BATISTA'n alaba.**

Andera alargun.

Yostun, Dendari, etab., ta BATISTA ta PERUTXO'n otseintzakoak.

AGERLEKU.-Bein PADOBA, eta bein Baserriko PERUTXO'rena.

SARRERA

I AGERLEKU.-Iñarradiko Garardotegi-aurrera

Arroztegi-andera ta Sly aurrera.

SLY.—**Edeak egingo dodaz zure narruagaz, bai orixe.**

Arrozt.—**Zildai bi itzako, zital ori!**

SLY.—**Pardel ori! Eslaitar zitalik eztozu; irakurri euren egunkariak; Errikarta Benderatzaleakin batera etorriak gara gu (1).** Orrazkero, **paucas pallabris (2); bebil mundua biraka. Bego!**

Arrozt.—**Ausi dozuzan edalontziak eztozuz ordainduko, ala?**

SLY.—**Ez, txakurtxikirik bez. Zoaz ortik zear, Ieronima (3): zoaz zure oe otzera ta an berotu zaitez.**

ARROZT.—**Ba-dakit zer egin; ertzainaren billa yoango naz (Alde dagi).**

SLY.—**Zoaz guztitariko zainen billa be, gura ba'dozu, baña nik legea eskuan dodala erantzungo dot: nik eztot egingo zirkinik:**

(1) Sly itza, al ba'dozu, irakurla, **Slai** irakurri egizu, eta olan ezin ba'dozu, **Eslai** irakurri. Sly dalako onen edesti-yakituria labur da. Izan be, Ingelanda'ko bakaldun edo erregeen artean Benderatzalle izengoitia darabilena Gillelma da, ez Errikarta. Emen be esan ledike arako "yoalerik entzun dau, baña eztaki otsa noragotik datorren".

(2) Itzok España'ko erdera mordollozko dira, eta antzerki onetan izkuntza orretako beste esakunerik be agiri da.

(3) "Zoaz ortik zear, Ieronima". Esakera au **Ieronima** izeneko Ingelandera-antzerkitik artua yatzu.

datorrela, ta ondo etorria. (Lurrean etzanda loak artzen dau).

Adar-otsak. Andiki bat aurrera eizatik, Eiztari ta Otseinekin.

And,—Eiztari, nire txakurrak ondo begiratu egizak, gero? Tximista eizatxakurra, errukarria, arnas-estuka ta bitsa dariola yagok, eta Gorri eizatxakur ausi-lodiakin batera estu egik. Eztok ikusi izan, mutil, ederto be ederto egin dauela zuri'k esi-ondoan usaina galdu danean, ala? Eneuke galdu gura txakur ori ogei liberagaitik be.

I Eizta.—Ba! Nabar be ba-da orrako ori añako, ene yaun; usaina galdu-ala ausi egiten izan dau, eta gaur birritan artu izan dau usainik arinena be. Sinistu egidazu, txakur obetzat dot nik ori.

And.—Burutik eginda ago i: Echo ori bestean bizkor ba'litzok, ire ori lango amabitzat etsiko neuke nik a. Baña apari ona emon egiek, eta guztiak yagon egizak: ostera be biar eizean yoateko nok.

I Eizt.—Ori ondo, ene yaun.

And.—Zer dogu emen? Ilik. ala mozkorrik? Ikusi, arnasarik artzen ete dau?

II Eizt.—Bai, arnasea artzen dau, ene yaun. Garardoak beroturik ezpa'lego, oe au otzegi litzakio orren gogor lo egiteko.

And.—Abere itsusi ori! Ori bai da-datzala txarririk ba'litz legetxe! Eriotza motz ori, ire irudiaren itsusi ta iguingarri! Yaunak, adarra yo bear dautsat gizon mozkor oni. Ez ete deretxatzue gizon au oera eroan, soñeko gozotan batu, bere atzetan erestunak ezarri, oe-aldamenean oturantza lango oturuntzea imini, ta atzarri daitenerako bere ondoan otsein lerdenak gertau ba'dagioguz, eskeko oni nor dan be aztuko yakola?

I Eizt.—Sinistu egidazu, yaun; orrez besterik ezin yazo izango litzake.

II Eizt.—Iñondiko irudituko litzakio orrako ori. atzarrí ledikenean.

And.—Ames zoro zoragarri irudituko litzakio. Eragi ba gizon ori oera ta txantxetea ondo egizue: arduraz eta bigun eroan gizon ori nire gelarik txairoenera: usaindu egiozue burua ur lurruntsu epelez, eta tokia gozatzeko egur usaintsuak erre egizuez: gerturik euki ereslariak, ori atzarri daitenerako, otsik zerutarrenak yo dagiezan; eta orrek itzik egitekotan, gertu egon, eta burua makur-makur eginik, itzik apalen eta lotsorrenez esan; zer agintzen dozu, dedugarri orrek? Zuotarik bat zidarrezko eskuontzi larrosa-urez beteaz eldu bekio ta loraz txipiriztindu ta ureztau begi; bestek pitxarra ta esku-zapia eroan dagiozala ta esan: Yaun, eder ete yatzu zure eskuak ozkirritzea? Gerturik bego norbait soñeko eder-bikainaz, eta zein soñeko yantziko dauen itandu begio; bestek eizatxakur eta zaldiez itandu dagiola, eta aren emaztea negarrez dagola esan dagiola, senarra il yakolakotan: burutik eginda egon dala buruan sartu ta sinistuazo egiozue; eta orrek baietz esan ba'dagi, amesetan dagola sinistuazo egiozue yaun indartsu dala, ez besterik. Au egin zuok, eta maitakiro egin be, yaunak: asti-emongarririk atsegingarrienetariko izango da, arazo ori neurriz erabili ba'dagizue.

II Eizt.—Seguru zagoz, ene yaun, guk dirautsagunaz besterik eztala orrek uste izateko bestean arduratsu ta ondo egingo dogula gure egikizuna.

And.—Artu ba, ta bigun eroan egizue oera, ta bakotxak bere arloari bekio ori atzarri daitenean. (Eroan daroe SLY. Adar-ots da). Ostera! Nor ete da?

OTSEINAK.—Eder izango al yatsu, euren otseintzea zuri opatzen dautzuen antzezlariak dira orreik.

AND.—Datozala esaiek.

ANTZEZLARIAK aurrera.

Ondo etorriak, lagunok.

ANTZEZL.—Eskerrik asko zuri, yaun orri.

ANDIK.—Arratseon nikin egoteko asmoa dozue, ala?

II ANTZEZL.—Gure otseintzea ontzat artzea eder ba'yatzu bai.

AN'DIK.—Bai, eta biotz-biotzez.-Urli au ezagun yat bein etxagunaren semerik zarrenarena egiten ikusi nebanazkero: arako aldi atan ik bikain egin enduan maiteminduarena: azturik yoat ire izena; baña, bai orixe, egi-antzez eta egoki egin enduan ire egitekoa.

I ANTZEZL.—Soto'z daragoiozula, zuk yaun orrek, uste dot.

ANDIK.—Bai, izan be: bikain egin enduan.--Tira ba, tertzio ezin obez zatorkidaze; izan be, zuon trebetasuna lagun izan dakidan yolasa dot esku-artean, Ba-dago emen zuok arrats onetan antzeztuten ikusi gura zindu-Iriezan yaunik. Baña eztakit ben egon al izango zarienentz; bildur naz ba, arren yokabidea ikusirik, -eta izan be, orrako yaun orrek bein be eztau ikusi izan antzerkirik-, bidrur naz zuok barreka asita rnin egingo ez ete dautsazuen; yalrizue ba,

yaunak, irribarrea bera be asko dala orrako ori artegatzeko.

I ANTZEZL.—Ez izan bildurrik, ene yaun; eztogu gure buruari eutsin-ezinik orrako ori munduan dan zerik barregarriena izatekotan be.

ANDIK.—(Otseinari) I, txotxo, gizonok artu ta yakitegira eroan egizak, eta ondo-etorri argirik emoiek guztioi an: eztagiela izan nire etxeak dauenaren utsik. (Otseinak eta Antzezlariak alde). (Beste otseineri) I, txotxo, oa i nire esku-mutil Bartoloma'gana, eta a emakume-antzez yantzi daitela buruko ertzetik beatzetaraño: bein ori egindakoan mozkorraren lo-gelara ekarrik a; andera dei egiok ari ta aren esanera ago. Nire aldetik esaiok, -nire ederra egin gura ba'yok-. deduz yokatu dagiala, berak ikusirik áauenez andera andiki-lotsorrak euren senarrakazko yokatzen daben lez; mozkorrari begirapenik eta lotsarik izan dagiola, adei-bidez miña bigun erabili ta itz txutxuputxuka egin dagiola ta ari esan "Zer agindu ete zegike, zuk yaun orrek, orretan zure andera ta emazte apal onek zuganako bendekotasuna ta maitetasuna erakusteko"? Eta gero. -besartean maitakiro estutu, mun zirikakorrik egin, eta bere burua aren bularreraño makurturik, -negar egin dagiala eskatu, zazpi urteokaz eskeko errukarri baño obetzat etsi ez eta orain bere senar gaxoa atzera osaturik dakusalako poz-eztitan; eta mutikoak negar egiteko emakumeren samurtasunik ezpa'yok, kipuleak egingo yok berezko zerik ezarena; sur-zapitan baturik begiai urreratuazkero, nai ta nai ez negar eragingo yautsak begirik besterakoenari be. Egiteko ou len baño len burutu egik: laster emongo dauskadaz zertzelada ta garbitasun geiago. (Otseinak alde). Ba-dakit mutikoak aitonen alabaren txairotasuna, abotsa, ibilte-yasa ta egikerea artuko dauzana: luze eretxita nago ak mozkorra noz deituko bere senar, eta nik onu onik emon bear dautset nire gizonai barrerik eztagien baserritar izurga ari euren buru-makurketak dagioezanean: zori onez, ba-leiteke ni euron aurrean egoteak onein barreberatasuna apur bat gitxitzea, ostantxean neurri-bako litzateke-ta. (Alde dagie).

II AGEBLEKU.-Andikiareneko lo-gela.

Gau-atorra txairoz yantzirik agiri da SLY, Laguntzakoz inguraturik; batzuk eskuetan soñekoak dabezala, beste batzuk esku-ontzi, pitxar eta beste zer batzukaz. Andikia aurrera otsein-antzean yantzita.

SLY.—Yaungoikoa-arren, ekazue katillu bete garardo arin.

OTSEINA.—Eder ete yatzu, yaun orri, edalontzikada bat ardao?

II OTSEINA.—Gogoko ete yatzuz, yaun oiri, txoleteko yakiok?

III OTSEINA.—Zein soñeko erabili gurozu gaur, yaun orrek?

SLY.—Kistobal Sly naz ni; enagizue deitu ez yaun, ez maun: eguño eztot edan ardaorik nire bizian; eta niri ezetariko okela gatzituturik emotekotan, adakai-okelea emoidazue: ez itandu niri zetariko yantzirik erabiliko dodan; eta izan be, nik eztot nire bizkarraz beste gorantxarik, ezta zangoez beste zanga-zorrorik, ezta oñez beste oñetakorik; batzuetan oskirik baño oin geiago dot, eta onenean be nire beatzak euretatik agiri diran oskiak.

ANDIK.—Yaungoikoak ez al dautso iraunazoko zure gogaldi orri! Onangorik! Zu langogizon altsurik, zureak langoguraso ta asaben semerik, zureak langoondasundunik, zu bestean aintzakorik olango gogaldi zakarrez beterik egotea be ba-da ba!

SLY.—Zer? Burutik eragin gura daustazu, ala? Enaz ni Kistopor, Kistobal Sly, Burtonheath' eko Sly zarraren seme, yaiotzatik ona aterik ate zerak saltzen ibilia, irakaspenez sarrantxagin, ogibide-aldakuntzaz artz-zai, eta orain beingo ogibidez ontzi-adabatzalle nazanik, ala? Itandu Miren Hacket'eri, Wíncot'eko garardotegiko emakume lodiari ak ezagun nauenentz: garardo utsetan amalau txakurrandi zor dautsadazala esan ezpa' dagi ak, Kistarren arteko guzurtirik andientzat etsi nagizue.-Onangorik! enago ni burutik eginda: ara emen...

I OTSEIN.—Ene! egin-eginean be orixe da ba zure emazteari negar eragiten dautsana!

II OTSEIN.—Ene! Orixe da zure otseinak motel eta buru-rnakur daukazana!

ANDIK.—Ortik dator zure senideak zugandik alde egitea, zure iñondiko zoro-aldiak aik emendik uxaturik. Andiki zindo ori, zure yaiotzeaz oroitu zadiz! Zeuganatu egizuz erbesteratuko zure beñolako gogapenak, eta uxatu egizuz emendik zure ames zirtzil eta beetarrok. Begira zure otseinak zure otseintzan, bakotxa bere egikizunean, zuk zure buruari zirkinik noz egingo begira. zuri

otseintzeko. Eresirik gura ete dozu? Entzun! Apolon'ek daragoio yoten (Eresia yoten) eta txoritegiko ogei urretxindorrek daragoioe abesten: ala lo egin gura dozu? Semiramis'entzako (4) berenberegi eratua baño oe apitzago ta gozoagorik gertauko dautzugu. Ibili egin gura dozula? Zer atsegingarriz estaliko dogu lurra: ala zaldi-ganean ibili gurozu? Yezarleku ederrak iminiko dautseguz zure zaldiai; euren bastak urrez eta pitxiz yosiak izango dira. Aztore-eizean ibili gurozu? Zure aztoreak larratxori goiztarrak baño gorago egaz egingo dabe: ala osteango eizean yoan gurozu? Zure eiza-txakurren ausiai ortzeak, zeruak erantzungo dautse, eta lurreko aitz-zulo arroai be arein ausiai erantzuteko ots zorrotzik eragin.

I OTSEIN.—**Nok arinagoka egin gura dozula? Zure eiza-txakurrak orein biziak *aña* bizkor dira; bai, basauntzak baño be bizkorrago.**

II OTSEIN.—**Irudiak ikusi gura dozuz, ala? Bertatik yoango gara mendi-errekatxu biziaren aldamenean irudituriko Adonis'enaren billa ta ii-artean ostonduta bere ornaseaz iiak igitu ta artegatu egiten dauzala dirudian Kitere'tarraren irudiaren billa.**

ANDIK.—**Io (5) erakutsiko dautzugu, neska garbi zaneko, eta nolan ari iruzur egin eta otoz-otoan goatu eban a, eta irudiak bizibizi darakus orduan akin egin zana.**

III OTSEIN.—**Naiz Dapne, arantza-artean aldarrai dabilela, bere zangoak urraturik, eta zin egingo zeuke odola dariola aren irudiari: eta orrako ori ikusi-ala Apolon naibagetuak negar dagiala: odola ta negarrak orren ganora ta trebetasun andiz dagoz margoz iruditurik-eta.**

ANDIK.—**Andiki zara zu, eta andiki uts, ez besterik: zure anderea aldi aldakor onetako emakumerik lirainena yatzu.**

I OTSEIN.—**Eta orren negarrak, ur bizi txibixsn antzera, orren arpegi ederra betean bera erion-arte emakume ori munduan izan danik ederrena izan da; eta oraintxe be ezta edonor baño gitxiago.**

SLY.—**Andiki ete naz ba? Eta olango emazterik ete dot? Ala amesetan nago? Ala len egon izan naz amesetan? Lotan enago ba ni: ba-dakust, ba-dantzut, ba-dot itzik egiten; sunda gozoen usainik artzen dot, eta somatzen dodaz zer bigunak; nire bizia-arren. andiki naz izan be; eta ez ontzi-adahatzallerik, ez Kistopor Sly be. Tira ba, ekadazue nire emaztea ona nire aurxera; eta beste bein ekadazue katillu bete garardorik arinenetik be.**

II OTSEIN.—**Eder ete yatzu, altsu orri, zure eskuak ikuztea, garbitzea? (Otseinak eskuontzia, pitxarra ta esku-zapia dakartsoez). Ene! gure pozarena zure burua ostera be argiturik ikusiaz! Ene! Beste bein al zenki nor zarean! Amabost urteotan amesetan bizi izan zara zu; edo-ta atzarrik egon ba' zara, lotan dagonarena egin dozu atzarrik.**

SLY.—**Amabost urteotan! Ori bai izan dala loaldi lango loaldia! Bai orixe. Eta alditzar orretan bein be ez ete dot itzik egin?**

I OTSEIN.—**Ene! bai, ene yaun; baña ganora-bako itzak; eta izan be, lo-gela on eta apain onetantxe etzanda egon-arren, etxetik egotzita bizi zareala esaten izan dozu;**

(4) Semiramis au Asiri'tar erregeno izan eta Babilon uria irazan eban emakumearen izena da.

(5) 10 dalako onetzaz idazleak, edo obeto esan, ipuinak eztabe batera yoten; batzuen eretxiz, edo ustez, Io au Inakos'en alaba zan eta Tzeus'en emazte Ere'n yauparino. Ipuinak diñonez, Tzeus bein Io'ganako leia indartsuak zirikatu eban, eta alkarrekin aragizko ar-emonik be izan eben. Kutunkerion barri eldu yakon alango baten Ere-ri, eta au tukukeriz erreten yarri zan. Tzeus'ek, Io'km kutunkerietan yarrai ::1 izateko, Io bigantxa edo beintxa zuri biurtu eban, baña Ere'k Tzeus'n beintxa zurí ori beretzako eskatu ta bai eskatua iritxi be. Ere'k Io beintxa'tua yagoteko ardurea Argos'eri ezarri eutsan. Tzeus'ek Ermes bidali eban Argos'eri beintxea ostuteko, baña Ermes'ek marro-bidez ezin iritxi Io beintxatua-ta, azkenean erail egin eban Argos. Ostera be Io Tzeus'en eskuetan, baña Ere be berean bere tukukeriakaz-eta, Ere'k Io beintxatuari adarretatik euligorri bat estu eutsan. Elorrio lango elorrioa ezarri dautso Ere'k Io'ri. Or doa gure Io beintxatua, bein mendia-bera, bein mendia-gora, arin egin-alean, buetana goian dauela, buruari bein ezkerretara, bein eskoaatara ereinka, euligorria, eztenkadaka dabilkon ouligorria zapaldu, naiz uxatzeko; minaren minez amorraturik, begietatik sua dariola ta iñon be gelditu-ezinik; troka, zulo, naiz lexaen batera yausi ta idun-azurra ausi ta arenak egiten ezpa'dau, alanbear utsari zor yako; aurberaka ibarrera yatsi, aurgoraka ostera be mendi-gallurrera eldu, beti bat, euligorria aldean, adar-artean yo ta yo ta bein be atsedenik ez; ludiko beste alderdíak oktn zearkaturik alango baten Aigito'ra eltzen da. Ipuñak eztiño arako euligorriarii Aigito'n zer yazo yakon, baña Nil ibaiko uretan ito zala uste izan bearko, Io an gelditu, ta an ostera be Tzeus'en kutun izan zan eta.

eta arroztegiko anderearen aurka txarto esaka eragoten izan dautsazu: eta epaitegira eroango zendula zemaika erabili dozu, ikurrazturiko ontziak barik lurrezko murkutzak ekarten eutzuzalako: batzuetan zuk Koikile Hacket'eri dei egiten zeuntson.

SLY.—Bai, etzanderearen naskato otseina zan a.

IIIOTSEIN.—Onangorik! yaun, zuk eztozu ezagun ez olango etxerik, ezta olango neskato otseinik be; ezta zuk aitatu dozun gizonik be, esaterako, Estepan Sly, eta Greece'ko Yon Naps zarra, eta Kepa Turf, eta Endika Pimpernell; eta onango ogei geiago izen eta gizon, olangorik eguño ezta izan eta eguño iñok ikusi be eztau egin-eta.

SLY.—Yaungoikoari eskerrak orain osatu ta lengoratu nazalako.

GUZTIAK.—Olan bedi.

SLY.—Eskerrik asko iri: eztok ezer galduko orregaitik.

Esku-mutila aurrera, anderearena egiten, Laguntzalleakin,

ESKU^MUT.—Zelan dago nire yaun zindoa?

SLY.—Kontxo, onik eta ondo ni, emen yakirik asko dago-ta. Nondik da nire emaztea?

ESKU-MUT.—Emen, yaun zindo: zer gura dozu agaz?

SLY.—Nire emaztea izan, eta zegaitik enozu deitzen zure senar? Nire otseinak deitu bear nindukie yaun: zutzako ni senar on baño enaz,

ESKU-MUT.—Nire senar eta nire yaun, nire yaun eta nire senar; zure emazte nozu ni, esaneko uts.

SLY.—Ondo dakit ori.-Nolan deitu bear dot nire emaztea?

ANDIK.—Ene andera.

SLY.—Alíke andera, ala Yone andera?

ANDIK.—Ene andera, besterik ezebez: olan deitzen dabez andikiak euren emazteak.

SLY.—Ene andera emazte, oneik diñoenez, amesetan bizi izan naz ni, eta amabost urte edo olangotsutan lotan egon izan naz.

ESKU-MUT.—Bai, eta aldikada ori ogei ta amar urte irudilzen yat niri, aldi guzti orretan zure oetik alde eraginda bizi izan nazeta.

SLY.—Asko da ori izan be.-Otseinok, ori ta ni gu geuretara itxi gagizuez.-Billustu zaitez, ene andera, eta zatoz oera.

ESKU-MUT.—Yaun zindo, zindo ori, oindiño gau bat naiz bigaitik asketsi, parkatu nagizu, arren; eta ori ezean, eguzkia sartuarteño; eta izan be, zure osagilleak agirian agindu dauste oraindik eztodala zure oeratu bear, zure lengo gatxera berrien-bairi yausi etzaitezan; ba-ditxarot nire buru-zuritze au ontzat artuko dozula.

SLY.—Bai, baña estu be estu nago-ta, nekez etxon al izango dot orren luzaro. Baña orraitiño be eneuke yausi gura nire lengo amesetan: etxongo dot ba, nire aragi ta odola gora-bera.

OTSEIN aurrera.

OTSEIN.—Zu yaun orren antzezlariak zu osatu zareala entzunik, barre-antzerkiren bat antzeztuteko etorri dira; eta izan be, geiegizko gotiluntasunak zure odolak leitu egin dauzala-ta, motelkeriak zorakeria dakarrela-ta, zure osagilleak egokitzat dabe zuk olango antzerkirik ikustea: ori dala-ta, ba, aik uste dabe ongarri yatzula olango antzerkirik entzun eta zure gogoa ta biotza poztu ta argitzea, pozak eta biotz-argitasunak gatx askori ateak itxi ta bizia luzatzen dabelako.

SLY.—Kontxo, bai pozik be; antzeztu dagiela. Ez ete da antzerkia Olentzaro, naiz buruzkanka yolasetarikoen bat?

ESKU-MUT.—Ez, ene yaun on; gei atsegingarriagorik da.

SLY.—Ostera! lapikoko gozoen bat da, ala?

ESKU-MUT.—Ipuin antzeko zera yatzu.

SLY.—Tira ba, ikusi gura dot dalako ori. Erdu, ene andera emazte, nire aldamenean yezarri, eta doala ludia labanka: gu ezkara izango geroago gazteago. (Yezarri egiten dira).

I EKITALDI

I AGERLEKU.-PADOBA. Guztitarikoentzako leku.

LUKENTI ta TARNI aurrera.

LUK.—Tarni, Padoba liraina, trebetasunen azilekua ikusteko izan dodan irrits andiagaitik eldu naz Itali andiko lorategi atsegingarri dan Lonbardi aberatsera-ta; eta nire aitaren maitasunez eta baimenez bitariko isldlloz orniduta nago: aren biotz onez eta zure laguntzaz, nire otsein zintzo ta edozetan one-

tsiaren laguntzaz; arnasea artu dagigun emen, eta, zori onez, asierea emon yakituri ta ikasketa asmotsuen ikastaldiari. Errikide benez entzutetsu dan Pisa'k emon eustan nire izatea, *e'ta* lenen nire aita Bingen, ludi zabalean artu-emon andiko saleroslea, yatorriz Bentivolii'tarra. Bingen'en semeak, Firentze'n aziak. beraz asmauriko itxaroak beteteko lain, bere ondasunak bere egite on-indartsuz apaintzeko lain yagi bear dau: eta orrazkero. Tarni, nire ikasketak dirauenartean on-indarrari ekingo dautsat, eta batez be on-indarreúk datorren zori onaz daragoion yakintza-arloari. Esaidak ire eretxia; eta izan be, Pisa itxita Padoba'ra etorria nok ni, arako ur azaletako txipili-txapalak itxi ta ur sakonetan murgiltzen danaren antzera, bere egarri bizia ase-betetzeko.

TARNI.—*Ml* perdonate, ene ugazaba maitagarri, gogakide naiatzu edozetan; pozik nago yakintzearen ezti guztiak zure erabagiaren arauz edoskiten daragoiozulako. Auxe bakarrik, ugazaba on, on-indar eta egite onen bideak zear arriturik gabiltzan-artean ez al gara izango, arren, ez stoa'tarregi (6), ez astoegi: ezta ekanduetan orren Aristotel-zale be (7), Obidi erbesteratu askarritzat etsiteraño: adin-biderik asko dakizuta, yakintza-arlo orri geiago ekiteka iz-lantzeari ekiozu zure egunoroko izketan; orretarako gogorik dozunetan ekin zenbakizti ta gorengo zeren ikasteari; eztozu aterako onurarik gogoaz bestera daragoiozunetik: labur esateko, yaun, gogokoen yatzunari eldu ta ekin.

LUK.—Eskerrik asko, Tarni, onu onik emon daustak. Biondel legorreraturik ba'litzok, bertatik gengokezak gerturik, eta zorrean artuko gaieukek Padoba'n aldiaz egin geikezan adiskideak an artu al izateko egoki litxakigun etxeren bat. Baña, etxon araneño: ze laguntalde dogu au?

BATISTA, KATARINE, BIANKE, GERMI ta ORTENSI aurrera. LUKENTI ta TARNI biak eurak auretara.

BAT.-^Aitonen semeok, ez egidazue ekin luzaroago, noragiñoko erabagi sendoa arturik nagon ba-dakizue-ta; zera, eztodala emongo nire alabarik gazteena zarrenarentzat senarrik izan-arte: bat orrek, naiz beste orrek Kataríne maite ba'dozue. ondo ezagun eta ondo maite zauedazalako nire baimena ta ederretsia izango dozuez zeuok zelan eta noz-gura orri maitsarana egiteko.

GERMI.—Orri- maitearena egin baño gurago dot nik orregandik alde egin: zakarregi da ori nitzako.-Tiruk, tiruk, Ortensi, emaztetzat gurok ori, ala?

KAT.—(BATISTA'ri) Arren, yaun, orrein lagun bion barregarri egin gura nozu, ala?

ORT.—Zure lagun izan be, neskato! Zer esan gurozu orregaz? Ez zure senargei, zu senargarriago, izakera maitagarriagoko ta otzanagoko ez izatekotan.

KAT.—Eztozu iñoz zetan izan bildurrik, yaun; ez orixe; zuk eztozu egin oindiño nire biotzerako bide-erdirik be; ostantxean nire ardurea zure burua iru oñeko aulkiz orraztu ta malluskau, zure mosua orbandu ta zu ergeltzat erabiltea litzake.

ORT.—Yaungoikoak yareiko al gauz olango txerren guztiekandik!

GERMI.—Bai ni be, Yaungoiko onak!

TARNI.—Ixilik, ugazaba! bidean dogu emen yolas onen bat; neskato ori edo zoro uts edo itzalez oker da.

LUK.—Baña beste neskatoaren ixiltasunean neskatoaren izakera otzana ta neurrikotasuna dakustaz. Ixilik, Tarni!

TARNI.—Ori ondo, ugazaba: ixilik! eta begiratu ase-arteño.

BAT.—Aitonen semeak, esan dodana laster bete al dagikedan..., -Bianke, barrura zoaz zu: eta ez al yatzu gogoaz besterako izango ori, Bianke, ori gora-bera len baño gitxiago etzaudaz maite izango-ta, ene alaba ori.

KAT.—Amaren gonapeko ori! atza sartu egiozu begian, erantzun dagian.

BIANKE.—Aizta, gogoko bekitzu nire gogoaz besterakoa.-Yaun, apal-apalik men dagiot zure gogoari: nire idaztiak eta lanabasak izango yataz lagun, eurak begiratu ta eurekaz lan egiteko.

LUK.—(Bere kitean) Tarni. Minerba'ri entzuten dautsakala iruditu egik.

ORT.—Batista yaun, orren iñondiko izango ete zara? Naibage dot zure gurari onak Bianke'ri atsekaberik dakartsolako.

(6) Elade'ko yakintzazale askotarikoen artoan stoa'rak doguz, eta sloarrok besteen aldean ekandu garbi ta estuko ziran.

(7) Aristotel au Elade'ko yakintzazale ospatsuetariko yatzu. Obidi, barriz, Erromar olerkari, ta bere olerkietan sarritan lotsabako ta lizun agertzen da. Lotsabokokeri ta zantarkerí orí zala-ta, alango baten erbesteratu egin eban Erroma'ko aldi atako Kafsar'ak Itsaso Baltzeko itsas-ertzera, ta an il zan.

GERMI.—Zegaitik esiratu gura dozu ori, Batista yaun, su-lexako txerren onegaitik, eta onen miñaren oben-nekea orri yasanazo?

BAT.—Aitonen semeok, nasai zaiteze; arturik dot nik nire erabagia; --barrura zoaz, Bianke: (BIANKE'k alde) eta neskato orri gogokoen eresia, lanabasak eta olertia yakozala ba-dakit-eta, neure etxean eukiko dodaz irakasleak, gazte orri irakasteko egoki diran irakasIeak.--Zuk, Ortensi, naiz zuk, Germi, ezagun ba'dozue olango irakaslerik, ekadazuez ona; izan be, txerakor izango naz gizon yakitunentzat, eta eskuzabal nire seme-alabak azten, eta agur orrazkero. Katarine ,emen gelditu zu, gura ba'dozu; Bianke'ri zerbait geiagorik esan-bearrean nagota. (Alde dagi).

KAT.—Ba! neu be yoan neintekela uste dot, ez ete? Onangorik! iñok izentau bear ete daustaz orduak. zer artu ta zer itxi neuk ezpa'neki lez? Ja! (Alde dagi).

GERMI.—Txerrenaren kutunari lagun egiten yoan baño eztozu. Zure alde onak ainbeste ta ainbesteko dira-ta, iñok etzauz artu gura beretzat. Orren geitasunei dautsegun maitasuna eztok, Ortensi, orren andirik-eta, ez yoaguk gure atzai putz egin eta barau egin-ezinik; gure orea urun dok alde bietatik (8). Agur! Orraitiño be, nire Bianke eztiari dautsadan maitasuna-arren. edozelan be ari begiko yakona ari irakasteko egoki dan gizonekin trikitx ba'dagit, aren aitaganako bidean iminiko dot.

ORT.—Orixe egingo yoat neuk be, Germi yaun; baña itz bat, arren. Gure auziaren izateak guri oindiño alkarrekin itz egiten itxi izan ez-arren, entzuik eta yakik orain bioi dagokigun onu au, oraindik be gure maite lerdenaganako ateak idigirik izan dagiguzan, eta Bianke' ganako maitasunean leiakide zori ontsu izan gadizan, ekin eta zertxo bat egin bear dogula batez be.

GERMI.—Zer dok orrako ori, arren?

ORT.—Kontxo! ba, yaun, aren aiztearentzako senarren bat iritxi.

GERMI.—Senarrik! txerrena arentzako.

ORT.—Bai, senarrik, gero.

GERMI.—Txerrenik, gero. Ortensi, aren aita orren aberats izan-arren, su-lsxeakin ezkontzeraño elduko litzaken gizon ergelik badagola uste dok.ala?

ORT.—Ixilik ago, Germi; neska aren zarata ta astrapalak gure epeak yasan alako baño andiago izan-arren, ba, gizon, ba-yagok ludian lagun onik, eta alangoa egin leitekek zarata ta astrapaletara, eta neska ori orrenbeste akatsegaz eta dirurik askogaz artu egingo laieukek.

GERMI.—Etxakiat ba; baña nik neuk olango ezkonsarigaz artu baño gurago naieukek goizoro niri bizkarra berotzea.

ORT.—Izan be, euk dakikanez, aututeko era gitxi dok sagar usteletan. Baña, tiruk; legeak ezarten dauskun eragozpen onek alkarren adiskide egiten gauzanazkero, eutsin dagiogun adiskidetasun oni aurrer.tza be, Batista'n alabarik zarrenari senarren bat billatzen lagunduaz, aren alabarik gazteena senarren bat artzeko yarei ta barrienbarri ari ekitera gu yarri-arte.-Bianke ezti! -Zori ontsu izango al *ía* alanbearrak arentzako izentaurik dauen gizona! Bidean arinen egiten dauenak iristen dau erestuna. Zer diñok, Germi?

GERMI.—Ire gogakide nok; eta Padoba'n dan zaldirik onena emongo yautsat a kutundu, a irabazi, akin azkondu, a bere oeratu ta a etxetik atera dagianari. Gaioazan. (GERMI'k eta ORTENSI'k alde).

TARNI.—<Aurreratu-ala) Arren, yaun, esaidazu, izan ete leiteke maitasuna onan otozotoan eta bapatean iñoren yabe egiterik?

LUK.—Tarni ori, orrako ori egia dala neuk neurez ikusi-arte eguño etxoat uste izan olangorik al danik, naiz izan leitekenik; baña ikusi! or begira arkolo egon izan nazan-artean ikusi yoat arkolokerian zer egiten dauen maitasunak; eta orain argi ta garbi autortzen dauskat iri, Kartago'ko erregenoarentzako Ane izan zan bestean ixilkizunzai eta maite atxatan orri.-Tarni, erreten naíagok, naibageturik naiagok, il-aginik naiagok, neska gazte lotsor ori iritxi ezpa'yagiat; onuren bat emoidak, Tarni, bayakiat emongo daustakala-ta.

TARNI.—Ugazaba, orain ezta zuri agirika egiteko tertzioa; leiea biotzetik agirikaz uxatzerik eztago; maitasunak ukutu ba' zauz zer au baño etxatzu gelditzen: "Redime te captum, quam queas minimo".

LUK.—Eskerrik asko, mutil; zerbait ba-dok au; nasaitasuna ekarriko yok enparauak, zindo dok ire onua-ta.

TARNI.—Ugazaba, orren ameskor egon zara neskea begira-ta, ba-ledike zu mamiraño eldu ez izatea.

LUK.—Ene! bai, edertasun eztia ikusi yoat aren mosuan, arako Agenor'en alabearena langoxea, Yupiter andíak Kerete'ko izpaz-

(8) Gure asmoak ustel izan dozak, porrot egin yoagu, esan gura dau.

terrari bere belaunez mun egin ordukoxe bere eskua arrazoteraño burua makurtuazo eutsan Agenor'en alabearena langoxea (9).

TARNI.—Ez ete dozu ikusi besterik ezer? Etzaiakoz oartu zerari, zelan aren aizteak asarre egin dautsan, eta ilkorren belarrik yasan al dauen baño astrapala andiagoko ekatxa sortu izan dauela?

LUK.—Tarni, ikusi yoazat igitzen aren koralezko ezpanak, eta bere arnasazko lurrun gozoz bete yok eguratsa; guren eta ezti izan dok agan ikusi dodan guztia.

TARNI.—(Bere kitean) Ba, orrazkero, gizon au bere lozorro gozotik iratzarteko tertzio da.- Arren, atzarri zaitez, yaun. Maite ba'dozu neskato ori; zure gogapenak eta zurtasuna ori iristera makurtu egizuz, Onan dagotzu arazoa: ugazaba, orren askarri ta asarrebera da neskato orren aiztea-ta, orren aitak orregazkoa egin-arte zure maitea neskazar geldituko da bere etxean; eta orretarako, aren aitak zure maitea etxe-barruan esitu dau, ara ezetariko maitalerik eldu eztakion.

LUK.—Ene! Tarni, neskato orren aita bai badala biotz-gogor! Baña ez ete atxako oartu zerari, neskato orren aitak bere alaba orren-Izako irakasla yakitunak iiitxi gura dauzala?

TARNI.—Bai, arrano, yaun, oartu natxako orrako orri eta orain asmaurik dogu asmoa.

LUK.—Bai, izan be. Tarni.

TARNI.—Ugazaba, nire esku au-arren, gu •' ion asmoak batera yo ta yauzi egiten dabe.

LUK.—Eurea esaidak lenen.

TARNI.—Zu izango zara irakasla ta zuk artuko dozu neskato orri irakasteko ardura ta egikizuna: ori da zure asmoa.

LUK.—Orixe dok, izan bs: izan leitekena ete dok?

TARNI.—Ezir.a da ori; eta izan be, nok egiteko zurea, eta nor izateko Padoba onetan Bingen'en seme? Nok yagoteko aren etxea, nok artzeko aren idaztien ardurea, nok egiteko txera arenera letorkezan adiskideai, nor yoateko aren errikideak ikusten, eta yaten etorteko dei egiten?

LUK.—Bego; asko dok. orretzaz oarturik nokeeta. Oindokoarren ezkaiozak iñok ikusi etxetan, eta ezin gaioezak alkarregandik zeindu gure arpegiz zein garean ugazaba ta zein otsein igarteko: orrazkero, au dok ortiko ondorena: Tarni'k egingo yok nire ordez ugazabarena: etxea yagon, sartu-urtenen eta otseinen ardurea artu, neuk egingo neuken Iegetxe; nazanaz besterik izango nok ni; Firentze'tar, Napoli'tar, naiz Pisa' tar gizon, nazan baño beeragokoenbat. Asmauta yagok eta olantxe egingo yoagu: -Tarni, bertatik erantzi egizak ire soñekoak; nire txapel eta margo edo kolorezko yantziak yantzi egizak: ire otsein izango dok Biondel. a datorrenean; baña neuk liluratuko yoat a aurreztik, ak miña geldi euki dagian.

TARNI.—Ba-da izan be olangoren bearrik (Alkarri emoten dautsez soñekoak) Orrazkero, yaun, labur esateko, zuri eder yatzunazkero, eta ni zure esaneko izatera bearturik nagonazkero, eta izan be, orixe agindu eustan zure aitak guk arenetik alde egiterakoan; "Otsein akio nire semeari" esan eustan ak, orraitiño be, nire ustez, ak ori beste asmoz esan izan-arren... gertu nago Lukenti izateko, Lukenti orren maite dot-eta.

LUK.—Tarni, izan adi orrako ori, Lukenti'k maite auelako: eta ni yopu izan naitela, bera ikusi-ala nire begi zauritua benderatu dauen neskatoa iritxi dagidan. Emen yatok morrosko ori.

BIONDEL aurrera.

KonJik eta ncra ibili az, yauntxo?

LS:r.N.—Non izan nazan? Ba! Onangorin: Mon zagoz zeu? Ugazaba, nire lagun Tarni'k ostu egin dautzuz soñekoak, ala? Ala, zeuk ostu dautsazuz ari? Ala, alkaireri? Arren, ze barri dogu?

LUK.—Ator ona, yaunixo; eztok au txantxetan ibilteko tertzionik, eta orrazkero, aldiari dagokionez eragoiok. Ire lagun Tarni onek, nire bizia yagote-arren, yazten yozak nire soñekoak eta nire antza, eta igesteko yazten yoazat nik onenak; izan be, legorreratuazkero gizon bat erail yoat nire asarreraldian, eta bildur nok ezagutu ete naben. Egoki danez, eta agintzen dauskadanez, otsein akio, nik emendik nire bizia yagotearren alde egiten dodan bitartean: aitutsn daustak?

^'ON.—ic utik bez, yauh.

(9) Agenor onen seme-alabetatik emen ize.n bagarik aitatzen dana Europe da. Europe au lirain eta eder be eder ei zan-eta, Tzeus bera, yainkoen burua maitamindu zan neskato orregaz, eta zezen irudiz Europe berakin artuta Kerete izarora yoan ziran biak eta or, alkarrekin ezkondu, ipuñak diñonez.

LUK.—Eta *ez* egik aitatu be egin Tarni i, izenik; Lukenti'tu egin dok Tarni.

BION.—Oba beretzat; olangoxe al n:n*r neu be!

TARNI.—Neuk be orixe gurako naieukek, Lukenti'k Batista'ren alabarik gazteena iristekotan. Baña, maltzur ori, nigaitik ezpa'dok be, ire ugazabaganako ire maitasuna-gaitik, edozeintzuen artean era onik erabili egik, arren, nigazko artu-emonetan: ni bakarrik nagonean, aiko, Tarni nok ni, baña beste edonon ire ugazaba Lukenti.

LUK.—Gaioazan, Tarni; ba-dok oraindik ik egitekorik, maitaleen arteko eu izatea. Ori zegaitik dan itandu ba'dagistak... auxe bakarrik esango dauskat, orretarako nire zegaitiak on eta astun dirala. (Alde dagie).

I OTSEIN.—Ena yaun, baietz diñozu zuk zure buruaz; zuk eztautsazu egiten yaramonik antzerkiari.

SLY.—Baí, Ane gurena-arren, yaramoten yautsat. Zer ederra, benetan; olangorik areago ete yatok?

ESKU-MUT.—Asi baño ezta egin, ene yaun.

SLY.—Lan bikaina orixe, ene andera; amaiturik al lego!

II AGERLEKU.-Lengoxea. ORTENSI'n etxe-aunea.

PERUTXO ta GURMI aurrera.

PER.—Berona, agur dagitzut apur baterako, Padoba'ko nire adiskideak ikusi dagidazan; baña beste guztien ganetik, nire adiskiderik maiteen eta zintzoena Ortensi ikusi dagidan; eta egingo neuke auxe dala aren etxea: -emen, Gurmi yauntxo; yoik atea.

GURMI.—Yo, yauni Nor yoteko nik? Yñok okerrik egin dautzu, ala?

PER.—Zital ori, yoik gogor emen, gero?

GURMI.—Zu yoteko nik emen, yaun? Onangorik! Nortzat nozu, yaun, nik zu emsn yoteko?

PER.—Ziztrin ori, ate onetan yo egidak, eta ondo aztindu egidak, ostantxean buruan yoko aut zital ori.

GURMI.—Asarpera egin yaku nire ugazaba: zu yoten asi ba'nendi, azkenean kazkarra ausita geldituko nintzake.

PER.—Eztok egingo, ala? Atea yo gura ezpa' dck, dollor orrek, irrintze eragingo dauskat, eta ire belarrietan sol, ía abestu (GURMI'ri belarriak erauzten, ateraten daragoio).

GURMI.—Lagun zakidaze, lagunak, lagun zakidaze! burutik egin yako nire ugazabari.

PER.—Agintzen yakanean yo baño eztaukak; yauntxo zital ori!

ORTENSI aurrera.

ORT.—Ostera! zer yazoten da? Gurmi nire adiskide zarra! eta Perutxo nire adiskids ona!-Zelan zabiltze Berona'n?

PER.—Ortensi yaun, burrukariak bananduten zatoz, ala? "Con tutto il cuore bene trovato" esan negike nik.

ORT.—"Alla nostra casa bene venuto, molto honorato Signor mio Petruchio". Yagi adi, Gurmi, yagi adi; atonduko yoagu asarre au.

GURMI.—Izan be, yaun, onek Lateraz esan legikenak eztau garrantzirik, lege-bidez nik orren otseintzea iztekorik ez izatekotan; begira, yaun, orrek nik ori yo ta ondo aztindu dagidala agindu daust; eta otseinek bere ugazabari olangorik egitea egoki ete da, orrek, nire ustez, ogei ta amabi bat urte izan-eta? Orraitiño be neuk yo al neu lenen, Yaungoikoa-arren, ori egin izan ta' neu Gurmi'ri etxakon yazo izango okerrsna-ta.

PER.—Zital kirten ori! Ortensi on, ire atea yoteko agindu yautsat nik zital orri, eta ezin lortu izan yoat orrek nire agindua betetea.

GURMI.—Atea yoteko! Ene Yaungoiko! agiri-agirian eztozuz esan itzok "I, yauntxo, yo egidak emen, aztindu egidak emen, gogor yo egidak, eta gogor be gogor yo egidak", ala? Eta orain atea yotekoka zatorkidaz.

PER.—I, yauntxo, oa ortik zear, edo exilik ago, gero?

ORT.—Epe artu egik, Perutxo; neu nok Gurir.i ren bai; onangorik! eztabaida gogorra sortu da orren eta zure artean, zu ta zure aspalditiko otsein zintzo ta atsegingarri Curn-i n artean. Eia orain esaidak, adiskide I ulun, ze ekaitz zori ontsuk ekarri zauez*an* Fadoba onetara Berona zarretik.

PER.—Etxean egonaz zer gitxi ikusi ta íkasten dc-ta, zori onaren billa etxetik urrin çizon gazteak zabaltzen dauzana langoxe p^kaitz-axeak ekarri naioek ona. Baña, labur esateko, Ortensi yaun, onantxe dok nígazkoa: ilik dok nire aita zan Andoni; eta bide-mataza onetan sartu nok, zori onez ezkondu ta al dodanik ondoen bízibidea aterateko; ba-yoadaz sakelean amaseiko batzuk, bai ondasunik be etxean eta, ori dalata, ludia ikusten etorri nok erbestera.

ORT.—Orrazkero, Perutxo, zuri zerak argi ta garbi esanda, emaztegei asarrebera bai, baña txerakor eztanegana eroango ete zaudaz, aren eske? Eskar on gitxi iragarriko zeuskit nire onuagaitik, eta orraitiño neskato on eta aberats dala diragartzut, aberats baño aberatsago: baña adiskideegi zaudaz zu, zu akín ezkondu gura izateko.

PER.—Ortensi yaun, itz gitxi batzuk dira asko zu ta ni lango adiskideen artean; eta orrazkero, Perutxo'n emazte izateko aña aberats danik ezagun ba'dok, --aberastasuna dok nire emazte-billako yantza-neurria-ta, -naiz izan orrako ori Polentzi'n maitea bestean itsusi. Sibile *aña* zar. Sokarte'n Xantipe bestean askarri ta asarrekor, naiz okerragorik, etxok bape amustuko orrako orrek nire maitasunaren erbatza, ezta Adriatiko itxasoko urak bestean asarrekor ba'dok be: emazte aberats-billa etorria nok ona Padoba'ra; eta aberats ba' nadi, zori onez nok Padoba'n C10).

GURMI.—Bai, begira, yaun; argi ta garbi diragartzu onek bere gogoa: emoiozu, ba, urrerik asko bai, ta au andrakillakin naiz kuskubillokin ezkondu baño eztozu; naiz agoan aginik eztauen atso zarrekin, berrogei ta amabi zaldik beste gaitz aldean ba'dauz be: ba! ezer be eztator oker txanponakaz ba'dator.

ORT.—Perutxo, onen barrura sartu gareanazkero, aurrera eroango yoat txantxetan asi doguna. Lagun izan neinteketzu, Perutxo, emazte aberatsik asko, gazte ta lerdenik asko iristeko; aitonen alabari dagokionez ondoen azirik; aren akats bakarra, eta akatsik asko bera. askarri be askarri dala, baita asarrebera ta Iotsa-bako be; ain da a olango-ta, nire ondasunak diran baño gitxiago ba'Iira be. urre-meatzagaitik be ni enintzake ezkonduko neska akin.

PER.—Ixilik zagoz, Ortensi! Eztozuz ezagun zuk urrearen ondorenak: esaidazu neskato orren aitaren izena bai, eta asko da: eta izan be, neskato orrek udazkeneko odeiak tarrat egiten dabenean besteko zarata ta astrapalaz akar egin ba'dagist be, orren biotzerako bidea urratu ta egingo dot.

ORT.—Batista Minola da aren aita, aitonen seme maitagarri ta txeratsu: Katarine Minola da neskatxiaren izena, eta Padoba'n ezaguna da bere min akarlariagaitik.

PER.—Neskatoa bera ez-arren, ezagun dot aren aita; eta ak berak be ezagun ezagun eban nire aita zana; lorik eztot egingo, Ortensi, neska ori ikusi-arte; eta orrazkero, argi ta garbi esaten itxi egidazu lenengoz guk alkar ikuste onetan zuri agur egiten, ara-bidean nire lagun izan gura ezpa' dozu.

GURMI.—Arren, yaun, doala orretarako gogaldiak dirauen artean. Nire itz-arren, neska ak ori nik bestean ezagun ba'Ieu, laster oartuko litzake orrentzako akar edo agirikeak indar gitxi dauela. Neskato ak dollor naiz beste olangorik ogei bat bider esan leio orri: ba! utsa litzateke ori orrentzako; ori berori bein itz egiten asiazkero. bere bidea eroango dau orrek. Neuk dirautzut gero, yaun; neskeak orri apurtxo baten etxon ba'dagio, atz egingo dautso nesksari arpegian, eta aren begiak eztabe izango katuarenak baño indar geiagorik ikusteko. Eztakizu, yaun, ori zelango dan!

ORT.—Etxoik, Perutxo, ikin yoan fcear yoat-Etxoik, Perutxo, ikin yoan bear yoat-eta; Batista'ren ardurapean yagok nire altxorrata: ak yaukak nire biziko pitxia, bere alabarik gazteena, Bianke lerdena; eta ak gordeta yaukak neskato ori nigandik eta beste geiagogandik, aren maitale ta nire aganako maitasunean nire leiakide diranakandik. Nik lendik aitaturik dodazan akaisr.kaitik, Katarine'n eskua iñok eskatu legiksla ezintzat etsirik, erabagi au artu dau Batista'k, zera, iñor be ezin eldu izango dala Bianke'gana Katarine askarriak senarrik lortu-arteño.

GURMI.—Katarine askarria! Izengoiti ori neskatok izan leienik eta okerrena da.

ORT.—Orain eskaritxo bat egin bear daust nire adiskide Perutxo'k: Batista zarrari opatu bear nautso irakasla nazalakotan, yantzi benez yantzita, eresi-arloan yakituntzat, nik Bianke'ri irakatsi al dagiodan; onan, asmo onen bidez, gitxienez be baimena ta astirik izan neiz Bianke'ri nire maitasuna iragarteko ta, iñok susmorik izatekx aren aldamenean ari maitalearena egiteko.

GURMI.—(Bere kitean) Etxagok or zitalkeririk!

(10) Sokarte au Elade'tar yakintzazaleen artean ots andiko dogu benetan, eta ondo :rabazita ots ori. Athenai edo Azenai uri-buruan yaio zan Kisto-aurretiko 469'gn. urtean, eta bertan bizita 399'gn. urtean il zan; Xantipe izeneko neskea artu eban bere emaztetzat, baña yakitun lango yakitun onen bizitzako barriak damoskuezan batzuk dirauskuenez, Xantipe au asarrebera uts eta ondo askarri zan, gogoko etxakon zerik txikienagaitik asarre goritan irakiten yarri ta goiak eta beak yoten ibili-bearrekoa.

Becrira tn ikuçi noícin cazteak baiera ycíen daben zarrei iruzur egíteko, ziria sartzeko!

GERMI aurrera; akin batera I UKENTI be, kokomarroturik, besapean idaztiak dauzala.

Ugazaba, ugazaba, begira zure aldamenekoa: nor doa ortik zear, ee!

ORT.—Ixililc ago, Gurmi! Nire maitasuncíren ostelarí, Ieiakide dok ori.-Perutxo, baztartu zadiz apur baten.

GURMI.—Benetako mutil gazte eta maitabera! (Alde dagie).

GERMI.—Ene! ederto be ederto: irakurri ta aztertu dot erreskadatxoa. Entzun, yaun; idaztioi azal apaina ezarriazoko dautset; guztiak, guzti-guztiak dira maitasunazko idaztiak; eta neskatoari maitasunidaztiez besterík ez irakurteko ardurea artu egizu: aituten daustazu, ezta? Batista'ren eskuzabaltasunaz ganera neuk ordainduko dautzut ganetiko eskupeko onez: -artu zure ingi edo papelak be eta, arren, usain gozoz usaindu egizuz, ingiok doakiozana usain gozoak eurak baño be eztiago da-ta. Ari zer irakurleko gogo dozu?

LUK.—Nik ari irakurriko dautsaríana zure alderako izango da, zu nire ugazaba orren alderako, seguru egon orretan; nire lekuan ba'zengoz bestean seguru: bai, eta ba-leiteke zuk zeuk baño itz eragikorragorik erabiltea nik, yakintsuen bat ezpa'zara, yaun.

GERMI.—Yakiturianena! Yakituria langorik eztozu!

GURMI.—Indi-ollartzar orí! Astotzar ori!

PER.—Ixilik ago, yauntxo!

ORT.—Ixilik, Gurmi!-(Aurreratu-ala) Yaungoikoa lagun bekitsu, Germi yaun!

GERMI.—Ondo trikitx egina zauguz, Ortensi yaun. Ete dakizu nora noan? Batista Minola'gana noa; Bianke lirainarentzako irakasla-billa aleginak egingo nebazala agindu neutsan ba, eta zori onez gazte au idoro dot, beronen yakituri ta era-meraz arentzako egoki dar.a; olerti-arloan eta ostantxeko írakaskizunetan be aitua yatzu; irakaskizun onetan gero, bai orixe.

ORT.—Ori ondo; neuk be trikitx egin yoat or aitonen semekin, eta ak agindu yaustak gure anderañoari eresi-arloa irakasteko berenberegiko dan gizon yakitun danaganako bidean iminiko dauela; eta olan, ni enok gelditu I baño bape atzerago nik ain maite dodan Bianke lirainaganako eginbearretan.

GERMI.—Nik ain maite dodan... egitez erakutsiko yoat nik ori.

GURMI.—(Eero kiisan) Egitoak cta diru zcrroak.

ORT.—Germi, orain eztok gure maitasuna *axa*tuteko tertzioa: entzun egidak eta txeratsu itz egin ba'dagistak, biontzako on dan barria emongo dauskat. Emen dok nik olangorik uste-barik berakin trikitx egin izan dodan aitonen seme, orretarako gure ederretsia dauena, Katarine askarriaren esku-eske etorria; akin ezkontzeko gertu dagona, neskatoaren ezkonsaria ari gogoko izatekotan.

GERMI.—Olan esana olan egina ba'dok, ori ondo: Ortensi, iragarri ete dautsazak neskearen akatsak?

PER.—Ba-dakit *a* asarrekor, liskarti ta agirikati utsa dala; ori ba'da dana, ez besterik, yaunak, ez izan bildurrik.

GERMI.—Ezetz? Benetan diraustazu, adiskide? Nondiko zauguz?

PER.—Berona'n yaioa, Andoni zarraren seme: ilik da nire aita, baña bizi yataz nire ondasunak; eta egun onik luzaro ikusteko itxarorik ba-dot.

GERMI.—Ene bada, yaun! iñondiko litzake olango emaztekin olango bizitzarik eroatea: baña olango gogorik ba'dozu, aurrera yo, Yaungoikoa lagun yatzula; edozetan izango nozu lagun. Baña basakatu ori kutuntuko ete dozu?

PER.—Ez ete dot, ba, bizi gura?

GURMI.—Kutunduko dauenentz? Bai kutundu orrek, ostantxean eskegi nagiela.

PER.—Zetarako etorri naz ona orretarakoxe baño? Ots eta zarata apurrek nire belarriak gortu daikezala uste dozu, ala? Nire aldian ez ete dot entzun nik leoirik orroaka? Ez ete dot entzun itxaso asarrea axeak goragoraka eragita, izerditan eta asarre gorrian dagon artzaren antzera? Ez ete dodaz entzun or lanian su-odi ariiak eta ortzeko su-iskillo bildurgarriak ostoska? Ez ete dodaz entzun gudaldi ben-benean guda-gedar zoliak, zaldiak iirintzeka eta tuiutak yo-ala yoten? Eta emekumeren miña aitatuten daustazue? Basetxeko supuruan erreten daragoioen gaztañen eztanda-otsaren erdirik be gure belarrientzako egiten eztauen emakumeren miñik aitatu niri? Ut, ut! mutikoak bildurtu tximitxak aitatuz.

GURiMI.—Ez ba, eztautso ezeri bildurrik.

GERMI.—Entzun, Ortensi: zori onez eldu da aitonen seme au, nire ustez bere ta gure onerako.

ORT.—Lagun izango gatxakozala agindu dautsat nik, eta dalako dala, orren maitaketalanean nekeak eioaten kide izango gatxakozala.

GERMI.—Eta egin be orixe egingo dogu, orrek neskatxi ori irabaztekotan.
GURMI.—Orretan bestean seguru al nengo bazkari ona izango dogulakoan.

TARNI aurrera, arro yantzita; bai BIONDEL be.

TARNI.—Aitonen semeok, Yaungoikoa Iagun izango al yatzue! azarri izatea sori, zillegi ba'yat, esaidazue, arren, zein da Batista Minola'ren etxerako biderik laburrena?
BION.—(TARNI'ri bakarrik) Alaba lirain bi dauzanarena esan gurok, ala?
TAR.—Bai, arexenerako, Biondel!
GERMI.—Entzun, yaun; ez al dok neskato agana yoan gura...
TAR.—Ba-leitekek agana ta aren aitagana, biakana yoateko asmo izatea, yaun; zer yak iri orretan?
PER.—Ez arako asarrekorragana, yaun, ezetara be, arren.
TAR.—Asarrekorrik eztot gura nik, yaun; gaioazan, Biondel..
LUK.—(Bere kitean) Ondo asi az.Tarni.
ORT.—Yaun, itz bat zuri; ...zuk aitatu dozun neskearen maitale zara, ala ez?
TAR.—Ba'naz be nori egiten dautsat irainik?
GERMI.—Ez; itzik geiago egiteka emendik alde egin ba'dagik.
TAR.—Ba, yaun, ez ete dira etxartebideak nitzako zuantzako bestean?
GERMI.—Baña ez neskato a.
TAR.—Zegaitik ez, arren?
GERMI.—Onako onegaitik, yakin gura ba' dok..., a Germi yaunak bere maitetzat autua dalako.
ORT.—A Ortensi yaunak bere maitetzat autu dauelako.
TAR.—Astiro ta arduraz, gero, yaunok! aitonen seme ba'zarie, eskubide cru emon egidazue, epez entzun nagizue. Aitonen seme zindo da Batista, nire aita ezta arentzako ezezagunik, eta aren alabea dan baño lirainago ba'litz, maitale geiago leukake, eta ni euretatik bat. Amaika maitale izan ebazan Lede lirainaren alabeak; orrazkero, Bianke lirainak bat geiago izan lei; eta izan be izango dau; Lukenti izango da bat, Paris bera etorri ba'ledi be beretzat bakarrik dalaka.
GERMI.—Ostera! aitonen seme onek gu guztiok ixildu gura gauz.
LUK.—Doala ori aurrelari, yaunak; ba-dakit laster nekatu ta porrot egingo dauela.
PER.—Ortensi, zetarako dira itzok?
ORT.—Yaun, itxi egidazu zuri itaunen bat egiten, eguño ikusi ete dozu Batista'ren alabea?
TAR.—Ez, yaun; baña bi dauzala entzuna nozu; bata bere min agirikati, akartiz bestea bere edertasun lotsorrez bestean ezagun eta entzutetsu.
PER.—Yaunak, yaunak, lenengoa neutzako da, gero; geldi itxi egizue a.
GERMI.—Bai, Erkul andiarentzako itxi neke ori; eta Alkide'n amabiak baño andiago izan daitela.
PER.—Yaunak, auxe entzun eta aitu egidazue ondo ta benetan: eztakizue, eztozue entzun alabarik gazteena aren aitak gordeta daukala ta aganako bideak itxita dagozala alabarik zarrena aurreztik ezkondu-arte, ala? Orduan geldituko da azke, orduan yareiko da gazteena, ez lenago.
TAR.—Ori olan izatakotan, yaun, zu zara guk laguntzat bear dogun gizona, eta besteen ariean nik; eta zuk leia urtu ba' dagizu, eta egiteko andi au egin..., zera, zarrena irabazi, gazteena yarei, gu eldu gakiozan..., gazteena iristeko zori ona izan dagiana ezta izango orren esker txarreko, zuri esker onik ez erakusteko añan,
ORT.—Yaun, ondo esan dozu, eta ondo ulertzen dozu: eta maitaleen arteko zareala autortzen dozunazkero, zuk be saritu bear dozu aitonen seme au, guztiok gagoz oneganako bearturik-eta.
TAR.—Yaun, enaz bape geldo izango orretan: eta orren agiritzat, eta eder ba'deretxatzue, arrasti onetan zurrutada on batzuk edan geinkez guztion artean gure anderearen osasunaren alde; eta legegizon arerioak egiten dabena egin..., iñondiko aleginak egin bakotxak bere alde, baña adiskide ba'lira lez alkarrekin yan eta edan.
GURMI \a BION.—Asmo eder baño ederrago! goazen, lagunak.
ORT.—Asmo ori on da izan be, eta bete dagigun; Perutxo, zure ben venuto izango nozu (Alde dagie).

II EKITALDI

I AGERLEKU.-Lengoxea. BATISTA'neko gela.

KATARINE ta BIANKE aurrera.

BIAN.—Aizta on, ez egidazu okerrik egin, ezta zeure buruarí be, ni otsein eta yopu eginik; etxat ori bape begiko; baña beste apaingarriekazko, askatu egidazuz nire eskuak bai, eta neuk erantziko dodaz guztiak, bai, nire soñeko guzti-guztiak, bai azpiko gonea be; zuk agindu-ala egingo dot, nire aizta zarragoaganako nire egin-bearrak ba-dazaudaz-eta.

KAT.—Agindu egiten dausnat ire maitale guztien artean zein donan kutunen esan dagidanala; ez izan, gero, azaluts.

BIANKE.—Sinis egidan, aizta, bizi diran gizonen artean eguño etxonat ikusi besteak baño maitagarriago izan ledikedan arpegi berezirik.

KAT.—Kutun, guzurra diñon ik; ez ete don Ortensi?

BIAN.—Aren leiarik ba'don, aizta, ementxe ta oraintxe zin egingo dausnat neuk egingo dodala alegin a iretzat izan daiten, a artu gura ba'don.

KAT.—Ba, orrazkero, ba-lediken ik ondasun geiagoren amesik izatea; Germi gura don ik, aberatsago izateko.

BIAN.—Orregaitik nakusna ik begi txarrez eta txibizkeriz? Olangorik ezpa'don i txantxetan abil; eta orain oartzen non i bitarte guzti onetan niri adarra yoten ibili azala; arren, Katarine aizta, azkatu, yarei egidazan eskuak.

KAT.—Orretan adarra yoten ibili ba'non, ganetikoa be txantxatzat artu egina (Yo egiten dau).

BATISTA aurrera.

BAT.—Ostera! Zer yazoten da, andera! nondik dator lotsabakokeri ori? -Baztartu zadiz, Bianke; -neskatoaren errukarri! negarrez dago; -zoaz zure orratz-Ianera; etzaitez sartu zu orren zeretan. Lotsea-arren, txerrenkume ori, zegaitik yo don, iraindu don i eguño iraindu ez auana? Noz esan dausna orrek itz mingotsik bat bera be?

KAT.—Irain yat orren ixiltasuna; eta nik ordea emon bear. (Atzetik ara doakio BIANKE'ri).

BAT.—Onangorik! neure aurrean, ala? Barrura zoaz, Bianke. (BIANKE'k alde).

KAT.—Au be ba-da ba. ezin nozu yasan, ala? Bai, oraintxe dakust ori dala zure altxora, zure kutuna, eta ezkondu egin bear dauela; orren ezteguetan ortozik egin bearko dot nik yantzan, eta zuk orri dautsazun rnaitasunagaitik nik matxangoak su-lexara eroaten ibili bearko dot (11). Ez egidazu itzik egin; yezarrí ta negar egingo dot, ordea ernoteko eretia datorkidan-arte. (KATARINE'k alde).

BAT.—Izan ete da eguño ni bestean naibageturiko aitonen semerik? Baña nor datorku emen?

GERMI aurrera, gizon zirtzil-zakarren yantziz yantziriko LUKENTI'kín; PERUTXO Ortensi'kin, ereslarirena egiten onako au; eta TARNI BIONDEL'ekin, onako onek txistua ta idaztiak daroazala.

GERMI.—Egun on, auzoko Batista.

BAT.—Egun on, auzoko Germi: Yaungoikoa lagun izango al yatzue aitonen semeoi!

PER.—Bai zeuri be. yaun on! Arren, ez ete dozu Katarine deretxon alaba lirain, on-indartsurik?

BAT.—Ba-dot, yaun, Katarine deretxon alabarik.

GERMI.—Zakarregi ta artezegi asi zara; erazago zabiltz.

PER.—Irain dagidazu, Germi yaun: bakean itxi nagizu.-Berona'ko aiton-seme nozu, yaun, eta zure alaba orren edertasun eta zurtasun, txerakortasun eta lotsortasun apalaren barri, aren zelangotasun arrigarrien eta yokabide otzanaren barri entzunik nozuta, zurera etorten azartu naz ain sarritan entzun izan dodan orrako orren lekuko ta autorla neure begiok izan daitezan. Eta nire itzaldiaren sarrera ta atetakotzat nire otseinetariko au dakartzut zure aurrera (ORTENSI opatzen dautso); gizon au yakitun yatzu eresi ta zenbakiztian, zure alabeari yakintza-arlook irakasteko, a zer orreitan

(1,1) "Matxangoak su-lexara eroaten ibik bearko dot". Ingelandarren esakera au eta Españarren "Tendré que dedicarme cr vestir santos" (santuek yasten ibili bearko dot) esangura bereko dira.

ezer eztakianik eztala nik yakin-arren; ontzat artu egidazu gizon au, edo ostantxean irain dagidazu; Liki yako oni izena, eta Mantua'n yaioa da.

BAT.—Ondo etorria zauguz, yaun; eta bai ori be, zure ederragaitik; baña nire alaba Katarine'gazko, -neuk dakit au-, a ezta zuri dagokizunik, nire naibage andiagorako,

PER.—Dakustanez, zuk eztozu alde egín gura zure alabeagandik, neu ez izatekotan zure gogoko.

BAT.—Ez egidazu oker aitu; biotzean dodana dirautzut. Nondiko zauguz, yaun? Ze izenez deituko ete zaudaz?

PER.—Perutxo yat izena; Andoni'n seme nozu, Itali osoan ezagun danarena.

BAT.—Ondo ezagun dot a: ondo etorria zauguz agaitik.

GERMI.—Perutxo, arren, zuk luzaroago ekiteka, guri eskale errukarrioi be itxi egiguzu itz egiten: kontxo, kontxo! urrin be urrin zoaz aurrera.

PER.—Ene! asketsi, parkatu nagizu, Germi yaun; amaitzeko luze eretxita nago.

GERMI.—Besterik eztot usle, yaun; baña zorí txarrekotzat etsiko dozu zure kutunketa ori. Auzoko, atsegingarri izango yatzun eskuerakutsia dozu emen, bai orixe. Zuganako beste ainbeste txera erakuste-arren, gazte yakintsu au dakartzut (LUKENTI opatzen dautso), ikasten luzaroan Reims'en egon izan dana; beste ori eresi ta zenbakiztian *aña* Eladera. Latera ta beste izkuntzetan yakitun eta trebe dana: Kanbio yako izena; arren, ontzat artu egizu orren otseintzea.

BAT.—Milla esker, Germi yaun; ondo etorria, Kanbio on. (TARNI'ri) Baña, yaun zindo, zure ibilkereari erbestetarren antza artzen dautsat; yakin ete neike zegaitik etorri zarean?

TARNI.—Asketsi, parkatu, yaun, neure da azarkeria; uri onetan erbestetar izanik zure alaba lirain eta on-indartsu Bianke'ren maitasun-billa natorrelako. Etxat ezezagun zure erabagia be, alabarik zarrena lenago ezkontzeko zure erabagia. Nik eskatzen dautzudan guztia auxe da, zure baimena; nire yatorria ezagun dozunazkero, zure alaba orren maitasun-billa dabiltzan besteen artean ni be artu nagizula, eta besteak lez nik be aganako ateak idigirik euki dagidazala. Eta zure alaben irakaskintzeagazko, emen damotzut lanabasa bakun bat eta Eladera ta Laterazko idaztiak dauzan pardeltxo ouj ontzat artu ba'dagizuz, onik askorako izango dira.

BAT.—Lukenti yatzu izena, ezta? Nondiko rara, arren?

TARNI.—Pisa'tar nozu, yaun; Bingen'en seme.

BAT.—Esku andiko gizon *a* Pisa'n: entzutez ondo ezagun yat gizon ori: ondo be ondo etorria zatxakuz. yaun.-(ORTENSI'ri) Artuizu txistua, ta zuk (LUKENTI'ri) zure idaztizorroa; laster yoango zarie zuon ikasleak ikusten. Eee! Betor ona norbait ortik barru-Uk!

OTSEIN aurrera.

I, yauntxo, eroan egizak aiton-semeok nire alabakana; eta biai esaiek oneik dirala euren yagola ta irakasle; Oneik ondo artzeko agindu egiek (Otseinak alde, ORTENSI, LUKENTI ta BIONDEL'ekin). Guk bein ibiltaldien bat egingo dogu baratzean, gero bazkaltzen yoateko. Ondo baño obeto etorriak zarie zuok, eta uste orretan zagoze, arren.

PER.—Batista yaun, eztabe etxoterik nire arazoak, eta ni ezin etorri nendike egunoro, emen maitasun-billa ibilteko. Ondo ezagun yatzun nire aita zana; eta bai aren bitartez eta agan ni neu be, ak bere lur eta beste ondasunen ondorengo bakartzat itxi nindun au, agandiko ondasunak gitxitu ta urritu-barik geitu egin dodazan au: orrazkero, esaidazu zure alabearen biotza nik iristekotan zer ezkonsari artuko dodan a nire emaztetzat artzeko aldian.

BAT.—Ni ildakoan, nire lurretatik erdia, eta beste ondasunez ogei milla ogerleko.

PER.—Eta ezkonsari orren alderako, ni *a haño* lenago iltekotan, aren alarguntza alderako nire lur eta eskubideen gozamena itxiko dautsat; idatzi dagiguzan orrazkero egiunezertzeladak, egiune-agiría bitzuon eskuetan egon daiten.

BAT.—Bai, bein zerik beinena ondo iritxitakoan, aren maitasuna zuk lortutakoan: orretan datza dana etzan be-ta.

PER.—Ba! utsa yatzu ori; eta izan be, aita, neuk dirautzut, *a* arro dan bestean, zerak zirti-zarta egitekoa nazala ni; eta su asarre bi alkarrekin batzen diranean, euren asarrearen yaki dan oro irusten dabela; beiez txiki dan sua axe apur bategaz sutzar egin-arren, axe eskargearen putzak sua ta dana ondatzen dabela; olangoxe izango natxako ni zure alaba orri, eta olan men egingo daust; eta izan be, latz naz ni, eta enaz ume-antzez maitasun-billa ibiltekorik.

BAT.—Tira ba, asi zeintekez aren maitasunbilla ta zori onik izango al dozu orretan! Baña gertau zaitez itz sakarren batzuk entzuteko.

PER.—Bai, minik ez artzeko *aña;* axeak beti putz egin-arren mendiak zirkinik egiten eztaben lez, nik be eztot egingo zirkinik-eta.

ORTENSI aurrera ostera be, burua ausita.

BAT.—Ze barri dok, ene adiskide! Zegaitik ago orren zurbil?

ORT.—Bildurra-arren nago zurbil, bai orixe.

BAT.—Ereslari on izatera elduko ete dok nire alabea?

ORT.—Gudari izatera lenago elduko dala uste dot. Burdiñea oba litzake arentzako, txisturik baño.

BAT.—Ba orrazkero ezin dozu ezi a txistua, naiz gitarrea yotera?

ORT.—Ez ba; gitarrea. ak berak ezi ta ausi daust-eta. Atzak okerreko lekuan imini dauzala esan dautsat, eta eskua makurtu baño eztautsat egin, atzak non eta zelan imini bear dauzan irakasteko bai, eta bape epebako txerren-zirkinez diraust ak: "Gangarrak deitzen dautsezu zuk orrei? Zure gangarrean eztozu otzik izango"; eta itzok esanala buru-buruan yo nau gitarra ereskinaz, eta burutik bera sartu daust; eta an egon naz ni apur baten arriturik eta zer egin eztakidala, zildaietan legetxe, ereskina- zear begira, ak gitarralari zirtzil-ganorabako. deitzen izan nauen bitartean; yotzalla asparri, kirten, eta olango beste itz zakarrik asko esan daustaz, ni eioten erago izan dauen bitartean.

PER.—Ludi au-arren, giarratsu da neskatxi ori; egin-eginean be orrexegatik eguño baño maitagarriago, begikoago yat: berakin autu-aldi bat egiteko luze be luze eretxita nago!

BAT.—(ORTENSI'ri) Tira ba, zatoz neukin, eta ez izan orren bildurti: nire alabarik gazteenari irakasten asi zaitez: ikaspera ta egite onai eskarbera da a. Perutxo yaun, gukin etorriko zara, ala ona bidaliko dautzut nire alaba Katarine?

PER.—Bidali egidazu, arren; emen nagoke aren begira. (BATISTA, GERMI, TARNI ta ARTENSI'k alde) eta datorrenean, sutsu-samar asiko natxako maitasun-eske. Dagigun a asarratu egingo yatala; ba, olangorik yazotekotan, argi ta garbi esango dautsat urretxindorrak baño eztiago abesten dauela; dagigun betozkoa okertzen dauela; iñontzetan ezatu-barri diran goxeko lairosak bestean betargi dirudila esango dautsat; dagigun eztauela agoa idigiten, neuk be eztautsat itz bal be egingo; gero aren aldakortasuna goratuko dot, eta iñondiko itzdario andia dariola esan: nire pardelak egiteko agindu ba'dagist, eskerrak emongo dautsadaz, aste osoan bere aldamenean egoteko esan ba'leustan legetxe; eztauela ezkondu gura esan ba'dagist, ezkon-deiak noz asiko diran itanduko dautsat, eta ezteguak noz izango diran. Baña or yatok bera; eta orain itz egik, Perutxo.

KATARINE aurrera.

Egun on, Katarine; entzun dodanez, ori yatzu izena-ta.

KAT.—Ondo entzun dozu, entzun, baña entzuteko gogor-samar dana! nithzaz itz egiten dabenak Katarine deitzen nabe.

PER.—Guzurra diñozu, bai orixe; eta izan be, zu Katarine bakun, eta Katarine polit eta batzuetan Katarine askarri deitzen zabez; baña Katarine, Kistar erriko Katarine'rik lirainena, Kate-Hall'eko Katarine, nire Katarinetxo'rik ederrena, eta izan be Katarine guztiak yatzuz lirain baño lirainago; eta orrazkero, Katarine, artu egidazu au, Katarine nire pozbide orrek; zure otzantasuna uri onetan entzunik, zure on-indarren otsa zabal eta parra-parra, eta zure eskuzabaltasuna or zabal, -baña orraitiño be ez zuri legokizun bestean-, zer guzti orrek eragin eta bultzau nau, ezkontzeko asmoz, zure maitasun-billa etorri naiten.

KAT.—Eragin eta bultzau nau! eragin eta bultzau ba'zauz, eragin eta bultzau zauz: onako eragin eta bultzau zauzanak berak eragin eta bultzau zagizala emendik alde egiteko be: asieratik igarri dot zu eragikor zareala.

PER.—Ostera! zer yatzu eragigei?

KAT,—Aulkia.

PER.—Untze-untzean yo dozu; tira, níre ganean yezarri zaitez.

KAT.—Astoak dira ganean iñor eroateko, eta olangoxe zara zu.

PER.—Emakumek dira iñor eroateko, eta olangoxe zara zu.

KAT.—Ez zu eroateko besteko kirtenak, nitzaz itz ba'dagizu.

PER.—Ene! Katarine on, ni enatxatzu astun izango! eta izan be, dakidanez, zu gazte ta arin ízanazkerc.

KAT.—Arinegi, bizkorregi zu langO baldarrek goatzeko; eta orraitiño be astunegi nik izan bear neukakenerako.

PER.—Izan bear neukenerako, izan bear neukenaren aldean! Burrundada egin bear zeu**ke.**

KAT.—Ondo esanda, erlanagiaren antzez egin be.
PER.—Ene! galeper ego-astun ori! goatuko ete zendukez erlanagiak?
KAT.—Galeper ba'naz bai, galeperrak erlanagia goatzen dau-ta.
PER.—Tira, tira, asarreegi zara, erlabio ori, bai, orixe.
KAT.—Erlabio-antzeko ba'naz, arduraz ibili nire ezten edo izpiaz, gero.
PER.—Orrazkero, eztena erauzi ta kentzea da nire egitekoa.
KAT.—Bai, ergelek non dagon idoro al ba'lei.
PER.—Nok eztaki erlabioak non daroan bere eztena? Bere atzean. buztanean.
KAT.—Bere miñean.
PER.—Noren miñean?
KAT.—Zeurean, buztanez itz ba'dagizu; eta orrazkero, agur.
PER.—Ostera! nire miña zure buztanean dodala, ala? Ez, erdu ona atzera, Katarine on; aitonen seme nozu ni.
KAT.—Ikusi egingo dot ori. (Ya egiten dau).
PER.—Zin dagit ukabilka egingo dautzudala barriro yo ba'nagizu.
KAT.—Olangorik egitekotan besoak muskildu ta galdu zegikez; yo ba'nagizu, etzara aitonen semerik; eta aitonen seme ezpa'zara, eztozu iskillorik be.
PER.—Aldarrikari, ala, Katarine? Ene! zure ikurdi-idaztietan imini nagizu!
KAT.—Non dozu ba gangarra? Ergel-txapela, ala?
PER.—Gangar-bako ollar, olan Katarine izango da nire ollo.
KAT.—Ez zu nire ollar; zure kukurrukua bela--grankada antzekoegi da.
PER.—Ez, tira, Katarine, tira; eztozu izan bear orren garratz.
KAT.—Auxe da nire ekandua, zangurrurik dakustanean.
PER.—Ostera! eztozu zangurrurik emen; eta orrazkero, ez artu garratz- antzik.
KAT.—Ba-dago, bai, ba-dago.
PER.—Erakutsi egidazu, orrazkero.
KAT.—Ikuskinik ba'neu, erakutsiko neuskizu.
PER.—Ostera! nire arpegiaz daragoiozu, ala?
KAT.—Ondo igarri dozu, orren gazte izan--arren.
PER.—Gorka Deuna-arren, gazteegi nozu zutzako.
KAT.—Eta orraitiño be zimelduta zagoz.
PER.—Ardurak eta lorrak ziinelduta.
KAT.—Nik eztot kezkarik eta lorrik.
PER.—Ez, olangorik ez, entzun, Katarine: egia esateko, olan eztozu alde egingo.
KAT.—Asarratu egingo zaudaz, emen gelditu ba'nadi; itxi egidazu alde egiten.
PER.—Ezta, izperrik bez, ezetara bez; txeratsu baño txeratsuago zaudaz. Latz eta zakar zareala esan dauste, uxo ta muker, eta orain dakustanez guzurti izan da zugazko otsa; eta izan be, zu atsegingarri, begiko, olgetari ta txeratsu baño txeratsuago zara; orraitiño be izketan geldo bai ba-zara, baña bai udabarriko lorak bestean gozo ta ezti be; ezin dozu betozkorik erakutsi, ezin dozu begiratu zearretara, ezta ezpanai usigi be, neska asarreak egin daroenez; mukertu ta itz iraingarririk esan ordez, otzankiro daragoiozu izketan eta autuan zure maitasun--billa datortzunakin: maitagarriro, bigun eta betargi. Zer dala-ta aldarrikatzen dabe or Katarine meiki dala? Ludi onen miñ-gaizto! artez eta lerden da Katarine, urrutx-abarraren antzera; eta margo edo kolorez, baltzeran, urrak eurak legetxe, eta ur-mamia baño be gozoago. Ene! zure ibilkerea erakutsi egidazu: eztozu egiten alborantzakarik, meikiak egin daroenez.
KAT.—Zoaz ortik zear, ergel ori agintzeko eskubiderik dautsezunakana.
PER.—Katarine bere errege-alaba-yaseagaz gela oneri dagokion bestean ondo, Dine eguño basotxori ederto ta txairo etorri ete yako, gero? Ene! Dine izan zaitez ba, eta a Katarine izan daitela; eta bein orraazkero Katarine bedi neska garbi, Dine, ostera, maitaberati.
KAT.—Non ikasi dozu itz-egikera txairo-arro ori?
PER.—Berezko etorria yat au, nire amaren zurtasunetikoa.
KAT.—Ama ori bai zur, semea onen ergel izan-arren.
PER,—Enaz zur, ala?
KAT.—Bai; artobero ederra.
PER.—Kontxo, olangoxe izan be izan gura dot, Katarine ezti, zure oean: eta orrazkero, autu-mautu oni albora eraginda, auxe da argi ta garbi esan bear dautzudana: zure aita eder etsita dago zu nikin ezkontzeko; egiunea eginda dago zure ezkonsariaz; eta zuk gura, naiz gura ez, zukin ezkonduko naz ni. Aor ba, Katarine, zuri dagokitzun senar nozu ni; eta izan be, zure edertasuna darakustan argi au-arren, zuri zeuri lez onuragarri yatan edertasun ori zuk eztozu ezkondu bear neuaz beste gizonekin; izan be, neu nozu zu ezi ta otzanduteko yaio dan gizona, Katarine; eta zu, Katarine, uxoeziga izan zarean ori, Katarine atsegingarri egiteko, beste Katarine etxekoiak dira-

nez. Eman dator zure aita; ez esan ezetzik, gero; nire emazte izan bear dau Katarine'k eta izan be izango da.

BATISTA, GERMI ta TARNI aurrera ostera be.

BAT.—Perutxo yaun, zelan yoan yatzu nire alabeagazkoa?

PER.—Zelan yoateko, ondo baño, yaun? Zelan yoateko, ondo baño? Ezina litzatskean bestera izatea.

BAT.—Olangorik, Katarine alaba! Ostera be zure motel-aldian?

KAT.—Zure alaba deitzen nozu? Aitaren begirapen samurra erakutsi be erakutsi daustazu oraingoxean erdi zorokin ni ezkontzeaz, zital ergel eta astaburu zingillekin, bideak zin-bidez garbitzea uste dauenakin, bai orixe.

PER.—Onantxe da, aita: zuk eta neska orretzaz erago dauen ludi guztiak oker itz egin dozue; askarri ba'da ori, olangorena asmoz eta beren-beregi egiten dauelako *da;* eta izan be, ori ezta oker-gaiztorik, usoa bestean neurriko ta otzan baño; ezta asarrez dirakianik, goxaldea legetxe epel-maitagarri baño; epeazko, beste Grisele izango yatzu, eta garbitasun-arloan Erromar Lukertze: eta amaitzeko, gu biok alkarren artean ain erizkide izan gara-ta. igandez izango dira gure ezteguak.

KAT.—Ori baño Ien eskegita ikusiko zaudaz igandean.

GERMI.—Entzun, Penitxo, i lenago ikusiko auela eskegita yiñok orrek.

TARNI.—Ori dok ire irabazia, ik izan dokan zori ona, ala? Tiruk ba, olan ba'dok, agur gureagazkoa!

PER.—Epe artu, aitonen semeok; neutzako dok ori; gu alkarren gogoko izatekotan, zer dozue zuok orretan zer-ikusirik? Gu biok alkarrekin izan gareanean itundu gozak ori oindiño be lagunen artean zakar, baldar, trakets eta askarri agertu daitela. Neuk dirautzuet, sinistu be ezin Ieitekek orrek zenbat maite nauen. Ene! Katarine'rik maitagarrien ori!... -Idunetik eskegi yatak, eta mosu ta mosuka arin ibili yatak Ieiaka ta norgeiagoka, zinez eta zinez, eta beingo baten benderatu naiok berorren maitasunerako. Ba! asparri zarie zuok; ikasla ta asparri arlo onetan. Ikaskizun langO ikaskizuna dok ikustea gizonak eta emakumek eurak euretara dagozanean zelan edozein tutuluk, edozein kirtenek be otzandu leikean emakumerik askarriena.- Ekazu esku ori, Katarine: Binixa'ra noa ezteguetarako soñeko ta ganetiko zerak erosten.-Gertau oturuntzea zuk, aita, eta dei egin maikideai; seguru nago zoragarri egongo dala nire Katarine.

BAT.—Eztakit zer esan, baña ekadazuez zuok eskuak; poza emongo al dautzue Yaungoikoak, Penitxo! Eginda dago ezkontzea.

GERMI ta TARNI'k.—Olantxe. diñogu guk; lekuko ta autorla izango gara.

PER.—Agur, aita, emazte, ta aitonen semeok; Binixa'ra noa ni; bertatik dator igandea: erestunak, zerak eta laguntza txairo izango doguz; eta mosu emoidazu, Katarine, igandez ezkonduko gara-ta. (PERUTXO'k eta KATARINE'k alde, banazean).

GERMI.—Izan ete da eguño orren arin egindako ezkontzarik?

BAT.—Egia esateko, aitonen semeok, sal-eroslearena egiten daragoiot nik orain, eta etsitako sal-eroskeia dakat saldu-bear gorrian, egonago ta galduago egiten yat-eta.

TARNI.—Alperrik galtzen egoan zurean ondasun ori; eta, edo irabazizik ekarri, edo itxasoko uretan galduko yatzu.

BAT.—Enabil irabaziren billa, ezkontza baketsuren bílla baño.

GERMI.—Eztago ezpairik ak (PERUTXO'k) bakez goatu dauela goatu dauena.- Baña orain, Batista, goazen zure alabarik gazteenagana; eldu da gu ain luzaro bere begira egon garean eguna; zure auzoko nozu ni, eta bai zure alabearen maitasun-billa lenen asia be.

TARNI.—Ni, barriz, nik itzez azaldu eta Bianke zuk uste ta susmau zegikean baño maiteago dauna.

GERMI.—Umekonko, ik ezin dok, i ez az gauz nik bestean a maite izateko.

TARNI.—Bizar-urdin! leitu egin dok ire maitasuna.

GERMI.—Irea, ostera, erreta yagok. Atzeratu akit, yauzkari ori; adiña dok, urteak dozak gizona azi ta egiten dabenak.

TARNI.—Baña gaztetasuna da emakumen begietan loratzen, garatzen dana.

BAT.—Nasai zaiteze, aitonen semeok; neuk atondu ta ebatziko dot eztabaida au: egitez irabazi bear da saria; eta zuok biotatik nire alabeari ezkonsari andiago ekarri dagionak artuko dau Bianke'n maitasuna.- Esaik, Germi jaun, ze ezkonsari ekarri al izango dautsok ik?

GERMI.—Lenen eta beinen, zeuk dakizunez, zidarrez eta urrez ondo orniduta dagon uriko nire etxea; aren esku pitxientzako eskuontzi ta pitxarrak; Tiro-oialezko nire eskegikizun guztiak; nire amaseikoak aginkizko kutxetan daukadaz ondo gordeta; nekosta-

kubcetan nire eskegikizunak eta kolbtak, yantzi txairoak, oe-txoznak eta errezelak, liñoki me, eperdipeko apitz pitxiz yosiak, aurtiko aztinak, Binixa'ko damasko yostorratzez yosia, pelter eta borontzezko erredizak, eta etxea apaindu ta yazten daben ganetiko zerak: gero, nire landetxean, eun esna-bei dodaz esnea kaikura batzeko, eun eta ogei idi lodi dodaz nire korta edo itoietan, eta onetaratsu zer guztiak. Ni neu urteetan aurreratua naz, eta autortu bear dot au; eta ni bier edo etzi il ba'nadi, zer guztiok neskato orrenak izango dira: ni bizi nazan artean a neure bakarrik izan ba'dai**te.**

TARNI.—Ondo esanda orrako "bakarrik" ori. Yaun, entzun egidazu: nire aitaren ondorengo ta seme bakar nozu ni: zure alabea nire emaztetzat iritxi ba'dagit, Germi yaun zarrak Padoba'n izan leien etxerik onena bestean on diran iru-Iau etxe itxiko dautsadaz Pisa aberatseko uri-barruan; orrez ganera, urtean bi milla duket lur emokorretatik, eta dan dan ori izango da zure alabearen alarguntzarako.-Zer? Min egin dautzut, ala, Germi?

GERMI.—Urtean bi milla duket Iurretatik! nire lurrak guztiz be eztira eltzen orrenbesteraño; baña eztau ardura; orrez ganera, orain Marseil'go kaian datzan itxas-ontzia izango dau.-Zer? Aberastasunez ito aut, ala?

TARNI.—Germi, ezagun dozu nire aitak gitxienez iru itxas-ontzi andi dauzala; orrez ganera, beste ontzi txikiago bi, eta amabi ontzi sendo: orreik segurutuko dautsadaz neskato orri, ori ta zuk len eskeñiaz ganera opatu al izango dautsazuna Iango bi.

GERMI.—Ez, nik etxoat geiagorik opatu ta aginduko: dodan guztia opatu ta agindu yoat; nik etxaukat besterik, eta nik ezin emon neskato orri dodana baño geiagorik: iri eder ba'yak, ni ta nire oro neskato orren izango gozak.

TARNI.—Ba! orrazkero nire da neskea guztien ganetik, zure aginduaren arauz: Germi'k baño geiago agintzen dautsat nik.

BAT.—Zurea dala agintzarik onena autortubearrean nagotzu; eta zure aitak autor dagiola nire alabeari zure dala au: ostantxean asketsi, parkatu bear nozu: a baño len ilgo ba'zintzaz zu, non legoke nire alabearen ezkonsaria?

TARNI.—Marrokeri utsa yatzu ori: zar da a, ni gazte.

GERMI.—Eta ezin il Iedikez gazteak be, zarrak legetxe, ala?

BAT.—Tira ba, aitonen semeok, au da nire erabagia: datorren igandez ezkontzeko da nire alaba Katarine, eta urrengo igandez egingo da Bianke zure ezkongei, agindu au egin ba'dagistazu; ostantxean Germi' ntzako izango da: eta orrazkero. ba-noa ni. eta eskerrik asko zuoi bioi.

GERMI.—(BATISTA'ri, yoan doala) Agur, auzoko ori.-Orain etxoat ire bildurrik: yauntxo gazte yokalari, ergel Iitzakek ire aita, ak dauen guztia emongo ba'leuskik, eta bere aurberako urteetan bere oña ire maipean iminiko ba' laiok. Ba! kasketaldia bear dok orretarako, eta italiar azeri zarrik eztok orren txeratsu, orren buru gitxiko, ene mutiko. (Alde dagi).

TARNI.—Biraoa ta ordea etorriko al dira zure narru maltzur eta izurtsura! orraitiño be amarreko kartaz arpegi emon eta gogor egin dautsat (2) Nire ugazabari on egitea otu ta buruan sartu yat.- Eztakusat zegaitik Lukenti dalakoak eztauen izan bear aitatzat Bingen dalakoa. Eta zer bakan eta iñondikoa auxe. Oi danez, aitak dira semeak izan, egiten dabezanak; baña maitebilla ibilte onetan, semek egingo dau bere aita, nire trebetasunak uts egin ezpa'dagist. (Alde dagi).

III EKITALDI

I AGERLEKU.-PADOBA. BATISTA'neko gela.

LUKENTI, ORTENSI ta BIANKE aurrera.

LUK.—Bego, asko da, bibolin-yotzalla; auneregi oa, yaun: orren arin aztu yak orren aizta Katarine'k zelango txerao egln dauskan. ola?

ORT.—Ez baña, ume-irakasla asarreti ori, zerutar ereskidetasunaren aldeko ta aldezle dok beste au: orrazkero, emoidak ni Ienen izateko eskubidea; eta eresi-arloan ordu be-

(12) Batista'ri zuzenduak dira Tarni'n itzok. Amarreko karteagaz arpegi emon, gogor egin dautsala diño, bere leiakide Germi'k baño geiago agindu dauela.

te dagigunean, ik be ire itzaldirako beste ainbeste asti izango dok.

LUK.—Astakirten ori! eresia zetarako dan be oraindik irakurteko agon ori! Ez ete zoan asmau eresia gizonaren gogoa arindu ta argitzeko, bere egunoroko ikasketa ta nekeen ostean aren gogoa nasaitu ta poztuteko? Orrazkero, emoidak ire baimena nik ari yakintza-irakastaldi bat egiteko, eta nik atseden artzen dodan artean ekiok ik ire ereskidetzeari.

ORT.—I, yauntxo, etxoazat yasan gura nik ire arropuzkeriok.

BIANKE.—Aiton-semeok, zegaitik iraintzen nozue birritan, nire eskuko dana zeuan eskuko egiten alegintzen? Ni enaz parka-motzakaz irakastegira dabilen umerik; ni enozue lotuko izentauriko ordu naiz aldiri, nik nire ikaskizunak neuri eder dakidanean ikasi baño. Eta eztabaida ta burruka guztiai bideak isteko, yezarri gaitezan emen: artu zuk zure lanabasea, yo apur baten; beste orren irakastaldia amaitu izango da zuk zure bilbolin ori bere bidean imini orduko.

ORT,—(BIANKE'ri) Orren irakaskizunari albora eragingo ete dautsazu nik nire lanabasea bein bere otsean imini dagidanean? (ORTENSI'k alde).

LUK.—Olangorik ezta bein be yazoko: otsera iminik lanabasa ori.

BIANKE.—Non gelditu gintzazan oraintsuen-ffOZ?

LUK.—Onako onetan, anderaño: "Hac ibat Simois; hic est Sigeia tellus; Hic steterat Priami regia celsa senis".

BIANKE.—Gure izkuntzara aldatu egizu.

LUK.—"Hac ibat", len esan dautzudanez,- "Simois", Lukenti nozu ni... "hic est", Pisa' ko Bingen'en seme... "Sigeia tellus", onan kokomarroturik, zure maitasuna iristeko; "hic steterat", eta zure maitasun-billa datorren Lukenti dalako ori... "Priami", nire otsein Tami da... "regia", nire soñeko ta yasagaz... "celsa senis", guk Parkazar'ari iruzur egin al izateko.

ORT.—(Aurreratu-ala) Anderaño, otsean dago nire lanabasea.

BIAN.—(ORTENSI yoten). Entzun dagiogun. Utikan, utikan! latz dago abeskorena.

LUK.—Txu egiok zulora, gizon, eta otseratu egik barriro.

BIAN.—Dakusagun orain ia nik azaldu al dodan:- "Hac ibat Simois", nik etzaudaz ezagun...- "hic est Sigeia tellus", eztot usterik zugan; "Hic steterat Priami", arduzaz eabiz, orrek entzun eztagiskun, -regia, ez izan bearrezko eztan usterik,- "celsa senis", ez etsi.

ORT.—Anderaño, otsean dago orain.

LUK.—Osperenaz beste ariak bai.

ORT.—Ondo yagok osperena; berengo zitala dok irrintze egiten dauena. Gure arroputzaren arro ta azarri! (Bere kitean) Nire biziarren, zital orrek nire maitea kutuntzen yaragoiok: "Pedascule", aurrerantzean obeto yagongo auL

BIAN.—Ba-ledike gerora nik sinistea; beinbeinean eztot usterik.

LUK.—Ez izan usterik-ezik: eta izan be, seguru seguru, Aiakides zan Aiatz, izen ori aitagandiko ebalarik.

BIAN.—Sinistu bearko nire irakasleari: ostantxean eztabaidarik erabiliko neuke siniste-ez orrez be, bai orixe: baña bego: orain iri, Liki: irakasla onok, ez artu txartzat, arren, ni zuoí adarra yoten ibili izana.

ORT.—(LUKENTI'ri) Yoan eindeke i ortik zear eta bakarrik itxi ni apur baten; nire irakaskizunak eztozak iru abotsetarako.

LUK.—Orren benetako az, yaun? (Bere lcitean) Tira ba, etxon egin bear yoat, eta etxonala i yagon; eta izan be, oker ezpa' nago, gure ereslari bikain au maitabaratuaz doaku!

ORT.—Anderaño, atzak zelan erabili yakite. ko.zuk ereskina ukutu-aurretik, terbetasun onen lengaietatik, oñarritik asi bear dot; nire ogibideko lengo irakaslek irakatsi izan dautzun baño laburrago, atsegingarriago, argiroago ta eraginago zuri irakasteko zazpi otsak: emen dozu idatzita nire irakaspidea, eta txukun idatzita, gero.

BIAN.—Ba! atxinetik nago ni zazpi otsok ikasirik.

ORT.—Orraitiño be irakurri egizuz Ortensi'n zazpi otsok.

BIAÑT^-drakurri dirakur)

ZazpiretaBk ut nozu ni, oskide guztien oñani.

A...re, Ortensi'n leiea ta irritsa ondatzeko

B...mi, Bianke, zure senartzat artu egizu Orlensi.

C.ía, zu biotz-biotzez maite zauzana.

D...sol re, ots bi dodaz nik, eta ostegi bakarra.

E...la mi, erruki zakidaz, ostean nireak egin dau.

Ut eresten dautsazu orri? Ut, ut! etxat bape begiko; lenagoko irakaspideak yutaz begikoen; enozu orren zalekeritsu, benetako arauak iñondiko asmakizungaitik aldatzeko.

OTSEIN aurrera.

OTS.—Anderaño, zure aita eske dagotzu zuze idaztiak baztartuta zure aizteari aren gelea atontzen lagun zakiozan, dakizunez biar dira aren ezteguak-eta.

BIAN.—Agur, irakasla eztiok, biok; yoan egin bear dot! (BIANKE'k eta Otseinak alde).

LUK.—Orrazkero, benetan, anderaño, nik ezto! emen zetan egon. (Alde dagi).

ORT.—Nik bai ba-dot biderik eta zegaitirik arroputz ori yagoteko; maitemindurik dagonaren antza dau orrek: -orraitiño, Bianke, zure gogapenak, zure begi yantzariak edozein ustelen ganera yoateko bestean zirtzil ba'dira, gura zauzanena zadiz: aldatuaren aldatuz zalekeritsu zareala idoro ba' dagit, Ortensi'n ordeazkoa be or izango dozu bera be aldatuaz. (Alde dagi).

II AGERLEKU.-Lengoxea. BATISTA'n etxe. aurrea.

BATISTA, GERMI, TARNI, KATARINE, BIANKE, LUKENTI ta Laguntzakoak aurrera.

BAT.—(TARNI'ri) Lukenti yaun, au da Katarine ta Perutxo alkarrekin ezkontzeko izentauriko eguna, eta orraitiño eztogu gure suñaren barririk: zer esango dabe or? Ze irri izango da abadea ezkontzako itzak esateko gerturik dala senargeia iñondik agiri ezpa'da? Zer diño Lukenti'k gure lotsari onetzaz?

KAT.—Nire da lotsari ori ta nire bakarrik: nire biotzak diñonez bestera, nire eskua gizon zakar, trakets, zoro ta gogalditsuri emonbearrean aurkitzen naz; arin maitemindu ta astitsu ezkondu gura dauenari. Esan neutzun nik, bai, esan neutzun a ergel burutik egina bere adarra yote garratzak yardukera yasakoz ostonduten dauzana dala: eta gizon gogo argikotzat etsi dagien, milla neska kutundu, ezkontza-eguna izentau; adiskideai ezteguetarako dei egin, eta ezkon-deiak eragin; eta orraitiño eztau kutunduakin ezkontzeko asmorik. Orain Katarine erakutsiko dau ludiak bere eskua ta aíza luzatuaz eta esango dau: "Aor, or dozue Perutxo'n emaztea, ari etorri ta orrekin ezkontzea eder ba'yako".

TARNI.—Epe artu, Katarine on, eta bai zuk be, Batista. Nire bizia-arren, asmo txarrik eztau Perutxo'k, zerbaitek bere itza beteten galazo-arren: zakar izan-arren, ba-dakit nik a zur baño zurrago dala: gogargi izanarren, zindo da.

KAT.—Sz al leu Katarine'k a eguño ikusi! (Alde dagi negarrez. Bianke ta beste batzuk atzetik ara doakiozala).

BAT.—Zoaz, neskato; orain ezin ezarri neiketzu negar eginaren errurik, eta izan be, orrenbesteko irainak gurenik gurenenari be min egingo leuskio-ta, askozaz geiago zu lango asarrebera gogaldi epebakodunari.

BIONDEL aurrera.

BION.—Ugazaba, ugazaba! barri zarrak, eta zuk eguño entzun izan eztozuzanak lango barriak!

BAT.—Barri da zer ori, ala zar be bai? Zelan izateko olangorik?

BION.—Ba! Ez ete da barri ba-datorrela Perutxo?

BAT.—Etorri da, ala?

BION.—Ez, ba, yaun.

BAT.—Ba, orrazksro, zer?

BION.—Bidean dala.

BAT.—Noz elduko da ona?

BION.—Ni nagon lekuan egon daitenean, eta zu or zakusanean.

TARNI. Baña esaik. zein dok ire barri zarra?

BION.- -Ba, Perutxo txapel barrigaz eta yake zarregaz datorrela; iru bider itzulietara iminitako parkakaz; argi-taket ontzi izandako oskiekaz, bata kakoz eta bestea ugalez lotuta; ezpata zar ugertsu uriko iskillotegitik artuagaz, kirtena ausita dauela, eta ezpata-zorro edo leka bagarik; aren zaldiak bizkarrean basta zar sitsak eta zedenak yana dakar, eta oin-lekuak alkarren kide eztiranak díra; ganera, zaldíak berak surdario gatxa dau; bizkarrazurra, oroldi-antzeko; ago-sapai gatxagaz, sagu (anditu) intsigikorrakaz; oñetako andituz beterik; oin-giltzetako gatxagaz, laru-unez betea; eraste-gatxetik etsia; yausi-gatxak guztiz ondatua; bizigoak usika yana; bizkarrazurokerra; besaburuak euren lekuetatik urtena; eguño bizkor ibili eztana, eta ago-ugal bakarduna; eta buru-ugalak erdi-narruzkoak, eta ugalok, zaldiak oztoporik eztagian tiratuaren tiratuz, sarritan urratu izanak eta orain korapilloz osotuta dagozanak; garrikoa sei zatiko da; eta bizkar-eperdipekoa emakumeentzakoa ta bera oial apitzezkoa, emakumen izenaren len-izki bi untze lirainez eginak erakusten dauzala, eta anor-emenka pardel-lokarriz adabatua.

BAT.—Nor dator berakin?

BION.—Ene bada! bere zaltzaina, zaldiaren antzera yantzita, zango batean liñozko oin-zorro motza, eta bestean oin-zorro luze mantarrezkoa ta galartzu gorri-urdinez lotua dakarrela; txapel zar bat, eta egaki-ordez bertan orratzez erantsita, "Berrogei burrukariren gogaldia": bidutzi, mamu yatzu, benetako bídutzi edo mamu bere yazkeraz; eta eztau Kístarren arteko zaltzain edo aiton-semeren zaltzainen antzik.

TARNI.—Gogaldi bakanen batek zirikatu ta bultzau yok a era ta yardunbide orretara; orraitiño be, a sarritan ibilten dok soñeko zirtzilekaz.

BAT.—Poztuten nau a etorteak. edozelan etorrita be.

BION.—Ba, yaun, eztator *a.*

BAT.—Eztok esan ba-datorrela, ala?

BION.—Nor? Perutxo etorri dala?

BAT.—Bai, Perutxo etorri dala.

BION.—Ez. yaun; aren zaldia datorrela a bizkarrean dauela diñot nik.

BAT.—Ba, ori dana dok bat.

BION.—

Txakurrandi bat dagitzut
Zaldi bat eta gizon bat
Bat baño geiago dirala
Eta orraitiño ez anitz.

PERUTXO ta GURMI aurrera.

PER.—Tira. nondik dira maitaleok? Nor dago etxean?

BAT.—Ondo etorria zauguz. yaun.

PER.—Eta orraitiño enator ondo.

BAT.—Etzagoz ba oraindik meiki.

TARNI.—Nik gura neuken bestean ondo yantzita etzatoz.

PER.—Obeto yantzita netorkean, onen arin etorri-bearrik izan ezpa'neu. Baña nondik da Katarine? Nondik da nire emaztegei liraina? Zelan dago nire aita? -Aiton-semeok, betozkoa okertu egiten dozuela dirudit: eta zer dala-ta dago lagundi on au begiak zabal eginik, oroigallu arrigarriren bat, izar ígarakorren bat, naiz alatz bakanen bat balekus legetxe?

BAT.—Ba, yaun, ba-dakizu gaur dirala zure ezteguak: motel eta gotilun egon gara len, zu etzarealakoan etorriko; motelago ta gotilunago gagoz orain orren baldar eta gertatzeka zatozalako. TJtikan! aldatu egizuz soñekoak, zure egoterako lotsagarri dirata, gure yaí andi onetan begien mingarri!

TARNI.—Eta esaiguzu garrantzi andiko zek euki zauzan orren luzaro zure emaztegeigandik urrin, eta olan orren zure buruaren antzez bestera bidali zauzan.

PER.—Aspergarri litzake ori eraltea, eta zuou belarrientzako latzegi: asko bedi yakitea nire itza beteteko natorrela ni, zer batzuetan bestera egiten bearturik aurkitu-arren: baña orretarako astirik izan dagidanean zuok ontzat artzeko bestean azaldu ta nire burua orretzaz zurituko dot. Baña nondik da Katarine? Luzaroegi nago agandik alde eginda: goxa aurrera doa eta gu yauretxean egoteko tertzioa da.

TARNI.—Olango yantzi ganorabako ta lotsagarriekaz etzaitez yoan zure emaztegeia ikusten: zoaz nire gelara ta nire yantziak yantzi egizuz,

PER.—Ez nik, ez orixe: onantxe yoango naz a ikusten.

BAT.—Orraitiño be, eztot uste olan ezkonduko zareanik arekin.

PER.—Bai, onantxe, bai orixe; orrazkero, itzik asko dogu; neskato a nikin ezkondu da, ez nire yantziakin. Nire soñeko zirtzilok aldatu neíkezanez, osatu al ba'nei neskato orrek nigan urratu ta ondatuko dauena, on litzakio Katarine'ri, eta are obeto litzakit neuri. Baña ni bai ba-nazala ergeltzar zukin autu-mautuka egoteko, nik nire emaztegeiari egun onak emon eta mun maitakorrez aren olango izenaren eskubidea sendotu bear neuken au! (PERUTXO'k eta GURMI'k alde).

TARNI.—Zerbait esan eta iragarri gura dau orrek bere yantzi zirtzilon bidez. Iñondik *a*\ ba'dogu, buruan sartuko dautsagu yauretxaratu baño len soñeko oberik yantzi dagiala.

BAT.—Atzetik ara yoango natxako, eta onako zer au zetan gelditzen dan ikusi. (BATISTA'k, BIONDEL'ek eta GERMI'k alde).

TARNI.—Baña, yaun, neskearen maitasunari aren aitaren eder-etsia erastea dagoku guri: eta ori yazo daiten, lendik esanda dodanez, gizonen bat bear dot, -dana dala, eztau bear Vrebetasun andirik; gure asmorako gertauko dogu, -ta orrako gizon ori Pisa'ko Bingen izango da; eta ak nik agindutako diru-moltsoa baño geiago emongo dauela esan emen Padoba'n. Olan beteko dozu nasai nasai zure itxaroa, eta Bianke eztia bere ta bere aitaren ederetsiz zukin ezkondu.

LUK.—Nire irakastegi-lagunak Bianke'n oinkada bakotxa estu estu yagongo ezpa'leu, Bianke ta ni alkarrekin ixilean ezkontzea

ondo legoke, nire ustez,- eta izan be, bein gu alkarrekin ezkonduazkero, mundu guztiak ezetz esatea baño eztau; nire dana neuk neukake, mundu guztiari tamal ba' litzakio be.

TARNI.—Apurka apvuka onako ori gogotan eukiteko gara izan, eta arazo onetan gure eretia noz etorriko begira egongo gara; Germi bizarr-urdina baño uxrinago elduko gara, eta bai usainka ur dabilen Minola, neskearen aita baño be; baita eres-lari bikain, Liki maitemindua baño be; eta dan dana nire ugazabagaitik, Lukenti.

GERMI aurrera ostera be.

Germi yaun, yauretxetik ator, ala?

GERMI.—Eguño irakastegitik etorri izan nazan bestean gogoz eta pozik etorri be.

TARNI.—Eta ezkonbarriak etxera yatozak, ala.

GERMI.—Senargeia diñok? Senargei yak a, bai, senargei muker-marmarlari, eta neskeak yakingo yok a olango dala.

TARNI.—Emaztegeia bera baño asarrekorrago, ala? Ba, ezina dok ori.

GERMI.—Ba! txerren dok a, txerren, txerrena bera.

TARNI.—Ba! neskea bai ba-dok txerren, bai, txerren, txerrena beraren emaztea.

GERMI.—Bai zera! aren aldean neskea asuri edo bildots, uso, eztia bera dok. Entzun, Lukenti yaun: yaupari edo abadeak itandu dautsanean ia Katarine emaztetzat artu gura dauen, gedar zoliz erantzun yok: "Bai, Yaungoikoa-arren"; eta gedar ain zoliz zin egin yok-eta, guztiak arri eginda gelditu dozak eta yaupariari idazria eskuetatik lurrera yausi yakok: eta yauparia idaziia eragiteko makurtu-ala senargei burutik eginak ukabilkada langa ukabilkadea emon yautsak-eta, lurrera yausi dozak yauparia ta idaztia, idaztia ta yauparia, eta itzok erantsi dauz: "Iñok gura ba'dau, eragi dagizala".

TARNI.—Zer esan yok neskeak yauparia atzera zutundu danean?

GERMI.—Ikara ta dardara baten egon dok a; eta izan be, bitartean senargeiak oñaz, ostikoaa lurra yoten eta zinka erago yautsak, yauparia irrika ibili izan ba'litzok lez. Baña lege-egikizun asko egindakoan ardaoa eskatu yok: "Guztien osasunaren alde" gedar egin yok; ontzian egon izan ba'litzok legetxe, ekatx-ostean bere ontzilagunekin edaten: ardaoa zurrutada baten iruntsita, ondakinak yauretxe-zaiari arpegira egotzi yautsazak; ez beste ezegaitik, aren bizar urdin, geltzo ta gosetia ondakin-eske egokola iruditu yakolako baño. egindakoan, emaztegeiari idunetik eldu ta ezpanetan mun egin yautsok, mun ain zarataisuz-eta, aikarreganaik banakeran yauretxe osoak erantzun yok. Onako au ikusi-ala, lotsaz alde egin yoat nik andik; eta yentetzea nire atzetik datorrela uste yoat. Ba-yakiat olango ezkontzarik eztala izan eguña; entzun, entzun: ba-dantzut eres-larien eresia. (Eresia entzuten da).

PERUTXO, KATARINE, BIANKE, BATISTA, ORTENSI, GERMI ta Laguntzakoak aurrera.

PER.—Aiton-Seme ta adiskideok, eskerrik asko zuan nekeakaitik: ba-dakit gaur nikin bazkaltzeko ustetan zagozena. ta eztegueta-rako yakirik asko gertau dozuena; baña olantxe da, astirik-ezak emendik alde eragiten daust eta, orrazkero, ernen eta oraintxe zuoi agur egiteko asmoa dot.

BAT.—Izan ete leiteke arratseon zu emen ez izaterik?

FSR.—Gaur alde egin bear dot, gautu baño len: ez arritu orregaitik; nire arazoa ba'zenki, emen gelditzeko-barik emendik alde egiteko eske zengokidaz. Eta lagundi zintzo ori, eskerrak guztioi, nire burua emazte epetsu-epetsu. ezti ta onindartsu oni emoten ikusi nozuenoi: nire aitagiña-rrebeakin bazkaldu egizue eta nire osasunaren alde edan egizue, nik emendik alde egin bear dot-eta; agur guztioi!

TARNI.—Orraitiño be, itxi egiguzu bazkalosterarte alde ez egiteko zuri eskatzen.

PER.—Ezin izan ledike olangorik ezetara be.

GERMI.—Neuri itxi egidazu eskatzen.

PER.—Ez, asko da!

KAT.—Gelditu zaitez, maite ba'nozu.

PER.—Gurmí, ekak nire zaldia.

GURMI.—Bai, yaun, gertu dagoz zaldiak: oloak yan dauz zaldiak.

KAT.—Ba, orrazkero, zeuk gura dozuna egizu; dagizuna dagizula, ni enoa gaur; ezta biar be, ez neuri eder dakidan-arte. Zabalik dozu atea, yaun; or dozu zure bidea; ibili baño eztozu, zure oskiak urratu-arte; nigazko, ni enaz yoango gogoak emon dagistan-arte: gogaldi zakarreko ezkonbarri izango zara zu, urrean, barritan orren agirian diragartzunez.

PER.—Nasaitu zaitez, Katarine ori; etzakidaz asarratu, arren.

KAT.—Bai, asarre izango naz; ze egikizun dozu? Nasai egon, aita; geldituko da neuri eder dakidan-arte.

GERMI.—Bai, kontxo, yaun, asi da biguntzen, eraso yako.

KAT.—Aitonen semeok, goazen eztsgu-bazkarira: ba-dakit gogor egiteko biotzik eztauen emakumea ergeltzat artzen dabela.

PER.—Katarine, doazala orreik maira zure aginduz. -Egin emaztegeiaren agindua orren yarraigoko zarienok; yoan oturuntzara; egin iskanbilla ta yan eta edan narruak artuala, orren neskatasunari agur egiteko; gogargi ta zoro agertu, ostantxean eskegi zuon buruak: baña nire Katarine lirain-politagazko. neukin yoan bear dau orrek. Ez, ez yarri begiak zabal zabalik dozuzala, es yo ostikoaz lurrik, ez yarri begiak yosirik, ez asarratu: neu izango naz nire danaren yaun eta yabe: nire ondasunetariko da neskato ori, nire erredizetariko: nire etxeko da ori, nire etxeko zer, nire lur, nire mandio. nire zaldi, nire idi, nire asto, nire edozer; eta emen dago au, eta ía nor azartzen dan au ukutzen; epaitegira eroango neuke ni emen Padoba'n geldituazoko nindukenik arroena. -Gurmi, atera egik ire iskilloa. lapurren erdian gaiagozak-eta; yarei egik ire etzanderea, gizon ba'az. Ez izan bildurrik, neskato maite; etzauez ukutuko, Katarine; milloien aurka be yagongo zaudaz! (PERUTXO'k, KATARINE'k eta GURMI'k alds).

BAT.—Bai, doazala biok bare-bare.

GERMI.—Arin alde ezpadagie, barre eginguraz ilgo naz.

TARNI.—Ezkontza guztien artean be ezta izan eguño oiangorik!

LUK.—Anderaño, ze uste dozu zure aizteaz?

BIAN.—Bera zindo izanik, zorokin eta era zoroz ezkondu dala.

GERMI.—Katarinetu egin da Perutxo, bai orixe.

BAT.—Auzoko ta adiskídeok, senargeiak eta emaztegeiak maiko euren lekuak utsik itxi izan-arren, ba-dakizue maian eztala izango yaki gozoen utsik. -Lukenti, zuk beteko dozu senargeiaren lekua; eta Bianke'k beta dagiala bere aiztearena.

TARNI.—Emaztegeiarena egin bear ete dau Bianke eztiak?

BAT.—Eai, egingo dau, Lukenti. -Tira, aitonen semeok, goazen. (Alde dagie).

IV EKITALDI

I AGERLEKU.-PERUTXO'ren baso-etxeko Bebarru.

GURMI aurrera.

GURMI.—Ur, ur, zaldizar unatu guztiak, ugazaba zoro guztiak eta ibilkera txar guztiak! Izan ete da eguño onan eiotako gizonik? Izan ete da eguño onan lupetzez eta maskalez beteriko gizonik? Izan ete da eguño gizonik, onan nekatu ta ebaindurik? Aurre-Uk bidali nau sua dagidan, eta eurak atzetik datoz emen berotzeko. Ni ezpa'nintz arin berotzen dan lapikotxorik, nire ezpanak be leitu egingo litzakidaz nire aginen aurrean, nire miña nire ago-sapaiaren aurrean, nire biotza nire erraietan, nire leia urtuteko ni suaren aldamenera urreratu baño len: baña ni, sua puzka ixiotuta, berotu egingo naz; eta izan be, dan eguraldiaz, ni baño gizon andiagoa otzarenak artuko leuke. Eee! eup! Kurtitz!

KURTITZ aurrera.

KUR.—NOT da orren otzik gedarrez dagona?

GURMI.—Leikerraldoa: onako onen espairik ba'dok, nire sorbaldetatik nire orpoetaraño laban egin einks nire burutik nire idunerañokoa bakarrik eginazkero. Sua egik, Kurtitz on orrek.

KURT.—Ba-yatozak nire etzanderea ta nire ugazaba, ala, Gurmi?

GURMI.—Ene! bai, Kurtitz, ba-yatozak: eta, orrazkero, sua eçjik, sua egik: ez egiok egotzi urik.

KURT.—Or diñoen arako basati beroa ete dok ugazabandersa?

GURMI.—Lei au baño len bai ba-zoan, Kurtitz on; baña euk be ba-dakikanez, neguak gizona, emakumea ta aberea be ezi ta otzanduten yozak; eta izan be, otzandu yok nire ugazaba zarra, eta níre etzandera barria, eta bai neu be, Kurtitz lagun.

KURT.—Ken akit, iru atzondoko ergel ori! ni enok abererik,

GURMI.—Iru atzondo baño ez ete yoadaz. ba? Ba, ire adarrak ba-yoek oin betena; eta ni be ba-nok orren luze, gitxienez. Baña egingo ete dok sua, ala ganean datorren eta i ire egitekoan zabar eta nagi izanagaitik aren eskuaz i laster oartu ta ire pozak otzituko dauzan gure etzandereari salatuko ete aut?

KURT.—Arren, Gurmi on, esaidak zelan yoak ludia?

GURMI.—Luái edo mundua otzik yagok ire egilekoaz beste edozetan; eta, orrazkero, sua egik: egik ire egin-bearra; egik ire egikizunc, nire ugazaba ta ugazabanderea otzaren otzez leiturik eta il-aginik yatozak-eta.

KURT.—Gertu yagok sua; eta, orrazkero, Gurmi on, bota ta ustu barriok.

GURMI.—Ba, "Jack boy, ho boy" (13) euk gura *añа* barri yoat.

KURT.—Tiruk, i beii abil ziria sartzen eta iñori adarra yoten!

GURMI.—Ba, orrazkero, sua egik, otzak il bear naiok-eta. Nondik dok sukaldaria? Aparia gertu, etxea aratz eta garbi, iiak lurrean zabalduía, amaraunak kenduta ete yagozak? Otseinak "pustan" barriz yantzita, oin-zorro zuriz, eta eztegu yantzia aldean dabela ete yagozak? Edalontziak garbi ete yaukiek barru-aldea, neska otseinak gane-aldea, mai-zapiak zabalduta eta zer bakotxa bere lekuan ete yagok?

KURT.—Dana yagok gertu; eta, orrazkero, arren, ustu egizak barriok.

GURMI.—Lenen, yakin egik nekaturik dagola nire zaldia; nire ugazaba ta ugazabanderea alkarrekin asarre dozak.

KURT.—Zer esan dok?

GURMI.—Zaldi-ganetik lupetzara yausi dirala; ipuin luze dok ori.

KURT.—Eralgi egidak, Gurmi on orrek.

GURMI.-Adi ago, ba.

KURT.—Adi be adi naiagok.

GURMI.— Autso. (Yo egiten dau).

KURT.—Ipuina somatzea dok au, ez ipuina entzutea.

GURMI.—Eta orrexegaitik deretxok ipuin oneri ipuin somakor: eta belarrondoko ori ire belarriko atea yoteko baño eztok izan, adi-eske. Orain asten nok: "Imprimis"mendi zakar -bera yatsi gozak, nire ugazaba zaldi-ganean nire etzanderearen atzetik etorrela...

KURT.—Biak zaldi baten ganean, ala?

GURMI.—Zer dok ik zer-ikusirik orretan?

KURT.—Ba! nik ez, baña zaldiak bai.

GURMI.—Euk esan baño eztaukak ipuina: nire ipuina eten eta lorrindu ezpa'endu, entzungo eukean zelan yausi dan etzanderearen zaldia, eta etzanderea zelan zaldiak azpian artu izan dauen; entzun bear eukean zelango lupatzan yausi izan dan; zelan lupezturik gelditu izan dan; zelan nire ugazabak nire etzanderea zaldipean bertan bera itxi dauen; zelan yo nauen ugazabak etzanderearen zaldiak laban eta laprast egin eta yausi dalako; zelan nire etzanderea lupetz-artean nigana etorri dan, ni nire ugazabaren eskuetatik yareiteko; zelan nire ugazabak biraoka ekin dautsan; zelan eguño lenago arrenik egin eztauen nire etzanderea arrenka egon yakon; zelan nik negar eta gedar egin dodan; zelan zaldiak igesi daben; zelan etzanderearen zaldiari ago-ugala eten yakon; zelan nik galdu dodan zaldi-ganeko eperdipekoa; eta gogoan eukigarri diran beste zer asko; orain areitzaz iñor oroituko eztiranak, eta i olangorik ikusteka yoango az ire ilobira.

KURT.—Ire eralte orretatik agiri danez, *a* bera dok aren anderea baño asarreberago ta basatiago.

GERMI.—Bai; eta euk eta zuon artean arroen danak ikusiko dozue ori a etxera datorkenean. Baña zetan daragoiot onetzaz? -Dei egiek Natanel, Yoseba, Nikola, Pillipa, Balter, Gozozuku ta enparauei: buruak ondo orrazturik eta diz-diz egiten dautsela euki dagiezala, euren yipoi urdinak ondo txarrantxaturik, eta euren zango-galartzuak arrokeri-bakoak izan daitezala; ezkerreko belauna makurtu dagiela men egiteko; eta ez al dozak azartuko nire ugazabaren zaldiaren buztaneko ulerik ukututen be, aurreztik euren eskuai mun egiteka. Guztiak ete yagozak gerturik?

KURT.—Bai, gertu yagozak.

GURMI.—Urten daitezala esaiek.

KURT.—Eztozue entzuten, ala? Eee! txera egin bear dautsazue zuan ugazabari, zuon etzandereari arrera argi egin.

GURMI.—Ba! bere argia yok ak.

KURT.—Nok etxakik ori?

GURMI.—Euk, urrean, arren arpegia ikusteko lagun-eska ago-ta.

KURT.—Ari eder egiteko, ari txera egiteko dei egin yautset nik.

GURMI.—Ba! ak etxok iñok edertasunik emon-bearrik.

Ainbat Otsein aurrera.

NkT.—Etxera ondo etorria, Gurmi!

PIL.—Kaxo, Gurmi!

YCS.—Etorri az, Gurmi!

NIK.—Gurmi lagun!

NAT.—Ze barri dok, lagun zar?

GURMI.—Ondo aurkituak zuok; kaxo, zuok;

(13) Ingelanderazko itzok ango abesti zar baten asierako dira.

emen zarie, zuok; lagun, zuok; eta txerarik •sko dogu onegaz. Orain, lagun txairook, zer guztiak gerturik, zer guztiak aratz ete dagoz?

NAT.—Zer guztiak gerturik. Ur ete da gure ugazaba?

GĹJríMl.—Eerpetan; onazkero zaldi-ganetik ycztsita; orrazkero, ez izan... Nekaldiko ollana-arren, ixilik! -Ugazaba entzuten dot!

PERUTXO ta KATARINE aurrera.

PER. -Nondik dira zitalok? Onangorik! oíssinik bat bez atetan, nire oin-lekuari eusteko- ezta nire zaldia artzeko be! Nondik da Natanel, nondik Pillipa, eta nondik Gergori?..

Otsein Guztiak.—Emen, emen, yaun; emen gozuz, yaun...

PER,—£men, yaun! emen, yaun! emen, yaun! -Otsein astako, kirten eta zabar-ok! Zer dok au? Laguntzarik ez? Begirapenik ez? Bendekotasunik ez? -Nondik dok nik aurretik bidali dodan kírten ergela?

GURMI.—Emen nozu, yaun; lendik baño ergelago enozun au.

PEE.-—Baserritar zakar az i! sasikume ori! garagar eiotzaila ondakin ori! Ez dauskat agindu guri bidera zugaztian urteteko eta ikin batera zital zirízilok ekarteko, ala?

GURMÍ.—Yaun, Natanel'en yantzia ez egoan guztiz eginda, eta Gabirel'en oñetakoak orpoetatik azkatuta egozan; ezta egon kedarrik Kepa'ren txapela baztuteko, eta Balter'en sastakaia oraindik zorroginarenetik etorteko zcn: Adan, Eralpa *ta* Gergori *ha*karrik egozan txairo yantziía; enparauak sorkiz, zarkiz eta eskeko yantziz yantzita egczan; orraitiño be, dagozanez dagozala, emen dozuz zuri txera egiteko etorrita.

PER. — Zoaze, zitalok, zoaze ortik eta ekarri egidazue aparia. {Otsein batzuk alde).

Non da nire lengo bizikerea... (Abesten daragoio)....

Non dira orreik?,. -Yezarri zaitez, Katarine, eta ondo etorria zaitez. Ken, ken, ken, ken!

Otseinak aurrera ostera be apariagaz

Ordua be ba-zoan, gero! - Bai, Katerine ezti on ori, íxerakor agertu zaitez. -Atera egidazuez oskiok, zitalok! nozko aterako daustazuez, zirtzilok?

Yantzi arre anaigoko lekaide zan. (Abesten daragoio).

Bere bidean aurrera ba-yoian:...

Ken akit, zital orií oña bera atera gura daustak, ala? Autso au (Yo egiten dau), eta bestea ateraten arduratsuago ibili adi. -Gogargi egon, Katarine. -Ura ekarri ona; ee! eup!.. -Nondik da Toril nire erbitxakurra?.. -Gogargi egon, Katarine. -Ura ekarri ona; ee! eup!.. -Nondik da Toril nire erbitxakurra?.. -I, yauntxo, oa eta nire lengusu Perdiñanda'ri ona etorteko esaiok: (Otseinak alde)„ -Zuk mun egin eta ezagutu bear dozuna da a, Katarine. -Nondik dira nire oñstako arinak? --Ekarriko ete daustazue ura?

(Ur-ontzi azal-zabala dakartsoe).—-Erdu, Katarine, ikuzi zure eskuak eta biotz biotzez ondo etorria izan zcitez (Otseinari eskuetako pitxarra lurrera yausten yako). -Zirrildakume, sasikume zital ori! lurrera yausten itxi dautsak? (Yo egiten dau).

KAT.....Epe arlu egizu, arren; gogoaz besterako okerra izan da.

PER. - -Yezarri zadiz, Katarine; ba-dakit yateko gogorik ba-dozula. Zeuk onetsiko dozu maia, ala, Katarine ezti? Ala, neuk onetsiko dot? Zer da au? Ardiki, ala?

1 Otseina.—Bai.

PER.—Nok ekarri yok?

I Ots. -Neuk.

PER.—Kiskalduta yagok au; eta okela guztia yagok kiskal kiskal eginda. Ze txakur dira oneik? Nondik dok sukaldari zitala? Zelan azartu zarie, zitalok, alangook, au sukaldeko arasatik ekarten, eta onangorik gogoko etxatan oni onan ekarten? Ara! zeuontzako eroan egizue, mai-sardatxo, edalontzh ta guzti (Maiko zer guztiak yaurtiten dautsez otseinai): ganorabako, *za*bar, ardurabako, yopu zirtzilok! onangorik! marmarka daragoiozue? Or nozue neu laster be laster.

KAT.—Arren, senar, etzadiz artegatu olan; ondo egoan okelea, zeuri gogoko izan ba' litxatzu.

PEÍT—Katarine, kiskalita ta igar igar eginik egon da, gero; eta beren-beregi dot galazota olangorik ukutu be egitea; eta izan be, asarrea sortzen daust olangok, sumindu egiten nau, eta oba yaku gu bioi barau egin, gu geure kitetik be asarrekorrik asko gara-ta, olango okela erregaz gure buruak bazkatu baño. Epe artu egizu; biar zuzenduko da oker au, eta gau onetakoagaitik, batera egote-arren barau egingo dogu: erdu, ezkonbarrien lo-gelara eroango zaudaz. (PERUTXO'k, KATARINE'k eta KURTITZ'ek alde).

NAT.—I. Kepa, ikusi dok eguño onangorik?

KEPA.—Orrek bere gogaldiaz txiki izten yok bere emaztea.

KURTITZ aurrera ostera be.

GURMI.—Nondik dok a?

KUR.—Bere emaztearen lo-gelan, bere emazteari soin csotasunazko itzaldia egiten, agirika, biraoka yaragoiok, akarka yabilkok eta, au dala-ta, emazte-errukarriak aren akarraren akarragaitik etxakik zelan egon zutunik, zelan eta nora begiratu, zelan itz egin, eta amesetatik atzarribarriaren antza yok ak. Alde. alde! a or yatok-eta. (Alde dagie).

PERUTXO aurrera barrien barri.

PER.—Onan, erri-yaurtzari dagokionez, asi dot nire bakalduntzea, eta ba-dot ondo burutzeko itxarorik. Begi-zorrotz eta sabeluts baño sabelutsago dago nire aztorea; eta burua makurtu-arte etxako bete bete egin bear sabela, sabela beteazkero amuzkiari yaramonik be eztautso egiten-eta. Beste biderik be ba-dot nik nire aztore ezkea ezi ta eskuratzeko, etorriazoteko, eta yagolearen deia ari ezagutuazoteko, eta zera da bide ori; yagon egin aztorea, asarratu, mokoka egin, eta esanik egin gura izaten eztaben miruak yagon oi doguzanez. Gaur eztau yan okelarik nire aztore emeak, eta eztau yango be; bart eztau lorik egin, eta arratseon be eztau egingo; okelatan lez, oe-egikeran be errubako ta aintzako eztan akats, uts edo okerren bat idoroko dot; eta or ekingo dautsat aurtiko andia batera, txikia bestera urtika; oe-ganakoa alde batera, izarak bestera egozten: --bai, eta izkanbilla onek dirauen-artean, dan-dan au berarentzako begirapenik andienaz egiten dauenarena egingo dot; eta azkenez, atzarik egingo dau gau osoa; eta, alanbearrez, lo-gurearen lo-guraz burua makurtu ba'dakio, asarre ta akar egingo dautsat, eta nire gedar eta zaratakaz atzarik euki. Amen emaztea txeraz ilteko bideetarik bat: eta onan onan makurtu, oben eragin, eta benderatuko dot orren gogaldi basati ta itsua. Basatirik ezteko bide oberik dakianak orain itz egin dagiala: erruki da irakastea. (Alde dagi).

II AGERLEKU.-PADOBA. BATISTA'ren etxe-aurrea.

TARNI ta ORTENSI aurrera.

TARNI.—Liki adiskide, izan ete leiteke Bianke'k Lukenti'z bestez amesik egitea? Neuk dirautzut: txera utsa da a nitzako.

ORT.—Yaun, nik esana iri buruan sartzeko, baztartu gaitezan emendik eta oar gakiozan aren irakasbideari (Alde dagie).

BIANKE ta LUKENTI aurrera.

LUK.—Andeiaño, auiTerapenik aterako ete dozu dirakurzunetik?

BIAN.—Zer irakurteko zara lenen, irakasla? Ori ebatzi lenen.

LUK.—Nire ogibidea da nik dirakurtana: maitasun-trebetasuna.

BIAN.—Eta zure ogibidearen yabe izango al zara, yaun!

LUK.—Bai zu, kutun ezti ori, nire biotzaren yabe zareala erakutsi ba'dagidazu. (Alde dagie).

ORT.—Zerak zirti-zarta egitekoak orreixek, kcntxo! orain esaidak. arren, zin egiten azarri intzan orrek, ire anderaño Bianke'k ez ebala iñor maite ludi onetan Lukenti bestean.

TARNI.—Maitasunaren zapuztzalla, arbuiatza-Ua' emakumeen aldakor! -Au andi be andi dala dirauskat, Liki.

ORT.—Urrengoan ez egik oker aitu ezer: ni enok Liki'rik, ezta ereslaririk be, nik olangorena egin izan-arren, onango marropean egoieari iguin dautsana baño; aitonen semerik olan baztartzen dauenagaitik, eta olango baserritar zakarregaitik baztartu be: yakik, yaun, Ortensi dala nire izena.

TARNI.—Ortensi yaun, sarritan entzun izan dot zuk Bianke'ri dautsazun lera osoa; eta orren buruarinkeriaren autorla neure begiok diranazkero, eder ba'yatzu, zukin batera betiko agur egingo dautsat Bianke'ri ta Bianke'n maitasunari.

CRT.—Begira, zelan dagozan alkarri mosuka ta kutunkerika! -Lukenti yaun, autso nire eskua ta ementxe sendo zin egiten yoat gaurdanik ara enazala ibiliko, No orren maitasun-billa; baña agur egiten yautsat, nik orain-arte egin dautsadazan eskergarri eztalako.

TARNI.—Nik be zin egiten dot ementxe, eta zintzo egin be, No orrekin iñoz be enazala ezkonduko berorrek eskatu ba'legist be:

lcpn Ifpn! íkusi ^elcin abere-eraz erakusten dautsan No orrek bere maitasuna To orri!

ORT.—Berorrez beste mundu guztiak bertan-bera itxiko al dau No ori! Nigazko, nire-kiko, egin dodan zina utsi'í egiteka bete dagidan, iru egun igaro baño len ezkondu-ko naz sorgin arro, muker eta zaputzalla ori maite izan dodan bitarts guztian mai-te izan nauen andera alargun aberatsa-kin: eta, orrazkero, agur, Lukenti. -Ema-kumeen biotz onak, ez arein begirakune ta mosu eder-atsegingarriak, irabaziko dau nire biotza: eta, orrazkero, agur, oraintsu egindako nire zinari zintzo natxakola. (OR-TENSI'k alde. -LUKENTI ta BIANKE aurre-rantza datoz).

TARNI.—Bianke anderaño, maitale zori on-tsuai dagokiezan esker eta onespenak zu-gan izango al dozuz! Bai, begi itxi-idigian ikusi zaudaz, maitasun zoragarri, eta neuk be agur dagitzut, Ortensi'k Iegetxe.

BIAN.- -Tarni, txantxetan daragoiozu zuk; biok agur egin dautsazue niganako mai-tasunari, ala?

TARNI—Bai, anderaño.

LUK.—Orrazkero, yarei gara Liki'gandik.

TARNI.—Egia escrteko, orain ak andera alar-gun guria izango dau, eta maitasuna eska-tu ta ezkor.du, biak egingo dauz egun baten.

BIAN.—Pozik eukiko al dau Yaungoikoak!

TARNI.—Bai, eta To onek eziko dau No a.

BIAN.— Ori esan eba$_n$ ak, Tarni.

TARNI.—Ezi-bide irakastegira yoanik da, bai orixe.

BIAN.—Ezi-Hde irakastegira! Ba! ba-da olan-go Iekurik, ala?

TARNI.—Baj, anderaño, eta Perutxo da ira-kcrsla; ak amaika marro ta bide irakasten dau neskato basatiak ezteko ta arein miñ ixil-ezinak Iíluratzeko.

BIONDEL aurrera.

BION.—Ene ugazaba, ene ugazaba! atzarrik egonaren egonez txakur nagia baño ne-katuago nago; baña atzenean be zuri on-do etorriko yatzun angeru zarra ikusi dot mendía bera datorrela.

TARNI.—Nor dok orrako ori, Biondel?

BION.—Ugazaba, sal-erosla, naiz ume-ira-kaslaren bat da; baña zeatz eztakit zer dan; orraitiño be, ben da yazkeraz, ibilke-raz eta arpegiz, aitaren bat ba'litz lege-txe, bai orixe.

LUK.—Eta zer egiteko agaz, Tarni?

TARNI.—Sinisbera ba'dadi. eta nire ipuina sc^itzat cirtu bci'dcicTÍ, zer cinditzat etsiko dau Bingen'ena egitea, eta Batista Minola'ri be-netako Bingel dala sinistuazoko dautso. Ba-rrura zure emazteakin zoaz eta bakarrik itxi nagizue. (LUKENTI'k eta BIANKE'k al-de).

Ume-irakaslea aunera.

Ume-ir.—Yaungoikoa lagun bekizu, yaun!

TARNI.—Bai, zeuri be, yaun! ondo etorria zara. Bidea aurrerago egiteko zara, ala eldu zara eltzeko lekura?

Ume-ir.—Yaun, eltzeko lekura aste bete edo bian elduko naz: baña gero aurrera-go yoango naz, eta Erroma'raño be; eta gero andik Tirpoli'ra, Yaungoikoak bizirik euki ba'nagi.

TARNI.—Nondar zauguz, arren?

Ume-ir.—Mantoba'tar, yaun.

TARNI.—Mantoba'tar, yaun? Kontxo, ez al zara! eta Padoba'ra zatoz zure biziaren orren ardura gitxigaz?

Ume-ir.—Nire biziaren, yaun! Zegaitik, arren? Zer gogorra da ori izan be-ta.

TARNI.—Eriotzea dau Padoba'ra datorren Mantoba'tarrek. Ez ete dakizu zegaitik? Baitu egin dabez Binixa'n zuon itxas-on-tziak; eta ango dukeak, bere ta zuon du-kearen arteko eztabaideagaitik, argi ta gar-bi iragarri ta aldarrikatu izan dau: andia da zuk ez yakitea, baña zu etorbarri zara, ostantxean entzun bear zeukean or bazta-rretan bala-bala aldarrikatu dana.

Ume-ir.—Ene bada, yaun, ori baño txarrago-rik ba-da nitzako! eta izan be, Firentze'n dirutzeko papelak dodaz aldean, eta emen-go norbaitzuei emon bear dautsedaz.

TARNI.—Tira, ba, yaun, zutzako txerakor izate-arren, onako au egin eta onu au emon-go dautzut: lensn, esaidazu, izan ete zara eguño Pisa'n?

Ume-ir.—Bai, yaun; sarritan izan naz Pisa'n, bere urikide bencrkaitik entzutetsu, ospatsu dan Pisan'n..

TARNI.—Euren artean ezagun ete yatzu Bin-gen dalakoa?

Ume-ir.—Bera eztot ezagun, baña aren en-tzuterik ba-dot; ondasuntza itzala dauen salerosla da.

TARNI.—Nire aita da orrako ori. yaun; eta, egia esateko, zure antzik ba-dau ak arpe-giz.

BION.—(Bere kitean) Bai, sagarrak ispela-ren dauen afía.

TARNI.—Estualdi onetan zure bizia yagote-arren, esker au egingo dautzut zure oner-

ako; eta zure alanbearren artean ezta txarrena zu Bingen orren antzeko izatea. Aren izenera ta aren sinisgarritasunera erantzungo dozu zuk, eta txeratsu ta adiskideri dagokionez artuko zaudaz nire etxean: egin bear danez egizu egiteko ori; aituten daustazu, ezta, yaun? Olan, zure arcizoak burutu-arte egon zeintekez uri onetan; txeratzat ba'dozu onako au, yaun, ontzat artu egizu.

Ume-ir.—Ene! yaun, txeratzat dot, bai; eta aurrerantzean beti etsiko zaudaz nire bizi ta buru-yabetasunaren yagolatzat.

TARNI.—Orrazkero, erdu neukin, arazoa gertatzeko. Bide batez, au diragartzut: egunoro gagoz omen nire aita noz elduko begira, ni ta emengo Batista dalakoaren alabea, gu biok, alkarrekin ezkontzsko ak ezkonsaria baitu ta izenpetu dagian: yakitun iminiko zaudaz zertzeladotan: zatoz nikin, yaun, egoki diran soñekoz zu yantzi zagidazan. (Alde dagie).

III AGERLEKU.-PERUTXO'neko Gela.

KATARINE \a GURMI aurrera.

GURMI.—Ez, ez, ez orixe; nire bizia-arren enaz azartzen orretara.

'KAT.—Txarrago narabilen eta maiteago nauenarena egiten dau orrek. Onangorik! ni gosez ilteko ezkondu ete nau? Nire aitaren etxeko atetara datozan eskekoak bertatik artzen dabe ukarra; an ezik beste nonbaiten ídoroten dabe errukiarena; ni, ostera, eguño eskatzen yakin eztodan au, eguño eskatu-bearrik be izan ezt?dan au, goseak il.ik nago, burua goian euki ezínik, lorik ezagaitik; biraoka nauka atzarrik, eta yatekctzat asarraldiak dodazala: eta bearizan guztiok baño min geiago egiten daust ak zer guztiok maitasun-antzez egiteak; badirudi ari entzunaz, aren eretxiz, gaitz larrien bat, naiz berpetatiko eriotzea letorkidala nik ezer yan, naiz lorik egingo ba'neu. -Arren, zoaz eta yakirik arean lortu, iritxi egidazu; zer danik eztaust ardura, yaki osasungarririk izanazkero.

GURMI.—Zer deretxatzu txal-zangoren bat ekarri ba'dagitzut?

KAT.—Alasoko yaki litzakit; ekadazu, arren.

GURMI.—-Orrako ori yaki asarrekorregi ez ete dan bildur nozu: eta zer deretxatzu odol-osterik ondo egosita ba'dakatzut?

KAT.^Gogoko be gogoko yat yaki ori: zoaz bere billa, Gurmi.

GURMI.—Eztakit, ba: bildur naz ori be asarreberegi ez ete dan. Zer deretxatzu soieski-zerrenda bat ekarri ba'dagitzut, onduteko yeben-azi umn eta guzti?

KAT.—Yaki orretara zale baño zaleago naz,

GURMI.—Bai, baña yeben-azia berotxoegi yatzu.

KAT.—Ba, orrazksro, yeben-azia geldi itxi ta saieski-zerrendea utsik ekarri egidazu.

GURMI.—Ez, eztot egingo olangorik; yeben-azia be artu bear dozu, ostantxean Gurmi'k eztaulzu emongo saieski-zerrendarik,

KAT. -3iak orrazkero, naiz bata, naiz zeuk zer-gura, edozer.

GURMI.—Ba, orrazkero, yeben-azia utsik, saieski barik.

KAT.—Oa, ken akit, yopu irrilctri ori! (Yo egiten dau), yakiren izenaz besterik emoten eztaustakan ori: lorrak eta nekeak etorriko al dozak ire ganera ta zuotariko talde osoaren ganera, nire bear-izanak poztuten zahezanen ganera! oa, ken akit, gero.

PERUTXO aurrera okelaz beteriko azpilaz; bai ORTENSI be.

PER.—Zelan dago nire Katarine? Ostera! ezti ori, beti motel?

ORT.—Zelan zagoz, andera?

KAT.—Egia esatoko, al danik otzen.

PER. —Bizkortu zadiz, gora biotz ori, gogargi begiratu nagizu. Amen, kutun; ba-dakusazu zoli be zoli nazala zure yakiak neuk gertau ta neuk dakartzudazalako: (mai-ganean iminten dau azpila) seguru nago, Katarlne ezti, bictz-ontasun au eskerrak emongarri dala. Onangorik! itzik bez? Bx orrazkero, etxatzu gogoko; eta nire neke ta aperturi guztiak alperrik izan dira. -Tirx kendu egizue ortik azpilkada-yaki ori.

KAT.—Arren, or itxi egizue.

PER.—Eskerrak zor yakoz otseintzarik apalen eta zirtzilenari be; eta olan izango da nire otseintzagazkoa be, zuk yakiok ukutuaurretik.

KAT.—Eskerrik asko, yaun.

ORT.—Perutxo, yaun, uf! errudun zara, txarto egiten dozu! Tira, Katarine andera, neu izango natxatzu lagun.

PER.—(ORTENSI'ri belarrira) Maite ba'nok, dana yan egik, Ortensi. Ondo be ondo iragarten dok ik orreian ire biotz ona! astiro yan, Katarine; eta orain, kutun ezti ori, yoango ete gara atzera zure aitarenera, eta an onenak besteko zarata ta iskanbilla ate-

ra sedazko soñekoakaz, txapelakaz, urrezko erestunekaz, iduneko izurtuakaz, eskumuturreoakaz, gona arro ta beste zerakaz; idun-sorbaídetakoakaz, eta axetzalleakaz, eta yantzi txairozko aldagarri bigaz, anbarezko beso-estunakaz, leiar-pitxiakaz, eta uskeri guzti onegaz? Ostera! yan dozu, ala? Zure begira dago yostuna, ycskilea zure soña bere arrokeri-altxorrez apaindu ta txairotzeko.

Yostuna aurrera.

Erdu, yostun, dakusguzan zure pitxiak; zabaldu yantzia...

Dendari edo Pitxiduna aurrera.

Ze barri dakazu, yaun?

Pitxiduna.—Amen zuk yaun orrek aitatu daustazun txapela.

PER.-—Ba' salda-ontziaren irudia arrazota dago au; oial apitzezko azpil dirudi; ken, ken ori! zikin eta loi dago ori; ba! kuku-parka, naiz intxaur-mokolaren antzeko da ori; yostallu, ume-txapel; ken ori be; tíra, andiagoren bat ekazu.

KAT.—Eztot gura nik andiagorik; andírik asko da, eta emakume aitonen alabak onangoxe txapelak erabilten dabez.

PER.—Aitonen alaba orrek, maítagaxri ta txeratsu izan zaitezanean, zeuk be olangoxea erabiliko dozu, baña ordurarte ez.

ORT. --(Bere kitean) Beingoan ezta yazoko orrako ori.

KAT.—Ba, yaun, itz egiteko baimenik ba-dodala uste dot, eta itz egingo dot. Ni enaz seiník, umerik; zuk baño andiagok itxi izan daust nire gogoa iragarten; eta zuk nire esanik yasan ezin ba'dozu, itxi zure belarriak. Nire biotzeko naibagea iragarriko dau nire miñak; ostantxean, barruan ostonduta eukitekotan, nire biotzak eztanda egingo dau: eta olangorik yazo baño len, nire gogara nasaituko naz itzez.

PER. ---Bai, izan be; egia diñozu; zirtzil da txapel ori, gaztan-otzara, aletz uts, sedazko gozo-opil: maiteegi zaudaz olangorik nire gogoko izateko.

KAT.—Zuk ni maite izan, naiz izan ez, gogoko yat txapel orí; eta ori artuko dot, edo bapez.

PER.—Zure yantzia? Bai, ba, oba ez! -Tira, yostun, ikusi dagigun. Yaungoikoa-arren! Ze marro dogu au? Zer da au? Soñeko-beso, ala? Kañoi-erdikin antzeko da au: onangorik; goitik beraño ebagita, sagar-opil ba'litz *leqeixe?* Artazikadea *ta* urratua emen, epaia, ©rxetena tcr mozkrrdeo: or_ hizortegiko sutegia dirudí. Su-lexako txerrenkarren, yostun, zelan deitzen dautsazu zer oni?

ORT.—(Bere kitean) Dakustanez, No orrek eztau izango, ez, yantzirik, ez txapelik»

Yost.—Era barri ta aldiari dagokionez egiteko agindu daustazu.

PER.—Bai izan be, olantxe agindu dautzut; baña aztu ezpa'yatzu, nik eztautzut agindu aldiari dagokionez alperrik galtzeko. Zoaz ortik zear, etxeko ur-odien ganetik yauzika, yaun, ostantxean neuk aterako zaudazeta; nik eztot gura orretarikorik ezer: alde emendik! Zeuri deretxatzuna egizu.

KAT.—Eguño eztct ikusi ori baño era barriagoko yantzirik, txairoagorik, gogokoagorrik, ezta goragarriagorik be: zuk nikin andrakilla egin gura dozu, urrean.

PER.—-Bai, izan be; andrakilla egin gura zauz orrek.

Yost.—Zuk egin gura dozula or: andrakilla da, orrek esan gura dauena.

PER.—Arrokeriaren arrokeri! Guzura diñozu ari orrek, atzontzi orrek, kana orrek, iru lauren, kanerc'i, kana-lauren, untze *(IA* ardi, sugelindera, negu-txirritxirri orrek; arimatasak kikiJ.du ni neure etxean? Alde emendik, sorki ori, neurri ori, ondakin ori; ostantxsan ire kaneaz narrua berotuko dauskat, eta txort:corka ibilteko gogoa kenduko dauskit ire bizirako! Euk, euk alperrik galdu dok, gero, No orren yantzia,

Yost.—Oker *zaqcz,* yaun ori; yantzia nire ugazabari agindu yakonez eginda dago: Gurmi'k agindu eban zelan egin.

GURMI.—Nik eneutson emon ezetariko agindurik; oiala, geia emon neutson nik.

Yost.—Bcña zelan egin bear zala esan zendun?

GURMI.-—Arrano, yc.un, yostorratzez eta ariz.

Yost. -B^ña etzendun agindu ebatsko, ala?

GURMI.— Zer askori arpegi emona augu i.

Yost-—Bai, izan be.

GURMI. -Ez eqiz7k yosi nigan ire begiak; gizon asko kikildu dok ik; ez etorri ni kikilizen; eziaustak egoiziko arpegirik eta enck ik kikilduko be. Esan dauskat ire ugazabari yantzia ebateko agindu neutsala;

('14) "Untze" dalako au otzondo bi ta laureneko Ingelanda'ko neurri da.

Emengo -"ardi" oekoetariko da, gero; atz orkoro azalez zapalduta ilten diranetarikon, *ez* bildolsuk egiten d-cibezunetarikorik.

baña nik eñeuntsan agindu yantzia zatitzekorik: "ergo", guzurra diñok ik.

Yost.—Ba, emen dok egitarau-ingia autorlatzat.

PER.—Irakurri egidazu.

GURMI.—Agiri orrek orren agotik guzurra diño, nik esan neutsala ba'diño.

Yost.—Imprimis, "yantzi soin-nasaia".

GURMI.—Ugazaba, eguño nik esan ba'dot yantzi soin-nasairik, aren egaletan yosi nagizu, eta ari baltzeranezko botoiaz yoka il nagizu. Yantzia agindu neban nik.

PER.—Aurrera; ekiozu.

Yost.—"Idun txiki biribilaz".

GURMI.—Ba-dautort idunazkoa.

Yost.—"Beso luzegaz".

GURMI.—Beso luzeakaz, ez luzeagaz, agindu neban nik. Ba-dautort ori be.

Yost.—"Besoak txukun eta arduraz ebagita".

PER.—Bai, or dago zitalkeria.

GURMI.—Okerra dago egitarauan, yaun; okerra egitarauan. Nik esan neutsana zera da, besoak ebagi egin bear zirala eta gero ostera be yosi; -eta ori erakutsiko dauskat iri, ire atz txikarra atz-ortzizko islcillotan egon-arren.

Yost.—Nik diñodana da egia; -orretarako toki egokian ba'engo, ikusiko eunke.

GURMI.—Emen nok aurrean: artuik egitaraua, ekak ire kanea, eta enagik asketsi, parkatu.

ORT.—Yaungoikoa lagun bekik, Gurmi! alde andiegia yagok zuon artean.

PER.—Tira, ba, yaun, argi ta garbi esateko, yantzi ori ezta nitzako.

GURMI.—Zuzen zagoz, yaun; nire etzanderearentzako da-ta.

PER.—Tira, eroan egizu zure ugazabak erabili dagian.

GURMI.—Zital ori, ez olangorik, ire bizia-arren! nire etzanderearen yantzia eroan be ir ire ugazabak erabilteko! uf, uf!

PER.—Zer esan gurok esakune orregaz?

GURMI.—Ene yaun, nire esan-gurea zuk uste dozun baño sakonago da: eroaizu nire etzanderearen yantzia zure ugazabak erabili dagian! Ut, ut!

PER. —(ORTENSI'ri belarrira) Ortensi, yostunari ordaindu bear yakonentz, esan egizu. Tira, eroan egizu au emendik; alde egizu, eta ez txitik egin.

ORT.—Yostun, biar ordainduko dautzut yantzi ori. Ez artu aintzakotzat eta iraintzat orren bapateko itzak: alde, gero! nire gorantziak zure ugazabari. (Yostunak eta pitxidunak alde).

PER.—Tira ba, erdu, Katarine; besterik ezean zure soñeko apalokaz yoango gara zure aitarenera: arro egongo dira gure sakelak, apcil eta txiro gure soñekoak; eta izan be, biotza da soña aberastuten dauena; eta eguzkia lañorik baltzenen artelik agertzen danean lez, dedua be yantzirik zirtzilenetatik egoten *da* kirika. Ba! larratxoria baño txairoago ete da eskillasoa, onako onen egakiak arenak baño lirainago diralako? Naiz sugegorria aingirea baño oba ete da, aren narru nabarra gure begiai atsegingarriago yakelako? Ene bada! ez orixe, Katarine on; zu be etzara txarrago soñeko zirtzil eta yakelako? Ene bada! ez orixe, Katarine on; zu be etzara txarrago soñeko "irtzil eta apainkera urri-apal orregaitik. Lotsagarritzat ba'dozu ori, lotsari ori nire leporatu egizu; eta, orrazkero, argitu zure begia, nasaitu zure biotza; gesu baten alde egingo dogu emendik, zure aitarenean oturuntzak eta yolasak egiteko. --Ia, dei egin nire otseinai eta goazen bertatik agana; eta ekarri gure zaldiak Long-Lane bidaburura; an zaldi-ganeratuko gara, eta aragiño oñez yoan. -Dakusagun; orain zazpirak or orren baten dirala uste dot eta bazkalordurako ara ondo eldu gaitekez.

KAT.—Ia ordu biak ba-dirala esaten segurutzat azartuko nintzake, yaun; eta apari-ordu izango da zu aratu orduko.

PER.—Ni zaldi-ganeratu-orduko bai izango dira zazpirak; begira, nik zer esan, zer egin, naiz zer egiteko uste izan, oraindik be zuk besterako bidea artzen daustazu. -Yaunak, gu geutara itxi gagizuez; gaur enaz yoango; edo, ni yoan baño Ien nik diñodan ordua izango da.

ORT.—Ara! ezkonbarri arro onek eguzkiari be agindu gura dautso. (Alde dagie).

IV AGEHLEKU.-PADOBA. BATISTA'n etxe aaurrea.

TARNI ta Ume-irakaslea aurrera; onako au yantzi ta guzti BINGEN'ena egiten.

TARNI.—Yaun, au da arako etxea; eder ete yatzu neuk dei egitea?

Ume-ir.—Bai, zegaitik ez? Eta oker ezpa'nago, yazo ledike Batista yaunak ni ezagutzea, orain ogei bat urte dirala Geroa'n Pegasus'enean arrozkide, ostatukide izan gintzazan-eta.

TARNI.—Ori ondo; eta dana dala, aiteri da-

gokion bentasuna ondo yagon egizu.

Ume-ir.—Ez izan orren bildurrik. Baña, yaun, eme.i dator zure mutila; ondo legoke ori yakitun egiiea.

BIONDEL aurrera.

TAPNI.—Ez izan orren bildurrik eta kezkarik. -Biondel yauntxo, orain ire egitekoa zeatz eçik, gero; au benetako Bingen dala iruditu egik.

PION.—Ba! ez izan nire bildurrik.

TARNI.—Baña ercan dautsak Batista'ri ari eroatekca, alc.?

BION.—Zure aita Binixa'n dala esan dautsat; eta a Padoba'ra gaur eldukotzat zagozala.

TARNI.—Mutil itzala az i: autso au edateko. Emen dator Batista: -ben yarri zadiz, yaun.

BATISTA ta LUKENTI aurrera.

Batista yaun, ondo etorria zaugur.. (Ume-irakasleari) Yaun, au da arako nik itz egin dautzudan aitonen semea: arren, aita on izan zakidaz orain, eta emoidazu Bianke nire ondasuntzat.

Ume-ir.—Astiro, seme, astiro! -Zure baimenaz, ene yaun. Artuen batzuk eskuratzeko asmoz ona Padobc'ra ni etorrita, nire se-ne Lukenti'k zure alaba ta beraren artoko rr.^jfasun-arazo astunen barri emon rJaus'.; eta, zugazko entzute on dot-eta; eta ak zurn alatea, eta zure alabeak a maite dau-ta, *a* begira luzaroegi ez eukite-arren, çertu ta pozik nago ni, aita onaren ardureari dagckionez, oi'reik biok alkarrekin ez-kontzeko; -nik baño gogo txarragorik ez-pa'dozu, -ni geríu t-i itzulirik aurkituko nozu ezkontza onetarako, orretarako egiunerik egin ba'dagigu; eta izan be, Batista, ri.lc ez.r> izan doikot zugazko kezkarik, zuçazko enízuie ezin obea dot-eta.

3AT.—Yaun, askeísi, parkatu nagizu esango dcdcnagaitik. Ondo be ondo begiko yat zure argi ta labur itz-egite ori. Egi be egi c'a zure Lukenti or.ek nire alabea, eta nire cv.abeak I ukenti au maite dauela, ostantxean euren lerak bestera erakusten trebe bcño trebeago litzakez: orrazkero, ba, esan cczunez ganera esatekorik ezpa'dozu, zera, aitari dagckionez egingo dautsazula To crri, eta nire clabeari eskonsarink asko emcngo dau.tsazula, ezkontzea eginda dago, dana eginda: zure semeak nirs alabeo: ta nire ederretsia, biak batera izango dauz.

TAfiNI.-....Sskerrik asko, yaun. Orrazkero, zein leku dozu egokientzat egiunea egiteko, eta egiunea alde bientzat indartau izan daiten bitartean baia iminteko?

BAT.—Ez nire etxea beintzat, Lukanti; eta izan be, ontziak eurak be belarriak dabez, eta otsein asko dodaz nik: orrez ganera, Germi zarra oraindik adi dago; eta ba-iedike egitekoaren erdian ak, naiz beste norbaitek egiunea guri erdi-eginik itxiazotea.

TARNI.—Orrazkero, nirean, eder ba'yatzu: an etzaten da nire aita; eta an aztertu ta burutuko dogu arratseon gure artean eta ondo gure arazo au: dei egiozu zure alabeari ona, zure otseinaren bitartez; nire otseina yoango da bertatik latzindari edo eskribauaren billa. Auxe dogu txarrena, zera, zerak onen otoz-otoan eginaz zuk eztegumaia ornitzeko astirik eztozula izango.

BAT.—Gogoko be gogoko yat zure asmoa. -I, Kanbi. oa txakada baten gurera, eta Bianke'ri esaiok bertatik gertau daitela; eía, ba'deretxak, esaiok zer yazo dan„. Lukenti'n aita eldu dala Padcbcr'ra, eta a Lukenti'n emazte izango dala, urrean.

£UK.—Yaungoikoari arrenka nago biotz biotzez, a nire emazte izan daiten.

TARMI.—Ez egizu astirik galdu yainkoai arrenka, orretan ibílteka zoaz. -Batista yaun, neu yoango naz aurretik, ala? Ondo etorria zauguz! Zure aparia azpil bateko izango da, urrean, yaki bateko: goazen, yaun, Pisa'n osotuko dogu uts ori.

BAT.—Ba-noatzu zure yarrai. (TARNI'k, TJme-irakasleak eta BATISTA'k alde).

BION,—I, Kanbi..

LUK.—Zer diñok, Biondel?

BION.—Eztozu ikusi nire ugazaba zuri kiñuka ta barreka, ala?

I.UK.—Etc ortik zer, Biondel?

BION.—Bcr! utsa; baña emen itxi nau bere aíz^an, aren atz eta kiñuen esan-gurea azaltzeko.

LUK.—Arrer, esaidak zer esan gura daben.

BION.—Ba, orrazkero, ara: Batista nasai dago guzurrezko semearen guzurrezko aitakin autuan.

I.UK.—Eta zer ortik?

BION.—Aren alabea zuk eroan bear dozula aparitara.

LUK.—Eta gero?

BION.—Luke Deunaren yauretxeko abade zarra zure esanera dagola ordu oro.

I.UK.—Eta guzti orretatik zer?

BION.—Ezin esan nik, orain guzurrezko egiuiien egiten daragoioela baño: segurutu e-

glzu zuk neskatoa "cum privilegio ad imprimendum solum" (15): zoaze yauretxera; artu abadea, yauretxezaina ta zindorik asko diran autorla batzuk: onako onen begira ezpa'zagoz zu, onako au ezpa'da zure asmoa. nik eztot besterik esateko, Bianke' ri betirako ta egun baterako agur egin dagiozula baño. (Yoan doala).

LUK.—Entzuten daustak, ala, Biondel?

BION.—Eztot astirik gelditzeko: ezagutu izan dot nik arrasti baten baratzera kuikia onduteko perresil-billa yoiala ezkondu zan neskea; eta zu be olantxe ezkondu zeinte-kez, yaun; eta, orrazkero, agur, yaun. Nire ugazabak Luka Deunarenera yoateko izentau nau, yaupariari gertu egon daitela agintzeko zu ara zure eraskinakin eldu zadizanerako. (Alde dagi).

LUK.—Nik eztot yoan-ezinik eta yoan egingo naz, neskeari gogoko ba'yako, eta gogoko izango yako ari; orrazkero, zelan eta zegaitik izan kezkarik? Yazotekoa yazo daitela, artez yoango naz neskearen ondora; txarto yoango dira zerak, Kanbi neskea bagarik ba'dator. (Alde dagi).

V AGERLEKU.-Guztitarkikoentzako bide.

PERUTXO, KATARINE ta ORTENSI aurrera.

PER.—Aurrera, Yaungoikoa-arren; bein barriro gure aitaganantza. Yaungoiko on, iretargiak bai zoragarriz argi egiten dauela!

KAT.—Iretargiak! eguzkiak bai: orain ezta iretargirik izateko tertzioa.

PER.—Orrenbesteko argia egiten dauena itargia dala diñot nik.

KAT.—Nik ba-dakit olan argi egiten dauena eguzkia dala*

PER.—Bai, nire amaren semea-arren, eta neu naz orrako ori; iretargi, naiz izar, naiz neuk zer-gura izango da, ni zure aitarenera baño len... Boa zuotariko bat zaldien aurrera, eta atzerako bidean imini dagizala.. Beti okerretara, beti bestera; okerretara ta besterik ez!

ORT.—To orrek diñona esaizu, ostantxean iñoz be ezkara yoango-ta.

KAT.—Aurrera, arren, onen urrin etorri gareanazkero, eta izan daitela iretargi, naiz izar, naiz zeuk zer-gura: eta eder ba'yatzu, ii-argia dala esatea, ba-damotzut nire itza aurrerantzean zeuk diñozuna izango dala nigaitik.

PER.—Iretargia dala diñot nik.

KAT.—Ba-dakit iretargia dala.

PER.—Ba, orrazkero, guzurra diñozu, eguzki onetsia da-ta.

KAT.—Orrazkero, onetsia ta goretsia bedi Yaungoíkoa! eguzki onetsia da! baña ezta eguzkia, zuk eztala diñozunean; eta iretargia aldatu egiten da zure gogaldia lez. Zuk ze izen emon, axe da: eta olan, olan izango da. Katarine gora-bera.

ORT.—Perutxo, yarrai zakioz zure bideari: gudua irabazi dozu.

PER.—Tíra ba, aurrera, aurrera! onan yoan bear leuke boleak aurrera, eta ez al dau bidean oztoporik idoroko.-Baña, ixilik, norbaitzuk ba-datoz emen.

BINGEN aurrera, bidazti legetxe yantzita.

Egun on, andera lirain: nora zoaz? Esaidazu, Katarine ezti, eta egia esaidazu, ikusi ete dozu au baño aitonen alaba guriagorik? Orren mosuetan zuriak eta gorriak alkarrekin dagien norgeiagoketearena! Nongo izarrak zabaltzen dabe ortze edo zeruan, zer zerutar arpegi orretan orren begiak egokiro zabaltzen dabena lango argirik? Neskato lirain polit ori, egun on beste bein zuri:-- Katarine ezti, besartean estutu egizu orren edertasuna-arren.

ORT.—Emakumetzat arturik, gizonari burutik eragingo dautso onek.

KAT.—Lora-pipiletan zagozan gazte ori, lirain, barri ta ezti ori ,nora zoakuz, edo non bizi zara? Zori ontsu benetan ume orren ederraren gurasoak; are zori ontsuago bere aldeko izarrak orren oe-laguntzat izentauko dautsoen gizona!

PER.—Ep, ep, ep, Katarine! ez al yatzu burutik egin! gizon da au, gizon zar, izurtsu, zimel eta kolorgatua, eta ez neskatorik. zuk diñozunez.

KAT.—Asketsi, parkatu, aita zar, oker dagozan nire begiak, eguzkiak argiaren argiz erdi-itsuturik begiratzen dodan oro orlegi

(15) Laterazko dira itzok, edonok dakianez, eta esan gura dabena zera da, zerbait irarteko eskubidea berak bakarrik dauela. Biondel'ek dirautsanez, Lukenti'k be Bianke berak bakarrik erabilteko eskubidea iritxi bear dau, eta orretarako bidea legezko ezkontzea da.

edo berde iruditzen yat-eta; orain oartzen natxako aita begiragarri zareala; asketsi, parkatu, arren, nire uste oker zoroa.

PER.—Bai, ori egizu, aitaita zar orrek; eta bein ori egindakoan íragarrí egískuzu norako bidea daroazun: gurea ba'daroazu, pozik artuko zauguz gure bide-laguntzat.

BINGEN.—Yaun lerden, eta zu, andera argi ori, iñondiko zuon trikitxaz arri-arriturik itxi nozuenok, Bingen yat izena niri; Pisa da nire bizileku, eta Padoba'rako bidea daroat; aspaldi ikusi eztodan semea an ikusi dagidan.

PER.—Zer yako ari izena?

BIN.—Lukenti, yaun begiko.

PER.—Zori onez aurkitua zatxakuz; zori obaz zure semearentzako. Eta orain, bai legez, eta bai adei begiragarriagaitik be, nire aita maite deitu zaikedaz: onazkero zure semea ezkondurik dago nire emazte, aitonen alaba onen aizteakin. Ez yarri agoa zabalik, ez naibagetu be: entzute oneko da neskatoa, aberats aren ezkonsaria, eta neskea yaíotza zindoko; ganera. edozein andiki aitonen semeren emaztegeiri ondo leíorkiozan geitasun eta on-indarrez ornidua da. Itxi egistazu Bingen zarra besartean estututen; eta goazen zu eltzeaz pozik baño pozago geldituko dan zure seme zindoa ikusten.

BIN.—Baña egia da orrako ori, ala? Ala bidazti gogargiak bidean aurkitzen daben bide-lagunari egiten dautsoenez. txantxetan ibilteko gogaldia etorri yatzu?

ORT.—Neu nozu autorla, aita, orrek esan dauenez dala.

PER.—Tira, erdu geukin, eta ikusi nik esanaren egia, gure Ienengo txantxeteak kezkati egin zauz-eta. (PEHUTXO'k, KATARINE'k, eta BINGEN'ek alde).

ORT.—Tira ba, Perutxo, ireak adoretu naiok ni be. Noan ni nire emakume alargunagana; eta muker eta basatietaiko ba'da a, ik irakatsi dautsak Ortensi'ri menik ez egiten. (Alde dagi).

V EKITALDI

I AGERLEKU.-PADOBA. LUKENTI'n etxe-aurrea.

Aldea batetik BIONDEL, LUKENTI ta BIANKE aurrera; bestetik, GERMI, etorri datorrela.

BION.—Ixilik eta arin, yaun, yauparia gertu dago-ta.

LUK.—Egaz naioak, Biondel: baña ba-leitekek aik etxean ire bearrik izatea-ta alde egik gugandik.

BION.—Ez, ez orixe; zuon atzean ikusi gura dot yauretxea; eta bein ori egindakoan al dodanik eta arinen yoango naz nire ugazabagana. (LUX, BIANKE ta BIONDEL'ek alde).

GERMI.—Andia da orraitiño Kanbi oindiño ez agertzea.

PERUTXO, KATARINE, BINGEN, GURMI ta Laguntzakoak aurrera.

PER.—Yaun, au dozu atea; au da Lukenti'n etxea: azokarantzago dago nire aitarena; ara noa ni, eta emen izten zaudaz, yaun.

BIN.—Etzara yoango alde egin-aurretik zurrutada bat artzeka: nire gorantziz emen txera argia egingo dautzuela uste dot eta, dirudienez, zer yanik aurkituko dogu emen. (Atea yoten dau).

GERMI.—Zeregintsu dagoz or barruan; oba dozu gogorrago yo.

Ume-irakaslea aurrera, goitegiko leioan.

Ume-ir__Nor da atea Iurrera egozteko bestean yoten daragoiona?

BIN.—Barruan ete dago Lukenti yauna, yaun?

Ume-ir.—Burruan dago egon, baña ez iñor artzeko.

BIN.—Ez ete leuke artuko iñor orrek, eurakaz berorrek zer-gura egiteko eun, naiz berreun libera ba'Iekartsoz be?

Ume-ir.—Zeutzako gorde egizuz eun liberok: ak eztau izango orrein bearrik ni bizi nazan artean.

PER.—Bai, nik esan dautzut zure semea maite-maite dabela Padoba'n.-Entzuten dozu, ala, yaun? Umekeriak alde batera itxita, arren, Lukenti yaunari esaiozu bere aita etorri dala Pisa'tik, eta emen atetan dagola akin itz egiteko.

Ume-ir.—Guzurra diñozu: aren aita Iendik da etorririk Pisa'tik eta emen dago leiotik begira.

BIN.—Zu zara aren aita, ala?

Ume-ir.—Bai, yaun; olan diño aren amak, nik sinistekotan.

PER.—(BINGEN'i) Ostera! onetan gagoz, aitonen seme! Onangorik! Zitalkeri lango zítalkeria yatzu beste gizonen izenik zuk artzea.

Urae-ir.—Egotzi eskuak zital orri: seguru nago orrek neure aurrean uri onetan norbaiteri ziria sartu gura dautsala.

BIONDEL aurrera ostera be.

BION.—Batera ikusi dodaz yauxetxean: itxaste onik bidaliko al dautse Yaungoikoak! Baña nor dogu emen? Nire ugazaba zar Bingen! Gureak egin dau, bai, gureak egin dau!

BIN.—(BIONDEL ikusi-ala) Ator ona, eskegiteko lokarri ori!

BION.—Eder dakidana egin daikedala uste dot, yaun.

BIN.—Ator ona, zital ori! aztu egin nok, ala?

BION.—Aztu zu egin be! ez, yaun; ezin aztu zindukedazan, eguño nire bizian etzaudaz ikusi be-ta.

BIN.—Onangorik! zital uts orrek eztok eguño ikusi Bingen, ire ugazabaren aita, ala?

BION.—Nor? Nire ugazaba zar begiragarria, ala? Oba ez, yaun: ara non dagon *a* andik goiko leiotik begira.

BIN.—A dok, ala, kirten? (Yo egiten dau Biondel).

BION.—Lagun zakidaze, lagun zakidaze, lagun zakidaze! zoro onek il egin gura nau. (Alde dagi).

Ume-ir.—Lagun zakioz, seme! lagun zakioz, Batista yaun! (Alde dagi leiotik).

PER.—Arren, Katarine, bastarreratu gaitezan, eta dakusagun eztabaida onek zetara yoten dauen. (Alde dagie).

Barriro aurrera Ume-irakaslea, bean; eta BATISTA, TARNI ta Otseinak.

TARNI.—Nor zauguz, yaun, nire otseina yoteko asmo dozun ori?

BIN.—Nor nazan, yaun! Ba! eta nor zauguz zeu, yaun? Yainko il-ezinok! Zital zital ori! sedazko gorantxa ori! oial apitzezko oinzorro ori! txartes gorri ori! eta txapel gora-zorrotz ori!... -Onangorik! nireak egin dau! nireak egin dau! nik etxean dirua aurreratzen daragoiodan artean nire semeak eta nire otseinak dana ondatzen dauste irakastegi nagusian.

TARNI.—Ostera! zer yazoten da?

BAT.—Zer? Burutik eginda idago gizon ori, ala?

TARNI.—Yaun, zure soñekoetatik aitonen seme ben dirudizu, bañа zure itzak burutik eginarenak dira. Ba, yaun, zer dautzu zuri ardura nik pitxiak eta urrea eralgi ba' dagidaz? Eskerrak emoten dautsadaz nire aita onari, onen eskuzabal izan naitekelako.

BIN.—Ire aitari! zital ori, alango ori! A ontzi-oialgin dok Bergamo'n.

BAT.—Oker zagoz; yaun; oker zagoz, yaun; arren, orri zer yakola izena uste dozu zuk?

BIN.—Orren izena! orren izena yakin ez nik! iru uxteko zanazkero neuk azi izan dot ori, eta Tarni yako izena.

Urae-ir.—Ken ortik, ksn ortik, asto zoro ori! Lukenti yako orri izena; eta neure seme bakarra eta nire lurren oñordeko da ori, Bingen yaun.

BIN.—Lukenti! Ene! orrek il egin dau berorren ugazaba! Ezarri eskuak orri, neuk agintzen dautzuet, dukearen izenean.-Ene! ene seme, ene seme! -Esaidak, zital orrek, non dok nire seme Lukenti?

TARNI.—Dei egiozue ertzainari.

Aurrera bat Ertzainakin.

Burutik egindako zital au baitegira eroaizu,-Aita Batista, ori lotu dagien ardurea zugan izten dot.

BIN.—Baitegira eroan ni?

GERMI.—Geldi, etxon, ertzain; ori ezta yoango baitegira.

BAT.—Ez egin itzik, Germi yaun; neuk diñot baitegira yoango dala ori.

GERMI.—Arduraz ibili, Batista yaun, arazo onetan sareratu etzagiezan: ou benetako Bingen dala zin egiteko gertu nago.

Ume-ir.—Zin egizu, orretarako adorerik ba' dozu.

GERMI.—Ez, enaz azartzen orretzaz zin egiteraño.

TARNI.—Orrazkero, oba litzakizu ni Lukenti enazala esan.

GERMI.—Bai, ba-dakit zu Lukenti zareala.

BAT.—Ken agure totel ori! baitegira ori. baitegira!

BIN.—Onan darabizuez erbestetarrak, bein txeraka, bein irainka! Zital ori, alango ori!

BIONDEL aurrera ostera be, LUKENTI ta BIANKE'kin.

BION.—Ene bada! galduak gara! eta or dago *a:* ukatu egizu, zinez ukatu egizu, ostantxean guztiok gara ondatuak-eta.

LUK.—Asketsi, parkatu, aita maite. (Belaunbikotu egiten da).

BIN.—Bizirik da nire seme kutuna, ala? (BIONDEL'ek, TARNI'k eta Ume-irakasleak igesi egiten dabe).

BIANKE.—Asketsi, parkatu, aita maite. (Belaunbikotu egiten da).

BAT.—Zetan egin dautsçtzu okerrik? Nondik da Lukenti?

LUK.—Emen dozu Lukenti, benetako Bingen'en benetako semea; ezkontza-bidez zure alabea niretu dodana, marroak zure begiai iruzur eginda.

GERMI.—Marroa izan da, autorla ta guzti, guri guztioi iruzur egiteko.

BING.—Nondik da atzenbako zital askani a, Tarni, arazo onetan niri arpegi emon, gogor egin, eta olan bildurtu gura izan nauena?

BAT.—Onangorik! esaidazu, ezta au nire Kanbi, ala?

BIANKE.—Lukenlitu egin da Kanbi.

LUK.—Maitasunak eginak yatzuz zer anigarriok. Bianke'ganako nire maitasunak aldatu eragin eustan nire nortasuna Tarni'nakin, ak urian nire irudia erabilen artean; eta zori onez eta azkenez eldu naz nik gura neban zori onaren itxas-atera. Neuk beartu neban Tarni ak egina egitera; orrazkero, neu-arren asketsi, parkatu egizu a aita ezti orrek,

BING.—Surra ausiko yautsat baitegira eroanazo gura izan nauen zital kirtentzar ari.

BAT.—(LUKENTI'ri) Bcdaalzazu, ala, yauu? Nire ederretsia eskatzeka ezkondu zora nire alabeakin. ala?

BING.—Ez izan bildurrik, Batista; tira, nasaituko zauguz: baña barrura sartu gura dot, orrako zitalkeriari ordea emoteko! (Alde dagi).

PERUTXO ta KATARINE aurrera.

KAT.—Senar, goazen orren yarrai, arazo onen atzena ikusteko.

PER.—Lenen mosu emoidazu, Katarine, ta bagoaz.

KAT.—Etxartebide bidean, ala?

PER.—Ba! nire lotsa zara, ala?

KAT.—Ez, yaun; ez olangorik, mosu emoteko baño.

PER.—Ba, orrazkero, goazen atzera gurera.-Tira, yauntxo, gaioazan emendik.

KAT.—Ez, mun egingo dautzut: arren, maite, gelditu zaitez.

PER.—Ondo eztago au, ala?-Tira, ene Katarine ezti; iñoz ez baño oba da bein, bein be ezta beluegi-ta. (Alde dagie).

II AGERLEKU.-LUKENTI'neko Gela.

Oturuntzea gerturik eta maira aterata. BATISTA, BINGEN, GERMI, Ume-irakasla, LUKENTI, BIANKE, PERUTXO, KATARINE, ORTENSI ta emakume alarguna aurrera. TARNI, BIONDEL, GURMI, ta beste batzuk otseintzan.

LUK.—Azkenean be, berandu izan-arren, gure ots latzak leundu ta ereskidetu dira: eta bein gudaldi asarre-beroa amaituazkero, ondo dago gure ganetik putz egin daben estularrialdi ta galdu-gordeak izan doguzala-ta irribarre egitea.-Ene Bianke lirain, ondo etorria emoiozu nire aitari, nik zureari biotz on bardinez txera egiten dautsadan bitartean.-Perutxo anai, -Katarine aireba, -eta i, Ortensi, eta ira alargun maite ori, al danik ondoen yai egin, eta ondo etorriak zarie nire etxe onetara: nire aparitxo au gure oturuntza andioren ostean gure urdalletako utsuneak betetako da. Arren, yezarri maira, orain yateko ezeze itz egiteko be yezarten gara-ta. (Maira yezarten dira).

PER.—Yezarri ta yezarri, ta yan ta yan baño besterik ez!

BAT.—Padoba'na dok txera au, Perutxo seme.

PER.—Txeraz besterik eztau emoten Padoba'k.

ORT.—Bion aldetik guxako neuke itz ori egia izatea.

PER.—Ba! nire bizia-arren, bere alargunaren bildur da Ortensi.

Alarguna.—Niri bildur izatekorik ba'naz, ez izan iñoz nigan uste edo entziterik.

PER.—Sentzuntsu be sentzuntsu zara, eta orraitiño etzara eldu nire itzen esan-gurara: nik esan oura dodana Ortensi zure bildur dala da.

Alarg.—Burua zorabiaturik dauenari ludiak bira dagiala iruditzen yako.

PER.—Erantzun biribila orixe.

KAT.—Andera, zer esan gura dozu orregaz?

Alarg.—Orren esanetik sortzen yat gogapen ori.

PER.—Niretik sortu! zer deretxo oni Ortensi'k?

ORT.—Bere esakerea dala olan sortzen dauena, dino nire alargunak.

PER.—Polito adabau dozu orraitiño zera.-Mun egiozu orregaitik, alargun on orrek.

KAT.—Burua zorabiaturik dauenari munduak bira dagiala iruditzen yako; arren, esaidazu orregaz zer esan gura dozun.

Alarg.—Zure senarrak, basatik emondako kezkak dauzalako, nire senarraren lorra bere naibageaz neurtzen dauela: ba-dakizu orain nire esan-guxea.

KAT.—Esan-gura ori zakairetan be zakar da.

Alarg.—Bai, zeuri dagokizuna.

KAT.—Zeuri dagokizuna dala diñot nik, ez niri.

PER.—Orri, orri, Katarine!

ORT.—Orri, orri, alargun!

PER.—Eun ogerleko, baietz azpiratu ori nire Katarine'k.

ORT.—Neuri dagokidana dok orrako ori.

PER.—Ertzain ba'litz legetxe itz egin dau: ire osasunaren alde, mutil. (ORTENSI'n alde edaten dau).

BAT.—Ze eretxi dau Germi'k urteera zorrotz eta zipladokazko?

GERMI.—Sinis egidazu, yaun, orreik buruakaz alkarri topekada ederrak emoten dautsez.

BIANKE.—Buruakaz? Buru ta adarrez. Erantzun bizkor-zorroztun gizonak buruari adarrak be ezarriko leuskioz.

BING.—Bai, neskato ezkonbarri ori; orrako orrek iratzarri zauz, ala?

BIANKE.—Bai, baña ez bildurtu; orrazkero, ostera be lo egingo dot.

PER.—Ez, olangorik eztozu egingo: asi zareanazkero, zaztada zorrotz bat edo bi egotziko dautzudaz.

BIANKE.—Egaztitzat artu nozu, ala? Ba, beste adarrera aldatuko naz; baña nik ori egitekotan, arranbel eta geziakaz zetorkidaz zu.-Ondo etorriak zuok guztiok. (BIANKE'k, KATARINE'k eta Alargunak alde).

PER.—Aurreak artu daustaz.-Aiko amen, Tarni yaun, ik eratsi gura izan dokan txoria, ik ukutu izan ez-arren; orrazkero, osasuna opa dautset eratsi gura izan, baña uts egin daben guztiai.

TARNI.—Ene! yaun, bere eizatxakurrari egiten dautsana egin daust Lukenti'k; eizatxakurrak berak arin egiten dau, baña ak goatzen dauena bere ugazabarentzat da.

PER.—Ik irudia lasterrik asko ekarri bai, baña bai txakur-usaina dauena be.

TARNI.—Zuk ondo egin zendun zeutzako eizean egiteaz; baña or uste danez zure oreinak estu ta larri zarabiz.

BAT.—Eee! Perutxo, oraingoan Tarni adarka asi yatzu.

LUK.—Eskerrik asko, Tarni, ori esi-barruratze orregaitik.

ORT.—Autortu, autortu, ez au bete-betean yo, ala?

PER.—Ba-dautort min apurrik egin daustala: baña geziak nigan laban egin eta zuoi niri langoamar egin dautzuela yokatuko neuke.

BAT.—Ba, bape pozkarri eztok baña, nire ustez basatirik basatiena dok irea.

PER.—Tira ba, ezetz diñot nik; eta nik diñodana egitzat euki dagizuen, dagigun bakotxck bere emazteari ona etorteko dei egin dagiola, eta bere emazte esanekoa lenen etorri dakiona izan daitela guk izentauko dogun saria irabaziko dauena?

ORT.—Ori ondo. Zer yokatuko dogu?

LUK.—Ogei amaseiko.

PER.—Ogei amaseiko! nire aztore, naiz eizatxakunaren alde yokatuko neuke orrenbeste, baña olango ogei be bai nire emaztearen alde,

LUK.—Eun, orrazkero.

ORT.—Ori ondo.

PER.—Egiunea. Eginda dago!

ORT.—Nor asiko da?

LUK.—Neu.-Oa, Biondel, esaiok ire ugazabandereari nigana datorrela.

BION.—Ba-noa. (ALde dagi).

BAT.—Seme, neuk yokatuko yoat erdia, Bianke etorriko dok.

LUK.—Nik eztot yokatu gura erdikinik; dana artu gura dot neutzako.

BIONDEL aurrera ostera be.

Kaxo! Ze barri dok?

BION.—Yaun, astirik eztauela ta ezin etorri dala zuri esateko esan daust nire ugazabandereak.

PER.—Ostera! astirik eztau eta ezin da etorri! ori da erantzuna, ala?

GERMI.—Bai, eta txeratsu izan be: Yaungoikoari arren egiozu, yaun, ori baño erantzun txarragorik emon eztagitzun.

PER.—Ba-dot nik itxaro oberik.

ORT.—Biondel yauntxo, oa ta nire emazteari eskatu egiok nigana datorrela bertatik. (BIONDEL'ek alde).

PER.—Ba! ba! eskatu! Ba, orrazkero, nai ta nai ez etorri bear dau.

ORT.—Bildur naz, yaun, zuk egin-alak eginarren, zureak eskariai be eztautsela yaramonik egingo.

Aurrera BIONDEL osctera be.

I, non dok nire emaztea?

BION.—Zuk txantxetan daragoiozula diño ak: eztau etorri gura; zeu ara yoan zaitezala diño ak.

PER.—Txarretik txarragora doaku arazo au: eztauela etorri gura! ori bai ba-dala zirtzilkeri yasan-ezin, ezetara be ezin eroan ledikena!-Gurmi yauntxo, oa ire ugazabandereagana; esaiok ona etorteko agintzen dautsadala. (GURMI'k alde).

ORT.—Ba-dakit ak zer erantzungo dauen.

PER.—Zer?
ORT.—Eztala etorriko.
PER.—Zori txarragoa nirea, eta nire atzena.
BAT.—Ostera! Andera Miren onetsia! emen dator Katarine!

KATARINE aurrera.

KAT.—Zer gura dozu, yaun, niri ona dei egiteko?
PER.—Nondik dira zure aiztea ta Ortensi'n emaztea?
KAT.—Aretoko sutondoan autu-mautuka daragoioe.
PER.—Zoaz eta ekarri egizuz ona: etorri gura ezpa-dabe, txibita-otsean ekarri egizuz ona euren senarren aurrera: alde, gero, eta bertatik ekarri aik ona. (KAT'ek alde).
LUK.—Arritzeko dogu onako au! bai, arritzeko.
ORT.—Bai, izan be: zer ete diragar?
PER.—Ba! bakea, maitasuna ta bizitza nasaibaketsua diragarz orrako orrek, lotsazko ta bidezko nagusitzea, parkak senarrak yantzi ta erabiltea; eta labur esateko, dana, bizitza ezti ta zori ontsu utsa.
BAT.—Zori ontsu izango al az, Perutxo on ori! ik irabazi dok norgeiagoketea; eta orreik galduaren ganera, nik ogei milla amaseiko erantsiko yoadaz; beste ezkonsari bat beste alabari, ik ori eguño izan eztanera aldatu dok -eta.
PER.—Ez, oraindik obeto irabazi gura dot nire baietz-ezetza; eta agiriago erakutsi No orren esanekotasuna, egin-barri dan orren on-indarra ta esanekotasuna. Ikusi non datorren, eta zelan dakazan zuon emazte mukerrak bere emakume eraginkortasunaren atxilo ta bendeko.

KATARINE aurrera barrien barri, BIANKE ta Alargunakin.

Katarine. eztagokitzu ondo aldean daroazun txaspela: ortik zear egotzi egizu uskeri ori; ostikoperatu ta zapaldu egizu. (Txapela erantzi ta lurrera egozten dau Katarine'k).
Alarguna.—Ene Yaungoikoa! Iñoz be ez egidazu emon negarbiderik, olango egin-bear burubakotan aurkitu naiten-arte!
BIANKE.—Uf! zetariko esanekotasun eta bendekotasun da onako zoro uts au?
LUK.—Orren burubako al litz zure bendekotasuna be: zure bendekotasun burutsu ta zurrak eun amaseiko galduazo daustaz apalostean.
BIANKE.—Ainbat zoroago, tentelago zu, nire bendekotasun eta esanekotasunaz ezetz-baietzera yokatu dozulako.
PER.—Katarine, neure aginduz emakume buru-gogorroi esaiezu zelango esanekotasuna zor dautsen euren yaun eta senarrai.
Alarg.—Tira, tira, irrika, txantxetan daragoiozu zuk: guk eztogu iñok esan-bearrik.
PER.—Esan, gero; eta orregandik asi.
Alarg.—Eztau esango.
PER.—Bai, neuk diñot eta esango dau: -eta orregandik asi zadiz.
KAT.—Ken, ken! kendu egizu betozko zemaikor ori; eta ez egotzi zure begietatik begirakune ezeskorrik, zure yauna, zure bakalduna, zure nagusia mindutekorik: orrako orrek manatu ta deuseztu egiten dau zure edertasuna, leiak barrutiak eta bedartzak erre ta igartu ta ezereztuten dauzanez: orrako orrek nastu egiten dau zure entzute ona, zure ospea, axe zakarrak lora-pipil lirainak aztintzen dauzanez; eta olangorik ezetara be ezta egoki, ezta eder eta atsegingarri be. Eragindako, erasotako emakumea iturri nastuaren antzeko da... lupetzez betea, irudi iguingarriko. lodi, edertasunbako; eta olan dirauen artean legor-legor eta egarriak itoten egon-arren, iñok eztau ur orretatik zurrutadarik egingo, ezta tantakadarik ukutuko be. Zure yaun da zure senarra, zuie bizi, zure yagola, zure buru, zure nagusi; zure ardurea dauena, zure yan-edana, zure soñekoak zuzentzen dauzana; zu etxean epeletan bildurga ta nasai ta kezka bagarik zagozan bitartean bere soña urez eta legorrez lan nekorren azpian iminten dauena; gabaz ekaitz-artean atzarrik eta egunez otzetan egoten dana; eta zure aldetik eztau ak beste ezeren amesik eta itxarorik zure maitasunaren, zure begirakune samurtxeratsu ta benetako esanekotasunarena baño„, ordain txikiegia ainbesteko zorraren alderako!

Bendekoak errege edo bakaldunari zor dautsena langoxe bendekotasuna ta esanekotasuna zor dautsaz emazteak bere senarrari; eta emaztea muker, asarrekor, setati, latz eta senarraren bidezko gurariaren esaneko eztana, zer da olango emaztea bide bagarik bere burua bere nagusiaren aurka ta ostez eragiten dauena baño, eta bere yaun maitakorraren aurka yagiten dan azpiyale esker txarreko baño?-Lotsaturik nago ni, emakumek orren buru gitxiko dirala ikusirik, bakearen alde belaunbikotu bear leukienean yagi ta gudu egin gura dabelako, eta otsein izan, maite izan eta esaneko izan bear leukienean agindu, nagusi izan

eta gorengo izan gura dabelako. Zegaitik dira gure soñak bigun eta makal, eta leun, munduko lan eta nekeetarako ez-egoki, gure izakera biguna ta gure biotzak gure soñen erako izan bear dabela iragarteko baño? Tira, tira, mamarro muker eta ezetarako etzarienok! Nire biotza be zuon arroena bestean arro izana da, zuok beste buru be izan dot; alanbearrez, zuok baño itzuliago izan naz ni itzari itzez eta betozkoari betozkoz erantzuteko: baña orain ba-dakit eta ba-dakust nik gure aztamakillak lasto faaño eztirala: gure sendotasuna makaltasunik makalena baño gitxiago dala... geien gareanena egiten dogula, gitxien izanik. Orrazkero, ez izan arro, orretarako eztozue biderik-eta, eta zuon eskuak zuon senarren oinpean imini egizuez, bendekotasuna iragarteko. Nire senarrak agindu ba'dagist olangorik. gertu dagoz nire eskuak orretarako.

PER.—Ederto! ori da emazte izatea! -Erdu ta mun egidazu, Katarine.

LUK.—Ori ondo, zoaz zure bidea zear, mutil zar; zure elburura eldu zara-ta.

BING.—Ume esaneko baño zer ederragorik eztago.

LUK.—Ez zer aspergarriagorik be emakume mukerrak baño.

PER.—Tira, Katarine, goazen oera.-Irurok gara ezkonduak, baña irurotarik bi zotz egin-da dagoz. (LUKENTI'ri) Zedean, elburuan ik yo-arren, nik irabazi yoat ezetz-baietza; eta irabazla nazan aldetik Yaungoikoari eske nagokiok gau on emon dagitzuela. (PERUTXO'k eta KATARINE'k alde).

ORT.—Arraikio ire bideari; ezi dok ik basati askarria.

LUK.—Ire baimenaz, arritzeko dok olan ezi dauela ikustea, eta ezita iraungo yok. (Alde dagie).

AMAIA

Salta'n 19S2-III-5'karrenean.

ITZ AZALGARRI BATZUK

GELTZO.—**Ilaun, España'ko erderaz "pavesa" dalakoa.**

OSKI.—**"Zapata".**

ZANGO-ZORRO— **Galtzerdi, "medi"**

ONDO DATOR AZKEN ONIK DAUAN ORO

(ALL'S WELL THAT ENDS WELL)

ONDO DATOR AZKEN ONIK DAUAN ORO

(AĹL'S VVELL THÁT END5 WELL)

ANTZERKI ONETAKO LAGUNAK

PANTZE'ko ERREGE.
FIRENTZE'ko DUKEA.
BERTARAN, Errusillon'go Kondea.
LAFEU, Yaun urtetsu.
ITZUTS, BERTARAN'en yarraileetariko.
Firentze'tarren guduan BERTARAN'en gudu-Iagun diran Pantze'tar Andiki gazte batzuk.
Ondasun-arduradun, *I*
Aketo,) Errusillon'go Kondenoaren otseinak.
Eskupeko mutil.)
ERRUSILLON'go KONDENOA, BERTARAN'en ama.
ELENE, Kondenoaren ardurapeko emakume andikixe.
FIRENTZE'ko atso Alargun.
DINE, atso Alargunaren alaba.

BOLENTE, Qtso Alargunaren auzoko ta adiskide.
MARINE. (

ERREGE'n lagungoko Yaunak; Errege-otseinak, Gudariak eta abar, Firentze ta Pantzetarrak.

AGERLEKU.-Bein Pantze'n, bein TOSKANA'n.

i EK! ITALDI

I AGERLEKU.--ERRUSILON'. Kondenoaren yauregiko txoki.

BERTARAN, ERRUSILON'go KONDENOA, ELENE ta LAFEU aurrera, illeta-yantziz.

KONDENOAK.—Semeak nigandik alde egitekotan, nik bigarren senar eorzten dot.

BERTARAN'ek.—Eta nik emendik yoan ala, andera, nire aitaren eriotzeaz barrien barri dagit negar: baña nik erregen aginduarí men egin bear dautsat, orain aren otsein eta beti bendeko naz-ta.

LAFEU'k.—Andera, erregek egingo dautzu senartzakoa; zuri, ostera, yaun orri, aitatzakoa: a beti be guztientzat ain on danazkero, nai ta nai ez izan bear zuontzako: eta izan be, zuon aingarritasunak eztagon lekutik sortuazoko leuke ontasuna, dagonetik eta ain ugari dagonetik atera ez baño len.

KONDENOAK.—Ete dogu gure errege osatzeko itxaropenik?

LAFEU'k.—Ak bere osagilleak ortik zear bidali dauz, andera; luzaro ta itxarotsu egon da euren ardurapean: baña dana astia alperrik galtze utsa izan dala ikusi izan dau.

KONDENOAK.—Andera gazte onen aita zanak... zanak! Itz au bai ba-dala biotz-mingarri!.. Andera gazte onen aita zanak osta osta bere zintzotasuna añako ganorea eukan; bere zintzotasuna añako izatera eldu izan ba'litz, sorkaria il-ezin egingo leukean ak, eta eriotzea zereginik ezagaitik yola-^ean ibiliko litzatekean. Erregen onerako a bizi al litz! Nire ustez, aren bizia erregen gatxaren eriotzea litzateke.

LAFEU'k.—Zelan eretxon zuk aipatu dozun orrako gizon orri, andera?

KONDENOAK.—Bere lanbidean a entzute andiko yatzun, yaun, eta eskubiderik asko eukan euki be orretarako; Narbon'go Gerarta eretxon.

LAFEU'k.—Izan be, a gorengoetaiko zan, andera; erregek oraintsu ataz arriturik eta

tamalez itz egin dau; ak ganorarik eta trebetasunik asko eban izan oraindik biziteko, yakituriak ezer al ba'leu eriotzeari iges egiteko.

BERTARAN'ek.—Zetariko gatxek iristen dau errege, ene yaun on?

LAFEU'k.—Uzkiko zauri-zorneak, ene yaun.

BERTARAN'ek.—Eguño eztot entzun izan olangorik.

LAFEU'k.—Oba iñok ezpa'leki.-Andera gazte au Narbon'go Gerarta zanaren *alaha* dogu ala?

KONDENOAK.—Aren seme-alaba bakarra, ene yaun: *ela* nik begiralzeko emona; neska onetaz beronen aziera onak agintzen dauzan itxaropen onak dodaz; ondorengotzat dakazan lera onak emaitz ederrak ederragotu egíten dautsoez; eta izan be, garbi eztan gogok zer oník izatekotan, alangori egiten yakozan gorantzi ta gorespenak errukiz-edo egiten yakoz,- alangoren zer onak bere saltzalla be izaten dira; baña neska onegan zer onok xalo diralako, ainbat oba dira: onek zindotasuna iñogandik dakar, baña ontasuna beronek iritxi dau.

LAFEU'k.—Zure gorantziak, andera, orreri negar eragin dautsoe.

KONDENOAK.—Negarra da neskak beretzako gorespenak onduteko zerik onena. Ezin dau gogoratu bere aita zana bere naibagearen gogorrak bere arpegiko bizitasuna kentzeka. Bego, Elene, -tira, asko da; oba yatzu naibage dozunarena egin. naibagerik izan baño.

ELENE'k.—Naibagetuarena dagit egin; baña izan be ba-dot naibagerik.

LAFEU'k.—Neurrizko illetaren eskubiderik badabe izan illak; baña naibage geiegia bizien arerio da.

KONDENOAK.—Naibagea biziari arerio ba' dakio, naibage geiegiak laster ekarriko dau eriotzea.

BERTARAN'ek.—Andera, ekazu zure onespena.

LAFEU'k.—Nok aituteko on?

KONDENOAK.—Zadiz onetsia, Bertaran! eta soñez eta antzez legetxe, ekanduz be zure aitaren oñordeko ta antzeko izango al zara! zure odola ta zure ekandu onak nor geiagoka ibiliko al dira zugan, eta zure ontasuna zure ondarekide izango al da! Oro maite izan, gitxiri entzin, ez egin okerrik iñori: zure areriori ekiteko lain indar eta adore izango al dozuz, baña ez erabili indar ori: eta zure adiskidea zeure biziaren giltzapean euki: itz-dario barik ixil zareala eskubide geiagoz esango al dabe. Orrez ganera, Yaungoikoak zure edergarritzat besterik ezer emon gura ba'leutzu ta ori nire otoitzak lortu, betor zure ganera! Agur.-Ene yaun, eldu bako errege-yauregitar yatzur ori: ene yaun on, onu oník emon egiozu.

LAFEU'k.—Dautssadan maitasunari dagokozanik onenak emongo dautsadaz.

KONDENOAK,—Yaungoikoak onetsiko al dau! Agur, Bertaran. (Kondenoak alde).

BERTARAN'ek.—(ELENE'ri) Zuk asmau deikezuzan gurariik onenak lagun eta otsein izango al yatzuz! pozbide zakioz nire amari, zure etzandereari, eta aintzakotzat etsi egizu.

LAFEU'k.—Agur, emakume lirain; eutsin zuk zure aita zanaren entzute onari.

(BERTARAN eta LAFEU'k alde)

ELENE'k.—Ori baño besterik ez al litz! -nik gogotan darabildana ezta nire aita: eta nik ixurtzen dodazan negar andiok nik agaitik ixuriak baño ederrago egiten dabe aren oroipena. Nolango zan a? Aztu yat. Nire irudimenak eztakast aren ederzoragarririk, Bertaran'enak baño. Nireak egin dau. Ni ezin bizí, ezetara be. Bertaran yoanik dala. Bardin litzakit izar argi au naiz besterik maite izan eta akin ezkondu gura izatea, Bertaran nire aldean goi-goian dago-ta; nik nire poza ta nasaitasuna aren dizdizean eta azaletik darion argitasunean aurkitu bearko dodaz, ez bere soin borobilean. Nire maitasunaren geiegikeriak galtzen nau ni: leoiaren emazte izan gura dauan orein emea maitekeriak ilgo dau. Izurri izanarren, atseçingarri ta eder zan a egunoro ikustea; yezarri or eta aren bepuru makurrak irudiditu, aren begi zorrotz-argiak, aren ule-kizkurrak nire biotzeko olean margoztu, aren zer bikain-liluragarrien marra ta trebetasun guztiak iruditzeko nasaiegi dan nire biotzeko olean; baña orain a yoan yat, eta yainko aizunak yauresten dauzan nire irudimenak aren ondakinak yauretsi bear dauz. Nor datorku emen? Akin yoaleko dana: agaitik au be maite dot: eta orraitiño ba-dakit au guzurti andi, alango dana; badakit tenteltzar, koldar uts dana: baña orri akalsok ondo la egoki-egoki dalorkoz, or eder etsi dabez-ta, ekandu onak, ostera. or dagoz narru gorritan otzak ilik; eta izan be sarri-sarritan dakusgu zurtasun otza tentelkeri bero- aberatsaren otseintzan.

ITZUTS aurrera.

ITZUTS'ek.—Yaungoikoak yagongo al zauz, enegeno lirain ori.

ELENE'k.—Bai zeu be, errege ori.

ITZUTS'ek.—Ez.

ELENE'k.—Ez ni be.

ITZUTS'ek.—Neskatasuna buruan darabiltzula ete zagoz?

ELENE'k.—Bai. Zuk zugan gudari-antz apurtxoen bat dozu-ta, itaun bat egiten itxi egidazu. Gizona neskatasunaren arerio da; ze esi imini ete dagikeogu agandik yagoteko?

ITZUTS'ek.—Gogor egin eta ez itxi sartzen.

ELENE'k.—Baña a sartu egiten da gogorrez; eta gure neskatasuna, bere burua adoretsu yagonarren, makal da; erabuskuzu gudari-antzeko gogor egiteren bat.

ITZUTS'ek.—Eztozu olangorik; gizona aurrean yarri ba'dakitzu, zuri azpi-yana egin eta Ier eraginda ortik zear bidaliko zauz.

ELENE'k.—Norbaitek yagongo al dau gure neskatasun errukarria azpi-yale ta lertzalleakandik! Ez ete dago neskak gizonai ler eragiteko gudari-biderik?

ITZUTS'ek.—Lenago bidaliko dozu gizona ortik zear bein zure neskatasuna galduazkero; baña gogor eginez ortik zear bidali ba' dagizu, zeuk egindako orma-zulotik sartuko yatzu, ta zuk zure uria galdu. Sorkari-batz legeerri onetan ezta oituten naskatasuna yagoterik. Neskatasuna galdutik bidezko irabazia dator; eta neskarik lortzeko neskatasuna galdu egin bear izan zan. Zu egin zinduzana neskak egiteko gei da. Neskatasuna. bein galduazkero, amar bider ainbestetu leiteke; beti yagon ba'dagizu, betiko galdua da; lagun otzegia da; doala ortik zear!

ELENE'k.—Bein beinean ni aren alde egongo naz, neska iltekotan be.

ITZUTS'ek.—Ori zeuk ikusi, baña ori berezko bidearen aurkako da. Neskatasunaren alde itz egitea zure ama salatzea da, eta orrako ori agiri agirian esaneko ez izatea yatzu. Neska izatea norbere burua eskegitea da; eta olangorik legikena lur onetsian barik bide-ertzean eortzi bear litzake. sortzezko legeari irain egiten dautsa-ta. Neskatasunari arrak egiten yakoz, gaztaiari lez; neskatasunak bere burua zeatz zeatz yaten dau, eta bere burua yanaz ilten da. Ganera, neskatasuna muker-asarrekor, arro, alper, eta norberekoikeriaren ume da; eta onako au da Elexearen legeak zorrotzen galazoten dabena. Ez euki neskatasunik; eukiaz galdu baño eztozu egiten; doala ortik zear! Aitrar urte barru bera langO amar egingo da, eia ori geiize ona yaizu: eia amarrok geitu dauzana ezta len baño asko txarragorik: doala, doala ortik zear!

ELENE'k.—Galtzekotan, zer egin ete leiteke norbere gogara galtzeko?

ITZUTS'ek.—Dakusgun: ba, orrako ori gaitz litzakitzu, olangorik gura eztauanik zure gogoko izatekotan. Neskatasuna aldiaz euren eder-dizdiza galtzen daben ondasunetariko yatzu; eukiago, ta galduago: salgarri dan artean saldu egizu; eskatimarik dauen artean saldu egizu. Neskatasunak, errege-yauregitar zarraren antzera, txapela oraingo eraz bestera daroa; eder da izan txapela, baña ezta oraingo erako; olango zerak egitea ta orain kakotxak eta agin-zotzak erabiltea ainbaten litzateke, orain olangorik ezta oituten-eta. Zer bakotxa bere aldian eta bere lekuan. Zure neskatasuna, zure neskatasun zarra Pantze'ko gure madari zimelen antzeko da; arpegi itsusia dau, ta yateko be legorregi da: ba! madari zimel yatzu, madari izurtsu. Zer egiteko orregaz?

ELENE'k.—Oraindik ezta olangorik nire neskatasuna. Zure ugazabak or millaka izango dauz maiteak. amarena, kutunarena, adiskidena. penitzena, gudalburuna, areriona, bide-erakuslana, yainkonona, erregenona, salatzallena egingo dautsoenak; Kupida aldakorrak agotan darabiltzan mundu bete neska lirain, maitabera ta biotz-kutun an ibiliko yakoz inguruan, erlak eztiaren inguruan legetxe, bekoak gora egin-guraka, apalak arroturik, batzuk latz, beste batzuk gozo-ezti, batzuk entzingarri. beste batzuk bere zori txar. Orain ak... Zer dakit nik ak zer egingo dauan? Yaungoíkoa Iagun bekio!...Ikastegi ta irakastegi da errege-yauregia, eta a da bat...

ITZUTS'ek.~Bat zer?

ELENE'k.—Nik maite dodana.-Au tamala!

ITZUTS'ek.—Zeren tamal?

ELENE'k.—Maite dodanak, maite izateak nik ukutzeko soñik ez izatearena; gu txiroago yaiook izar apalagoak beragoan gurari utsetan itxiarena; eta gurariok eraginda, gure adiskideai gure asmorik eta gogoan dogunik ezin iragarriarena; eta ortik eztatorku iñoz eskerrik askorik be.

ESKU-MUTIL aurrera.

ESKU-MUTILLAK.—Itzuts yaun, nire ugazaba deiez dagotzu. (Esku-mutillak alde).

ITZUTS'ek.—Agur, Elenetxu: gogora ba'zaudaz, gogotan erabiliko zaudaz errege-urian.

ELENE'k.—Itzuts yaun, izar enukiberapean yoioa zara zu.
ITZUTS'ek.—Ni Marte'pean yaioa nozu.
ELENE'k.—Neu be orretan nozu, Marte'pean yaio zintzazala.
ITZUTS'ek.—Zegaitik Marte'pean?
ELENE'k.—Zu guduak ain azpiratuta euki zabezanazkero, zuk nai ta nai ez yaio bear izan zeban Marte'pean.
ITZUTS'ek.—Marte nagusi zanean yaio nintzan.
ELENE'k.—Nik usteago dot, zure ytoaizea a atzeraka yoianean izan zala.
ITZUTS'ek.—Zegaitik dozu ori usteago?
ELENE'k.—Burrukaldian atzeraka egiten dozulako.
ITZUTS'ek Irabazteko da orrako ori.
ELENE'k.—Iges egitea be orixe yatzu, bildurrak nobere burua yagonazoten dauenean: baña zugan bildurra ta adorea ederto batzen dira alkarrekin, eta biak begiko yatan zera osotzen dabe'zugan.
ITZUTS'ek.—Nire zereginen zereginak eztauste astirik izten zuri zorrotz erantzuteko. Ni errege-yauregitar oso-oso ta bete-bete egingo natxatzu; atzera ona natorrenean zuri be irakatsiko dautzudaz errege-yauregiko bideok, niri entzuteko ta nire esanera yarteko gauz ba'zara, ta nire onuai yarrai ba' zakiez, ostean eskerrik askorik be eztaustazu esango ta zure ez-yakinean ilgo zara; agur. Astirik dozunean otoitz egin; eztozunean, zure adiskideak gogoratu: iritxi senar onik, eta a zeu artzen zauzanez artu: onazkero, agur. (Alde dagi).
ELENE'k.—Sarritan gure osapidea geugan datza, geugan dogu, eta guk Yaungoikoari ezarten dautsagu: Yaungoikoak aukeran iminten dauskuz zerak; baña gu geldo ta nagi gareanean gure asmoai atzerantza indar egiten dautse. Nongo indarrek yarten dau nire maitea orren goian, eta niri ikusi eragin, eta ezin dautsat emon nire begiri yakitzat? Alkarregandik urrin be urrin egonarren antzeko antzekogaz batzen daki berezko yokereak, eta alkarri mun eragiten. Iñondiko aleginak ezinak bediz nekeck bi!-durtzen dabezanentzat, eta len bestek egina ezintzat dabenentzat: non izan da eguño bere laina erakutsi ta bere maiteaz yabetu eztan neskarik? Erregeren gatxa... ba-leiteke nire csmoa ustel urtetea, baña nire erabagia tinko dago, ta enau itxiko. (Alde dagi).

II AGERLEKU.-PARIS. ERREGE-Yauregiko txoki.

Turuten ots bizi-alai. PANTZE'ko ERREGE, idazkiaz; Yaunak eta beste errege-lagunak aurrera.

ERREGEK.—Firentze'tarrak eta Siena'tarrak alkarri uleetatik elduta dabiltz; zori bardina yokatu dabe, eta aurrera doaz euren gudu azkarraz.
I YAUNAK.—Olan diñoe, yaun.
ERREGEK.—Bai, eta sinisgarri da; guk emen segurutzat dogu ori, Osterri'ko gure lengusua autorle dala, baña ak diñonez Firentze'tarrak euren alde arin arin yoanazoko dauskue; baña gure adiskide maite orrek, arazoa aurreztik ebatzita, guk ezetza emongo dautsegula uste-edo dau.
I YAUNAK.—Zuk aintzakotzak dozuzan aren yakituri ta zurtasuna ba-leiteke zure sinisterik osoenaren eske egotea.
ERREGEK.—Ak sendotu egin dau gure erantzuna, eta Firentze'k gure ezetza emonik dau gugana etorri baño len; orraitiño be, Toskana'tarren alde yoan gurako leukien gure zaldunak, eskubide osoa dabe batzuen naiz besteen alde yarteko.
II YAUNAK.—Orrako ori ba-leiteke gure zaldunentzat mintegi izatea, zaldunok euren soñai eragiteko ta gorengo egikizunak egitsko irrika dira-ta.
ERREGEK.~Nor datorku emsn?

BERTARAN, LAFEU ta ITZUTS aurrera.

I YAUNAK.—Errusillon'go Kondea yatzu ori, ene yaun on, Bertaran gaztea.
ERREGEK.—Gazte, zure arpegia zure aita berarena da: sortze esku-zabalak, aringa barik arduraz eta ganoraz ibilten dakian sortzeak ondo atondu ta eratu zauz. Zure aitaren soña ezeze aren ekanduak be zure izango al dira ondorengotzat! Ondo etorria Paris'era.
BERTARAN'ek.—Nire eskerrak eta nire otseintzea zu nagusien orrentzako dira.
ERREGEK.—Zure aita zanak eta nik, biok, adiskidetasunik onenez eguño lenengoz gure gudari-aria zelango zan erakutsi gebanean langoxe al litz nire soin-osasuna! Ak aldi atako guduetan urrin begiratzen eban eta gudaririk onenen ikasla izan zan: a luzaro bizi izan zan; baña adin itxusia biokana etorri zan ixil-mutilka, ta gauzeztzat lantegitik atera gauz. Zure aita on zanaz itz egiteak zuzpertu egiten nau. Nik orain-

go gure yaun gazteetan dakustan buru-bizkoriasuna eban ak bere gaztearoan; baña gazteoi yazo Iekikie euren izkirimiri ta txantxak, iñok yaramonik egiteka, atzera eurekana etortea, yauregitarreri ain egoki yakon deduari egindako utsa ostondu *a* izan baño len: aren arrotasunak naiz ziri zorrotzek ez eban iñorentzako nardarik naiz mingoztasunik; eta iñoiz olangorik egitekotan, iñok orretara beartuta izaten zan; aren zindotasunak ondo ekian noz itz egin, eta itz egin bear ebanean aren agoa adimenaren esaneko izaten zan: bera baño beragokoak, zapuztu barik, erbestetarrak lez txeratsu artzen ebazan; bere gallur garratza eurekanaño beera erasten eban, makurtuta, eta olan, bere apaltasuna arein arrokizun egiten zan, eta ak bere burua arein gorapen landerreraño eratsi ta apaltzen eban. Alango gizona gure aldirako eredu izan leiteke; eta eredu ak, ondo yarraiazkero, oraingo gazteok aren atzetik doazanak baño eztirala erakutsiko leuke.

BERTARAN'ek.—Aren oroipena, yaun, zure gogapen eta itzetan aren ilobian baño ederrago agiri da; aren ilobi-ganeko gorespen idatziak baño ederretsiago dira zure erregeitzak.

ERREGEK.—Arekin al nengo ni be! Ak beti esaten eban... Orain entzuten nagokola dirudit; aren itzak etziran belarri batetik sartu ta bestetik urteten, aik an mentatuta lez geldítzen ziran, an azi ta igaliak emoteko, -"Ez ai naz biziko"", esaten eban ak, iñoren kaitebako txantxeta, gotilun-aldia eltzen yakonean-, "Ez al naz biziko bein nire garraren orioa agortuazkero, ez al naz biziko buru gazteagoen barregarri izateko, tentelkeriz barri eztan oro zapuztuten daben gazteen barregarri izateko, naiz-ta orrako orreik euren yantziak baño buru geiago ez izan, eta euren asmoak axeak daroazanak izan": orrako ori gura eban ak: nik, emen gelditu onek, aren urren, aren guraria bera dot. Ez argizagirik ez eztirik egiteko gauz enazanazkero, erlauntzetik len baño len uxatu bear nindukie, beargin batzui leku egiteko.

II YAUNAK.—Zu maite zauguz, yaun: gitxien maite zabezanak izango dira zure bearra lenen izango dabenak.

ERREGEK.—Nik lekurik beteten dot, ori neuk be ba-dakit.-Zeinbat aldi da, konde, zure aitareneko osagillea il zala? A ospe andiko gizon zan.

BERTARAN'ek.—Sei bat illabete da, ene yaun.

ERREGEK.—A bizi ba'litz oraindik, ak zer egingo leuskidan ikusi gurako neunke: ekazue besoa:- beste osagilleak euren osakaiz ondatu nabe: -sortze-indarrak eta gatxa or dabilkidaz alkarrekin burruka zeñek irabaziko. Ondo etorria zauguz, konde ori: nire semerik bez zu baño maiteago,

BERTARAN'ek.—Eskerrik asko, nagusien orri. (Alde dagie. Turut-ots alai).

III AGERLEKU.-ERRUS LON. Yauregiko txoki.

KONDENOA, ONDASUNZAÑA, ta AKETOA aurrera.

KONDENOAK.—Entzuteko gertu nagotzu: zer diñozu gure anderañoaz?

ONDASUNZAÑAK.—Andera, igaroko nire aleginen erreskadan aurkituko al dozu nik zure gogoa beteteko izan dodan ardurea; eta izan be, gure egite onak geuk iragarriazkero, gure lotsortasuna iraindu ta on egiteok moteldu baño eztogu egiten.

KONDENOAK.—Zer egiten dau kirten orrek emen? Oa ortik, txotxo; zure aurka etorri yatazan espa ta zinkurinak eztodaz sinisten; nire geldoari zor yako nik olangorik ez sinistea, zu olangorik egiteko zoro ta treberik asko izanarren.

AKETOAK.—Zuk ondo dakizu, andera, ni gizagaxo nazana.

KONDENOAK.—Ondo yagok, txotxo.

AKETOAK.—Ez, andera, ni gizagaxo izatea eztago orren ondo, aberatsetatik asko gaiztetsi izanarren; baña ni ta Elixabete ortik zear mundura yoatea eder etsi ba'dagizu, gu biok al dogun giñoan ondo ibiliko gara.

KONDENOAK.—Eskeko izan gura dok ala?

AKETOAK.—Zure ederretsia gura dot arazo onetan.

KONDENOAK.—Zein arazotan?

AKETOAK.—Elixabete ta nire arteko arazoan. Otseintzea ezta yarauntsirik; eta nire ustez eztot iñoiz izango Yaungoikoaren onespenik seme-alabarik izan arte, or esan daroenez, seme-alabak onespen ei dira-ta.

KONDENOAK.—Esaidak zegaitik ezkondu gura dokan.

AKETOAK.—Nire soñak eskatzen daust, andera; ni aragiak tatarrez naroa; eta txerrenak daroanak yoateaz besterik eztau.

KONDENOAK.—Ori dok ire yaureskuntzearen zegaiti guztia ala?

AKETOAK.—Bai, andera, ba-dot beste zegaiti deunik be, deunak dira izan be zegaioketa.

KONDENOAK.—**Iñori esangarri ete dozak?**
AKETOAK.—**Ni, andera, sorkari gezto izan naz, zu ta aragi-odol oro lez; eta ezkondu ba'nadi, damututeko ezkonduko naz.**
KONDENOAK.—**Bai orixe, i ezkonduaz Ienago damutuko az gezto izanaz baño.**
AKETOAK.—**Nik eztot adiskiderik, andera; eta nire emaztea dala-ta, adiskidek izateko itxaro dot.**
KONDENOAK.—**Olango adiskidek ire arerio dozak, tentel.**
AKETOAK.—**Oker zagoz, andera; zuk eztozu ezagun adiskide andirik; adiskide dira, ta benetako adiskide, ni aspertuta naukan egitekoa zitalok egiten dauste-ta. Nire soloa Iantzen daustanak ipuztarri-bearra aurreratzen daust, eta uztea Iegorreratzeko baimena emoten daust: ak nire emazteagazko kuku egin ba'dagist, nire yopu da; nire emaztea poztu dagiana nire odola ta aragia poztuten dauzana da; nire aragiari ta odoIari naierak dagitsozanak nire aragia ta odola maite dauz; nire aragia ta odola maite dauzana nire adiskide da. Gizonak dirana izatea askotzat ba'Iebe, ezkontzean elegoke bildurrik: eta izan be, Charbon gazte garbizalea (puritan) ta Poysam agure Doipuruzalea, yauieskuntza- arloan alkarregandik banandu bananduta aurkituarren, ezkontza-arloan erizkide dira; euren adarrak alkarrekin kirimildu Ieitekez, orein arrak orein-taldean Iegetxe (1).**

KONDENOAK.—**Beti izan bear ete dok ago--zantar eta tentel iraintzalla?**
AKETOAK.—**Igarla nozu ni, andera; eta nik egia onetara diñot:**

Nik, ba, balat (2) au balat au birresango,
Gizonak or egi utsa aurkituko;
Zu ta ni alanbearrez ezkontzen gara,
Maitasunez zure kukuan abesa.

KONDENOAK.—**Oakit ortik, txotxo; geroago eragoko yoguk orretaz barriro.**
ONDASUNZAÑAK.—**-Eder ba'dakitzu, andera, orrek Elene'ri zugana dei egin dagiola: aretaz zuri itz egiteko nozu.**
KONDENOAK.—**I, txotxo, esaiok nire Ieñargineskeari berakin itz egin gogo dodala; Elene'ri esan gura yoat.**
AKETOAK.—**(Abestuz)**

Arpegi lirain onegaitik, no ak esan eban,
Sakaildu ete eben Eladetarrak Toroia?
Maitabera au, maitabera au, or,
Izan ete zan Priamu Errege'n poz?
Au esanik ak asperen zutunik,
Au esanik ak asperen zutunik,
Eta atan supita au ak esan:
Bederatzi geztotik bat on izatekotan,
Bederatzi geztotik bat on izatekotan,
Ondiño on bat dogu, on bat amarretan.

KONDENOAK—**On bat bakarrik amarretan, ostera? Ik abestia muskildu egin dok, yauntxo orrek.**
AKETOAK.—**Amar emakumen aitean bat on, andera, eta au abestia garbitzea yatzu: Yaungoikoak olan yagongo al Ieu Iudi au urte osoan! Guk ez geunskio aurkituko ezetariko akatsik iztar-emakumeari ní yauretxeburu ba'nintz: amarretik bat esan eban ak! Izar bakotxeko, naiz Iur-ikara bakotxeko emakume on bat yaíoko ba'Iitz, zori on Iitzateke: gizonak biotza nasaitu al izango Ieuke, iñori iñorena ateraten ibili-bear barik.**
KONDENOAK.—**Oa, yauntxo tentel ori, ta egik agindu yakana.**
AKETOAK.—**Andia da orraitiño gizona emakumeren bendean egon eta orUk ari okerrik ez etortea!...** Zintzotasunak, **garbizalerik izan ezarren, eztautso iñori okerrik egiten; biotz andiren abade-yantzi baltzaren ganean apaltasun-pelliza yantziko dau.**-Orraintxe **ba-noa benetan; nire egitekoa Elene'ri ona etorteko esatea da. (Alde dagi).**
KONDENOAK,—**Tira ba, ta?**
ONDASUNZAÑAK.—**Ba-dakit, andera, zuk neska anderea maite-maite dozuna.**
KONDENOAK.—**Izan be, ba-dot: aren aitak a nire ardurapean itxi eustan; eta neskeak**

(il) GARBIZALEAK.—Ingelandarrak kcrtolikotasuna baztartu ta kistar yaureskuntzan euren bideak artu ebezonazkero, euren siniskeretan zati-zati egin dira. Zatiotariko bat yatzuz Garbizale deretxenak. Garbizaleen ustez gure kistar yaurespidean Idazti Deunetan argi-argi agiri danaz besterik ez bear ei geunke ez sínistu, ezta besterik ezer egin be. Olan izatekotan, gure len-gurosoakandik, eskurik esku datorkun guztia baztartu egin bearko geunk ; baña ez aztu, gero, Yosu Kisto'k ez ebala ezer idatzi to. Aren ikasleak be ez ebela Ak esan eban guztia idatzi. Zer asko, idatziz barik, ekanduz datorkuz Elexan.

(2) BALAT.—Balot dalakoa itz neurtu gitxi ta xalo-lau batzuk dauzan abesti yatzu; geien baten itz neurtuok gure biotzaldiak iragarten dauskuez. Balatean eresia itzen lagungarri baño ezta, ta itz neurtuok doñu berberaz abesten dira. Balat izena erri-ipuiñak azaltzen dabezan itz neurtuai be ezarten yake.

berak, besteren gorantzi barik, berenez eta legez dau nik dautsadan maitasunaren eskubiderik: emon yakona baño geiago zor yako; ela eskatuko dauena baño geiago ordainduko yako.

ONDASUNZAÑAK,—Andera, berandu berandu egon naz nire ustez ak gura baño aren ondoragoan: bakarrik egoan, eta bere itzak bere belarríetara bídaltzen ebazan; zín egingo neunke aren alde, ak ez ebala uste belarri arrotzik entzuten egokonik. Aren eragoa ak zure semea maite dauela zan: Zoria -iñoan ak- Zoria ezta yainkonorik, arein bien mallen artean ainbesteko bitartea imini ebanazkero; Maitasuna be atzala yainkorik, bere indarra malla bardinekoetara bakarrik zabaldu gura ebanazkero; Dine be *etzala* neskerz erregenorik, bere yauparinoa ez otoz-otoko erasoko galbidetik ez gero be ordain-bidez atera gura ez ebalako. Onako ítzok ak nik eguño iñorí oartu izan dautsadan biotz-min eta naibagerik andienaz esaten eragoíon; eta orrako guzti ori zuri lenbait-len iragartea nire egitekotzat etsi izan dot; oriik etorri leiteken okerra dala-ta, orrako ori yakitea zuri ondo letorkizulakoan.

KONDENOAK.—Egiteko au zuk zintzo bete dozu; ixilik eta zeutzako gorde: orrako ori neuri be diralako batzuk iragarri daustez, baña diralakook eta eztiralakoak índar-bardin izanda, ezin neban ez sinistu ez sinistu ez. Arren, bakarrik itxi nagizu: orrako ori zeure barruan euki; nik eskerrik asko damotzudaz zure ardureagaitik; geroxeago itz egingo dot zukin. (Ondasunzañak alde).

KONDENOAK.—Orixe yazo yatan neuri be gazíe nintzanean: iñoz ba'gara sortze-indarren bendeko, zeroían gara; egin eginean be arantzok gure gaztearoko larrosa-landarearenak dira; gure da, gure odola eta gure odolarenak arantzok: maitasunaren griña gogorra gaztegan írartea gaztearoaren agiri ta ezaugarri da: ígaroko egunetatik gogoratzen dogunez, onangoxeak izan ziran gure akatsak be; edo-ta guk aro atan ez artu akaztzat be.

ELENE aurrera.

Orí dala-ta, gexorík dago orren begía; orrenaz oartzen naz.

ELENE'k.—Zer da zure eder, andera?

KONDENOAK.—Ba-dakizu, Elenetxu, zure ama nozu ni.

ELENE'k.—Nire andera begiragarri zara zu.

KONDENOAK. -Ori ez, zure ama baño: Zegaitik ez ama? Nik ama esan dodanean. zuk sugeren bat ikusí dozula uste izan dot: zer dau ama itzak zu olan ikaratzeko? Ník zure ama nazala diñot; eta ník nire sabelean ekarrikoen artean iminten zaudaz. Sarritan ikusi izan da seme-alabatzakoa yatorriaz zein geiagoka; eta aukereak azi arrotzai guganantza laban eragiten dautse; zuk eztaustazu ama-intzíririk eragin, baña amaren ardurea dautzut: -Yaungoikoa erruki bekigu, neskato! Zure ama nozula esateak odola leitu egiten ete dautzu? Zer yazoten yatzu, zure begien ertzetan euria iragarten daben ostadar margoak agertzeko? Zegaitik? Ni zure ama nozulako ala?

ELENE'k,—Etzaudazalako.

KONDENOAK.—Zure ama nazala dirautzut.

ELENE'k.—Azketsi, andera; Errusillon'go kondea ezin izan leiteke nire nebarik; izen apaleko naz ni, a izen yagiko; nire gurasoak ez eben izan goi-agiririk, arenak, ostera, guztiak goiko; a nire ugazaba, níre yaun maite da; ni barriz aren otsein bízí, ta aren bendeko ílgo naz; ak eztau izan bear nire neba.

KONDENOAK.—Ezta ni be zure ama?

EIENE'k.—Zu ama zatxataz, andera; al zintzaz... baña zure seme nire yauna nire neba ez izatekotan.„ Izan be, nire ama! zerua ez nik maiteago zu gu bion ama izatea baño, baña a nire neba ez izatekotan. Ni zure alaba izanazkero, ak be nai la nai ez izan bear ete dau nire neba?

KONDENOAK.—Bai, Elene, zu nire erran izan zeintekez: Yaungoikoarren ez al dozu olango asmorik ízango! Ama ta alaba izenak or dabiltzuz nor geiagoka. Zer dogu au! Ostera be zurbil? Nire bildurrak igarri dau zure biotzeko maitasuna: orain ba-dakust zegaitik zabiltzan zu bakarzale ta non dagon zure negar guztien iturburua. Orain sentzu guztiak oartzen dira zuk nire semsa maiíe dozula; alperrik ibiliko zara au ta ori asmaka eztozula maite esateko, zure griñea bestera gedarrez dagonazkero: orrazkero egia esaidazu; baña esaidazu baietz; -eta izan be, begira, zure begiak dira autorla, bata besteari; eta zure begiak orrako ori zure egiteetan argi ta garbi ikusten dabe-ta, euren erara itz egiten dabe; obenak eta gaiztoki-burugogorkeriak lotzen dabe zure miña, egirik esan eztagizun. Esan, ez ete da olan? Olan izatekotan, eztozu yo ate txarra; ez izatekotan, zinez uka egizu: dana dala, Yaungoikoarren eta dautzudan gogo onarren, egia esaídazu.

ELENE'k.—Andera on, azketsi nagizu!

KONDENOAK.—Nire semea maite dozu ala?
ELENE'k.—Azketsi, andera zindo orrek!
KONDENOAK.—Nire semea maite dozu ala?
ELENE'k.—Zeuk eztozu maite ala, andera?
KONDENOAK.—Ez ibili kakomakoka; aganako nire maitasuna berezko lokarritik dator, eta ori edonok dakiana da: tira. tira, idigi zure barrua, zure barruko griñea, zure griñak oso-osorik autortu bear dozuz-eta.

ELENE'k.—Orrazkero ba-dautort, emen nire belaun-ganean, goiko zeru ta zure aurrean, zure aurrean eta zeru goiari, zure semea maite dodala: nire adiskideak lander bai, baña zintzo ziran; alangoxea da nire maitasuna be; ez artu iraintzat, nik a maite izateak *arí* gatxik eztautsa egiten-eta; a maite izatean eztot nik andi izan-gurarik; eta eneunke a nire izaterik be gurako ni arentzako lain izan arteño; eta orraitiño eztakit zelan eldu neinteken aren lain izatera be. Ba-dakit *a* alperrik maite dodana, eta nire aleginak itxaroaren aurkako dirana; eta orraitiño nik ura egotzi egiten dot bae zulatsu, marrogille ta urik ezetara be ezin euki dauen onetara, maitasunezko urik ezin euki dauen bae onetara, ta geiago egozteko be urik ba^dot oraindik; onan, Inditarren antzera, yaureskuntzako nire okerreko ustetan, bere yaureslea begiratu bai, baña besterik egiten eztakian eguzkia yauresten dot. Ene andera maite-maite ori, zure gorrotoa ez *a*\ yako bidera aurrez aurre urtengo nire maitasunari, zuk maite dozuna bera maite izateagaitik; baña zartzaroko zure ekandu onak gaztearokoak iragarten dabezanez, zu zeu be egunen baten zure biotzean gurari garbiekaz eta samurtasun-garraz oartu ba'zintzazan, zugan beti Benuts eta Dine biak batera agintari agiri izan ba' ziran, erruki izango daustazula uste dot; maite dauena iristeko itxaroga, billa dauena lortzeko ustega bizi, ta igarkizun-antzo bera il daroana samur maite dauenaren erruki izango zareala!

KONDENOAK.—Eztozu izan oraintsu Paris' era yoateko asmorik ala? Esan egia ta argi ta artez.
ELENE'k.—Bai, andera, izan dot.
KONDENOAK.—Zegaitik? Garbi esan.
ELENE'k.—Egia esango dautzut; zin dagitzut Yaungoikoarren. Ba-dakizu nire aita zana ilteko egoanean artzeko bakan eta onuragarri-onuragarriak ak itxi eustazala, eta arduraz yagoteko agindu eustala, dirudien baño garrantzitsuago dirala-ta. Orrako artzeko orrein artean dozu bat errege makalduta ta etsita daukien gatxorentzako berenberegikoa ta egikorra.

KONDENOAK.—Ori izan da zuri Paris'erako bidea arrazoten dautzuna ala? Esan argi ta garbi.
ELENE'k.—Zure seme nire yaunak gogoratuazo daust ori; ostean, Paris, osakaia, ta errege, zori onez nire bururapenetatik urrin izango ziran.
KONDENOAK.—Baña zuk, Elene, zuk uste ete dozu, zuk opatzekotan erregek artuko leukela zure osakai ori? A ta aren osagilleak eretxi bateko dira; *a* bera, aik ezin dautsoela onik egin ustetan dago; aik, eurak ezin dautsoela laguntzarik eskeñi: zelan sinistuko aik neskato lander-ezyakineri, aik euren yakituria an edan daben irakastegiak erregeren gatxa bera beretara itxi dabenazkero?

ELENE'k.—Zertxo bat susmetan dot onetan. bere lanbidean trebetasunik andiena eban nire aitaren yakituriaz ganera, zera, nire bitartez osakai au zeruko izarrak onetsiko dabelakoa: eta ondorena ikusteko zuk zure ederretsia emongo ba'zeunst, nik aleginak egingo neunkez nire bizia urli ordu ta egunetan galdutzat esteko, erregeren osasunaren alderako izatekotan.
KONDENOAK.—Olangorik sinisten ete dozu?
ELENE'k.—Bai, andera, eta sinistu ezeze yakin dakit.
KONDENOAK.—Orrazkero, Elene, nire baimena, nire ederra, eskuartekoak, otseinak, eta errege-yauregikoentzat nire gorantzirik biotzetikoenak be izango dozuz; ni etxean geldituko naz, eta Yaungoikoari arren egingo zure aleginaren alde: zoaz biar; eta seguru egon onetaz, nik emon *al* dautzudan laguntzaren utsik eztozula izango. (Alde dagie).

II EK ITALDI

I AGEHLEKU.-PARIS. Errege-yauregiko txoki.

Turut-ols alai. ERREGE aunera, Firentze'ko gudurako agur egiten datorkozan Yaun gazteakin; BERTARAN, ITZUTS, eta otseinak.

ERREGEK.—Agur, yaun gazte; gudurako oñarri-legeok ez baztartu zugandik: -eta zuri, ene yaun orri, zuri be agur: -biok izan nire onuaren erkide; eta bakotxak beretzako osoan artu ba'dagizue be, biontzako asko da, onu-emai au biontzako be andirik asko da-ta.

I YAUNAK.—Gure itxaroa, yaun, gudaritzea ondo ikasita atzera gatozanean zu onik aurkitzea da.

ERREGEK.—Ez, ez, olangorik ezin izan leiteke; eta orraitiño nire biotzak eztau autortu gura nire biziari kukuka dagon gatxik dodanik. Agur, yaun gazteok; ni bizi ala il, Pantzetar aintzakogarrien seme izan zuok; Itali arroskoak, euren yarauntsitzat azkenengo errege-agintzaldiaren lur-yoteaz besterik izan eztaben italiaxrok dakusela zuok etzariela etorri ospeari kutunkeriak egiten, ospeakin ezkontzen baño; ospe-billa idabilenik adoretsuena yausi dadinean, aurrera yo ta idoro zuok billa dozuena, ospeak oio garratz dagian: esan dot, agur.

II YAUNAK.—Osasuna zu nagusien orren esaneko izango al yatzu!

ERREGEK.—Itali'ko neskak, gero! arduraz ibili areikaz; aik diñoenez, Pantzetarrak ez dira gauz ezetzik esateko, aik eskatuazkero: ez egin zuon buruak yopu gudari izan baño len.

BIAK.—Zure onuak ederresten doguz.

ERREGEK.—Agur.-Zatoz ona. (ERREGE oera doa).

I YAUNAK.—Ene yaun maite ori, zu ez al zara eraen atzean geldituko!

ITZUTS'ek.—Orrek eztau errurik; garra...

II YAUNAK.—Eup! Au gudatearen eder!

ITZUTS'ek.—Itzalez eder; olango gudurik ikusia nozu.

BERTARAN'ek.—Niri emen geldituazoten dauste, ta belarriak minduta dodaz "gazte-egi", eta "urrengo urtean" eta "goxegi da" entzunaz.

ITZUTS'ek.—Orretarako gogorik ba'dozu, mutil, ixilka alde egin baño eztozu.

BERTA.RAN'ek.—Emen egon be ni zaldi sutsua lez ostikoz lurra yoten, besteak deduz yanzten diran artean, ezpatea yantzarako bakarrik daroadala! Yaungoikoarren, ni ba-noa ixil-muxilka, ta adoretsu.

I YAUNAK.—Ixilka iges egitea yatzu deduzko.

ITZUTS'ek.—Alde egizu, konde orrek.

II YAUNAK.—Lagun izango nalxatzu; orrazkero, agur.

BERTARAN'ek.—Ni be zuokin noa; oñaze gorri da gutzako alkarregandik banatzea.

I YAUNAK,—Agur, gudalburu.

II YAUNAK.—Itzuts maite ori!

ITZUTS'ek.—Gizaguren yator goragarriok, nire ezpatea ta zuonak alkarren senide dira. Eutsiez txatar onak eta itz dizdiratsuak. ari oneko gizonok.-Spinii gudaltaldeko Spurio dalako gudalburua aurkituko dozue bere ezkerreko masallan zauri-lorratza, guduko agiria dauela; ezpata onexek egina dau arako zauria: bizirik nazala esan egiozue, eta zeatz ekarri egidazue ak diñona.

II YAUNAK.—Olantxe egingo dogu, gudalburu zindo.

ITZUTS'ek.—Bere ikasla barri zatxakozenazkero, Marte'k kutun izango al zauez! (Yaunak alde). Guk zer egiteko?

BERTARAN'ek.—Ni emen geldituko naz; errege..<

ITZUTS'ek.—Yaun zindoentzako itz beroagorik izan egizu: zuk itz otzegiz eta urriegiz agur egin dautsezu: zabalago ta ta itz-yarioago itz egin orrei, orreik erameretan orratzetik arako utsak yatzuz-eta: benetako ibilkeran, yan-edanean, itzetan gallen yatzuz, eta euren zer guztiak oraintsuengo erara egiten dabez; eta oinkadea neurtzeko danborra txerrenak berak yoarren be, olangoai yarrai bear yake: zoakiez atzetik ara, eta agur luzeagorik egiezu.

BERTARAN'ek.—Orixe egin be egingo dot.

ITZUTS'ek.—Mutil aintzakogarriak orreixek; eta segurutik gudari kementsu izatera elduko dira. (BERTARAN eta ITZUTS'ek alde).

LA'FEU aurrera.

LAFEU'k.—Azketsi nagizu, ene yaun (belaunikatu egiten da), ni ta nire barriak garealata.

ERREGEK.—Zutuntzeko agintzen dautzut.

LAFEU'k.—Orrazkero emen dozu zutunik azketsi dozun gizona. Zeu belaunbikotu al zintzazan, ene yaun, niri erruki-eske; eta nire aginduz zu zutundu al izango *a* zintzazan.

ERREGEK.—Olangorik al neu; olan izatekotan, burua ausiko neuntzun, eta gero erruki-eske yarri.

LAFEU'k.—Eskerrik asko, yaun, baña goazen gure arira: zure gatxa osatzerik gura ete dozu?

ERREGEK.—Ez.

LAFEU'k.—Ba! errege azeri orrek eztozu yan gura maatsik, ezta? Bai, zuk yango dozuz nire maats bikainak, nire errege azeriak goatu *a* ba'dauz: nik ikusita daukat arriari be bizia emongo leuskion osakaia; arriari bizia emon, atxa biztu ta zuri aurreskua, oñai biziro eraginaz, yantzazoko leuskizuna; arako aren ukutua bera bakarrik da asko Pipin erregea biztuteko, areago, Karla Andiari eskuetara idazkortza emon eta ari maite-idazki idatziazoko leuskiona.

ERREGEK.—Nori idatziazoko leuskiola?

LAFEU'k.—Osagillenoari: ene yaun, olangoxe bct eldu-barri da, zuk ikusi gura ba'dozu ikusi; nire zintzotasun eta entzute onarren, itzaldi labur eta otoz otoko onetan nire gogaketak arildu al ba'dodaz, nikin itz egin dauen emakumeak, eta emakume dala aren adina, ogibidea, yakituria ta tinkotasuna ikusirik, nire makaltasunari dagokion baño arrituago ta zurtuagorik gelditu naz. Bera eske dagotzunazkero, ikusi gura ete dozu ta bere egitekoa zer dan yakin? Ori egindakoan, barrerik asko egin nire lepotik.

ERREGEK.—Ekarridazu aurrera zer arrigarri ori, Lafeu on orrek: zu ezeze gu be arritu gadizan, naiz zu orrako orrek zelan arritu zauzanez arrituta, zure arritze ori zugandik uxatu dagigun.

LAFEU'k.—Ez, nire arritzeaz etzara arrituko, egun au amaitu baño len ikusiko dogunez. (LAFEU'k alde).

ERREGEK.—Olan itz egiten dau beti bere-bere uskeriren aurretik.

LAFEU ostera be aurrera, ELENE'kin batera.

LAFEU'k.—Ekin. ekin.

ERREGEK.—Iradu onek egoak dauz izan be.

LAFEU'k.—Bai, ekin, ekin: au dogu Nagusiena; iragarri zuk gogo dozuna: zuk saltzallaantza dozu izan; baña olango saltzalleri gitxitan dautso bildurrik Nagusienak: Kerside'n osaba nozu ni (3), bi batera izten azartzen nazana: ondo ibili (Alde dagi).

ERREGEK.—Lirain ori, zure arazoa guri dagokunik ete da?

ELENE'k.—Bai, ene yaun on. Narbon'go Gerarta izan zan nire aita; bere ogibidean on zan.

ERREGEK.—Ezagun neban.

ELENE'k.—Bide geiago nik aganako gorespenak aurreratzeko. A ezagun izatea asko da. Il-aginik oean etzala artzeko aunitz emon eustazan ak; batez be bat, bat au bere ogibideko yardunaren ondorengorik maiteentzat eta bere oar-ikusiaren kutun bakartzat, nire irugarren begitzat, beste biak baño seguruago ta maiteagotzat gorde ta eukiteko agindu eustan: olantxe dot euki be, eta zu Nagusien ori egin-eginean be nire aitaren dedu ta entzutea goren ziran zereko gaitz zakarrak yota zagozala entzunik, artzeko edo osapide ori zuri apaltasunik andienaz eskeintzen natortzu.

ERREGEK.—Eskerrik asko, neskato: baña ez izan osatuko nazanaren orren sinispera, gure osagillerik ikasíenak gu bertan-bera itxi. ta osagille-batz osoak be, yatorriz ezinbesteko danetik, gizonen trebetasunek ezin atera nagikela erabagi dauenazkero, -nire ustez eztogu lorrindu bear gure buru-argitasuna, naiz bide bako itxarorik artu, gure gaitz osa-ezina osakai-bendean yarriaz; orrako ori egitea, gure burua ta entzute ona alkarregandik banatzea litzateke, laguntzea burubakotzat dogunean, burubako laguntzea ederretsita.

ELENE'k.—Orrazkero, nik nire egitekoa bete izanak ordainduko daustaz nire nekeak: nik eztot egin gura alegin geiagorik nire egitekoa zuri buruan sarrazoten: eta zure errege-gogaketarik apalenetariko bat eskatzen dautzut ni atzera eroan nagian.

ERREGEK.—Ezin neiketzu emon ori baño gitxiagorik, esker oneko nazala esan dagizun. Zuk ni laguntzeko gogo izanarren; eta eskerrok il-aginik dagonak bera bizitea gura dabenai lez damotzudaz: baña nik osorik eta zeatz dazagudanaren txatalik be ez dazaguzu zuk; nik nire galbidea osorik eta zeatz dazagut, eta zuk eztakizu ezetariko ganora, arte edo trebetasunik.

(3) KERSIDE Toroia'tar Pandar dalakoaren illoba zan. Pandar'ek bere illobea Toril'kin ezkondu gura eban, baña Kerside'k beste gazterik maite. Bein, Pandar'ek gazíe biok alkarrekin bakarrik itxi ebazan, alkarrekin maiteminduteko asmoz.

ELENE'k.—Nik egin neikenak ezin egin okerrik zuri, eta gitxiago zelango dan ikusteak, beste osakai ta osapide guztiak baztartu dozuzanazkero. Zer andiak egiten dakian Ak goikoak sarri-sarritan bitartekorik makalenaren bidez egiten dauz; olan Idazteunak umeetan erakutsi dauz yakituria ta zurtasuna, ebazleak ume izan diranean. Ubeldarri itzalak sortu ta bidea egin dabe iturri txikietatik; eta itxaso andiak legortu egin dira andikiak alatzik sinistu-ez egin dabenean. Itxaroak sarritan uts, porrot egiten dau, eta sarrien geien uste danean; eta sarritan itxarorik gitxien dagonean eta an etsipen utsa dagonean egin-eginean yoten dau elburu-elburuan, itu-ituan.

ERREGEK.—Enoa zuri entzuten, zuri yaramonik egiten: ondo ibili, neskato lirain ori; alperriko izan diran zure nekeok, zeuk ordaindu bearko dozuz: artzen eztan opeak bere ordaintzat esker on utsa artzen dau.

ELENE'k.—Goi-argiz artu bidea olan itz utsez baztartzen dozu: olan eztau yokatzen zer guztiak dakizan Ak. Ak eztau oker ebazten, guk, ostera, agiri danez, azalez ebazten dogu: baña arrokeri utsa da gurea, Yaungoikoaren laguntzea gizonen egitetzat artzen dogunean. Yaun maite ori, ederretsi egizuz nire aleginak: ikusi Yaungoikoarren, ez niarren. Ni enozu nik al dodana baño geiago aldarrikatzen dauen marrogillerik; ni seguru nago nire trebetasunak ba-dauela indarrik. eta zure gatxa eztala osa-ezinik.

ERREGEK.—Orren seguru zagoz ala? Noiz arteko epe bearko ete dozu ni osatzeko?

ELENE'k.—On oro Beragandik datorkun Yaungoikoaren laguntzeaz, eguzkiaren zaldi bizkorrak euren egunoroko zuzi argitsua birritan ekarri baño len; Artizarrak bere zuzi loguratia sarkaldeko ur ilunetan birritan itxungi baño len; lema-gizonaren ondar-erloŕuak ogei ta lau bider minuto geldoak yoan doazala zenbatu baño len; zure soin-atal zindoetatik ustel danak alde egingo dau, osasuna bera berera biziko da, ta gatxa iñok eragozteka ilgo da.

ERREGEK.—Zure segurutasun eta uste tinkoaren alde zer yokatuko ete zeunke?

ELENE'k.—Lotsabakokeriaren galena, -zera, emagalduren azarriari aren lotsarik eza abesti zorrotz-mingorrez zabaltzea dagoko: nire neska garbi-izena txiki-txiki egizu; nire bizícr elorriorik Torrienen artscn atertu egizu.

ERREGEK.—Nire ustez zure itzotan alango gogo deunen batek itz egiten daust; ak ots ondia dagi oskin makalez: eta ostean ezintzat neunkakena sentzunez bestera izanarren, orain sentzunaren erako agiri da. Zure bizia eder be eder da; eta izan be, bizitzeak aintzakotzat eta bizigarri euki leiken oro zureak ba-dau: gaztetasuna, edertasuna, zurtasuna, adorea, zori on izengarri dan oro dozu zuk; onako guzti au galdu-gordean iminteko nai ta nai ez euki bear dozu neurribako trebetasunik, edo ostantxean biziaz itzalez etsita egon bear. Osagille ezti ori, zure osakaia zelango dan ikusi gura dot: ni il ba' nadi zure eriotza izango dan osakai ori.

ELENE'k.—Nik astirik galdu ba'dagit, naiz nik esana ustel urten ba'dadi, il nadilla iñoren erruki barik; eta ondo irabazita alan be, orrako ori. Nire osakaiak onik ez egitekotan, eriotzea bedi nire ordain; baña, onik egin ba'dagi, zer agintzen daustazu?

ERREGEK.—Egin zure eskabidea.

ELENE'k.—Baña beteko dozu ala?

ERREGEK.—Bai, nire agintza-makillearren eta zerua lortzeko dodan itxaroarren.

ELENE'k.—Orrazkero, zure errege-eskuz emon bearko daustazu, zure bendekorik nire senartzal eskatu ba'dagitzut: zure odolekoaz beste edonor; nazan apal eta beeko oni ez al yat elduko Pantze'ko errege-odolekorik ezta urrekorik be nitzako eskatzeko arrokeririk, nire odola aretarikokin nastuteko: baña zure bendekoetatik neuk zein-gura eskatzeko aukera izan dagidala, eta zuk emoteko.

ERREGEK.—Eutsi esku au: aurretikoak bete ba' dagizuz bete, zure guraria betetea nire ardurapeko; orrazkero, zeuk aukeratu zure aldia, nik zure gexo etsi onek oraindik zugan entzinik eta itxarorik ba-dot-eta. Zer geiagorik itandu bear neunskizu, eta itandu be egingo dautzut, geiagorik yakitea entzingarriago izan ezarren; nondik etorri zarean eta nor izan dozun zure yagola. Baña nasai zagoz, itaun bagarik ondo etorri ori, eta segurutik onetsi ori.-Lagun zakidaze, ee! Zure eginak zure itzak besteko ba'dadiz, nire saria ezta izango zure egina baño urri-Ianderrago, ez txikiagorik be. (Turut-ots alai. Alde dagie).

II AGERLEKU. ERRUSILON. KONDENOA'ren Yauregiko txoki.

KONDENOA ta AKETOA aurrera.

KONDENOAK.—Tiruk, yauntxo; orain yantziko aut ire ezibideari dagokionik ondoen.

AKETOAK,—Nik ondo yaten dodala ta gitxi dakidala erakutsiko dot; ba-dakit nire egitekoa errege-yauregikoa bakarrik dana.

KONDENOAK.—Errege-yauregiko izan be ire arazoa! Zer egiteko ik errege-yauregian ataz orrenbeste iguin eta narda dokanazkero? A ta guzti be errege-yauregira yoan bear dok!

AKETOAK.—Bai izan be, andera, Yaungoikoak norbaiti zelango-alango era-merak baño yesan edo emon izan ezpa'dautsaz, erraz yazo leitekena da olangoa errege-yauregian guztiak baztartzea: an zutunik garratz egon bear dozu, taketa baño artezago; txapela zelan erantzi yakin bear dozu, itzik egiteka eskuari mun egin bear dautsazu; olangok eztau ez zangorík, ez eskurik, ez ezpanik, ez txapelik: eta izan be olango urlirik elitzake gauz errege-yauregirako: baña, niketz, nik dodan erantzuna edonorentzat eta edozentzat da on.

KONDENOAK.—Ba! Itaun guztiei ondo datorken erantzuna erantzun aberatsa dok izan be.

AKETOAK.—Orrako ori bizartegiko yarlekuaren antzekotsu yatzu, eperdi guztiei ondo datorkena: eperdi estu ta nasaiei, edotariko eperdiri.

KONDENOAK.—Ire erantzuna edozein itaunentzat izango ete dok egoki?

AKETOAK.—Auzi-ordezkariaren eskurako dirua bestean egoki; Pantze'ko ogerlekoa sedaz yantzítako emagalduarentzako baxen egoki; Andoni'n erestuna Paul'en aurreko atzerako bestean egoki; koipe-taloa Aratuste-astearterako *aña* egoki; Morris-yantzea Orril-lenerako bestean; untzea bere zulorako bestean; emazte ustelaren senarrari adarrak bestean; emakume agirakalaria gizagaxo asarreari bestean; lekaime-ezpanak lekaide-agoari bestean; obeto esan, gozakiari bere estalgia bestean egoki.

KONDENOAK.—Orrako orrein egokitasunekoa ete dok guztitariko itaunentzako ire erantzuna?

AKETOAK.—Dukegandik asita ertzañaganaño yatsita edozein itauneri egoki erantzungo dautso.

KONDENOAK.—Itaun guztiai ondo datorken erantzunak itzalez andi izan bearko yok.

AKETOAK.—Ez ba. aletz uts litzateke, aituko leuken gizon zurrarentzat: emen dozu bera, ta berari dagokon oro. Ni yauregitar nazanentz itandu egidazu: yakiteak eztautzu gatxik egingo.

KONDENOAK.—Gaztetu gadizan, al ba'dogu: zoroarena egingo dot nik, ire erantzunak zurragotuko nauenaren itxaroz. Arren, yauregitar az ala?

AKETOAK.—Ene Yaungoikoa.yaun! (4). Or dozu erantzuteko bide erreza; itaun geiago egin, moltsoka betoz.

KONDENOAK.—Yaun, maite zauzan, adiskide gaxo-errukarri nozu ni.

AKETOAK.—Ene Yaungoikoa, yaun!-Bota, bota, erruki barik.

KONDENOAK.—Nire ustez, yaun, zuk ezin yan zengike onango okela ustelik.

AKETOAK.—Ene Yaungoikoa, yaun! -Ekin, ez izan nire errukirik.

KONDENOAK.—Bizkarra berotzen dauskaenean, Ene Yaungoikoa, yaun! eta ez izan nire errukirik gedar egiten ete dok? Orrako Ene Yaungoikoa, yaun! ori bai ba-dok erantzun egoki iri narrua berotzen dauskaenerako; ik ederto erantzungo eunskio narrua berotzen dauskanari. iñok olangorik iri egitekotan.

AKETOAK.—Nire bizialdian eztot izan zori txarragorik nire EneYaungoikoa, yaun! onegaz. Dakustanez, zerak gauz izan leitekez luzarorako, baña ez betirako.

KONDENOAK.—Astiaz yolasean daragoiot, astia gogara tentelekin emoteko.

AKETOAK.—Ene Yaungoikoa, yaun! -Ara! ostera be erantzuna erara datorkit.

KONDENOAK.—Tira, tira, yauntxo, amaitu egik bearleku ori. Emoiok au Elene'ri ta len baño len erantzuteko esaiok: nire gorantziak nire senide ta semeari: eztok ori zeregin andirik.

AKETOAK.—Goraintzi andirik ez beintzat areintzako.

KONDENOAK.—Ez itzako be egikizun andirik: aituten daustak?

AKETOAK.—Bai ta ondo: an nozu nire zangoak baño lenago.

KONDENOAK.—Onakoan be arin egin. (Banazean alde dagie).

(4) Gure idazlea emen aldi atako esakera barregarri-sustarbakoai zipladaka ta irrika agiri yaku.

III AGERLEKU.-PARIS. Errege-yauregiko txoki.

BERTARAN, LAFEU ta ITZUTS aurrera.

LAFEUk.—Arrigarri ta alatzak yoanak dirala dirautzue or, eta gure aldiko yakinzaleak berezkoaz goitiko ta guk zegaitik diran eztakigun yazokuneak berezko ta arront esten dabez. Ori dala-ta, guk bildurkizunak aleztzat esten doguz, eta zerak yakin dakiguzalakotzat nasai gelditzen gara, gure burua bildurkizun ezezagunaren aurrean apalik makurtu-bearrean.

ITZUTS'ek.—Izan be, egunotan yazoa arrigarririk andiena izan da.

BERTARAN'ek.—Olantxe da izan be.

LAFEU'k.—Eta ori osagillarik aipatuenak ezintzat itxita...

ITZUTS'ek.—Orixe diñot neuk be; Galenu ta Parakeltsu'k, biak, ezinlzal emona.

LAFEU'k.—Gizon yakitun eta yator guzti-guztiak...

ITZUTS'ek.—Egin-eginean be orixe.

LAFEU'k.—Orrako guztiak ezintzat emon eutzuen.

ITZUTS'ek.—Bai, or dozu ori; orixe diñot neuk be.

LAFEU'k,—Etsi-etsia.

ITZUTS'ek.—Egin-eginean; gizona etsita bailego...

LAFEU'k.—Eztagola biziterik eta eriotzea bete-betean letorkola.

ITZUTS'ek.—Ori, ori! Ondo diñozu; neu be orixe esateko nengotzun.

LAFEU'k.—Benetan esan neike orrako ori barri ta ezezagun dala guztiontzat.

ITZUTS'ek.—Ba-da izan be: olangorik erakutsiko ba'litz antzokian, zer dala esango ete zeunke?

LAFEU'k.—Zerutiko zerarena egiten dauela ludi onetako antzezlariak.

ITZUTS'ek.—Orixe esango neunkean neuk be; baí, ori berorixe.

LAFEU'k.—Errege-semea be eztago bape onik; zeragazko esan gura dol...

ITZUTS'ek.—Orrako ori iñondiko be iñondiko da; eta autortu gurako eleukena geztotan be gezto litzateke....

LAFEU'k.—Bai, or Yaungoikoaren eskua agiri da.

ITZUTS'ek.—Bai; neu be orixe esan-aginik ninduzun.

LAFEU'k.—Olango gizon makal makalik, gero...

ITZUTS'ek.—Eta bitarteko makala, al andia, berezkoaz goitikoa: eta al edo indar ori, nire ustez, errege osatzeko bakarrik barik geiagorako be erabili bear Iitzatekela, olan.

LAFEU'k.—Guztiak ederretsi ta eskerrak emoteko.

ITZUTS'ek.—Egin-eginean be orixe esateko artega nengotzun; ondo diñozu. Emen dator errege.

ERREGE, ELENE, ta ERREGE-LAGUNAK aurrera.

LAFEU'k.—Guri- guri, Olandarrek esango leukenez: agoan aginik dodan artean neskazale izango naz: ostera! Erregek aurreskua be egingo leuke.

ITZUTS'ek.—Olangorik! Ezta ori Elene ala?

LAFEU'k.—Ala Yinko, bera dala nik uste.

ERREGEK.—Oa ta ots egiek Yaun guzUei (Errege-lagun batek alde). Yezarri, nire osatzalla ori, gexo osaluaren aldamenean: eta sogorluta egoan esku osasuntsu onetara atzera bizia ekarri dozunazkero, artu bigarrenez esku onen bidez nik aginduko emaitzaren baietza, zuk izentaukoren begira dagon emaitzarena.

Yaun batzuk aurrera.

Neskato lirain ori, begira orreik: gazte-mordo yator ezkonga ori nire aukeran dago zuri emoteko, eta orrein gain dot nik nire errege-agintzea ta aita-agintzea, biak nire aukeran: aukeratu zuk zure gogara: eskubide dozu zuk aututeko, orreik ez ezetzik emoteko.

ELENE'k.—Berari gogoko yakonean, maitasunak emazte lirain ekandu oneko bana emongo al dautzue! -Et! Bateri ez, beste guztiai bai!

LAFEU'k.—Zaldi gorrizka, bere basta ta guzti, emongo neunke, nire arpegian gazteok eztaukiena, izurrik ela bizarrik ez eukitearren.

ERREGEK.—Begiratu ta zeatz so egin: orrein artean eztago bat bera be aita zindoren seme eztanik.

ELENE'k.—Yaun zindook, Yaungoikoak nire bidez errege osatu dau.

GUZTIAK.—Ba-dakigu ori, ta Yaungoikoari eskerrak zuk eginagaitik.

ELENE'k.—Ni neskatoz besterik enozue, eta neskatoz besterik enazalakoxe aberatsago

nazala dautort.--Zuri nagusien orri eder izango al yatzu, nik aukerea dagoneko eginik dot-eta; nire arpegiko gorriak txutxu-putxuka auxe dirauste: "Zuk autetsi dozulako ni gorritu egiten naz; baña zuk autetsiak ezetza emon eta esan dau: Betza betiko eriotzearen zurbilla zure pautzetan; orrazkero, gu gorriok bein be ezkara etorriko atzera".

ERREGEK.—Autu; eta bekie, zu zapuztu zagizanak neu zapuzten nauela.

ELENE'k.—Dine, nik orain zure opamaitik alde dagit, eta nire gurari-griñak nagusien eta goien dan Maitasunagantza doaz ibaika. Yaun, nire eskakizuna entzungo daustazu?

I YAUNAK.—Bai ta emon be.

ELENE'k.—Eskerrik asko, yaun; enpaduak ixilik dagoz.

LAFEU'k.—Gurago neunke ni orrek autu, nire bizia urdaia ala gizenera yokatu, nire bizia zotz egin baño.

ELENE'k.—Yaun, begietatik sua dariola dagotzun zure deduak, nik itandu baño len, erantzun mukerra damost: gurari au iragarri ta maitasun zirtzil-apal au erakusten dautzunaren aldean zori on ogei bider andiagorik emongo al dautzu Maitasunak!

II YAUNAK.—Bekitzu eder, orrenbestez goragokorik eztautsat opa nire buruari.

ELENE'k.—Ederretsi nire eskabidea, ta Maitasun andiak beteko al dau! Orrazkero, agur.

LAFEU'k.—Guztiak zapuztuten ete dabe neskato ori? Nire seme ba'lira zigorka aztinduko neunkez: edo-ta Turkerrira bidalíko, an irendu dagiezan.

ELENE'k.—(Irugarren Yaunari) Ez izan zure eskua artuko dautzudanaren bildurrik; zerorregaitik eztautzut iñoz okerrik egingo: ederretsiak eta onetsiak bediz zure gurariak! eta zoriak ni baño oekide lirainagorik emongo al dautzu. iñoiz ezkondu ba'zadiz!

LAFEU'k.—Leiezkok yatzuz mutilok: batek be eztau gura neskato ori: seguru-seguru Ingelandarren sasikume dira; orreik etxatzuz Pantzetarren seme.

ELENE'k.—Gazteegi, zori ontsuegi ta onegi zarie zuok, nire odoletiko seme-alabarik gura izateko.

IV YAUNAK.—Lirain ori, ni enozu eretxi orretakorik.

LAFEU'k.—Ba-dogu oraindik maats-mordorik..., nire ustez ire aitak ardaoa yoan edaritzat. Baña i asto uts ezpa'az, ni amalau urteko gazte nok; nik dagoneko aut ezagun.

ELENE'k.—(BERTARAN'i) Enaz azartzen zu autu ta niretzat artzen zaudazala esaten; baña nire burua ta otseintzea betiko damotzudaz, ni zure yabegoak zuzendu nagian. Au da níre gizona.

ERREGEK.—Ba, orrazkero, Bertaran gazte, artuik neskato ori; ori dok ire emazte.

BERTARAN'ek.—Nire emazte, ene yaun eta nagusi! Onango arazoan neure begien eretxia egiteko aukera ta baimena emongo al daustazuz nagusien orrek.

ERREGEK.—Ez ete dakik, Bertaran, neskato orrek nire alde zer egin dauen?

BERTARAN'ek.—Bai, ene yaun on; baña eztakit nik zegaitik orrekin ezkondu bear dodan.

ERREGEK.—Ik ba-dakik ni orrek eragi nauela gexo-oetik.

BERTARAN'ek.—Baña, ene yaun, zu eragiaz ni eratzi bear ete nau? Batari bestea ete darraio? Nik ori ondo dazagut; ori nire aitaren ardurapean azia da; osagilla landerren alabarik izan be nire emazte! -olangorik egin baño len erdeñua betor nigana!

ERREGEK.—Ik neskato orregan zapuztuten dokana orren beetiko izena dok. baña nik izen ori yantzi ta edertu-ezinik etxoaL Iñondiko da orraitiño gure odolak margo bereko, aztun bereko, ta bero bereko izan, alkarren ondoan yarri ta batetik bestera alderik ez. eta a ta guzti be alkarregandik aínbesteraño banandu bear gabezala. Neskato au al danik eta ekandurik oneneko ba' dadi..., axe bakarrik, iri etxakala begiko au osagilla landerren alaba izaterik..., -ik ekandu ona izenagaitik baztartzen dok: baña ez egik olangorik: zer onak beerengo lekutik datozanean lekua bera goratzen dok zer onon egilleak eginagaitik: apaingarri-pillorik ba'dozu aldean, baña ekandu onik ezetarikorik bez, ortik letorken dedua dedu kokaldatua. ustela dok: putz utsa, mamirik ez: ona berez dok on, izen barik be; gaiztakeria be olangoxe yak: ondasunak berak izan bear leuke gei, izenak geitasunik ezarri-bear barik. Neskato au gazte, zur, eta lirain dok; zerotan au sortzearen bitarteko bako yarausla, oñordeko dok; eta zerok dozak dedua dakarrenak; deduari irri egiten yautsak deduz yaio dala esan eta bere aita langO eztanak; dedua geitu egiten dok gure gurasoakandik barik geure egiteetatik datorkunean: itz utsa edozein ilobitan agiri dan yopu zirtzila dok; edozein ilobi-ganean guzurra diñon arrokizun; eta ain sarritan ixiIik eta iñok oartzeka, autsez eta iñok yaramonik ezez estalita yagozak ilobian benetan dedugarri izan zanaren azurrak. Zer esateko? Ik maite al ba'dok izaki au nes-

ka dan aldetik, ganetikoa ezartea nire eskuko ta nire ardurapeko izango dok; dedua ta ondasunak neuk emongo yautsazat.

BERTARAN'ek.—Nik eztot maite. eta maite izateko aleginik be eztot egingo.

ERREGEÍC.—ík eure buruari egiten dautsak oker, ire aukera-alde yarri ba'ddi.

ELENE'k.—Ene yaun, zu osatu zareala ikusiaz beste barik ni pozik nago: bego ganetikoa.

ERREGEK.—Zor yatan lotsea galdu-gordean ezpa'lego bai; eta galdu ez dadin, nire nagusitzea erabili bear dot. Autso, artuik eskutik, mutil arro-muker orrek, emaitz eder au añako ez azan orrek; ik ire zapuzkeri zirtzilaz biak nardatzen dozak: nire maitasunci ta orren irabazia; ik ezin dok susmau be aztakin-ontzitxoetan i batean eta neskato au ta beronen irabaziak bestean nik imintekotan, i arinago agertuko intzatekela; ik ezin dok sartu ire buruan nik ire omena guri ta mardo azi ta argi-argi egingo dauen tokian imini gura dodala. Aurrea emon eta gogor egiok ire mukerkeriari: men egiok gure gurariari, ire onerako dok-eta: ez egiok entzín ire mukerkeriari; men egiok eta akio esaneko ire eginbearrari ta guganako bendekotasunari eure zori onerako. Olan egik, ostantxean nire maiteen artetik erauzi ta ire gaztetasun eta ezyakinaren bide laban eta galtzoritsuetan bertan-bera itxiko aut; nire gorrotoa ta apena, biak askaiuko yoadaz zuzentzearen izenez ire ganera ezetariko erruki barik gañetu ta oldartu dadizan. Ez akit ixilik egon, itz egik! Erantzuik!

BERTARAN'ek.—Azketsi nagizu, yaun maitagarri orrek; nire olde ta burukeriari zure aurrean men eragiten dautset-eta; nik gogotan artzen dodanean zuk ori zenbaterañoko zer andi egin dozun eta zelango dedumordoa ezarri dautsazun, ikusi dakust len nire uste arroentzat be-beko zan neskato ori orain erregek goratua dala; *eia* olan goratua izatea !a goitegian yaioa izatea biak dira bat.

ERREGEK.—Arturik eskutik eutzat, eta neskato oni ire dala esaiok: eta orri bardingarria neuk ezarriko yautsat; ire ondasunak beteago egingo yoadaz.

BERTARANiek.—Niretzat artzen dot eskutik.

ERREGEK.—Zori onak eta erregen ederrak irribarre begioe zuon egiune oneri; beinbeinean ezteguak labur eta zarata bakoak izango dira, ta gau onetantxe izan be: eztegu-yai nagusi-beteak geroago egingo doguz, urrin diran adiskideak emen diranean. Maite ba'dagik neskato ori. nire ederra iritxíko dok; ez ba'dagik, ostera, okerreko bidea artuko dok.

ERREGEK, BERTARAN'ek, EIENE'k, Yaunak eta Otseinak alde).

LAFEU'k.—Eder ba'yatzu, itz bat esango dautzut, yaun.

ITZUTS'ek.—Esan zeuk zer gura, yaun.

LAFEU'k.—Zure yaun eta ugazabak ondo egin dau, bere eretxiari baztarrera eraginaz.

ITZUTS'ek.—Baziarrera eraginaz) -Nire yaun, nire ugazabak!

LAFEU'k.—Bai; eztot ondo esan ala?

ITZUTS'ek.—Ondo zakar itz egin dozu, eta olangorik nik ezin yasan odol-bíderik artzeka. Nire ugazaba izan be!

LAFEU'k.—Zer ba? Errusillon'go kondearen kide zara ala?

ITZUTS'ek.—Edozein konderen kide; konde guztien kide, ta gizon dan edonoren kide.

LAFEU'k.—Kondearen bendeko, kondearen otsein dan edozein gizonen kide esan gurako dozu: kondearen kide izatea besterik yatzu.

ITZUTS'ek.—Zu zarregi zara, yaun; ori yakitea bekít asko, zu zarregi zara.

LAFEU'k.—Yakizu, yauntxo, ni gizon nazala; eta zu etzara elduko orretara urteen urtez be.

ITZUTS'ek.—Egiten ondoegi azartuko nintzatekena enaz azartzen egiten.

LAFEU'k.—Begitik arako zer bigaitik zu gizon zurtzat euki izan zaudaz; zure yoan-etorriak dirala-ta zuk erabíli izan dozuzan putzak eta atsak eroangarririk asko izan yataz; bai, ori eroangarri yatan; orraitiño aldean daroazuzan galartzu, ikurrintxo ta beste apaingarriak zu ontzi andirik ez zauguzala sinistu eragin dauste. Oraintxe ezagun zaudaz; galdu ba'zagidaz galdu, bape eztaust ardura: zu etzara gauz puztuteko baño; eta orretarakoxe be osta-osta.

ITZUTS'ek.—Zartzaroaren eskubideak dozuzala zure alde, ostean...

LAFEU'k.—Etzakidaz asarratu orrenbesteraño, norañako zarean erakutsi-bearrean imini etzaídazan; eta olangorik yazo ba'ledi yazo... Yaungoikoa ollo orren erruki bedi! Orrazkero, sarezko nire Ieio ori, onik eta ondo zabiz: eztot nik zure leioa idigibearrik, zu zear dakust-eta. Ekazu esku ori.

ITZUTS'ek.—Ene yaun, zuk iraín gorri dagistazu.

LAFEU'k.— Bai, ta biotz biotzez; eta zu orren lain zara.

ITZUTS'ek.—Ene yaun, nik eztot irabazi olangorik.

LAFEU'k.—Boñ, benetan, azken-azkenengo bilderrañokoa: eta eztautzut kenduko bilderrik be.

ITZUTS'ek.—Tira ba, aurrerantzean zurrago izango naz.

LAFEU'k.—Len baño len izan ba'zadiz oba, ostantxean artzekoak artu bearko dozuz. Iñoz iñok zeure garrikoaz estu ba' zagiz ta zuri narrua berotu. orduan ikasiko dozu zer dan adoretsu izatea ta zer iñoren ederraren billa ibiltea; zukin ar-emonik izan gura dot zu ezagunago izateko, nozbaiten esan al dagidan: "Gizon au badazagut".

ITZUTS'ek.—Ene yaun, eroan ezin alean irain-tzen nozu.

LAFEU'k.—Nik nire aldetik geztokiko elorrio gorriak ezaniko neunskizuz. eta ni betiko al nintz zu beti elorriotan eukiteko; nik alde egin bear dot zugandik, egunen baten biziak nigandik alde egingo dauenez. (Alde dagi).

ITZUTS'ek.—Tira ba, zuk semea dozu niri egin irain onen ordea artuko daustana; yaun zorritsu, zarkote, zantar, zikin ori! Bego, epe-bearra dot nik: nok gogor egiteko nagusiai? Iñondiko erarik ba'dot, neure buruarren, bizkarreko otzak kenduko dautsadaz, dana langobi ba'litz be. Orren adinari eztautsat lotsa geiago izango zerari baño... -Yo egingo dot, iñon orrekin trikitxik ba'dagit.

LAFEU ostera be auxrera.

LAFEU'k.—Yauntxo, ezkondu da zure yaun eta ugazaba; zutzako barririk ba-dot; etzandera barria dozu.

ITZUTS'ek.—Argi ta garbi dirautzut zuri yaun orri, arren bai arren, niri irain geiagorik ez egiteko: a nire yaun on da; nik yauresten dodan goian dagona da nire ugazaba ta yabe.

LAFEU'k.—Nor? Yaungoikoa ala?

ITZUTS'ek.—Bai, yaun.

LAFEU'k.—Txerrena da zure yabea. Zegaitik aumetuten dozuz besoak olan? Zegaitik egiten dozuz zure soñekoaren besoak eskuzorro? Beste otseinak be orrako ori egiten dabe ala? Zuri oba litzakizu buruz bera ta zangoz gora ibili. Nire izen onarren, ordu bi bakarrik gazteago ba'nintz, lepoa berotuko neunskizu: nire ustez, zu guztien laido ta lotsagarri zara, ta edonok lepoa berotu bear leuskizu. Nire eretxiz, zu gizonak zure bizkarrean indarrak neurtzeko egina zara.

ITZUTS'ek.—Zuk gogor artu nozu, yaun, eta ni enozu olangoren lain.

LAFEU'k.—Tira, tira, yauntxo; zuri Itali'n narrua berotu eutzuen alesagar-azurtxo bat astu zebalako; zu aldarrai zabiltz, zu etzara benetan baztarrak ikusten dabilenik: Zure yaiotzeak eta ekanduak orretarako eskubiderik emoten dautzuen baño be zakarrago zara zu yaun eta gizon yator-begiragarrientzako. Zu itz bat geiagoren lain be etzara, ostean zital zareala esango neunskizu. Ba-noa. agur. (Alde dagi).

ITZUTS'ek.—Ondo, ondo baño obeto; orrazkero, orretan gara.-Ondo, ondo ba&o obeto. Ixilik euki >dagigun apur baten.

BERTARAN aurrera.

BERTARAN'ek.—Nireak egin yok, eta betirako lorrez beterik!

ITZUTS'ek.—Zer yazoten yatzu, maite orri?

BERTARAN'ek.—Yaupariren aurrean zin andi egin izanarren, etxoat nik a nire oean artuko.

ITZUTS'ek.—Zer, zer, maitagarri orrek?

BERTARAN'ek.—Ai ene, Itzuts, ezkondu egin naioek! Toskani'ko guduetara yoango nok ni, eta iñoz be ez artu neska a nire oean.

ITZUTS'ek.—Txakur-zulo yatzu Pantze, ta ezta gaurgero gizonek oinpean zapaltzeko lain be: guduetara!

BERTARAN'ek.—Nire amagandiko idazki etorri yatak: oraindik etxakiat zer dakarrenik.

ITZUTS'ek.—Bai, eta al zenki. Guduetara, mutil, guduetara! Dedua kutxan ezkutaurik dauka etxean emaztea besartean darabilen gizonak, bere giza-gunak aren besartean iristurik Marte'n zaldi sutsuaren goraka ta lau-oinkadai eusteko bear litzatekezan indarrak. Beste lurraldetara, beste lurraldetara! Abeletxe yatzu Pantze; eta berton bizi gareanok, zaldi zarrak; goazen, beraz, guduetara!

BERTARAN'ek.—Bai, orixe egin be egingo yoat; nire emaztea etxera bidaliko yoat, eta nire amari nik nire emazteari gorroto dautsadala ta orrexegaitik igesi dodala iragarri; erregeri idatziz esango yautsat itzez aurrez-aurre ezin esan dautsadana; ak orain emona asko izango yatak Itali'ko guduetara yoan diran gizon adoretsuekin batera biziteko: gudua uskeri ta burruka-izengarri be eztok, etxean ilunetan bizi ta norberak iguin dautsan emaztekin bizitearen aldean.

ITZUTS'ek.—Gogaldi orrek iraun eta sustarrik emongo ete dau zugan? Orretaz seguru ete zagoz?

BERTARAN'ek.—Ator nire gelara bai, ta emoidak aolkurik. Nik bertatik bidaliko yoat a emendik: biar yoango nok ni guduetara, eta a bizi-alargunaren naibageetara bidali.

ITZUTS'ek.—Tira ba, bolok aurrera doaz, eta txirloak eta zula yota iñondiko astrapalea ateraten dabe; erabagi ori gogor da izan, baña gizon gazte ezkondua gizon alperrik galdua yatzu: beraz, alde emendik, eta a adoretsu bertan-bera itxi: bai, erregek oker egin dautzu: baña. ixil! Egina eginda dago. (Alde dagie).

IV AGERLEKU.--Lengo tea. Toki bereko beste txoki.

ELENE ta AKETOA aurrera.

ELENE'k.—Amak atsegin txeratsuak bidali daustaz; onik ete dago bera?

AKETOAK.—Ez, eztago onik; baña orraitiño txarto txarto be eztago: alai alai dago; baña onik dagola esatekorik ez; orraitiño, Yaungoikoari eskerrak, on-onik dago, eta mundukorik ezer eztau bear; orraitiño be eztago onik.

ELENE'k.—On-onik ba'dago, on-onik ez egoteko ze gaitz dau?

AKETOAK.—Benetan, on-onik legoke, zer bigaitik ezpa'litz.

ELENE'k.—Zereko zer bigaitik?

AKETOAK.—Batetik, oraindik zeruan eztagolako. eta Yaungoikoak len baño len bidaliko al dau ara! Bestetik, oraindik lurrean dagolako, eta emendik Yaungoikoak albait lasterren bidaliko al dau!

ITZUTS aurrera.

ITZUTS'ek.—Yaungoikoak onetsiko al zauz, ene andera zori ontsu ori!

ELENE'k.—Ni zori ontsu izateko zure ederra ba-dodala nik uste, yaun.

ITZUTS'ek.—Ori opa izan dautzut, eta bai aurrerantzean izango be.-Ara, or dago nire zitala be!-I, nolan yagok nire andera zarra?

AKETOAK.—Zuk aren zimurrak ba'zenduz, eta ondasunak nik, zuk diñozunez al lego a.

ITZUTS'ek.—Ostera! Nik etxoat esan a nola dagonik.

AKETOAK.—Ba, egin eginean be zu orrexegaitik zara gizon zurrago; izan be, amaikatxo gizon euren miñak galtzen dauz: ezer ez esan, ezer ez egin, eer ez yakin, ezer ez eukitea zeure buruaren antzeko izatea yatzu; ori barriz larri larri ezer ez izatea yatzu.

ITZUTS'ek.—Ken akit ortik, zital ori!

AKETOAK.—Yaun, zuk zitalaren aurrean zital zareala esan bear zendukean; zera, nire aurrean zital zareala; orrako ori egia litzatekean.

ITZUTS'ek.— Tiruk, i zoro burutsu augu; ezagun aut orain.

AKETOAK.—Zeugan ezagun nozu ala, yaun? Ala iñok irakatsita nozu ezagun? Ezagute-aleginok eztira izan alperrik: eta tentelkeririk asko aurkitu zengike zugan besteen atseginerako ta barre eragiteko.

ITZUTS'ek.—Zital-zital i izan be, eta yaten ondo emona.-Andera, nire yaunak arrats onetantxe emendik alde egiteko asmoa dau: egiteko larririk ba-dau berari deiez. Garaiari dagokon zuganako maitasun-eginbearra ak autortzen dau autortu, baña bete-ezinak orretara beartuta, beingoz baztartu egiten dau; baña gogoko dana gerorako itxiazkero. gero askozaz gozoago izango da: orain apurka artzen dozuna gero neurri barik, ganezka artuko dozu.

ELENE'k.—Zer besterik gura dau ak?

ITZUTS'ek.—Erregeri bertatik agur egin dagiozula ta bertatiko agur ori al danik ondoen zuritzeko ta zure kitetik dagizula erakusteko asmau-alak asmau dagizuzala, bearrak eraginda zoazala sinisgarri egin dakion.

ELENE'k.—Zer geiagorik agintzen dau ak?

ITZUTS'ek.—Bein orrako ori eginazkero, bere gogoko danaren begira egoteko.

ELENE'k.—Edozetan nagoke aren ederraren begira.

ITZUTS'ek.—Zure esanen yakitun egingo dot.

ELENE'k.—Olantxe egin, arren.-I, yauntxo. ator. (Alde dagie).

V AGERLEKU.-Toki bereko beste txoki.

LAFEU eta BERTARAN aurrera.

LAFEU'k.—Baña, nire ustez. zuk eztozu *a* gudaritzat.

BERTARAN'ek.—Bai, ene yaun, eta adoretsutzat izan be.

LAFEU'k.—Uste ori zuk aren esanetik iritxi dozu.

BERTARAN'ek.—Baita beste autor sinisgarritik be.

LAFEU'k.—Orrazkero, nire erloiua oker dabil:

sagar zindoa usteltzat, eta birigarroa zozotzat artu izan dodaz nik.

BERTARAN'ek.—Neuk dirautzut-eta, sinis egidazu, yaun, a yakintsu-yakintsu ta, beraz, adoretsu dala.

LAFEU'k.—Orrazkero nik aren yakituri ta adorearen aurka oben egin dot: eta eretxi orretan yarraitzea niri kaltegarri yat, eretxi orretaz ezin garbaitu nazalako. Emen dator bera: alkarren adiskidetu gagizuz, arren; nik adiskide izan gura dot.

ITZUTS aurrera.

ITZUTS'ek.—Zuk esanak beteko dira, yaun (BERTARAN'i).

LAFEU'k.—*Anen. yaun, nor da* orren yosiuna?

BERTAN'ek,—Yaun!

LAFEU'k.—Ene! Ondo dazagut ori, yaun; a, yaun, beargin on yatzu, yostun on-on.

BERTARAN'ek,—(ITZUTS'eri banazean) Yoan dok a erregegana ala?

ITZUTS'ek.—Bai. yoan da.

BERTARAN'ek.—Arratseon alde egir.go ete yok?

ITZUTS'ek.—Zeuk gura dozunez.

BERTARAN'ek.—Idatzi yoadaz nire idazkiak, kutxaratu yoat nire altxorra, eta gure zaldiak gertu eukiteko be agindu yoat; eta arrats onetan, nire emaztea niretu bear neunken gau berean, asi baño len amaitu.

LAFEU'k.—Txangolari ona yataldi-ondoko gozakiaren antzekotsu yatzu; baña lautik irutan guzurra esan, eta lautik bateko egiaz iñondiko aletzak nastuten dauzanari bein entzun bear litzakio, eta iru bider bizkarra berotu. Yaungoikoa lagun bekitzu, gudalburu.

BERTARAN'ek.—Yauntxo, ik eta nire yaunak alkarri arerien bat dautsazue ala?

ITZUTS'ek.—Nik eztakit zer dala-ta gogoko enatxakon nire yaunari.

LAFEU'k.—Zu zirinean ez sartzearren, zerean sartu zara oñetako, ta aztal eta guzti iduneraño; eta andik urten-ala zangoak emon-alean iges egingo dozu, zeuez beste guztia bertan itxita.

BERTARAN'ek.—Bear ba'da, zu orretaz oker zagoz, ene yaun.

LAFEU'k.—Eta orretan iraungo dot beti, otoitzari ekiola aurkitu izan ba'neu be. Onik eta ondo ibili, ene yaun ori: eta sinis egidazu, intxaur ero onek ezin izan lei mamirik; gizon onen gogoa beronen yantziak dira; ez izan usterik eta entzinik onegan garrantziko zeretan; onango abererik ezia nozu eta euren zer-izanak ondo dazagudaz,-Agur, yaun: zuk irabazi, naiz irabaziko dozun baño obeto itz egin dot zutaz; baña orraitiño be gatxari onez erantzun bear dautsagu (Alds dagi).

ITZUTS'ek.—Zin dagit, ori zoro uts dala.

BERTARAN'ek.—Neuk be crixe uste yoat.

ITZUTS'ek.— Zer ba? Eztozu ezagun ala?

BERTARAN'ek.—Bai, ondo dazagut: eta or alasokotzat yaukiek. Emen dator nire oinbillurra.

ELENE aurrera.

ELENE'k.—Zuk agindu zendunez, erregekin itz egin dot, yaun, eta bertatik alde egiteko aren ederra iritxi dot; bakar-bakarrik zukin bakarrean itz egiteko gogo dau„

BERTARAN'ek.—Aren gurariari men egingo dautsat. Nire egipidea ez garaiari ez nire eginbearrari dagokonik izan ezarren, eztozu arritu bear zuk, Elene. Olango zeregingarako enengotzun gerturik; orregaitik egin naz orren artega; ortik dator nik zuri etxerako bidea bertatik artzeko eskatzea, eta orrako ori zegaitik eskatzen dautzudan itaunka ibili barik zeuk asmau dagizula: nire zegaitiak dirudien baño andiago dira, eta nik agindutako eginbearrak zuk uste dozun baño bete-bearrago dira. Au nire amarentzako da (Idazki damotso); egun bi yoango dira nik zu ikusi orduko; orrazkero, nik zeure sentzunaren eskuetan izten zaudaz.

ELENE'k.—Yaun, nik eztirautzut besterik zure otsein esan-esaneko izango nozula baño.

BERTARAN'ek.—Tira, tira, bego ori.

ELENE'k.—Eta nire egitekoak zintzo-zintzo ta zoli-zoli beteta beti aleginduko naz nire sortzeko izarrak geroko zori onaren aldean izan daben utsa beteteko.

BERTARAN'ek.—Bego ori; ez aitatu geiagorik: nik iradu gorria dot. Agur; arin yoan etxera.

ELENE'k.—Arren, yaun, asketsí nagizu.

BERTARAN'ek.—Tira ba, zer esan gura dozu?

ELENE'k.—Enozu ni nire ondasunaren lain: nire danik esaten be enaz azartzen, eta orraitiño be nire da; baña, lapur bildurtiaren antzera, nire dana pozík ostuko neunke.

BERTARAN'ek.—Zer gura zeunke?

ELENE'k.—Zertxobait; eta osta-osta orrenbesterik be: benetan, utsa. Eneunskizu esan gura zer gura dodan, ene yaun: -baña, bai, esango dot; -arrotzak eta arerioak bakarrik

yatzuz alkarregandik alde egitekoan alkarri munik egiten eztautsoenak.

BERTARAN'ek.—Arren, ez yarrai emen, zaldi-ganera arin egin baño.

ELENE'k.—Zure agindurik eztot ausiko, ene yaun on.

BERTARAN'ek.—Non dozak nire beste gizonak, yaun? -Agur (ELENE'k alde), zoaz ezpatea erabili ta arratz-otsa entzun al dodan artean ara gaurgero elduko enazan nire etxera: -gaioazan, eta alde dagigun emendik.

ITZUTS'ek.—Ori, ori! coragio! (5). (Alde dagie).

III EKITALDI

I AGERLEKU.-FIRENTZE.)UKE'ren Yauregiko txoki.

Turut-ots. FIRENTZE'ko DUKEA aurrera, otseinekin; Pantzetar Yaun bi, ta gudariak.

DUKEAK.—Beraz, zeatz entzun dozuez gudu onen zegaitirik andienak: dagoneko odolik ugari ixuri ta geiagoren eske dagon gudu onenak.

I YAUNAK.—Zure Ncgusitasunaren guduak onetsi dirudi; ostelariarenak, barriz, baltz eta bildurgarri.

DUKEAK.—Au dala-ta onango auzi ain zuzenean, gure lengusu Pantze'k gure eskariai entzungor egiteari andi eretxi dautsagu.

I YAUNAK.—Ene yaun on ori, nik ezin emon gure erriaren zegaitirik, erri-batzarretik landako nazanazkero aik dagiena zegaitik dan ilunetan asmauaz besterik ezin dot-eta: orrazkero enaz ezartzen nik uste dodanik esaten be, sarri-askotan zuzen nagolakotan oker egona nozu-ta.

DUKEAK.—Gogoko yakona begi Pantze'k...

II YAUNAK.—Bai, baña ni ziur nago an alperkeriak usteltzen dagozan gazte anitz eta anitz egunik-egun etorriko dirala onantza osasun-billa.

DUKEAK.—Ondo etorririk egingo yake olangoai; eta gu emoteko gei garean dedu guztia euren ganera yoango da. Zuok ba-dazaguzuez zuon mallak; adoretsuagoak yausi dadizanean, zucn onerako yausiko dira: biar gudu-tokira. (Turut-otsak. Alde dagie).

II AGERLEKU.-ERRUSILLON. KONDENOA'ren Yauregiko txoki.

KONDENOA ta AKETOA aurrera.

KONDENOAK.—Oro yazo da nire gogara. bera bere emazteaz etcrteaz beste oro.

AKETOAK. —Egon neinteke oker, baña nire ustez nire ugazaba gaztea gogo-yausi goga-yausirik dogu.

KONDENOA.—Zer ikusi izan dozu, olangorik esateko, arren?

AKETOAK,—Zer? A bere oñetakoak begira abesten egoten yatzu: idunekoa atondu, ta abestu; itaunak egin, eta abestu; agin-bitarteak zotzaz garbitu, ta abestu. Ezagun izan dot nik onan goga-yausi zan gizona etxalde bikain-ederra abesti bategaitik saldu ebana.

KONDENOAK.—Dakusadan berak zer idazten dauen, eta noz etorteko asmoa dauen. (Idazkia idigiz).

AKETOAK.—Errege-yauregian izan nazanazkero eztot nik Elixagete'ntzako zaletasunik: baserrietako neska ta Elixabeteak ez dira errege-uriko neska ta Elixabeteak langO: nire Kupida'ri garaunak atera dautsoez, eta orain nire maitasuna agureren dirumaitasuna langoxe egin da; maite bai, baña atan atseginik eta pozik artzeka.

KONDENOAK,—Zet dogu emen?

AKETOAK.—Zeuk or dozuna bera (Alde dagi).

KONDENOAK,—(Irakurri dirakur) "Errana bidali dautzut: orrek errege osatu ta ni ondatu egin nau. Emaztetzat artu dot, baña ez berorrekin etzan; eta ez etzateko betirako zin egin dct. Yakingo dozu nik igesi egin dcdala: vakizu au iñok esan-aurretik. Mundua nasairik asko ba'da, ni ta zuok bidarlo onak bananduko gauz. Nire zorra ta lotsea zutzako. Zori txarreko zure seme Bertaran'ek".

Onako au eztago ondo, mutil lasterregi ta oldartsuegi ori, olango errege onaren emarietatik alde egitea; zure buru-ganera aren asarrea eratortea, onango neska ekandu ontsua erregek berak be zapuztuko eleukena olan zapuztuta.

(5) CORAGIO itza italerazko dn tct adore esan gur.i dau.

AKETOA aurrera ostera be.

AKETOAK. Andera, andera! Barri astunak datoz; or dagoz gudari bi ta nire etzandera gaztea.

KONDENOAK,—Zer yazoten dok?

AKETOAK.—Orraitiño be, barriok pozkarririk be ba-dakarre, bai pozkarririk be bai; zure semea eztabe ilgo nik uste baxen aiin.

KONDENOAK.—Zer dala-ta il bear yoek ba?

AKETOAK.—Orixe diñot neuk be, andera, entzun dodanez igesi egin ba'dau: izan be gizonen ondamendia emakumeen aldamenean egotea yatzu, umerik izateko bidea ori izanarren. Emen datozanak emongo dautzue barririk geiago: niketz, nik dantzudana zure semeak igesi dauelakoaz besterik ezta. (Alde dagi).

EIENE ta GIZAYATOR bi aurrera.

I GIZAYATORRAK.—Yaungoikoa lagun bekitzu, andera on orri.

ELENE'k.—Andera, nire yauna yoana da, betiko yoana.

II GIZAYATORRAK,—Ez egizu esan olangorik.

KONDENOAK.—Epe artu. Itz egizue, yaunok, nik artu dodazan poz eta naibage-astinaldiak dirala-ta, lenengotan ez batzuek ez besteak eztauste zirkinik eragin nire emakume-biotzean.-Non da nire semea, arren?

II GIZAYATORRAK.-—Andera, a Firentze'ko Dukearen otsein izatera yoana da: arako bidean aurkitu dogu guk; gu andik gatoz etorri be, eta errege-urian egiteko batzuk burututa, onako bidea artu izan dogu ostera be.

ELENE'k.—Irakurri idazki au, andera; emen dozu nitzako agurra. (Irakurri dirakur). "Nire atzean dagon eta emendik alde egingo eztauan erestuna iritxi ta ni aita nauan nire soñetiko semerik erakutsi dagistazunean deituko nozu zure senar; baña olangorik ezta iñoz yazoko". Epai itzal da du.

KONDENOAK.—Zuok ekarri dozue idazki au ala, gizayatorrok?

I GIZAYATORRAK,—Bai, andera; eta tamalgarri da olango idazkirik ekarteko guk artu doguzan nekeak artu-bearra.

KONDENOAK,—Arren, andera ori, ori baño gogaldi oberik izango al dozu; naibageok zeutzako bakarrik artu ba'dagizuz, orrein erdía ostu egiten daustazu. Nire seme zan; baña oraindik aitzina eztot izango nire odoletikotzat, nire odoletik irukutzi egiten dot aren izena, eta zu zatxataz nire seme-alaba bakarra. Firentze aldera yoan da ala?

II GIZAYATORRAK.—Bai, andera.

KONDENOAK,—Eta gudari izateko?

II GIZAYATORRAK,—Ori da aren asmo guren-zindoa: eta, sinis egidazu, dukeak egoki yakon dedu guztia emongo dautsa.

KONDENOAK,—Atzera ara yoateko zare ala?

I GIZAYATORRAK.—Bai, andera, al dogunik eta arinen.

ELENE'k.—(Irakurri dirakur). "Emazterik dodan artean, eztot egitekorik Pantze'n". Onako au gogor da.

KONDENOAK.—Orrako ori be ba-diño ala?

ELENE'k.—Bai, andera.

I GIZAYATORRAK,—Zori onez, orrako ori bere eskuaren azarkeri yatzu, ez biotzak ontzat etsirik.

KONDENOAK.—Egitekorik ez Pantze'n emaztedun dan artean! Emen eztago arentzako onegi danik Elene baño; eta neskato au a lango ogei mutil zakar otseintzat leukezan eta eguneko ordu oro ugazabandera deituko leuskioen senar eta yaunaren lain da. Nor egoan akin batera?

I GIZAYATORRAK.—Otsein bat eta nik nozbaiien ezagun izan dodan gizayator bat bakarrik.

KONDENOAK.—Itzuts dalakoa ala?

I GIZAYATORRAK.—Bai. ene andera on, axe bera.

KONDENOAK.—A gizon nabar-nabarra ta geztakeria bera yatzu. Ak eraginda, nire semeak berezko ontasuna, odoletik datorkona, alperrik galtzen dau.

I GIZAYATORRAK.—Izan be, andera on, orrako urli orrek olangorik geiegi dau, eta ortik mami onik, irabazirik ateraten ba-daki.

KONDENOAK.—Ondo etorriak zarie, gizayatorrok, etxe onetara, eta nire semea ikusi dagizuenean esaiozue, arren, aren ezpateak ezin irabazi legikela galtzen dauana besteko dedurik: beste eskaritxorik be egingo dautzuet, idazki au eroan dagiozuela.

II GIZAYATORRAK.—Orretan eta garrantziko zure beste edozein arazotan zure otsein izateko gerturik gozuz, andera.

KONDENOAK.—Ez, ori ez, baña zuon itz ederren alderako, ez ete zare sartuko nikin barrura? (Kondenoak eta Gizayatorrak alde)..

ELENE'k.—"Emazterik dodan artean, eztot zereginik Pantze'n". Ezebez Pantze'n emazterik emen dauan artean! eztozu izango emazterik, ez ErrushiIIon, Pantze'n: orduan izango zara zu ostera be zure zer guztien yabe. Yaun errukarri ori! Nik iges eragin dautzut, nik egotzi zaudaz zure aberritik, eta nik imini dodaz zure azpegi samur-gu-

riak ezeri lotsarik eztautsan guduaren galdu-gordean? iNik atera zaudaz an begi lirainak zugan yosten ziran errege-yauregi olgetaritik, su-iskillo ketsuen elburu izateko? Berunezko geznari su-ganean iztartolaka arin-arin zoazenok. okerreko elburura yo: eragin zuok zulatu-ala txistu egin eta begi-geldiz begiratzen dauan eguratsari; ez ukutu nire yauna! Iñok narrua zulatu ba' dagio, nik imini dot orrako ori an orretarako; iñok yo ba'dagi bularrean aurretik ara, nik zirtzil onek eutsinda yoko dau; eta nik neronek il ezarren, neu naz aren eriotzearen errudun: oba litzakit leoi okelatiaz trikitx egin, goseak eraginda orroa dagianean: oba litzakit izadiak dauzan ezbear eta zori txar guztiak. bertatik eta batera, aldean izan. Ez; erdu zure etxera, Errusillon; erdu zure etxera entzute onak galdu-gordetik zauri-atzez besterik ezer irabazi ez eta sarritan dana galtzen dauan lekutik. Nik alde egingo dot emendik: ni emen egonak zaukaz zu emendik urrin: einen egongo ete naz ni zu or egoteko? Ez, ez, etxe onetan atsegin-baratzeko egurats gozoak putz egin, eta otsein angeruak ba'litzaz be: nik alde egingo dot, zurrumurru errukiorrak au zuri iragarri ta zure belarriak poztu dagizan. Erdu, gau ori; amaitu adi, egun ori! ilunaz bat nik lapur errukarri onek emendik ixilean alde egingo dot-eta. (Alde dagi).

III AGERLEKU.-DUKEA'ren Yauregi-aurrea

Turut-ots. FIRENTZE'ko DUKEA, BERATARAN, IT2UTS, YAUNAK, YAUREGI-OTSEINAK, GUDARIAK, eta beste batzuk aurrera.

DUKEAK.—Zu zara gure zaldizkoen gudalburua; eta guk, itxarotsu, zure zori on ernarian yarten dogu gure ederrik eta usterik onena.

BERTARAN'ek.—Yaun, orrako ori nire indarrarentzat egiteko astunegi da; orraitiño eginalak egingo dodaz zugaitik eroateko, galdu-gordearen azken-azkeneraño.

DUKEAK.—Orrazkero, aurrera yo; eta zori ona izango al da zure neska maite, ta burukotzat gurenda-burestuna ezarriko al dautzu!

BERTARAN'ek.—Egun onetantxe, Marte andi, egun onetantxe iminten yoat nire burua ire lerroetan; nire gurariak añako bakarrik egin nagik bai, ta ni ire gudu-arratzaren maitale, maitasunaren arerio egingo nok. (Alde dagie).

IV AGERLEKU.-ERRUSILLON, KONDENOA'ren Yauregiko txoki.

KONDENOA \a ONDASUNZAÑA aurrera.

KONDENOAK.—Ai enetxoa! Zegaitik artu dautsazu idazkí au? Ez eíe zendun susmau niri idatziazkero, egin dauana egingo ebana? Barriro irakurri egidazu.

ONDASUNZAÑAK.—(Irakurri dirakur). "Ni Yaçjoba Deunanerako bidazti nozu, ara *yoana;* yoranez billatuko maitasunak irain-irain egin nau-ta, oin-utsik zapaltzen dot lurra, nire uts eta obenak Yaungoikoagazko opariz ordainízeko. Idatziozu, idatziozu, gudu odoltsutik nire ugazaba maite, zure seme maiteak arin alde dagian: onespenez eta bakez artu egizu etxean, nik bitartean urrinetik aren izena irrika leiatsuz goratzen dodala: esaiozu ak orain artu izaneko nekelorrak azketsi dagistazala: Nik, aren Yune muker onek, nik bidali dot *a* errege-yauregiko bere adiskideak itxiazota, izar-pean arerioekin biziteko, eriotzea (a galdu-gordea gizon aintzakoai, txakurrak lez, orpozorpo darraikiezan lekura: onegi ta lirainegi da *a* eriotzearentzako ta nitzako; eriotzea neuk estutuko dot besartean, a askatzeko".

KONDENOAK.—Ene! aren itzik bigunen-samurrenetan bai dagozala ziztada mingorrak! Erreinalda, eguño eztozu izan buru gitxiagorik ari olangorik egiten itxi dautsazunean baño; nik itzik egin izan ba' neuntso, bere asmoetatik alde eragin izango neuntsan, baña yazo danez ak aurreak artu daustaz.

ONDASUNZAÑAK.—Azketsi nagizu, andera: nik ori bart emon izan ba'neuntzu, ba-leítekean Elene'ri zuk aurreak artzea, baña orain, berak idatziz diñonez, aren yarrai yoatea alperrik litzateke.

KONDENOAK.—Nongo angeruk onesteko aintzako eztan senar au? Ari ezetara be ezin yoan Iekikioz zerak ondo. begiko yakozan Elene'n otoitzak entzunda, Yaungoíko zuzenak Bere asarrea baretu ta nire semeari bere oben baltza asketsi ezpa'dagio. idatzi, idatzi, Erreinalda, bere emaztegarri eztan orreri. Itz bakotxak goretsi dagiala nire seme orrek ain gitxiesten dauan aren laina: *a* olangoz gitxi oartuarren, al danik

eta agirien eta zorrotzen idatzi egiozu nire naibagea. Ondoen deretxatzun geznaria bidali: -zori onez, bere emazteak emendik alde egin dauela yakin dagianean, atzera etorríko da; eta itxaro be itxaro dot emazteak bere senarra emen dala entzun dagíanean, bera be oñak emon-alean arin, atzera ona etorriko dala maitasunaren maitasunak eraginda: bietarik zein dodan maiteago ezin dot igarri nire biotzean:-- billatu geznaria; -biotza astun eta naibagepean itoten dot, eta níre adina makal da; naibageak negar, eta estukureak itz eragiten daust. (Alde dagie).

V AGERLEKU.-FIRENTZE'ko Arresietatik landa.

FIRENTZE'ko atso Alargun, DINE, BOLENTE, MARENE, ta beste Urikide batzuk aurrera.

ALARGUNAK.—Erdu arin; ostean, urira datoz-eta, ikuskizun guztia galduko dogu.

DINE'k.—Or diñoenez, itzalez ondo yokatu dau Pantzetar Kondeak.

ALARGUNAK.—Izan be, or diñoenez, ak arerioen gudalbururik nagusiena goatu dau; eta bere eskuz il ei dau dukearen anaiea. (urut-ots urrinean). Gure nekeak alperrik galdu dira; beste bideren bat artu dabe: so! euren turut-otsetik da ezagun ori.

MERENE'k.—Tira, goazen atzera, eta durundu ori entzutea bekigu asko. Dine, Pantzetar konde orrekin arduraz ibili, gero: bere izen ona yatzu neskaren dedua eta neskarentzako zintzotasuna baño yarauntsi oberik eztago.

ALARGUNAK.—Nik esan dautsat auzokoari aren lagun gizayatorrak zu ziri-zirika erabili zauzala.

MARENE'k.—Ezagun yat orrako zital ori; eskegiko al dabe! Itzuts deretxoena da; lotsabako andi ori, alango ori darabil kontandeak bitartekotzat bere maitekeri-arazoetan.-Arduraz zabiz, gero. biokaz be, Dine; orrein agindu, lilura. zin, emari, ta zantarkeriaren onetariko beste asmakizun guztiak, ez dira dirudienik: olangoen bidez amaikatxo atzipetu dabe, amaikatxori ziri ederrik sartu izan dautse; zori txarrez, besteri yazoak eztautse ezer irakasten neska gazteai eta ezer ikasiko ba'dabe, eurak yasan bear dabe arteztuterik eztaukana; sareetan goatuta gelditzen dira. Onurik asko emon dautzudala nik uste: orainarte lez bide onez ibiliko zareala uste dot, zure zindotasuna galtzeaz beste galdu-gorderik ezpa-letorkit zu be.

DINE'k.—Eztozu izango nitaz bildurrik izanbearrik.

ALARGUNAK.—Neuk be orixe uste dot. Begira, bidazti guren bat dator or: ba-dakit nire etxean etzango dana: orretarikoak alkar bidaltzen dabe nirera; itandu egingo dautsat neskato orri.

ELENE aurrera, bidazti gurenez yantzita.

Yaungoikoa lagun bekitzu, bidazti guren orri! Norako zara?

ELENE'k.—Yagoba Nagusi Deunanerako. Non etzaten dira bidazti gurenak, arren?

ALARGUNAK.—Emen Pantzeska Deunare*nean, kai-cndoan.*

ELENE'k.—Arako bidea ete daroat?

ALARGUNAK.—Bai, benetan, arakoxea.-So! Onantza datoz. (Ibilte-eresi urrinean). Emen etxon gura ba'dozu, bidazti guren orrek, gudari-taldeak gure aurretik igaro arteño, neuk erakutsiko dautzut zure arroztegirako bidea; zure arroztaria neure burua añan ezagun dot-eta, ainbat egokiago erakutsiko dautzut bidea.

ELENE'k.—Zeu zara ala?

ALARGUNAK.—Bai, bidazti guren ori, eta eder izango al yatzu.

ELENE'k.—Eskerrik asko, eta zeuk gura aña luzaro egongo be.

ALARGUNAK.—-Nire ustez, zu Pantze'tik zatoz, ezta?

ELENE'k.—Bai, izan be.

ALARGUNAK.—Emen ikusiko dozu egiteko andiak egin dauzan zure aberkide.

ELENE'k.—Bere izena, arren?

DINE'k.—Errusillon'go Kondea; ezagun ete dozu olangorik?

ELENE'k.—Entzunez bakarrik, eta orretaz entzun dodana goragarri da. Arpegiz eztot ezagun.

DINE'k.—Dana dala, ta dalako dala. emen gudari adoretsutzat dabe guztiak. Or diñoenez, Pantze'tik igesia da, ango erregek orren gogoaz bestera ezkonduazo ebalako: olan izan ete da?

ELENE'k.—Orrako ori egi utsa da, urrean; orren emaztea ezagun dot.

DINE'k.—Orren lagungoan dagon gizayator batek txakurrenak esaten dauz orren emazteaz.

ELENE'k.—Zer yako izena?

DINE'k.—Itzuts.

ELENE'k.—Neu be orrako orren erizkide naz; gorespen-arloan, naiz konde andiaren lai-

nen aldean, aren emaztearen izena aitatzeko be zirtzilegi dala; emazte ak bere alde dauan zer bakarra bere zíntzotasuna dau, eta ori iñok ez-baian yarri dauanik eztot entzun.

DINE'k.—Ene! andera orren gaxo! lokarri gogorra da iguin dautson senarraren emazte izatea.

ALARGUNAK.—Bai. izan be; dagon lekuan dagola, errukarriak biotza ondo naibageturik izango dau: neska onek, beronek gura ba'leu, ziri ederra sartuko leuskio kondeari, bere emazteagazko.

ELENE'k.—Zer esan gura dozu? Bear ba'da, konde maitabereak bere asmo zantarretarako ziri-zirika darabil neska ori.

ALARGUNAK.—Izan be, olan darabil; eta orretarako, neskearen izen on samurra galduazoteko bide guztiak artzen dauz; baña neskeak bere burua ta zindotasuna yagoteko iskillo onak dauz.

MARENE'k.—Yaungoikoz ez al da izango besterik!

AL ARGUNAK.—Ba-datoz...

Arratz eta ikurriñekaz, Firentzetarren gudaroste-sail, BERTARAN, eta ITZUTS aurrera.

Ango a Andoni, dukearen semerik zarrena yatzu: a bestea Eskalu.

ELENE'k.—Zein da Pantzetarra?

DINE'k.—A; buruan egaki dakarrena: a gizon adoretsu-adoretsu yatzu. Bere emaztea maite al leu: zintzoago ba'litz, oba litzateke: ez ete da gizon eder?

ELENE'k.—Gogoko-gogoko yat.

DINE'k.—Ez ete da tamalgarri ori zintzo ez izatea? A aragokoa yatzu gizon ori onango lekuetara ekarten dauan zitala; ni emazte ba' nintxako, zital zirtzil ori edenez galduko neunke.

ELENE'k.—Zein da orrako ori?

DINE'k.—Idun-apaingarridun matxango ori. Zegaitik ete dago goga-yausi ta gotilun?

ELENE'k.—Guduan min artu edo-dau.

ITZUTS'ek.—Gure arratza galdu! Onangorik!

MARENE'k.—Zerbaitek mindu-minduta dago: begira, begi-zearka ikusi gauz.

ALARGUNAK.—Eskegiko al dabe, txarri ori!

MARENE'k.—Koipekerietan zabilkoz kirten lotsabako orri? (BERTARAN, ITZUTS, Malako gudari ta Gudariak alde).

ALARGUNAK.—Gudarí-taldea yoana da. Erdu, bidazti guren ori, neuk eroango zaudaz zure arroztegira: an Yagoba Nagusi Deunanerako lau-bost dagoz, euren bideburura eltzeko erabagia artuak.

ELENE'k.—Nire eskerrik onenak damotzudaz apal-apalik: andeia oni ta neska yator oni gogoko izango al yake arratseon gukin apaltzea; oneik egingo daben zorra ta eskenak nire leporako bediz: eta zuri obeto ordaintzeko, neskato onetaz entzungarri diran onu batzuk emongo dautzudaz.

BIAK.—Eskeintzen dauskuzuna ederresten dogu. (Alde dagie).

VI AGERLEKU.-FIRENTZE-aurreko gudaltegia.

BERTARAN, eta Pantzetar Yaun biak aurrera.

I YAUNAK.—Itxiozu, itxiozu, ene yaun on orrek, berea egiten, nolango dan dakusagun.

II YA.UNAK.—Zuk, yaun orrek, a alper-nagi ta koldar-bildurti utsa dala aurkitu ezpa' dagizu, gaurgero enagizu aintzakotzat euki.

I YAUNAK.—Neure bizia egingo neunke, ene yaun, a arroputz uts dala.

BERTARAN'ek.—Nire ustea orrenbesteraño okerra dala uste dozue ala?

I YAUNAK.—Sinis egidazu, ene yaun, neuk ikusirik dodana; ezetariko gogo txar barik eta neure senide bailitzan esango dautzut a koldar-bildurtirik andiena, atzenbako guzurtia, agindua une oro austen dauana, eta zure lagun izateko ezetariko zer onik eztaukana dala.

II YAUNAK.—Egoki litzakitzu zuk a ezagun izatea; ak eztaukozan ekandu onetan zuk uste geiegi iminita, arazo andi entzin-bearrekoen baten, galdu-gorde andíren baten, uts egin ez dagitzun.

BERTARAN'ek.—Al nenki zetan ikusi *a* zelango dan.

II YAUNAK.—Orretarako eztozu bide oberik bere arratzaren billa yoaten ari iztea baño; zeuk entzun dozu esaten ustetsu be ustetsu aren billa yoango litzatekela.

I YAUNAK.—Neu yausiko natxako ganera otos-otoan Firentzetar gudariakin; neuk yakingo dot zer egin, adiskidetzat barik areriotzat artu gagizan: lotu ta begiak estaliko dautsaguz eta arerioak euren gudaltegira daroela uste izango dau guk gure txoznetara dakargunean. Zagoz zu, yaun ori, aurrean guk a aztertuko dogunean: eta a, bizirik iztea agintzearren, bildurrik andienak eraginda, zuri azpikeri egiteko, eta zure kalterako dakian guztia arerioari esan

ezpa'dagio, eta guzti ori Yaungoikoaren zigorraren bildur barík zin-bidez, nire eretxiri ez egiozu iñoz yaramonik egin.

II YAUNAK.—Ene! barre egiteko baño ezpa' da be, itxi egiozu bere arratzaren billa yoaten; orretarako marroren yabe dala esaka dabil: ori noraño eltzen dan ikusi bear dozu; urre-antzeko mea ori ustel dala ikusi bear dozu: eta izan be, Yon Drum'en antzera bere burua danez erakusteko eretirik emon ezpa'dagiozu, orreganako zure ederra deusezterik eztago. Emen dator bera.

I YAUNAK.—Arren, bai, arren, barre egin eta eragiteko baño ezpa'da be, ez egiozu galazo gogoko yakon asmoa beteten: doala bere arratzaren billa berak zelan-gura.

ITZUTS aurrera.

BERTARAN'ek.—Ze barri yoguk, yaun? Ire arratzak estu ta artega au i.

II YAUNAK.—Ulikan! Itxiozu bakean; arratz baño ezta.

ITZUTS'ek.—Arratz baño ez! Arratz baño ez ete da ba? Arratzik olan galdu-bearrarena!-Yokabidearen ederra! gure zaldizkoen bitartetik aurrera yo, gure oñezko gudaritzearen egoen ganera yausi ta gure gudariak urratu.

II YAUNAK.—Orretan eztau izan errurik gudalburuak; Kaisar bera or izan ba'Iitz be ezin ikusi eikean aurrezdik olango okerrik eta ezbearrik.

BERTARAN'ek.—Tira, osoan artuta, gure gurendea ezta izan orren txarto urten danik: akatsik eta laidorik izan dogu arratza galduuaz; baña a barriro eskuratzerik eztago.

ITZUTS'ek.—A eskuratu eitekean barriro.

BERTARAN'ek.—Bai, eskuratu eitekean, baña orain ezin daiteke.

ITZUTS'ek.—Eskuratu bear da barTÍro: otseintzearen irabazia sarritan benetako ta egin-egineko egilleari barik besteri ezarriko ezpa'litxako, neu egingo nintzake arratz orren yabe ostera be; aren naiz besteren, ostean hic iacet (emen datza) esan nitaz.

BERTARAN'ek.—Ba orrazkero, ta olangorik egiteko gogaldirik ba'dok, yaun, ire marro ezkutuen bat dala-ta gure deduari dagokon lanabas ori bere etxe yatorrera ekarri al ba'dok, adoretsu ta bioztun adi ire egitekoan, eta aurrera yo; ire alegina nik zer anditzat artuko yoat, artu ta saritu; ondo burutu ba'dagik ire egitekoa, dukeariri iragarriko yautsaguk, eta bere anditasunari ta ire irabaziari dagokenez sarituko au, bapez gitxiagorik.

ITZUTS'ek.—Gudari-esku auarren, neure leporako egiteko ori.

BERTARAN'ek.—Lorik eztok egin bear, gero; bertatik egin egitekoa.

ITZUTS'ek.—Arrats onetantxe egingo dot; bein nire asmoak ausmer egin bear dodaz eta adorea biribildu il ala bizirako gertakuntza odoltsu onetan, eta gaberdirantza nire barririk entzuteko gertu egon zuok.

BERTARAN'ek.—Esango ete yautsat dukeari i arratz-billa yoan azanik?

ITZUTS'ek.—Nik eztakit zer yazoko yatan, ene yaun, baña aleginak egingo dodazala zin dagit.

BERTARAN'ek.—Ba-yakiat adoretsu azana; eta nik izenpetuko yoat ik gudarik egin leikena egingo dokala. Agur.

ITZUTS'ek.—Enozu ni itz aunitz egin-zalerik. (Alde dagi).

I YAUNAK.—Ez arraña ur-zale dan baño itzzaleagorik.-Urli ori ez ete dogu iñondiko, ene yaun? Ezina dan egiteko au orren ustetsu leporatzen dauala dirudi-ta: denganiñoen egitekoa artzen dau beregan, eta gurago dau denganiño izan egikizun ori egin baño.

II YAUNAK.—Zuk eztozu ezagun ori, ene yaun orrek, guk dazagunez; urli ori zirauna baño ixilago urreratuko yatzu zure edena irabazteko, eta aldikada baten bere burua ezkutauko dau ezer txarrik igarri eztagiozun; baña bein ezagutu ba'dagizu, eztozu besterik bearko.

BERTARAN'ek.—Zer dala-ta uste dozue zuok, orren benetan bere lepora artu dauan egiteko zail ori eztauala burutuko?

I YAUNAK.—Ez, eztau burutuko ezetara be; asmatzekoak asmauta etorriko yatzu atzera, ta egi- antzeko iru-lau guzur eralgiko dautzuz arropuzkeriz: baña guk ia esibarruratu dogu, eta arratseon ikusiko dozu zelan yausten dan eize ori: eta izan be, ori, ez olangorik ezta zure edergarri.

II YAUNAK.—Azeri orregaz yolasik egin bear dogu, kutxaratu baño Ien. Zulotik aterateko kea orreri lenen Lafeu agureak egin eutsan: ardi-narrua kendu dagiogunean or ikusiko dozu ori zelango Iuki maltzur-zitala dan; eta arrats onetantxe ikusi be ikusiko dozu.

I YAUNAK.—Begiztea gertau bear dot; yausiko da.

BERTARAN'ek.—Zure anaiea izango yat lagun.

I YAUNAK.—Zeuri eder yatzunez egin: ni banoa. (Alde dagi).

BERTARAN'ek.—Orain arakc eixera eroan eia nik esan dautzudan neskatoa erakutsiko dautzut.

II YAUNAK.—Baña zuk a zindo dala esan daustazu.

BERTARAN'ek.—Orixe da aren akats bakarra: eta izan be, usaña artu dautsagun bitaríeko orrexeii biiuríÉz emuriuk eia idazki bidali dautsadaz eta ak atzera bidali: au da nik egin dodan guztia. Neskato a lirain da: gurozu a ikusten yoan?

II YAUNAK.—Gogo-gogoz alan be, ene yaun. (Alde dagie).

VII AGERLEKU.--FIRENTZ !. Alargunaren etxeko txoki.

ELENE ta ALARGUNA aurrera.

ELENE'k.—Ni aren emazte nazala sinistu gura ez edo ezin ba'dozu, eztakit ze beste argibiderik zuri ekarri, sinis dagizun; nire asmoa bertan-bera itxi bearko dot.

ALARGUNAK.—Nire ondasunak yoanak izanarren, ni etxe oneko naz izan, eta olango ziltzi-maltza ta matazetan enozu bape be aiturik; eta nire izen ona orbandu leikenik eztot egin gura.

ELENE'k.—Neuk be eneunskitzu gura olangorik. Beñen sinis egidazu kondea nire senar dala, eta nik ixilpean esan dautzudana egi uts-utsa dala; eta orrazkero nik eskatzen dautzudan laguntzatik etxatzu etoniko ezetariko okerrik.

ALARGUNAK.—Nik sinistu bear neunskizu, zuk erakutsi daustazunetik ondasuntsu zareala ondo agiri da-ta.

ELENE'k.—Eutsi urre-zisku au zure laguntzea irabazi dagidan, eta nire asmoa bete dagidanean ganaz ordainduko dautsut bein eta birritan. Nire alabearen billa dabil Kondea. eta orren liraintasunari ak, lotsea galduta, eraso ta eraso daragoio, orrekin alde egiteko asmoz; aren ekinaren ekinez etsi dagiala zure alabeak eta ederretsi dagiala guk esango dautsaguna. Gazte lizun ak, odol beroak eraginda, eztautso ukatuko zure alabeari onek eskatu dagionik: kondeak erestun bat daroa aldean, lenengoz eroan eban aitagandik ona lau-bost bat belaunetan urrengorik urrengo semegandik semegana etorri izan dana; erestun ori ak aintzako aintzakotzat dau; orraitiño, aren lizunkeri-beroaldian, neskearen biotza irabazteko bear ba'da, eztautso eritxiko lainegi, gero damutuko ba'yako be.

ALARGUNAK.—Oraintxe bai ba-dakust zure asmoa oso-osoan.

ELENE'k.—Orrazkero nire egitekoa soritzat dozu orain: dana da zure alabeak, osoan irabazia danarena egin baño len ari erestun ori eskatzea; alkarrekin batzeko ordua ta lekua izentau; gero neu bidali bere lekura, bera garbi-garbi andik urrin dala; geroago, zure alabea ezkontzeko, orainarte emonaz ganera iru milla ogerleko emongo dautzudaz.

ALARGUNAK.—Etsita nagotzu: irakatsi egiozu nire alabeari, aldi, ordu ta guzti, zer egin bear dauan marro sori ori ondo urten dadin. Gau oro etorten da *a* ereslari ta guzti nire ezer eztan alabeari abestuteko: iñondiko aleginak eginak gara *a* gure etxeegalpetik uxatzeko; baña *a* andik uxatzerik eztago, bere bizia an bailego.

ELENE'k.—Ba, orrazkero, dakusagun gaur: gabaz gure marroa zelan urteten dan; ondo urten ba'dadi, oker egitekoren irudiz egite zuzena agertuko da, eta zuzen egitekoren irudiz, egitekoa zuzen eginda; bata be ezta obenik, baña bai oben-antzekorik; baña ekin dagiogun egitekoari. (Alde dagie).

IV EKITALDI

I AGERLEKU.-FIRENTZE'tarren gudari-txozneatik landa.

Lenengo Yauna ta bost edo sei gudari kukuka aurrera.

I YAUNAK.—Nai ta nai ez esi onen okulua zear etorri bear dau. Ganeratuko zatxakoezanean, iñondiko izkuntza itzalez itz egiozue; eztau ardura zeuok be zer diñozuen ez yakitea; ezer aituten eztautsagunarena egin bear dogu guk, batek ezik, eta bat orrak aitutzallearena ta iragarlearena egin dagiala.

I GUDARIAK.—Gudalburu on ori, neu izentau nagizu iragarlatzat.

I YAUNAK.—Ak etzauz ezagun ala? Eztau ezagun zure berba-eikerea ala?

I GUDARIAK.—Ez, yaun, ez izan orren bildurrik.

I YAUNAK.—Baña ze naste-borraste erabiliko dok guri itz egiteko?

I GUDARIAK.—Zeuok erabiliko dozuena bera.

I YAUNAK.—Ak gure arerioaren lagun diran erbestetar lagun-mordotzat artu bear gaiozak. Ak emen inguruko izkuntzen iskitxo bat ba-yakik; orregaitik, guretaiko bakotxak bere irudimenari lan apurtxo bat eragin bear dautsa, guk alkarri zer esaten dautsagun ak aitu eztagian; gutzako yakinbearrena eskuartean zer darabilgun yakitea ta orretaz oartzea da: izkuntza trakets erabiliko dogu; ik, iragarla orrek, ik zur ibili bear dok; zur eta maltzur; etxun, etxun, or dator bera! or dator ori ordu bian erdi-lotan atzarrik egon, eta gero atzera etorrita berorrek asmau-ala guzur zin-bidez baiesteko.

ITZUTS aurrera.

ITZUTS'ek.—Amarrak dira: astirik asko izango dot iru ordu-barru atzera etxera yoateko. Zer egin dodala esango dot? Asmauko dodanak egi-antzik izan bearko dau; kea egiten asi yataz; eta ezbearra oraintsu sarriegi etorri yat ate-yoka. Dakustanez, nire miña azarriegi da; baña nire biotza Marte'n eta bere egitekoen bildur da, eta ezta azartzen miñari erantzuten.

I YAUNAK.—Ire miñetik urten dan lenengo egia orixe dok.

ITZUTS'ek.—(Bere kitean) Nongo txerrenek naragi zori oneko arratz ori eskuratzera, orrako ori ezína dala ta nik olango asmorik eztodala izan yakinda? Zaurien batzuk egin bear dautsadaz neure buruari, eta burrukan izan dodazala esan: orraitiño zauri txikirik ezta asko izango: izan be, esango dabe: Nolan eztok izan orreik baño zauri andiagorik? Eta nire buruari zauri andiagorik egiten enaz azartzen. Orrazkero, ze sinisgarri aterateko nik? Ene miñ ori, ene miñ ori, gaurtik ara ire itzontzikeriz onango estukuretan imini ba'nagik, i emakume sardinsaltzalleren agoan iminita, Bayazet'eri {6) erosi bearko yautsal beste bat bere mintzuletatik.

I YAUNAK.—Izan ete leiteke orrek bere burua ezagutu, ta dana izaterik?

ITZUTS'ek.—Nire egiterako asko al litzakit nire soñekoak ebatea, naiz España'tiko nire ezpatea austea.

I YAUNAK.—(Bere kitean) Olangorik etxoagu ontzat artuko.

ITZUTS'ek.—Naiz nire bizarra kendu, ta gero esan onako au marro-bidez egin izan dodala.

I YAUNAK.—Orrako ori ez yak gauz izango. {Bere kitean).

ITZUTS'ek.—Naiz uretan busti-busti egin nire soñekoak, eta billustu egin nabela esan.

I YAUNAK.—(Bere kitean) Ori be nekez gauz izango dok.

ITZUTS'ek.—Eta zin egingo ba'neu iskillo-gaztelua-bera neure buruari itxi dautsadala...

I YAUNAK.—(Bere kitean) Zenbateko bidean?

ITZUTS'ek.—Eun eta larogei oñako bidean.

I YAUNAK,—(Bere kitean) Iru zin andi be elitzatekezak asko olangorik sinistuazoteko.

ITZUTS'ek.—Arerioarena izatekotan be arratzik al neu! neu aren yabetu nazala zin egingo neunke.

I YAUNAK.—(Bere kitean) Oraintxe entzungo dok orretariko bat.

ITZUTS'ek.—(Barruan arratz-ots) Arerioen arratz-ots!

I YAUNAK.—Throka noboususs, kargo, kargo, kargo.

GUZTIAK.—Xargo, kargo, kargo, bilianda par korbo.bargo.

ITZUTS'ek.—Ene! Yarei-erosi, yarei-erosi, arren: ez estali niri begirik (Goatu ta begiak estaltzen dautsoez).

I GUDARIAK.—Boskos thromuldo boskos.

ITZUTS'ek.—Nik ba-dakit zuok Musko'n gudari-taldea zariena, eta bizia galduko dot izkuntzea ez yakiteagaitik: emen Doistarrik, Danekarkatarrik, Olandarrik, Italiarrik, naiz Pantzetarrik izatekotan, itz begist; neuk iragarriko dautzuet Firentzetarrak ondatuko dauzana.

II GUDARIAK,—Boskos baubado: ...nik ulertzen dauskat, eta ba-yakiat ire izkuntzea: korelibonto: I, yaun, gertau adi Yaungoikoaren aurrerako, ire bularrean sartzeko amazazpi sastai gertu yagozak-eta.

ITZUTS'ek.—Ai ene!

I GUDARIAK.—Bai, otoi egin, otoi egik.-Manka errebania dultxe.

I YAUNAK.—Oskorbi dultxos boliborko.

I GUDARIAK.—Gudalburuari eder yakok i bein-beinean bizirik eukitea; eta agonetan, begiak estalita eroango au igandik barririk yakiteko: ire onerako ta ire biziaren alderako zerbcút iragarri einke.

(6) BAIAZET'en MINTZULAK.—Baiazet izeneko ainbat Turkar bakaldun izan dira, ta Shakespeare'n egunetakoak be izen orixe eukan. Turkar bakaldunen otseinak ezer esateka, ixil-ixilik artu ta egin bear izaten ebezan nagusiaren aginduak, ez eurenez mintzul ziralako, mintzulen antzez yokatu bear ebelako baño.

ITZUTS'ek.—Ene! Bizirik itxi nagizue bai, ta nik gure aldeko ixilkizunak oro iragarriko dautzuedaz, gureen indarra ta euren asmoak: areago, zuok arrituta agoa zabalik itxiko zauezana iragarriko dautzuet.

I GUDARIAK.—Baña zintzo, zeatz eta egiz esango ete dok, gero?

ITZUTS'ek.—Egia esan ezpa'dagit, Yaungoikoak gaiztetsi nagiala.

I GUDARIAK.—Akordo linta.-Gaioazan; abil. (Alde dagi, ITZUTS yagonda daroala).

I YAUNAK.—Oa ta esaiek Errusillon'qo kondeari ta nire anaieari ollar arroa goatu dogula ta begiak estalita eukiko dogula euren barri izan arte.

II GUDARIAK.—Esango dautset, gudalburu.

I YAUNAK.—Eta esaiek ak gure ixilkizun guztiak iragarriko dauzala.

II GUDARIAK.—Orixe esango dautset, yaun.

I YAUNAK.—Ordurarte begiak itxita ta ondo estuta eukiko yoat. (Alde dagie).

II AGERLEKU.-FIRENT/ ',. Alargunareneko txoki.

BERTARAN eta DINE aurrera.

BERTARAN'ek.—Zuri izena Iturreder yatzula esan eusten.

DINE'k.—Ez, Dine yat izena, ene yaun on.

BERTARAN'ek.—Yainkono-izena; eta benetan zu izen orren eta geiagorengarri zara! baña, neska lirain, zure soin Iirain orretan moitasunak ez ete dau lekurik? Gaztearoko su biziak zure adimena argitzen ezpa' dau, zu etzara neskarik, oroitallu baño: il zadizanean, oraintxe zareana izan bear zenduke zuk, otz eta ben zara-ta; orain, ostera, zu sortu zinduzanean zure ama izan zan langoxe izan bear zenduke.

DINE'k.—A tertzio atan zindo izan zan.

BERTARAN'ek.—Alangoxe izan bear zenduke zeuk be.

DINE'k.—Ez: nire amak egin-bearra beteaz besterik ez eban egin; zuk zure emazteari egin bear zeunskiona bera.

BERTARAN'ek.—Bego ori! Arren, enagizu eragin nire zinak ausiazotera: nire gogoaz bestera ezkonduazo ninduen arekin; zu, ostera, maitasunak berak eraginda maite zaudaz, eta beti beteko dautzudaz maitasunari dagokozan zure eskubideak.

DINE'k.—Bai. zu gure otsein ba'zara, geu zure otsein egin arte zara: baña bein zu gure larrosen yabetuazkero, aragian barrura sartuko yakuzan arantzak bakarrik itxi ta gure billustasunari irri egingo dautsazu.

BERTARAN'ek.—Eztautzut zinik asko egin ala?

DINE'k.—Zinak eztabe egiten egirik, zintzoro egiten dan zin xalo bakarrak baño. Zin egin bear dogunean eztogu ekarten lekuko edo autorlatzat gezto-dongarik, Gorena, Yaungoikoa baño: beraz, esaidazu, arren, nik osta-osta maite ba'zindudaz, eta nik Yupiter'en zer andiakarren maite-maite zaudazala zin egin ba'nengitzu, sinistuko ete zeunskit? Ezetariko sustarrik eztaukon zera da maite dodala esaka nabilkon beraarren okerrik eztautsadala egingo zin egitea: beraz, zure zinak itz utsak eta segurantza inakalak dira; eztabe ikurratzik, nire ustez beintzat.

BERTARAN'ek.—Itxi dagigun ori, itxi dagigun ori: etzadiz izan orren biotz-gogor; zer guren da maitasuna; eta nire osotasun-zindotasunak eztau eguño ezagun izan zuk gizonai ezarten dautsezuzan orretariko marrokeririk. Ez yarrai nigandik urrin, nire gurari, leia ta irrits errukarrien benderatu baño, orduan osatuko yataz-eta: nire zareala esan, eta nire maitasunak beti-beti iraungo dau lenengotan legetxe.

DINE'k.—Ba-dakit nik gizonak onango eretietan gure buruak bertan-bera itxiazoteraño-ko itxaropenak emoten dauskuezala. Ekazu erestun ori.

BERTARAN'ek.—Zorrean, baitzat bai emongo dautzut, baña zeuretzat ezetara be nik ezin emon.

DINE'k.—Ez ete daustazu emongo neuretzat, ene yaun orrek?

BERTARAN'ek.—Erestun au gure etxaldeari dagokon dedu ta eder yatzu, belaunik belaun gurasoakandík semeetara datorrena: eta nik onangorik galtzea iñondiko esamesarik zorrotzenai bidea egitea litzakit.

DINE'k.—Nire izen onak be ba-dau ori añako erestunik: nire garbitasuna da gure etxaldeko pitxia, gurasoakandik gurasoetara ta aikandik niganaño eldu dana, eta nitzako orrako ori galtzea mundu oneri iñondiko esamesetarako bidea egitea Iitzakit. Orrazkero, entzute onaren arlo onetan zure burubide kaskarrak nire aldeko dira, alperriko zure erasoen aurkako.

BERTARAN'ek.—Eutsi. artu nire erestun au: nire etzaldea, nire dedua, nire bizia bera bediz zure, eta ni zure bendean yarten natxatzu.

DINE'k.—Gaberdirakoan yo nire lo-gela leioa: neuk artuko dot ardurea nire amak ezer entzun eztagian. Orain nik agintzen dautzu-

dana zera da, zuk benderatu dozun oean ordubete baño ez egiteko, ta niri itzik ez egiteko: orretarako dodazan zegaitiak indartsu-indartsu dira; eta zeintzuk diran erestun au osfera be zure eskuetara eldu dadinean yakingo dozu,- eta gabaz, zure eskuko atzean. beste erestun bat sartuko dautzut; gero etorriko dan agiriak erakutsiko dau guk zer egin dogun. Agur ararteraño; ez utsik egin, gero. Nigan emazte irabazi dozu, or nire itxaropenak galduko ba'dira be.

BERTARAN'ek.—Zuri maitasun-eske ibilita, lurreko zeru irabazi dot. (Alde dagi).

DINE'k.—Orrazkero, bizi zadiz luzaro, Yaungoikoari ta niri esker ona erakusteko! Baleiteke zuk nozbaiten olangorik egitea.-Nire amak egin-eginean esan daust orrek maitcsuna nolan eskatuko eustan, nire biotzean bera bailegoan: ak esan daust gizon guzliak zin bardinfsuak egiten dabezala: bere emaztea il dakionean nikin ezkonduko dala agindu daust orrek; orrazkero, il nadinean etzango naz orrekin.

Pantzetarrak olan irunak dirala?
Ezkondu bedi, ezkon, gura dauena;
Nik neuk neska iraungo nire bizian,
Eta alan ilgo, beti len-lenean.
Nik ez uste oben danik
Marroz ziria sartzerik
Bide okerrez ni irabazi
Gura nauen maltzurrari. (Alde dagi)..

III AGERLEKU.-FIRENTZE'tarren Gudari-txoznategia.

Pantzetar Yaun bi, ta bi edo iru gudari aurrera.

I Yaunak.—Eztautsazue emon bere amaren idazkia ala?

II YAUNAK.—Ordubete da emon dautsadala: idazki orrek ba-dakar biotzean ziztadak emoten dautsazan zerbait; eta izan be, irakurri ala, larri-larri beste gizonik izalera aldatu da.

I YAUNAK.—Izan be, laidogarririk asko da arentzako bere emazte ain on eta eztia beragandik uxatu izana.

II YAUNAK.—Alan be erregeren ederra betiko galdu dau, erregek bere eskuzabaltasuna aren zori onak zer eskatuko, atara yoteko gertu-gertu imini izan dauenazkero. Nik zertxo bat esango dautzut, baña zuk zure biotzean ezkutu ta ilunetan eukitekotan.

I YAUNAK.—Zuk esan-ala ilgo da, ta neu izango naz aren ilobi.

II YAUNAK.—Ak emen Firentze'n izen garbigarbiko ta odol garbiko neskato lorrindu dau; eta gau onetan egingo da aragi aren irritsa neskatoren dedua lorrindurik: bere asabakandik belaunik belaun datorkon erestuna emon dautso neskatoari, eta zori ontsutzat dau bere burua olango egiune zantarra egin dauela-ta.

I YAUNAK.—Yaungoikoa gure asaldatzearen erruki izango al da: gu geu utsa baño utsago gatxatzuz!

II YAUNAK.—Gu geure buruen etoi, azpiyale baño ezkara. Eta azpikeri guztiak eurak oi daben bide ezkutuz yoan doazala, elburu gorrotagarrira eldu baño len, euren burua apurka-apurka erakusten dabenez, olantxe gjzon orrek be egite orregaz bere zindotasunaren aurka yokatuta, bere burua bete-betean darakus, barruan dauena ibaika dariola,

I YAUNAK.—Ez ete da lotsagarri ta laidogarri gure asmo zantarrak geuk turut-oska ortik zear zabaldu ta aldarrikatzea? Beraz, gau onetan eztogu izango a gure lagun ala?

II YAUNAK.—Ez gaberdi-osterarte, ordu ori dau izentauta-ta.

I YAUNAK.—Ordu ori laster da: guk aren laguna aztertzen dogun bitartean a emen al lego, bere eretxiak zuzenak izan diranentz ikusi dagian, eureian ainbeste entzin izan dauenazkero.

II YAUNAK.—Ezkara ezetan sartuko gizon orregaz a etorri arte; a aurrean egotea izango da gizon onentzat zigorrik andiena-ta.

I YAUNAK.—Arartean, ze barri dozu zuk guduoz?

II YAUNAK.—Nik dantzudanez, bake-otsak entzuten dira.

I YAUNAK.—Areago, nire ustez bakea egin-da, izenpetuta dago.

II YAUNAK.—Zer egiteko orrazkero Errusillon'go kondeak? Aldarrai ibiliko ete da, ala etxera yoan atzera?

I YAUNAK.—Zure itaun orretatik dakustanez, zu etzara aren barruko zeren yakitun.

II YAUNAK.—Ez al yat yazoko be olangorik, yaun; ostean aren zorakerietan lagun izan bearko nintzakio.

I YAUNAK.—Yaun, ile bi dira aren emazteak etxetik igesi ebala: ak Yagoba Nagusi Deunaganako bidazti gurenarena egiten dau egin; eta asmo guren ori laztasumk andienaz bete dau; eta an emazteki samur ori

bere naibagearen yanari egin da labur esateko, bere azkenengo arnasea intziri izan da ta orain zeruan dago abes'.en.

II YAUNAK.—Zer dozu esan dozun ori baiesteko?

I YAUNAK.—Geiena ta yakingarriena bere bizitzako yoan-etorri ta atzera-ccurreak zeatz eta zintzo-zintzo iragarten dabe^an bere idazkietatik: berak ezin iragarri eikean bere eriotzearen barri beste bidez etoiri cia, eta a il dan lekuko erri-yauretxe-buruak zeatz-meatz eta zintzo-zintzo baieztu dau.

II YAUNAK.—Orrako guzti orren yakitun ete da kondea?

I YAUNAK.—Bai, ba-da; baita barrion sendespena be ba-dau zertzelada guztiakaz, egia zeatz zeatz yakin dagian.

II YAUNAK.—Itzalez tamalgarri yat kondea zerokaz pozik egotea.

I YAUNAK.—Batzuetan geure galtzeak egiten doguz gure itzalezko poz-bide!

II YAUNAK.—Eta beste batzuetan gure irabaziak be itzalez gure negarretan itoten doguz! Emen orren adoreak irabazi dauan dedu ta aintza, etxera doanean itzalezko lotsa biurtuko yako.

I YAUNAK.—Gure bizitzako euna bitariko ariz eundua da, onez eta txarrez: gure ekandu onak euren arrokizun litzatekez, gure utsak euren zígor ezpa'lira; eta gure gaiztakeriak itxaropena galazo egingo leuskue, ekandu onak aringarri ezpa'litxakez...

OTSEIN aurrera.

Ze barri yoagu? Non dok ire ugazaba?

OTSEINAK.—Dukeakin bidean trikitx egin dau, yaun; eta ari betiko agur egin dautsa: kondeak biar goxean artuko dau Pantze'rako bidea. Dukeak gorantzi-idazki emon dautsa erregentzako.

II YAUNAK.—Izan be, bear-beaneko izango yako idazki ori, gorantziten dauanak berak baño geiago al ba'dau.

I YAUNA.K.—Ezin izan lekikeo gozoegi eiregen mingoztasunarí. Emen datoi kondea.

BERTARAN aurrera.

Nolan zagoz, ene yaun ori? Ez ete da gaberdi-ostea?

BERTARAN'ek.—Bakotxa ilebeterako ziran amasei arazo erabagi dodaz gau onetan. eta itzalez ondo erabagi be: dukeari ta bere ingurukoai agur egin dautset; emaztea obiratu ta aren illetak be egin dodaz; nire ama andereari idatzi dautsat atzera etxera ba-noala esanaz: etxerakoak gertau trr nire bide-lagunak nortzuk izango diran izentau dodaz; eta gertakuntzarik andienon artean eta bitartean, beste zer atsegingarriago batzuk burutu dodaz: azkenengoa izan da andiena. baña a eztot guztiz burutu oraindikoarren.

II YAUNAK.—Arazo ori zailtxo ba'da, ta gaur goxean emendik alde egin, bizkor eta zoli ibili bearko dozu.

BERTARAN'ek.—Oindiño guztiz eztodala amaitu esanaz nik esan gura izan dodana, orretaz gero esango danaren bildur nazala, geroaren bildur nazala esan gura izan dot. Baña noz izango dogu zoro ta gudariaren arteko alkar-izketea? Tira, ekarri ona eredu dalako ori: orrek niri esangura biko igarleak lez ziria sartu daust.

II YAUNAK.—Ekarri ona aurrera. (Gudariak alde dagie). Zitaltzar orrek, alango orrek, gaba oin-biurretan emon dau.

BERTARAN'ek.—Eztau ardura; orren orkatillak orrenbestegarri ba-dira, aztalak orren luzaro erabili dauzalako (7). Nolan ibili da?

I YA.UNAK.—Dagoneko esanik dautzut yaun orri; oinbiurrak dakarre ori. Baña zuk aituteko eraz erantzungo dautzut: esnea ixuri yakon neskeak legetxe negar egiten dau: lekaidetzat daukan Morgan'eri bere autorpena egin dautsa, bere oroipena eltzen dan lenengo egunetik laidogarri diran oin-biurrotan imini daben arterañoko obenak: eta zer uste dozu orrek autortu dauala?

BERTARAN'ek.—Niieiik ezebez, ezta?

II YAUNAK.—Orren autorkuntzea artuta, idatzita dago, eta bere mosuetan irakurriko yako: zu yaun ori an ba'zagoz, nik uste dodanez, entzuteko epe artu egizu.

GUDARIAK aurrera barriro, ITZUTS dakarrela.

BERTARAN'ek.—Izurriak eroango al dau! Begiak estalita! Nirerik ezin esan lei orrek; ixilik, ixilik!

I YAUNAK.—Or dator kokomarroa! Porto tartarossa.

1 GUDARIAK.—Orrek zuri gorriak eta elorioak yasanazoteko diño; zer esango dozu zuri olangorik ez egitearren?

(7) Aldi atan zaldunei zalduntzea kentzen euísenean aztalak ausi ta apurtu egiten eutsezan, irain-bidez.

ITZUTS'ek.—**Iñok beartu barik esango dot nik dakidana: oiea lez zulatu ba'nagizue be (8) ezin esan izango dot besterik.**

I GUDARIAK.—**Bosko tximurko.**

I YAUNAK.—**Bobilbindo tximurmurko.**

1 GUDARIAK.—**Gudalburu errukior zara zu orraitiño: -aurreztik idatziriko ingitik nik egingo dautzudazan itaunai zuk erantzuteko diño gudalburuak.**

ITZUTS'ek.—**Eta egia esango dot, bizitea ditxarodan lez.**

I GUDARIAK.—**Lenen itandu egiok dukeak zenbat zaldizko dauzan. Zer diñozu orrez?**

ITZUTS'ek.—**Sei edo zazpi milla; baña makal eta gauz eztiranak; gudariak sakabanatuta dagoz, eta gudalburuak, nire ustez, gizagaxo gauz eztiran batzuk dira, nik bizitea opa dodanez.**

I GUDARIAK.—**Olan idatziko ete dot zure erantzuna?**

ITZUTS'ek.—**Bai; eta zuok zelan-gura zin-bidez sendetsiko dot.**

BERTARAN'ek.—**Orrentzako dana da bardin. Biziteko lain eztan yopu dogu ori!**

I YAUNAK.—**Oker zagoz, ene yaun ori; ori Itzuts yaun gudaritza-zale adoretsua dogu íau zan berorren esakune gutuna), gudaritza-yakintza guztia bere idunekoaren lotunean eukana, egitez barriz bere ezpatearen mokoan.**

II YAUNAK.—**Gaurgero eztautsat sinistuko gizoni bere ezpatea garbi daukalako; ezta sinistuko be iñori gudu-yantziak garbi ta apain dauzalako.**

I GUDARIAK. **Tira, idatzi dot zuk esana.**

ITZUTS'ek.—**Bost edo sei milla zaldizko, esan dot nik.-Egia esan gura dot-eta, idatzi egizu: "edo olangotsu". Bai, nik egia esan gura dot.**

I YAUNAK.—**Onetan eztabil egitik urrin.**

BERTARAN'ek.—**Baña nik ezin emon eskerrik orretaz, diragarrenez iragarrita.**

ITZUTS'ek.—**Gizagaxo gauz eztiran batzuk, au idatzizu arren.**

I GUDARIAK.—**Tira, ori idatzita dago.**

ITZUTS'ek.—**Eskerrik asko zuri biotz apalez, yaun: egia egi yatzu, gixaxook itzalez yatzuz gixaxo.**

I GUDARIAK.—**Itandu egiok oñezkotan ze indar daben. Zer diñozu onetaz?**

ITZUTS'ek.—**Sinis egidazu, yaun orrek, une onetan il bear ba'dot be egia esango dautzuet. Dakusadan: Spurio'k eun eta berrogetamar; Sebasten'ek beste ainbeste; Koranbu'k beste ainbeste; Yagoba'k beste ainbeste; Gitian'ek, Kosmu'k, Koldobika'k eta Grati'k berreun bana: neure gudari-sallak, Kitopeŕek, Bomonda'k, Benti'k berreun eta berrogetamarna; beraz, zindo ta usteletan, guztira be, arakatze-izendegiak diñonez, nire biziarren, ez dira eltzen amabost millara: euretatik erdiak euren txartesetako edurra astíntzen be ez dira azartzen, eurak zati-zati eginda geldituko diranaren bildurrez.**

BERTARAN'ek.—**Zer egiteko orri?**

I YAUNAK.—**Ezebez, ezkerrik asko emon baño. Itandu egiok ni nolango nazan eta dukeak nitaz ze uste dauan.**

I GUDARIAK.—**Tira, ba, orrako ori idatzita dago. "Itanduko dautsak Dumain deretxon Pantzetar gudalbururik gudaltegian dagonentz: dukeak ataz ze uste dauan: zelangoak diran aren adorea, zintzotasuna, eta gudu-yakintzea; ala uste eztauan a asaldatzeko diruz erosi leikeanik".**

Zer diñozu onetaz? Zer dakizu orretaz?

ITZUTS'ek.—**Arren, itaunoi banan-banan erantzuten itxi egidazu: banan-banan itandu egidazu.**

I GUDARIAK.—**Ezagun dozu Dumain gudalburu ori ala?**

ITZUTS'ek.—**Bai, ba-dazagut: Paris'en beñola yostun baldarren ikastun izan zan orrako ori. eta andik endorearen otsein ezetzik esateko gauz etzan neskato ergelmintzula umedun egin ebalako, bizkarra bero-bero eginda alera eben. (lenengo Yaunak, *asairea*ren asarrez, ukabila eragiten dau).**

BERTARAN'ek.—**Ez, olangorik ez, eutsiozu, arren, zure ukabil orri; orraitiño bildur naz urren buru-ganera yausi dakion telleak garaunak aterako ez ete dautsozan.**

I GUDARIAK.—**Tira ba, gudalburu ori Firentze'ko dukearen gudaltegian ete dago?**

ITZUTS'ek.—**Nik dakidanez, an dago, ta zorriz beterik egon be.**

I YAUNAK.—**Ez, ez, ez begiratu ni olan; zeutzaz be laster entzungo dogu.**

I GUDARIAK.—**Ze eretxi dau dukeak ataz?**

(8) Lenago, ta oraintsu be, zorra bertatik ordaintzen eztanerako, makilatxo bat luzetara erdibitu egiten zan; erdi bietatik bata saltzallearen eskuetan, bestea eroslearenetan gelditzeko; olon, zerbait sal-erosten zanean, saltza:eak eroslearen aurrean, makila-zati biak alkarregaz batu ta bietan koska egiten eban aiztoz; bein koskea egindakoon, saltzallea bereagaz etxera; olantxe egiten zcm sal-erosketa bakotxean; gero, alango baten, zordunak bere zorra ordaintzen ebanean, makila-erdikin biekaz gelditzen zan, zorra kitututzat.

ITZUTS'ek.—**Dukeak a nire bendeko otseintzat bakarrik dau ezagun; eta lengo baten nire guda-salletik kentzeko idatzi eustan dukeak: oker ezpa'nago, aren idazkia emen sakelean dot.**

I GUDARIAK.—**Orrazkero, arakatu egingo dogu zure sakel ori.**

ITZUTS'ek.—**Tamalez, eztakit emen dodan, ala kaparrean idazki-sallean dagon dukearen beste idazkiakaz batera.**

I GUDARIAK.—Eroen **dago; emen dago ingi bat- Irakurriko dautzut ala?**

ITZUTS'ek.—Ezíakií ori **daneniz,**

BERTARAN'ek.—**Gure izkuntza-iragarleak bere egitekoa itzalez ederto dagi.**

I YAUNAK.-—Itzalezkorik cndosn.

I GUDARIAK.—**(Irakurri dirakur) "Dine, Kondea zoro uts yatzu, eta urrez atsitua.**

ITZUTS'ek.—**Ori ezta dukearen idazkirik, yaun; orrako ori Dine izeneko Firentze'tar neskato benetakori egindako oarra yatzu, Errusillon'go konde dalakoaz arduraz ibili dadin, a zoro ta mutil alper uts izanarren, lizun-lizuna dalako: arren, yaun, sar egidazu atzera sakelera.**

I GUDARIAK.—**Ez, zure ederrez, lenago irakurri egingo dot.**

ITZUTS'ek.—Orretan **nire asmoa, sinis egidazu, asmorik onena izan zan neskatoaren alde; ba-nenkian ba, kondea mutil bildurgarri ta lizun-lizun dana; a neskentzako bale yatzu, neskato guztiak aurkitu-ala iruntsi egiten dauz-ta.**

BERTARAN'ek.—**Gezto gaiztetsi ori!** Zital **uts ori!**

I GUDARIAK.—**(Irakurri dirakur).**

"Zin-bidez agindu ba'dagi, urrea eraltеko agindu egiozu ta artu ak eralgi ala:
Koska egin bai, (8) baña zorrik eztau iñoz ordaintzen;
Egiune erdi-irabazia da ondo egina; egin egiunerik, baña ondo egin;
Ak eztau ordaintzen gerorako zorrik, aurreztik artu zuk;
Eta esaiozu, Dine, gudarik esan dautzula ori,
Gizonak ezkontzeko dira, mutili ez egin munik;
Au dala-ta, kondea zoro da, ba-dakit nik,
Ak aurreztik ordainduko dautzu, baña ez zor dauenik.
Zure aurrean agindu neuntzunez, zure

ITZUTS'ek".

BERTARAN'ek,—**Bizkarra berotuko dautsagu gudarostearen aurrean. itz neurtuok bekokian dauzala.**

II YAUNAK.—**Ori zure adiskide kutun yatzu, yaun, izkuntza aunitz dakizana, *ta* gudari adoretsu.**

BERTARAN'ek.—**Katuz beste edozer nire aurrean ikusi-ezinik eztot, baña ori katu yat orain.**

I GUDARIAK.—**Yaun, gure gudalburuaren begirakuneetatik dakustanez, zu larri-larri eskegi egingo zauguz.**

ITZUTS'ek.—**Dana dala, yaun, bizirik itxi nagizue: ez ilteko bildurrik dodalako, nire okerreriak aunitz eta aunitz dirala-ta, biziak dirauen arte osoan damutu gura dodalako baño: biziten itxi egidazue, yaun, baitegian. oin-biurretan, naiz edonon, bizirik iztekotan.**

I GUDARIAK.—**Ikusiko dogu zer egin, zuk tapa-tapa autortu ba'dagizu; orrazkero, ekin dagiogun ostera be Dumain gudalburuari: zuk erantzun dautsazu dukeak ataz ze eretxi dauen itaunari, baita aren adoreaz dauenari: zer diñozu aren zindotasunaz?**

ITZUTS'ek.—A, a lekaretxetik arrautzea ostuteraño elduko litzake; murratzen eta lapurretan Nesu'k (9) bakarrik bardinduko leu-

(9) NESU.—Beñolako Eladetarrak amaíkatxo bidutzi edo mamu asmau euskuezan, eta orretariko bidutziak yatzuz **zaldi-gizon** edo kentaur deritxenak. Bidutziok garritik berako soña zaldiarena eukien, andik gorakoa gizonena. Ara ba, Nesu dalako au zaldi-gizonerariko yatzun, Ixion eta Nepele'n semea. Nesu au, Apordite'n eraginez, Erakel edo Erkul' en emazte Deianeire'kin maitemindu zan, bere zori txarrerako. Bein, Erakel eta Deianeire ibairen alde batetík bestera egiteko zirala, or dator Nesu Deianeire'n yabe egiteko asmoz, baña Erakel'ek bere gezi Lerne'ko sugearen edenez ezotuaz narrua zulatzen dautsa. Nesu'k bere yantzi odoldua geroagoan erantzi ta Deianeire'ri bidaltzen dautsa emoritzat. Erakel urteetan ibili da gercagoan etxetik landa, ta Deianeire'n belarrietara eldu dan zurrumurruak diñonez, Erakel beste emakumekin maitemindu da ta arekin bizi; ez ori bakarrik, Erakel'en maite ori etorri dator aren etxera Erakel bera baño lenago; iraín onek mindu-minduta. Deianeire'k Erakel'i bidaltzen dautsa erako Nesu'k emondako yantzi edendua; Erakel'ek, yantzi ori aldean yarriaz bat iñudiko miñak sometzen dauz bere soñean eta elorrio gorritan iristuaz iristuaz doa; azkenean, etsiaren etsiaz, bere burua ilten dau.

ke a. Zinik ez betetea ogibidetzat dau; zinak austen Erkul baño indartsuago da. Ari guzurra berez-berez dariola-ta, zuk egia zorotzat zenduke; aren ekandu onetatik oneno ordikeria yatzu, txania legetxe mozkortzen da-ta; lotan dagola kalte gitxi egingo dautso ezeri, bere oeko izarai ezik; baña ezagun dabe ta lasta-ganean eratzaten dabe. Orrez ganera gitxi bat baño eztot esateko, yaun, bere zindotasunaz; ak gízon zindok euki bear eleuken oro dauka; eta gizon zindok bear leukenik ezertxo bez.

I YAUNAK.—Au dala-ta, gizon ori begiko egiten asi yat.

BERTARAN'ek.—Zure zindotasuna onan azaldu dauelako ala? Niketz izurriak eroango al dau; geroago katuago da.

I GUDARIAK.—Zer diñozu orren yakituriaz?

ITZUTS'ek.—Sinis egidazu, yaun, ak beñola Ingelandar odol-antzerki antzezle aldarraien aurrean arratza yoten eban. Eztautsat laidorik ezarri gura, eta aren guduyakituriaz eztakit besterik, lurralde atan, Mile-end deretxon tokian eule-lantegi baten ariak biurtzen ikasten ibilia dala baño: nik edonori emongo neunskio bere dedua, baña orrenik eztot ezagun.

I YAUNAK.—Orrek zitalkeria bera be zitalagotu egiten dau-ta, iñondikotasunak erruga egiten dau.

BERTARAN'ek.—Izurriak eroango al dau! Ori oraindiño be katu da.

I GUDARIAK.—Aren zer onak orren gitxi ta gitxi gauz diranak izanazkero, eztot itandu-bearrik a urreak asaldatuazoteraño ustelduko litzatekenentz.

ITZUTS'ek.—Yaun ori, a ogerleko-laurengaitik gertu legoke bere osasunaren erdia ta zeru-ondoregoa saltzeko; eta bai bere urrengo guztiak belaunik belaun, beti-betirako saltzeko be.

I GUDARIAK.—Nolango da aren anaiea. beste Dumain gudalburua?

II YAUNAK.—Zegaitik itanduten dautsa nitaz?

I GUDARIAK.—Nolango da a?

ITZUTS'ek.—Bestea lez abi bereko bela; ontasunez ez bestea *aña* andi, baña gaiztakeriz *a* baño askozaz andiago. A bere anaieari koldarkerian gallentzen yako; eta orraitiño aren anaiea koldarretan koldarrenetariko da: gudu-lekutik igesi egiten edozein otseinek baño arinago egíten dau; aurrera egin bear danean, ostera, zangoak iñurrituta, loak artuta dauzanarena egiten dau.

I GUDARIAK.—Bizirik itxi ba'zagiguz, Firentzetarrak salduko ete dozuz?

ITZUTS'ek.—Bai, eta zaldizkoen buru, Errusillon'go kondea be bai.

I GUDARIAK.—Txutxu-putxu egin bear dot gudalburuakin, eta ari eder deretxona yakin.

ITZUTS'ek.—(Bere kitean) Arratzen izenik be eztot entzun gura aurrerantzean: izurriak eroango al dauz arratz guztiak. Gazte zantar, konde orren ederra irabaztearren eta orretarako ari ziri ederrik sartzearren etorri naz estualdi onetara: eta orraitiño nok uste izateko ni goatu naben lekuan iñor kukuka egoanik?

I GUDARIAK.—Eztago beste biderik, yaun, il egin bearko dozu: gudalburuak diño, zuk olan salkeriz zure gudarosteko ixilkizunak iragarri, ta zindotzat dagozan gizonetaz olango txakurkeriak esan dozuzanazkero, zu etzareala gauz mundu onetan ezer onerako; orrazkero, il egin bear dozu. Ia, eskegitzalla ori, burua moztu egiozu.

ITZUTS'ek.—Ene Yaungoikoa! Yaun, bizirik, ítxi nagizue, edo ostantxean dakustala neure burua ilten.

I GUDARIAK.—Orrenbesterik emongo yatzu, eta agur egin zure adiskide guztiai. (Begiestalgia kendu egiten dautsoe).

Begiratu orain zure baranoa: ezagun ete dozu iñor?

BERTARAN'ek.—Egun on, gudalburu zindo!

II YAUNAK.—Yaungoikoak onetsiko al zauz, Gudalburu Itzuts.

I YAUNAK.—Yaungoikoa lagun bekitzu. gudalburu zindo.

II YAUNAK.—Gudalburu, ze gorantzi dozu nire yaun Lafeu'ntzako? Ni Pantze'ra noa.

I YAUNAK.—Gudalburu on, emongo ete daustazu Errusillon'go kondeaz Dine'ri egin dautsazun amalaukoaren birridatzirik? Koldar ezpa'nintz zu orretara beartu egingo zindukedaz: baña onik eta ondo ibili. (BERTARAN yaunak eta abarrek alde).

! GUDARIAK.—Zureak egin dau, gudalburu: zure idunekoaz beste guztiak; orrek ondiño lokarri bat or dau.

ITZUTS'ek.—Nor ez zapaldu, birrindu ta ondatu marroz?

I GUDARIAK.—Zu bestean lotsatuta legokezan emakume utzesko erririk idoro al ba' zendu, an lotsabako erriren len-guraso izateko zintzakez zu ezin obea. Agur, yaun: ni neu be Pantze'ra noa: an zutaz itzik egingo dogu. (Alde dagi).

ITZUTS'ek.—Orraitiño be eskerrik asko: nire biotza andirik asko ba'litz izan, onako onek

izten eragingo leuskio. Gudalbururik enaz izango gaurdanik antxiña; baña gudalburuk bestean nasai eta bigun yan eta edan eta lo egingo dot; ni nazan utsak bizi eragingo nau. Bere burua arrotzat dazaguna bildur-ikaratu bedi niri yazoaz, arroa asto baño eztala azkenean agertuko da-ta. Nire ezpata ori, ugerra itzako! arpegiko gorriok, otzitu zuok be! eta i, Itzuts. lotsaz beterik bizi adi seguruen! ergelkeriari mamia atera egiok, ergeltzat artu abenazkero! bizirik dagon gizonarentzako ba-yagok lekurik eta bizibiderik. Bitzuon billa asiko naz. (Alde dagi).

IV AGERLEKU.-FIRENT2 !. Alargunareneko txoki.

ELENE, ALARGUNA ta DINE aurrera.

ELENE'k.—Ezetariko okerrik eztautzudala egin yakin dagizun, kistarren alderdiko erregerik andienetarikoa izango dot nire baitzat; eta aren oñetan belaunikatu bear dot nire asmoak burutu baño len: aspaldi da lairi-lani beie bizia bestean maite beai leuken otseintzea nik aii egin neuntsala; egite aietazko eskei onek Taitaiitanaien biotzetik be beie buiua ateia ta eskenik asko gedai egingo leuke: entzun dodanez Maiseil'en dago enege, eta aia yoateko eia ona dogu. Ni iltzat nabela yakin beai dozu zuk: gudaiostea sakabanatu danazkeio, etxeia yoateko larri da niie senana; eta, Yaungoikoa lagun, eta nire yaun on erregeren ederragaz, an izango gara gure ondo etorria (kondea) baño lenago.

ALARGUNAK.—Andera yator ori, zure arazoetarako eguño eztozu izan ni baño otsein entzingarriagorik.

ELENE'k.—Zeuk be, andera, zeuk be eztozu izan eguño zure maitasunari erantzuteko asmo zintzoagorik izan dauenik: ez izan ezbairik (zalantzarik) Yaungoikoak ekarri nauela zure alabearen ezkonsari izateko, zure alabea bera Yaungoikoz niri eragiteko ta nik nire senarra neuregantzeko lagun izan yatanez. Baña, gizonen iñondiko! Iguin eta gorroto dautsoena gozo-gozo egiten yake, euren irudipen kutunai lotsa barik entzinda gau ilun-iluna zikintzen dabenean; olan, lizunkeria eztitan dago iguin eta gorroto dautsanagaz, andik urrin dagonakin dagolakotan: baña onetaz gero ekingo ostera be.-Zuk, Dine, nire eskakizunak dirala-ta, zuk oraindik areago yasan bearko dozu nire alde.

DINE'k.—II bear ba'dot be, zintzo iltekotan, zuk zer-gura zugaitik yasateko gertu nozu.

ELENE'k.—Orrenbestekorik ez: belu barik elduko yaku udabarria be, eta araazkero asuarrak arantzak ezeze orriak eta lorak be ekarriko dabez, eta latz ezeze gozo be izango dira. Alde egin bear dogu; gure burdia gertu dago, eta asti gitxi dogu: ondo dator azken onik dauan oro: orraitiño be azkena buru ta buruntzea: edozelango dala bidea, azkena, bidaburua, dedu. (Alde dagie).

V AGERLEKU.-ERRUSILLON, Kondenoaren Yauregiko txoki.

KONDENOA, LAFEU, eta AKETOA aurrera.

LAFEU'k.—Ez, ez, ez, zure semea okerreko bidez eroan dau idunean txori txairoa darabilen urli ak, bere zitalkerizko azaparanaz erriko gaztedi enebakoaren ora osoa margoztuko leukenak: eta agaitik izan ezpa'litz, zure errana bizirik litzakean orain, eta zure semea emen etxean, nik daragoiodan erlabio allagorri ak baño erregek gorago eragita»

KONDENOAK.—Ez al neu ezagutu! A izan ezpa'Iitz, elitzakean ilgo emakume yator ekandurik onenetakoa ta bera egin eban sortze-indarraren arrokizun zana: neskato *a* nire aragikide izan eta bera erditzeko intziririk andienak egin izan ba'neuz be, ezin izango neban neban baño maiteago.

L.AFEU'k.—Bai, andera on zan *a.* andera on zan: alangorik millatan be eztogu aurkituko.

AKETOAK.—Izan be, yaun, a bedarren artean erla-bedar gozo zan, edo obeto esateko, esker-bedarra.

LAFEU'k.—Orrako ori eztok yateko bedarrik, zital ori; orrako orreik usaikiak dozak.

AKETOAK.—Ni enozu Nabukodonosor yatoryatorrik, yaun; bedar-arloan enozu yakitunyakitunik.

LAFEU'k.—Zertzat dok ire burua, zitaltzat ala zorotzat?

AKETOAK.—Emakumearen otsein dan zorotzat, yaun, eta gizonen otsein dan zitaltzat.

LAFEU'k.—Zegaitik berezte ori?

AKETOAK.—Nik gizonari emaztea ostuko neunskio, eta gizonaren egitekoa egin.

LAFEU'k.—**Olan izatekotan, izan be gizonaren otsein zilal intzake.**

AKETOAK.—**Eta gizon orren emaztearí nire ergel-txuxoa emongo neunskio (10). aren ederrerako.**

LAFEU'k.—**Oraintxe etsita naiagok, i biak batera, zital eta zoro azala.**

AKETOAK.—**Zure otseintzarako.**

LAFEU'k.—**Ez. ez, ez.**

AKETOAK.—**Ba, yaun, zure otsein ezin izan ba'naz, zu besteko andikiren otsein izan neinteke.**

LAFEU'k.—**Nor dok orrako ori? Pantzetar dok ala?**

AKETOAK.—**Egia esateko, izenez Ingelandar yatzu; baña aren soin-giroa emen Pantze'n an baño beroago da.**

LAFEU'k.—**Ze andiki dok orrako ori?**

AKETOAK.—**Errege-seme baltza, yaun (11); alias, ilunbeko errege-semea; alias, txerrena.**

LAFEU'k.—**Bego; autso nire ziskua; eztauskat emoten ugazaba ori itxi dagikan; otsein akio oraindik.**

AKETOAK.—**Basotiko nozu ni, yaun, eta bsti izan natxatzu su andi-zcle; eta nagokon nire ugazabak beti eukíten dau su ona. Baña, segurutik, a da mundu onetako erregeseme; bere andikiak begoz bere yauregian. Ni neu ate estua daukan etxerako naz, eta ate ori, nire ustez, arrokeriarentzako estuegi da: burua makurtzen dabenak sartu leitekez; *baña* geienak otzegi ta samurregi izango dira; eta onakook ate zabal eta su andira daroan lora-biderako izango dira.**

LAFEU'k.—**Ken akit ortik, itaz aspertu-aspertuta naiagok-eta; eta aurreztik dirauskat, ikin asarratu baño len. Ken akit; nire zaldiak begiratu egizak, niri ziririk sartzeka.**

AKETOAK.—**Ziririk sartu ba'dagiot iñori, zaldizar-ziriak izango dira; eta orretarako eskubidea berezko legeak damost. (Alde dagi).**

LAFEU'k.—**Zital zorrotz orixe, eta errukarri.**

KONDENOAK.—**Olangoxe yatzu izan be. Nire yaun zanak amaika olgeta egin eban orrekin: aren agin'duz dago ori emen, eta orrek ori edozein lotsabakokeri esateko eskubidetzat artzen dau; burura datorkona egiten dau, eta nora-gura ara yoaten da.**

LAFEU'k.—**Begiko yat gizon ori; ba-daki zer eta noz esan. Eta zuri esan-aginik ninduzun, *a* andera ona il dala ta zure semea etxera etorteko dala entzunazkero, nire ugazaba erregeri eragin dautsadala nire alabearen alde itz dagian; izan be, bikonde ori oraindik adinera eltzeka zanean, erregek bere kitetik eta biotz on utsez egokitzat iragarri *eban* ezkontza ori; erregek agindu daust; eta erregek zure semeari dautsan gogo txarra geldituazoteko eztago ori baño bide obarik.** Zer deretxatzu zuri andera orri?

KONDENOAK.—**Niri ondo baño obeto, ene yaun; eta len baño len egingo al da.**

LAFEU'k.—**Eriege Marseil'dik dator, ogei ta amar urteko zanean besteko osasunez; emen dogu biar, eta ezpa'dogu, oker iragarri daust gitxitan utsik egiten dauenak.**

KONDENOAK.—**Pozik nago ni. il-aurretik ikusi al izango dodanaren itxaroaz. Artu dodan idazkiak diñonez, nire semea gaur gabaz emen izango da: nik zuri yaun orrí emen yarrai dagizula aik alkarrekin trikitx egin arteño eskatuko dautzut.**

LAFEU'k.—**Andera, egin-eginean be or nerabilen buruan zetara yoko ete neban ni erregek entzuteko.**

KONDENOAK.—**Zuk eztozu bear beste gorantzirik, orretarako zure eskubideak erabili baño.**

LAFEU'k.—**Eskubideok sarriegi erabilia nozu, andera; orraitiño, Yaungoikoari eskerrak, oraindiño be gauz dira.**

AKETOA **aurerra ostera be.**

ÁKETOAK. **Andera, andera, an aragoan dago zure sernea arpegian eunleunezko ezarkin dauela; ezarkínaren azpian zauratzik dagonentz eunleunak bakarrik daki; baña ezta eunleun-ezarkin makalik: aren ezkerreko mosuak ule bi ta erdi dauz (12), baña eskoakoa soil eta ulduta dago.**

(10) ERGEL-TXUXOA.—Ergel-txuxoa ergelen ezaugarri znn ergelak andikien yauregietan izaten ziran igaroko aldietan. Ergel-txuxook zurezkoak izaten ziran eta kukurumio yezarrita egoan ergelaren antzeko izaten ziran: idnnekoa izurrez yosi-yosia ta buruko uleak lotz.

(111) ERREGE-SEME BALTZA.-—Errege-seme baltza Ingelanda'ko Edorta Irugarrenaren seme Edorta erregegeiari eretxon. Zegaitik? Bere iskilleak baltzak edo bildurgarri ziralako, urrean. Errege-seme baltz ori eguzki-aldeko gure Euskalerricm be íbilia dogu.

(12) Toki au ilunik asko da. Ezta argi agin ule bi, ta erdiok arpegiko bizar bi ta erdi, ala eunleunaren ariak ari bi ta erdikoak diran. Nire ustez, eunleunaren lodiera^ neurriari dagokoz ule bi ta erdiok, ez arpegiak alde orretcm zenbat bizar dauzan iragarteko. Eun-

LAFEU'k.—Zindoro iritxitako zauratza, edo auuruiz zindoa zindoiasunarenizako yanizi on da! orretariko yatzu, urrean, orrako ori.
AKETOAK.—Orraitiño aren arpegiak errearen antza dau,
LAFEU'k,—Goazen, arren, zure semea ikusten; gudari gazte zindo orrekin itz egiteko irrikitan nagotzu.
AKETOAK.—Ba! olango beste amabiko batedo be ba-dator berakin batera, txapel bigun-eder eta egaki txairoakaz, eta burua makurturik agurka. (Alde dagie).

V EKITALDI

I AGERLEKU.-MARSEIL. Etxartekide.

ELENE, Alarguna, ta DINE aurrera, Otsein bikin.

ELENE'k.—Gau ta egun burdiz egin dogun bidarlo andiegi au dala-ta, zuok eiota. unaunatuta egon bear dozue, baña ezin eitekean bestelan; baña gau ta egunak bat eginik nire arazoetan zuon soñak neke-neke egin dozuezanazkero, adore izan, olan zuontzako nire esker ona iñok biotzetik kendu al izango eztaustan besteraño aziazoten dozue-ta. Aldi oberik datorrenean...

Gizazindo aurrera.

Gizon au izan lekikit lagun ni erregek entzuteko, al dauena egin gura ba'leu.-Yaungoikoa lagun bekitzu, yaun.

GIZAZINDOAK,—Bai zuri be.
ELENE'k.—Yaun, Zu Pantze'ko errege-yauregian ikusirik zaudaz.
GIZAZINDOAK.—Iñoz an izana nozu.
ELENE'k.—Dozun on-entzuterik galdu izan dozunik eztot uste nik; ori dala-ta, bearrak eraginda era-mera leunak alde batera itxita, zure ekandu onak erabilteko erea emoten dautzut, eta ni esker oneko izango natxatzu.
GIZAZINDOAK.—Zer gura dozu?
ELENE'k.—Gogoko ta eder izango al yatzu eskakizun au erregeri eskuetaratzea; eta al dozun laguntza guztia emongo al daustazu aren aurrera yoateko.
GIZAZINDOAK.—Errege eztago emen.
ELENE'k.—Eztagola emen, yaun?
GIZAZINDOAK.—Ez, benetan: bart alde egin dau emendik, eta oi dauen baño iraduzago egin be.
ALARGUNAK.—Ene Yaungoikoa, alper-alperriko dira gure nekeak!
ELENE'k.—Orraitiño be ondo dator azken onik dauen oro, aldia orrenbestean gure aurkako ta bideak orren zirtzil izanarren.-Esaidazu, arren, nora yoan da?
GIZAZINDOAK.—Ba! nik uste dodanez, Errusillon'era; neu be arako bidean nozu.
ELENE'k.—Nire ustez zuk errege nik baño lenago ikusiko dozunazkero, yaun, emoiozu, arren, ingi au errege onari; eztot uste erregek txarto artuko zauzanik bai ostera zuri esker ona erakutsi zure nekeen alderako: zure atzetik ara yoango naz ni gure eskuarteak itxiko dauskuenik arinen.
GIZAZINDOAK,—Orrako ori egingo dautzut.
ELENE'k. Eta ikusiko dozu esksr onak ondo emongo yatzuzala, eta ganetikoa ganera. Zaldi-burdiratu becr dogu ostera be; zoaze, zoazs, gertau burdia. (Alde dagie).

II AGERLEKU.-ERRUSILLON. KONDINOA'ren Yauregiko barruko arrazpela.

AKETOA ta ITZUTS aurrera.

ITZUTS'ek.—Monsieur Labatx on ori, emoiozu idazki au Laíeu yaunari: lenago oberik ezagun ninduzun, yantzi barriagorik erabilten nebanean; baña orain zoriaren gogaldiak lupetzez bete nau, ta kirats gogorra darit, zoriaren gogo txarra dala-ta.
AKETOAK.—Benetan, zoriaren gogo txarra zikin da zuk diñozun besteko kirats gogor atsiturik ba'dario: gaurgero eztot yango zoriaren koipetan erreriko arrainik. Arren, idigi ate-leioak aidea sar dadin.
ITZUTS'ek.—Ez, eztozu surrak olan itxi-bearrik; nik esana elendarrak metaphorra deretxoen itzaizun baño ezta.

leun batzuk ez dira oscan eunleun izaten, tarteka zelaiuneak, ul-uneak be izaten dabez; ortik dator, nire ustez, arpegiaren beste aldea soil eta ulduta agiri izatea, alderdi orretan ezetariko eunleunik agiri eztalako.

AKETOAK.—Benetan, zure itzaizunari kira. tsa ba'dario, nik itxi egingo dodaz nire surrak; bai beste edonok itzaizunik esan ba' dagí be. Arren, arago zoaz.

ITZUTS'ek.—Arren, emoiok ingi au.

AKETOAK.—Atx! arren, aratxoago zoakidaz: zoriaren koroztegitiko ingirik nik emongo be gizazindori! Begira, emen dator bera.

LAFEU aurrera.

Emen dozu zoriaren katu (ez gero usaín gozoko katurik), zoriaren gogaldi txarraren osin zikinera yausia ta, berak diñonez, zikin-zikin egina: arren, yaun, txirdil orregaz zeuk zergura egizu; orren antza zital gaxo, ustel, maltzur, ergeltsu ta okerrarena da-ta. Bere zori txarrean poz apur bat emoteko nik irribarre egiten dautsat, eta zure ardurapean itxi. (Alde dagi).

iTZUTS'ek.—Ene yaun ori, ni zoriak erruki barik urratua nozu.

LAFEU'k.—Eta nik zuri zer egitea gura dozu? Orain beranduegi da ari atzazalak ebatsko. Zetan egin dautsazu zoriari zitalarena, a berez ain on izanik zuri atzazalka egiteko, ta zitalai zori ontsu izaten luzaroegi ez iteko? Eutsi ogerleko-lauren: ebaleak adiskidetu zagiezala zu ta zoria alkarrekin; nik beste zereginik ba-dot.

ITZUTS'ek.—Arren, yaun orrek itz batxo entzun egidazu.

LAFEU'k.—Zu diru geiagoren eske zatorkidaz: tiruk, autso au be: bete ire itza.

ITZUTS'ek.—Nire izena, ene yaun on, Itzuts yatzu.

LAFEU'k.—Orrazkero, ik itz bat baño geiagorik eskatzen dok. Nire biotzaldien aldakor! ekak esku ori: -zelan yabilk ire arratza?

ITZUTS'ek.—Ene yaun on ori, zu zara ni lenen birrezagutu nauena.

LAFEU'k.—Ni ete, benetan? Neu izan nintzoan i lenen galdu induana be.

ITZUTS'ek.—Zuri dagokitzu, ene yaun, zure ederrera artzea, zure ederretik zuk atera ninduzun-eta.

LAFEU'k.—Ken akit, zital ori! Nik Yaungoikoarena ta txerrenarena biak batera egitea gura dok ala? *Batak* damoskan eskerra besteak kendu egiten dausk (Turut-ots). Ba-dator Errege; bere turuten otsetik dazagut. I, yauntxo, ator geroago nire billa; bart neragoion itaz itz egiten: zoro ta zital izanarren, zer yanik izango dok: tiruk, arraikit.,

lTZUTS'ek.—Yaungoikoari eskerka nagoko zure alde (Alde dagie).

II AGERLEKU.-Lengoxea. K•IDENOA'ren Yauregiko txoki.

Eresi. ERREGE, KONDENOA, LAFEU, YAUNAK, Emakumezindoak, Yagolak e. a. aurrera.

ERREGEK.—Andera a galduaz pitxi galdu geban; eta orregaitik gure laintasuna askozaz txiroago egin da; baña zure seme zoroak ez eban izan sentzunik asko a ta aren zintzotasuna barruraño ezagutzeko.

KONDENOAK.—Ori yoana da, ene yaun: baña zuk, nagusien orrek, orrako ori gaztearoko beroak eragindako asaldatzetzat artuko al dozu, biziaro orretan adínaren indarrarentzako sendoegi diran orio ta suak, adinari ganeratuta, erre egiten dabe-ta.

ERREGEK.—Ene andera aintzakogarri orí, nik dan-dana asketsi ta aztu dot; nire apen-irrikea aren ganera yausí-gurarik eta noz yausiko eretiaren begira egon izanarren.

LAFEU'k.—Au da nik esan bear dodana, -baña lenen, azkets-eske nagotzu-: yaun gazteak itzalezko irain egin eutsen erregeri, bere amari ta bere emazteari; baña bere buruari egin eutsan okerrik andiena; bera ikusiez begirik zorrotzenak be bere edertasunaz txundítuta izten ebazan emaztea galdu dau; aren itzak belarri oro benderatzen ebazana; eta aren oso-betetasuna zala-ta biotzik benderagatxenak apalik euren ugazabandera deitzen eutsoena.

ERREGEK.—Galdua goratzeak maitagarriago egiten dau aren oroitzea. Tira, dei egiozue ona; -adiskidetuta nago, eta bera ikusiaz bat ezereztuko dira lorratz guztiak: -eztatorkidala parka-eske; ilik da aren irain andiaren zer-izana, eta aren ondakinak aztutea baño sakonago ta barrurago eortziko dodaz; arroztzat urreratu bekit, ez iraintzallatzat; eta orixe dala nire guraria esaiozue.

GIZAZINDOAK.—Olantxe egingo dot, ene yaun. (Gizazindoak alde).

ERREGEK.—Zer diño ak zure alabeaz? Itzik egin dozue ala?

LAFEU'k.—A zure ederra edozetan egiteko gertu dago.

ERREGEK.—Orrazkero, eginik dogu ezkontzeó. Aren entzutea goresten daben idazkiak artua nozu.

BERTARAN aurrera.

LAFEU'k.—Ba-dau olangoren antzik.

ERREGEK.—Enozu ni urtearoari dagokion egunik; nigan eguzkia ta txirgorea biak batera ízaten ikusí daikezue-ta: baña odei banakak eguzki-izpirik argienai bide egiten ba-dakie; erdu, beraz, aurrera. eguraldi on dogu ostera be.

BERTARAN'ek.—Nagusien maite ori, asketsi egistazuz nire oben ondo garbaituak.

ERREGEK.—Dana dago onik eta osatuta: itzik bez geiago galdutako aldiaz. Orainari gagokozan; izan be, zar gara gu, eía aldi ixil eta entzunezinaren oña ixilka dator gure erabagirik bizkorrenen ganera guk burutu bqño len. Oroitzen dozu yaun onen alabea ala?

BERTARAN'ek.—Bai, ene yaun, eta pozarren eta arrigarriro alan be: lenengotik intsigi yakon nire biotza eta bera aukeratu neban nire miñez azarkiro iragarri baño len: eta nire begia agan yarrita, ak zapuztuazo eustazan beste neska eder guztiak; margo bikain guztiak zapuztuazo edo-ta ostutzat etsiazo; neurri egoki guztiak andiegi naiz txikerregi egiten eustazan, olan nenkusan ederra niri iguingarri agertzeko: ortik sortu zan gizon guztiak goresten eben neskea, eta galdu dodanazkero neuk be maite izan dodana, nire begientzat min egiten dautsen auts izatea.

ERREGEK.—Ondo zuritu dok ire burua: ik a maite enduala esatea a zapuzVu-zapuztu izanetik urrin yagok: baña berandu datorren maitetasuna, berandu datorren askespen garbaitsuaren antzera. bidaltzallearen aurka yagiten dok asarre saminez gedarrez, "Yoana bai ba-zala on". Itsumustuko gure okerrak gitxietsi egiten dabez gure zer bikainak, eta ezkara oartzen euretaz obiratu diran arteraño: sarritan gure mukerkeriak dirala-ta geure buruari oker eginik, gure adiskideak manatzen doguz, eta gero, ilik diranean, euren autsen ganean negar egiten dogu: geure maitetasuna atzarten da ta negar dagi egin dana ikusirik, eta lotsagarri yaku orain lotan dagon gorrotoa. Elene eztiaren eriotz-osteko gorespen bedi au, ta bein-beinean aztu dagigun a. Erakutsi ire maitasuna Madalene lirainari: ederrespenik andienak burututa dagoz; eta ni emen geldituko naz gure andera alargun onen bigairen eztegu-eguna ikusiarte.

KONDENOAK.—Eta Yaungoiko maite orrek, ezteguok lenengoak baño zori ontsuago egingo al dozuz! ostantxean, berezko indar ori, atertu adi nigan, orreik ezkondu baño len!

LAFEU'k.—Tira, ene seme ori, nire etxearen izena irearenaz oratuko danazkero, emoidak nire alabearen begietan dizdiz egingo dauen emaririk, *a* ona arin erdu dadin. (BERTARAN'ek LAFEU'ri erestun damotso). Nire bizar zarraarren eta bere ule bakotxaarren, neskato ezti zan ilik dan Elene: yauregian azkenengoz ari agur egin neuntsanean onangoxe erestuna ikusi neuntsan atzean.

BERTARAN'ek.—Etzan arena.

ERREGEK.—Arren, ekazu ikusteko; itz egiten neragoion artean nire begiak erestun orretan sarritan egon dira yosi-yosita. Erestun au neure izan zan, eta Elene'ri emon neuntsanean esan neuntsan iñoz nire laguntzabearrean aurkitzekotan, au erakustea izango yakola asko nik a laguntzeko. Marroz eta lukikeriz kendu ete dautsak arentzako zerik ederrena zan erestun au?

BERTARAN'ek.—Ene Nagusien maitagani ori, orrako ori zuri edei izananen, eiestun oii ezta izan eguño arena.

KONDENOAK.—Seme, nire biziarren, neuk ikusi yoat Elene erestun ori erabilten; eta ak ori bere bizia bestean maite ta esten yoan.

LAFEU'k.—Ni be seguru nago aren eskuan ikusi nebala.

BERTARAN'ek.—Oker zagoz, ene yaun; ak ez eban ori ikusi be egin eguño: Firentze'n egotzi eusten leiotik ingin batuta, eta ingian egotzi eustanaren izena egoan idatzita: a odol garbiko zan, eta ni berakin ezkontzeko etsita nengola uste eban; baña nik nire zindotasunarekin itz egin. eta ak bere kitetik iragarritako asmoai erantzuteko ni enintzala gei ikusi ebanean, etsi zan, gogoaz bestera ba'zan be, alan-bearrari burua makurtuz, baña erestuna ez eban atzera beragandu gura izan.

ERREGEK.—Alkimia ta yakintza-arria olgeta uts yakozan Pultu'k bez (13) izadiaren ixilkizunetan yakintza andiagorik nik eiestun onetan dodan baño: au niie zan, Elene'na zan, emon dauskanak emon dauskala. Beiaz, iie buiua ezagun ba'dok, autoi egik arena zala, eta ze gogoikeriz au ari kendu euntsan: ak zeruko deun guztiak ekarri yoazan autorlatzat iñoz be ez ebala bere atze-

(,13) PULTU.—Pultu edo Plouteus izenak elaberaz aberats esan gura dau, eta gizonai ondasunak emoten dautsezan yainkoaizun edo guzurrezko yainkoaren izena da.

tik kenduko iri oean ez emotekotan, -eta i aren oera eltzeko az oraindik-, edo-ta bearizan gorrien baten niri atzera ez bialtzekotan.

BERTARAN'ek.—Ak ez eban ori eguño ikusi be egin.

ERREGEK.—Nik nire izen ona maite dodan bestean, ik guzurra diñok; eta datorkidazan bildurrai ezin itxi yautset atea. Erakutsiko ba'litzok i orren anker eta biotz bako izan *azala*... -Olangorik ez al dok yazo izango, baña orraitiño be bildur nok-,* ik ari gorroto-gorroto euntsan. eta a ilik dok; eta *a* il danik beste ezek eleuskit sinistuazoko nik aren begiak neronek isteak bestean; ezta erestun au ikusteak be. Ken ori emendik... (Yagoleak BERTARAN'i eskuak ezarten dautsoez). Dana dala, len ikusiak yagongo nabe sinisperegi izatetik.-Eroan ori emendik. Geroago eragoko dautsagu arazo oni ostera be.

BERTARAN'ek. Erestun ori arena dala erakutsi ba'dagizu, erakutsi, ni Firentze'n aren oe-lagun izan nintzala be erakutsiko dozu, eta orraitiño a ezta izan an eguño. (Yagonda, alde dagi).

ERREGEK.—Gogapen ilunez bete-beterik nago.

GIZAZINDO aurrera.

GIZAZINDOAK.—Nagusien maitagarri ori, eder natxatzunentz eztakit: emen dozu irulau aleginetan berak zeuri emoteko uts egin dauen Firentze'tar baten eskaldzuna. Neuk artu dot aren zeregina, onazkero emen zure begira dagon eskale lirain, itz eragikorrez benderatu nauen emakume aren eskakizuna: garrantzi andiko dala dirudi aren arazoak; eta ak itzez labur esan eustanez, arazo au zuri ta ari, bioi, dagokitzuena *áa.*

ERREGEK.—(Irakurri dirakur) "Bere emaztea ildakon nikin ezkontzeko aren agindubearraren agindu-bearrez, -arpegia lotsaz gorrituta dirautzut-, ak irabazi nindun. Alargun da orain Errusillon'go kondea; niri agindua ausi ta yan dau, eta nire entzute ona ari ordainduta dago. Firentze'tik ixilka alde egina da, agurrik egiteka, eta aren yarrai nator aren aberrira, zuzentza-eske: egidazu, errege orrek; eskurik onenetan datza; ostantxean, ziri-sartzallea eztitan legoke, eta neskato errukarri au ondaturik. DINE Kapulet".

LAFEU'k.—Suin-billa saltegira yoango naz, eta arako sarrera-ordaintzat au emon: nik eztot gura ori ezetara be.

ERREGEK.—Yaungoikoak begi onez begiratu zauz, Laíeu, igarkizun au iragarriaz. Ekarri ona zuzentza-eskaleok: -yoan arin eta ekarri ona barriro kondea.

(Gizazindoak eta Otsein batzuk alde).

Andera, Elene'n biziaren bildur naz; bide naskagarriz kendu dautsoe, urrean.

KONDENOAK.—Ezarri zuzena orain egilleai!

BERTARAN aurrera, yagonda.

ERREGEK.—Arrituta naukak. yaun, itzako emazteak bidutzi utsak izan, zin egin-ala eurekandik igesi, ta orain barrien-barri ezkondu gura izateaz. Ze emakume dogu orxako ori?

Ostera be Gizazindoa aurrera, Alarguna ta

DINE'kin.

DINE'k.—Ene yaun, ni Firentze'tar zori txarreko nozu, beñolako Kapulet'arxetariko; nire eskakizuna ezagun dozula uste dot. Eta, beraz, yakizu zenbateraño nazan ni errukarri.

ALARGUNAK.—Neu naz orren ama, yaun, eta orren adina ta entzute ona galdu-gorde gorrian dagoz guk emen dakartzugun zinkuri onetan. Eta biak galduko dira, zuk zuzendu ezik.

ERREGEK.—Ator ona, konde ori, ator ona: ezagun ete dozak emakumeok?

BERTARAN'ek.—Ene yaun, ezagun dodazanik ezin ukatu, ezta gura be: orrez besterik agintzen ete dauste?

DINE'k.—Zegaitik iñondiko begirakuneok zure emaztearentzako?

BERTARAN'ek. Ene yaun, ori ezta nire emazterik.

DINE'k.—Ezkondu ba'zadiz, esku ori iñori emongo dautsazu, eta ori nire da; zuk iñori damotsazuz Yaungoikoaren aurrean egindako aginduak, eta aginduok nire dira; zuk neu namozu besteri, eta ni, agiri-agirian, neure naz, ni zukin bat egina nazanazkero zuk zure burua nori emon ari namozu neu be, edo biok edo bata bez.

LAFEU'k.—(BERTARAN'i) Zutzazko ustea nire alabearentzako gitxiegi da; zu etzara arentzako senarrik.

BERTARAN'ek.—Ene yaun, neska au maitabera ta etsia da, ta orrekin bein baño geiagotan barxerik egina nozu: zuk nagusien orrek nire deduaz uste oberik izango al do-

zu, nik olango neskatan ondatu nengikeanik usie izun buño.

ERREGEK.—Yaun, nire usterik eztok ire adiskidetuko, egitez irabazi barík: erakutsi egik ire dedua nire gogapenetan dagon baño ederrago dala!

DINE'k.—Ene yaun on, eska egiozu zin-bidez esan dagiala nire neskatasuna bere eztanentz.

ERREGEK.—Zer dirautsok ik neska orri?

BERTARAN'ek.—Ori lotsabako da, ene yaun; ori gudaroste osoaren emagaldu izana da.

DINE'k.—Laidotu egiten nau orrek, ene yaun; olangorik izan ba'nintz, orrek ni merkeago erosi al izango nindun; ez egiozu sinistu. Ara, begira bardinik eztauen erestun bikain itzalez eder au; eta orraitiño, orrek gudaroste osoaren emagalduri emon eutsan, ni olangorik ba'naz.

KONDENOAK.—Gorritu egin yako arpegia, ta axe da: pitxi ori igaroko sei belaunaldi-tan, ilburukoz urrengorik urrengo urrenari itxita, sei gizaldik orretaz yabetu ta erabili izan dabe* Au da orren emaztea; milla argibide añako da erestun au.

ERREGEK.—Oker ezpa'nago, emen erregeurian ba-dala ori autortuko leukenik esan dozula uste dot.

DINE'k.—Esan be esan dot, ene yaun, baña a dana lango erakuspide gaiztorik aurrera ekarten lotsa naz; Itzuts yako izena.

LAFEU'k.—Gizon ori gaur ikusia nozu, gizon ba'da, gero.

ERREGEK.—Zoaze aren billa ta ekarri egizue ona (Otseinak alde).

BERTARAN'ek.—Zer egiteko urli ak? A yopu saltzallatzat dauka edonok, eta munduan diran akats eta orban guztiak ak aldean dauz; a egi bat bakarra esan-bearrak gexotu egiten dau; ni, naiz ori, naiz a, ak esango leukena ete gara, ak edozer esango dauenazkero?

ERREGEK.—Emakume orrek ire erestuna yaukak.

BERTARAN'ek.—Ba-dauela uste dot: egia da nik ori maite izan dodala, eta orren etxera joana naz gazte lizunak yoan oi diranez; crrek ba-ekian gure artean egoan aldea, eta ziri ta ziri ekin eustan, berorren irrikiaren irrikiz ni zoratu arteño, irritsarentzako eragozpen guztiak irrits-pizgarri dirala; eta, azkenean, berorren ekinaren ekinez eta lilurapenez berorrek zer-gura egiteraño benderatu nindun; nire erestuna iritxi eban: eta niri ni baño beragoko edonok saltegiko saneurriz erosi leikena emon eustan.

DINE'k.—Epe bear dot nik, epe: zure lenengo emazte ain zindoa zapuztu ta baztartu zebunuzkero, zuri oiiuo uuiurUu ni be zugandik urrin eukitea. Zu ez zintzo ez zindo zareanazkero, ni gertu nago nire senarra galtzeko, baña, arren, billa egizu zure erestuna, ta nik etxera eroango dot, eta nirea atzera emongo dautzut.

BERTARAN'ek.—Nik eztaukat.

ERREGEK.—Zelango zan zure erestuna, arren?

DINE'k.—Yaun, zure atzekoa langoxe-langoxea.

ERREGEK.—Ezagun dozu erestun au ala? Erestun au orrena izan da oraintsu.

DINE'k.—Orixe emon neuntsan nik, oean gengozala.

ERREGEK.—Orrazkero, guzurra dok ik esana, leiotik egotzi euskaela.

DINE'k.—Nik egia esan dot.

BERTARAN'ek.—Ene yaun, autortzen dot erestuna orrena izan zala.

ERREGEK.—I otz-ikareagaz lez ikara az; edozek ikaratzen au i...

Otseina aurrera, Itzuts'ekin.

Au da zuk aitatu dozun gizona ala?

DINE'k.—Bai, ene yaun.

ERREGEK.—I, yauntxo, esaidak, baña egi utsa gero, neuk agintzen dauskat; ez izan ire ugazabari gogoko ez izangoren bildurrik. -i zuzen ba'abil, neuk yagongo aut orregandik, -ataz eta emen dagon emakumeaz zer dakik ik?

ITZUTS'ek.—Zure nagusigoari eder izango al yako, nire ugazaba gizon zindo izan da: barrabaskeri batzuk izan dauz izan, gizazindoak izaten 'dabezanez.

ERREGEK.—Tiruk, tiruk, arira ator: ire ugazabak maite ete yoan emakume au?

ITZUTS'ek.—Benetan, yaun, maite eban; baña nolan?

ERREGEK.—Esaidak, arren, nolan?

ITZUTS'ek.—Ak, yaun, gizazindok emakume maite dauenez maite eban ori.

ERREGEK.—Zer esan gurok orregaz?

ITZUTS'ek.—Ba, yaun, ak emakume ori maite eban, eta ez eban maite.

ERREGEK.—Eu zital azan eta ez azan legetxe. Sekuleko esangura biko urlia dogu berau!

ITZUTS'ek.—Ni gizon errukarri nozu ta zu nagusien orren esaneko.

LAFEU'k.—Ori arratz on yatzu, ene yaun, baña izlari kaskar-kaskarra.

DINE'k.—Nikin ezkonduko zala agindu eustanik ba-dakizu ala?

ITZUTS'ek.—Benetan, nik esan gura dodana baño geiago dakit yakin.

ERREGEK.—Eztok esango dakikan oro ala?

ITZUTS'ek.—Bai, eta eder bekitzu yaun orri; esan dodanez, ni orrein bitarteko izana nozu; eta ori baño geiago, ak emakume au maite eban, -eta izan be, a emakume au zala-ta burua galduta ebilan, eta Exerrena, linboa, asarrebiziak, eta batek ba-dalci zer geiago, ak aitatzen ebazan: orraitiño, aldi atan nigan eban ustea zala-ta, ni yakitun nintzan orreik oean alkarrekin etzateko zirala; baita beste erabagi batzuen yakitun be, esaterako, emakume orri ezkontzea agindu eutsala, eta esateak nire ugazabaren asarrea eratorriko leuskiden zeren yakitun; orrazkero, eztot esango dakidanik.

ERREGEK.—Ik dagoneko esan dok dana, ezkonduta dagozala ezik: baña i ire autorpenean luki-bidez ibili atxaku; orrazkero, alde egik.-Erestun au zure zala diñozu zuk ala?

DINE'k.—Bai, ene yaun on.

ERREGEK.—Non erosi zeban? Edo-ta, nok emon eutzun?

DINE'k.—Ez eustan íñok emon, ezta nik erosí be.

ERREGEK.—Nok emon eutzun zorrean?

DINE'k.—Ez eustan iñok emon zorrean be.

ERREGEK.—Beraz, non idoro zeban?

DINE'k.—Eneban idoro be egin.

ERREGEK.—Arretariko bide batez be zu erestun orren yabe egin ezpa'zintzazan, nolan emon zeinskion gizon orri?

DINE'k.—Nik eztautsat emon izan eguño.

LAFEU'k.—Emakume au, ene yaun, eskuzorro nasaiaren antzeko da; sartu-urtena irristaka egiten dau.

ERREGEK.—Erestun au neure zan, neuk emon neuntsan aren lenengo emazteari.

DINE'k.—Nik dakidana gora-bera, zure naiz aren izan leiteke.

ERREGEK.—Ken egistazue emakume au aurretik, bein-beinean etxat gogoko; baitegira eroan: eroan gizon ori be. Erestun au nondik iritxi dozun esan ezpa'dagizu, ordubete barru gorpu zara.

DINE'k.—Iñoz be eztautzut esango.

ERREGEK.—Eroan egizue emendik.

DINE'k.—Yarei-baia emongo dautzut. ene yaun.

ERREGEK.—Oraintxe asten naz sinisten emagaldu zareala.

DINE'k.—Yupiterrarren, eguño nik gizonik ezagutu ba'dot, zu izan zara.

ERREGEK.—Zer dala-ta salatu dozu ori aldi guzti onetan?

DINE'k.—Errudun dalako, ta eztalako: orrek ba-daki ni enazala neska, ta au zinez baiestuko dau: nik neska nazala zin egingo dot, eta orrek eztaki. Errege andi ori. ni enozu emagaldurik, nire biziarren; ni neska nozu, edo, ostean, agure onen emazte (LAFEU erakutsiaz).

ERREGEK.—Ori gu minduten dabilku; baitegira orren azurrak.

DINE'k.—Ene ama on, zoaz baiaren billa. Etxon, errege yaun (Alargunak alde). Erestunaren yabe dan pitxidunaren billa yoan dira, ela *a* izango da nire bai. Berak dakianez, orrek niri eguño okerrik egin ezarren, ni lorrindu nauen yaun orreguzko, emen eta orain dana kitutzat emoten dot: orrek berorrek daki nire oea lorrindu ta orbandu dauena: eta une atantxe bere emaztea seindun egin eban. Ilik egonarren, bere señaren zirkinak bere barruan oartzen dauz: orrazkero, ona emen igarkizuna: ila bizi da; eta oroin ikusi zer esan gura dauan.

Alarguna aurrera ELENE'kin.

ERREGEK.—Ez ete dogu emen nire begiai eztana ikusi eragiten dautsen araotzalleren bat? Benetakorik ete da nik dakustana?

EIENE'k.—Ez, ene yaun on; zuk dakusazuna emazte-itzal baño ezta..., izena, ez zera bera.

BERTARAN'ek.—Biak, biak; asketsi, arren, asketsi!

ELENE'k.—Ene yaun on ori! ni neska orren antzeko nintzanean, zu itzalez maitabera ta maitakor aurkitu zíndudazan. Eutsi zure erestuna, eta, begira, emen dozu arako zure idazkia. Au diño ak: "Nire atzetik nire erestun au iritxi al dagizunean, eta nigandiko umerik daukazunean, eta abar". Orrako ori eginda dago: birritan irabazita zagozanazkero, orain nire izan gura ete dozu?

BERTARAN'ek.—Ene nagusien ori, orrako ori orrek argi ta garbi erakutsi al ba'dagist, maite-maite izango dot, maite-maite betiraun guztian.

ELENE'k.—Argi ta garbi ez erakustekotan, betor banakuntzea zure ta nire artean! Ene ama maite ori, bizirik zakustaz?

LAFEU'k.—Nire begiok kipula-txipiriztinduta dodaz: negar egingo dot bertatik: Toma Arratz on ori (ITZUTS'eri), ekak sur-zapiren bat olantxe, eskerrik asko; lagun akit etxera, ikin yostatuko nok: bastarrera eragin milinkeriai, etxatazak bape begiko-ta.

ERREGEK.—Dazagun ipuir. *an* zeatz, egi soilak bídea atseginez dagian: --oraindik zituri emon bako lora barri ba'zara (DINE'ri), zeuk autetsi zure senargeia ta neuk ordainduko dot zure ezkonsaria; nik uste dagikedanez, zure laguntza zindoz emaztea emazte izatea lortu dozu, eta zu zeu neska gelditu. Ori ta ganetikoa zeatz eta meatz yakin gura dogu: Oraindiño dirudienez, dana dago ondo; eta azkena orren egoki ba' dadi, gorriak ikusi-osteko zori onari txera argiagoa egiten yako. (Eresi).

,rrege eskekú da (11/, anizer&ia amaim aa: dana yoan izango da ondo, zuon ederretsia iragarri ba'dagiskuzue; zuon txaloai esker ona erakusteko, egunoro alegin barriak egingo doguz zuon atseginerako; zuok epe artu gure alde, ta txaloz ordaindu gure aleginak; ekaguzuez zuon esku zindoak, eta eutsiez gure biotzak. (Alde dagie).

(14) Itzokaz "Errege eskeko *da"* balatari ukutzen dautsa emen Shakespeare'k.

AMAIA

Salta'n 1960-V-24'garrenean.

LAN ONETAKO ITZ GITXI EZAGUN BATZUK

AKETO.—Gizon trakets, era-mera onik eztakiana.
ARAOTZALLA.—Arao edo "konjuro" egiten dauena.
ARRATZ.—Danborra. Itz au Ametzaga'k dakar bere Hamlet'en eta, dirudienez, Azkue'k be ba-dakar bere iztegian, arrast-barruan B-Oñ. imintsn dau-ta. Or diñonez, itz au Oñati'n artua da.
ARROZTEGI.—Arrotzak artzeko etxea; ostatu.
ARTZEKO.—Osagilleak ze osakai artu bear dogun iragarteko emoten dauskun papeltxoa.
ATZIPETU.—Marro egin; ziria sartu.
AUNITZ.—Itz onen esangureaz "asko" erabilten da tokirik geiegitan, baña "asko" "naiko" iragarteko bakarrik erabili bear litzatekela nik uste, talderik iragarteko "aunitz" erabilita.
AURKAKO,—Kontrako.
ASKETSI,—Parkatu.
ASTAKIN.—Zerbait zenbaterañó dan astun igartako erabilten dogun lanabasa.
BIDUTZI.—Mamu; neurriz besterako zer itzal.
EDEN.—Bereno, pozoi, sikilikitu.
ENTZIN.—Itz au izen eta aditz izan leiteke. Aditz danez. "norbaitegan uste onik izan" esan gura dau; izen danez ostera, "norbaitegan dogun uste ona" esan gura dau.
ERKIDE.—Zerbait besteHn batera artzen ba' dot, ni ta bestea, naiz besteak zer orren erkide gara, zer ori artzeko gure eri edo atzak batera sartzen doguzalako-edo. "Parte artzen dauena".
EGAKI.—Egazti-luma.
ERETI.—Zerbaiterako erea; adiñon, abagune.
ERDEÑU.—Gogatxar, zapuztute.
EORTZI.—Gorpua naiz besterik lurpean sartu.
EUNLEUN.—Gaztel-erderazko "terciopelo" dalakoa.
ERREGENO.—Errege eme.
GEZNARI.—Norbaiteri barrien bat iñoren aginduz daroatsona.
IKURRATZ.—Sillu.
INGI.—Papel.
IZTEN.—"Barreka iztenak egin gebazan" esaten da Arratia'n, "Barreka lertu egin gintzazan" esan-gureaz. Beraz, izten eta eztanda alkarren senide-senide dira.
KAPAR.—Txozna.
KOKALDA.—Biotzeko gatxa dala-ta umerriak, alan be ardiak, izaten daben gatxa. Kokaldadun ardiari soña urez beteten yako; eta gaitz ori ardiari ur geldietatik edan izanetik datorko. Ehderazko "hidropesia" esateko ezin egokiago da itz au.
MOKO.—Zuk geien baten moko esan-bearrean punta esaten dozu, baña Paskoetan zure aitabitxi naiz amabitxik emoten dautzun mokotzari eztautsazu esaten puntatza moko edo punta aunitz izanarren.
OSAGILENO.—Osagille eme.
SORI.—Iñok galazota eztagona. Ezta sori guzurrik esatea, baña sori da iñok galazo eztauskuna egin nai esatea.
YARAUNTSI.—Norbaiten eriotzaz naiz ilburukoz zerbaiten yabetu.
YAINKONO.—Yainko eme.
YAUPARINO,—Yaupari eme.
YA URETXEBURU.—Parroku.
ZAURATZ.—Zauria osatutakoan gelditzen dan lorratza.

AMABIGARREN GAUA: NAIZ, ZEUK ZER GURA

(TWELFTH NIGHT; OR, WHAT YOU WILL)

AMABiGARREN GAUA: NA!Z, ZEUK ZER GURA

(TWELFTH NIGHT: OR, WHAT YOU WIU)

ANTZERKI ONETAKO ANTZEZLARIAK

ORSIN (Orsino). Iliri'ko Duke.
SEBASTEN, Aitonen seme gazte, BIOLE'n neba.
ANDONI, Ontziburu, Sebasten'en adiskide.
ONTZIBURU, BIOLE'n adiskide.

BALENDIN,)
KURI. Dukearen laguntzako aiton-seme bi.

TOBI AGOBERO Sir (Sir TOBY BELCH), OLIBE'n osaba.
ANDER MOSULARU Sir (Sir ANDREV/ AGUE-CHEEK).
MALBOLI (MALVOLIO), OLIBE'n Ondasunzai.

PABEN.
AKETO. OLIBE'n otseinak.

OLIBE, Kondeno aberats.
BIOLE, Dukeaz maitemindua.
MIREN, OLIBE'n laguntzako andera.

Andiki, Abade, Itxas-gizon, Ertzain, Ereslari, ta Otsein batzuk.

AGERLEKU.-ILIRI'ko Uri; eta andik urreko itxas-ertza.

I EKITALDI

I AGERLEKU.-DUKEA'ren Yauregiko Gela.

DUKEA, KURI ta Andikiak aurrera: Ereslariak begira.

DUKEA.—Eresia ba'da maitetasunaren yaki, ekin yoten, asebete nagizue eresiz; asebetearen asebetez yangarra gexotu ta il dadin. Lengo eresia yo ostera be: otsa agortuaz agortuaz, ilaz ilaz amaitu *da* a: arako bioleta-loradian ixilka sartu ta andik sunda gozoa dariola urteten dan egoe-axe eztia legetxe sartu yat belarrietara a... Asko da, bego, ez geiagorik: orain ezta len bestean ezti. Maítetasun axe ori, i bai ba-azala bizkor eta ozkirri-atsegingarri! eta izan be, ik itxasoak aña artu al dok-eta, ik artzen dokan oro, naiz eta aintzakoen eta gallenen izan, unetxo baten zirtzildurik eta usturik gelditzen dok! Irudimena irudiz orren beterik yagok-eta, bera dok andi ta aintzako, ez berak dauenik!

KURI.—Eizean yoan gura dozu, ala, ene yaun?

DUKEA.—Zeren eizean, Kuri?

KURI.—Oreinen eizean.

DUKEA.—Egin eginean be orretantxe naiabilk, eta nik dodan zerik zindoenagaz ibili be; ene! nire begiz Olibe lenengoz ikusi naioanean, ak eguratsaren kutsua garbitu egin ebala iruditu yatan: une atantxe orein ar egin nintzoan ni; eta arrazkero, nire lera-irritsak, eiza-txakur itzal eta odolzaleen antzera, yarrai dabilkidaz etentzaka... Ostera! Ze barri dakak neskato agandik?

BALENDIN aurrera.

BALEND.—Eder izango al yatzu ene yaun orri, baña agana eltzerik eztago-ta, aren otsein neskeagandik dakartzut barri ou: lengaie-

tariko dan eguzkiak berak be eztau ikusiko aren arpegi osoa zazpi urtean bere beroa emon-arte; bestera, lekaimetxe-barruan bizi dan neskatoren antzera, arpegia estalita ibiliko da a, eta egunean bein ureztauko dau bere gelea bere begietako argitasuna lausotuten dautsoen negarrez: eta dan au egiten dau ak bere oroimen goibelean barri ta iraunkor euki gura leuken bere nebearen maitetasun ila gozatze-arren.

DUKEA.—Ene! neba baño etxakonari dautsan maitetasun-zorra ordaintzeko olango biotz ederia dauenazkero, orrek bai maite al izango dauela, maite, orregan legokezan beste lera ta irrits guztiak urrezko argi-dizdizak il dagizanean! yarlekurik gorengo diran orren gibel, garaun ela biotza, -orren osotasun eztiok-, euren gei ela betaganitzat erregea beia izan dagienean! Erdu nikin batera lorategi eztietara: lora-estalpea da tokirik egokiena maitetasun gogapenentzat. (Alde dagie).

II AGERLEKU.-Itxas-ertza.

BIOLE, Ontziburua, ela Itxas-gizonak aurrera.

BIOLE.—Ze lunalde dogu au, adiskideok?

ONTZIB.—IIiri, andera.

BIOLE.—Eta zer egileko nik iliri'n? Elisi'n da nire nebea (1). Ba-leiteke *a* itorik ez izatea: zer uste dozue zuok, itxas-gizonok?

ONTZIB.—Zu zeu be alanbeanez yaiei zaia.

BIOLE.—Nire neba errukaniaiena! A beia be yaiei eitekean alanbeanez.

ONTZIB.—Egia, andeia: eta, alanbeana pozkani izan dakitzun, neuk diiautzut, guie ontzia anakaldutakoan, uiak zu ta zukin bateia bateia ta besteia eioian ontzi-ondakinetatik dingilizka zuok gitxiok zuon buiuak yaiei zenduezanean, neuk ikusi neban, a galtzoiian buiubidetsu. adoieak eta itxaloak biak bide ori iiakatsiiik, nolan ak lotu eutson beie buiua oiaindik uiganean biziiik agiii zan ontzi-aga sendoii: eta an ikusi neban nik a uiutuekaz adiskidetuiik nik ikusi al izan neban aldi guztian, beñola Aiion izurdeaien bizkarrean legetxe.

BIOLE.—Eutsi une au orrako ori eralgi daustazulako: neure burua yarei izana yat itxarobide aii beiari be beste ainbeste yazo eikikeola, ela zuk esana be onen alde dago. Ezagun yatzu lunalde au, ala?

ONTZIB.—Bai, andeia, eta ondo ezagun izan be; izan be, emenlxe yaio la azia nozu, emendik iiu oiduko bideiik be eztagon lekuan beitan.

BIOLE.—Noi da emen nagusi?

ONTZIB.—Izenez ela izanez zindo dan duke.

BIOLE.—Zei yako izena?

ONTZIB.—Orsin.

BIOLE.—Orsin! Onez ilz egiten niie aita entzunik dot. Aldi atan ezkonga zan ori.

ONTZIB.—Olangoxe yalzu oraindik be, edo oraintsu beintzat olangoxe izan yatzu; emendik alde egin nebala ilebele baño ezla-la: ela sortu-bani zan oiduan a Olibe lirainaren maitatasun-eske ebilelaien maimaiia.. zeuk dakizunez, andikiak zei egin a yatzu beiagokoen esames-gei.

BIOLE.—Nolango da orrako neskato ori?

ONTZIB.—Neskato on-indartsu, oiain amabi bat ilebete il zan kondearen alaba; aitak bere semearen ardurapean itxi eban bere eriotz-aldian, baña neskatoaien neba oii be andik laster il zan: eta, or diñoenez, neba orienganako mailasuna-arien orrako neskato onek gizonen laguntzeaii la euiak ikusteaii be agur egin dautso.

BIOLE.—Neskato orren otsein al nintz! ela ez al nintzakio ezagun, ni noi nazan iragaiteko eietia umatu-aiteño.

ONTZIB.—Gaitz litzake olangoiik iristea: ela izan be. ak estautso iñori yaramonik egiten, ezla dukeari beiari be.

BIOLE.—Yardukera zindo-zuzen dozu zuk, ontzibuiu; eta izateak sanitan orma ederien banuan zikinkeii ta satsik asko goide-orren, zuk zure bairuan zuie agiriko azal ela yardukera eder oneii dagokion biotza dozula sinisten dot nik. Ondo oidainduko dautzuteta, anen bai arren, ixilik eukizu ni nor nazan: eta lagun zakidaz nire buruari nire asmoari dagokion estalgia iminten. Duke orren otsein izan gura neunke: gazte irenduetaikoiik bainintz eroan beai nozu dukeaien aunera: onetan arlu zeinkezan nekagani izango yatzu zuie egite ori; ela izan be, ba-dakit nik abesten, eta eresiaz zer edeirik esaten be ba-dakit-ela, nire yakituri onek aren olsein izangarri egingo nau. Ori orain, gero gerokoak; zuri eskatzen dautzudan zer bakarra zuie agoa ixilik eukilea da, niie asmoen alderako.

ONTZIB.—Gazte irendu izan zakioz zu ari bai? eta zure izka izango nalxalzu ni; nire miñak txalxukeriz salalu ba'zagiz, ilsuluko al diia niie begiok!

BIOLE.—Eskenik asko zuii. Eiakutsi egidazu bidea. (Alde dagie).

(II) "Elisi" dalako au Elade'tarren beste munduko zoriontegi edo zeru yatzu.

III AGERLEKU.-OLIBE'neko Gela.

TOBI AGOBERO Sir'a aurrera MIREN'ekin.

TOB.—Ze asmo galgarri dau nire illobeak bere nebearen eriotzeaz onan eragoteko? Biziaren arerio dira kezkak, bai orixe.

MIREN.—Tobi yaun, gaulendizago etorri bear dozu: nire andera zure i'ilobeari oso gogoaz besterako yakoz zure beranduko etorteak.

TOB.—Baí oba da aren gogoaz desierako izan, besteen gogoaz besterako baño.

MIREN.—Bai, baña zeuk be egoki diran aldiak yagon bear zeunkez.

TOB.—Orduak yagon? Yagoten dodazan baño obeto eztot yagongo ordurik; onik asko dira yantziok, edateko, eta bai oskiok be; olangorik ezpa'dira, begoz euren ugaletatik eskegita.

MIREN.—Zurrutadok eta geiegi edateok galduko zauez zu; atzo entzun neban nik nire anderea orrez eragoten; baita lengo gau batez ona nire maitaletzat ekarri zendun zaldunaz be.

TOB.—Nortzaz? Ander Mosularu'az, ala?

MIREN.—Bai, arexetzaz.

TOB.—Iliri'n dan gizonik andiena bestean andi da *a.*

MIREN,—Eta zer ortik?

TOB.—Ba! iru milla duketen etorria dau ak urtean.

MIREN.—Bai. baña duketok eta guzti be *a* ezta biziko urte betez gora; ergel eta ondatzalla uts da a.

TOB.—Uf! olangorik esatea be! biolontxelo yoten daki ak eta iru-lau izkuntzaz itz egiten be bai, itzeri dagokon itzaren billa idaztira yo-bear barik, eta izateak emon daroazan on eta emaitz guztiak dauz ak.

MIREN.—Bai, ba-dauz izan be..., berezko yakoz larri-Iarri: izan be, ergel andietariko izanaz ganera, asarrelari andi be ba-da, eta asarrebera dan bestean kikil ezpa'litz, gizon zurrak uste dabenez laster litzake a il-obian..

TOB.—Esku au-arren dirautzut zatar-zirtzil dirala olango guzurrik aretzaz zabaldu dabenak. Nortzuk ete dira?

MIREN.—Orrez ganera, zu lagun zauzala a gauoro mozkortzen dala be ba-diñoenak dira.

TOB.—Nire illobearen osasunaren alde edanaz; edango dot aren alde nire eztarrian barrurako biderik dagon artean, Iliri osoa edan-arteño. Kikil eta bildurti da bere buruak beatzen ganean zibearen antzera bira ta bira egin-arteño nire illobearen alde edan gura eleukena. Zetan gagoz, neska? Betor Kastilla'ko ardaoa! Ander Mosularu emen dator-eta.

ANDER MOSULARU aurrera.

ANDER.—Tobi Agobero! kaxo, Tobi Agobero yaun.

TOB.—Ander ezti augu?

ANDER.—Yaungoikoak onetsi zagizala, muker lirain ori.

MIREN.—Bai zeu be, yaun.

TOBI.—Zirikatu ori, Ander yaun, zirikatu.

ANDER.—Zer dok orrako ori?

TOBI.—Nire illobearen gela-otseina.

ANDER.—Zirikatu andera on, obeto ezagutu gura zindukedaz.

MIREN.—Miren da nire izena, yaun.

ANDER.—Miren Zirikatu andera on_.

TOBI.—Oker ago, zaldun: zirikatu zera dok, orren aurrez aurre yarri, orreri urreratu, maitearena egin orri ta zirri batzuk egin.

ANDER.—Egia esateko, eneuke egin gura olangorik emen lagunen aurrean. Ori da zirikaturen esan-gurea, ala?

MIREN.—Agur, aitonen semeok.

TOBI.—Olan alde egiten itxi ba'dagiok, Ander yaun, ez al dok bein geiagotan ezpatarik aterako.

ANDER.—Olan alde ba'dagizu, neska, nik ez al dot gaurdanik ara ezpatarik aterako. Neskato lirain, ergel-artean zagozala uste dozu, ala?

MIREN.—Yaun, nik etzaudaz eskutik elduta.

ANDER.—Baña izango nozu, Miren; eta eutsi nire esku au.

MIREN.—Uste izateaz zeure eskuko zara, yaun. Arren, gurin-ontzian sartu egizu esku ori, cm ezatu dadin.

ANDER.—Zegaitik, kutun? Zer esan gura dau ordeazko zure esakera orrek?

MIREN.—Legor dagola esan gura dau, yaun.

ANDER.—Izan be, neuk be orixe uste dot; enozu ni nire eskua legor ez eukiteko besteko astorik.-Zer esan gura dau zure txantxa orrek?

MIREN.—Txantxa legorra dala. yaun.

ANDER.—Olangoz beterik zagoz zu, ala?

MIREN.—Bai, yaun; nire erpuruetan dodaz: Andera Miren-arren, zure eskua askatu dodanazkero, utsik gelditu naz, euretatik bat be etxat gelditu. (MIREN'ek alde).

TOBI.—**Zeldun orí. Kanarietako edalontzikada bat bear dok ik: noz ikusi aut nik olan meko eginik?**

ANDER.—**Nire ustez eguño bez ire bizian, Kanarietatikoak benderaturik ikusi ezpa'nagik. Nik nire ustez batzuetan etxoat Kistarrek naiz orko edozein gizonek dauen baño zurtasun geiagorik; baña ni adakai-yale itzal nok-eta. nire ustez, orrexek egiten yautsak kalte nire zurtasunari.**

TOBI.—**Bai, izan be.**

ANDER.—**Olangorik uste ba'naieunkek, betiko agur egingo naieunskiok. Biar etxera yoango nok zaldiz, Tobi yaun.**

TOBI.—Pourquoy, **ene zaldun maite?**

ANDER.—**Zer dok** pourquoy **dalako ori? Baietz, ala ezetz? Ezpata-ekitean, yantzan, eta artzak zirikatzen emon izan dodan aldia izkuntzak ikasten emon izan al neu. Ederti-ikaskizunak ikasi al neuz!**

TOBI.—**Ori egin izan ba'endu, ire buruan adats ederrik ba-eunkaken.**

ANDER.—**Ostera! ortik nire adatsa aldatuko litzatekean,** *cúa?*

TOBI.—Bai, seguru; ba-dakik ba, berez eztauela kizkurtu gura.

ANDER.—**Baña orraitiño be ederrik asko yoat, ez ete?**

TOBI.—**Oba ez! ítzalez eder; kirrua gorutik legetxe dingilizka yagok; eta nik bayoat itxarorik etzanderaren batek bere iztar-artean artu ta ire adatsagaz aria egingo dauela.**

ANDER.—**Benetan, biar etxera naioak ni, Tobi yaun; ire illobeak etxok gura** *a* **iñok ikusi dagianik; edo-ta ak iñor ikusi gura izatekotan, baten aurka lau egingo naieunkezak enauela ni ikusi gurako; emengo kondeak berak be lanak eta erdi yozak orri maitearena egiten.**

TOBI.—**Orrek etxok gura ezer kondeakin; orrek etxok ezkondu gura mallaz, ondasunez, urtez, naiz zurtasunez berori baño goragoko danekin; neuk yoat ori orrez zin egiten entzunik. Aiko, ba-yagok zer itxarorik, gizon.**

ANDER.—**Ilebete luzaroago geldituko nok emen. Munduan danik eta bururik iñondikoena yoat nik; batzuetan gogoko yatazak marroak eta yolasak, guztiak batera.**

TOBI.—**Aitua az, zaldun, olango uskerietan, ala?**

ANDER.—**Ni baño beragokoen artean Iliri'n dan edozein gizon bestean bai; eta, orraitiño, etxoat neurtu gura nire burua agurekin.**

TOBI.—**Zetan gallentzen az i "gallarda" dalako yantzan?**

ANDER.—**Aiko, nik ba-yakiat gora-gorakak eta artaziak egiten.**

TOBI.—**Eta nik be ba-yakiat yantza orren laguntzaz ardi-okelea ebaten.**

ANDER.—Eta nire ustez, Iliri'korik onenak bestean txairo egiten yoat nik soinbira osoa.

TOBI.—**I, eta zegaitik daukazak zerok ostonduta? Zegaitik daukazak ire geitasunok errezel-ostean? Auspean egoteko ete dozak, Mall Anderearen irudiaren antzera? (2) Zegaitik eztok egiten "gallarda" yantzea yauretxera-bidean, eta "koranto" <3) etxera-bidean? Nik neuk be aurreskua eginaz egin bear naieunkek bidea; txixik be enaieunkek egin bear nik, yantzan egin-ala exik (4). Zetan ago? Mundu au nobere on-indarrak ostonduta eukiteko dala uste dok, ala? Ire zango ain bikain eratuak ikusirik, "gallar-**

(2) Mall Anderea, .1584'gnean yaio, 1659' gnean il, bere izenez Mary Frith zan, eguño ezagutu dan marimutilik marimutilena; London'darrak "Mall Cutpurse", Mall Zisku-eba-Ua izenez deitzen eben emakume au. Erdi gizon, erdi emakume ei zan, pipan erreten eban tabakoa; aren lapurretak bala-bala ebiltzan erriaren agoton; zirrilda, emakume galduetariko izanik, zirrildategien yabe be ba-zan. Aren egite oker-zantarrak zirala-ta, erriak bera ezagutu ta ikusgura andi izaten eban-eta, London'go saletxe edo denda baten egoan aren irudia, Mall beraren neurrikoa, txokurrandi batzuk ordainduazkero, ume ta gaztetxoez beste edonok ikusi eikeana. Ez umek, ez gaztetxok, aurreztik ordaintzen ez ebanek ezin ikusi al izateko, irudi orren aurrean oial iluna egoan dingilizka. Irudi orri dagoko emen Shakespeare'k diñona.

(3) "Koranto" dalako au yantza bizitarikoren izana yatzu.

(4) Gogora dakast onako onek bein nire errian, Zeanuri'n, yazo zana. Urlia ta berendia norgeiagoka egiteko itundu ziran alkarrekin, zein eldu lenago Barazargana'tik Zeanuri'ko Ibarguen auzoko enparantza edo plazara, burdi bona utsik eroela. Zeanuri'n gizon bion izenak be ba-dakiez, baña niri aztu yataz, nire aldiko etziralako. Leiakide biotatik batak aldean ebazan parkak erantzi ta bere burdi-ganera egotzi ebazan, emen bere izenez aitatu gura eztodan estukurarik etortekota-n barruko ontzi bata, naiz ontzi biak ustuten astirik ez galtzeko. Beti be izan dira gure errietan gogaldi oneko gizonak.

da"ren izarraldian eta bendean eratuak dirala uste naioan nik.

ANDER.—Bai, sendo dira nire zangook eta ondo baño obeto dirudie gar-koloreko oinzorroen barruan. Yolasen batzuetara yoango ete gozak?

TOBI.—Zer besterik egiteko guk? Ezkintzoazan yaio Tauru-aldian, ala? (5).

ANDER.—Tauru-aldian? Orren aldikoak saietsak eta biotza yaukiezak sendo.

TOBI.—Ez, yaun; zangoak eta iztarrak baño. Erakutsi egidazak ire yauziak eta artaziak: eup! gorago! ja, ja!... itzalez ondo, ederto baño edertoago! (Alde dagie).

iv AGERLEKU.-DUK; A ren Yauregiko Gela.

BALENDIN eta BIOLE aurrera, au giza-yantziz yantzita.

BAL.—Kaisari, dukeak zuri olango emaitzak egiten ekin eta ekin ba'dagi, obarantzako andi. aurrerapide andi egingo dozula uste dot; iru egun baño eztira ak ezagun zauzala, eta dagoneko be etzara arrotzik emen.

BIOLE.—Ba-dozu zuk bildurrik, naiz aren gogaldiarenik, naiz nire zabarkeriarenik, aren niganako maitetasunak iraungo ete dauen susmorik izateko. Aldakor ete da a, yaun, bere eskuzabaltasunean?

BAL.—Ez orixe, sinis egidazu.

DUKEA, KURl, eta Laguntzakoak aurrera.

BIOLE.—Eskerrik *asko.* Emen dator kondea.

DUKEA.—Iñok ikusi ete dau Kaisari? Eee!

BIOLE.—Zure otsein, ene yaun; emen nozu.

DUKEA.—Alde zuok apur baten... Kaisari. dana dakik ik: nik nire biotzeko ixílkizunak euxak be iragarri dauskazat: orrazkero, gazte on, oa txairo-txairo nesato agana; ez al dausk ukatuko sarrerarik; ago aren atetan; eta angoai esaiek an yosita gelditu ta sustarrak emongo dozakala, ak i bere aurrera artu-arteño.

BIOLE.—Seguru zagoz, ene yaun zindo, a bere naibageari or diñoenez bestean etsita ba'dago, enauela iñoz be artuko bere aurrera.

DUKEA.—Iñondiko gedar eta zaratak egizak, eta yantzarik yantza egik, ire yoanetorria alperrik egin baño len.

BIOLE.—Dagigun, ene yaun, ak itzik egiten dauela nikin. Zer orrazkero?

DUKEA.—Ba, orrazkero, iragarri egiozu nire maitetasunaren lera andia, otoz-otoan itzaldi lango itzaldia eralgi egiozu aganako nire zintzotasun benetakoaz: egoki zara zu ari nire aldetiko maitetasun-eskaririk egiteko; ak obeto artuko dau olango eskaririk zu lango gaztegandik beste bitarteko arpegi-benagokogandik baño.

BIOLE.—Ni enozu eretxi orretakorik, ene yaun.

DUKEA.—Mutil maite, sinis egik; mutil deitu aut, eta izan be, ire urte, ire adin zori ontsuari irain egitea litzakek i gizon deitzea: Dine'n ezpanak be eztozak ireak baño leunago ta gorrizkeago; ire eztarri mea neskatorena langoxe dok, ots mezoliak ateraten dauzana ta zindoa, eta antzez emakumerena langoxe dok dan-danean. Nire ustez, igan edozer dok egoki arazo onetarako... zuotatik lau-bost lagun izan dakiozala orreri: zuok guztiok, gura ba'dozue: eta izan be, lagun gitxiago ta gogarago aurkitzen naz ni:... -ondoren onik izango al dozu arazo onetan, eta olan izatekotan zure ugazaba bestean zeure eskuko izango zara, aren zori ona zeure dala esateko bestean.

BIOLE.—Al dodana ta erdi egingo dot zure anderaçei maiteari zuganako maitetasuneskakizuna egiteko! (Bere kitean) orraitiño, egitekoaren gatx' Orreganako maitetasuna eskatu dagiodanari eskatu, neuk izan gura dot orren emazte.

V AGERLEKU.-OLIBE'neko Gela.

MIREN eta AKETOA aurrera.

MIREN.—Ez, ez; edo esaidak nondik eta nora ibili azan, edo nire ezpanak izperrik be etxoazat idigiko i zuritzeko: nire etzandereak eskegiazo egingo au alde egin *ela* ortik zear ibili azalako.

AKET.—Eskegi nagiala: mundu onetan bein ondo eskegi dabenak eztau zetan izan margo edo koloreen bildurrik.

MIREN.—Zer esan gura dok?

AKET.—Ez ba, eztauz ikusiko-ta.

(5) Zodiako deretxo dirudianez urtean eguzkiak dagian bideari; bide orretan, urrengorik urrengo, izar-mordoak agirí dira *an* goian, ortzean, eta egin-eginean be izar-mordook amabi dira guztiz, eta eurak erakusten dauskue eguzkiareri urteko bidea. Izarmordootatik bntek Tauru edo Zezen dau bere izentzat.

MIREN.—Erantzun on eta laster: ba-yakiat nik non sortu zan, "margoen bildurrik eztot" esakune ori.

AKET.—Non, Miren andera on?

MIREN.—Guduetan; eta ire ergel-aldian ik be esan einke adoretsu.

AKET.—Tira ba, Yaungoikoak zurtu begiz zurrak: eta ergelak erabili dagiezala euren geitasunak,

MIREN.—Eta orraitiño i eskegiazo egingo au orren luzaro etxetik landa izanagaitik: edota, etxetik egotzi egingo au: ez ete dok onako au i eskegitea bestean on itzako?

AKET.—Ainbatentzako ondo eskegi izana ezkontza txarrik ez egiteko bide izan da: eta etxetik egozteagazko, uda-ostean izan dadilla.

MIREN.—Etsita ago, ala?

AKET.—Ezta ori be: zer bitan nago ni etsita. Zer biri deutsedala nago.

MIREN.—Batak uts ba'dagi, besteak eusteko, eztok? Edo-ta, biak uts egin, biak ausiazkero, bera yoazak ire parkak.

AKET.—Ooorixe, bai, benetan orixe: ederto be ederto ta egoki esan^a'., Ori ondo, zoaz zu zure bideak bear: Tobi yaunak edana itxiko ba'leu, Iliri'n danik eta Ebe'ren aragi-zatirik lirainena zintzakez zu.

MIREN.—Ixilik ago, ziztrin ori: bego, ez egik aitatu be egin geiago olangorik: emen yatok nire etzanderea: al dokanik eta zurren zuritu egik ire burua; oba yak. (Alde dagi).

OLIBE ta MALBOLI aurrera.

AKET.—Zurtasun ori, eder ba'yatzu, ekadazuz burura ergelkeri on batzuk! zu bazaukiezala uste daben burutsuak sarri-askotan ergel baño eztira; eta agiri agirian zu atzaukadazan au besteak gizon zurtzat estea yazo leileke. Zer diño Kiñapalu'k? Oba da ergel burutsu, burutsu ergelik baño... Yaungoikoak onetsiko al zauz, andera.

OLIBE.—Atera egidazue ergel au emendik.

AKET.—Eztozue entzun, ala, lagunok? Atera egidazue anderea emendik.

OLIBE.—Oa ortik, ergel antzu az i; oraindanik ara ez aut ikusi be egin gura: ganera, lotsabakotuaz oa.

AKET.—Orrako akats biok, andera, edanak eta onu onak osatu edo ezabatuko dabez; eta izan be, ergel antzu-legorrari edaririk emon ba'dagiozu, ergela ezta izango antzu-legorrik; gizon lotsabakoari bere burua oneratzeko agindu egiozu, eía oneratu ba' dadi, ezta izango lotsabakorik; eta berez ezin ba'da, arakinak oberatu dagiala. Atontzen dan edozeri ezarkina erasten yako; bere bidetik alboratzen dan on-indarrak obenezko eraskina daroa; eta obenik atonduazkero, on-indarrezko eraskina ezarriaz atontzen da. Argibide-sail au gauz izatekotan, ondo; gauz ezpa'da, zer egiteko? Zori txarraz beste benetako adardunik eztagon legetxe, edertasuna lora da: ergela emendik aterateko agindu dau andereak; orrazkero, barriro dirauízuet, atera egizue andera ori emendik.

OLIBE.—Yauntxo, emendik i eu aterateko agindu yautset nik orrei.

AKET.—Oker aituterik andiena yatzu ori!... Andera, Cucullus non facit monachum: ori esatea eta nik nire çaraunstan eztaroadala ergel-txapslik bat da. Andera on, itxi egidazu zu ergel zareala erakusten.

OLIBE.—Olangcrik egin daikek, ala?

AKET.—Bai, eta ganoraz egingo be, gero?

OLIBE.—Erakutsi egik ba.

AKET.—Neuk irakatsiko dautzut ori zelan egin, andera. Nire on-indar-sagutxo orrek, zuk erantzun.

OLIBE.—Tira ba, beste asti emon-biderik ezean, ire irakaskizuna artuko yoat.

AKET.—Andera on, zegaitik zagoz goibel, motel eta atseginbagarik?

OLIBE.—Ergel on, nire nebearen eriotzeagaitik.

AKET.—Aren gogoa su-lexan dagola uste 'dotnik, andera.

OLIBE.—Nik ba-yakiat aren gogoa zeruan dagola, ergel.

AKET.—Orrexegaitik ergelago zu, andera, zure nebea zeruan dagolako negar egiten dozulako... Atera egizue ergela emendik, aitonen semeok.

OLIBE.—Zer deretxozu ergel oni, Malboli? Ez ete da oberatzen?

MALB.—Bai; eta oberatuko da, eriotz-elorrioak aztindu dagienean. Gizon zurra makaldu ta ausi daroan gatxak beti be on egiten dautso ergelari.

AKET.—Yaungoikoak berpetatiko gatxik bidaliko al dautzu, yaun, zure ergelkeria geitu dagian! Tobi yaunak zin egingo dau ni enazala azeririk; baña txakurrandi baten

(5) Batzuen s:niskeriz, izarrak bai ei dabe zenkusirik eta eragiterik gizonaren bizitzako gora-bereian, eta 'siniskeri au egia izatekotan gu ezkintzakez gure buruen yabo, guk eginai erantzun-bearreko, izarren bendeko, izarren yostallu baño. Siniskeri ou ukutzen dau emen Shakespeare'k beste alnbat lekutair legetxe, berak olangorik sinistu ez-arren.

itzik be eztau egingo ak zu ergel etzareala esateko.

OLIBE.—Zer diñozu orrez, Malboli?

MALB.—Andi eretxita, zurtuta, eta arrituta nozu ikusirik zuk zelan artzen dozun atseginik olango zirtzil utseri entzunaz: lengo egunean ikusi neban nik ori buruan arrik beste garaun be eztauen ergelek benderaturik. Begiratu egizu ta ikusi oraintxe be nolan dagon ori belarriak makurturik; barre egin, naiz lagun ezpa'zakioz, ixildurik dozu oii. Sinis egidazu, ergelon ergelkeriai yaramonik egiten dautsen gizon zurrak eztodaz ergelon ergelkeriak baño aintzakoagotzat.

OLIBE.—Malboli, zu gexorik zaukaz zeure buruaien maitetasunak, eta yakiak zelango diran ikusten yangar barik zoaz. Eskuzabal, erruga agertu, ta zerak patxadaz artzeko, olango zerak txoriak ilteko berun-bolatxotzat artu bear dira. ez suodibolatzat. Ezta minik artu bear olangorik esateko balmena emon eta orretarakoxe eukiten dan ergelgandiko ziplada ta eztenkadakaitik, olangoak betí orretan eragoarren: ezta andienak esanda be, ta beti ziri-zirika ibili-arren be, asmo txarrez egin ezpa'dagi olangorik.

AKET.—Merkuri'k iztun egingo al zauz, aketoez obeto itz dagizun!

MIREN aurrera ostera be.

MIREN.—Andera, aiton-seme gazte bat dago or atetan, zukin itz egin gura leukena.

OLIBE.—Orsin Kondeagandik yaton, ezton?

MIREN.—Eztakit, andera: orrako ori gizon gazte lerden yatzu, ta ondo lagunduta dator.

OLIBE.—Nire etxekoetatik nok dauko ori or begira?

MIREN.—Zure senide Tobi yaunak, andera.

OLIBE.—Uxatu egizu ori ortik, arren, ori tentelkeriak esateko baño ezta-ta.. Ospa eragiozu! (MIREN'ek alde) Zoaz zeu, Malboli; kondeagandik nire maitetasun-eske ba'dator, ni etxean enagola, naiz gexorik nagola esan; zeuk zei-gura, ori ortik zear bidaltzeko. (MALBOLI'k alde) Ba-dakusk, yaun, zartu egin dirala ire ergelkeriak eta yenteari etxakozala begiko.

AKET.—Zure semerik zarrena ergel ba'litz legetxe itz egin dozu gu ergelon alde, andera: Yupiter'ek garaunik sartuko al dautso buruan, emen datorren zure senideak buruan arrizko pia mater dau-ta.

TOBI AGOBERO aurrera.

OLI3E.—Nire omena-arren, zu orain be erdimozkorturik zatoz... Nor da atetan dagona, osaba?

TOBI.—Aitonen seme.

OLIBE.—Aitonen seme? Ze aitonen seme?

TOBI.—Or dagon aiton-semea. Izurriak eroango al dauz aketook!... -Zelan ago, kedar?

AKET,—Tobi yaun on...

OLIBE.—Osaba, osaba, zelan zatoz onen goiz olango mozkorragaz?

TOBI.—Mozkorragaz! Zori oneko mozkorra. Atetan dozu bat.

OLIBE.—Bai izan be; nor da baña?

TOBI.—Berak gura ba'dau, txerrena bera bedi; niri eziaust bape ardura; sinis egidazu, gero? Tira, bardin daust niri. (Alde dagi).

OLIBE.—Zeren antzeko dok gizon mozkorra, ergel?

AKET.—Gizon itoren antzeko, ergel eta zoro: zurrutada bat geiagok ergeldu egiten dau; eta bigarrenak zoratu; eta irugarrenak ito egiten dau.

OLIBE.—Ots egiok nire osagilleari eta nire osabea aztertzeko esan egiok; eta izan be, ak irugarren mallako mozkorra yok aldeaneta, itota yagok: oa, ots egiok.

AKET.—Oindokoarren zoraturik baño eztago, andera; ergelak yagongo dau zoroa. (Alde dagi).

MALBOLI aurrera ostera be.

MALB.—Andera, or dagon gazteak zin dagi zukin itz egingo dauela. Gexorik zagozala esan dautsat; orrenbesterik berak be badakiala erantzun daust, eta orrexegaitik datorrela zukin itz egiten; lotan zagozala esan dautsat, baña ori berak be ba-ekian, urrean, aurreztik, eta orrexegaitik dator zukin itz egiten. Zer esango dautsat, andera? Edozetariko ezetzeri erantzuteko gertu dago a.

OLIBE.—Eztauela egingo itzik nikin esaiozu.

MALB.—Lendik be esan dautsat orrenbesterik; baña endore-makillea bailitzan atetan egongo dala ta, bear ba'da, zure atetako yezarleku egingo dala zukin itz egin arteño, diño ak.

OLIBE.—Zetariko gizon yatzu orrako ori?

MALB.—Ba! gizonetariko.

OLIBE.—Baña zetariko, nolango gizon?

MALB.—Era-mera zakardun gizon a: zuk gura, naiz gura ez zukin itz egin gura dauta.

OLIBE.—Nolangoren antza dau eta zenbat urteko dala emoten dau?

MALB.—Gizon izateko gazteegi oraindik, eta zarregi mutiko izateko: alerik bako babalekaren antzeko; edo-ta, ondo egin bako sagar-alea langotsu; ur geldia langotsu yatzu, ez gallurrik, ez sakostarik eztauela, mutiko ta gizon bitartean. Betarte argi ta txairo-

fxairoa dau, eta itz egiten zur da: amaren titia osta-osta itxi dauela esango zeunke.

OLIBE.—Datorrela. Ots egiozu nire lagun emakumeari datorrela ona.

MALB.—Emakume aitonen alaba, deiez dozu nire anderea (Alde dagi).

MIREN aurrera ostera be.

OLIBE.—Ekazu nire arpegi-estalgia: tira, ezarri egizu nire arpegitik bera dingilizka; beste bein entzungo dogu Orsin'en geznea.

BIOLE aurrera.

BIOLE.—Etxe onetako andera omengarria, biotarik zein da bera?

OLIBE.—Neuri itz egidazu, neuk erantzungo dot aren izenez-eta. Zer gura dozu?

BIOLE.—Edertasunik argien, billatuen, eta bardinbakoen ori..., esaidazu, arren, esaidazu au danentz etxe onetako etzanderea, nik bein be eztot ikusi izan-eta: nire itzaldia len baño len egiteko leia itzala dot; eta *'izan* be, itzalez ederto idatzita dago ta, ganera, nekerik asko artu dot berau buruz ikasten. Eder-onok, ez al nozue zapuztuko; minbera uts nozue irainik txikienerako be.

OLIBE.—Nondik zatorkuz, yaun?

BIOLE.—Ikasiaz ganera gitxi baño ezin esan daiket, eta itaun ori ezta nik erantzutekorik. Zindo-on orrek, erdizka baño ezpa'da be, iragarri egidazu zu zareanentz etxe onetako etzanderea, nik nire itzaldia ustu ta eralgi dagidan.

OLIBE.—Antzezlarien bat zauguz, ala?

BIOLE.—Ez, eta bene-benetan dirautzut; eta orraitiño be, gaiztakeriaren aginak-arren zin dagitzut enazala diruditana. Zu ete zauguz etxe onetako etzanderea?

OLIBE.—Besterentzat ezpa'dot nire burua, neu naz.

BIOLE.—Bai, izan be, zu ba'zara arako a, zeure burua artzen dozu zuk; eta izan be, zuretik emoteko dozuna, ezta zure eukiteko. Baña ori ezta nire egikizunagazkorik: nik zure gorapenerako itzaldia ixuriko dautzut, eta urren nire geznearen biotz eta mamia erakutsi.

OLIBE.—Itzaldiaren mamira zoaz: nitzako gorapenegazkoa parkaturik dozu nire aldetik.

BIOLE.—Ene bada! ainbeste neke artu dot bera ikasten, eta ain ames-eragikor da.

OLIBE.—Orrexegaitik izan leiteke irudituagorik; zeure barruan euki egizu, arren. Nire etxeko atetan zakar izan zareala entzun dot; eta aurrera etorten itxi ba'yatzu, zuri entzute-arren baño zu ikuste-arrenago izan da. Burulik eginda ba'zagoz, zoaz; burua zindo ba'dozu, labur izan zadiz; autu luzerik izateko gogaldirik eztot.

MIREN.—Zure itxas-ontziaren oialak eragi gura dozuz, yaun, ala? Amen zure bidea.

BIOLE.—Ez, itxas-otsein on; apur bat luzaroago euki gura dot ontzia emen. Bareagotu egizu zure erraldoi edo gizatzar au, andera ezti.

OLIBE.—Eralgi egidazu zure asmoa.

BIOLE.—Geznari nozu ni.

OLIBE.—Seguru be, zer iguingarrien bat dozu zuk esateko, aurreztiko itzak orren bildurgarri diranazkero. Esaizu esateko emon dautzuena.

BIOLE.—Orrako ori zeure belarrirako bakarrik da. Eztakat nik gudu-iragarpenik, ezta zerga-ezarterik be; gaimel-urraitz adarra dakat eskuetan: nire itzak euren geia bestean baketsu dira.

OLIBE.—Orraitiño be zakarkiro así zara zu. Nor zauguz? Zer gura dozu?

BIOLE.—Nik erakutsi dodan zakarkeria nire ogibidetik ikasi dot. Ni nor nazan eta zer gurako neunken neskatasuna bestean begiragarri dira; zure belarrientzat, zerutiko; beste edonorentzat, zakartze.

OLIBE.—(MIREN'i) Geu geuretara itxi gagizuz: yainko oni entzun gura dautsat. (MIREN'ek alde). Tira, yaun, zer da zure idatzia, zure esatekoa?

BIOLE.—Andera ezti-ezti ori...

OLIBE.—Ikaskizun nasaigarri ta beraz asko esan ledikena. Non da zure idatzia, zure esatekoa?

BIOLE.—Orsin'en biotzean.

OLIBE.—Aren biotzean? Aren biotzeko zein idazti-ataletan?

BIOLE.—Irakaspidez erantzuteko, aren biotzeko lenengoan.

OLIBE.—Ba! irakurririk dot; siniste-auste uts da. Ez ete dozu beste esakizunik?

BIOLE.—Andera on, itxi egidazu zure arpegia ikusten.

OLIBE.—Nire arpegiaz ituntzeren bat egiteko zure ugazabaren agindurik ba-dozu, ala? Oingoxean zuk zure idatzilik alde egin dozu: baña errezelari baztarrera eraginda, erakutsiko dautzugu irudia. Begira, neu langoxe zan au. Ez ete dago ondo eginda? (Arpegi-estalgia kendu egiten dau).

BIOLE.—Itzalez ederto egina. dana ba'da Yaungoikoak egina.

OLIBE.—Ezabatu-ezinezko, banatu-ezinezko erraz egina yatzu, yaun; axe ta eguraldia gora-bera iraungo dauena.

BIOLE.—Ederto nastauriko edertasuna yatzu ori, eta orko gorria ta zuria izate berbera-

ren esku ezti ta ganoratsuak ezarriak dira: andera, emakume bizirik biotz-gogorrena zara zu, mundu onetan zure idekorik itxi barik, edrgarriok ilobira eroan ba'dagizuz.

OLIBE.—Yaun ori, eztot izan gura orren biotz-gogorrik; nire edertasunaren birki bat baño geiago itxi gura dot emen. Erreskadan iminiko dot; eta arlo ta txatal bakotzak neuk ezarriko dautsadan izena eroango dau: esaterako, item, ezpan gorri bi, ez gorriegi; item, begi urdin bi, euren betazalakaz; item, idun bat, okotz bat, eta abar. Ni goratzeko bidali zabez ona, ala?

BIOLE.—Zareana zakustaz: arroegi zara zu; baña txerrena ba'zintzaz be, lirain zara. Maite zauz nire yaun eta ugazabak. Ene! arena langO maitetasunari erantzun egin bear zeunskio, bardinbako edertasuntzat burestundauta ba' zengoz be!

OLIBE.—Nolan maite nau ak?

BIOLE.—Gurketaz, negar ugariz, maitetasuna darioen ostotsak langO urromaz, suzko intziriz, intziri goriz.

OLIBE.—Ezagun yako zure yaunari nire gogoa, ezin dot nik maite a: eta orraitiño be on-indartsutzat dot nik a, ba-dakit a zindo dala, ondasuntsu, eta orbanbako gazte guri-gordin: entzute oneko, emokor, ikasia ta adoretsu, eta neurriz, gizoni berez dagokona. Gizon atsegingarri: bciña orraitiño be nik ezin dot maite; antxiñatik artu bear eukean ak bein betikotzat nire erantzuna.

BIOLE.—Nire ugazabaren maitetasunaren suaz maite izan ba'zindudaz, arenak langO elorrioz, biziai baño ilei obeto dagokien arena langO bizitzeaz, aitu be eneuke egingo zure ezetza, ezin ulertu izango neuke.

OLIBE.—Ostera! zer egingo zeunke zuk?

BIOLE.—Saretsezko txabola egingo neuke zure atetan, eta nire biotza ta gogoa zure etxe-bairuan artzeko ots eta ots egingo neuke; maitetasun zapuztuazko olerki zintzoak idatzi eta gedarrez eta zoli abestuko neukez, gabeko ordurik ixilenean be; zure izena birresanazo inguruko mendiai be, eta eguratsari be esamesatzat Olibe'n izena gedarrez esanazo! Ene! etzenduke bakerik ez lurraren aldetik, ez eguratsarenetik, nire erruki izan bearko zenduke.

OLIBE.—Etzara gitxi egitekorik. Nortzuk dira zure gurasoak?

BIOLE.—Nire zoriari dagokon baño goragoko dira, baña orraitiño be alasoko ondasunak dodaz: aitonen seme nozu.

OLIBE.—Zoaz zure ugazabagana; nik ezin dot maite a: ez al zauz bidaliko beste bein; bear bada, ak nire erantzuna nolan artu izan dauen esaten zu zeure kitetik ez etortekotan. Agur: eskerrik asko zure nekeen alderako; eutsi au nire aldetik, zeuk nolan gura eralteko.

BIOLE.—Andera, enozu ni ordaintzen yakon bidaririk; zeuk euki zure dirua; nire ugazaba da saririk bear dauena, ez ni. Maitetasunak arri egingo al dau zuk maite dagizunaren biotza; eta zure maitetasun goria zapuztuko al dabe aik, zuk nire ugazabarena zapuztuten dozunez! Agur, biotz-gogor lerden ori. (Alde dagi).

OLIBE.—Nortzuk dira zure gurasoak? Nire zoria baño goragoko, eta orraitiño be alasoko ondasunak dodaz: aitonen seme nozu... Bai, izan be; zin egingo neuke ba-zareala; zure miñak, zure arpegiak, zure oin-besoak, egiteak, eta bizitasunak zindotasun langO zindotasuna damotzue. Ez ibili iraduzegi: astiro! astiro! orren ugazaba ez ete da orren otsein? Zetan gagoz? Orren arin goatu ete dot izurria, orren arin intsigi ete yat? Gazte orren osotasunak nire begiak zear ziri-ziri ta nik ikusi ta ni oartzeka sartu yatazala uste dot, Tira ba, olan bedi... Eee! ona, Malboli!...

MALBOLI aurcera ostera be.

MALB.—Emen nozu, andera, zure otseintzarako.

OLIBE.—Zoakioz arin geznari muker orri atzetik ara, kondearen otsein orren yarrai: nik gura, naiz gura ez, elastun au itxi daust emen; eztodala gura esaiozu. Bere ugazabakin zurikeririk ez erabilteko ta ari itxarorik ez emoteko esaiozu; ni enaz arentzako: biar ona etorri ba'dadi gazte ori, neuk emongo dautsadaz nire erabagi onen zegaitiak. Aringa zoaz, Malboli.

MALB.—Bai, ba-noa, andera. (Alde dagi).

OLIBE.—Zer egiten dodan be eztakit: eta bi!-dur naz nire begiak biotzean dodanaren zuritzalle andiegi izango ez ete diran. Alanbear ori, erakutsi zure indarra. Ezkara gu geure eskuko: ebatzita dagona egingo da: eta onetan be olantxe bedi! (Alde dagi).

II EKITALDI

I AGERLE ;U.-Itxas-ertza.

ANDONI ta SEBASTIAN aurrera.

ANDONI.—Luzaroago eztozu egon gura, ala? Eztozu gura ni zukin yoaterik be, ala?

SEB.—Ez, eta epe artu egizu; nire ganean argi dagien izarrak goibel eta lausoturik agiri dira; ba-ledike nire alanbearraren gaiztakeriak zurea be okerreratzea; orregaitik zure baimen-eske nagotzu, nire ezbearrak neuk bakarrik yasan eta eroateko. Niganako zure maitetasuna txarto saritzea litzake nire ezbearretarik bat bera be zure bizkarrera egoztea.

AND.—Orraitiño be iragarriko al daustazu norako bidea artzen dozun.

SEB.—Ez orixe, yaun; erabagita dodan yoanetorria burukeri uts yatzu. Baña zure biotzeko lotsortasun gallenari oartzen natxakota, zuk eztozu egingo aleginik barruan euki gura dodana niri ateraten; orrazkero, yakizu, Andoni, nire izena Sebasten dala, nik izentzat Errodeika erabili-arren; nik dakidanez, zuk aren *barññk enizun izan* dozun Mesalin'go Sebasten zan nire aita; ak ni ta nire arreba bat itxi ginduzan, biok ordu baten yaioak. Youngoikoari eder izan ba' litxako, biok ilgo gintzakezan olantxe! baña zuk, yaun, zuk okertu zendun bide ori; eta izan be, itxas-ugin edo urutuetatik zuk ni yarei baño ordu batzuk lenago il zan itota nire arrebea.

AND.—Egunaren zori txarreko!

SEB.—Andera *a.* yaun, nire antz-antzeko izanarren, lirain zan askoren eretxiz: baña nik besteen eretxi ori ezin sinis neinke geiegi. eta orraitiño be bildur barik iragarriko dot aren biotza bai ba-zala iñok ukatu ezinezko bestean lirain-eder. Itorik da *a* onazkero, yaun, ur gazietan, gezaletan, nik orain aren oroipena gezal geiagogaz itoten dauenarena egin-arren.

AND.—Parka egidazu, yaun, zu orren txarto artu izana.

SEB.—Ene! Andoni on, zeuk parka egidazuz zure nekeak.

AND.—Nire biotzeko zuganako maitetasuna mindu gura ezpa'dozu, zure otseintzat artu nagizu.

SEB.—Zuk egina manatu gura ezpa'dozu, zera, zuk yareia ondatu gura ezpa'dozu, ez egizu aitatu be egin olangorik. Agur beste bein: maitetasunez beterik dago nire biotza: eta oindiño be ni nire amaren ekanduen antzeko ekandudun naz-eta, eretirik txikie*na daiorkidanean* nire begiak asiko dira esatekoak esaten. Orain kondearen yauregira noa: agur. (Alde dagi).

AND.—Yainko guztiak lagun bekitzuz euren biotz-ontasun guztiaz! nik anitz arerlo dodaz Orsin'en yauregian, ostantxean laster be laster ikusiko zindukedaz an: baña nik ain maite zaudaz-eta, yazotekoa yazo, galdu-gordea yolas irudituko yat, eta ara yoango naz. (Alde dagi).

II AGERLE r.-Etxartebide.

BIOLE aurrera; otzetik ara MALBOLI doakola.

MALB.—Etzara egon zu oraindik orain Olibe Kondenoakin, ala?

BIOLE.—Bai, izan be, yaun; astiro ibiliaz arrazkero onagiño baño enaz eldu.

MALB.—Elastun au atzera bidaltzen dautzu ak, yaun; zeuk aurreratu bear zeuskidazan nire nekeok, au zeuk ekarriaz. Orrez ganera, ak diño zuk kondeari esan bear zeuskiola eztagiala izan agazko ezetariko itxarorik; eta beste zer bat geiago oraindik; zeu be ez al zareala yoango barriro agana, zer au zure yaunak artu dauela esateko ez izatekotan. Eutsi da.

BIOLE.—Nigandik artu dau ak elastuna: nik eztot gura ezetarako.

MALB.—Tira, yaun, zuk mukerkiro egotzi dautsazu nzre etzandereari; eta ak zuri olantxe atzera emotea gura dau. Lurrera makurtze-gei ba'da, or dago lurrean zure begien aurrean; orrenbestegarri be ezpa'da, dagola or lenen idoro dagianarentzat. (Alde dagi).

BIOLE.—Nik eztautsat itxi elastunik. Zer esan gura ete dau andera orrek? Zoriak ez al dau gura izan nire azalak a liluratu izanik! Ondo begiratu nau ak: ainbestean arakatu be-ta, aren begiak aren miñaz aztu egin dirala iruditu yat, aldizka ta nozbeinka, eta adiga itz egiten izan dau-ta. Maite nau ak, seguiu be; aren lera maltzur-lukiak geznari zakar onen bitartez dei egiten daust. Au

ezta nire ugazabaren erastunik! izan be, ak eztautso bidaii ezetarikorik. Neu naz orrako gizona: au onan izatekotan, --dan lez-, andera orren errukarri, oba litzakio amesen bat maite izatea. Marro, nik dakustanez, gaiztakeri az i, eta ire estalpean arerio asmotsuak egitekoak egiten yozak. Ain errez yake ustelkeri utsa diranai emakumeen argizaizko biotzetan euren irudiak yartea! Ene! gure auskorkeria da orren errudun, ez gu geu; eta izan be, gu zelango egin gabezan, alango izango gara. Zelan atontzeko au? Nire ugazabak maite maite dau a, eta nik, bidutzi (mamu) errukarri onek, eztot giíxiagorik maiie nire ugazaba; eta andera ak, ni enazantzat arturik, ni kutun nauela dirudi. Zetan geldituko ete da guzti au? Nik gizonarena dagit-eta, onangorik dagidan *aiiean* nigazko itxarorik ezin izan nire ugazabak; emakume nazan aldetik, nirearen zori txarra! Olibe gaxoak bai egingo dauzala alperriko intziriak! Aldi ori, ik askatu bearko dok korapillo au, ez nik; aska-gatxegi da korapillo au nik askatzeko. (Alde dagi).

III AGERLEKU.-OLIBE'neko Gela.

TOBI AGOBERO ta ANDER MOSULARU aurrera.

TOBI.—Urreratu adi, Ander yaun: gaberdiz gora yagita egotea goiz yagitea dok; eta diluculo surgere, bakik...

ANDER.—Ez; sinis egidak, etxakiat: baña nik ba-yakiat belu yagitea belu yagite dala.

TOBI.—Guzurrezko ondorena, ondoren ustel dok irea; txolet utsa bestean gorrotagarri yatak. Gaberdi-ostean yagita egon, eta orduan oera yoatea, goiz yoatea dok: eta orrazkero, gaberdi-ostean etzatea goiz etzate dok. Gure biziak osatzen dabezanak eztozak lau lengeiak, ala?

ANDER.—Benetan, olan esaten yoek or; baña nire ustez gure bizitzak osotzen dabezanak yana ta edana dozak.

TOBI.—Yakintsu az i; edan eta yan yagiguan orrazkero.... Miren, geroooo!... Ekazu pitxar bete ardao.

AKETOA aurrera.

ANDER.—Emen dator ergela, bai orixe.

AKET.—Zelan zagoza, ene kutunok? Eztozue eguño ikusi gu iruron irudirik, ala?

TOBI.—Ondo etorria, asto ori. Abestu egiskuzak abesti batzuk.

ANDER.—Sinis egidak, ergelak bular itzala yok.. Berrogei xilin baño gurago neuke orrenak lango zangoak eukitea; eta ergelak dauena lango abots gozorik izatea. Benetan, ergelkeri lirain lirainak eunkazan ik bart, ik Pigrogromitus'az eta Kueubus'ko gau-egun-bordin marrea zear Bapi'tarren igarotzeaz itz egin eunskuanean; benetan izan zoan eder-atsegingarri, eta sei txakurrandi emon neuskazan ire kutunarentzako. Artu ete enduazan?

AKET.—Artu neban zure eskupekoa, Malboli' ren surra ezta txibita-kirtenik-eta. Esku zuria dau nire etzandereak, eta Mirmidonak eztira garardotegirik.

ANDER.—Ederto baño edertoago! beti be ori yatzu ergelkeririk onena. Orain abesti bat.

TOBI.—Tiruk; autsoz sei txakurrandi; abestu egiskuk abestiren bat.

ANDER.—Autso erlain bat nire aldetik be: zaldunak zerik emon ba'yagik...

AKET.—Maite-abestiren bat, ala abesti benen bat gura dozue?

TOBI.—Maite-abesti, maite-abesti.

ANDER.—Bai, bai; bizitza benek etxaustak ardura.

ABESTI

AKET.—
Ene maite ori, nondik nora zabiltz aldarrai?
Geldi ta entzuizu: ba-dator zure maite zintzoa,
Abesgoiti ta abesbeiti abesten dakiana:
Ez yoan urrinago, kutun ezti ori:
Ibilteen atzena maitaleen trikitxa da,
Edozein gizon zurrek ondo dakiana.

ANDER.—Itzalez eder, bai orixe.

TOBI—Bikain. bikain.

AKET.—
Zer da maitasuna? Ezta gerokorik:
Oraíngo pozak oraingo borrea dakar;
Gerokorik eztakigu seguru oraindik;
Etxon, etxon? Or eztogu betekadarik:
Mun egidazu orrazkero, ogei mun eztiz,
Gaztearoa ezta irauteko zeretakorík.

ANDER.—Ni benetako zaldun nazan bestean gozo da orren abotsa.

TOBI.—Arnasa intsigikor da orrena.

ANDER.—Izan be, Ezti-ezti ta intsigikor.

TOBI.—Surretatik abesten dauenean, gozo ta intsigikor dok. Baña ez ete yautsaguk yantzazoko ortzeari? Gautxoria, mozolloa iratzarriko ete yoagu eule bateri iru gogoak

atera arteraño abestuaz? (6). Egingo ete yoagu olangorik?

ANDER.—**Maite ba'nozu, orixe dagigun: abestuten txakurra langoxe nozu.**

AKET.—**Gure Anderea-arren, txakur batzuk ondo abestuten dabe.**

ANDER.—**Bai izan be: "I, zistrin" abestia abestu dagigun.**

AKET.—**"Ixilik ago, i zistrin ori", ala, zaldun? Orrako ori abestutekotan, zu zaldun ori zistrin deitu-bearrean iminiko nozu.**

ANDER.—**Eztok izango lenengoz nik nire aurrekoa ni zistrin deitu-bearrean imini izan dodala. Asi adi. ergel: "Ixilik ago" itzekaz asten dok.**

AKET.—Bein be eztot asiko ixilik egotekotan.

ANDER.—Olantxe dok, izan be! Ia, asi adi. **(Abesten daragoioe).**

MIREN **aurrera.**

MIREN.—**Ze katu-irrintze darabiltzue zuok emen? Nire etzandereak bere ondasunzaia oetik eragi ta zuok etxe onetatik aterateko agindu ezpa-dautso. ez egidazue sinistu gaurdanik ara bein be.**

TOBI.—**Txinar da gure anderea, gu, ostera, begirapentsu; Malboli, barriz, Peg-a Ramsey utsa yatzu, eta "Iru gízon gogargi" ga-*za* gu. Enaz ni senide, ala? Enaz ni zure etzanderearen odoleko, ala? Zoaz ortik zear, andera! "Gizon bat bizi zan Babilon'en, andera, andera" (Abestuaz).**

AKET.—**Izurriak eroango al nau, baña zaldun onek gogaldi langa gogaldia dau.**

ANDER.—**Bai, orrek ondorik asko egiten dau, atara yarriazkero, eta bai neuk be; gatz geiago dau orrek, baña nik neurezago egiten dot.**

TOBI.—**"Lotazillako amabigarren egun ori!" (Abestuaz) (7).**

MIREN.—**Ixilik zagoze, Yaungoikoa-arren.**

MALBOLI **aurrera.**

MALB.—**Zoratu egin yatzue, ala, yaunok? Edo, zer yazoten yatzue? Eztozue bururik, era-mera onik eta lotsarik gabeko orduotan pertzaginen antzeko onango zarata ta iskanbillarik aterateko? Nire etzanderearen etxea garardotegitu ta etxartebideak zear euren salgeiak saltzen dabiltzanak lez gedarrez abestu bear ete dozue, erdi ixilik abestu barik? Ez ete dozue lekuri, laguni, ta aldiri bear yakon lotsarik?**

TOBI.—**Yaun, aldiari izan dautsagu guk begirunerik, gure abestietan. Zoaz ortik zear eta eskegiko al zabez.**

MALB.—**Tobi yaun, argi ta garbi itz egin bear dautzut. Nire etzandereak agindu daust zuri esateko, zu bere etxean bere senidetzat artu-arren, eztauela zer-ikusirik zure iskanbillekaz. Zuk zeure burua zure bide txarretatik baztartu al ba'dozu, ondo etorria zara etxe onetara; ostantxean, zuk ari agur egin gura ba'dautsazu, a gertu baño gertuago dago zuri agur egiteko.**

TOBI.—Orrazkero, biotzeko ori, agur, nik nai ta nai ez alde egin bear dot-eta.

MIREN.—**Ez, Tobi yaun on.**

AKET.—Orren begiak diragarrenez orren egunak ia yoanak dira.

MALB.—Olan ete da?

TOBI.—**Baña ni enaz ilgo iñoz be.**

AKET.—**Tobi yaun, guzurra diñozu orretan.**

MALB.—Omengarri yatzu ori.

TOBI.—**Alde egiteko aginduko ete dautsat? (Abestuaz).**

AKET.—**Eta zer, olangorik egin ba'dagizu be?**

TOBI.—**Alde egiteko ta yaramonik be eztautsadala egingo esango ete dautsat?**

AKET.—**Ez. ez, ez, ez, orrenbesteraño etzara azarriko.**

TOBI.—**Doñutik landa, ala? Guzurra diñok ik, yaun...** Ondasunzai baño goragokorik ete az? I on-indartsu azalako aurrerantzean opilik eta garardorik eztala izango?

AKET.—**Izango da, bai, olangorik, Ane Deuna-arren; eta txitxiparreak be berotuko dau agoa.**

TOBI.—Zuzen ago.-Zoaz, yaun, eta ogi-birrinez igurdi egizu zure katea (8): pitxar bete ardao ekarri, Miren.

(6) Iru gogo, iru arima eulek? Yakíntzazale "peripatetiko"en eretxiz gizonak iru gogo, iru arima dauz: bat zugatzak eta landarak *da*benetarikoa; beste bat abereak dabenetariko<3, ta irugarrena gizonaren bere berea. Shakespeare'n aldiko euleak entzute andiko abesIari yatzuzan.

(7) "Lotazillako amabigarren egun ori!". ízan, egun ori etzan Lotazillako amabigarrena, urrengo urteko Urtarrillako seigarrena, Erregeen Eguna baño, ordurako Gergori Doipuruaren aldi-zuzenketea eginik egoan-eta. Shakespeare'k emen aldi-zuzenketa ori oraindik ez egíntzat emoten dau, ez baña katolikoentzat gogo txarrez. Izan be, antzerki onen izenak "Amabigarren Gaua'"ren ordez, "Erregeen Eguna" izan bear leuke, egun orri dagokiona da-ta.

(8) Lenago, andikien, etxeetako ondasun-

baño geiagotzat ba'dozu, ez al dautsazue emongo orrei erago zakox au aurrera eroateko biderik; esku au-arren zin dagit ak yakingo dauela emen yazo dana ta yazoten dana. (Alde dagi).

MIREN.—Zoaz zure belarriak aztintzen.

ANDER.—Gizon orri burrukarako eupadea yaurti, gero tertzioan uts egin eta ori agoabete aginegaz iztea ta gose danari edaten emotea ainbatez on litzakez.

TOBI.—Orixe egik, zaldun orrek; neuk idatziko dauskat eupadea; naiz, itzez bidaliko yautsat orri ire eupadea.

MIREN.—Tobi ezti, gau onetan epe artu egizu; kondearen mutil gaztea gaur berakin egon danazkero, artega dago nire anderea. Nire ardurapean itxi egizue Malboli' gazkoa: aren lepotik barre polito egin eta zuon barregarri egin ezpa'dagit a, oraindanik autortzen dot oean artez etzateko lain buru be eztodala. Ba-dakit orrenbeste egin daikedala.

TOBI.—Yakitun egin gagizuz. yakitun egin gagizuz; eralgi egiskuzu aregazko zerbait.

MIREN.—Andera Miren-arren, yaun, batzuetan a Garbizale (Puritan) edo olangotsu yatzu.

ANDER.—Ene! yakin izan ba'neu yakin olangorik, txakurrari legetxe narrua berotuko neuskion.

TOBI.—Ostera! Garbizale dalako, ala? Zein dok ire orretarako egipide bakana, zaldun maite?

ANDER.—Etxoat nik orretarako egipide bakanik, baña bai egipide onik asko.

MIREN.—Garbizale txerrenik ezpa'da be, dana dala, iñoren ederrera yartekorik barik beste edozer da: idaztirik zelangoa danik be ikusi be egiteka dana dakiala arropuzkeriz esaten dakiana da; sinistuta dago bera geitasun eta ontasunez bete-beterik dagoia, eta ori dau oñarritzat bera dakusen guztiak maite dabela sinisteko; eta aren akats orretan aurkituko dau nire apenak egipide ederrik asko.

TOBI.—Zer egiteko zuk?

MIREN.—Maite-idazlri ulerkaitz batzuk egotziko dodcz lurrera aren bidcan; eía euretan, bere bizarraren margoz, bere zangoen eraz, bere ibilkeraz, bere begien esanguraz, bere mosu ta antzez bere burua ondo zeinduta ikusiko dau. Nik ba-dakit zure illoba nire etzandereak legetxe idazten; oitutako geitan gure idazkerea biotatik zeinena dan igartea zail da.

TOBI.—Ederto baño edertoago! ba-dot asmoaren usainik.

ANDER.—Nire surretara be eldu da.

TOBI.—Zuk lurrera itxiko dozuzan idazkiak nire illobeagandiko dirala ta *a* orrekin maitemindurik dagola uste izango dau orrek.

MIREN.—Izan be, olangotsu da nire asmoa.

ANDER.—Eta zure zaldiak astotu egingo dau ori.

MIREN.—Astotu, bai, astotu; eztot ezpairik orretan.

ANDER.—Itzalez bikain izango da.

MIREN.—Yolasik gurenena, bai orixe. Nire osakaiak egingo dau bere egitekoa. Zuok biok kuika yarriko zarie toki baten, eta bai ergela be berean, ak idazkia idoroko dauen iekuan; ikusi egizue zetara yoten dauen. Oera gau onetan, eta yazotekoaz ames egin. Gau on. (Alde dagi).

TOBI.—Gau on, Pentesile.

ANDER.—Neska ori on da, bai orixe.

TOBI.—Arrano yak ori, eta yator alan be, eta gurtu egiten naiok ni. Eztok olan, ala?

ANDER.—Neu be len gurtzen nindun.

TOBI.—Gaioazan oera, zaldun. Diru geiago eskatu bear dok.

ANDER.—Ire illobeakin ezin ezkondu ba'nok, Iarri aurkituko nok.

TOBI.—Diru geiago ekarteko agindu egik, zaldun; atzenean be lortu ezpa'dagik nire illobea, Zaldizar deitu nagik.

ANDER.—Diru geiago eskatu ezpa'dagit, ez egidak sinistu gaurdanik ara eta euk zerguratzat etsi ta erabili nagik.

TOBI.—Tiruk, tiruk; ardao edalontzikada batzuk edaten naioak ni; beluegi dok orain oera yoateko; tiruk, zaidun; tiruk, zaldun. (Alde dagie).

IV AGERLEKU.-DUKEA'ren yauregiko Gela.

DUKEA, BIOLE, KURI ta beste batzuk aurrera.

DUK.—Eresiren bat yo egidazue: Egun on, adiskide onok: Orain, Kaisari on, bart entzun gendun abesti zar-zarra bakarrik; ak nire lerea asko arindu eustala uste yoat; bai, doñu bizkor eta arinak baño askozaz be geiago; tira, aldikadatxo baten baño ez.

zaialc, beste otseinetatik berezteko ta euren ogibidearen ezaugarritzat, katetxo bana erabilten eben idunean.

KURI.—Eder izango al yatzu, baña ori abestu bear leukena eztago emen.

DUKEA.—Nor da orrako ori?

KURI.—Pesta izkirimirilaria, Pesta ergela, ene yaun; Olibe anderearen aitari atsegingarri be atsegingarri izan yakona; or da or orrenbaten etxean.

DUKEA.—Billa egizue, eta artean yo doñua. (KURI'k alde. Eresi). Ator ona, mutil. Iñoz iñor maite ba'dagik, oroitu nagik maitetasunaren min zorrotz eztietan; eta izan be, benetako maitale guztiak aurkitzen dozak ni orcdn aurkitzen nazan lez, artega ta uxo beste edozetan, eurak maite daben izakiaren etenbako gogorapen eta irudipenetan ezik... Begiko izan ete yak doñu au?

BIOLE.—Benetako erantzuna bidaltzen dau orrek Maitasunak bere yezarlekua dauen lekura bertara.

DUKEA.—Irakasla-antzo itz dagik ik: nire bizia-arren zin yagiat, gazte izan-arren, ire begiak yo yok ik maite dokan zerbait edo norbait; ez ala, mutiko?

BIOLE.—Arean bai, zeuri eskerrak.

DUKEA.—Nolango dok orrako emakume ori?

BIOLE.—Zeu langoxe.

DUKEA.—Orrazkero, *a* eztok itzakorik. Zenbat urte yok, arren?

BIOLE.—Zeure urteetako, edo olangotsu da, yaun.

DUKEA.—Zarregi dok, Yaungoikoa-arren. Orraitiño be emakumea bera baño zarragokin ezkondu bedi; olan izatekotan, bere senarrari biotzez yosirik dirau, olan beti bardin dirau bere senarraren biotzean. Izan be, gazte, guk gure buruak goratu-arren, emakumek baño yauskorrago, makalago, luze-eretxiago, aldakorrago gara, ta gure irritsak emakumeenak baño lenago galdu la ezebeztuten dira.

BIOLE.—Olantxe dala uste dot, yaun.

DUKEA.—Orrazkero zu baño gazteago bedi zure maitea, ostantxean zure maitetasuna ezta izango luzaroko: izan be, emakumek larrosak langoxe dira, loratu ta bein lorea idigi ta zabalduazkero, ordu berean lurrera yalgiten yaken larrosen antzekoxe.

BIOLE.—Olangoxe dira izan be: ene! bai ízan be: euren osotasunera eldu diranekoxe ilteko!

KURI ta AKETOA aurrera.

DUKEA.—I, lagun, betor bart abesturiko abestia„.; Oroitu egik, Kaisari; zar eta lauetariko dok: neskazarrak eta orratzeuleak, eguzkitan, eta euren asti-aldietan azur-orratzez ari-lanetan daragoioen neskameak abestuten yoek orrako ori: egia esateko, benetan umekeri dok izan, eta maitetasunaren errugetasunaz yaragoiok, beñola lez.

AKET.—Gertu zagoz, ala, yaun?

DUKEA.—Bai; abestu egik, arren. (Eresi).

ABESTI

AKET.—

Ator ona, ator ona, eríotza,
Eta nekosta betilunpean eratzan nagizue;
Alde egik, egaz egik, arnasa:
Neska lirain biotz-gogorrek il nau.
Agin-orrolloz eslali nire gorpu-oial zuria.
Ene! gertau egidazue, gertau, bai:
Nire eriotza-antza ez beste iñok obeto irudituko
Ez zabaldu nire gorpu-kutxa baltzaren ganean
Ez lorarik, ez lora ezti-atsegingarririk:
Ez begio agurrik egin adiskidek, ezetariko adiskidek
Nire gorpu gaxoari nire azurrak egotzi diran lekuan:
Millaka ta millaka intziri aurreratzeko,
Eratzan nagizue benetako maitale goibelek
An negar egileko nire ilobia idoro
Ezingo dauen tokian.

DUKEA.—Autso au ire nekeen alderako.

AKET.—Aitatu be ez egin nekerik, yaun; pozkarri yal abestutea.

DUK.—Orrazkero, ire etsegina ordaindu gura yoat.

AKET.—Bai, izan be. yaun, eta atsegina bein ordainduko da.

DUK.—Ekak orain igandik alde egiteko baimena,

AKET.—Mukerkeri-yainkoa lagun bekitzu orain: eta yostunak tapetanezko gorantx aldagarrírik egingo al dautzu, zure biotza opal eginik dago-ta!... Olango gizon goga-aldagatxak itxasoratuko al litzakez, arazoak edonon euki ta asmorik iñon be eztabenak; olangoak dira yoan-etorrj alsegingarria alperrik egiten dabenak-eta. (Alde dagi).

DUK.—Boaz beste guztiak be... (KURI'k eta Laguntzakoak alde). Beste bein, Kaisari, zoaz biotz-gogorrik gogorrena dan agana: esan egiozu ari mundu guztia baño zindoago dan nire maitetasunak eztauzala artzen aintzakotzat aren lur-arlo zakarrak, zoriak pilatu dautsazan ondasunak; esaiozu aren ondasunak zoria bestean aldakor dírala, ta alangotzat dodazala; ondasunok barik, *a* bera dan arrigarritasun eta pitxizko erregenoak, izatearen beraren yolaskizun dan ak berak naratorrela.

BIOLE.—Eta ak ezin maite ba'zindukez, yaun, zer egiteko?

DUK.—Olango erantzunik ezin artu negike nik.

BIOLE.—Baña, benetan, artu bearko dozu. Dagigun beste emakumeren batek, eta ba-ledike orrenbestekorik yazotea, zuk Olibe'ganako zure maitasunagaitik dozun biotzmin besbera dauela zuganako maitasunagaitik: zuk ezin dozu maite orrako ori: orixe erantzuten dautsazu. Ez ete dautsazu erantzun bear aren zuganako maitasunari?

DUK.—Eztago emekumearen bularrik nirea lango lereari eutsin legikeonik, ezta maitetasunak nire biotzari emoten dautsan lera indartsua langorik be: emakumek eztau onenbesteko biotz andirik, onenbeste artzekorik. Aik eztabe non arturik. Ene! arein maitetasuna irrits deitu ziñei, gura ba'dozu..„ areina ezta biotzekorik, agoko baño, eta bete ta ganaz egiten dabe, eta betekadeagaitik, iguindu ta atzera egozten dabe; baña nire maitetasuna itxasoa *aña da* gose. ta itxasoak aña ausi daike: ez egidazuz alkarren alderatu emakumek niri izan daiskedan maitasunik eta nik Olibe'ri dautsadana.

BIOLE.—Bai, baña nik ba-dakit...

DUK.—Zer da zuk dakizuna?

BIO.LE.—Ondoegi dakit nik emakumek gizonakanako maitetasunean noragiño eldu ledikezan. Benetan, aik guk besteko biotz zintzorik ba-dabe. Gizon bat maite eban alabea eban nire aitak, eta ni emakume izatekotan nik zu maiteko zindukedazan bestean-edo maite ebana.

DUK.—Eta zer yazo yako ari?

BIOLE.—Idatzi bere dago ari yazoa, ene yaun. Arazoa bere buruan erabiliaren erabiliz írístuaz yoían. Ak ez eutsan iñoii aitatu be egin gura bere maitasuna, bai, osteia, ostonduta euki, mamanoa loia-pipilean egoten dan lez, beie mosuetako danvaskogoiria yateko: eta mukeikeii oilegi ta bellegiaz, ilobi-ganean yezarrita dagon epeaten antzeia, egoten zan naibageaii inibaneka. Onako oii ez ete zan benetako maitasunik? Guk gizonezkoak esan daikegu ertiakumek baño geiagoiik, aik baño gogonago ta ganatzago zin egin; baña, izan, gura doguna baño geiagorena egiten dogu; eta izan be, andi ageitzen gaia gu guie aginduetan, baña txiki guie maitasunean.

DUK.—Baña zuie airebea bere maitasunak il eban, ala, ene mutiko?

BIOLE.—Neu nozu nire aitaren alaba guztiak eta bai seme guztiak be..., eta orraitiño eztakit... Yaun, andera orregana yoan bear dot, ala?

DUK.—Bai, ori dok ire arlo ta lantegia. Oa agana arin be arin: emoiok pitxi au: esaiok nire maitetasunak ezin dauela atzera egin, ezta ezetzik artu be. (Aldi dagie).

V AGERLEKU.-OLIBE'n Baratza.

TOBI AGOBERO, ANDER MOSULARU, eta PABEN aurrera.

TOBI.—Ator onago, Paben yaun.

PAB.—Bai, yoango naz; yolas onen bildemk galdu ba'dagit, goga-yausikeriak eriotzaragiño egosi ta erre nagiala.

TOBI.—Ez ete intzake poztuko i, txakur amurratu zistrin ori Iotsaturik ikusiko ba'endu?

PAB.—Poztu ezeze, pozarren ikutika be egingo neuke, gizon: ba-dakizu ba, artz-zirikatze bategaitik, emen egíndako artz-zirikatze bategaitik galduazo eustala ak nire etzandereazko ederra.

TOBI.—A asarretzeko ostera be ekarriko yoagu artza; baltzak eta gorriak ikusiazo ta burutik eragingo yautsaguk... ez ete, Ander yaun?

ANDER.—Ori egin ezpa'dagigu, eztakit zetarako bizi garean.

MIREN aurrera.

TOBI.—Emem datoi azeiitxoa... Nolan zagoz, Indietako niie asun oii?

MIREN.—Zoaze iiuiok ezpelpera: bide au dakai Malboli'k; on aiagoan eguzkitan izan da oidu-eidi onetan beie ítzalaií eia-meiak egiten: oai zekioez, aii iiri egite-anen; idazki onek a eigel ameskoi egingo dau-ta. Ostondu zadize, yostaketa-anen! (Gizonak ostondu egiten diia). Atza i or (Lurrera izten dau idazki bat); izan be, or yatok giligilíz goatu bear dan arrankaria. (MIREN'ek alde).

MALBOLI aurrera.

MALB.—Alanbear utsa yatzu; dana da alanbear. Maite nindula esan eustan bein Miren'ek: ori baño geiago esaten be entzunik dot nik a, zera, ari burura etortekotan, nire antzekoren bat izango zala. Orrez ganera.

aren yarrai dabilen beste edonori baño lotsa ta begirapen geiago daust niri. Zer sortuko ete da ortik?

TOBI.—Emen dogu dollor ustetsuegi bat!

PABEN.—Ixiiik, arren! Begiratzearen begiratzeak antzartu, kokolotu egin dau ori; ori bai puztuten dala berorren luma aztinduen azpian!

ANDER.—Uf! narrua berotuko neuskio nik ziztrin orri».

TOBI.—Ixilik ago; gerooo!

MALB.—Konde izateko bidean Malboli...

TOBI.—A, zital ori!

ANDER.—Pistolakada bat emoiok, pislolakada bat emoiok.

TOBI.—Ixilik. ixilik.

MALB.—Orrenbesterik len be yazo izan da; andera andikirik ezkondu izan da bere soñekoen yagola mutilekin.

ANDER.—Egitekoa egin zendun, Iezabele!

PABEN.—Ixilik, arren! idunaz gora sartu da arazo orretan; begira irudimenak zelan puztu dauen.

MALB.—Akin ezkondu nintzalarik iru ile bete baño eztirala, nire lekuan yezarrita...

TOBI.—Ene! arriak yaurtiteko arranbelik, naiz aballarik al neu ori begian yoteko!

MALB.—Atorra ule-aztin adarduna aldean dodala, eta Olibe an lotan itxi dodan egunetzategi apitzetik yagi-barri natorrela, dei egiten dautset nire otseinei nire ingurura.

TOBI.—Sua ta sulbura etorriko al dozak ire ganera.

PABEN.—Ixilik. ixilik, arren.

MALB.—Eta gero, yaun danaren gogaldia artu: begirakune benik egotzi ingurura, ni nor nazan eta nire ingurukoak nortzuk eta zertzuk diran iragarteko, eta nire senide Tobi eskatu^

TOBI.—Sarrallak eta oin-lokarriak ezarri orri!

PABEN.—Ixilik, ixilik, ixilik, arren! Orain dator etortekoa, orain.

MALB.—Nire otseinetarik zazpi, agindua artuala beterik, aren billa doaz: betozkoa okerturik nago ni bitartean; eta alanbearrez, naiz erloiuari aria emoten, naiz pitxi ederren bateri zirrika daragoiot. Urreratzen da Tobi; andik burua ta bizkarra makurtzen daustaz...

TOBI.—Bizirik iraun bear ete dau urli onek?

PABEN.—Epea burkadaka kendu ba'daisku be, ixilik yarrai oraindik.

MALB.—Onan luzatuko dautsat nire eskua, ekanduzko nire irribarrea ugazabaren begirakune benez estalirik...

TOBI.—Eta ez ete dauska emongo orduan Tobi'k ezpanetako langO ezpanetakorik?

MALB.—"Tobi osaba, nire zori ta alanbearrak zure illobeari lotu nautsonazkero, emoidazu onan itz egiteko baimena" esan-ala...

TOBI.—Zer, zer?

MALB.—"Osatu egin bear dozu moskortikeria".

TOBI.—*XJIl* oa ortik zear, legentsu ori!

PABEN.—Ez, gizon, epe artu egizu, ostantxean gure yostaketea alperrik galduko dogu-ta.

MALB.—"Orrez ganera, zuk zure bizitzako altxorra alperrik galtzen dozu zaldun ergel dalakokin".

ANDER.—Nitzako dok ori, bai orixe.

MALB. "Ander dalako batekin".

ANDER.—Ba-nekian nitzako zana; ainbat eta asko be ba-dira ni ergel deitzen nabenakeeta.

MALB.—Zer dogu au? (Idazki eragi-ala).

PABEN.—Ointxe ollagorra saretik ur da.

TOBI.—Ixilik, arren! eta gogaldiak gedarrez eta zoli- zoli irakurriazoko ai dautso!

MALB.—Nire bizia egingo neuke baietz izan idazkera au nire ugazabanderearena; bai, bereak dira emengo C'ak, U'ak eta T'ak: eta onantxe idazten dauz ak bere P andiak. Aren eskutiko da agiri-agirian.

ANDER.—Aren C'ak, aren U'ak, eta aren T'ak. Zegaitik ori?

MALB.—(Irakurri dirakur) "Maite ezezagunarentzat au, ta nire gorantziak": neskato aren esakera berberak!... Ekak ire baimena, argizai orrek.„ Geldi! Ikurratza ak berak ikurrazteko beti erabilten dauen Lukertze' ren irudiduna da: nire etzanderea da au. Norentzako idatzi ete dau?

PABEN.—Irabazi dau onek ori, biotz eta guzti.

MALB.—(Irakurri dirakur) "Yupiter'ek ba-daki ni maitemindurik nagona:

Baña nor maite dot?
Ez egin zirkinik ezpanok,
Gizonek eztau yakin bear".

"Gizonek eztau yakin bear". Zer dator urren? Neurria aldatuiik!.. "Gizonek eztau yakin bear"... Eta onako au i ba'intz, Malboli?

TOBI.—Arranotan! eskegi egingo induket, azkonar ori!

MALB.—"Ba-dot nik agindu-alik nik gurtzen dodan lekuan:

Baña ixilak, Lukertze'n aiztoaren antzera,
Zartada odolgeaz odola dariola iminten dau nire biotza.

M. O. A. I.'k agintzen dau nire biotzean".

PABEN.—Igarkizun ori bai ba-dala puztua!

TOBI.—Neskato ori bai bikain, gero?

MALB.—"M. O. A. I. da nire biotzaren yaun

eta yabe".--Bai, baña dakusadan bein, dakusadan bein, dakusadan beín.

PABEN.—Neskato orrek bai gertau dautsala orri yaki edendu lango yaki edendua!

TOBI.—Eta ak gertauta ara yatsi da yaten sai ori ega-otsez!

MALB.—"Ba-dot nik agindu-alik nik gurtzen dodan lekuan". Bai, ba, ak niri agindu leisket: neskato orren otsein naz ni, nire ugazabandera da ori. Bai ba, agirian dago au itsu eztanentzat. Ezinik eztago *emen... Ga*gokiozan orain atzenari... Zer esan gura ete dabe agakako izki edo letrok? Nigan idoro ctl ba'nei izkion antzekorik... Geldi, ixo!... M. O. A. I...

TOBI.—Ene! bai! asmau egík ori... otz, otz, oiz.

PABEN.—Eiza-txakur orrek ausika ekingo yautsak zera dalakotan, azeriak beste kiratsik emon-arren.

MALB.—M... M onek Malboli esan gura dau; M... bai, izki onegaz asten da nire izena.

PABEN.—Eztot esan nik ori estukuretik urtengo zala, ala? Etxe-txakurra on yatzu usaina galtzeko.

MALB.—M... baña olan izatekotan, eztator erara ta arira urren datorrenagaz; orrek eta orren urren datorrenak alkarrekin burruka ta ukabilka daragoioe; A'k etorri bear leuke urren, baña O dator etorri.

PABEN.—Bai, O'ka amaituko da au, urrean.

TOBI.—Bai, izan be, ostantxean txibitaka erabiliko yoat, eta oi! gedar eragin.

MALB.—Eta gero I dator atzenean eta atzenen.

PABEN.—Bai, ire atzekaldean begirik ba'endu, ire atzekaldean itzaz txarto esanik geiago ikusiko enduke, ire aurrean zori onik baño.

MALB.—M, O. A. I.; asierea lez azaltzerik eztago emen, baña orraitiño be, apurtxo bat estutuazkero, nire alderatu daiteke, eta, izan be, izkiok guztiak dira nire izeneko. Ixilik! neurribako itzak datoz urren... "Onako au zure eskuetaratu ba'dadi, gogotan erabili egizu. Nire izarrez, alanbearrez, zu baño goragoko naz; baña ez izan anditasunaren bildurrik. Batzuk yaiotzaz dira andiki, beste batzuk iritxi egiten dabe anditasuna, eta batzui anditasuna bidean aurrera egozten yake. Eskuzabal dozak ire alanbearrak; biotzez eta gogoz besarkatu egizak. Eta izateko azanera oitute ko, egotzik igandik ire narru zarra, narru-barri agertzeko. Senide bateri arerio izan akio, traketz eta latz izan adi ire otseinentzat: ire minak itz ben eta gedartsuak egin dagizala: bakan agertu adi; igaitik intzirika dagonek emoten dauskaz onuok. Gogoratu egik nok goratu ta txalotzen izan dauzan ire oinzorro bellegiak eta nor dan ire oinzorroak galartzu kurutzetuz loturik ikusi gura leukezana. Gogoratu, gero? Ekiok ire egitekoari; eginda ago i, euk olangorik izatea nai izatekotan; nai ezpa'dok, aurrerantzean be nire ondasunzai izan akit, nire otseinen lagun, eta ez zori onaren atzak ukutugarri. Agur. Ire otseintzak ikin aldalu gura leukezan neskato, zori txarreko ondasuntsuak". Zelaiai argi egiten dautsen egun-argia bez au baño argiago: agirian dago au. Arro egingo naz, politika-idazleak ixakurriko dodaz, Tobi yaunari zangoak moztuko dautsadaz, erantziko dot nire zakartasuna, pinpirin egingo naz, benetako gizon, gizon yator. Enago ni burutik eginda, enago amesetan; eta izan be, edozek nakar onetara, zera, nire etzandereak maite nauela.. Ak goratu daustaz oraintsu nire oinzorroak, ak goratu ebazan nire zangoak galartzu kurutzetuz baturik egozalako; eta onako guztiotan ak ni maite nauela ta nik bera maite izatea gura leukela ta, bide batez, bere begiko diran ekanduotara bultzatzen nau. Nire izarrai eskerrak, zori ontsu naz ni. Bakan izango naz, buru-yagi ta arro izango naz; oinzorro bellegiak eta galartzu kurutzetuz lotuak *eia*biliko dodaz, eta txirikelan yantzita. Gora Yupiter eta nire izarrak!... Idatzi-ostekorik be ba-dogu emen. "Ezina da zuk ni ez ezagutzea. Maite ba'nozu, zure irribarreaz iragarri egizu; ondo datorkizuz zure irribarreak; orrazkero, irribarre egizu nire aurrean, nire maite ezti orrek, arren". Eskerrik asko zuri, Yupiter. Irribarre egingo dot; zeuk zer-gura egingo dot. (Alde dagi).

PABEN.—Yostaketa, olgeta onetako nire arloa eneuke emongo Sopi'ren ondasunetatik ordaintzeko millaka txanpon urtean-urteango saritzat emongo ba'leustez be.

TOBI.—Neska otsein onekin ezkondu be egingo nintzakek onango zer bikaina asmau izan dauelako.

ANDER.—Bai neu be.

TOBI.—Eta eneuskio eskatuko beste ezkonsarírik onango beste yostaketa bat baño.

MIREN aurrera.

ANDER.—Ezta nik be.

PABEN.—Emen dator nire yostaketa-asmatzalla zindoa.

TOBI.—Zure oña nire idun-ganean imini gura ete dozu?

ANDER.—Naiz nirean?

TOBI.—Ala nire buruaren yabetasuna "tray-trip" yokoan yokatuta zure yopu egingo naz?

ANDER.—Naiz neu? Bai orixe.

TOBI.—Izan be, iñondiko amesa imini dautsazu buruan-eta, ori burutik yoan dakionean burutik eginda gelditu bear dau orrek.

MIREN.—Bai, baña egia esaidazue: eragin ete dautso orrako orrek?

TOBI.—Emaginari txitxiparreak bestean.

MIREN.—Yostaketearen ondorenak ikusi gura ba'dozuez ba, zagoze ari adi a lenen nire etzandereaganatu dadinean: oinzorro bellegiakaz agertuko yako ari eta ak margo edo kolore orri iguin dautso; eta zango-galartzuak kurutzetara dauzala, eta nire etzandereak olangorik ikusi be eztau gura izaten; irribarre be egingo dautso, eta ori aren oraingo gogaldiarentzako ezta izango bape egoki; gotiluntasun itzala dau ba, eta olangorik berari iñok egitea zapuzkeritzat artuko dau; olangorik ikusi gura ba' dozue, zatoze nire yarrai.

TOBI.—Tartar edo su-lexako atetara be bai zukin, burubidetan zu txerren bikain-bikain zara izan be-ta!

ANDER.—Bai ni be. (Alde dagie).

III EI:iTALDI

I AGERLEKU.--I JLIBE'neko Baratza.

BIOLE aurrera, eta bai AKETOA be. Au danborragaz.

BIOLE.—Yaungoikoa lagun bekik, adiskide, eta bai ire eresia be. Ire danborretik bizi az, ala?

AKET.—Ez, yaun, yauretxetik bizi naz ni.

BIOLE.—Yauretxe-gizon augu, ala?

AKET.—Ez olangorik, yaun; yauretxetik bizi naz; eta izan be, nire etxean bizi naz. eta nire etxea yauretxearen aldamenean dago.

BIOLE.—Ori olan izatekotan, errege eskekotik bizi dala be esan zengike, errege eskekoaren aldamenean bizi ba'da: naiz yauretxea danborraren aldamenean yagiten dala, zure danborra yauretxe-aldamenean egotekotan.

AKET.—Zeuk esan dozu, yaun... Izatekoak yatzuz gazteok! Gizon burutsurentzat esakerarik etxatzu auntz-narruzko eskuzorro baño geiagorik. Egikizunik errazena yatzu itzulietara imintea!

BIOLE.—Bai, ori be egia yatzu: itzakaz yolasak egiten dakienak errez iminten dabez azpikoaz gora ta goikoaz bera.

AKET.—Orrazkero, ez al eukean izenik nire arrebeak.

BIOLE—Zegaitik, yaun?

AKET.—Ba, yaun, aren izena itz da; eta itz akin yolas egiteak nire arrebea lotsabakotu ta alperrik galdu leike. Baña, izan be, itzak zital uts yatzuz, lokarriak zirtzildu egin izan dabez-eta.

BIOLE.—Zer dala-ta, yaun?

AKET.—Benetan, zegaitirik be nik ezin emon neiketzu itz barik; eta itzak ain guzurti ta ustel egin dira-ta, lotsa naz euren bitartez zegaitirik emoten.

BIOLE.—Zu gizon gogargi zareala ta ezeren ardurarik eztozula dakust.

AKET.—Ez olangorik, yaun, zerbaiten ardurarik ba-dot nik; baña nire yakinkidetzaz, zure ardurarik eztot; ori ba' da nik ezeren ardurarik ez izatea, yaun. orrako orrek zu nitzako ikus-ezin egingo al zauz.

BIOLE.—Etzara zu Olibe anderearen ergela, ala?

AKET.—Ez, ez orixe, yaun; Olibe andereak eztau ergelkeririk: ak eztau eukiko ergelik, ez ergelkeririk bera ezkondu-arte: eta sardinzarrak sardinen antzeko diran bestean alkarren antzeko dira ergelak eta gizon ezkonduak, axe, senarra dala bietatik ergelena: izan be, ni enaz aren ergelik, aren itzen galtzalla baño.

BIOLE.—Oraintsu ikusi zaudaz nik Orsin kondearenean.

AKET.—Ergelkeria, yaun, munduaren inguruan ibilten da, eguzkia legetxe: edonon argi egiten dau. Mingarri litzakit, yaun, nire etzandereakin bestean sarri zure ugazabakin be ezpa'lebiltz ergelak: zure yakituria an ikusirik dodala uste dot.

BIOLE.—Txantxetan yarrai ba'dagizu. ni banoa. Eutsi, zutzako onako au.

AKET.—Yupiter'ek, urren ulerik emoten asi dadinean, bizarrik emongo al dautzu!

(9) Toril eta Kerside alkarrekin maitamin-duriko gazte bi ziratn; Pcmdar, barriz, Kerside'n osaba ta ezkontza<jrloan gazte bion bitarteko.

BIOLE.—Egia esateko, erreten nagola bizarra eukite-arren esan bear dautzut; eta orraitiño eneuke gura nire okotzean bizarrik azterik. Etzean dago zure etzanderea, ala?

AKET.—(Eskupekoa begira) Oneitariko bi ez ete dira gei umerik egiteko?

BIOLE.—Batera euki ta irabazian emonazkero, bai.

AKET.—Pirgi'ko Pandar'ena egin gura neuke, yaun, Toril oni Kerside bat ekarteko (9).

BIOLE.—Aituten dautzut, yaun; eskeko burutsu izatea da ori.

AKET.—Nire ustez, yaun, ezta egiteko itzaiik eskekok beste eskekoren bat eskatzea: eskeko zan Kerside. Etxe-barruan da, yaun nire etzanderea. Neuk esango dautsat zu nondik zatozan; zu nor zarean eta zuk zer izan gurako zeuken eztot nire narruan: nire lengeian esan bear neukean eta neikean, baña itz ori erabiliegia da. (Alde dagi).

BIOLE.—Urli au burutsurik asko da ergelarena egiteko; eta burutsu izan bear da olango egikizunerako; bere egikizuna ondo egiteko, olangok nori adarra yo bear dautsan, aren gogaldia igarri bear dau, nori yoten yakon, eta noz yo; aztorearen antzera, aurrean dauen egaztia zelango dan igarteko begia zur euki bear dau. Egikizun au gizon zurrarena bestean nekor da: eta izan be, ak zurkiro erakusten dauen ergelkeria, egoki ta erako da; baña gizon zurrak, ergelkeriz yausi ba'dadiz, osoan orbantzen dabe euren zurtasuna.

TOBI AGOBEHO eta ANDER MOSULARU yaunak aurrera barrien barri.

TOBI.—Yaungoikoa lagun bekitzu, aitonen seme.

BIOLE.—Bai, zuri be, yaun.

ANDER.—Dieu vous garde, monsieur.

BIOLE.—Et vous aussi: votre serviteur.

ANDER.—Izango al zara, bai; zure naz ni.

TOBI.—Sartu gura dozu etxera, ala? Nire illobea zu beragana artu-gurarik dago, aganako arazorik ba'dakazu.

BIOLE.—Zure illobeagana nator, yaun; a da nire yoan-etoniaren elburu.

TOBI.—Eragin zure zangoai; dabiltzala.

BIOLE.—Yaun, nire zangoak obeto aituten dauste niri, zangoai eragiteaz zuk zer esan gura dozun nik aituten dodan baño.

TOBI.—Nik esan gura dodana zera da, zoazala aurrera, sartu zadizala.

BIOLE.—Ibiliaz eta sartuaz erantzungo dautzut; baña aurreak artu dauskuez.

OLIBE ta MIREN aurrera.

Andera bikain-bikain eta oso-bete ori, zsruak usain gozozko euria bidaliko al dautzue.

ANDER.—Gazte ori yauregitar bakanetariko yak! "Usain gozozko euria!". Ori ondo.

BÍOLE.—Níre arazoa íxileko da. andera, zure belarrietarako bakarrik dau itzik, orreik entzunbera ta adeibera dira-ta.

ANDER.—"Usain gozoak, entzunbera, adeibera": iru itzok gogotan euki bear dodaz.

OLIBE.—Itxi egizue baratzeko atea, eta bakarrik itxi nagizue, entzun dagiodan. (TOBI, ANDEH, eta MIREN'ek alde). Ekazu zure eskua, yaun.

BIOLE.—Nire adeiak eta nire otseintzarik apalenak zutzako, andera.

OLIBE.—Zer yatzu izena?

BIOLE.—Kaisari da zure otsein onen izena, errege-alaba lirain.

OLIBE.—Nire otsein, yaun! Munduak bere gogargítasuna galdu egin dau labankeri zakarra erabili izan danazkero: zu, gazte, zu Orsin Kondearen otsein zara.

BIOLE.—Eta a zure da-ta, arenak oro zure izan bear; zure otseinaren otseina zure otsein da, andera.

OLIBE.—Agazko, nik eztot a gogotan: aren oldozpenakazko, utsik al legoz aren oldoz-Pen edo gogapenak, eta ez nigaz beterik!

BIOLE.—Andera, zure oldozpen maitagarriak aren alderako zorroztu, biztu, yangartzeko natortzu ni...

OLIBE.—Ene! arren bai arren, esanda daukotzut arez bein be geiago itzik ez egiteko: baña zure eskariak beste zerbaitera aldatu gura ba'dozuz, gurago neuke zeru edo ortzeko zer borobilen, izarren ereskidetasunera aldatuko ba'zenduz.

BIOLE.—Andera maite ori...

OLIBE.—Parkatu egidazu, arren; zure atzenengo Iilurapenaren ondoren elastun bat bidali neutzun zure atzetik ara: eta, olan, neure burua ta nire otseina nekatu nebazan, eta zu zeu be bai, uriean: zuk nire egitea txarto aituteko bidean yarri nintzan, bide lotsagarriz, zu zure etzanik artzeko bidean iminita. Zer uste izan dozu? Ez ete dozu imini nire entzute ona, nire omena, taketeri Ioturik? Eta bein taketeri estuta, ez ete dozu zirikatu, ez ete dautsazuz arpegira

(9) Toril eta Kerside alkarre'.dn nailain:nduriko gazte bi ziran; Pandar, barriz, Kerside'n osaba ta ezkontza-arlcan gaztp bion bitartekc.

yaurti susmorik txarrenak biotz gogorrean sortuazo leikezan asmorik okerrenak? Buru-argi zara-ta, argirorik asko erakutsi dautzut nire biotza; nekostea da, ez bularrik, nire biotza ostonduten dauena: orrazkero, itxi egidazu zuri entzuten.

BIOLE.—Erruki dautzut.

OLIBE.—Maitetasunerako malla yatzu ori.

BIOLE.—Ez, oinkada bat bez; izan be, sarri-askotan ikusten dan zera da gure areriai erruki izatea.

OLIBE.—Ba, orrazkero, ostera be irribarre egiteko garaia dala uste dot: mundu ori, arro be arro izateko dira beartsuak! iñoren aginetan yausi bear ba'dogu, askoz oba da leoiaren aginetan yausi, otsoarenetan baño! (Erloiuak yoten dau). Erloiua asarre dot astia alperrik galtzen dodalako... Ez izan bildurrik, gazte on, nik etzaudaz gura: eta orraitiño be, zurtasuna ta gaztetasuna biak datozenean uztagei izatera, zure eskuko ba'da bietatik zeineri eldu ta ebagi, segurutik zure emazteak benetako gizoneri elduko dautso. Or dozu sarkalderako zure bidea.

BIOLE.—Sarkalderako bidea artuko dot beraz: esksrra ta osasuna bekitzuz lagun, andera. Ez ete dozu ezer nire ugazabarentzako?

OLIBE.—Etxon: esaidazu, arren, nitzaz ze eretxi dozun.

BIOLE.—Zareana etzareala uste dozula zuk.

OLIBE.—Zuk ori uste ba'dozu, ori berori uste dot nik zutzaz.

BIOLE.—Orrazkero zuzen zagoz: enaz ni nazanik.

OLIBE.—Zu nik gura neukena al zintzaz!

BIOLE.—Oba litzake, andera, nik gura neukena ba'nintz, orain zure ergel naz-eta.

OLIBE.—Orren ezpanetako zaputz eta asarrean agiri dan ezespen-moltsoak bai eder emoten dauela! Eriotza-errurik be ez agertuko lenago, ostonduta dagola uste dauen maitasuna baño: eguerdia da maitetasunaren gaua. Kaisari, udabarriko Iorak-arren. neskatasuna-arren, omen, zintzotasun eta edozer-arren, zure arrokeria gora-bera, nik ain maite zaudaz-eta, eztago zurtasunik, ezta zegaitirik be nire irritsa ostondu dagikenik: etzadiz ibili zeugan, zure kitean, nik zegaitik maite zaudazanaren zegaitik billa, nik maite ba'zaudaz zuk eztozu orren errurik-eta: bestera, zegaitiak ikustea galazoten dautzunari esaiozu: On da billaka iritxiriko maitetasuna, baña oba da billatzeka emon yakuna.

BIOLE.—Nire errugetasuna-arren zin dagit, eta bai nire gaztetasuna-arren be, biotz bat baño, bular bat baño eta zintzotasun bat baño eztodala. Eta orrako orreín yabe ezta emakumerik, ezta orrein yabe iñoz emakumerik izango be, neu bakarrik baño. Eta, orrazkero, agur, andera on: bein beiagotan eztautzut negarrik egingo nire ugazabaren negarregaitik.

OLIBE.—Orroitiño be erdu ostera be: ba-ledike ba, orain ari iguin dautsanaren biotza *a* maite izatera itzultea. (Alde dagie).

II AGEHLEKU.-OLIBE'neko Gela.

TOBI AGOBERO, ANDER MOSULARU, eta PABEN aurrera.

ANDER.—Ez, benetan, unetxo bat luzaroago be enaz egongo emen.

TOBI.—Ire zegaitia. eden maite: ekak ire zegaitia.

PABEN.—Nai ta nai ez emon bear dok ire zegaitia. Ander yaun.

ANDER.—Gure Andera Miren-arren, eguño niri egin izan daustan baño txera geiago egin dautsala ire illobeak kondearen mutil otseinari ikusi yoat; orrako ori baratzean ikusi yoat.

TOBI.—Bitartean i ikusten izan au ak, ala, mutil zar ori? Esaidak ori.

ANDER.—Nik orain i akustan bestean argi.

PABEN. Orretantxe agiri dok argi aren iganako maitetasuna.

ANDER.—Ixilik! astotzat artu nok, ala?

PABEN.—Esan dodana ondo esanda dagola erakutsiko dauskat, yaun, adimena ta irizpidea lagun dodazala.

TOBI.—Eta adimena ta irizpidea ebazle bikain zoazan Noa itxasgizondu baño len.

PABEN.—A anderea ire aurrean gazteaganako txeratsu agertu izan ba'dok, i minduteko bakarrik izan dok, ire adore loak artua iratzarteko, ire biotzean sua ta ire gibelean kirats-arria iminteko. I orduan urreratu egin bear intzakion andera ari: eta izkirimiri asmau-barri, labatik arakoz, gaztea ixilduazo egin bear eunkean. Ori gura yoan Olibe'k, eta ik, opatua artu bearrean, zirrist egin dok; ire aldeko izan diran ereti biri ik alperrik galtzen itxi izan dautsek bai, eta orain ire itxas-ontzia nire etzanderearen eretxiaren iparralderako bidean dok; eta an egongo az i eskegita ta dingilizka, leikerraldoa Nederlandatarraren bizarretatik

legetxe, ire okerra zuzendu ezpa'dagik, adore naiz tfrebetasunezko alegin goragarrien bat egin ezpa'dagik.

ANDER.—Orretarako biderik izatekotan, adorearena izango dok: eta izan be, iguin yautsat nik sugekeriari; azerikerizale bestean Browne'zale nintzakek (10).

TOBI,—Ba, orrazkero, eratu egistazak, soindu egistazak, adore-bidez, ik dozakan asmoak. Eupada egiok kondearen gazteari ikin burruka egiteko; amaika lekutan zauritu egik; nire illobeak aintzakotzat artuko yok orrako ori: eta seguru ago munduan eztagola bide oberik emakumeren biotza gizonek irabazteko adore-otsa baño.

PABEN.—Etxagok au baño beste biderik, Ander.

ANDER.—Zuotarik batak naiz besteak eroango ete dautsazue ari nire eupa<dea?

TOBI.—Ia ba, gudari-eskuz idatzi egik; zakarkiro ta labur idatzi egiok; etxok ainbestekorik ardura burutsu izateak, itzak eurak arro ta iruditsu izanazkero; esatekoak esan egiozak, idazkuraren errukirik izateka; eztok txarto etorriko ari gitxienez iru bidar ika itz egitea be; papelak artu-alean guzurtau be egik, papela Ingelanda'ko Ware ibaiaren urbidea besteko andi ba'dok be; eldu ta ekiok lanari. Ire idazkurak beaztunik asko izan dagiala; antzar-lumaz idatzi ba'dagik be etxok ardura. Atara, mutil. atara.

ANDER.—Non idoroko zauedaz?

TOBI.—Geuk dei egingo dauskagu ire lo-gelan. *Oa* ta eldu egiok egitekoari. (ANDER' ek alde).

PABEN.—Gizon yostallu ori karu yatzu, Tobi yaun.

TOBI.—Neu izan natxakok karu orri, mutil; bi milla esterlineraño, edo or orrenbatera-**ño.**

PABEN.—Idazki bakanik iritxiko yokagu orregandik: baña ik ez eroan eroan bear yakonari, gero?

TOBI.—Nik olangorik egitekotan, ez egik iñoz be nigan uste onik izan; idazkia bere bidean imiríko yoat, eta egin-alak egingo yoazat gaztea erantzutera zirikatzeko. Orraitiño be, nire ustez, ipuztarriz eta lokarri lodiz be etxoaguz batuko orreik alkarrekin. Eta izan be, Ander zulatuko ba'litzok, eta ik aren barruan euliren zangotik urtengo litzateken aña odol idoro, gertu ñegokek ni aren soñeko enparaua yateko.

PABEN.—Eta aren aurkalariak, mutil gazteak, eztau iragarten bere arpegian biotz-gogor danaren antzik.

MIREN aurrera.

TOBI.—Ara non datorren bederatzi txepetxetatik gazteena.

MIREN.—Barreka iztenak egin gura ba'dozuez, erdu nire yarrai: an aragoko ollarra, Malboli, sinistegatu egin da bai, sinisteukatzalla; eta izan be, sinistu bear dana sinistuz yareiko dala uste dauen Kistarrik eztago arenak langо zer zakar eta ezinik sinistu leikenik. Oinzorro bellegiak daroaz aldean.

TOBI.—Eta zango-galartzu kurutzetuak be bai. ala?

MIREN.—Bai, lotsabakokirorik lotsabakokiroen eroan be; Elexan irakastegia dauen sasi-yakitunak legetxe. Atzetik yarrai ta yarrai ibili natxako, a noz eta non ilgo ibili ba'nintzan legetxe. Ari ziria sartzeko nik lurrera eralgi neban idazkiko egitaraua zeatz beteten daragoio. Indiak be barruan diralaegindako lutirudi barriak daben baño lerro ta rnarra geiago agiri dira aren mosuan ak irribarre egiten dauenean; zuok eztozue ikusi izan alango zerik: nekez gelditu izan naz eskuetara etorkidana arí burura yaurtitzeka. Ba-dakit nik nire etzandereak a yoko dauela: ak yo ba'dagi, besteak irribarre egingo dautso, txera andiren bat egin dautsolakotan.

TOBI.—Tira, eroan gagizuz, eroan gagizuz agana. (Alde dagie).

III AGERLEKU..--Etxartebide.

ANDONI ta SEBASTEN aurrera.

SEB.—Nik neure kitetik eneuskizun yaramonik be egin izango; baña, zuk zure poz eta atsegina zeure nekeetan aurkitzen dozunazkero, nik eztautzut asarre geiagorik egingo.

ANDONI.—Eneban izan guxa zu baño gitxiagorik: eneban gelditu gura zure atzean; galtzaidu zorrotza baño zorrotzago dan nire lereak aztalak sartu daustaz aurrera eragiteko; eta ni urrinago eroateko be asko litzatekean maitetasuna bakarrik ezta izan

fllO) Browne Erroberta da emen aitatuten dana, 1549'gn. urtean yaio ta 1630'gnean il zan Ingelandar Eleiz-barriztatzallea. "Ingelanda'ko Elexa" deretxonaren aurka esanalak esaten txurik asko galdu eban eleiz-gizon onek

niii eragin daustana, zuii zuie ibiltaldian zei yazokoien bilduna be baño, ingurumariotan zu ezezagun izanik; eta izan be, lunaldeok ez bide-eiakuslaiik, ez adiskideiik eztauenaientzat trakets eta mukei izaten diia saiiitan. Niie maitetasun zindoak, batez be beste zeion bildunagaz bateia, bultzau nau zuie yanai.

SEB.—Ene Andoni maitagani, nik emon neiketzun eiantzun bakana eskenak, eskenak eta osteia be eskeirak emotea da. Egite onak, otseintza onak sarritan iñok aintzakotzat eztauzan txanponokaz oidaintzen dira. Niie ondasunak niie biotza bestean zindo ta ugaii ba'liia, obeto oidainduko neuskizu. Zei egiteko? Uii onetako ikuskizunik gallenenak ikusten yoango ete gara?

AND.—Biar, yaun; oba izango da lenen zure arroztegia ikusten yoatea.

SEB.—Enago nekaturik, eta urrin da gaua; goazen, arren, gure begiak uri onetako oroigallu ta uria ots andiko egiten daben zerez asetzen.

AND.—Parkatuko al nozu; ni esin ibili izaten naz etxartebideok zear gaidu-gorde barik: bein baten kondearen aurkako itxasekite baten, aren ontzien aurka, zerbait baño geiagorik egin neban bai, ta emen goatuko ba'nindue, nekez emongo leuskide saririk orrako orregaitik.

SEB.—Ba-leiteke zuk aldi atan kondearen aldeko asko il izatea.

AND.—Nire iraina ezta odoltsuetarikorik; eretiak eta eztabaideak guri odolixurtzera yoteko biderik emon al izan-arren. Arazo ori nik atondu neikean guk orduan artu genduna atzera emonda; eta izan be, ori egin eben egin be gure erritarrik geienak urien arteko ar-emona-arren: ni bakarrik gelditu nintzan olangorik egiteka, eta orregaitik, ni emen goatuko ba'nindue, ondo ta karu ordaindu bearko neuke.

SEB.—Orrazkero ez erakutsi geiegi zure burua.

AND.—Ez, etxat egoki olangorik egitea. Eutsi, yaun, nire sakela; arroztegitzat tokirik egokiena uriko egoe-aldeko baztar-auzoak yatzuz, euren artean Elepante izenekoa: zure yakien ardurea neuk artuko dot zu astia emoten eta uria ikusiaz zure ezagutzea geitzen zabiltzazan artean; an aurkituko nozu.

SEB.—Zegaitik artu nik zure sakela, zure ziskua?

AND.—Yazo ledike zuk erosi gurako zeuken yostalluren bat or ikustea, eta zure ziskua, nire ustez, eztago uskerietan dirurik eralteko bestean gizen, yaun.

SEB.—Zure zisku-eroala izango naz, eta or itxiko zaudaz ordu betean.

AND.—Elepante'ra...

Seb.—Bai, gogoan dot. (Alde dagie).

IV AGERLEKU.-OLIBE'n baratza.

OLIBE ta MIREN aurrera.

OLIBE.—Aren billa bidali dot bat, eta etorriko dala esan ei dautso: zelango txera egingo ete dautsat? Zer emongo ete dautsat? Eta izan be, gaztea sarriago erosten da, eskatu naiz zorrean artu baño. Zoliegi daragoiot itz egiten... Nondik da Malboli?... Era-meratsu ta ben da a, eta nire oraingo bearizanetarako beren-eberegiko otsein,- Nondik da Malboli?

MIREN.—Ba-dator, andera: baña iñondiko eraz dator. Seguru-segurutik txerrenak arturik dago a.

OLIBE.—Ostera! zer yazoten da ba? Amuiruturik dago, ala?

MIREN.—Ez, andera, ak iiiibarreaz besteiik eztau egiten: andeia oneii oba litzakitzu zure aldamenean yagolaien bat euki a datoneneiako; eta izan be, seguru-seguiu gizon ori gitxi-asko buiutik eginda dago.

OLIBE.—Zoaz eta dei egiozu datonela ona... Neu nago a bestean buiutik eginda, zoiakeri gotiluna ta alaia baidinak izatekotan...

MALBOLI auneia.

Nolan zagoz, Malboli?

MALB.—Andera ezti, ja! ja! (Iiiibanerik baneganiena dagi).

OLIBE.—Inibaireka zatoikuz? Gotilun-aldian ibili naz zure billa.

MALB.—Gotílun zagoz, andera, ala? Ni bai egon neinteke gotilun: zer onek bai odolari bere bidea egiten zerbait galazoten dautso, zango-galartzuak kurutzetara eukite onek. Baña ze ardura dau orrek? Orrako ori iñori begiko ta atsegingarri ba'yako, nik be esan neike arako amalaukoak diñona berbera: "Bateri gogoko ba'yako, guztiai bekie gogoko".

(ez uste izan, gero, katoliko zanik) eta nozikbein baitegia zelango dan be ikusi bear izan eban, bere esanez 32 aldiz. Browne onek sutsu be sutsu itz egiten eban bere siniskide, bere ustekide etziranen aurka, egiaren yabe bera, ta bera bakarrik zalakotan-edo.

OLIBE.—Ostera! nolan zagoz, gizon? Zer yazoien yaizu?

MALB.—Nire gogoa ta biotza eztagoz baltzez, nire zangoak bellegiz yantzita egonarren. Eldu zan nire eskuetara arako *a.* eta beteko dira aginduak. Nire ustez ezagutu dogu erromar esku eztia.

OLIBE.—Oera yoango al zara, Malboli.

MALB.—Oera? Bai, kutun; oera zukin.

OLIBE.—Yaungoikoa lagun bekitzu! zegaitik dagizu orrenbeste irribarre ta zegaitik mun egiten dautsazu zure eskuari orren sarri?

MIREN.—Nolan zagoz, Malboli?

MALB.—Nik zuri erantzutea gurozu. ala? Olangorik egin be nik! urretxindorrak erantzun ezkillasoai!

MIREN.—Zegaitik agertzen zara azarkeri barregarri orregaz zure etzanderearen aurrean?

MALB.—"Ez izan anditasunaren bildurrik": ondo idatzita dago orrako ori.

OLIBE.—Zer esan gura dozu orrako orregaz, Malboli?

MALB. — "Batzuk yaiotzaz dira andiki"...

OLIBE.—E?

MALB.—"Batzuk iritxi egiten dabe anditasuna"...

OLIBE.—Zer diñozu?

MALB.—"Eta batzui berez datorke ganera andikitasuna"..o

OLIBE.—Yaungoikoak osatuko al zauz!

MALB.—"Gogora egizu nok goratu ebazan zure oinzorro bellegiak"...

OLIBE.—Zure oinzorro bellegiak, ala?

MALB.—"Eta zango-galartzu kurutzetuz ikusi gura zinduzan"

OLIBE.—Zango-galartzu kurutzetuz?

MALB.—"Aurrera: Eginda zagoz, olangorik izan gura ba'dozu".

OLIBE.—Eginda nago ni, ala?

MALB.—"Ostantxean, oraindik be nire otsein izan zadizala".

OLIBE.—Ostera! onako au uderdiko amesa bera dogu.

OTSEIN aurrera.

OTSEINA.--- Andera, etorri da atze,a Orsin Kondearen aiton-seme gaztea; nekearen nekez lortu dot *a* atzera etortea: zure ederraren begira dago.

OLIBE.—Neu elduko natxako (Otseinak alde). Miren on, begia ganean euki dagioela gizon orri. Nondik da nire senide Tobi? Nireetariko batzuk berarizko ardurea euki dagiela gizon orregaz; nire ondasunen erdiagaitik be eneuke gura gizon orri okerrik yazo dakionik. (OLIBE ta MIREN'ek alde).

MALB.—Ene! Ene! Nikin bardintzen azarten ete zarie? Ez ete dago Tobi baño gizon txarragorik nire ardura izateko? Erara dator onako au arako idazkiagaz: beren beregi bidaltzen daust *a.* ni aganako setati ta latz agertu nadin; eta izan be, orretaraxe zirikatzen nau ak bere idazkian. "Alda egik ire narrua, egotzi egik ortik zear ire narru zar, apal, zirtzila" diño andera ak; "nire senide baten aurkako izan adi, latz otseinentzako... nagusiari dagokionez arro itz egik... gizon bakanarena egik"; eta, beraz. berak diraust nolan yokatu bear dodan; esaterako, arpegi iluna, lotsea emoteko ibilkerea, astiro itz egin, andikien antzera, eta abar. Nire sareetaraturik dot nik a; baña orrako ori Yupiteŕeri zor dautsat-eta, Yupiter' ek esker oneko egingo al nau! Eta, ak orain alde egin dauenean, "Gizon orri begiratu dagioela" esan dau; "gizon", ez Malboli, ez niri dagokidana, ez nire mallakorik, "gizon" baño. Bai ba, danak yoten dau elburu batera, dana dago alkarri deutsela; eztago ezetariko oztoporik, oztoporen bilderrik bez, bilderraren bilderrik bez... ingurumarian ezta agiri ezer galtzoririk iragarten dauenik; zer esateko? Ezebez, nire ta nire itxaroen bete-bidean gure bitartean sartu ledikenik. Au ondo; Yupiter da, ez ni, au egin dauena. eta eskerrak emon bear yakoz.

MIREN ostera be aurrera, TOBI AGOBERO ta PABEN laguntzat dauzala.

TOBI.—Norago dago a, Yaungoikoaren izenean? Su-lexako txerren guztiak aren barruan estu-estuka egon-arren, eta *a* txerrentalde osoak artu ba'dau be, akin itz egin gura dot nik.

PABEN.—Emen dago, emen dago: Nolan zagoz, yaun? Nolan zagoz, gizon?

MALB.—Ospa ortik zear; eztot zuon bearrik: bakarrean itxi nagizue: alde ortik zear.

MIREN.—Ara! txerren orrek bai arro itz egiten dautsola! eztautzuet esan, ala ... Tobi yaun, nire etzandereak orrekin arduraz ibilteko eskatzen dautzu.

MALB.—Ostera! Ostera! ori esan dau, ala?

TOBI.—Tira, tira; ixilik, ixilik, txerakor eta txeratsu izan bear gatxakoz: bakarrik itxi nagizue. Nolan zagoz, Malboli? Zer yazoten yatzu? Ene bada, gizon! eupada egiozu txerrenari: gogotan euki egizu, gizadiaren arerio da *a.*

MALB.—Bai ete dakizu zer diñozun?

MIREN.—Eztozu ikusten txerrenaz txarto itz egiten dozunean ori nolan asarretzen dan,

ala? Ez *a* dau gurako Yaungoikoak ori sorginduta egoterik!

PABEN.—Orren txixa eroan egiozue emakume sasi-osalariari.

MIREN.—Arrano! arrano! orixe egin be egingo dogu biar goxean, bizi ba'naz. Nire etzandereak eleuke galdu gura ori nik esan neiken baño geiagogaitik be.

MALB.—Zer esan dozu, emakume?

MIREN.—Ene Yaungoikoa!

TOBI.—Arren, nasai zagoz: bide orretatik ezkoaz iñora. Eztakusazu eragíten dautsazula, ala? Berakin bakarrik itxi nagizue.

PABEN.—Onangoaz beste biderik eztago: bigun, bígun: zakar da txerrena ta eztau gurako bera iñok zakar erabilterik.

TOBI.—Tira ba, nolan dago nire ollartxoa? Nolan zagoz, kutun ori?

MALB,—Yaun?

TOBI.—Bai, Agintaritxo, zatoz nire esanera. Tira, gizon! zure bentasunari eztagoko txerrenakin potxolaka yokatzerik. Eskegi egizu ori, ikazgin mosu-zikin ori!

MIREN.—Bere otoitzak, bere arrenak esanazo egiozuez: Tobi yaun on, arren eragiozue.

MALB.—Nire arrenak, buztar.ikara?

MIREN.—Ez, sinis egidazue, orrek eztau entzun gurako Yaungoikoagazkorik.

MALB.—Zoaze ortik zear, eskegi egizuez guztiok zuon buruak! zuok zer arro zirtzil zarie: ni enaz zuotarikorik: geroago entzungo daustazue geiagorik. (Alde dagi).

TOBI.—Izan ete dateke olangorik?

PABEN.—Onangorik erakutsiko ba'litz orain antzeztegian, zer ezintzat gaiztetsiko neuke.

TOBI.—Gure irria biotzaren biotzeraño sartuta. guztiz izurriz beterik itxi dau ori.

MIREN.—Ez gelditu orretan; zoaze atzetik ara bere yarrai, gure yostaketea zabaldu ta utsean gelditu eztadin.

PABEN.—Bai izan be, burutik eragin bear dautsagu, eragin be.

MIREN.—Olan bake geiago izango da etxean.

TOBI.—Goazen, gela ilunean sartu ta estu egingo dogu, Nire illobea onazkero sinistuta dago ori burutik eginik dagola: onan, gure olgetea aurrera eroan daikegu gure pozerako ta orren oben-nekerako, gure olgetea bera arnasea agorturik geldituta, erruki izatera gu bultzau-arteño: bein orraazkero, asmo au ikusleai iragarriko dautsegu, eta zu zoro-idorotzallsen burutzat burestunduko zauguz. Baña begiratu, baña begiratu.

ANDER MOSULARU aurrera.

PABEN.—Gei geiago Orril-goxerako.

ANDER.—Ara emen eupadea; irakurrí egizue: neuk dirautzuet ba-dala or ozpin eta piperminik.

PABEN.—Orren zakar eta lotsabako da, ala?

ANDER.—Bai, ba-da, sinis egidazu: eztozu irakurri baño.

TOBI.—Ekak. (Irakurri dirakur). "Gazte, agon lekuan agola, lagun legentsu baño ez ez i".

PABEN.—Ondo ta adoretsu, gero?

TOBI.—"Ez adi ibili yakin-gurarik, eta ez adi arritu be, zegaitik onan deitzen audan, onen zegaitirik eztauskat erakutsiko-ta".

PABEN.—Oar on dok ori: olan legearen zigorretik alde ta zirrist egiten dok-eta.

TOBI.—"Olibe andereagana etorten az i eta ak neure aurre ta bizarretan iri txera andiak egiten dauskaz: baña ik guzurra diñok ire eztarrian; orregaitik egiten dauskat nik eupada".

PABEN.—Oso labur, eta bai oso sentzunbako be.

TOBI.—"Iri kuika eta makurturik egongo nok ire etxera-bidean; alanbearra ba'dok, an ik ni ilteko...

PABEN.—Oriondo.

TOBI.—"Zirtzil eta dollortzat ilgo nok.

PABEN.—Oraindik be ik legeari zirrist egiten dautsak. Ori ondo.

TOBI.—"Onik eta ondo abil; eta Yaungoikoa erruki bedi gutarik bataren gogoaz! baleiteke Ak nirearen erruki izan-bearrik; baña ba-yoat itxaro oberik eta, orrazkero, yagoik ire burua. Ire adiskide, ik ni nolan erabiliko, eta ire arerio zin egina, Ander Mosularu".

TOBI.—Idazki onek eragin ezpa'dagio ari, zangoak eztautsoe eragingo: neuk emongo dautsat.

MIREN.—Ereti ezin obea izango dozu orretarako; nire entzandereakin ar-emonen baten dago a orain, eta gesu baten aldé egingo dau.

TOBI.—Oa, Ander; aren begira yarri akit baratzeko okuluren baten, ertzain ba'intz lez; ik a ikusi-ala, atera egik ezpatea; eta ezpatea atera-ala gorrietariko itzal bat yaurti egiok; eta izan be, sarritan yazoten dana dok birao eskargak, abotsari gora-ber^ik eraginaz esanazkero, olangorik esaten dauena gizonago dala erakusten dauela, ainbarik erakusteak baño. Alde!

ANDER.—Eztago ni langorik birao egiten. (Alde dagi).

TOBI.—Eztautsat eroango idazki au, gaztearen yardukera onak a etxalde oneko ta aziera oneko dala diragar-eta; bere yaunaren eta nire illobearen bitarteko izateak eztau ira-

garten gitxiagorik; orrazkero, idazki au ezyukiniutjuúez útíttíiik uCiçúiiuZKero ezíGuíSu emongo ikararik gazte arí; astakirtenen bategandiko dala uste izango dau ak. Orren ordez, yaun, itzez emongo yautsat aren eupadea, eta gazte ak, egin-eginean be gazte dalako sinistuko eztauena langO gizon ikaragarritzat erakutsiko yautsat; gizon itzal, erre, ganoratsu, asarre, ta oldartsutzaU Onako onek ai, biai, sartuko dautsen alkarreganako bildurra ain andia izango dok-eta, begirakune utsez alkar ilgo yoek, sugegorriak legetxe.

OLIBE ta BIOLE aurrera.

PABEN.—Or yatok a ire illobeakin; etxoik orreik alkarri agur egin- arteño, eta orduan oakio atzetik ara.

TOBI.—Bitartean eupadea emoteko itz ikaragarri batzuk asmauko yoadaz.

(TOBI, PABEN eta MIREN'ek alde)

OLIBE.—Itz geiegi egin dautsat arrizko biotzeri egiteko, eta ardura gitxigaz imini dot orretan nire omen eta entzute ona: barruko zerbaitek gaitzesten daust nire utsa; baña nire utsa ain andi ta setatsu ta buru-gogor da-ta, gaitzesteari irri egiten dautso.

BIOLE.—Zure biotz-Ierearen yardukera berbereko dira nire ugazabaren naibageak.

OLIBE.—Eutsi pitxi au, nigaitik erabili egizu, nire irudia da; ez egizu zapuztu, ez egizu ezetzik emon, eztau miñik zu minduteko: eta barriro etorri biar, arren. Eskatu ete zeinkest ezer, nire omenaz besterik, nik ukatu neiketzunik, zuk eskatuaz bat nik emongo eneuskizunik?

BIOLE.—Auxe baño besterik ezertxo bez, nire ugazabaganako zure benetako maitetasu*na.*

OLIBE.—Zelan emoteko ari nire omenaren kalte barik bein zuri emon dautzudana?

BIOLE.—Neuk zurituko zaudaz, neuk parkatuko dautzut ori.

OLJBE.—Tira ba, etorri biar ostera be. Onik eta ondo ibili: zu langO txerrenek nire gogoa su-lexara be eroango leuke. (Alde dagi).

TOBI AGOBERO ta PABEN aurrera barrien barri.

TOBI.—Aitonen seme, Yaungoikoa lagun dakitzula.

BIOLE.—Bai, zeuri be, yaun.

TOBI.—Zure burua yagoizu al dozunik ondoen. Urliri zetariko irainak egin dautsazuzan nik eztakit; baña zuri bidera urteteko dana zuganako iguin eta gorrotoz beterik, eiztaririk baño odol-egarriago, zure begira dago baratzaren atzenean: atera egizu ezpaiea, ger^au zauiz, c±v^ar.u,:c "a.zuna, ga ñetuko yatzuna bizkor. ganoratsu ta itzal da-ta.

BIOLE.—Oker zagoz.yaun; seguru nago ni, gizonek eztauela niganako burruka-biderik; eztot gogoratzen iñori eguño bidebagerik egin izan dautsadanik, ezta olangoren urrik be, ezta olangoren antzekorik be.

TOBI.—Bestera dala aurkituko dozu, bai orixe: orrazkero, zure bizia ezertzat ba'dozu, yagon egizu, zur eta zai zagoz; eta izan be. zure aurkakoak gaztetasunak, indarrak, trebetasunak eta asarre gorriak ornigarritzat emon leikean oro aldean dau.

BIOLE.—Arren, nor da bera?

TOBI.—Zaldunetaiko da a, aren ezpateak eztau akatsik. eta aren entzute ona, aren ospea izara garbirik baño garbiago ta zuriago da; baña a bien arteko eztabaidan txerrena bera da; iru soin eta iru gogo banandu dauz alkarregandik; eta aren asarrea une onetan ain gorri ta bare-ezina da-ta, eztago a zuritzekorik eta ari ordea emotekorik zure eriotza-larrialdi ta zure ilobiez besterik; su-burdinak burura da aren esakunea; yazotekoa yazo da aren esakunea: il edo bizi, artu edo emon.

BIOLE.—Etxera sartuko naz atzera eta bidelagunen bat eskatu etzandereari. Ni enaz burrukara oiturik. Entzunda daukat nik gizon batzuk besteentzako eztabaidak asmatzen dabezala, euren adorea zelango dan ikusteko: ba-ledike orrako ori be orretarikoen bat izatea.

TOBI.—Ez olangorik, yaun; asarre ori benetako bidebagetik sortua da; orrazkero. zoaz aurrera, eta egizu ak gura dauena. Etzara yoango atzera etxera, galdu-gorde geiago barik akin egingo zeukena neukin egin gura ezpa'dozu; orrazkero, edo yo aurrera, edo atera egizu zure ezpatea; eta izan be, nai ta nai ez eraso bear dozu, edo, ostantxean, zin egin aurrerantzean eztozula erabiliko burdiñarik aldean.

BIOLE.—Era-mera onez besterako añan iñondiko dogu au. Otseintza txerakor au egidazu, arren, yakin dagidala zaldun orri nik ze irain egin izan dautsadan: irainik egin ba'dautsat, oartzeka izan da, ez beren-beregi.

TOBI.—Beteko dautzut zure eskari ori. Paben yaun, aiton-seme aldamenean zagoz ni atzera etorri nadin arteño. (TOBI'k alde).

BIOLE.—Arren, yaun, ezagun ete yatzu arazo au?

PABEN.—Nik dakidana zalduna zuganako

asarre be asarre dala da, ta il edo bizi yokatzeraño erabagirik; baña orrez besterik tautik bez.

BIOLE.—Arren, zetariko gizon da orrako ori?

PABEN.—Aren azalean eztozu idoroko iñondikorik ezer, aren adorea noragiñoko dan zeuk ikusi dagizun-arte. Izan be a, yaun, zuk Iliri osoan be aurkitu zeiken aurkakorik ganoratsuen, trebeen, odolzaleen, alanbeartsuena da. Yoan gura dozu aganantza, ala? Neuk egingo dodaz onezkoak zuon artean, al ba'dot.

BIOLE.—Olangorik egin ba'dagizu, betiko zordun geldituko natxatzu. Zaldunekin baño abade yaunakin gogozago ibilten diranetariko nozu ni: orretariko nazala nok dalcianek eztaust emoten ardurarik. (Alde dagie).

TOBI ta ANDER ostera be aurrera.

TOBI.—Ara, gizon, txerren berbera dok a: etxoat nik ezagun alango marimutilik. Eraso-aldi bat izan yoat akin, ezpatea lekan dauela, eta emon daustan zartadea ain gogorra izan dok-eta, nik ezin erantzun izan yautsat ezetara be; eta *a* yo ba'dagik be, aren erantzuna ire oñak orain lurraxi deutsela dagozan bestean segurua izango dok. Or diñoenez, *a* Sopi'ren aurka ezpata-burrukan egina dok.

ANDER.—Izurriak eroango al yok a, ni enok sartuko akin ezetan be.

TOBI.—Ori olan bide-dok, baña ak etxok gura orain bakerik: Paben'ek ezin eutsin yautsok ari an.

ANDER.—Izurriak eroango al dau: orren adoretsu, eta bere burua yagoten orren trebe dala yakin izan ba'neu, lenago gaiztetsien artean su-lexan ikusiko neukean, nik ari eupadarik egin baño. Bertan bera itxi dagiala ak arazo ori, eta nire zaldi "Kapilet" urdiña emongo dautsat.

TOBI.—Neuk eroango yautsat ire asmo ori. Emen gelditu adi i, eta zaldi-ganean erakusketa onik egik; eztabaida onek bizirik galtzeka amaitu bear yok. (Bere kitean) Ak ire zaldia nik i arabildan bestean ondo erabiliko yok.

PABEN eta BIOLE aurrera.

(PABEN'eri) Eztabaidea amaitzeko zaldi au yoat: *a* etsita itxi yoat gaztea txerren dala.

PABEN.—Gaztea beste ainbeste sinisturik yagok aretzaz: eta arnas-estuka ta arpegia zurbil dauela yagok, artzen bat atzetik ara bere orpoetan baileu.

TOBI.—Eztago beste biderik, yaun; ak zukin burruka egin gura dau orretarako zin egin-da dago-ta: arrano! ak eztabaideaz obeto oldoztu izan dau bai, ta orain eztabaidea aitatugarritzat be osta-osta dau: orrazkero, atera egizu zure ezpatea, ak bere zina bete dagian; eztautzula minik egingo esaka ta esaka dabil *a*.

BIOLE.—Arren egizu Yaungoikoa lagun dakidan! Edozein uskeri litzake asko niri esanazoteko gizon izatetik urrin be urrin nagola (Bere kitean diño au).

PABEN.—Atzeraka egizu *a* asarre ta suak arturik ikusi ba'dagizu.

TOBI.—Tiruk, Ander yaun, etxagok beste biderik,- gazte onek, bere omena yagote-arren erasoaldi bat izan gura yok ikin: bien arteko burrukako legeakaitik au ezin dok gelditu eraso barik; baña aitonen seme ta gudari dan aldetik ez auela zaurituko agindu yaustak. Ia, ba, aurrera ta ekin.

ANDER.—Yaungoikoa-arren, orrek yagongo al dau bere agindua (Ezpatea ateraten dau).

ANDONI aurrera.

BIOLE.—Nire gogoaz bestera dagidala yakizu. (Ezpatea ateraten dau).

ANDONI.—Lekaratu egizu ezpata ori: aitonen seme gazte onek irainik egin ba'dautzu, uts ori neugan artzen dot; zuk iraindu ba' dozu, ostera ori, neuk egiten dautzut eupada (Ezpatea ateraten dau).

TOBI.—Zuk, yaun? Ostera! nor zauguz ba?

ANDONI.—Orren ederragaitik orren alde orrek berorrek egingo dauela esan dauen baño geiago egingo Ieukena.

TOBI.—Bai, besteren eztabaidetan sartzekorik ba'zara, emen nozu (Ezpatea ateraten dau).

ERTZAIN bi aurrera.

PABEN.—Geldi or, Tobi yaun on: ertzainak datoz emen.

TOBL—(ANDONI'ri) Emen nok.

BIOLE.—(ANDER'eri) Arren, yaun, sartu egizu ezpata ori lekan, eder ba'yatzu.

ANDER.—Bai orixe, egin be egingo dot, yaun; eta orretarako nire itza bestean on izango yatzu ori. Zu ta ugalak errez eroango dauz orrek.

I ERTZAINA.—Au da arako gizona: egin ire egitekoa.

II ERTZAINA.—Andoni, estu egiten aut Orsin Kondearen eginduz.

ANDONI.—Okerrekotzat artu nozue, yaun.

I ERTZAINA.—Ez, yaun, ez ezetan be; ondo ezagun yat zure arpegia, orain zure buruan itxas-gizon txapelik euki ez-arren... Eroan

egik au; ba-yakik onek ondo ezagun dodala.

ANDONI.—Agindua bete bearko nik... Zure billa ibili izanetik datorkit au; baña egina eginda dago, yazoa yazota; eta emen nago erantzuteko. Zer egiteko? Orain nire bear-izanak nire ziskua eskatzera beartzen nau. Naibage andiago emoten daust zure alde ezer egin ezinak niri yazoten yatanak baño. Arriturik zagoz au; baña nasai zadiz.

II ERTZAINA.—Goazen, yaun.

ANDONI.—Diru atatik zerbait eskatu-bearrean nagotzu.

BIOLE.—Ze dirutatik. nongo dirutatik, yaun? Nire alde erakutsi dozun biotz onagaitik, baita zure oraingo ezbearrak orretara bultzauta be, nire eskuarte urri-makaletik zerbait emongo dautzut: nik dodana ezta askotzarik; dodantxoa zukin zatituko dot: eutsi, or dozu nire ziskukotik erdia.

ANDONI.—Ukatu egingo daustazu orain, ala? Izan ete ledike nik zure aurrean irabazi dodanak zuri ez eragiterik? Ez egizu zirikatu nire bearra nik zuri egindako on-egiteak zuri arpegira egotzi-bearrean aurkitu enadin.

BIOLE.—Zure nitzako on-egiterik bat be eztot ezagun, eta zu etzaudaz ezagun ez zure abotsez, ezta zure beste eaugarriz be: gizonegazko esker txarreko izateari iguinago dautsat guzurti, arroputz, esameslari, mozkorti izateari, naiz gure biotz makala orbantzen dauen beste edozein orbaneri ba**ño.**

AND.—Yaungoikoa-arren!

II ERTZAINA.—Tira, yaun, zatoz, arren.

AND.—Itxi egidazu apurbaten itz egiten. Emen dakusazun gazte onen erdia neuk atera neban eriotzearen aginetatik, eta maitetasun ain gurenez yarei neban... eta orren irudiari intsigi-intsigirik gelditu nintxakon, ain itxarogarri ta aintzako zala iruditu yataneta.

I ERTZAINA.—Eta guri zer dausku orrako ardura orrek? Aldia aurrera doa; goazen.

AND.—Ene! nik yainkotzat neban au bai urten yatala guzurrezko yainko! Sebasten, zakarkeri lango zakarkeria egin dok ik, eta ire arpegi ederra lotsaturik itxi dok. Izadian eztago gogoaz beste zer itxusírik; zer mots eta zakarrik danik ezin esan gogoaz besterik: eder da on-indarra; baña gaiztakeri liraina ezta besterik txerrenak azal ederra imini dautsen ontzi uts baño,

I ERTZAINA.—Burutik egin yako gizon oni; eroan au. Zatoz. zatoz, yaun.

AND.—Bidea erakutsi egidazue {Ertzainak eta ANDONI'k alde).

BIOLE.—Orren itzak biotz-biotzetik datoz-eta, sinistuta dago ori, nire ustez; neu be sinistuta nago. Egi izan zakidaz, irudimen ori; bai, egi izan zakidaz. Ene maite ori, ni be zutzat artu izan al nabe!

TOBI.—Ator ona, zaldun; ator ona Paben; bidean yoan-ala esakune zar bikote batez, naiz biaz txutxuputxuka ekingo yautsaguk.

BIOLE.—Sebasten izentau eta aitatu dau orrek; nire ispillua begiratzen dodan bakotzean bizitzat dot nik nire neba Sebasten; onangoxe zan arpegiz nire neba Sebasten; eta onantxe ibilten zan a taiu ta ibilkeraz, margoz, yazkeraz, nik arexen antza daroat-eta. Ene! olangorik ba'litz, txerakor litzakez ekatxak, eta gezala ur gozo maitasunez! (Alde dagi).

TOBI.—Mutil zindoez ta kikil orixe benetan. erbia baño kikilago: orren zindotasuník-eza berorren adiskide ori laguntzaka bertan-bera iztean agiii dok: eta Paben'eri itandu orren kikilkeriaz.

PABEN.—Kikil-kikil, kikilkeria Yaungoikotzat dauena.

ANDER.—Kontxo! atzetik ara yoan eta orri narrua berotzeko gogoak emoten daust.

TOBI.—Bai, belarriak berotu egiozak, baña ez egik atera ire ezpatea.

ANDER.—Ezpa'dagit... (Alde dagi).

PABEN.—Gaioazan gu be, zer yazoten dan ikusten.

TOBI.—Euk zenbat gura diru egingo naieunkek orain be eztala ezer yazoko. (Alde dagie).

IV EKITALDI

I AGERLEKU.-OLIBE'naren aurreko Etxartebide.

SEBASTEN eta AKETOA aurrera.

AKET.—Zure billa enabilela sinistuazoko ete daustazu, ba?

SEB.—Oa ortik zear, oa ortik zear, lagun ergel az i; baketan itxi nagik.

AKET.—losus! ekin-bearraren ekin-bearra! Ieiatu-bearraren laiatu-bearra! Ez ba, nik etzaudaz ezagun; eta nire etzandereak be enau bidali zure billa, akin itz egiten yoan zakiozan; eta zure izena be ezta Kaisari;

eta sur au be ezta nire. Orrako orreitarik bat be ezta olan.

SEB.—Arren, beste nonbaiten ustu egik ire zorakeria. Ik enok ni ezagun.

AKET.—Ustu egik ire zorakeria! esakera au orrek gizon andiren bati entzun izan dautso eta orain ergeleri egozten dautso arpegira. Ustu nire zorakeria! bildur naz astakintentzar au. mundu au, burutik eginda dagola.-Arren, zure ezaguneztasunari albora eraginda, esaidazu zer ustuko dautsadan níre etzandereari. Ba-zatozalako barria ustuko ete dautsat?

SEB.—Arren, Elade'tar ergel, alde egik nigandik; autso dirua; luzaroago yarrai ba'akit emen, ordain txarragorik emongo dauskat.

AKET.—Egia esateko. eskuzabal zara zu: ergelai dirurik emoten dautsien gizon zurrak entzute ona lortzen, iristen dabe amalau urtean irabazten ibili-ondoren.

ANDER, TOBI eta PABEN aurrera.

ANDER.—Ara, ara, yaun, ostera be trikitx egin dot zukin? Eutsi, zutzako au (Yo egiten dau SEBASTEN).

SEB.—Bai, e? Itzako au, bai au be, eta bai beste au be. Guztiak ete dagoz burutik eginda emen? (Belarrondokoak damotsoz ANDER'eri).

TOBI.—Geldi, yaun, ostantxean or yoak ire sastakaia etxe-ganea zear.

AKET.—Bertatik emongo dautsat onako onen barri nire etzandereari. Eneuke egon gura zuon narruan txakurrandi bigaitik. (AKETOA'k alde).

TOBI.—Tira, yaun; geldi or. (Eldu egiten dautso SEBASTEN'eri).

ANDER.—Ez, ori ez, geldi itxik ori; beste nonbaiten erasoko yautsat nik orri. Iliri'n legerik izatekotan, egiteazko auzia iminiko yautsat nik orri: lenen neuk yo izan-arren ori, etxok ardura.

SEB.—Azkatu nagizu, ken zure esku ori.

TOBI.—Tira, yaun, eztautzut itxiko alde egiten. Tira, ene gudari gazte, lekaratu egik ire bunrdiña ori: ondo adoretsu az: tiruk.

SEB.—Askatu nagizu. Zer gurozu orain? Geiago zirikatu gura ba'nozu, atera egizu zure ezpatea. (Atera egiten dau berea).

TOBI.—Zer? Zer? Ba, olan izatekotan ozarretik ontza bat edo bi artu bearko yoadaz. (Ezpatea ateraten dau).

OLIBE aurrera.

OLIBE.—Geldi, Tobi: zeure bizia-arren agintzen dautzut, geldi.

TOBI.—Andera?

OLIBE.—Beti ibili bear ete dozu zuk olan? Eskertxarreko ziztrin ori, an era-mera onen barririk eguño entzun be eztan mendietarako ta basatien artzuloetarako zara zu oba! Alde nire begien aurretik!... Ez minik artu, Kaisari maite!... Alde, kirten ori! (TOBI, ANDER eta PABEN'ek alde). Arren, adiskide maitagarri, zure bakearen aurkako arazo ta ereti onetan zure zurtasuna izango al da nagusi, ez zure asarrea. Zatoz nirera nikin batera. Neuk azalduko dautzudaz an zakarto orrek zenbat eta zelango zakarkeriak egin izan dauzan, aik entzunik oraingo oni irribarre dagiozun: yoango zara nilrin, eztaustazu ukatuko ori. Zori txarreko bedi nire biotza zugaitik asaldatu dauena.

SEB.—Ze sunda dogu onetan? Nora doa errreka au? Ala burutik eginda ete nago? Ostantxean onako au amesen bat dogu: oindiño be nire irudimenak Lete'n murgildu dagizala nire oarmenak: onako au amesik ba' da, lotan yarraiko al naz!

OLIBE.—Bai, goazen, arren. Neuri itxi egidazu zu erabilten!

SEB.—Andera, gogoz itxi be itxiko dautzut.

OLIBE.—Ene! bai esan ostera be, ta olantxe bedi! (Alde dagie).

H AGERLEKU. OLIBE'neko Gela.

MIREN eta AKETOA aurrera.

MIREN.—Arren, atorra au yantzi agizu eta bai bizar au be: zu Topa abade yauna zareala sinistuazo egiozu; arin egin egiteko ori: bitartean neuk ots egingo dautsat Tobi yaunari. (MIREN'ek alde).

AKET.—Tira ba. yantziko dodaz, eta iñoren antza artuko dot; eta onango atorraz iñoren antza artu dabenetarik lenengoa al nintz. Enaz ni gizenik asko onango egikizunetarako: ezta argalik asko be ni iñok ikasla ontzat artzeko be: baña ainbaten da gizon zindo ta etxezain on izatea ta gizon arduratsu ta yakitun andi izatea. Ba-datoz zinkideak.

TOBI AGOBERO ta MIREN aurrera.

TOBI.—Yupiter'ek onetsiko al zauz, abade yaun.

AKET.—"Bonos dies", Tobi yaun: eta izan be,

eguño idazkortzik eta idazkurik ikusi ez eban Praga'ko padar zarrak bein zurtasun andiz Gordobuk erregeri esan eutsanez "dana ba-da": olan, ni be, abade yaun nazalako, ba-naz abade yaun: eta izan be, zer da ori, ori baño besterik? Eta dana zer da, danaz besterik?

TOBI.—Orregana, Topa yaun.

AKET.—Eup, neuk diñot gero. Bakea bedi baitegi onetan!

TOBI.—Arlote onek ederto dagi berau eztanarena; sekuleko arlote berau.

MALBOLI.—(Barruragoko gelatik) Nor dago or deiez?

AKET.—Topa abade yauna, Malboli zoroa ikusten datorrena.

MALB.—Topa yauna, Topa yauna, Topa yaun ona, zoaz nire etzandereagana..

AKET.—Atzera, txerrentzar ori! Zegaitik minduten dok gizon au? Zegaitik darabilzak emakumek bakarrik agotan?

TOBI.—Ondo esanda, abade yaun.

MALB.—Topa yaun, eguño ezta izan gizonik ni baño irainduagorik: Topa yaun on, ez uste izan ni burutik eginda nagonik; emen ilunbe naskagarri onetan sartu izan nabe.

AKET.—Alde orregandik, Satan lotsabako orrek! itzik bigunenez itz egiten dauskat; txerrena bera be era-mera onez artuko dabenetariko nozu ni-ta. Etxe ori ilun dala diñozu, ala?

MALB.—Su-lexea bestean, Topa yaun.

AKET.—Ba, leio orman aurreratuak dauz etxe orrek, sareak bestean argi diran ormazu-Ioak, eta egoe-ipar-aldera ebano bestean argitsu diranak: eta orraitiño be ilunbeaz alakatzen zara?

MALB.—Ni enago burutik eginda, Topa yaun; neuk dirautzut ilun dala etxe au.

AKET.—Zoro, oker zagoz zu. Neuk dirautzut eztagola beste ilunberik ez-yakite baño: eta ez-yakite orretan zu Aigito' arrak euren Iañapean baño itsuago zagoz.

MALB.—Neuk dirautzut etxe au ez-yakitea bestean ilun dala, ez-yakitea su-Iexea bestean ilun ba'litz be; eta neuk dirautzut eguño eztala izan gizonik onenbestean irainduri k. Ni enaz zu baño burutik eginagorik; olan danentz ikusi egizu edozein gei eta itaunetan.

AKET.—Zein da Pitagora'ren eretxia egaztíez?

MALB.—Ba-leitekela guie amamaren gogoa txorien baten soñean izatea.

AKET.—Eta ze uste dozu zukj eretxi orretzaz?

MALB.—Ori baño uste obeiik dot nik gogoaz, eta ezin emon dot ontzat eretxi ori ezetara be.

AKET.—Onik eta ondo ibili. Oraindik ilunetan yarrai: Pitagora'ren eretxia ontzat artu bearko dozu nik zu osatutzat etsi orduko; eta ollagorrik ilteko bildur izan bearko dozu, zure amamaren gogoa il eztagizun. Agur.

MALB.—Topa yaun, Topa yaun!

TOBI.—Ene Topa zur-zur ori!

AKET.—Bai, edozetariko uretan uger egitekoa nozu ni.

MIREN.—Egin dozun ori abade-yantzi ta bizar barik be egin zengikean; etzauz ikusten orrek.

TOBI.—Eure abotsez itz egiok, eta nolan aurkitzen doanaren barri ekarri egidak: txantxeta au amaiturik al llegok. Gutzako oker barik askatu al ba'litzok ori, gurago naieukek askaturik ba'laiegok; eta izan be, ain asarre yoat nire illobea-ta, nitzako galdugorde barik ezin iraun neike yostaketa onetan atzenerarteño. Laster etorri nire gelara. (TOBI ta MIREN'ek alde).

AKET.—"Tiruk, Errobin, Errobin lerden ori, Esaidak nolan dagon ire anderea". (Abestuaz).

MALB.—I, ergeU

AKET.—"Muker dago nire anderea. Olangorik!"„

MALB.—I, ergel...

AKET.—"Onangorik! zegaitik ete dago olan?".

MALB.—I, ergel, gero?

AKET.—"Besteren bat maite dau ak"... Nor dago daiez? Eee!

MALB.—Ergel on, nire esker onik, irabazi gura ba'dok, ekak argiren bat idazkortz, idazkur eta ingiren bat (papelen bat): ni aitonen seme nazan bestean seguru esker oneko izango natxakik orregaitik nire bizi osoan.

AKET.—Malboli yauna!

MALB.—Bai, ergel on, bera nok.

AKET.—Ene bada, yaun, nolan galdu dozuz zuk zure bost sentzuak?

MALB.—Ergel, eguño eztok aurkitu izan gizonik onen agirian bidegabeturik; ergel, nire burua irea bestean zindo yagok.

AKET.—Nirea bestean baño ez? Orrazkero, zu izan be burutik eginda zagoz, zure burua ergelarena baño obeto ezpa'dago.

MALB.—Niri eskuak egotzi ta emen sartu izan naioek: ilunbetan naiaukiek, abadeak bidaltzen yaustiezak, asto utsak, eta eurak al daben guztia egiten yoek niri burutik eragiteko.

AKET.—Ez esan edozer, gero? emen dago

abadea.» Malboli, Malboli, Yaungoikoak osatuko *a* dautzu burua! Lo egiteko eginalak egizuz, eta baztarreratu egizuz zure asmook.

MALB.—Topa yaun...

AKET.—Ez egiozu erantzun, lagun. Nork? Nik, ala, yaun? Nik ez, yaun.-Yaungoikoa lagun bekitzu, Topa yaun on.-Olan bedi, Andera Miren-arren.-Bai, yaun, olantxe bedi.

MALB.—Ergel, ergel, ergel, gerooo?

AKET.—Onangorik! Yaun, epe artu egizu. Zer diñozu, yaun? Asarre ta agirika egiten dauste zuri itz egiteagaitik.

MALB.—Ergel on. ekak argiren bat eta ingiren bat; Iliri'n dan gizonik zindoena aña burutik zindo nagola dirauskat.

AKET.—Egun onen zori txarreko!... al zengoz, yaun!

MALB.—Esku au-arren zin dagiskat ba-nagola: ergel on, idazkurik, ingirik eta argirik ekarri egidak eta nire etzandereari esaiok nik idatzi dagidana: eguña idazki-erosterik izan yakan baño onurakorrago izango yak au erostea.

AKET.—Bai, ekarriko dautzudaz. Baña egia esaidazu, etzagoz benetan burutik eginda, ala? Ala burutik eginarena egiten daragoiozu?

MALB.—Sinis egidak, enaiagok ni burutik eginda; egia dirauskat.

AKET.—Ez, iñoz be eztautsat sinistuko burutik egineri, nik aren garaunak ikusi-arteño. Zutzako argi, ingi ta idazkur-billa noa.

MALB.—Ergel, on-egite ori al dodanik ondoen ordainduko dauskat: oa, arren.

AKET.—

Ba-noa, yaun, bai,
Eta bertatik, yaun,
Emen nozu atzera,
Beingo-beingoan,
Ekandu txar zarra lez,
Zure bearra beteteko;
Ekandu txarrak zurezko ezpataz,
Asarre gorri-gorritan gedar dagitso
Txerrenari; orri! orri!:
Gazte zorok legetxe,
Bardindu zure atzazalak, aita.
Agur, zoro gaxo ori. (Alde dagi).

III AGERLEKU.-OLIBE n Baratza.

SEBASTEN aurrera.

SEB.—Eguratsa da au; eguzki argitsu-zoragarria *a* aragokoa: neskato ak emon daustan pitxi au ukutzen dot eta ba-dakust: eta arrituaren arrituak ni onan bere barruan batu-baturik euki-arren, orraitiño be enago burutik eginda. Nondik da ba, orrazkero, Andoni? Ezin idoro izan dot Elepantea'n; eta orraitiño an zan a; eta an esan daustenez, nire billa ibili da a uria zear. Orain urrezko laguntza litzakit aren onua: eta izan be, nire adimena nire soin-oarmenakaz eztabaidaka ibili-axren, onako au oker aditzerik izan leiteke, baña ez burutik eginda egoterik; orraitiño be yazokune au, zori on uriol au, ain da bere aurretikobako, ain azal-ezineta, ia ia nire begiai ez sinistera yarri-aginik nago, eta nire adimenakin burruka eginaginik, adimenak ni burutik eginda nagolaren bidea barik beste edozein bide artzeko ni etsiazoten daragoio-ta; edo ostantxean anderea bera dago burutik eginda: olan ba' litz, ezin eroan izango leuke bere etxea, ezin izan bere yanaileen nagusi; ezin burutu bere arazoak leunkiro, zurkiro ta nagusikiro, burutzen dauzala nik dakustanez: ba-dogu nasteren bat onako onetan. Baña emen dator anderea.

OLIBE ta Abade aurrera.

OLIBE.—Txartzat ez artu nire arin ibilte au. Onak ba'dira zure asmoak, zatoz, erdu orra aldameneko yauretxera nikin eta Yaungoikoagazko gizon onekin: an, onen aurrean eta legor onetsi aren azpian zure zintzotasun osoa segurutu egidazu, nire biotz tukuti ta ez-baiez betea bakez bizi dadin. Ixilik eukiko dau onek, egina argitaratzeko ordu ta tertzioa eldu dala zuk uste izan arteño: eta orduan egingo doguz eztegu-yaiak andikiro, nire yaiotzari dagokionez... Zer diñozu?

S£B.—Zure yarrai yoango naz gizon on onekin; eta bein emondako itza betiko itz izango *áa.*

OLIBE.—Orrazkero, aurretik zoaz, aba on... eta ortzeko argiak eurak be euren argitasunez iragarriko al dabe nik burutzen dodan egite au'. (Alde dagie).

V EKITALDI

I AGERLEKU.-OLIBE'n etxe-aurreko Etxarte-bidea.

AKETOA ta PABEN aurrera.

PABEN.—Maite ba'nok, iixi egidak idazki ori ikusten,

AKET.—Paben yaun on, orrez beste eskakizunien bat egidazu.

PABEN.—Euk gura dokana.

AKET.—Ez egizu gura izan idazki au ikusterik.

PABEN.—Txakurra emotea lez dok ori; eta saritzat, txakurra atzera emotea gura izatea.

DUKEA, BIOLE, eta Laguntzakoak aurrera.

DUK.—Olibe Anderearenekо zarie, ala, adiskideok?

AKET.—Bai, yaun; apainkizunetariko gara.

DUK.—I ondo azagut. Nolan ago. ene lagun on?

AKET.—Nire arerioakaitik, yaun, ondo be ondo, eta txarto be txarto nire adiskideakaitik.

DUK.—Egin-eginean dana bestera: ondo be ondo ire adiskideakaitik.

AKET.—Ez, yaun, txarto be txarto.

DUK.—Zelan izan ledikek ori?

AKET.—Ba, yaun, aik gogoratu egiten nabe, eta labankeriz astotu: nire arerioak, ostera, argi ta garbi, agoa betean deitzen nabe asto: eta olan, nire arerioai eskerrak, aurrerago egiten dot nire burua ezagutzean, eta nire adiskideak dirala-ta, kalte eginda gelditzen naz ni: olan ba, ondorenak mosu egiteak lez izatekotan, eta zure lau ezetzek baietz bi egitekotan, txarrago nago nire adiskideakaitik eta obeto nire arerioakaitik.

DUK.—Izan be, zer bikain dok ori.

AKET.—Egia esateko, yaun, eztogu olangorik: nire adiskideetariko izan gura ba'dozu be.

DUK.—Nigaitik ez az izango azan baño txarragorik: autso urre au.

AKET.—Bitara yokatzea ezpa'litz, ori bikoiztu dagizula eskatuko neuskizu.

DUK.—Ufa! onu txar emoten daustak.

AKET.—Oingoagaitik zure sakelean sartu egizu emaitz ori, eta zure aragia ta odola begoz orren esanera.

DUK.—Tiruk ba, ni be bitara yokatzen dauena lez obenti izango nok: autso beste bat.

AKET.—"Primo, secundo, tertio" yoko on da; eta esakune zarrak diñonez, irugarrenak ordaintzen dau oro: "triplex", yaun, yantzan egiteko neurri on da; Bedita Deunaren yoaleak buruan sartu leisketzue ori: Bat, bi, iru, eskubete diru.

DUK.—Orain eztok eroango diru geiago nire sakeletik; ire etzandereari iragarri ba'dagiok ni emen nagola akin itz egiteko, eta a ikin batera ekarri ba'dagik, orrako orrek iratzarri legikek nire eskuzabaltasuna iri geiago emoteko.

AKET.—Kontxo, kontxo! eragiozu seaska-abesti ta guzti zure eskuzabaltasunari ni atzera etorri nadin arteraño- Ba-noa, yaun; baña ez *a*\ dozu uste izango geíagoren yabe izateko nire guraria geiagokeri-oben danik: orraitiño, zeuk esan dozunez, lo-iskitxo dagiala zure eskuzabaltasunak, gesu baten neuk iratzarriko dot-eta. (Aketoak alde).

ANDONI ta Ertzainak aurrera.

BIOLE.—Emen dator, yaun, ni yarei nindun gizona.

DUK.—Ondo ezagun yat orren crpegia: eta orraitiño be, azkenengoz ikusi nebanean orren arpegia gudu-ketan Bulkan'ena bestean loi-zikin egoan: ontzi zirtzileko ontziburu zan ori; ontzi azal eta txiki-txikiko; eta ontzi zakar-zirtzil eta mengel agaz burruka ain kaltegarri-itzala egin eban gure ontzidiko ontzirik sakonen eta gallenenagaz-eta, ango ondamendi ta arrituaren miñak berak be gizon orren izena gora-goraka erabili eban. Zer yazoten da?

I ERTZAINA.—Orsin, au da arako Andoni, Kandi'ko itxas-kaitik etorrela Poinitz ontziaz eta ontziko zameaz yabetu zana: eta au da Tiger izeneko zure ontziratu zana ^ure ílloba gazte Tita'k bere angoa galdu ebanean: emengo etxartebideetan goratu dogu iskanbilla ta burrukan nasturik ebilela, lotsaz eta dirurik-ezaz etsita.

BIOLE.—On egin izan daust orrek; nire alde yarri da, ezpatea aterata; baña, atzenean iñondiko itzak esan daustaz, eztakit zer dala-ta; oker aituta izan dala uste dot.

DUK.—Ots andiko itxas-lapur! gezaldietako lapur ori! ze burubako adorek ekarri au orrein eskuetara, ik ainbeste odolez eta ain karu ire arerio egin izan dozakanen eskuetara?

AND.—Orsin yaun zindo, eder bekitzu zuk ezarri daustazuzan izenok nik aztindu ta or-

tik zear uxatzea; eguño ezta izan Andoni itxas-Iapurrik, ezta ezetariko Iapurrik be, dautortanez, ni, orretarako bide ta oñarxirik askogaz, Orsin'en arerio izan-arren. Sorginkerik ekarri izan nau ona: or zure aldamenean dagon mutil gazte eskertxarreko ori yarei neban nik itxaso zakarraren ago asarre ta bitsa eriola egoanetik; galdurik zan, etsi-etsita baño etsiago: nik emon neutsan orri dauen bizia, eta orrez ganera, nire maitetasuna be emon neutsan neurri barik, osoosoan, dan-dana berorrentzako: orren alde, orreganako maitetasun utsez galdu-gordean imini izan dot nik nire burua nire arerio dan uri onetan; arerioz inguraturik ikusi izan dodanean nire ezpatea atera dot orren alde: goatu egin izan nabe, eta orduan, nire galdu-gordean lagun izan gura ez-eta, ni enauela ezagunarena egin dau, ogei urteokaz be enauela ezagun, ogei urteok begi-itxi-idigi baten yoan ba'lira lez; ukatu egin daust neure ziskua, ordu bete be lenago berorren bear-izanetarako orri emona etzana.

BIOLE.—Zelan izan dateke au?

DUK.—Noz etorri zoan *a* uri onetara?

AND.—Gaur, ene yaun; eta iru ilebete lenago..., bitarte barik, minuto baten be uts egiteka... bai gabaz eta bai egunez, alkarrekin bizi izan gara.

OLIBE ta Laguntzakoak auirera.

DUK.—Emen dator kondenoa; zerua dabil orain Iur-ganean... Baña igazko, lagun, ire itzak burutik eginarenak dozak: iru ilebete onetan gazte au nire otseintzan egon izan dok; baña geroago eragoko yoagu ostera be orrez. Alde eragiozue orri emendik.

OLIBE.—Aren ezin izan ledikenean barik, zer bestetan gurako ete leuke nire yaunak Olibe au aren otsein izatea!... Kaisari, zuk eztozu bete niri eginiko agindua.

BIOLE.—Andera?

DUK.—Olibe maitagarri!...

OLIBE.—Zer diñozu, Kaisari?... Ene yaun on...

BIOLE.—Nire yaunak itz egin gura dau-ta, ixilazo egiten nau nire egin-bearrak.

OLIBE.—Doñu zarrekorik ezer ba'da, ene yaun, nire belarrietarako eresiarentzako arxantza egitea bestean gogor eta zakar da.

DUK.—Oindiño be orren biotz-gogor?

OLIBE.—Oindiño be onen betiko, yaun.

DUK.—Ostera! gaiztakerian, ala- Txera onik bako andera ori, eguño biotz-intsigitasunek bere agotik egotzi izan dauzan agindurik zintzoenak nire biotzak zure opamai eskertxarreko ta entzungorretara egin izan dauzan ori! zer egiteko nik?

OLIBE.—Nire yaunari eder yakona, egoki ba' yako.

DUK.—Eta zegaitik ez egingo nik, orretarako biotzik ba'neu? Il-aginik egoan Aigito'ar lapurrak egin ebana, maite dodana il: bein edo bein zindotasun-sundea dauen tukukeriarena egin? Baña au entzuidazu: nire maitetasunari yaramonik egiten eztautsazunazkero, eta zure biotzean bear neuken lekutik alderatzen nauena zer dan erdi-ikusten dodanazkero, oraindik be bizi zadiz zu, arrizurizko biotza dozun biotz-gogor ori; baña au, zure gutuntxo au, zuk maite dozula ba-dakidan au, eta Yaungoikoa-arren zin dagit, nik ain maite dodan au aterako dot zure begi gogor orreitatik, beronen ugazabaren kaltez or buruntzaturik dagon au... Ator, mutil gazte. nikin; gaiztakeriz eldu-elduta yagozak nire gogapenak: maite dodan bildotsa ilgo yoat, usoaren bela-biotza mindu ta zapuztuteko. (Yoan doa).

BIOLE.—Eta ni, poz-atsegin atseginez, lera leraz, eta gogo gogoz, zure nasaitana-arren, milla eriotzaz ilteko be gertu nago. (Yarrai darraikio).

OLIBE.—Nora doa Kaisari?

BIOLE.—Maite dodanaren yarrai, nire begiok baño maiteago, nire bizia baño maiteago, geiago guztiak baño geiago, eguño emazterik maite izango dodan baño maiteago dodanaren yarrai; irudituarenik ba'dagit goiko autorleok, zuok zigortau nire bizitzea, nire maitetasuna orbandu dodalako!

OLIBE.—Nirearena! ezetsi, zapuztu egiten nau! zelan sartu daust orrek onango ziririk?

BIOLE.—Nok sartu dautzu ziririk, nok izuzur egin dautzu? Nok egin dautzu bidegaberik, irainik?

OLIBE.—Zeure buruaz aztu zara, ala? Orren antxiñako zera da, ala? Datorrela abade gurena. (Laguntzako batek alde).

DUK.—(BIOLE'ri) Zatoz, alde egik ortik.

OLIBE.—Nora, ene yaun? Kaisari, ene senar, etxon.

DUK.—Senar?

OLIBE.—Bai, senar, nok ukatzeko ori?

DUK.—Orren senar i, yauntxo?

BIOLE.—Ez, yaun, ez ni.

OLIBE.—Ai ene! ire bildur zakarra dok ire zindotasuna itoten dauena: ez izan bildurrik, Kaisari, arraikio ire zoriari, datorrena datorrela: azana izan adi, eta olan, ik bildur dautsakana bestean andi izango az... Ene bada, ondo etorria, abade yaun!

ABADEA ta Laguntzakoak aurrera.

Aba, neuk agintzen dautzut, izan bear yatzun lotsea-arren, emen iragarri dagizula. oraintsu guk arako zera ixilik eukiteko erabagia artu izan-arren, orain zera umatu-aurretik alanbearrak agirian imini-bearrean iminten gauz-eta, iragarri egizu oraintsu nire ta gazte orren bitartean yazo izan dana.

ABADEA.—Betirako alkarreganako maitetasun lokarri-egiunea, zuon eskuen alkarganatzeaz sendetsia, zuon ezpanetatiko itz gurenez autortua. zuon elastunak alkarri emonaz sendotua. Eta egite onetako gora-bera, garbitasun eta zertzelada guztiak, nire egikizunarí dagokíonez, nire autorpenez ikurraztua: eta arrazkero. nire erloiuak diraustanez, nire ilobira-bidean ordu biko bidea baño eztot egin.

DUK.—Irudituarena egiten dokan azeri-kume ori! zer izango az i aldiaz ire narrua ulez yantzi dadinean? Aldiz aurretiko ire lukikeriak berak ez ete au kirimildu ta itzuliko eure sareetan? Agur, eta artuik ori: baña gaurdanik ara ik eta nik alkarrekin trikitxik egingo eztogun biderik artuko al dok.

BIOLE.—Ene yaun, orrako orren aurka nago ni, eta autor dautort...

OLIBE.—Ene! ez egin zinik; zintzotasun apur bat izan egizu, bildurtuegi zagozanarren.

ANDER MOSULARU aurrera. burua ausita dakarrela.

ANDER.—Yaungoikoa-arren, datorrela osagillaren bat; bertati bidali egizue norbait Tobi yaunaren billa.

OLIBE.—Zer yazoten da?

ANDER.—Urli ak burua aldetik alde ausi daust, eta Tobi yaunari be kazkarreko ederrik emon dautso: lagun zakidaze. Yaungoikoa-arren: berrogei libera baño gurago neuke etxean ba'nengo.

OLIBE.—Nok egin dautzu ori, Ander yaun?

ANDER.—Kondearen aiton-semeak, Kaisari dalakoak: kikiltzat gendun guk a, baña a txerrena bera aragi egina da.

DUK.—Aitonen seme nire Kaisari. ala?

ANDER.—Yaungoikoak egindako zer guztiakorren, or dago bera: aletz utsagaitik ausi daustak ik burua; eta nik egin izan dodana Tobi yaunak atara bultzauta egin yoat.

BIOLE.—Zegaitik itz egiten daustazu niri? Nik etzaudaz eguño be zauritu: nik orretarako ezetariko biderik emoteka atera dozu zuk ezpatea: baña nik txeratsu itz egin dautzut eta etzaudaz zauritu.

ANDER.—Kozkorreko odoltsua zauririk izatekotan, zauritu nozu zuk; zuk, nire ustez. kozkorreko odoltsu uskeritzat dozu.

TOBI AGOBERO aurrera, bide-laguntzat AKETOA dakarrela, eta mozkortarik,

Emen dator Tobi yauna zibuka: entzutekorik entzungo dozu: mozkortuta ezpa'legoan zirri oberik egingo leuskizun.

DUK.—Nolan zagoz, aitonen seme? Ze barri dogu?

TOBI.—Ezebez, utsa: zauritu egin nau ak, eta aor dana esanik.-Kedar ori. izan az Errikarta osagilleagana, ala, kedar ori?

AKET.—Ene! mozkortuta dago a, Tobi yaun, ordu biotan; goxeko zortziretan itxi díra aren begiak.

TOBI.—Zital uts dok a. orrazkero. Yantza-eresiaren eta "pabana" yantzearen urren iguinik geien emoten daustana zital mozkorra dok.

OLIBE.—Atera egizue ori emendik. Nok egin dau olango triskantzarik orreikin?

ANDER.—Neu lagun izango natxatzu, Tobi yaun, biok batera osatuko gabez-eta.

TOBI.—I lagun izan niri, i astaburu ori, ergel-txaped ori, zital ori? I mosu-me, antzar ori, sai ori?

OLIBE.—Oeratu egizue, eta zauria osatu dagioela. (AKETOA, TOBI ta ANDER'ek alde).

SEBASTEN aurrera.

SEB.—Tamalik ba-dot, andera, zure senide zauritu dot: baña neure anai izan ba'litz be bardin egingo neukean, zurtasuna-arren eta neure buruaren segurutasunarren. Iñondiko begirakunea egiten daustazu eta ortik igarten dot nik eginak mindu zauzala; parka egistazu, ezti orrek, oraintsu alkarri egin dautsaguzan aginduakaitik baño ezpa-da be.

DUK.—Arpegi bat, abots bat, ibilkera bat, eta notin bi, lagun bi: berezko mami-imdi, dana ta eztana.

SEB.—Andoni, ene Andoni moite ori! ni bai sarrantxatu ta elorriotu nabela orduak i galdu audanazkero.

AND.—Sebasten augu, ala?

SEB.—Orren bildur az, ala, Andoni?

AND.—Zelan erdibitu az?... Sagarrik ez, erdibiturik, izaki biok baño alkarren antzekoagorik. Zein da Sebasten?

OLIBE.—Au bai ba-dala arrigarri!

SEB.—Ni naz or agiri dana, ala? Eguño eztot izan nik anairik: eta ni enaz yainkorik be

emen eta edonon aldi berean egoteko. Arreba bat neban nik urutu ta itxaso itsuak iruntsi eustena: (BIOLE'ri) esaidazu, arren, ze senitasun dogu guk alkarrekin? Nondiko zauguz? Zer yatzu izena? Nortzuk dira zure gurasoak?

BIOLE.—Mesaline'ko nozu ni: Sebasten zan nire aita: olangoxe Sebasten zan nire nebea be: olantxe yantzita yoan zan a uretako bere ilobira be: beste mundukoak olan, bai antzez eta bai yantziz, biotara, agertu al ba' dira, gu ikaratzen zatoz zu.

SEB.—Beste munduko naz n: izan be: baña nire gogoaren estalgi zakartzat nire amaren erraietatik dakadan au dot. Beste zer guztietan a langoxe zareanez, emakume ba'zintzaz, zu nire besartean estutu ta zure mosua nire negarrez bustiko neuke ta gedarrez esan: amaika bider ondo etorria, uretan itotako Biole!

BIOLE.—Orañen bat eban nire aitak bepuruan.

SEB.—Bai nireak be.

BIOLE.—Eta Biole'k amairu urte bete ebazan egun berean il zan a.

SEB.—Ene! oroimen orrek bizi-bizirik dirau nire gogoan! izan be, ak bere egitekoa nire arrebeak amairu urte bete ebazan egun berean amaitu eban.

BIOLE.—Gu biok zori ontsu izatea galazoten dauskuna niri eztagokidazan nire giza-yantxiok ba'dira, enagizu estutu besartean toki, aldi ta yazoen zertzeladak alkarrekin batera yo-arte ta ni Biole nazala argitan imini-arteño: eta zeron sendagarritzat uri onetako itxasontziburuagana eroango zaudaz, nire neskato-yantziak arenean dagoz- eta: aren laguntza maitagarriagaitik yarei nintzan ni eta konde zindo onen otseintzan sartu nintzan; arrazkeroko r.ire bizitzako gorabera ta atzera-aurreak andera onen eta yaun onen bitartekotzan izan dira.

SEB.—Olan yazo da, andera, zu oker egotea (OLIBE'ri), baña izatea, berez-berez, bere bideari yarrai yako; gazte garbi-osokin ezkondu gura izan dozu zuk: eta nire bizia-arren, etzara oker ibili orretan: gazte oso ta gizon, biak batera danakin ezkondu zara.

DUK.—Etzadiz arritu, etzadiz gelditu agoa zabalik: zindo-zindo da orren odola... Au olan ba'da, orain-aite dirudianez, neu be kide izango naz uiperatze zori ontsu onetan: -mutiko, (BIOLE'ri) ik milla bider esan daustak ez enduala iñoz be emakumerik maite izango ni lez, ni bestean.

BIOLE.—Eta nire esakune guztiok barriro be sendetsiko dodaz nire zinez: eta orrako nire esakune ta zin guztiok zintzo ta benetako dira nire biotzean, goiko suzko zer borobilak eguna gauagandik banantzen dauen bestean seguru ta benetan.

DUK.—Ekanon ire esku ori; eta ire emakume-yantziz yantzita ikusiko al aunat.

BIOLE.—Legorrera lenen ekarri nindun ontziburuak daukaz nire neskato-yantziak: auziren bat dala-ta, a baitegian dago, Malboli'n eskariz; nire anderearen aiton-seme ta otseinetarikoaren eskariz.

OLIBE.—Yareiko dau ak: datorrela ona Malboli: -eta orraitiño, ai ene! oraintxe gogoratzen yat, aitonen seme gaxo ori ez ei dabil burutik ondo-ondo.

AKETOA aurrera, idazkiren bat eskuetan dakarrela.

Neu burutik eginik egoteak aren kazkarinaldia aztuazo egin daust... I, Yauntxo, nolan yagok a?

AKET.—Argi ta garbi esateko, andera, ak Beelzebu txerrenburua, a langoa gizonek eukiteko, bere besoa eldu-ala urrin dauko euki: amen ak zuri idatzi dautzun idazkia: gaur goxean emon izan bear neutzun nik au; baña burutik eginen idazkiak Barri Onik eztiianazkero, eztau asko ardura noz eskuratzen yakozan bear danari.

OLIBE.—Idigi ta irakurri egik.

AKET.—Orrazkero, eutsiozu barreari, ergelek irakurri bear ba'dau burutik eginaren idazkirik: "Yaungoikoa-arren, andera...".

OLIBE.—Onangorik! zurutik eginda ago, ala?

AKET.—Ez, andera, ergelkeria irakurri baño eztagit: idazki au nik zororen idazkiri dagokionez irakurtea nai ba'dozu andera orrek, andikiro irakurten itxi bear daustazu.

OLIBE.—Arren, sentzun geiagogaz irakurri egik.

AKET.—Olantxe dirakurt irakurri be, andera: orrazkero, epe artu ta entzun nagizu, errege-alaba orrek.

OLIBE.—(PABEN'eri) Ik irakurri egik, yauntxo.

PABEN.—(Irakurri dirakur) "Yaungoikoa-arren, andera, bidebage ta irain egiten daustazu zuk, eta munduak yakingo dau ori: zuk ni ilunbetan imini ta zure osoba mozkortiari nigazko aginpidea zuk emon izan-arren, buru-argitasuna aldean dot nik zuk andera orrek bestean. Zeure idazkia dot nik, artu neban antza arrazo eustana; eta idazki onen bidez nire burua zuritu ta zu lotsatuko zaudazanaren ezbairik arean be eztot. Zeuk

gura dozuna uste izan nitzaz. Bein beinean bendekotasunari dagokona aztuta, niri egindako irainak itz eragiten daust. Zorakeriz darabilden MALBOLI'k".

OLIBE.—Ak idatzi yok ori, ala?

AKET,—Bai. andera.

DUK.—Ergelkeri-antz andirík ezta agiri or.

OLIBE.—Azkatu egik a, Paben: ona ekarri egik. (PABEN'ek alde).-Ene yaun, eder ba' yatzu, yazoak yazo, zure arrebatzat eta ezkondutzat etsi nagizu, eta zuri eder izatekotan, egiune biokazko yai dagigun niraan eta nire lepotik.

DUK.—Andera, geríu be gertu nozu zure eskeintze ori ontzat artzeko. (BlOLE'ri) Yareiten zauz zure ugczabak zure otseintzatík; eta zuk, zure emakumetasunari eztggclíonez, zure azi-ezikera samur eta bigunari dagokonetik askozaz bestera, zure ugazabari egindako otseintzeagaitik, eta zuk ain luzaro zure ugazaba deitu izan nozunazkero, eutsi nire eskua; oraindanik ara zure ugazabaren andera izango zara.

OLIBE.—Nire aizta? Bai, axe izango zatxataz. PABEN aurrera ostera be, MALBOLI'kín.

DUK.—Au dogu arako zoro, burutik egina, ala?

OLIBE.—Bai, ene yaun, orixe; nolan zagoz, Malboli?

MALB.—Andera, írain egin daustazu. bai, irain agiri agiria.

OLIBE,—Bai ete, Malboli? Ez.

MALB.—Bai, andera, egin daustazu. Irakurri egizu, arren, idazki au: eztaustazu ukatuko au zure eskuz idatzia danik; al ba'dozu, olan barik bestera idatzi egizu idazkeraz, naiz idatziz; nai esaizu au eztala zure ikurratza, eztala zuk asmaurik; zuk ezin esan ez bata, ez bestea. Orrazkero ba, autortu egizu, eta esaidazu, omenbide lotsorreri dagokionez, zegaitik iragarri daustazun orren argi niganako zure lerea; zegaitik agindu daustazun zugana irribarreka ta oinzorroak kurutzetara loturik dodazala agertzeko; zegaitik agindu daustazun oinzorro bellegiak erabilteko, ta Tobi yaunari ta beragoko lagunai betozkoz begiratzeko: eta onako au nik zure esanera itxarotsu eginagaitik zegaitik ontzat artu, naiz yasan dozun ni ilunbetan baiturik eukitea, abadeak nigana etortea, ni yostallu ta kirtenik andiena ba' nintz lez iñondikoak asmauta. ni olan erabiltea? Esaidazu zegaitik egin dozun orrako ori.

OLIBE.—Ene! ene! Malboli, au ezta nik idatzirik, dautortanez nire eskuz idatziaren antz andi izan-arren: agiri agirian dagonez, Miren'en eskutiko da au: eta oraintxe datorkit burura etorri be, axe izan zala zu burutik eginda zengozala lenen esan eustana; geroago etorri zintzazan zu irribarreka ta idazki onetan agiii diran beste zer guztiak egiten. Nasai zagoz, arren: ganora ta trebetasun andiz egin izan dautzue lukikeri au: baña orrako ori zegaitik egin dautzuen, eta egin dabenak nortzuk izan diran yakin dagigunean, zure auzi orretan zeu izango zara salatzalla ta ebazla.

PABEN.—Andera on, itxi egidazu itz egiten; eta ez al da etorriko asarrerik, ez burrukarik, ordu onetan ni arrituta naukien yazokuneok orbantzeko. Ba-dot itxarorik eztala yazoko olangorik-eta, zabal zabal dautort, neu ta Tobi yauna izan gintzazala emen dagon Malboli onen aurka orrako ori asmau gendunak, orregan ikusi izan genduzan guganako mukerkeri ta zakarkeri batzukaitik. Miren'ek idatzi eban idazkía, Tobi yaunak atara eragin-eraginaz; eta orrako oiren saritzat, alkarrekin ezkondu dira biak. Yolas-bidez egindako ori apenik artu eragiteko baño, aspertzeko baño egokiago da barre eragiteko, aldea bietatiko irainak zuzenez neurtu ta astatu edo pixatuazkero.

OLIBE.—Onangorik! zoro errukarri ori! andiak egin be egin dautzuez!

AKET.—Ba! "Yaiotzatik dira batzuk andiki, beste batzuk egin egiten dira andiki; eta beste batzui emon egiten yake andíkitasuna". Ni neu be tarteko nintzan antzerki-bitarteko egikizun orretan; Topa yaun dalakoa; baña eztau ardura: "Yaungoikoaarren, yaun, enago ni burutik eginda"; baña gogotan ete dozu? "Andera, zegaitik egiten dautsazu irri olango ergel gauz eztaneri? Irribarrerik ezpa-dagíozu, orrek eztaki zer egin". Eta onan, aldiaren yoan-etorriak aspertu dira orregaz.

MALB.—Zuon talde osoaz artuko dot apena edo ordeazkoa. (Alde dagi).

OLIBE.—Irain egin izan yako agiri agirian.

DUK.—Zoakioez atzetik ara yarrai, eta onezkoak egitera itzuli egizue: -Oraindik eztausku ezer esan arako ontziburuaz; orrako ori nor dan yakin dagigunean eta urrezko aldia eldu dadinean, gure biotzak andikiro batuko doguz alkarrekin. Bitartean, arreba ezti, guk eztogu alde egingo emendik.-Kaisari, erdu: eta izan be, Kaisari izango zara zu gizon zarean bitartean: baña, beste yantzitan ikusi zagiguzanean Orsin'en andera ta aren biotzeko erregeno izango zara. (Alde dagie).

ABESTI

AKET7.—

Ni mutikotxo nintzanean
Axe-euritan eup! eta oioka.
Ergela yostallu baño etzan.
Euri egunoro da-ta.

Baña gizondu nintzanean.
Axe-eurítan eup! eta oioka,
Ergel-lapurrai guztiak ateak itxi.
Euri egunoro da-ta.

Baña oeratu nintzanean,
Axe-euritan eup! eta oioka,
Lagunakin mozkortuta ziboka,
Euri egunoro da-ta.

Aspaldi asi zan mundua,
Axe-euritan eup! eta oioka,
Baña ardura ez, gure antzerkia amaitu da.
Atseginen yatzuena egiten egunoro gu aleginduko. (Alde dagi).

Baña, ai ene! ezkondu nintzanean,
Axe-euritan eup! eta oioka,
Ibilkera arroz nik ezin obaririk izan,
Euri egunoro da-ta.

AMAIA

Salta'n 1962 gko Urteilen 13 gnean.

ITZ BARRI-ZAR GITXI EZAGUN BATZUK

OREIN.—Basauntz antzeko abere basati.

LENGEI.—Gorputzen gei edo atal eta txatalak kimi-bidez bananduaz agertzen diran gei bananduago ezin diranak be lengei dira; baña emen lengei-izenez eguratsean agertzen diran yazokuneak esan gura doguz: euri, axe, ostots, yusturi ta orretariko yazokuneak.

YAREI, YAREGI.—Azkatu. Oñati'n parra-parra darabile itz au.

URUTU,—Ugin. "olatu". URUTU itza Zeanuri'n beintzat edonok dau ezagun.

IZKA.—Itzik egiten eztauena ta ezin dauena; "mutu".

OSKI.—Narruzko oñetakoak. "zapatak".

ARAKIN.—Okelatarako abereak ilten dausana.

ENDORE.—Erriko "alkate".

GEZNA.—Norbaiteri beren-beregi eroaten yakon barria.

ZERGA.—Euska-gaiztoz "petxu".

ORTZE.—Begiz dakusun goi urdina.

EDEN.—Euskal-gaiztoz "pozoi", "bereno", "sikilikitu".

LUTIRUDI.—Papel, naiz beste geitan egiten, marraztuten dan ludi edo munduaren, naiz Iur-arloren baten irudia.

OZAR.—Adore airo.

ZINKIDE.—Zerbaiterako zin egiten dabenetariko.

k. ir/-*T T im TTk T

INCUU - IFUIÍN

(THE VVINTER'S TALE)

NEGU-IPUIN

(THE VVINTER'STALE)

ANTZERKI ONETAKO LAGUNAK

LONTI (Leontes), Sitxili'ko bakaldun.
MAMILI (Mamillius), aurrekoaren seme.
KAMIL (Camillo). I
ANTIGON (Antigonus), > Sitxilí'ko andiki.
KELOMEN,)
DION.
Sitxili'ko beste Ondiki batzuk.
Sitxili'ko leñargi-gizonak.
Epaitegi-Otseinak.
POLIXEN (Polixenes), Boemi'ko bakaldun.
PORLIXEL (Florizel), aurrekoaren seme.
ARKIDAMA (Archidamus), Boemi'tar Andiki.
Itxas-gizon bat.
Baitegiburu.
Artzai agure, GALDUA'ren aita dalakoa.
Aketo, aurrekoaren seme.
Artzai agurearen Otsein.
AUTOLIKA (Autolycus), sarkil.
Aldia, Abeslari-taldearena egiten.

ERMIONE (Hermione), LONTI'n erregeno.
GALDUA (Perdita), LONTI ta ERMIONE'n alabea.
PAULINE, ANTIGON'en emaztea. |
EMILE, emakume andiki. > Erregenoaren laguntzako.
Beste emakume andiki batzuk)

MOPE (Mopsa). Artzainoak.
DORKE (Dorcas).

Andiki, emakume andiki, eta Laguntzakoak; yantzarako Basayaunak; artzaiak, artzoinoak, Yagolak, e. a.

AGERLEKU.-Bein SITXILI, bein BOEMI.

I EKITALDI

I AGBRLEKU.--SITXILI. LONTI'n Yauregiko gela-aurre.

KAMIL eta ARKIDAMA aurrera.

ARK.—Kamil, iñoz alanbearrez Boemi'ra yoan ba'zadiz nik orain emen dodan zereginegaz, esan dautzudanez, gure Boemi'tik zure Sitxili'ra alde andi idoroko dozu.

KAM.—Nire ustez, datorren udan da Sitxili'ko erregea egin-eginean be Boemi'koari zor dautsan ikustaldia egiteko.

ARK.—Gure txereak emongo dauskun lotsaria gure maitasunez kitutuko dogu: eta izan be...

KAM.—Bego, bego...

ARK.—Benetan, yakin dakidanez nik zintzo itz egiten dautzut: guk ezin dogu erakutsi zuon ospa ta arrandirik, zuon bakantasunik, zuon._ ezin dot asmau itz egokirik. Guk

edarí sorgor-loeragilleak emongo dautzueguz, guk ezin dogunaz gu ezin salatu gagizuezan zuon sentzuak gure utsez oar eztadizan.

KAM.—Zuok ondo be ondo ordaintzen dozue guk gure kitetik emoten dautueguna.

ARK.—Sinis egidazu, dakidanak dirakastanez, eta nire zintzotasunak agoan iminten daustanez itz dagitzut nik.

KAM.—Sitxili'ko erregea ezin izan lekikio txeratsuegi Boemi'koari. Euren umearoan batera ikasiak dira; eta aldi atan euren arteko maitasunak sustarrak emon ba'ebazan, orain, ezin bestez, adarrak emon bear dauz. Euren adin elduak eta euren errege-egikizunak alkarregandik banandu izanarren, eurak euretara izan ezarren, bitartekoz eta alkarri bidalitako emariz, idazkiz, edozetariko maitasun-agiriz, alkarrekin batu izan dira, soñez alkarregandik urrin izanarren; esaterako, eskuak estutu dautsez alkarri urrinetik; eta alkar estutu dabe besartean, munduaren alde batetik bestera baílítzan. Alkarren arteko euren maitasuna yarraiko al da, Yaungoikoz!

ARK.—Eztot uste euren arteko maitasuna aldatu daiken gogo txarrik naiz arazorik munduan izan daitekenik. Zuoi poz-bide andi ta ezin-esana yatzue zuon erregegei Mamili gaztea; eguño ezagutu izan dodazan gizazindoetarik itxaropengarrien yatzu a.

KAM.—Gure erregegeiaz dozuzan itxaropenetan zure erizkide nozu; mutiko txairo-lerden yatzu a; osasuna dakatse bendekoai ak, eta gaztetu egiten dauz zarren biotzak; *a* yaioaurretik makuluen ganean ebiltzanak a gizon eginik ikusi arte bizi egin gura dabe.

ARK.—Ostean pozik ilgo litzakez, ala?

KAM.—Bai; bizi gura izateko beste zegaitirik ez izatekotan.

ARK.—Erregek semerik ezpa'Ieu, makulu-ganean bizi gurako leukie ak semerik izan arteño. (Alde dagie).

II AGERLEKU.-' 'auregiko batzarleku.

LONTI, POLIXEN, ERMIONE, MAMILI, KAMIL, eta Laguntzakoak aurrera.

POL.—Ur-izarraren bederatzi aldakuntza ikusi izan dauz artzaiak neke-estukuraga egoan gure bakalderria guk itxi gebanazkero: eta beste orrenbeste aldi igaroko geunke, anai, zuri eskerrak egiten; eta orraitiño be, zuganako zorretan alde egin bearko geunke emendik: orrazkero, ba, lendik andi dan zenbakia, bere aurrean millaka "eskerrik asko" iminita, ainbeste bíder andiago egiten dot.

LONTI'k.—Begoz zure eskerrak bein-beinean, zuk alde egiterakoan ordaintzeko.

POL.—Biar da nik alde egiterako ori, yaun. Ni andik alde eginda nagoala an alanbearrez yazo leitekenak artega ta urduri ta bildurrez nauka; "Gure bildurrak bidezkoegi ziran" erasan leiskeguen axe-boladak sortu leitekez gure errian. Orrez ganera, zuri, errege orri, gogait eragiteraño luzaro egon izan naz emen.

LONTI'k.—Zuk erasoteko baño zalago gara gu, anai.

POL.—Ezin egon naiteke luzaroago.

LONTI'k.—Beste astebete luzaroago.

POL.—Bene-benetan, bier yoan bear dot.

LON.—Orrazkero erdi bana dagigun aldia: eta orrazkero eztautzut ezetzik esango.

POL.—Enagizu estutu olan, arren. Eztago munduan zureak bestean eragin leiskedan miñik, ez bat bera be, niri eragin al izatekotan: eta orixe yazoko litzake oraintxe be, zure eskaria bearreko ba'Iitz, ezetza emonbearreko izanarren be. Nire arazoak ni etxera deitu ezeze, tarraz naroe: eta au galazotea zure maitasunak ni txibitaz zigortzea litzake; zutzako zama ta neke da ni emen luzaroago egotea: agur, anai, bata ta bestea zuri aurreratzeko.

LON.—Miña loturik, gure erregeno ori? Itz egizu.

ERMIONE'k.—Zuk orreri emen ez yarraitzeko zinak noz aterazoko begira ixilik egoteko asmotan nintzan ni, yaun. Zuk, yaun, zuk epelegi erasoten dautsazu. Esaiozu zu seguru zagozala Boemi'n dana dagola ondo: au da guk atzo entzun gebana: au esaiozu ta orren zegailirik onena benderatuta dozu.

LON.—Ondo esanda, Ermione.

ERM.—Bere semea noz ikusikoren min dala esan izan ba'Ieu, ori zegaiti indartsu litzakean: baña olangorik izatekotan, esan dagiala ta doala; baña zin egin dagiala orregaitik dala, eta eztautsagu emen geldiazoko, emendik makillaka atera baño... (POLIXEN'i) Orraitiño be, zu, errege ori, emen beste astebetean egoteko zuri eskatzen azarriko naz. Nire yauna Boemi'ratu dadinean, izentauko epeaz gora an beste ilebetean zure arrotz izateko baimena emongo dautsat ari: orraitiño, Lonti, edozein emakume andikik bere yauna maite dauen baño izperrik

tzuam orrcntifio be nascigcirri yaí yakiiec nik ezeze beste batzuk be euren gogoaz bestera ateak zabalik dabezala; emazte usteldun guztiak etsita geldi ba'lediz, gizonak amarretik batek euren burua eskegiko leukie. Gaitz orrek eztau ezetariko osapiderik; orrako ori izar lizunkorren baten adu da urrean, eta aren bendeko dana orretara beartuta dago; eta bere indarra iparralde, egoaJde, ekalde ta sarkaldetan erakusten dau; bai orixe: orrazkero, alperrik ekingo dautsazu sabelari esiak egiten; yakintzat etsi ori; orrek arerioari zabal zabal egingo dautsaz ateak, sartu-urtena bere zorro ta guzti egiteko: millakak eta millakak dogu gaitz ori gure artean, gu oartzaka... Zelan ago. mutiko?

MAM.—Or diñoenez, zure antzeko naz ni.

LON.—Tira *ba*$_t$ ori nasaigarri apurren bat bada. Ostera! Kamil be emen dogu, ala?

KAM.—Bai, ene yaun on.

LON.—Oa yolasera, Mamili; í gizon zindo az... (MAMILI'k alde). Kamil, yaun andi ori luzaroago egongo dok emen.

KAM.—Eztozu egin izan alegin gitxi be ori emen geldi dadin, baña zure alegin guztiak alperrik izan dira.

LON-—Orretaz be oartu az, *ala'í*

KAM.—Zuk eskatuta eztau gelditu gura izan; bere arazoak beinegotzat etsi izan dauz.

LON.—Benetan oartu az orretaz, ala?... Orrazkero, ba-yagok nik egiten dodanaz oartzen danik; or yabiltzak mar-marka, ítzul-inguruka esaten "Sitxili'ko erregea onango ta onango yatzu"; zurrumurru ori urrin eldu dok, urrean, ni oartu baño len. Zelan yazo dok, Kamil, a emen gelditzea?

KA'M.—Erregeno onaren arrenez.

LON.—Erregenoaren, bedi: onaren, olan al litzok: baña eztok. Iez besterik ez ete dok oartu orretaz? Eta izan be, i nire inguruko amaika ta amaika baño burutsuago az... Buru-argiak bakarrik oartu ete dozak onako onetaz? Buruan argi gitxiago dabenak ez ete yoek ezetariko susmorik be? Esaidak.

KAM.—Zeren susmorik, yaun? Nire ustez, emen guztiak dakiena Boemi'koa emen luzaroago geldituko dala da.

LON.—Zer esan dok?

KAM.—luzaroago egongo dala emen.

LON.—Bai, baña zegaitik?

KAM.—Zu yaun orren gurariari ta gure andera txeratsu txeratsuaren eskariai men egitearren.

LON-—Zure ugazabanderearen arrenai men egitearren!... men egitearren!... Bego. Kamil, nik igan entzin izan yoat, igan uste osocz 'zcm ˙oG* iri ustu izcin ^''U3^''*t nizs biotza, bai nire etxeko zeretan, bai erri-yaurtzako arazoetan, eta nik nire biotza íri ustuta, abaderi ustuta lez, gizon garbaituaren antzera alde egiten izan yoat igandik: baña íre zíntzotasunaz uste okerrean egon ízan nok; zintzotasun eztana zintzotasuntat etsi izan yoat.

KAM.—Ez al yatzu yazo olangorik, ene yaun!

LON.—Bai, orretan naiagok... i ez az zintzorik; ostantxean, i dollor eta ollo augu, eta olango danak zintzotasuna elbarritu egiten yok bere bideari ekin eztagion; edo, ostantxean, i, nik nire arazo andíetarako autu ta artutako otsein izan-eta, orretan ardurabako az; edo ostantxean tentel augu, gure etxean dabilen marrokeria ikusi, gure ondasunik onena eroan daroala ikusi ta orrako ori txantxetan artzen dok-eta.

KAM.—Ene yaun txeratsu ori, ni izan naiteke arduraga, dollor eta tentel; olangoetarik garbi dan gizonik eztozu; guztiak dira bein edo bein arduraga, dollor eta tentel mundu onetan euren atzenbako egikizunetan; ene yaun, zure arazoetan iñoz izan ba'naz gogoz *eía* beren-beregi arduraga, ori nire tentelkeri litzake; zoroarena beren-beregi egin izan ba'dautzut, ori nire arduragatasunari zor litzakio. elbururako ondo datorrenentz oartzeka eginda legokelako; ondo letorkeanentz ezbaian nengokena egiterakoan bildur izatea gizon zurrai be bein baño geiagotan yazoten yaken bildurra da: onango makalkeriak, yaun, zintzotasunari be beti darraikiozanak dira. Baña, arren, txeratsu orrek argiago itz egidazu; nire okerra erakuts egidazu, bere arpegia dakusdan: zuk ori egindakoan, nik ukatu ba'dagit, eztogu olangorik..

LON.—Ikusi dok, bai. Kamil, ikusi dok, edo ostantxean ire betaurrekoak emazte ustelak iruzur egin dautsanarenak baño itsuago dozak... edo-ta, ikusi ezpa'dok, entzun izan dok. begientzat orren agirian dagon zeraren zurrumurrua entzun-ezinik eztok izan-eta..., edo-ta gogoan erabilí izan dok, burурik dauenek buruan erabilten dauenez, Beraz. eztok ikusi, eztok entzun, eztok gogotan erabilí nire emaztea ustel yatala? Orrako ori autor ba'dagik, naiz, ostean, lotsarik arean barik uka ba'dagik, eta eztokala ez begirik, ez belarririk, ez burutapenik esan.., orrazkero, esaik nire emaztea zirrilda dala; edozein emagaldu bestean olango izen zantargarri dala. Esaik ori ta erakus egik.

KAM.—Eneunke entzun gura iñok olango zantarkeriz nire andera gurena baltzituten daue-

la nik bertatik olangori zigorrik ezarteka: izurriak eroango al nau, baña zuk eztozu esan eguño orain esan dozuna bestean egoki etxatzunik; zuk esan dozun ori barriro esatea, bein esatea bestean oben litzake, egia izanarren.

LON.—Alkarri txutxu-patxuka ibiltea utsa dok, ala? Utsa dok mosua mosuri deutsola egotea, ala? Utsa dok ezpanen barru-aldeaz mun egitea, ala? Utsa dok barre nasai egin-bearrez, intziri egitea, ala? Utsa, bazlar-okuluen billa ibillea, ala? Oña oñaren ganean imintea, eztok agiri agirian lotsortasuna galtzea, ala? Utsa erloiuak arin ibili gura izatea, orduak miñutu ta eguerdia gaberdi izan gura izatea, ala? Ela euren gaiztakeria iñok ezlagiala ikusi gura daben euren begiez beste guztiak ilsu izango ete dozak orrako zerok ez ikusteko?... Utsa ete dok dan au? Ba, orrazkero, mundu au ta bertoko oro utsa dok; goian estalgitzal dogun zerua utsa dok; Boemi'koa utsa dok; nire emaztea ulsa dok; ela au utsa ba'dok, utsok benetan dozak uts.

KAM.—Ene yaun on, uxa egizu uste gexooker ori, eta arin uxatu be, kallegarri-kaltegarri yatzu-ta.

LON.—Egia dala esaik, zuzen dala nire eretxia.

KAM.—Ez, ez, ene yaun!

LON.—Bai, ba-dok: ik guzurra diñok, guzurra diñok; guzurra diñok, gero, Kamil, ela iguin eta gorrolo dauskat; autor egik ez azala yopu zirtzil baño, edo ostean begiak euki ta ikusi ez egiten dauena, eguzkia nora zapiak ara eroaten dakiana; ona ta geztoa ikusi, ta bietara itzulten dana... Nire emaztearen gibela bere gogoa bestean kutsaturik ba'llegok, a elitzakek biziko ondar-erloiua bein ustu arte be.

KAM.—Nok kutsatuten dau. ba?

LON.—Nok? Bere dominea bailitzok bere idunetik dingilizka daroanak, Boemi'ko erregeak: nik nire aldamenean euren irabaziari bestean nire omenari yaramongo leuskioen otseinak ba'neunkez euki, eurak galazoko leukie yazoten dana; eta i, ezebezetik nik gorengo malletara eragi ta nire emaztearen edari-otsein egin izan audan ori; zeruak lurra dakusan bestean argi nire emazteak iruzur egin daustala dakusakan orrek, ik gertau einke nire arerioari eriotza lekarkion edaririk, eta ori litzakidak osakairik onena.

KAM.—Yaun, ene yaun, ori ezta nitzako ezinik; eta ez eden zakar-gogorrez, bere lana astiro-astiro egingo leukenez baño. Baña nik eztot uste nire andera bildurgarriak olango okerreririk egin izan dauenik, a zindo ta zintzo da-ta. Nik maite izan zaudaz...

LON.—Ez egik sinis nik diñodana ta oa ortik zear! Lokatzetan orren barrura sartutzat, orren burubakotzat ete naukak. zegaiti eragikor eta ondo umatubakoz ni nire egikizun lotsagarri onetan sartzeko? Izara garbi-ikuzi-zurietan lo gozo egiten dok, baña loi-zikinak akulu, arantza, asun, eta erlabio-ezten dozak-eta, neuk loitu ta zikinduko ete yoazat izarok? Neuk emongo ete yoat marmar-bidea nire seme errege-semearen odolgarbitasunaz, nire semetzat dodan eta aintzakotzat maite dodan erregegeiaz?... Olangorik egin gurako ete neunke orretarako bide aslun barik? Nongo gizonek egiteko olangorik?

KAM.—Sinis bear neunskizu, yaun; sinisten dautzut; eta Boemi'ko erregegazkoa egingo dot, baña nik ori egitekotan zuk, beste ezegaitik ezpa'da, zure semeagaitik erregenoa lenengoz artu zebanean legetxe atzera artzekotan: eta olan errege-yauregi ezagun eta zure kide diranetan min geztoen raaimarrai bideak isteko.

LON.—Neure asmoaz batera yatok ire onua: erregenoaren omenari etxautsal ezarriko ezetariko orbanik, ezetarikorik bez.

KAM.—Yoan zeintekez, yaun, eta Boemi'ko erregeakin eta zure erregenoakin betargi ta txitxari agertu ta egon, yaietan legetxe: neu naz aren edari-emolla. Nik edari osasungarririk emon ba'dagiot, enagizu euki zure otseintzaL

LON.—Orixe dok dana: egik orrako ori ta nire biolzertik erdia ire dok; egin ezpa'dagik, eurea erdibitu dok.

KAM.—Egingo dot orrako ori, ene yaun.

LON.—Nik adiskidearena egingo yoat, ik esan daustakanez. (Alde dagi).

KAM.—Andera orren errukarri!._ Baña, nigazko, zer da nire egikizuna? Polixen onari emon bear nik edena: eta orretarako dodan bide ta zegaiti bakarra nire ugazabaren esana egitea da; nire ugazabct bere buruaz guduan dabil eta bereak be gudu orretan sarturik gura leukez... Nire egikizun au nik egilekotan, nire ugazabak gorago eragiko nau. errege igurtziak zeartau ta olan zori ona lortu izan dauenik izan dala ba'nenki be, eneunke egingo nik olangorik; baña olangoren izenik ez borontzetan, ez arritan. ez narru uldutan idatzirik agiri eztanazkero. zitalkeri utsa litzake olangorik izan dala esatea. Alde egin bear dot errege-yauregitik: nik nire egitekoa egin naiz egin ez, ni-

re idun-azurra austen dot. Nire izar zori ontsu ori, argi egidak! Emen dator Boemi'ko erregea.

POLIXEN aurrera.

POL.—Iñondiko dogu au! nire ustez emen nitzako txerea zimelduaz doa. Itzik bez?... Egun on, Kamil.

KAM.—Gora, yaun yaukal-yaukal ori!

POL.—Ze barri dogu yauregian?

KAM.—Esatekorik alerik bez, ene yaun.

POL.—Erregeren arpegia ikusirik bere burua bestean maite izan dauen erki edo errialderen bat galdu izan dauela esan leike: oraintxe-oraintxe baño eztala, besterik ezinezko txerea baño eztaust egin; begiak beste aldera eragin, eta muker danak lez ezpanai berantza yausten itxita, arin alde egin dau nigandik; eta olan itxi nau, aren era-merak zek aldatu eragin dauzan asma-asmaka.

KAM.—Enaz azartzen ori zegaitik dan yakiten.

POL.—Ostera! azartu ez! andia da ori. Yakin ba-dakizu, ta etzara azartzen niri iragarten, ala? Ba-da or kako-makorik; eta izan be, zugazko. zuk dakizuna esan egin bear zeunke, baña ezin dozu, etzara azartzen, eztozu orretarako adorerik. Kamil on, zure arpegi aldatua nitzako ispillu da ta, or dakustanez, nirea be aldaturik dago; neu be kide ta erkide naz, urrean, aldakuntzotan, neu be aldaturik nagoanazkero.

KAM.—Gatxen batek gexotu dauz gutariko batzuk: baña ezin dot esan zatariko gaitz danik; eta osasuntsu zagozan orrek ekarri dozu gaitz au, kutsu au.

POL.—Ostera! nik ekarri dodala kutsua! ez egidazu ezarri eren-sugearen arpegirik: millakari zuzendu izan dautsedaz nire begiok, eta nire begirakuneak on egin izan dautse; bat bera be eztot il nire begirakunez. Kamil..., zu gizazindo zara nonbait; erri-arazoetan aitua, odolez gizazindo diranak bestean gizazindo ta gure erriarren apaingarri zara-ta, nigazkorik ba'dakizu, iragarri egidazu, arren, eta ez euki or zure bairuan usteltzen, ni ilunetan itxirik.

KAM.—Ezin dot erantzun.

POL.—Nik erantsiriko gatxa, eta orraitiño be ni onik! bai, erantzun bear daustazu... Entzuten daustazu, Kamil? Gizonagan omengarri diran zer guztiakarren (eta omengarriotariko da nik orain egiten dautzudan itauna) zinkidetzen zaudaz, araotzen zaudaz iragarri dagistazula zer kalte susmatzen doun nire inguruan; nigandik urrin ala ur dabilen; elan ziri-egin dagiskeodan, egin al izatekotan; eta alde egiterik ezpa'da, zelan ondoen yasan dagikedan.

KAM.—Yaun, esango dautzut; nire omenarren eta omenduntzat dodanak agintzen daustanazkero: orrazkero, adi-adi entzun nire onua, eta onu au nik esan ala bestean arin bete-bearreko da, edo ostantxean zu ta ni, biok, gara galduak, eta orrazkero gau on!

POL.—Aurrera yo, Kamil on.

KAM.—Zu ilteko ak izentauta nagotzu.

POL.—Nok izentauta, Kamil?

KAM.—Erregek izentauta.

POL,—Zegaitik?

KAM.—Ak uste dau... areago, a seguru-seguru dago, berak ikusi izan ba'leu legetxe, edo-ta berak orretara bultzau izan ba'zinduz legetxe, zuk aren erregenoa bear eztanez, galazoriko eraz ukutu dozula.

POL.—Ene! orrazkero, ori egia izatekotan, nire odolik onena ora kutsatu-zantar egin bear litzateke ta nire izena zindorik Zindoena saldu ebanarenagaz buztartu! eta nire omen eta entzuterik garbiena surrik motelenari sundarik nazkagarriena somatu eragiteraño usteldu ta nigandik mundu guztiari alde eragin; areago, mundu guztiak iguin eta gorroto izan bearko leuskit, eguño entzun naiz irakurri izan dan izurririk andien-kaltegarriena baño iguingarri-gorrotagarriago nintzake-ta!

KAM.—Ortzeko izar guztiakarren eta euren eragikortasun guztiarren zin ba'dagizu be, aren zorakeriak asmau ta eratu ta bere soin egin dauena manatu ta deuseztu baño len eta errezago galazoko zeunskio itxasoari iretargiari yaramonik egitea. A berean yarraiko da.

POL.—Zelan sartu ete yako buruan olangorik?

KAM.—Zer dakit nik! baña nik dakidana da, ari ori buruan zelan sartu yakon itandutea baño galdu-gorde gitxiagoko dala galdugordeari ziri egitea. Orrazkero, nire zintzotasunari ezetariko sinisterik ba'dautsazu..., soin onen barruan dagoan eta zeukin eroango dozun onetan dagoan zintzotasunari... alde dagigun gau onetantxe. Agopean eta ixil-muxilka neuk iragarriko dautset zure yarraileai, gertau dadizan; neuk aterako dodaz uritik binaka ta irunaka, zaldi-burdiz: nigazko, nik nire otseintzea zuri opatzen dautzut, nire salatze onek emengoa galduazo dausteta. Ez izan ezetariko ez-bairik; nire gurasoen omenaarren, nik egia esan dautzuteta: nik esana egia danentz yakin

gura ba'dozu, ni enaz geldituko emen; eta zu be etzara egongo emen seguruago, erregek bere agoz eriotzara epaitu ta ilteko zin eginda dagoana baño.

POL.—Sinisten dautzut: aren arpegian ikusi dot aren biotza. Ekazu zure eskua; zadiz nire yagola, nire lemazai. ta nire lagun izango zara. Nire itxasontziak gertu dagoz, eta nireak arañun alde egingo gebala uste eben.... Tukuok izaki eder-bikainagaitik dira, eta izaki ori bakan danazkero. tukuok andi izan bear ba; eta tukuduna indartsu danazkero, tukuak be gordin-zakar izan bear; eta berak susmau dauen laidoa beti maite izan dauen gizonagandik datorkola uste dauenazkero, orrexegaitik aren apena gordinago izan bear. Bere itzalpean nauka bildurrak: bizkortasun ona bekit lagun, eta nasaitasun-poza ekarriko al dautso errege-no txeratsuari, arazo onetan tarteko bai, baña aren senarraren susmoetakorik egin izan eztauenari! Tira, Kamil; bizirik atera ba'nagizu emendik, aitatzat etsiko zaudaz eta atakotzat lotsa izango dautzut: ziri-dagiogun galdu-gorde oni.

KAM.—Nire agintzapean dagoz etxe onetako ateen giltzak: asti labur au ez al dozu alperrik galduko; alde dagigun, yaun. (Alde dagie).

II EKITALDI

I AGERLEKU.-Errege-yauregiko gela. SITXILI.

EHMIONE, MAMILI ta Andera andikiak aurrera.

ERM.—Zeuokin artu mutikoa, okerraren okerrez gogait eragiten daust-eta.

1 ANDEREAK,—Ator, yaun txeratsu ori; nikin yolas egingo dok, ala?

MAM.—Ez zukin. ez zuotarikokin.

I ANDEREAK.—Zegaitik ez. ene yaun ezti?

MAM.—Zuok munka ta munka erabilten nozue. eta ume bainintzan itz egiten daustazue... Zeuok zauedaz nik maiteago.

II ANDEREAK.—Eta zegaitik gozuz maiteago?

MAM.—Ez bepuru baltzagoak dozuezalako. Orraitiño, or diñoenez, emakume batzui egokiago ta ederrago datorkez bepuru-ule baltzak, uletsuegi ezpa'dira, idazkortzez egindako obo-erdikin, naiz iretargi-erdikinaren antzeko ba'dira.

II ANDEREAK.—Nok irakatsi dausk ori?

MAM.—Emakumeen arpegiak eurak. Esaidazu orain: ze margo, ze kolore dabe zure bepuru-uleak?

I ANDEREAK.—Urdin dozak, yaun.

MAM.—Ez, ori txantxetan diñozu. Ezagun izan dot sur urdindun emakumerik; baña ez bepuru-ule urdindunik.

II ANDEREAK.—Entzun... zure ama erregenoa aziaz aziaz doa eta ganeko egunen baten errege-seme eder-barriri otsein egin bearko dautsagu, eta orduan ibiliko zara zu gure kutunkerien billa.

I ANDEREAK.—Izan be, erregenoa oraintsu ondo borobildu da. Erditze onik izango al dau.

ERM.—Zeri daragoiozue? Ator, seme, emen nok ostera be: yezarri adi, arren, gure aldamenean, eta ipuinen bat eralgi egiskuk.

MAM.—Alaietako, ala goibeletakoren bat?

ERM.—Euk gura dokana eta alaienetaikorena.

MAM.—Ipuin goibel da egokien negurako: iratxo ta maitagarrienetaiko dot.

ERM.—Orrazkero, orixe. Yezarri ta ekiok... Ekiok, ba, eta iñondiko aleginak egizak ni ire iratxoz ikaratzeko: mutil augu i orretan.

MAM.—Ba-zan beñola gizon bat...

ERM.—Tiruk, tiruk, yezarri adi: yo aurrera gero.

MAM.—Yauretxe-ondoko ilobiaren ormen ostean bizi zan...: agopean esango dautzut, orreik orragoko txirritxirriok entzun eztagien.

ERM.—Ekiok, ba, eta belarrira eralgi egidak.

LONTI, ANTIGON, Yaun andikiak eta Yagolak aurrera.

LON.—An aurkitu dozue, ala? Aren yarraigokoak be bai, ala? Akin egoan Kamil, ala?

I YAUNAK.—Ler-mordoren ostean aurkitu dodaz; eguño eztot iñor ikusi izan aik bestean arin biderik egiten: aik ontzietaratu arteño egon natxake begira.

LON.—Nirea bai poza nire gaitzespena zuzen. eta nire susmoa bidezko izan dirala ikusirik...! Gitxiago yakin al neu! eta nire zoriaren txarra. dakidana yakiteagaitik! Yazo leiteke edalontzira armiarmaren bat yau-

si ta guk irunstea, eta orraitiño gu ez edendutea, gure burua eden-ustez kutsatuta eztagolako: baña norbaitek olango edaririk begien aurrean imini ta olangoxea edan dozula esan ba'dagitzu, or zabilz eztarriaz karrazkadaka ta saietsai indarka oka egiteko: nik edan dot eta armiarmea ikusi be egin dot; Kamil izan dau lagun orretan, a izan da aren lizunkeri-bitarteko: nire biziaren, nire buruntzearen aurkako marrokerien bat dogu asmauta: nire susmoak egizko ta oñarridun zirala agertu da: nik otseintzat arturiko *a* zital ustela nik baño len besteak arturik egoan: ak iragarri dautso nire asmoa, eta ni orain iñoren barregarri eginik nago: bai, nire lepotik iñondikoak egin dabez.„ Zelan idigi dabez orren errez etxe-osteko ateak?

I YAUNAK.—Bere aginpide andiz: ak bein baño geiagotan egin izan dau olangorik, zeure aginduz.

LON.—Ori ondoegi yakiat nik... ekazue mutikoa: pozik nago zuk bularrik emon izan eztautsazulako: nire antzik izanarren orrek, zure odol geiegi dau aldean.

ERM.—Zer dogu au? Yolasean, ala?

LON.—Eroan egizue mutikoa emendik; eta eztakiola urreratu amari; bertatik eroan!... eta barruan daroana izan dadilla orren amaren poza; (MAMILI'k alde Yagola batzukin batera)... eta izan be, Palixen da zu astundu zauzana.

ERM.—Baña nik ezetz esango dautzut, eta zin egingo neunke zuk baietz sinistu nire esana, zuk besterik esanarren.

LON.—Begira, zuok yaunok, begira ori ondo ta zeatz; zuotarik iñor ba'lego esan-aginik "Andera on da ori", zuon biotzetako zuzentasunak bertatik erantsiazoko leuskio "Tamal andí da ori zindo ez izatea". Goratu gura ba'dozue. bere soñeko edertasunagaitik bakarrik goratu egizue..., eder da, bai, ba-dautort ori, eta orretan goragarri be goragarri da... eta bereala sorbaldai eraginik, um! eta ja, ja! egin. Oneik dira laidotzalleak erabili daroazan orban-bideak: Ene! burua yoan yat, orrako ori errukiak egiten dau-ta, ez laidoak: eta izan be, laidotzeak on-indarra bera zimeldu, erre ta baltzituten dau... baña zuon sorbaldai eragiteok, zuon um! eta ja, ja! ok, zuok "Ori eder da" esanik, "Ori zindo da" esan-aurretiko dira: baña naibageturik egoteko biderik geien dauenagandík yakin egizue ori ezkontza-kutsatzalla dala!

ERM.—Munduan dan zitalik zitalenak esan ba'iegi ori, orrexegaitik zitalago litzake: zu, ene yaun ori, oker zagoz.

LON.—Zuk, ene andera orrek, zuk artu dozu Polixen Lonti'tzat, zu egon zara oker: eztautzut emon gura zuri dagokitzun izenik, nik olangorik eginazkero, nik egina eredutzat arturik, erriak gero erritarrai ta erregesemeai izen bardina ezarri eztagitsen!... Esan dot, andera ori ezkontza-kutsatzalla da; eta Kamil orren zinkide, orren erkide da; ori norekin ibili izan dan be esan dot: areago, andera ori etoi-saltzalla da; eta Kamil orren zinkide; eta orrek bere erkiderik nagusienakin egin izan dauenak ori lotsatu bear leukela ba-daki ak; ak ba-daki ori okerreko oera yoan izan dala, eta olangoai erriak izenik zakarrenak emoten dautsezanak bestean gezto dala; bai, eta arein igesaren yakitun eta kide dala be.

ERM.—Neure biziarren, ezetz dírautzut, ni enozu orrako ezeren yakitun. Zuk bai izango dozula naibage langO naibagea zerak argiago ikusi dagizuzanean, ni olan zigortu izanagaitik! Ene yaun txeratsu ori, zuk orduan nekez egin al izango daustazu zuzentza osorik, oker egon zintzazala esanda.

LON.—Ez; ni nire ustearen oñarriez oker egotekotan, munduaren erdi-erdia elitzake sendorik asko irakastegi-mutikoren zibeari eusteko be... (Yagolai) Baitegira eroan ori! Orren alde itzik dagiana itz egin-ala bera be errudun da.

ERM.—Izar adu geztokoren bat dogu emen gure etorkizunari eragiten dautsana: epe artu bearko dot zeruak nire alderago yarri arteño... Ene yaun onok, ni enozue negartirik, emakumeok geienez gareanez; eta baleiteke negarrik ezak zuon errukiari ateak istea ta errukia legortzea; baña nik barruan dodan naibage errukarriak begietatik-bera etorri oi dan negar-iturriak baño geiago erreten nau: arren, yaun guztiok, ni neurtzeko zuon maitasunak irakatsi legisketzuen gogapenik gorengoak erabílí egizuez... eta gero egin bedi erregeren gogoa!

LON.—(Yagolai) Eztautsazue yaramonik egingo nire aginduari, ala?

ERM.—Nor da niri lagun egingo daustana? Arren dagitzut nire nagusi orri nire emakumeak nikin datozala, ba-dakizu ba, nik dodan egokereak olangorik eskatzen dauela..„ Ez egin negarrik, tentel onok; eztago orretarako biderik; zuon ugazabanderea baitegigarri izan dala yakin dagizuenerako itxi zuon negarrok: ni baitegitik urten nadinean egizue negar, zuon ugazabanderea baite-

giaz zigortua izan dala gogoratuaz: nik orain yasalen dodan egile au ni ederrago agertzeko da... Açur, ene yaun: eguño eztot gura izan zu naibageturik ikusterik, baña orain ikusiko zaudazala uste dot... Erdu, nire emakumeok: ba-dozue orretarako baimenik.

LON.—Alde, egin gure agindua; alde emendik!

(ERREGENO'ak eta Emakume andikiak alde, yagolakin).

I YAUNAK.—Arren, nagusi ori, dei egiozu erregenoari atzera etorteko.

ANTIGON'ek.—Yaun, seguru zagoz egiten dozunaz, zure zuzentzea indarkeri izan ez dadin: olangorik egitekotan yasango dabenak iru andi litzakez-eta: zeu, erregenoa ta zure semea.

I YAUNAK.—Ene yaun, erregenoaren alde neure burua yokatuko neunke, eta yokatu gura dot, zuri eder izatekotan, erregenoa erruga, orbanga dala zeruaren eta zure aurrean; zuk salatzen dozun arloan esan gura dot.

ANTIGON'ek.—Orrek diñonaz besterik izatekotan, nire emaztearen bizilekua korta, itoi egingo dot; ari estuta ibiliko ncz, a ukutu ta dakustanaz bestetan agan usterik ez izatekotan; eta izan be, erregenoa ustel ba'da, eztago munduan emakumerik, ez emakumeren txatalik ustel eztanik.

LON.—IxiUk zagoze.

I YAUNAK.—Ene yaun on...

ANTIG.—Zure alde mintzo gara gu, ez geure alde: zuri ziria sartu dautzue, zuri iruzur egin dautzue, eta askarri ta su-lexagarri da zuri ori egin dautzun azalutsa: orrako zital ori nor dan al nenki, neuk beste mundura bidaliko neunke-ta. Erregenoa izen ona galdurik ba'da, a iñoren mutxikin ba'da..., iru alaba dodaz nik; zarrena amaika urteko; bigarrena ta irugarrena, bederatziko ta bosten bateko; zuk diñozuna egia ba'da, aik ordainduko dabe erregenoaren zorra; nire omenarren, irurak irenduko dodaz; ez dira elduko amalauna urtera, ustelkeritiko semealabarik ekarteko: irurak dira nire ondasungei; eta gurago neunke neure burua irendu, nire alabak legezko seme-alabak ez izatea baño.

LON.—Bego; asko da. Zuok eztozue somatzen arazo onetan usain txarragorik gorpuren surrak somauko leukiena baño: baña nik bai. nik ikusi ta oartzen dot, nik orain dagidana zuok be somatu ta beragaz min artzen dozuen legetxe; eta oartzen daben sentzun guztiekaz dakust.

ANTIG.—Ori olan izatekotan, eztogu obi-bearrik zindotasuna eortziteko; eztogu bere izperrik be mundu zantar onen arpegia zuribiguntzeko be.

LON.—Onangorikí Eztaustazue sinisten, ala?

I YAUNAK.—Arazo onetan zeuk ez sinistea gurago neunke nik, guk zuri ez sinistea baño, ene yaun; eta pozkarriago litzakit erregenoaren omena egiazko izatea, zure srsmoa baño, naiz ta zu zure susmjcgaitiK lotsaloisaturik gelditu gero.

LON.—Zuort' eretxiaren ze bear dot nik arazo onetan, nire biotzeko bultzada indaitsuari yarrai baño? Gure-gure eskubideak eziabe zuon eretxi-bearrik; olangorik eskatu ba' dautzuet eta niri yazoa iragarri ba'dautzuet, nire neurezko ontasunez iraga/ri ta eskatu dautzuet; eta zuok, tentel zarielako, naiz olangorena egiten dozuelako, ezin ba' dozue, naiz gura ezpa'dozue egia aintzakotzat artu, nik artzen dodanez, zuon onurik eztodala bear oraindanik ara diragartzuet: arazoa bera, orko galdu-irabazia, ta orretan erabagiak artzea neuri dagokidazan zerak dira.

ANTIG.—Ene yaun, geiagoko barik, zeuk zeuretara ta ixilean zeure barruan ebatziko al dozu arazo au.

LON.—Zelan izan ete leiteke au? Edo zu zarren zarrez zara ezyakin uts, edo yaiotzatik zara tentel. Orrein arteko adiskidetasuna susmau leikenik zakarrena baño zakarrago izan da ta ikustearen bearra bakarrik izan dau, ez ontzat emoteko, ikusteko bakarrik baño: beste zer guztiak euren arteko zantarkeriaren aldeko izan dira ta, orrez ganera, Kamil'ek igesi egin dau, ta yazokune onek gure yokabide onetara bultzatzen gauz. Orraitiño be, seguruago egoteko... eta izan be, onango arazo astunean buruz eta zur ez yokatzea tamal andi litzateke-ta... bida-

(2) Delphos edo Delphoi Elade'ko Pamessos mendi entzutetsuaren egoe-egaletako uri ospatsua da. Uri orretan Apolon yainkoaizunaren yauretxe ots andiko egoan. Dakigunez, Apolon yainkoaizun ori etorkizuna aurreztik igarten trebe ta mutilla zan, eta edonondik eltzen ziran ara etorkizuina yakin gura ebenak. Apolon dalako yainkoaizun ori Tzeu ta Leto'n seme zan eta mami-irudigilleak eta margolariak iruditzen dauskuenez, gazte lerden, garraíz, eder, bizarga zan, eta eskuetan orranbel naiz lira dauelarik.

riz bidcrli dodcrz Dc-lttHos crurenera ^2). cincro Apolon'en yauretxera, Kelomen eta Dion, zuok dakizuenez bururik asko dabenak: yainko aren iragarpena ekarriko dauskue aik: eta yainko aren onu zerutarrak geldiazo naiz bultzauko nau ni. Eztot ondo egin, ala?

1 YAUNAK.—Bai, ondo egin dozu, ene yaun.

LON.—Ni neu nasai egonarren, eta dakidanaz besteren bearrik izan ezarren, yainko-iragarpçnak besteen biotzalr naRçriluko dcniz,-euren ezyakinez egia sinistera etorri gura eztabenenak: au dala-ta egoki ta edertzat etsi dogu geure kitetik erregenoa baitegiratzea; igesi daben biak asmautako etoikeria erregenoak burutu eztagian. Erdu, etorri nire yarrai: agirian itz egin bear dogu, arazo onek guztioi yantzazoko dausku-ta.

ANTIG.—(Bere kitean) Bai, barre eragiteko, egia yakin dadinean. (Alde dagie).

II AGERLEKU.-Baitegiko bebarrua.

PAULINE ta Laguntzakoak aurrera.

PAUL.—Baitegiburuari dei egiozue. Nor nazan iragarri egiozue (Laguntzako batek alde). Anderearen on! Europa'ko errege-yauregirik ezta onegi zutzako: orrazkero, zetan zagoz zu baitegian?

Laguntzakoa atzera dator Baitegiburuakin.

Yaun on, zuk ezagun nozu, ezta?

BAIT.—Andera andiki begiragarritzat, eta nik omengarri-omengarritzat dodantzat.

PAUL.—Orrazkero, arren, erregsnoagana eroan nagizu.

BAIT.—Ezin dot egin olangorik, andera: itzulietarako beren-beregiko aginduak dodaz.

PAUL.—Ba-da emen aperturirik zindotasuna ta omena giltzapean sartu ta ikusla begiragarri-txeratsuai barrura sartzen galazotekoí Legezko eíe da, zilegi ete da, arren, erregenoaren emabumek ikustea? Euretariko bat edo bat? Esaterako, Emille?

BAIT.—Zure laguntzakook baztartzea eder ba' yatzu, andera, EmiIIe aurrera ekarriko dautzuU

PAUL.—Arren, dei egiozu.... Baztarrera egin zuok. (Laguntzakoak alde).

3AIT.—Eta, andera, zuon arteko izan bear dot nik zuon izketaldian.

PAUL.—Ondo dago, bedi olan, arren. Ba-da emen zereginik eta aleginik orbanbakoa orbantzeko; ba-da emen margoak erabiii-bearrik (Baitegibuxuak alde).

BAITEGIBURUA atzera aurrera, EMILE'kin.

Andera maite, zelan dago gure andera andiki txeratsua?

EMILE'k.—Orren andia, ta orren bertan-bera itxia batera egon leitekezan bestean ondo: zerbait aldiz aurretik erdi da eguño andera guri-samurrek izan eztauzan bildur eta naibagetan.

PAUL.—Seme izan dau, ala?

EMILE'k.—Alaba; eta ume ederra alan be, guri-guri eta, dirudinez, biziko dana; erregenoari pozbide andi yako; ak diñotso: "Nire atxilo errukarri-maite ori, zu legetxe ni be erruga naz".

PAUL.—Zin egitera ausartzen naz...: erregeren zoroaldi-kasketaldiok galbidétsu-bildurgarri yatzuz, eta izurriak eroango al dauz! Yakitun egin bear dogu a; bai, yakitun egin bear da a, eta egikizun au emakuineri datorko ondoen: nire lepora artuko dot egikizun au: nire miñari eztirik ba'dario, urzorroz bete dakidala; eta eztakiola izan iñoz geiago nire asarre arpegi-gorriari turuta. Arren, Emille, eskeñi nire bendekotasunik osoena erregenoari; orretara ausartu ba'ledi, emon dagistala bere seintxoa, neuk erakutsiko dautsat erregeri, eta neugan artzen dot bere aldezlerik zaratatsuena izateko ardurea. Eztakigu zelan bigunduko dan seintxoa ikusiaz: sarritan erruga garbia ikusiak eragiten dau, itzak ezin dabenean.

EMILE'k.—Andera lain-lain ori, zure omena ta zure ontasuna ain agiriak dira-ta, zuk zeure kitetik artzen dozun egikizun orrek nai ta nai ez izan bear dau ondoren onik: bizi dan emakumerik ez zu baño egokiagorik egikizun onetarako. Zatoz aren urrengo gelara, eta neuk iragarriko dautsat erregenoari zure eskeintza goragarria: ak gaur etentzaka erabili dau buruan asmo au berau, baña ezta ausartu bere laguntzako emakumeri olangorik aitatu ta eskatzen, ezetza emongo eutsoelakoan.

PAUL.—Esaiozu, Emille, eztodala geldi eukiko nire miñ au: miñ oni zurtasunik eta nire biotzari adorerik yariotekotan, ez izan ezbairik onik egingo dodala.

EM.—Yainkoak onetsiko al zauez orregaitik! erregenoagana noa: onatxoago zatoz,. arren.

BAIT.—Andera, erregenoak bere seintxoa bidali ba'legi, eztakit zer yazo lekikedan orretarako agindurik eztodanazkero.

PAUL.—Eztozu orretan zetan izan bildurrik. yaun: seña sabeleko atxilo izan da, eta orain, izatearen legsz eta bide arrigarriz, andik askatu ta yarei egina da: *a* ezta I erregeren asarrearen erkiderik, ezta erregenoaren lege-austearen errudunik be, lege-austerik izatekotan be.

BAIT.—Neu be orretan nago.

PAUL.—Ez izan bildurrik: nire omenarren, neu yarriko naz zure ta galtzoriaren bitartean. (Alde dagie).

III AGERLEKU.-Lengoxea. Erregelyauregiko gela.

LONTI, ANTIGON, Yaun andiki. ta Laguntzako beste batzuk aurrera.

LON.—Ez gabaz, ez egunez, eztot bakerik eta nasaialdirik: arazo au onan artzea makalkeri uts da; bai, makalkeri uts. Arazo au ekarri dauskuna eztogu emen... zati bat baño ez, eta zati ori emakume ezkontza-kutsatzalla dogu; errege lizuna eztago nire beso-barruan; nire asmoen elburu ta bidetik landa dago; nire marroak ezin eldu aragiño: baña erregenoa bai; *a* kakoz niganatuezinik eztot: erregenoa be ondatu dala, sutan erre dala esan ba'leuste, nire atsedenaren erdia etorri lekikedan oraindik atzera... Nor da or?

LAGUNTZAKO LENENGOAK.—Ene yaun?

LON.—Zelan yagok mutikoa?

LAG.— I.—Arrats onetan lo ondo egin dau; uste danez, aren gatxa yoana da.

LON.—Arena bai zindotasuna! bere amaren laidoaz oarturik, bertatik makaldu, yausi, bere amaren laidoa gogo-gogotan artu dau, eta amaren izenari intsigi ta yositako Iotsea bereturik, bere gogoa, bere adorea, yan-galea, loa galdurik, oso-osoan iristu da... Bakarrik itxi nagizue: oa, ikusik a zelan dagon (Laguntzako lenengoak alde). Uf, uf! A eztogu erabili bear gogotan; nire apenaren gogoratzeak berak nau bete-beterik; a (POLIXEN) berez da indartsuegi, eta bere alkarkideak dirala-ta, areago... Dagola a, erea etorri arteño: oraingoz arregenoaren ganera boa nire apena. Kamil'ek eta Polixen'ek nire lepotik barre dagie: nire atsekabea da areien asti emongarri: eleuskide barrerik egingo nire beso-barruan ba'neuz; eta erregenoak be eztau egingo nire bendean dagon artean.

PAULINE aurrera, sein batekin.

I YAUNAK.—Eztozu emer» sartzerik.

PAUL.—Bai, ene yaun onok; zuok *haño* beinego naz ni: ene! zuok orren gogaldi gordinari erregenoaren biziari baño bildur geiago dautsazue, ala? A emakume maitagarri-errugeago da, errege tukuti dan baño.

ANTIGON'ek.—Bego; asko da.

LAGUNTZAKO Il.'ek.—Andera, erregek eztau lorik egin bart; sartzen iñori ez izteko agindu dau.

PAUL.—Ez berotu orrenbestean, yaun, on; ari Ioa ekarten nator ni. Zuok eta zuok langoak dira aren lorik egin-ezina dakarrenak, aren aldamenean itzalak lez ibilita, eta aren bidebako intziri bakotxari asperen eginda; nik itz osagarri ta egiazkoak dakartsodaz. eta osasungarri ta egiazko bestean zindoak, loa galazoten dautson gogaldia garbitzeko.

LON.—Ze zarafa dogu or? Eee!

PAUL.—Emen ezta zaratarik, ene yaun: zuri nagusi orri dagotzuzan barriak baño.

LON.—Ostera!... uxatu egidazue andera ausarta ori!.. Antigon, lendik agindu dauskat orri nigana eltzen ez izteko: ba-ñenkian nik ori etorriko zana.

ANTIG.—Esan dautsat nik, ene yaun, zure ta nire gogoaz bestera zu ikusten ez etorteko,

LON.—Zer ba? Ezin dok eskuratu, ala?

PAUL.—Bear eztanik ez egiteko bai orrek eskuratu nengike: arazo onetan enau eskuratuko. zure bideari yarrairik nire entzute ona zalantzan imíni gura ezpa'dagí.

ANTIG.—Gero! eztozu entzuten. ala? Ugalak berorrek artu gura dauzanean, nik arin egiten izten dautsat orri; baña ori ezta oztopo egin eta yausten.

PAUL.—Ene yaun on, ni etorri nator..., eta entzun egidazu, arren, ni zure bendeko zintzo, zure osalari, zure onulariik zindoena nozu-ta; eta orraitiño be, zure gatxetan zuri nasaitasuna ekarteko, olangorenik zure inguruan *dagozan* amaikak baño gitxia-egiten dauena...: zure erregeno onagandik natotzula dirautzut nik.

LON.—Erregeno onagandik?

PAUL.—Erregeno onagandik, ene yaun, onagandik: erregeno onagandik, gero; eta zu-

re inguruan dagozan gizonetarik txatxarrena ba'nintz be burrukaz erakutsiko neunke a on dala.

LON.—Indarrez atera egizue au emendik!

PAUL.—Bere begiak gitxitzat dauzanak ukutu dagistala lenen: neure kitetik aterako dautsadaz; baña orren aurretik nire geznea eralgiko dot... Erregeno onak. on da izan be-eta, alaba bat ekarri dautzu: amen bera zure onespenaren begira ta eske. (Lurrean izten dau seintxoa}.

LON.—Alde emendik! sorgin ori! -Atera au emendik! Landara, lizunkeri-bitarteko ori!

PAUL.—Ez olangorik: ni enaz olangorik zuk olango izenik ezarteko eskubiderik dozun baño geiago: eta enaz gitxiago zindo zu zoro zarean baño; eta au ezta gitxi mundu onetan iñor zindotzat eukiteko.

LON.—Etoiok. saltzalleok! ez ete dozue bultzaka aterako? Emoiozue sasikume ori... (ANTIGON'i) I, agure mernelo ori, i emakumek unaturik, ollo onek iri ire oliartasuna galduazota ago i: ar egik sasikumea; eragik ori. Emoiok ire atsoari, gero.

PAUL.—Orrek olango zakarkeriz agindurik zuk errege-alabeari ukutu ba'dagiozu ukutu, betiko biraogarri bediz zure eskuak!

LON.—Bildur dautso orrek bere emazteari.

PAUL.—Zeuk be al zeuntso zureari; olan ba' litz zure seme-alabak ez-bai barik zeuretzat zeunkakez-eta.

LON.—Abi bete saltzalla dogu emen!

ANTIG.—Ni enozu olangorik; argi egiten dauskun argi auarren diñotzut.

PAUL.—Ez ni be; eta ez beste iñor be emen gagozanetarik, bataz besterik; eta orrako bat ori, ori berori da: izan be, orrek bere omena, bere erregenoarena, bere itxaropen dan semearena, bere seintxoarena saltzen dautso aren izpi edo eztena ezpatearen agobizarra baño zorrotzago dan laido-esamesari: eta orrek eztau atera gura sustar-sustarretik, erro-errotik, aretxik eta burdinik zindoena zindo dan bestean ustel dan bere uste okerra. Ez, zerak dagozanetan dagozala, eztago orri ori burutik ateraterik; biraoen bat dau orrek ganean.

LON.—Emakume zantar itzontzi ori, oraindik oraintxe zure senarra benderatu ta orain neu asarrazoten nozun ori!... Ume au ezta nirerik: Polixen'ena da au: ken au emendik! Onen amakin batera sutara egotzi egizue.

PAUL.—Bai, zure da! eta arira letorkizu orain atsotitz zarrak diñona; ain da zure antzeko, ainbat okerrago... Begira, ene yaunok, begira; txikian ba'da be, au beronen aitaren irudi ta antz berbera da— begiz- smrez, e^-panez, betartez, bekokiz; bai beronen okotz eta mosuetako sakostatxoz; beronen irribarrez; beronen esku, atzazal, eta atzez aita berberaren eredu-ereduz egina: *eta* zuk, yainkono on zarean Izate orrek, seintxo au beronen aitaren onen antzeko egin dozunazkero, onen gogoa antolatzea be zure eskuko ta ardurapeko ba'da, margo guztietarik bellegirik ez egiozu imini, onen aitak dauenez, onek beronen seme-alabak beronen senarrarenak eztiralakoaren susmorik izan eztagian!

LON.—Sorgin zantar ori! eta i. pepelo ori, ire cnderea ixílazoteko be gauz ezpa'az, i ez az eskegiteko lain be.

ANTIG.—Eskegi egizuz euren emazteak ezin exilazo dabezan senarrak, bai, eta nekez geldituko yatzu bendekorik bat bera be.

I.ON.—Beste bein esaten dauskat, atera egik ori emendik.

PAUL. —Gizonik zakarren eta endekatuenek be ezin legike ori baño zer zakarragorik.

LON.—Erreazo egingo zaudaz.

PAUL.—Eztaust ardura. Sutan erreten dana ezta emen siniste- ausla, sua ixituten dauena baño. Etzaudaz deituko gizon gordin- anker; baña zure irudimen loka-lokeak emoten dautzun salahideaz besterik barik zure erregenoa orren gordin erabilteak ba-dau gordinkeri-sundarik, eta ludi guztiaren aurrean orbandurik, Ioi-Ioi eginik itxiko zauz.

LON.—Zuon bendekotza-zinarren, atera egizue emakume au emendik! Ni gizon gordinik ba' nintz, non legoke onen bizia? Ni olangotzat euki ba'nau be ezta ausartu olango izenik ezarten. Ken au emendik!

PAUL.—Arren, enagizu bultzau: yoango naz... Begira zuie clabatxoa, ene yaun: ori zure da: Yupiter'ek zerutiko gogozko yagola oberik bidaliko al'riautso seintxo orri! Zetarako dira gizonok? Orrsn zorakerientzako orren samur eta zuritzalla zarienok, zuok eztautsazue iñoz onik egingo, zuotatik batek bez. Bai, bai... agur; ni ba-noa. (Alde dagi).

LON.—Ik, etoi orrek, ik imini dok ire emaztea orretara... Nire ume? Ken ori ortik!... Ume orrentzako orren biotz samurra dokanazkero, eroan egik ori emendik, eta beingoan sutan erre egik: bai, euk eta ez beste iñok. Eroaik bertatik: ordubete barruan iragarri egidak egikizun ori egin eta burutu dokala..„ eta autorpen onez, gero... ostantxean ireak egin yok, ireak eta ik dokan guztiak. Egin gura ezpa'dok eta nire asarrea ire ganeratu gura ba'dok, esaik; neuk aterako yautsazat garaunak sasikume orri neure es-

kuz. Oa, eroan egik ori sutara, ire emazteari ik eragin dautsak-eta.

ANTIG.—Nik eztautsat eragin, yaun; nire lagun zindo diran yaunok zuritu nagikie orretaz, eurei eder ba'yake.

I YAUNAK.—Bai, yaun, zuritu daikegu; ene errege yaukal, ezta ori orren emaztea ona etorri izanaren errudun.

LON.—Zuok guztiok zarie guzurti.

I YAUNAK.—Arren, yaun, sinisgarriago etsi gagizuz; beti izan gatxatzuz otsein zintzo; eta, arren, olangotzat etsi gagizuz: eta gure belaunen ganean eskatzen dautzugu sure asmo ori aldatu dagizula, gure lengo ta geroko otseintzen saritzat; eta izan be, zure erabagi orren itzal, orren odoltsu-gordin orrek ezin ekarri lei ondoren onik: belaunbiko gagotzuz gu guztiok.

LON.—Guztitariko axeak aurrean darabilen egaki naiz orbel izan bear dot nik, ala? Sasikume onek belaunbiko yarrita niri aita deitzeko bizi bear ete dot? Oba da ori orain erre, gero orri birao egin baño. Baña, bedi; dadilla... Nik neuk eztot bata be egingo... (ANTIGON'i) I, yaun, ator i ona; i ta Mctrgarite andera ire mimitxa, sasikume onen bizia yagoteko orren arduratsu ta samur izan zarienazkero, eta izan be au sasikume dok ire bizarra urdin dan bestean seguru... zer yokatu gura dok sagutxo onen bizia yagotearren?

ANTIG.—Ene yaun, nire adínak yasan daiken oro, ta zindotasunak emonazo daiken guztia: gitxienez onenbeste: dodan odol-apurra baitzen dot errugea yagoteko„. al dodan oro.

LON.—Al izango dok. Ezpata onen ganean zin egidak nire agindua beteko dokala.

ANTIG.—Egingo dot, ene yaun.

LON.—Bete, gero... entzuten dok? Izan be ba, zerik txikienean uts egin ba'dagik, itzako ta oraingoarren parkatzen dautsagun ire emazte miñ-lotsabakoarentzako eriotzea dakak. Nire bendeko azanazkero zor daustakan bendekotasunaren aldetik agintzen dauskat sasikumetxo au emendik eroan dagikala: eta urrineko ta iñor bizi eztan lekurra, gure lunaldetik landara eroan dagikala: eta erruki geiago barik, an berau berera itxi dagikala. Gugana iñondiko bidez etorri izan danazkero, zuzenez agintzen dauskat, iñondiko bidez ainbaten izteko, an alanbearrak au bazkatu naiz il dagian. Eragi egik.

ANTIG.—Zin dagit orrako ori egingo dodala, bertatiko eriotzea ori baño errukiorrago izanarren. Goazen, seintxo errukarri ori: gogo indartsuen batek irakatsiko al dautse sapelai ta belai zure iñude izaten! Or esan daroenez, otsoak eta artzak be egin izan dabe olango otseintzarik, euren gordinkeriari baztarrera eraginik... Yaun, zure egite onek eskatzen dauen baño zori ontsuago izango al zara!... eta onespenak gordinkeri onen aurka zure aldamenean zure alde gogor egingo al dau, txikitxo ori, eriotzara epaitu ori! (Seintxoakin batera alde dagi).

LON.—Ez, nik eztot aziko iñoren umerik.

ÍAGUNTZAKO H'rtk.— Eder izango al yaizu nagusien orri, zuk yainko-iragarpen-eske bidalien aldetiko bidariak elduak dira ordubete dala: Kelomen eta Dion, Delphos'etik onik etorriak, biak legorreratu dira ontzitik, eta bizkor-zoli datoz errege-urira.

I YAUNAK.—Eder ba'yatzu, yaun, guk uste baño arinago egin dabe yoan-etorria.

LON.—Ogei ta iru egun dira emendik alde eginak dirala: bizkor ibiltea da ori; Apolon andiak egia len baño len iragarri gura dauskula esan gura dau onek. Gertau zadize, yaunok; dei egin batzarrera, gure andera ez-zintzo ez-zintzoa ara deitu ta salatu dagigun: eta izan be, agirian salatua izan danez, zuzenez eta agirian aztertuko da. A bizi daño, nire biotzean zama itzala izango dot. Bakarrik itxi nagizue: eta nire agindua gogotan artu. (Alde dagis).

III EKITALDI

I AGERLEKU.-SITXILI. Urien bateko etxartebide.

KELOMEN eta DION aurrera.

KEL.—Eguraldi bigun da emen; eguratsa, gozo-gozo; emokor da izaroko lur au; yauretxea, entzuteak diñon baño askozaz ederrago,

DION'ek.—Nigazko, nire biotzari zirririk geien egin dautsoenak zerutiko yantziak (olangotzat etsi bear dodazala uste dot) eta eurak darabilezanen lotsa bena izan dirala esango dot. Eta opari gurenarena! Ainbeste egiteko, ain yaukal, eta zeru-usaindun izan dan opaketea!

KEL.—Baña, beste zer guztien ganetik, iragar-

learen agotiko zarata itzal gortubearrekoak, Yupiter'en ostotsaren antzekoak, zurtu-zurturik itxi nau-eta, enaz ezer izan ni orduan.

DION'ek.—Ibiltaldi onen ondorena erregenoaren aldeko ba'dadi.,., olan izango al da!... gutzako bakan eta arrigarri, gogoko, ta beingoango izan danez, egin dogun bidea egingarri izan da.

KEL.—Apolon andiak dana oneratuko al dau! Aldarrikatzeok, eta Ermione'ri orren oñarri gitxi-mengelez ezarten yakozan utsak etxataz bape begiko.

DION'ek.—Arazoa orren gordin eta iraduz erabiliak argitu edo amaituko dau bein betiko: Apolon'en yaupariak ikurraztu dauen iragarpenak zer dakarren agertu dadinean, zer bakanen bat etorriko da argitara... Goazen... zaldi barri bana artu dagigun; eta zori ontsu izango al da ondorena!

II AGERIiKU.-Epaitegi.

LONTI, Yaun andikiak. eta Epaitegi-otseinak aurrera, egokiz yezarrita.

LON.—Batzar onek, eta naibage naibagez diñot au, batzar onek biotza estu-estu iminten daust; eta izan be, aztertu bear dana errege-alaba ta gure emazte da; eta guk maite-maite izan doguna. Ez al dau iñok esango gordin gareanik, zuzena onan agirian egiten dogu-ta: eta epaipideari zeatz yarraiko gatxakoz, salatua errudun naiz erruga agertuko. Ekarri aurrera atxiloa.

EPAITEGI-OTSEINAK.—Nagusienaren ederra da erregenoa bera emen epaitegian agertzea„.

ALDARRIKATZALLEAK.—Ixilik!

ERMIONE aurrera, yagolak dakarrela; PAULINE ta laguntzako Emakume andikiak be bai.

LON.—Irakurri salakuntzea.

Epaitegi-ots.—(Irakurri dirakur) "Ermione, Sitxili'ko errege Lonti lainaren erregeno ori, zu emen etoikeririk andienaz, Boemi'ko bakaldun Polixen'ekin ezkontza-kutsaketa egin izanaz salatua ta epaitzera ekarria zara; eta Kamil'ekin batera zure senar erregeri bizia kentzeko asmo ta gertakuntzetan ibili izanaz; asmo orri deutsen zerak orrako ori erdi-agirian imini izan dabe-ta, zuk, Ermione, bendeko zindori dagokion zintzotasun eta bendekotasunaz bestera, zuk onu emon eta lagun egin zeuntsen ai, seguruago ibili eitezan, gabaz iges egiteko".

ERM.—Ni esateko nazana nigazko salakuntzearen aurkako izango danazkero, eta nire aldeko autorra neugandiko izango danazkero, ez bestegandiko, nekez gauz izango da niri onik egiteko, "Erruga naz" esatea; nire osotasun-errugatasuna guzurrazaluskeritzat artzen dabenazkero, nire itzak eztabez artuko egitzat. Baña orraitiño, yainko altsuak gure egiteak ba'dakusez, ikusi dakusezanez, eztot ez-bairik, errugatasunak arpegia gorrituazoko dautsala guzurrezko salakuntzeari, eta gordinkeriari epez ikara eragingo dautsala. Zuk, ene yaun orrek, gitxien dakianarena egingo dozunarren, zeuk dakizu beste iñok baño obeto igaroko nire bizitzea orain zori geztoko nazan bestean aratz eta garbi izan dala: eta edestiak eredutzat ekarri ta antzeslariak asmau ta ikusleak eratorteko antzokian antzeztu izan dabenik baño aratzago ta garbiago; eta izan be, begira nagizu... erregeren oekide ta errege-yarlekuíik erdiaren yabe nozu, errege andiren alaba, errege-seme itxarotsuren ama... emen zutunik, nire biziaren eta nire entzute onaren alde itz eta mitz egin-bear gorrian, etorri ta entzun gura dauen edonoren aurrean, biziaarren, eta yakizu nire bizia eztodala maiteago ta aintzakoago dodan naibagea baño: nire entzute onaarren... au bai, au nigandik nire ondorengoai doakiena da, ta, orregaitik bakarrik nago emen. Yaun, zure yakinkidetzeari nagoko deiez, zelan Polixen gure yauregira etorri baño !en maite ninduzun, zelan ederatsegin nintxatzun, zelan ori ondo irabazirik neukan; a etorriazkerokoan bear eztanik egin izan ba'dot, bear eztan biderik artu izan ba'dot, ni emen onan agertzeko; egitez naiz gogoz olangotara izperrik txikienez itzuli izan ba'naz, gogortu dadizala entzuten dausten guztien biotzak, eta nire seniderik senideenak gedar egín dagiala: "Ez adi urreratu nire ilobi-ganera".

LON.—Eguño eztot entzun izan geztok berak egina ukatzeko egiteko baño lotsa gitxiago izan dauenik.

ERM.—Egirik asko da ori: esakune izanarren, yaun, orrsk eztau zer-ikusirik nigaz.

LON.—Ez, zuk eztozu autortuko.

ERM.—Neuk egindako utsaz besterik eztot autortu be egin bear. Polixen'gazko... akin batera nago salaturik-eta... autor bear dot a maite izan dodala, bere zindotasunagaitik

maitagarri da-ta: baña ni langO anderari dagokon maitasunez maite izan dot; zuk zeuk agindutako maitasunez, ez bestez; eta nik ori egin izan ezpa'neu, ori nigan bendekotasunik eza ta esker txarreko izatea, biak batera litzatekezan nire ustez: zutzako bendekotasunik eza, ta zure adiskidearentzako esker txarra; eta izan be, ak bere seintzarotik ara, itz egiten ikasi ebanetik ara maite izan zauz. Orain, zu zure agintzatik itzuli eragiteko asmoagazko.-. orretaz nik eztakit orrek ze usain dauen be, zelango danik be: ezta nik zelango dan ikusteko, adabaturik aurrera ekarri ba'dagistazu be, naiz yatekotzat ekarri ba'dagistazu be, extot somatuko nire ago-sapaira zetariko emoten dauenik be: nik dakídan guztia Kamil gizon zindo zala da: eta ak zegaitik alde egin izan dauen errege-uritik, nik baño geiago ezpa'dakie, yainkoak eurak be eztakie.

LON.—Ba-zenkian a urten zana, *a* landa dala zuk emen zer egiteko akin itundu zintza-**zan** dakizunez.

ERM.—Yaun, zuk egiten daustazun izkuntzea eztot aituten: zure amesen yostallu da nire bizia, eurak aña da, ta emen nozu bera emoteko gertu.

LON.—Zure eginak dira nire ames: zuk sasikume izan dozu Polixen'gandik, eta ori nire ames izan be; zu lotsabakorik lotsabakoena baño lotsabakoago izan zareanez, zu langoak olangoxe dira... guzurtirik **guzur**tien: eta orregaitik, zuk ukatzea zuk autortzea baño indartsuago da: eta izan be, bere alabatzat dauen aitarik agertu eztanazkero, zure ume sagutxoa ortik zear egotzia ta. dirudinez, bera beretara ta bertan-bera itxia danez, zeuk be oartu ta somatuko dozu gure zuzentza, onenez be eriotzea ekarriko dautzuna.

ERM.—Yaun, eztozu zetan erabili zemairik: egin-eginean be, ni ikaratzeko aitatu dozun koko orren billa nabiltzu ni: bizia ezin izan leiskit atseginik, naierark: nire biziaren buruntzea ta poza, zure ederra, galdutzat dot nik; eta ízan be, nik ba-dakust ori yoan yatana, zegaitik yoan yatan yakin ezarren: nire bigarren pozbide ta nire soñarren lenengo ekarriagandik alde eraginda nago ni, izurritsu bainintzan: nire irugarren pozbideari, zori txar-txarreko izardunari, nire bularretik aldenduari... bere ago errugaerrugatik esne errugadun erroa atera yako eriotzara eroateko: ni erriko taket eta abe guztietan emagaldutzat aldarrikaturik; ez lotsarik, ez begirapenik eztauen gorrotoz ukatu izan yat emakumeri ukatzen etxakon ama sein eginbarriaren oea; azkenez, leku onetara iraduz ekarri izan nabe, zeru agiripera, leku itxian indarbarritu ta osatu baño len. Orain, ene yaun, esaidazu ze onespen, ze zori on dodan nik emen bizirik eriotzearen bildurrik izateko? Orrazkero, yo aurrera. Baña orraitiño be, entzun au: enagizu oker artu; eztot nire biziaren ardurarik, biziak eztaust ardurearen aletzik be emoten... baña nire entzute onak bai; nik au garbi euki gura neunke; ba-dalakoz bakarrik gaiztetsi ba'nagizu... zure tukuak dakarrenaz beste gaizteste-bideri yaramonik egiteka... ori gordinkeri izango da, ez legezko gaizteste... Yaun begiragarri guztiok, nik iragarpenera yoten dot. Apolon bedi nire ebazla!

I YAUNAK.—Zure eskakizun ori zuzen-zuzen da: orrazkero, ekarri ona geznariak, eta Apolon'en izenez datorren iragarpena. (Epaitegi-otsein batzuk alde).

ERM.—Errusi'ko bakaldun zan nire aita: bizirik al litz *a.* eta emen, bere alabearen epaibidea ikusten! nire errukarritasun bardinbakoa al lekus ak: baña ez apen-begiz, erruki-begiz baño!

EPAITEGI-OTSEINAK aurrera ostera be, KELOMEN eta DION'ekin.

EPAITEGI-OTSEINAK.—Kelomen eta Dion, zuok biok emen zuzentza-ezpata onen ganean zin egingo dozue Delphos'en izan zariela, ta andik ekarri dozuela Apolon andiaren yaupariak bere eskuz emoniko iragarpen ikurraztu au; eta zuok eztozuela urratu ikurratz gurena, ezta or letorken ixilkizunik irakurri be.

KEL., etct DION'ek.—Zin dagigu orrako dandan orretaz.

LON.—Urratu ikurratzak eta irakurri.

EPAITEGI-OTSEINAK,—(Irakur dirakur) "Aratzgarbi da Ermione; erruga da Polixen; Kamil, bendeko zintzo; Lonti, tukutsu gordinodol-ixurla; bere seintxo errugea, zintzotasunez sortua; eta erregea oñordekotzaka biziko da, galdu dana ez idorotekotan".

YAUNAK.—Ones bedi, gora Apolon andia!

ERM.—Gora bedi!

LON.—Artez irakurri dok, ala?

EPAITEGI-OTS.—Bai, ene yaun: zeatz-zeatz, idatzita dagon legetxe.

LON.—Iragarpen orretan eztago egiaren izperrik be: batzar au aurrera yoango da: guzur uts da au.

OTSEIN bat aurrera, iraduz, arnas-estuka.

OTSEINAK.—Ene yaun errege, erregel

LON.—Zer yazoten dok?

OTSEINAK.—Yaun ori, barri au ekarri izanagaitik gorroto izango daustazu: zure seme erregegeia, erregenoari zer yazokoaren bildur eta estukuraz, yoana da.

LON.—Onangorik! Yoana?

OTSEINAK.—Bai, il da.

LON.—Asarre dogu Apolon; eta yainkoak eurak yo dabe nire zuzenik-eza. (ERMIONE larritu egiten da) Zer yazoten da or?

PAULINE'k.—Barri ori erregenoa il eragitekoa izan da: eratsi begiok eta ikus eriotzeak zetan daragoion.

LON.—Eroan egizue ori emendik: estuegi dago orren biotza; konorteratuko da. Ni nire susmoentzako siniskorregi izan r.az: arren, bai, arren, osakaien batzuk ezarri egiozuez samurkiro, biztu dadin... Apolon. askets, parka egidazu. (PAUHNE'k eía Andera andikiak alde. ERMIONE'kin) zure iragarpenazko nire zakarkeri itzala!... Onezkoak egingo dodaz Polixen'ekin: barri«n barri maite nire erregenoa; gizon zintíj ta errukiortzat aldarrikatzen dodan Kamil onari atzera etorteko dei egingo dautsat; eta izan be, nire tukukeriak ni gogapen gordinodoltzaleetara ta apenera aldaturik, Kamil autu neban nik bitartekotzat nire adískide Polixen edentzeko: eta orrako ori egin izango litzakean Kamil'en biotz onak itsumustuko nire agindua atzeratu izan ezpa'leu, nire agindua ez egitekotan eriotzeaz zemaitu ta, egitekotan adoregarritzat saririk opatu izanarren: biotz onak eta zindotasunak eraginda, ak nire asmoa nire arrotz yaukalari iragarri eutsan: eta ak bere burua zoriaren guztitariko galdu-gordeai gorantzi eutsen bere omenaz beste ondasun barik: ak bai argi ta dizdiz egiten dauela nire ugerraren aldean! eta aren errukiak eta biozperatasunak bai baltzagotzen dauzala nire egiteak!

Ostera be PAULINE aurrera.

PAUL.—Onangorik! onangorik! Ai ene! ebagi egidazue gorantxa-allubetea, oneri eztanda eraginaz, nire biotzak berak be eztan*da* eztagian!

I YAUNAK.—Ze aldien da ori, andera on?

PAUL.—Gizon odolzale ori, ze elorrio billatu dozu nitzako? Ze txirrinka? Ze zildai? Ze su? Ze txibita? Berunetan naíz oriotan írakite? Bere izenak berak zure gordinkeriak dauenik txarrena txastatuazoko daustan ze elorrio zar naiz barriago dozu nítzako? Ene! gogora egizu zer egin izan dauen zure gordinkeriak zure tuku sustarbakoakaz batera; mutikoentzako be makalegi, bederalzi urleko neskatoentzako be ellzakegi ta burubakoegi diran zure irudikeriz; bai, gogora egizu guzti ori ta, orrazkero, zora zadiz zorotasuna bera baño zoroago, zure lengo zorakeriak zure zorotasunaren agiriaz besterik ez dira izan be-eta! Zuk Polixen saldu izana uskeri baño ezta izan; orregaz eztozu egín izan besterik zu zoro, aldakor eta esker txarreko askarri zareala iragarri baño; Kamil onaren izen garbia zuk loitu ta a edendu gura izatea be, ari errege il eraginik, etzan izan zer andirik; uts txikiak ziran aik... itzalago-zantarragoaren aldean: eta izan be, zure alaba seintxoa okela-bela ta saiei yakitzat egoztearen aldean, zure beste gaiztakeri-zorakeriak ustzat edo zer txikitzat esten dodaz: txerrenak berak be sutan negar egingo eukean olangorik egin baño len; zu zara errege-seme gaztearen eriotzearen errudun be; eta izan be, aren biotz adinez gazte ta samurra, baña gogapenez eldu ta andia erdibitu egin zan aita zakar-zoroak bere emazte txeratsu-maitagarria zelan eta zegaitik laidotu eikean buruan sartu-ezinik: zer guztiok erantzungarri txiki dira zutzako; baña azkenengo au, orain datorrena... yaun andikiok! nik esanda ara, gedar egizue: onangorik! onangorik!... erregenoa, erregenoa, izakirik eztiena, maitagarriena, ilik da; eta oraindik ezta yausi apenik ori egin dauenaren ganera.

I YAUNAK.—Yainkoak ez al dabe gura izan olangorik!

PAUL.—A il dala diñot: zin egingo dot *a* il dala. Ez nire itzari, ezta nire zinari be sinistu gura ezpa'dautsazue. zoaze zeuok, eta ikusi: aren ezpan eta begietara margorik naiz argirik, aren soñera epeltasunik naiz arnasarik ekarri la sartu al ba'dozue, yainkoai legetxe nire otseintzea opatuko dautzuet... Baña zu, gizatxar gordin-odolzale ori, etzadiz garbaitu zerotaz, zure kezkak zure biotzetik uxatzeko astunegi dira-ta: orrazkero, etsipenik baltzenaren besoetaratu zadiz. Milla belaun ba'zeuz, amar milla urte egingo ba'zeuz billusik, baraurik, mendi billusean, etenbako negu gorri-ekaíztsuan, etzeunskio eragingo yainkori zu zengokezan lekura begirik itzulteko.

LON.—Ekin, yo aurrera, yo aurrera: eztozu esango geiegirik: miñ guztiak al dabenik

eta zer mingarrien eta mingotsenak esatea ondo irabazita dot nik!

I YAUNAK.—Ez esan geiagorik: yazoa yazo, zure itzaldi ausartuaz okerrik asko egin izan dozu.

PAUL.—Garbai naz orretaz; nire oker eginak ezagutzen dodazanean garbaitu egiten naz ni. Ene! emakumeren itsumustukeri lar erakutsi dot: orren biotza zindotzen asia da... Yoana, ta etsia, elitzatekez izan bear aurrerantzean zinkurinka ta alaka ibilteko: ez al yatzu izango mingarri nire eskabidea; arren, zigortu nagizu, zer aztu bear dozun bururatu dautzudalako. Orain, ene yaun on, ene nagusien, asketsi egizu emakume tentel au: zure erregenoari neuntsan maitasuna... ara! ostera be tentel ni!... eztot erago gura geiago erregenoaz, ezta zure seme-alabez be: eztautzut gogorazoko neure senarra be, a be galdurik izanarren: epe artuko al dozu, eta ni enoa geiagorik esaten.

LON.—Egi andiagoak esanago ta obeto itz egin dozu zuk; eta egiok zuk erakusten daustazun errukia baño begikoago yataz. Arren, erregenoaren eta semearen gorpuen aurrera eroan nagizu: ilobi batek artuko dauz biak; euren ganean agertuko da zegaitik il diran, gure betiko lotsagarritzat. Egunean bein yoango naz eurak datzaen ilobi-etxetxora: eta an ixuriko dodazan negarrak izango dira nire pozbide: nire egikizun au egiteko lain indar dodan bitartean, egunoro egiteko zin dagit. Goazen, erakus egidazu naibagakizun orreitarako bidea. (Alde dagie).

III AGERLEKU.-Itsas-ertzeko iñor bizi eztan lurralde.

ANTIGON seintxoakin, eta ITXASGIZON bat aurrera.

ANT.—Seguru ete zagoz gure ontziak Boemi'ko iñorbagako lurraldea ukutu dauela?

ITXASG.—Bai, ene yaun: eta eguraldi zakarrez egin ete dogun bildur naz: ortzea goibel agiri da, ta beingoango ekinaz zemaitzen gauz. Nire yakinkidetzeak iragarten daustanez, yainkoak asarre dira guk eskuartean dogun arazoaz, eta betozko iluna erakusten dauskue.

ANTIG.—Euren gurari gurena bete bedi!... Zoaz, ontziratu zadiz: begira zure ontzia: luzaro barik etorriko natxatzu atzera.

ITXASG.—Alik eta bizkorren ibili: eta ez sartu aurreregi lurrean barrura: laster izango doguz, urrean, ostots zaratatsuak: ganera, toki au entzutetsu da berton bizi diran pizti okela-zaleakaitik.

ANTIG.—Yarrai zu zure bideari; bertatik yarraiko natxatzu.

ITXASG.—Pozik nago nire arazoa burutu izanaz. (Alde dagi).

ANTIG.—Goazen, seintxo errukarri: entzun izan dot, baña sinistu ez, ilen iratxoak barriro ibili daitekezala aldarrai: olangorik yazotekotan, zure ama agertu yat bart; eta izan be, eguño eztot izan orren egiaren antzeko amesik. Bere buruari bein batera, bein bestera eragiten izan dautsan izaki etorri da niganantza: eguño eztot ikusi izan alango naibage-ontzirik, ain beterik eta ain ederrik: soñeko zuri garbi-ikuziz yantzirik, gurentasuna bera bailitzan, ni etzanda nengoan ontziko lo-gelatxora urreralu yal: iru bider makurtu daust bere burua; eta, itz egiteko danaren arnas-otsa eginda, aren begiak iturri-odi bi egin dira: negar-iturri asarrea agortutakoan, bertatik eralgi izan dau onako au: "Antigon on, alanbearrak, zure biotzaren lera obeaz bestera, zure zinaren arauz, nire alabatxo errukarriaren ortik zear egozla egin zauzanazkero... urrineko lekurik asko dago Boemi'n, an negar egin, eta seintxoa an negarrez izteko; eta seintxoa betiko galdutzat danazkero, GALDUA ezarri egiozu izentzat. Zure ugazaba nire yaunak ezarri izan dautzun egiteko gordin orregaitik, gaurdanik ara eztozu sekula geiago ikusiko zure emazte Pauline... eta olan-negar-uluka, eguratsetan urtu ta ezereztu da ames-ikuskizuna. Bildurrak ilik, laster neureratu izan naz; eta orrako ori egia dala, ez amesik, uste izan dot. Yostallu dira amesak: orraitiño be, siniskeriz ba'da be, orrako orri men eginda, sinistu egingo dot, egitzat arturik. Sinisten dot Ermione il egin dabela; eta Apolon'en guraria izan dala, izakitxo au benetan Polixen'ena izanik, au emen iztea, biziteko edo ilteko, beronen benetako aitaren lurraldean. Loratxo ori, onik eta ondo ibili! (Lurrean eratzaten dau seintxoa).

Or etzan: eta orra or zure ezaugarriak; (Lotuki iminten dau lurrean) eta or oneik; eta zoriari eder izatekotan, eder-lirain ori, zu azteko ta geiagorako izango yatzuz... Asi da ekatxa: zurea bai errukarri, zure amaren erruz galtzeko bidean eta ortik letorkenarenean imini zauez-eta!.,. Negarrik ezin dot

egin, baña nire biotza odola dariola dago: eta zín-bidez onetara beartu izan nabelakoxe, ni biraopetu-biraopeturik nago. Agur! Eguraldiak geroago ta betozko ilunagoa darakus... seaska-lelo latzegirik izango dozu, urrean: Eguño eztodaz ikusi izan egunez goiak orren ilun. Zarata-astrapalon gordinbasati! Oba yat ontzira yoan!... Au piztitzarra! Nireak egin dau! (Alde dagi, artz bat yarrai doakiola).

ARTZAI zar bat aurrera.

ARTZAIAK.—Ez al litz amar urtetik ogei ta iru urtera bitarteko adinik, edo-ta gaztearoa lotan al lego bitarte orretan; izan be, bitarte orretan gazteak eztabe egiten besterik neska txoriburuak seindun egin, zarrai okerreriak egin, lapurretan eta burruka eg'n baño... So orain!... Garaunak irakiten dabezan emeretzi ta ogei ta bi urteka gazteoz beslerik ibiliko ete litzake eizean egurald; cnegaz? Nire ardírik onenetar'ko bi bildur-ikaratu daustez, eta nire ustez artzaiak baño lenago idoroko dauz orreík otsoak: iñon idorotekotan, itxas-ertzean idoroko dodaz, untzorria yaten. Zori ona *nekil* lagun, yainkoak gura ba'dabe! zer Jogu einen? (Seintxoa eskuetan artu ta eragi egiten dau). Yainkoak erruki bekiguz; seíntxo dogu au; ume eder benetan! mutiko ala neskato ete da? Eder, benetan eder; segurutik emakumeren batek laban egin dau: ni irakurten asti andirik galdurik izan ezarren, orraitiño be seintxo au emakume andikien laguntzallaren baten alabatxo dala igarri-ezinik eztot. Onegazko egítekoa izar-argitan, zugatz-aldorren baten ondoan, ate-ostean. *sa*sitzan egina da; au sortu ebenak au dan baño beroago ziran. Errukiarren eragi egingo dot: orraitiño be, nire semea eldu arte etxon egingo dot: ointxe-ointxe dala oio egin dau... Uuuujujuuu!

AKETOAK.— (Barrutik) Ujuu!

ARTZAIAK.—Ostera! Orren ur intzan, ala? I il eta usteldutakoan be eragoteko zera ikusi gura ba'dok, ator ona.

AKETOA aurrera.

Gexorik ago, ala, mutil?

AKETOAK.—Iñondiko ikuskizun itzal bi ikusi izan dodaz ftxasoan eta legorrean!... baña ezin esan nei itxasoan izan danentz, orain ortze da-ta: ortze ta itxaso-bitartean ezin sartu zeinke albandorratzik be.

ARTZAIAK.—Zelan izan dok, ba. mutil?

AKETOAK.—Zeuk al zenkus zelango asarrea, zelango erasoa darabilen itxasoak, zelan datorren legorraren ganera! baña ezta ori nik esan gura dodana. Ene! itzalena lagun errukarrien gedarrik biotz-ausigarrienak dira! Bein agertu, bein begi-aurretik ondatu; bein ontziko abe nausiak iretargia bera yo ta zulatu, ta bertatik itxasoak bere sabeltzarrera irunlsi, upelari txorkoa edo tapotza sartzen dautsazunean legetxe. Eta gero, legorrean yazoa... ikusi artzak zelan erauzi ta atera dautsan sorbalda-azurra gizonari; zelan ak dei egin daustan laguntzaeske, eta zelan esan dauen Antigon yakola izena, ta gizon andiki dala... Baña ontziagazkoa amaitzeko... zelan itxasoak opi]du dauen ontzia: baña lenen, lagun errukarriak zelango gedar biotz-urragarriak egin eta itxasoak zelan irri ta iseka egiten izan dautsen: eta zelan gizazindo gaxoak gedar egin eta artzak irri-iseka egiten izan dautson... bitzuek gedarrez, itxasoak eta eguraldiak baño zarata andiagoak eginik.

ARTZAIAK.—Olangorik! noz izan dok ori?

AKETOAK.—Oraintxe, oraintxe; nire begiok eztabe egin kiñurik, ez zirkinik zerok ikusi dodazanazkero; gízonen soñak ez dira otzitu oraindik urpean; eta artzak be eztau egin oraindik bazkariaren erdirik gizonaren okelaz; orretan daragoio oraindik.

ARTZAIAK.—Agurearen aldamenean ízan al nintz ari lagun egiteko!

AKETOAK.—(Bere kitean) Ontziaren aldamenean izan al zíntzaz, ari Iagun egileko: an zure goi-maitasunak ez eukakean oñik non yarri.

ARTZAIAK.—Itzala dok ori! Itzala dok ori! baña begira au, mutil. Ba-dok orrako ori baño zori oberik: ik ilten daragoioen zerakaz egin izan dok trikitx, nik yaioparriekaz. Emen dok itzako ikuskizuna; begira, arako aitonen semearen umea eroateko zorrozko seaskea dok au! Begira, begira au! artuik, artuik, mutil; idigi egik. Olan, olan, ikusi egin bear yoagu zer dauen... lendik yaukat entzunda ni maitagarribidez aberastuko nintzala: ostutakoren bat dok ume au... idigik. Zer yagok barruan, mutil?

AKETOAK.—Zartzaroan datortzu zori ona zuri; zure gaztearoko obenak parkatu ba'yatzuz, biziteko etzagoz txarto. Urre gorria! urre gorri utsa!

ARTZAIAK.—Orrako ori maitagarri-urregorri dok, mutil; eta euk ikusiko dok onan dala: artuik bizkarrean eta ondo yagoik: etxera, etxera, biderik laburrenez! Zori ontsu go-

zak, mutil; eta aurrentza zori ontsu izateko bear dogun zer bakarra yazokunea ixilik eukitea dok... Doazala nire ardiak eurek euren kitetik: gaioazan etxera, mutil on, bideiik labunenez.

AKETOAK.—Zoaz zeu bideiik labunenez idorotakoakin. Aitzak aitonen semeagandik alde egin dauenentz, eta zenbat yan dauen ikusten noa ni: piztiok gose diianean bakanik izaten diia bilduigani ta askani: aitonen semearen ondakinik gelditu ba'da, lurra emongo dautset.

ARTZAIAK.—Egiteko on dok orrako ori. Ondakinetatik igarri al ba'dagik zetariko gizon izan dan, aren aurrera eroan nagik.

AKETOAK.—Egin ez, ostera? Bai orixe: eta ari lur emoten lagun egingo daustazu.

ARTZAIAK.—Zori ontsu dok egun au, mutil; eta onik etorriko yakuk ortik. (Alde dagie).

IV EKITALDI

ALDIA auneia, Abestaldeaiena egiten.

A'LDIAK.—Bai onaien pozez, bai txanaren bildunez, bietaia, batzuei gogoko natxaken, eta guztiak azteitu daioadazan onek; okeirik egin eta bein egina erakusten dodan onek, orain egoak artuko dodaz, Aldiaren izenez. Ez artu obentzat nik nire ariñeketa gorrian, bitartean zer yazo dan erakusteka, amasei urteren ganetik yauzi egitea; eta izan be, nire eskuko da, nire eskubide da, legeak erauzi ta manatu, ta beingo baten ekandu zarrak deuseztu ta barririk sartzea. Beti izan nazana izaten itxi egidazue, eguño lenengoz zerak urrengorik urrengo eratzerik izan baño len izan nintzana, naiz oraingo eratze au egiterik asmau baño len nintzana izaten. Eta oraintxe be or niri lengoxe gogaldia ezarten dauste-ta, orain argi ta dizdiz dagiana motel-ilundu egingo dot, eta lenera bidaliko dot oraingo oro. Orrazkero, zuon ederraz, eta betaurrekoari eraginik, ikuskizun barriren bat ekarriko dautzuet zuon begien aurrera, bitarte osoan zuok Iotan egon izan baizintzazen. Lonti, bere tukuetatik osaturik, barruti berezian bizi da, tukuok izanaz ondo garbaiturik. Ikusla maitagarri-txeratsuok, ni orain Boemi eder-zoragarrian nagola iruditu egizue; ez aztu bein aitatu nebala nik Boemi'ko erregearen semea, eta orain seme orri Portixel izena ezarten dautsodala. Olantsu, beingoan ekarriko dautzuet aurrera arako Galdua, azita, eta neskato lerden-txeratsu eginik; baña eztot iragarriko gero zer yazoko yakonik. Artzai-alaba da orain, eta aren gora-berak eta ortiko ondorenak azalduko dautzuedaz. Epe artu, astia alperrik galtzen dozuela uste ba'dozue. Eta olangorik ez izatekotan, Aldiak opa dautzuenez, ez al dozue zer txarragotan astirik galduko. (Alde dagi).

I AGERLEKU.-BOEMI, POLIXEN en yauregiko gela.

POLIXEN eta KAMIL aurrera.

POL.—Arren, Kamil on, ez egidak ekin lelo oriegaz: iri ezer ukatu-bearrak gexotu egiten naiok; baña au emotea eriotzea litzakek nitzako.

KAM.—Amabost urteotan eztot ikusi nire aberria: eta nire bizitzarik geiena erbestean egin izanarren, nire azurrok aberrian itxi gura dodaz. Orrez ganera, nire ugazaba, errege garbaituak dei egin daust; aren atsekabe minberaen aringarri izan neikeo ni, onetan ustetsuegi ezpa'naz... eta au da ni arako bultzatzen nauen beste zirikada.

POL.—Daustazun maitasunarren, ezegizuz ezegizuz ezereztu niri egin otseintzak ni orain bertan-bera itxirik: zure ontasunari zor yako, zure ontasunetik dator nik nigan somatzen dodan zure bear-izana; oba litzakit zu eguño euki-eza, zu orain galtzea baño; zuk asmau, eratu, ta egiteko, burutzeko izten daustazuzan arazoak zeuez bestek egokiz ezin burutu daikezanazkero, emen yarrai bear dozu eurak burutzeko, edo, ostantxean, zeugaz batera eroan orain arte egin izan daustazuzan otseintzak; eta zure otseintzok bear dan bestean aintzakotzat *ai*tu ezpa'dodaz, geiegi ezin dodanazkero, eurrerantzean zuri esker ona erakusteko aleginak alegin egingo dodaz; eta orretan irabazi baño eztot egingo, gure arteko maitasuna sendotu egingo dot-eta. Ez egidazu geiago aitatu be egin Sitxili zori geztokoa, arren; aren izena entzunak berak zuk gizon garbaitua eresten dautsazun nire anai nikin onezkoak eginaren oroimena dakast

crofTorci, nirs ZÍC^{T}O^{l}*!ZG** cirsn ojrononn K:. kain-bikainaren eta seme-alaben galtzea orain barrien-barri negar eragiteko da-ta. Esaidazu, noz ikusi dozu oraintsuen nire seme erregegei Porlixel? Erregeak ez dira zori txarrekoago euren seme-alaba ekandu onetakoak galdu dabezanean, seme-alabok esker oneko ez diranean baño.

KAM.—Yaun, iru egun dira nik errege-semea ikusi nebala. Zeintzuk arazo yakozan ari atsegingarrien, nik eztakit; baña nik oartu dodana da oraintsutik errege-yauregitik alde eginda dabilela, eta bere errege-seme egitekoetatik lengo aldean urrinduta dagoala.

POL.—Asko be asko erabili izan dot ori burutan, eta kezka ta arduraz, Kamil; aren yoan-etorri ta ibilerak ikusteko bendekoen begirik ba-dot-eta; eta orrako orreikandik au dakit... ak nekez alde egiten dauela etxezale dan artzairen etxetik; or diñoenez, bere auzokoak be ori zelan izan leiteken susmau b** o^í^ ^abslc "*^{p}sti^c ^z^-^zctili ezin esan leiteken bestean gora yagi dan gizonarenetik.

KA'M.—Yaun, berezitasunik bakanenak dauzan alabadun olango gizonaren barririk nire belarrietara be eldu izan da: neskato orren ospea olango txabolatik itxaron leiteken baño zabalago egin da.

POL.—Ori da nik dakidanaren zati bat be, baña ni bildur naz zek eroan leiken ara nire semea. Zeuk etorri bear dozu toki orretara niri lagun egiten; bein an, nortzuk garean iragarteka, artzaiari itaun batzuk egingo dautsaguz; a gizon artez eta alotzbako danazkero, eztot uste nire semea ara zek leroaken yakitea zail izango yakunik. Arren, Oraintxe erkide izan zakidaz arazo onetan. Baztartu egizuz Sitxili'gazko zure gogapenak.

KAM.—Gogoz egingo dot zure agindua.

POL.—Kamil, nire adiskiderik onen ori!... Kokomarrotu egin bear gara. (Alde dagie).

II AGERLEKU. Lengoxea. -Irtzaiaren txabola-ondoko bide.

AUTOLIKA aurrera, abesten.

Lilipak agertzen asten diranean...
Eta, eup! errekarro-sakostan neskea,
Orduan urtearorik eztiena;
Odol gorria biztu ak guztiena.

Izara zuria esian zuritzen...
Au poza, txori eztiak abestuten!
Nire agin motza aginberatu da:
Txopin-garardok bai eztarria bera.

Larratxoriak txir-txir larran abestu...
Zozoak eta eskilosoak lagun...
Ni ta nire izebak bedartzan etzinik,
Pozik entzuten orrako uda-abesti.

Porlixel erregegeiaren otsein izan naz, eta nire aldian oial aztinezko soñekorik erabili izan dot; baña orain otseintza ori itxi dot:

Baña negarrik egingo orregaitik?
Uargi zurbilak gabaz argi dagi;
Eta ara-onaka nabilenean,
Ordun nabil ni biderik zuzenenean.

Estañudunak be bizi al ba'dira,
Urda-narru zorro lepoan dabela,
Nire ogibidean ni zek kikildu?
Okerrenean be ni or katez lotu.

Izarak dira nire sal-eroskei; sapilaiak abi-ginen daragoionean soñeko arinagorik bear izaten da. Autolika ezarri eustan nire aita zanak izentzat: eta a be, ni lez, Merkuri nagusi zanean (3) yaioa izanik, uskeri-lapur zan, ni legetxe. Deiteratan yokatu ta irabaziaz erosi dot soñeko au; eta nire irabazia tentelai ziria sartzean dago: or bideetan ostuteak eskegiabera ta txibitara eroango ninduke: eta urkamendiak eta niri narrua berotzeak bildur-ikarea sartzen dauste; gerokoak eztaust lorik galazoten... Dubarik, utsean!

AKETOA aurrera.

AKETOAK.—Dakusdan: amaika ardik ogei ta zortzi libra artille emoten dabez; ogei ta zortzi libra artillek esterlin-libera bat eta txilin bat emoten dauz; amabost eun ardi moztuazkero, zenbat ete dirutan?

AUTOLIKA'k.—(Bere kitean) Sarea urratu ezpa'dadi, txori au eskuraturik dot.

AKETOAK.—Arri-koskorrak-edo zenbatu bearko dodaz, ostean ezin dot-eta. Dakusdan:

(3) Merkuri erromataren artean sal-erosleen yafnko zan. Izen orixe daroa eguzkiaren ingurucrn biraka dabilen izarbel batek be. Lengo aldietan ezeze oraintxe be ba-dira gizonen artean gure bizitzako yoan-etorriak gure yaiotzako izar eta izarbelai loturik dagozala uste daben sinisperak.

zer erosiko dot ardi-mozketa-aparirako? "Iru libra gozoki; bost libra maas-pasa; ugolo... zer egiteko nire arrebeak ugolooaz? Baña nire aitak nire arrebearen eskuetan itxi dau yaia eta nire arrebeak au eskatzen daust. Ogei ta lau lora-sorta eskatu daustaz moztzalleentzako, guztiak abeslari bikain; baña euretarik geienak abespeiti ta abesperen dira; euren artean bat bakarrik da garbikeriti (OARRA: Gaibikeritiak Ostelari edo Protestanteen arteko alderdi bateko dira. Euren ustez, gure yaurespidean Idazti Deunetan agiri eztan edozein yaureskera baztartu egin bear geunke. Esaterako, Idazti Deunetako abestiez besterik ez abestu. Shakespeare'k emen aldiekaz naste-borraste itzala egiten dausku, berak oi dauenez), eta ak abesti gurenak abesten dauz zarrabetearen otsera. Azaparanik be bear dot, okoreai margoa emoteko; palmondo-igaliak... utsa; onako au errezkadan imintea aztu egin yat; intxaur usaintzuak, zazpi; bikote bat edo bi yinyer <4) baña orrako ori zorrean eskatu ta eroan neinke: lau libra okan, eta beste orrenbeste maats-mordo.

AUT.—(Lurrean auzpez) Ez al nintzan yaio!

AKETOAK.—Nire biziarren! zer dogu emen?

AUT.—Ai ene! lagun zakidaz, lagun zakidaz! ken egidazuz sorkiok; eta gero, il, il!

AKETOAK.—Onangorik! errukarri gaxo ori! ik sorkiok kentzea baño aldean geiago imintea bearrekoago dok.

AUT.—Yaun, askozaz be lotsagarriago yataz sorki zirtzilok, millaka ta millaka artu izan dodazan txibiten lorratzak baño.

AKETOAK.—Onangorik! gizon onen errukarri! milloi bat zartada etxakoz emoten iñori utsagaitik.

AUT.—Yaun, ostu egin izan dauste ta gero narrua berotu; dirua ta soñekoak bitzuek kendu izan daustez, eta sorki askarriok yantzi.

AKETOAK.—Ostera! Zaldizkok, ala oñezkok?

AUT.—Oñezkok, yaun ezti, oñezkok.

AKETOAK.—Bai ba, oñezkoren batek izan bear olango soñekorik iri izteko: au zaldunsoñeko izatekotan, gudaldi asarrerik ikusi izan yok ak. Ekak esku ori, neuk lagun egingo dauskat: tiruk, ekak esku ori. (Yagiten lagun yako).

AUT.—Ai, ai! bigunago, ene yaun on, ai, ai, ai!

AKETOAK.—Gaxo ori; egitekoa egin dautzue!

AUT.—Ene! yaun on, bigun, yaun on: nire sorbalda-azurra bere lekutik urtenda ete dagon bildur naz.

AKETOAK.—Eta? Zutunik egoteko gauz ete zara?

AUT.—Bigun, ene yaun! (Sakelekoa ostu egiten dautso) bigun, yaun on; maitasunezko egite egin daustazu.

AKETOAK.—Diru-bearrik ba-dozu, ala? Badot diru apurren bat zutzako.

AUT.—Ez, yaun ezti ori; ez, ez egidazu emon, arren: emendik iru milla-lauren barruko bidean dot senide bat, eta arenerako bidean ninduzun; an lortuko dot dirua naiz bear dodan oro: ez opatu dirurik, arren; orregaz biotza erdibitu egiten daustazu.

AKETOAK.—Zelango ta zetariko da zuri ostu dautzun gizona?

AUT.—Ortik zear abestiak saltzen ezagutu izan dodan urli da gizon ori: bein errege-semearen otsein izan zan; eztakit nik, yaun on, bere on-indarretarik zeñegaitik atera eben txibita-otsean errege-yauregitik.

AKETOAK.—Bere gaitz-indarretarik esan gurako dozu; on-indarrik ezta ateraten txibita-otsez errege-yaurregitik; an kutundu egiten dabe on-indarra, an gelditu dadin; eta orraitiño be eztau gelditu gura an.

AUT.—Gaitz-indarretarik esan gura izan dot, yaun. Ezagunik asko yat orrako gizon ori: urli ori arrazkero matxangoakaz ururik-uri ibilia da; gero, ebazla-otsein izana; geroago, Seme Ondatzallearena egiten ibili zan ortik zear, eta pertzagin baten emazteakin ezkondu zan nire bizílekua ta nire lurrak dagozan lekuan, emendik milla bateko bide-barruan; eta ainbat ogibide zirtzil izan ondoren ziri-sartzallatzea arlu izan dau bere ogibide bakar eta bein betikotzat: Autolika deitzen dabe batzuk.

AKETOAK.—Izurriak eroango al dau! Orrako ori lapur yatzu, bai orixe, lapurtzar; ori or ibilten yatzu illeta ta perietan eta erromerietan.

AUT.—Bai, orixe, yaun; orri nagoko, yaun, orri; ori da soñekook aldean imini daustazana.

AKETOAK.—Boemi osoan be eztago ori lango beste zital zirtzilik; orri arpegi emon izan ba'zeuntso ta arpegira txu egin, orrek arin be arin igesiko eukean.

AUT.—Autor-bearrean nagotzu, yaun, ni enazala bape be burrukalari: orretarako biotz ustel dot; eta, sinis egidazu, ak ondo ekian au.

AKETOAK.—Zelan zagoz orain?

(4) Onako au Amerika-kmdara baten sustarra yatzu, yaki-edariak usaintzeko.

AUT.—Yaun ezti, len baño askozaz obeto: orain zutunik egotako ta ibilteko gauz nozu; zuri agur egin eta astiro astiro nire senidearenera yoateko lain be ba naz.

AKETOAK.—Bidean lagun egingo ete dautzut?

AUT.—Ez, arpegi-txeratsu orrek: ez, ene yaun biotz oneko orrek.

AKETOAK.—Orrazkero, onik eta ondo ibili; nik ardi-mozketa-aparirakoak erosten yoan bear dot.

AUT.—Ondo ibili, yaun ezti ori! (AKETOAK alde) Orrako zerak erosteko zure sçikeJa arinegi dago. Neu be an izango naz zure ardi-mozketako oturuntzean. Egin-barri dodan ziri onek besterik ezpa'yakak, eta ardimoztzalleak ardiarena ez egitekotan, ni ta nire izena on-indartsuen izendegian imini gagiezala. (Abestuten daragoio).

Ekin, ekin gogatsu bideari,
Yauzi esi-ganetik:
Biotz argik nekerik ez bidean,
Ituna unatuta milla balekoan. (Alde dagi).

III AGERLEKU.-Li igoxea. Artzai-txabola.

PORLIXEL eta GALDUA aurrera.

PORL.—Oituaz besterako zure yantziok zure soñeko atal bakotxari bizitasun barririk ba damolse: zuk eztirudizu artzainorik, Yorrailaren bekokian kirika agertzen dan LORE yainkonoa baño. Zure ardi-mozketa yai au yainko txikien batzarra dogu eta zu batzar orretako erregenoa.

GALDUAK.—Yaun, ene yaun andiki txeratsu ori, zureak langO gorapen geiegizkorik eztagokit niri...; basetxetar baldarren yantziokaz zuk, lur onetako ikusgarririk goragarriena zarean orrek, zure burua eratsi ta zirtzildu egiten dozu; eta ni be, neskato apalzirtzil au, ezin izan besterik yainkonorena egiten dauen artzaino baño. Gure yai eta oturuntzak zorakeriz beteak ezpa-lira, eta maikideak orretara oituak ezpa'litzaz, ni lotsatu egingo nintzake zu olan yantzita ikusirik; eta nire burua ispilluan ba'nekus, larritu ta konorgatu egingo nintzakela uste dot.

PORL.—Zori onekotzat dot nire aztoreak zure aitaren lurren ganetik egaz egin eban egUna.

GAL.—Ona etorteko biderik emongo al dautzu Yupiter'ek! Nigazko, zugandik niganako aldeak bildur emoten daust; zure garaitasunak eztaki bildurra zer danik. Orraintxe be ni bildur naz, alanbearrez zure aita emendik zear igaroko ete dan, zu igaro zareanez. Ene! alanbearrarena! zer eretxiko ete leuskio ak bere seme ain zindoa onango zirtziltasunari loturik ikusteari? Zer ete lesake ak? Eta zelan yasango ete neunke nik aren begirakune gogorra iñori arturiko yantzi apain-arrookaz?

PORL.—Biotz-argitasunaz, gogaldi onaz beste ezeri ez egin yaramonik. Yainkoak eurak be, maifasunarren euren yainkotasuna beeraturik, abereen antzik be artu izan dabe: Yupiter zezendu egin zan eta orroaka eragon; Netun urdina aaritu egin zan, eta be gedarrez ibili; eta urrezko Apolon, suzko yantziduna, orain ni nazan antzeko basetxetar baldar-zakar egin izan zan...; arein antzaldakuntzak bein be etziran izan zurea baño edertasun bakanagogaitik... ezta aik nik baño aratzago yokatu be; eta izan be, nik beinagotzat dot nire entzute ona, nire giriña baño, eta nire zintzotasuna baño beroago ezta nire irritsa.

GALDUAK.—Ene! baña, yaun, zure erabagia ezin izan leiteke ezetarako gauz erregek galazoazkero, galazoko dauenez: olangorik yazotekotan, barriz, nai ta nai ez, urrengo zer bietarik bata edo bestea yazoko da: edo zuk zure asmoak aldatu, edo nik nire bizia galdu.

PORL.—Galdua, nire maite-kutun ori, ez egizu ilundu yai onetako gogo-argitasuna ekinaren ekinez ekarritako gogapenokaz: nire lirain ori, edo ni zure izango naz, edo ez nire aitaren; eta izan be, ni ezin izan neinteke neure, naiz beste iñontzako ezer, zure ez izatekotan: ni erabagi onetan sendo ta gogor yarrita nago, alanbearrak besterik esan ba'dagi be. Gogaldi on izan, txeratsu orrek; ito egizuz zure gogapenok, bitartean beste edozer gogoraturik. Ba-datoz zure arrotzak; gora zure buru ori, guk alkarri zin egindako ta etorteko diran ezteguetan baigengoz.

GAL.—Zori, andera ori, zori ontsu zakidaz.

PORL.—Begira, zure arrotzak urreratuaz datoz; itz egiezu, txera on-argia egiteko, eta gure arpegiak alaitasunez gorritu dakiguzala.

ARTZAIA aurrera, kokomarroturik datozan POLIXEN eta KAMIL'ekin; AKETOA, MOPE, DORKE ta beste batzuk be bai.

ARTZAIAK.—Ostera! ene alaba! nire emazte zarra bizi zanean, onango egunean a bera izaten zan yaki-arduradun, edari-arduradun eta sukaldari; etzandera ta otsein; guztial egiten eutsen ondo-etorria ta txerarik argiena; guztien otsein izaten zan; bere abestiak abestu ta bere aldiz yantzan egin; bein maipuruan zan a, bein erdian; bein baten sorbaldan, bein bestereneán; arpegia gorri, lanaren lanez; eta arpegiko gorria itzalteko. maikideen osasunaren alde zuirutadatxo bana artuko eutsen. Zu, ostera, baztarrean zagoz, arrotzetariko baizintzaz, ez yaiaren zuzendari: arren, ondo-etorri txerea egiezu adiskide ezezagunoi, orreik gure adiskideago, ezagunago egiteko bidea ori da-ta. Tira, itzali zure arpegiko lotsok, eta erakus zu zareana, yaiaren zuzendari; tira, zure ardi-mozketa yaira guk ondo-etorri txerea egiten dautsegula esan, zure artalde onari ondo doakion.

GAL.—(POLIXEN'i) Ondo etorria, yaun! nire aitaren gogoa da arroztariarena gaur nik nire lepora artzea... (KAMIL'i) Ondo etorria, yaun! ekazuz lora orreik, Dorke. Yaun begiragarriok, zuontzako erromeru ta moskatxa; oneik euren orriak eta sundea aldean dabez neguan be: biotz ona ta oroipen atsegingarriak bekitzuez lagun bioi, eta ondo-etorriak zatxakuze gure ardi-mozketa yaira!

POL.—Artzaino..., eta lirain zara, gero!... gure adinetarako egoki dira emon dauskuzuzan negu-lorok.

GAL.—Yaun, urtea zartuaz doa yoan, baña orraitiño ezta eldu udearen eriotzaraño, ezta negu dardarakorraren yaiotzara be..„ urtearo onetako lorarik lirainenak kabelin gorriak eta txirintxoi zerrendadunak dira, eta batzuk izatearen sasikume eresten dautse; orretaikorik eztago gure baratzean- eta eztot orretaikoren lakatzik an sartzeko gogorik be.

POL.—Neskato txerakor, zegaitik eztautzue ardura orretaikoak?

GAL.—Euren izate-nabartasunean izate andiaren trebetasunaren kide dan antzea dagoala entzun izan dodalako.

POL.—Benetan, olango antzerik ba-da izan: izatea ederragotzeko biderik eztago egon, orretarako bidea izateak berak emon ezik; olan, zuk aitatu dozun antzea izateak berak emona da. Ba-dakizu, neskato ezti, mentu gozoago-bikainagorik eransten dautsagula landara zakarragori, eta azal zekarragori pipil gozoago-bikainagorik arrazoten dautsagula. Antze onegaz antzeak izatea osotu egiten dau, akatsak kendu egiten dautsoz..., argiago esateko, aldatu egiten dau; baña antzea bera be izatea edo izatearena da.

GAL.—Olantxe da izan be.

POL.—Orrazkero, eurrez landaíu txirintxoiak zure baratzean, eta ez esan sasikume diranik.

GAL.—Eztot sartuko lurrean yorrairik orretaiko landararen lakatzik landatzeko; ez nik egin olangorik, ni margoztua ba'nintz, gazte onek "ondo dago, eta orain nikin semealabak izatea gura egizu" esatea gurako neunken baño geiago... Ea-dago emen lorarik zuontzako: izpiliko beroa, patana, itzebedarra, erla-bedarra, ekililia, eguzkiaz batera etzan, eta eguzkiaz batera negarrez yagiten dana; onakook uda-erdiko lorak yatzuz, eta nire ustez erái-adineko gizonentzako dira. Ondo etorriak zarie zuok!

KAM.—Zure artaldekorik ba'nintz, bedarra yatea itxita, zu begiratuz bakarrik biziko nintzake.

GAL.—Ene! ixilik zagoz! argalaren argalez Urtarrileko axe-boladak batera ta bestera eroango zindukiez. Orain, nire adiskide lerden-lerden ori, zure adinari dagokon udabarri-lorarik al neu; eta zuonak eta zuonak, oraindik adar gazte kutsugetan lorak azten, pipil-barruetan ezkuturik dozuezanonak. Persepone ori! nok leukezan orain zuk Dits' en burditik yausten izten dautsezun lorak! (5) anbulo gaiztoak, elaia baño len agertu, ta Epaileko exeak artzen dozuezan ederrok; lili ubel ilunok, eta Yune'n betazalak, naiz Kitere'n arnasea baño eztiagook (6); udaba-

(5) Persepone. Tzeu ta Demeter' en alaba. Bein, lorak batze,n eragoiola, Pulton edo Dits, lurpekoen yainkoa, agertu yakon otoz-otoan, lau zaldi bizkor-sutsuk ekarren burdian; Pulton'ek Persepone'ri eldu ta, indarrez, lora ta guzti bere' burdiraturík lurpeko bere bakalderri ilunera ercan eban. Bere alabea iñon agiri ez-eta, or ibili zan Demeter gaxoa bideak betean eta megar baten bere alabearen billa; nozbaiten norbaitegandik yakin eban Demeter'ek bere alabea nondik zan. Tzeu'gana doa Pulton'en aurka alaka. Alatze on dala-ta, Demeter'ek bere alabea urtero sei ilebetez lurgcrnera etorri ta Persepone bere amakin batera bizi al izatea lortzen dau.

(6) Erromarrentzako Yune Yupiter'en ande-

rrilora zurbilok, eguzkia bere indar osoaz ikusi-aurretik ezkontzaka ilten zarienok..., ela olango gatxa ainbat neskari etorten yake; Epail-lora ori-goiztar-azarriak eta errege-buruntzak; guztitariko liliak, zitoriak euren arteko dirala! Ene! nik eztot onetaikorik, onetaikozko lora-txortarik zutzako egiteko; eta zu, ene adiskide ezti ori, onetarikoz estali-estali egiteko!

PORL.—Ostera! gorpu baininduzun, ala?

GAL.—Ez; maitasunarentzako mune baizintzazan baño, an etzan eta yolas egiteko; ez gorpu baizintzazan; edo, gorpu izatekolan, ez eorzteko, biztu ta nire besartean euki ta estututeko baño. Tira, artu zure lorak; onako au Orril-paskoetako artzai-antzerkietan egiten ikusi izan dodanez dagidala uste dot; benetan, aldean dodan yantzi au ezta an erabilten dabena langorik.

PORL.—Zuk eginaz egitekoa ederragotu egiten dozu. Zuk itz egiten dozunean. zuk ezti orrek, ni beti nengokitzu entzuten; zuk abesten dozunean, zuk saldu-erostea be olantxe egitea gurako neunke; errukizko ukarra be olantxe emotea; olantxe otoi egitea; eta zure arazoak atontzen dozuzanean be, atondu-ala abestuz; yantzan egiten dozunean, itxas-uinduko al zintzaz, beti yantzan ekiteko; igi, ostera be igi, eta igiaz besterik ez egiteko: zure egikizun bakotxak, -zertzelada bakohcean orren berezibakan data-, zuk dagizunari buruntzea ezarten dautso ta, olan, zure egite guztiak erregeno dira.

GAL.—Dorikel ori, egiten daustazuzan gorapenak andiegi ta geiegi dira: zure gaztetasunak eta gaztetasuna-zear kirika dagian zure odol zindoak orban eta akats bako artzai zareala iragarriko ezpa'leuskiet, zuzenez bildur izan neinteke, Dorikel maite, bide ustelez eskatzen daustazula nire maitasuna.

PORL.—Nire ustez zuk eztozu bide geiago bildur izateko, nik orretarako biderik emoteko dodan baño... Baña, tira: yantzan dagigun, arren; ekazu esku ori, Galdua; olantxe bikotzen dira iñoz banantzeko asmorik eztaben galeperrak.

GAL.—Eurakarren zin egingo dot.

PORL.—Au da eguño landa-zelaietan arin egin izan dauen yaiotza apaleko neskatorik lirain-lerdenena: eztago orrek egiten dauenik naiz egiteko gogo dauenik bera baño andiagoren sundarik eztauenik, leku onetarako gallenegi eztanik.

KAM.—Mutil orrek neskato orri odolak arpegira ateraten dautsozan zerbait esaten daragoio: bene-benetan neskato ori mami ta gurinen erregeno da.

AKETOAK.—Tira, yo, yo eresia.

DORKE'k.—Mope izango da zure yantza-lagun: tiruk, berakatza artuik, orren munari kiratsa kentzeko.

MOPE'k.—Orain, yagon neurria!

AKETOAK.—Itzik bez, itzik bez; yagon daiguzan gure era-merak.„ Tira, yo eresia.

ARTZAI eta ARTZAINOAK yantzan.

POL.—Arren, artzai on, nor da zure alabeakin yantzan daragoion besarritar lerden ori?

ARTZAIAK.—Dorikel deitzen dabe or; eta odoIez zindo ta aitonen seme dala diño berorrek; nik neuk entzunez bakarrik dakit, baña orraitiño be sinistu egiten dot; egia esaten dauenaren antza dau. Nire alabea maite dauela diño: eta neuk be olan uste dot; eta izan be, eguño eztau iretargiak urik begiratu, mutil orrek zutunik yarririk nire alabearen begiak begiratzen dauzanez, aitan irakurten baileragoio: eta argi ta garbi esateko, orreik alkarri dautsen maitasunen artean mun-erdi baten alderik be eztago.

POL.—Neskato orrek egin-eginean dagi yantzan.

ARTZAIAK.—Olantxe egiten dau orrek edozer; ixilik egon bear neunken onek esanarren; Dorikel gaztea neskato orrekin ezkondu ba'dadi, neskato orrek ak amesik be egin eztauena ekarriko dautso.

OTSEIN aurrera.

OTSEINAK.—Ugazaba, atetan dagon aterikateko saltzalleari entzungo ba'zeuntso, etzeunke egingo yantzarik danbor eta alboken otsez; ez, zarrabeteak be eleuskizu zirkinik eragingo: zuk dirua zenbatu-ala baño arinago abestuko dautzu eresi bat baño geiago: iruntsi izan ba'leuz legetxe abesten dauz "balatak", eta gizon guztien belarriak aren abestietara adi-adi dagoz.

AKETOAK.—Tertzio obetan ezin etorri eitekean: barrura sartu bear dogu: balatak atsegingarri baño atsegingarriago yataz; naiz izan geia negargarri, barre eragiteko atondurik, naiz dala atsegingarri, ta itun abesturik.

rea ta, Eladetarrentzako Here Tzeu'ren emaztea biak dira bat. Kitere edo Kythereia, ostera, erromarrak Benuts eresten eutsoen yainkono eder-liraina, maitasun-yainkonoa da,

OTSEINAK.—Ak neurri guztitariko gizon eta emakumentzako abestiak dauz; eztozu idoroko eskuzorroginik bere bezeruai aren abestiak bestean egin-eginean neurriz datorkezan eskuzorrorik egingo dautsenik: ak abestirik lirainenak dauz neskentzat; eta, andi dana, lizunkerigeak...

POL.—Olangorik ba'da, mutil ori benetan ordotz dogu.

AKETOAK.—Ik diñokanez, gizon ori iñongorik iñongo dok. Ez ete yakak salgai barririk?

OTSEINAK.—Ak ostadarreko margo guztietariko galartzuak dakaz; moltzoka ba'letoz be, Boemi osoko lege-gizonak azkatu leikiezan baño gei geiago: galartzuak, girgilak, surzapiak, eun zuriak: bai ba, eta ak arei yainko, naiz yainkono bailitzaz abesten dautse; esaterako, gonea angeruno dala sinistuazoko leuskizu...

AKETOAK.—Arren, barrura ekak. eta abestuaz datorrela.

GAL.—Aurrezdik iragarri egiok eztagiala abestu lotsabakokeririk. (Otseinak alde).

AKETOAK.—Onango atez-ate saltzalleak zuk uste dozun baño sentzun geiagorik eukiten ba-dakie, arreba.

GALDUA'k.—Ba-leitekek, neba on.

AUTOLIKA aurrera, abesten.

Eun axeak daroan edurra bestean zuri;
Kiper-oiala, belea baxen baltza;
Damaska-usaineko eskuzorroak;
Arpegi-surretarako marroak;
Odi-besokoak eta anbarrezko idunekoak,
Anderazkoen gelarako usainkiak:
Borontzezko besokoak eta sabel-estalkiak,
Mutillak euren maiteai emotekoak;
Orratzak eta galtzaiduzko buru-orratzak,
Neskak burutik orporaño beor dabena:
Erdu, erosi, erdu: erdu, erosi, erdu, erosi;
Erosi, mutillak, ostean neskak asarre dozuez;

Erdu, erosi.

AKETOAK.—Mope maite ezpa'neu, ez eunke artuko nire dirurik; baña aren bendeko nazanazkero, nire dirua be galartzu ta eskuzorroen batzun bendeko izango dok.

MOPE'k.—Crrakook yaiaren aurretik agindu zeunstazan, baña orain be eztatoz beluegi.

DORKE'k.—Orrek ori baño geiagorik agindu izan dautzu, ostean ba-dogu guzurtirik.

MOPE'k.—Agindu eutzuna ordaindu dautzu: eta bai aginduaz ganetik be, urrean..., eta zu lotsa izango zara atzera emoten.

AKETOAK.—Lotsarik ez ete yake gelditu neskai? Lotsea baño beinego izango ete yakez euren sakelak? Ezin dozuez esan zuon ixilkizunak etzatera zoazenean, esneak batzera zoazenean, karobi-zuloan naiz beste okuluen baten? Ala zuon kezkak gure maikideen aurrean esan bear ete dozuez? Eskerrak gure arrotzak alkarrekin txutxu-putxuka daiagoioela. Zagoze. arren, ixilik.

MOPE'k.—Tira ba, ni ixilik nago. Tira, zuk galartzu ikusgarria ta eskuzorro batzuk agindu daustazuz.

AKETOAK.—Bidean iruzur egin eta diru guztia kendu daustela eztautzut esan, ala?

AUT.—Izan be, yaun, ortik zear iruzurginik asko dozu; ori dala-ta, gizonak zur eta begiak zabalik ibili bear dabe.

AKETOAK.—Ez izan bildurrik, gizon, emen eztozu ezer galduko.

AUT.—Olan usts dot, yaun; izan be, ainbat zer karu daroadaz aldean.

AKETOAK.—Zer dozu emen? Balatak, ala?

MOPE'k.—Arren ,erosi egidazuz batzuk: balat negargarriak yataz begiko, olangoak egiazko izaten dira-ta.

AUT.—Emen dozu doñu goibelerako bat: balat onen ipuina zera dozu, zikotzaren emaztea gexotu egin zala ogei diru-zorro guztiak batera eroanazo eutsazalako, ta emakume ari suge-buruak eta kunkunak erreta yateko gogaldia etorri yakola.

MOPE'k.—Olangorik egia izan daitekenik uste dozu, ala?

AUT.—Egitan be egia; eta orain ilebete yazoa.

DORKE'k.—Ez al naz ezkonduko gizon zikotzekin!

AUT.—Sinistu gura ezpa'dozu, emen dozu orrako yazoaren mimitxa edo erditzallearen izena be, Barrizabaltzalla, eta bostosei emakume zindo be an ziran autorla. Zer dala-ta zabaldu bear dot nik guzurrik?

MOPE'k.—Eros egizu ori, arren.

AKETOAK.—Tira ba, berezi, bakandu egizu ori baztarrera; eta lenen dakusguzan balat geiago, geiago erosteko.

AUT.—Emen dozu beste balat bat. Onako au itxasegian Yorrailaren larogeigarren egunean, eguaztenez, urganean larogei milla beso gora agertu ta neska biotz-gogorrai ipuin eta balat au abestu eutsen arrainari dagokona da: emakume zala uste izan zan, eta arrain otz egin zala, bera maite eban gizonakin ezkontzerik gura izan ez ebalako. Balat au egiazko bestean negargarri da.

DORKE'k.—Eta ori be egiazkotzat dozu, ala?

AUT.—Oba ez! bost bake-epaikari yatzuz yazokune orren autorla; eta orrez ganera, nire

zorroak euren izenak artu-ala baño autorla geiago.

AKETOAK.~Ori be besteetatik berezi egizu: atera besteren bat.

AUT.—Onako au balat txitxari-alaigarri da; baña batez be lirain.

MOPE'k.—Erosi dagiguzan alaigarri batzuk be.

AUT.—Ba, emen dozu alaigarri baño alaigarriago bat, eta "Neska bi gizon baten kutun"'en doñura abestutekoa da: sarkaldean nekez aurkituko dozu balat au abestuten eztauen neskarik: onek eskatima itzala dau, gero.

MOPE'k.—Biok biotara abestu geinke: zuk egin gura ba'dozu irugarrenarena, obeto; iruk abesteko, iru abotsetarako da.

DORKE'k.—Orren doñua orain ilebete dala erabili gendun.

AUT.—Nik egingo dot nirea; ba-dakizue egineginean be nire egikizun dala au: or nozue lagun.

ABESTI

AUT.—Zoaz emendik, nik yoan bear dot-eta; Nora, ezta zuri dagokizuna yakitea.

DOR,—Nora? M.-Ene! nora? D.-Nora?

MOP.—Zure zinari dagoko zuk niri
Zure ixilkizunak tapa-tapa esatea:

DOR.—Ni be bai. ni be noala, noala ara.

MOP.—Zu mandiora edo errotara zoaz:

DOR.—Batera, naiz bestera yoan, txarto egina.

AUT.—Ez batera be. D.-Batera bez? AUT.—Batera bez.

DOR.—Zin-bidez zara nire kutun-maite:

MOP.—Zin-bidez nire maiteago zara:
Orrazkero, nora zoaz? Esan, nora?

AKETOAK.—Abesti onegazkoa dagigun bertatik geuk geuretara; nire aitak eta aitonen semeok izketa benari daragoioe, eta eztagiegun galazo. Goazen emendik, eta ekarrizu kutxa ori nire atzetik... Neskatook, bioi erosiko dautzuedaz. Atez-ate saltzalla. ekazuz len autetsiak. Yarrai zakidaze, neskatook.

AUT.—(Bere kitean) Ondo ordaindu bearko daustak orreikaitik.

Erosiko don galartzurik, naiz
Sarerik ire bururako,
Nire oial bikainik, ene maite?
Sedarik, aririk,
Ire bururako yostallurik,
Eunik barrien, bikainenik?
Erdu ate-saltzalleagana;
Dirua da orretarako bide,
Gizonak salgeiak oro iristeko.

(AKETOAK, AUT., DOR., eta MOPE'k alde).

OTSEIN aurrera ostera be.

OTSEINAK.—Ugazaba, or dira iru burtzai, iru artzai, iru beizai, eta iru urdezai, guztiak buruko ertzetik oñetaraño ulez yantzita; "satir" edo basayaunak dirala diñoe eurak; yantzan egiteko datoz; neskatoak diñoenez, yantza ori ezta besterik iutika zoro-zakax-barregarriak baño, neskatoak eurak olangorik egiten eztakie-ta; baña, euren ustez, yantza ori atsegingarri-atsegingarri izango da, bolaka yokatzen baño eztakienai zakarregi iruditu ezik.

ARTZAIAK.—Alde emendik! emen eztogu bear olangorik: dagoneko izan dogu emen zorakeririk asko. Ba-dakigu, yaunak, aspergarri izan gatxatzuezala.

POL.—Geu gara, geu, gu nasaitzen gabezanai gogait eragiten dautsegunak: datozala, arren, artzai irukoteok.

OTSEINAK.—Euretariko irukote batek, eurak diñoenez, erregeren aurrean egin ei dau yantzan; euretarik gitxien danak amabi oin eta erdiko yauzia egiten dau goragoraka, aldiko.

ARTZAIAK.—Itxik ire ago ori: gizon onoi gogoko yakiezanazkero, datozala banura: baña bertatik, gero.

OTSEINAK.—Oba ez, yaun.atetan dagoz-eta. (Alde dagi).

Amabi aketo, basa-yaun yantzirik. aurrera. Yantzan egin eta alde egiten dabe.

POL.—(Bere kitean) Aita au! geiagorik yakingo dok onetaz oraindanik ara. Ez ete da aurreregi eldu arazoa, gero? Orreik alkarregandik banantzeko tertzio da... mutil ori alotzbako da ta itz geiegi egiten dau... Zelan zagoz artzai lerden? Zure biotza beteten dautzun zerbaitek eztautso izten zure buruari yaiari yaramonik egiten. Egia esan, ni gazte nintzanean, eta zuk lez maitasunari neragoionean, nik nire maiteari iñondiko txantxak egiten neuntsozan; ate-saltzalleari ebazan sedazko zer guztiak kentzen neuntsazan, eta nire maiteari opatu; zuok ari yoaten itxi dautsazue, ezer erosteka. Zure maitea orretaz oartu ba' ledi, ta gitxi maite dozula, naiz zeken zareala esan ba'Iegi-

tzu, istillu gorrietan aurkituko zintzatekez zure burua zuritzeko, zure maitea pozik euki gura izatekotan beintzat.

PORL.—Agure yaun ori, nik ba-dakit onek eztauzala aintzakotzat uskeriok; onek nigandik itxaroten dauzan emariak nire biotzean dagoz pilaturik eta batu-baturik; eta nik dagoneko opatu dautsadaz emariok, baña emon ez oraindik... Ene! dirudinez, yaun, zuk zeuk be iñoz maite izan dozu-ta, entzun nagizu nire biotza nire itzez ustuten... Eskutik eltzen dautzut! usoaren lumak bestean bigun-guri, ta lumok bestean, naiz Etiopitarraren aginak bestean, naiz iparaxe-boladak itzulka darabilen edurra bestean zuri dan zure eskutik.

POL.—Zsr esan gura dau orrako orrek? Baserritar gazte onek bai polito ikusi lendik be zuririk asko dan eskua! Nik zuon autorpenak entzuteko bakarrik banandu zauedaz; dantzuguzan, ba, zuon autorpenok.

PORL.—Ori ondo, eta zeuok izan lekuko, zeuok izan gure autorla.

POL.—Nire lagun au be bai, ala?

PORL.—Bai, ori be bai, eta ori baño geiago be bai, gizonak oro be bai._ lurra, zerua, eta oro: erregerik andienaren buruntzea ba'neu be ta, beraz, lainik lainen izan; eguño begik ikusi izan dauen gazterik lerdenena ba'nintz be; eguño gizonik izan dan baño indartsu-altsuago ta yakintsuago ba' nintz be..., orrako zer guztiak eneunkezala aintzakotzat etsiko neskato onen maitasun bagarik; onen alde emongo neunkezala guztiak; danak deitu, edo-ta danak beartuko neunkezala onen otseintzara, ta, ori ezinean, danak biraotuko neunkezala.

POL.—Ederto opaturik.

KAM.—Orrako orrek maitasun sakon iragarten dau.

ARTZAIAK.—Baña, ene alaba orrek, beste orrenbeste ete dirautsazu gazte orri?

GAL.—Ni enaz gauz zerak orren ederto esateko; ez, enaz gauz orren apain eta txairo esateko; ez, ezta zer oberik esateko be: nire gogapenen garbitasunetik digart orrenak be onangoxe dirala.

ARTZAIAK.—Emon alkarri eskuak, eginik dago egiunea... -eta zuok, adiskide ezezagunok, zuok izango zarie egiune onen autorla: nik nire alabea emoten dautsat, eta onen ezkon-saria orrena besteko izango da.

PORL.—Bardintze ori ezin izan leiteke onen on-indarrez ez izatekotan; nik dakidan bat il dadinean, zuk amesik egin zengiken baño be ondasun geiago izango dot nik; zu agoa zabalik izteko lain izango dot nik orduan; baña, tira, ezkondu gagizuz autorleon aurrean.

ARTZAIAK.—Tira ba, ekazu esku ori; bai zuk be zurea, alaba.

POL.—Astiro, baserritar, etxon apur baten, arren; (PORLIXEL'i) ez ete dok ik aitarik?

PORL.—Bai, ba-dot; baña zetarako gura dozu a?

POL.—Onako onen barririk ete yakik ak?

PORL.—Ez, eztaki, ta yakin-bearrik be eztau.

POL.—Nire ustez, aita dok ezteguetan maikiderik beinena. Arren, beste bein itanduten dauskat; ire aita ez ete dok gauz bidezko zereginetarako? Ez ete dok tenteldu adinaren adinez eta min aldakorrez? Ez ete dok gauz itz egiteko, entzuteko, gizon gizongandik bereiT.teko, bere ondasunak yagoteko? Oean ete datza, andik yagi-ezinik? Ume zanean egiten ebana egiteko baño ez ete dok gauz?

PORL.—Ez, olangorik ez, yaun; *a* onik dago egon, eta bere adineko ainbatek baño sendotasun geiago dau ak.

POL.—Nire bizar zuriaarren, ori olan izatekotan semeri eztagokon iraina egiten dautsak ik ari: bidezko dok izan nire semeak berak aututea bere emaztegeia; baña eztok bape gitxiago bidezko, bere poz guztia ondorengo egokiak izatea yakon aitak olango arazotan bere onurik emotea.

PORL.—Bai, ori olan da izan; baña, ene yaun ben, zuk yakitea egoki eztan beste zegaiti batzukaitik, nik eztautsat iragarriko arazo au nire aitari.

POL.—Iragarri egiozu.

PORL.—Ez, etxako íragarri bear.

ARTZAIAK.—Bai, iragar egiozu, ene seme: ak eztau artuko naibagarik zure autespenaren barri yakinaz.

PORL.—Tira, tira, ak eztau yakin bear... Oar eta autor gure egiunea.

POL.—(Bere burua darakus) Euk oar eta autor zuon ezkontza-austea, nire seme deitzeko adorerik eztodan yaun gazte orrek: nire semetzat esteko zirtzilegi az i: errege-makillearen yarausle izateko zirtzilegi az, izan be, artzai-mekillea eragiteko olan makurten azan ori! (Artzaiari) Agure zar saltzalla ori. naibaga-bide litzakidak, i eskegiaz ire egunak aste batez baño ez laburtzea. Eta zu, nai ta nai ez, zure kutuna errege-seme zoro dala ezagutu bear dozun sorgin langosorgin zarean gazte guri ori._

ARTZAIAK.—Ai ene, nire biotzaren larri!

POL.—Zure edertasuna arantzaz, elorriz eta asuarrez urratuko dot, zure izate zirtzila bestean iguingarri egin dadin... Iregazko,

gazte maitabera... nik yakin ba'yakiat gaurdanik ara, intziriz baño ezpa'dok be, bein geiagotan neskato au ikus-gogorik iragarri dokala, -etxoat uste au geiagotan ikusiko dokanik-, ik olangorik egitekotan, nire ondorengotzea kendu egingo dauskat: ez aut etsiko nire odolekotzat, ez, ezta nire senidetzat be. Deukalion bera baño geiago (7). Entzun eta oar nire itzak: ator gukin errege-yauregira... Xu, agure zar ori, gure asarrez beterik egonarren, oraingoarren asarre orren zartada itzal-ogogorretik yasei izten zauguz. Eta zu, liluratzalla ori, artzaigarririk asko zarean ori; bai, beronek aldean daroan gure omenagaitik ezpa'litz, zukin ezkontzeko lain elitzateken gazte onen ezkongeigarri be..., gaurdanik ara iñoz etxe onetarako kisketik idigi ba'dagiozu, edo-ta zure besartean estutuaz gazte oneri soña makurtuazo ba'dagiozu, zutzako zu orretarako samurregi zarean bestean gordin izango dan eriotzarik asmauko dot. (Alde dagi).

GAL.—Nireak egin dau oraingoxean! gizon orrek enau askotzarik ikaratu; egin-eginean be, bein edo birritan egon naz argi ta garbi esateko, aren yauregiari argi egiten dautsan eguzki berberak egíten dautsala gure txaboleari be... (PORLIXEL'i) Ba-zoaz, ala, yaun? Nik esan neuntzun zer yazoko zan! arren, zeure burua begiratu egizu: orain atzarrik nagonazkero, erregeno izateko izan dodan ames ori eztot kutunduko gaurtik ara, ardiak batu ta negar egin baño.

KAM.—Ostera! zer yazoten yatzu, aita? Itz egizu il baño len.

ARTZAIAK.—Ni enaz gauz ez itzik egiteko, ezta gogapenik izateko be, eta enaz azartzen dakidana yakiten be. (PORLÍXEL'i) Ene yaun ori, larogei ta iru urteko gizona ondaturik itxi dozu, bere ilobia bakez beteteko ustetan egoan gizona; bai, nire aita il zan oean ilteko, ta aren azur zindoen aldamenean etzateko zan gizona! baña orain, orain giza-eskegitzallaren batek soñeratuko daust il-yantzia, eta abadek ganera lurrik egotziko eztaustan tokiren baten iminiko nau... (GALDUA'ri) Zori gaiztokorik gaiztokoen ori, zuk ba-zenkian gazte au erregeseme zana, eta orraitiño orrekin ezkontzen azartu izan zara!... Nireak egin dau! nireak egin dau! Une onetantxe il al ba'nintz, neuk gura dodanean ilteko biziko nintzakean. (Alde dagi).

PORL.—Zegaitik begiratzen nozu olan? Naibagerik ba-dot, baña ez bildurrik; nire asmoak atzerctuazo bai egingo daustez, baña ez aldatuazo; ni len nintzana naz orain be: indar geiago egin bear dot aurrerantza; baña enau iñok eroanço atzeraka, neuk gura eztodala.

KAM.—Ene yaun txeratsu-maitagarri ori, zuk ba-dakizu zelango gogaldi dauen zure aitak: bein beinean ak eztautzu itxiko itzik egiten, eta eztot uste orretarako asmorik dozunik be.„; eta ak nekez yasango leuke bein beinean zu aurrean ikusterik be, nire ustez: orrazkero, ez agertu aren aurrera aren asarrea oztu arts.

PORL.—Eztot olango asmorik. Ba-dodala uste dozu, ala, Kamil?

KAM.—Ez ak berak be, yaun.

GAL.—Amaika bider esan izan dautzut au yazoko zana! amaika bider esan izan dautzut nire omenak bera ezagutu arteño iraungo ebala!

PORL.—Zure omena ezin galdu leiteke nik nire itza yan ezik; eta olangorik yazotekotan, izadiaren saietsak iztenak egin dagiezala danak batera, eta barruan dauzan azi guztiak ondatu dadizala!... Eragi zure begiok... Ken egidazu zure ondorengotzea, aita; ni nire maitasunaren ondorengo, yarausla naz.

KAM.—Sentzunez yoka egizu. Onurik entzun egizu.

PORL.—Ba-dantzudaz..., eta nire gogaldiarenak: adina nire gogaldiaren alde ba'dago, adinez, sentzunez yokatzen dot: ostantxean, nire sentzuak, zorakeria gogokoago yakenak, ondo-etorria egiten dautsoe nire gogaldiari.

KAM.—Etsiarena egitea yatzu ori, yaun.

PORL.--Ori dala esan baño eztozu; baña olan nire zina bete egiten dot; nai ta nai ez etsi bear nik zindotzat yokabide au. Kamil, ez Boemi osoagaitik eta bertoko andikeri izta ta dizdiz egiten dauenagaitik; *ez* eguzkiak dakusan orogaitik, lur itxiak bere sabelean ostcnduta dauen orogaitik, ez itxaso sakonak bere ondo ezezagunean ostontzen dauen orogaitik, nik eztot ausiko nire maite lirain-lerdenari eginiko zina: orrazkero, arren, zu beti nire aitaren adiskide

(7) Elade'ko nrtu-iztiak diñonez, Deukalion dalako nu Pormei.;u'n seme ta Tesali'ko Piti ur;ko errea^ izan zan. Tzeu'k bein gizadia cndatzeko uriol itzala bidali ebanean, Deukalion eta bere emazte Pirre on-tzian sartu ta ontzia ur-go,nean luzaroan gora-goraka ta ziboan ibili izan-arren bizirik gelditu ziran. Olan, mitu ori egia izatekolan, Deukalion gure gurasoetarik lenengotsu lítzateke ta, bai qur > seniderik urrinokcentsu be.

aintzakotzat etsia izan zareanazkero, nik asmo dodanez, nik a geiago ikusiko ez-eta, ak nire barri yakín-gurarik iragarri dagianean, aren gogaldi txarrean onu onik ari emon egiozu; geroan neuk eta nire zoriak bultzau ta eroan nagiela. Yakizu, ta ari esan egiozu, gura ba'dozu..., itxasora egin dodala emen legorrean nikin ezin euki dod'an nire maiteakin; eta egin-eginean be gure bear izanerako egoki datorren ontzi bizkor bat dot, izan, baña ez asmo onetarako gertaurik. Ze bide artuko dodan yakitea ezta zuri dagokizuna, eta nitzako unuragarri bez nik esatea.

KAM.—Ene yaun ori, onurik entzuteko itzuliago al litz zure burua, edo-ta sendoago zure bear-izanerako.

PORL.—(Baztarrera daroa GALDUA) Entzun, Galdua. (KAMIL'i) Laster entzungo dautzut zuri.

KAM.—Eztago ori beretik ateraterik, ori iges egiteko erabagirik dago. Zori ontsu nintzake orain orren igesa nire onerako bidean irnini al ba'nei; ori galbidetik yarei, ori maite izan, orri omen egin; olan, SitxiU maitea barriro ikustea irabazi, Sitxili ta arako errege zori txarrekoa, nire ugazaba, a ikusteko ainbesteko egarria dodana.

PORL.—Orain, Kamil on, arazo bakanak benikre-bereturik nauka-ta, era-merai yaramonik egiteka agur dagitzu (Yoan doanarena dagi).

KAM.—Yaun, ez ete dozu ezer entzun arentzako maitasunak eraginik, zure aitari nik egin otseintza apaletzaz?

PORL.—Zuk zintzo-zintzo yokatuta irabazi izan dozuna, nire aitaren egunoroko leloa da zure egite onez itz egitea; eta eztau ak asti gitxi be amoten, berak gogo dauenez zure egiteok saritzeko arduratan.

KAM.—Tira ba, ene yaun, nik errege maite dodala gogoan erabiltea eder ba'yatzu, eta, errege-bitartez, aren urren dana, zeu maitagarri ori, zure bideak neuk arteztutea ontzat ar egidazu... Zure asmo astun eta erabagia ezetan aldagarri izatekotan... neure omenaarren, neuk erakutsiko dautzut zure gallentasunari dagokozan arrerea ta txerea non egingo leuskizuezan: eta zu zure maiteagandik aldentzeko zure ondamendiaz beste biderik eztagonazkero, -eta yainkoak ez al dabe gurako olangorik'- zu an ezkondu egin zeintekez zure maiteakin; eta nik. zu emen etzarean bitartean, nire aleginik onenak egingo neunkez zure aita mukerra beratu ta biguntzeko, ta zuon ezkontza ori ontzat arrazoteko.

PORL.—Zelan egiteko, Kamil, olangorik, ia ia alatz dirudi-ta? Zuk olangorik egitekotan, nik gizon baño zer andiagotzat etsiko zindukedaz, eta aurrerantzean zugan imini nire ustea.

KAM.—Erabili ete dozu gogoan nora yoango zareanik?

PORL.—Ez, oraindik tautik bez: ez guk itsumustuan egina guk ustebako alanbearrearen errudun dan baño geiago; olan, alanbearraren bendean, eta edozein axek nainora daroazan euhtzat doguz gure buruak.

KAM.—Orrazkero, entzun nagizu: zure asmoa aldatzeka. egazkada ori egin gura ba'dozu, au da zuk egin bear zeunkena: Sitxili'ra yo; eta an Lonti'n aurrera agertu zeu ta zure errege-alaba lerden-liraina, -izan be, nik orrek olango izan bear dauela dakust-eta; eta zure maitea an zure oekideri dagokonez artuko dabe. Nik nire irudimenean Lonti zuoi besoak zabaltzen eta negarrez zuoi ondo-etorria emoten dakust; zuri, seme orri, zure aíta bera baizintzaz, parka-eske; zure emazte barriaren eskuai mun egiten; bere ler>go gogotxarra gaiztetsi ta oraingo txerakortosuna onetsi ta asmau leiteken baño andiago izatea gura leukelarik.

PORL.—Kamil lain ori, nire ikustaldíaren, nire ikerraldiaren zurigarritzat zer aterateko aren aurrean?

KAM.—Zure aitak bidali zauzala esan, ari agur egiteko ta a poztuteko. Yaun, zuk zelan yokatu bear dozun, eta zure aitaren aldetik zer esan bear dautsazun, idatzita iminiko dautzudaz guk irurok dakiguzan zerak; ortik yakingo dozu alkarrekin egongo zarien bakotxean ari zer esan; ortik uste izango dau ak, zuk zure aitaren biotza ustuten dautsazula, eta aren biotzetik itz egiten dautsazula.

PORL.—Zure bendeko nozu: mamirik agiri da emen.

KAM.—Onako au bide obe yatzu, zuok itxaso ezezagun, amesik be eginbako itxasbaztar, eta ezbear seguruen eskuetaratu baño: itxaropen barik, galbide batetik alde egin ordukoxe besteren bendean yausi baño: eztozu zure aingurak baño ezer seguruagorik; eta aingurok euren egikizunik onena egiten dabe zuk gura eztozun lekuan ba' zaukiez: ganera, ba-dakizu zori ona dala maitasunaren lokarririk onena, eta aren izate samurra ta biotza biak batera aldatzen dauzala ezbearrak eta zori gaiztoak.

PORL.—Biotatik bata egia da: rtire ustez zori txarrak aldatu daike arpegia. baña ez biotzik.

KAM.—Ori uste dozu, ala? Zabpi urteotan ezta izan zure aitarenean onango naibagerik.

PORL.—Ene Kamil on, yaiotzez gu baño atzerago dagoan bestean, gu baño aurrerago dago nire maitea azi-ezian.

KAM.—Ezin esan neinke zure maiteak yakintzarik ez izatea tamalgarri danik; eta izan be, irakasla dirudi orrek irakasten daragoioen geienentzako.

GAL.—Azketsi, yaun, zuri eskerrak emoteko arpegi gorriaz besterik eztodalako.

PORL.—Ene Galdua lirain-lirain ori!... Baña, ene! guk gure azpian doguzan arantza-sasiena!... Kamil, len nire aitaren eta orain nire yagola zaran ori; gure etxeko osakai ori!... zelan egiteko guk? Nik eztot Boemi' ko errege-semeari dagokon ondasunik; eta enaz agertuko Sitxili'n be aren semeri dagokionez.

KAM.—Ene yaun, ez izan orren bildurrik eta kezkarik: nire ondasunen barri ba-dakizula uste dot, guztiak an dagozala: neuk artuko dot ardurea zu errege-aginduz izentaurik agertu zadizan an nire egitekoa egiteko. Esaterako, yaun, ezeren bearrik eztozula izango yakin dagizun..., entzun itz bat. (Biak berezian alkarrekin itz egiten dabe).

AUTOLIKA aurrera ostera be,

AUT.—Ja, ja! Zíntzotasunaren ergel! eta Uste, aren anai kutunaren tentel! nire zaborra guztia saldu dot nik; etxat gelditu guzurrezko arri-pitxirik, galartzurik, ispillurik, usaikirik, kakotxik, irudi-idaztirik, balatik, eskuzorrorik, oski-lokarririk, beso-estunik, adarerestunik, aiztorik nire kutxan; mordoka etorri yataz nok erosiko lenen nire apaingarri zirtzilak eta beste aleizak, zer andi bailitzazan eta erosleari onespena bailekartsoe: ori izan yat bide noren sakela egoan gizenen ikusteko; eta ikusi dodana gogoan dot nire onurarako. Gizon sentzundun izateko zerbaiten bearrik dauen nire aketoak, neska-abestien zaleegi eginik, eztauz baztartu gura izan bere esku zakarrak eresia ta itzak, bitzuek erosi arte; olan, besteen belarriak zur imini izan dauz-eta, euren beste sentzuak belarrietan yarri izan dira: gonea bera be aldean eukonari ostu zeinskion..., ez dira oartzen izan; parketako sakeletik dirua ostutea uskeri uts izan da; katetxoetatik dingiliz egon diran giltzak límatu- ezinik eztot izan: eztabe ezer entzuten izan, ez ezeren ukuturik somatu, nire aitaren abestia entzun, eta aren aletzaz zurtuta gelditu b:iño. Olan, erdi-loak arturik egon izan diran aldi orretan, nik ebagi ta ostu egin dautsedaz euren yai-sakeiak; olan, agure zarra bere alaba ta errege-semearen aurka asarre-zarataka ta alaka etorri izan ezpa' litz, eta nire belak galbota-artetik uxatu, gudarozte aretako zizkurik etzan bizirik gelditu izango. (KAMIL, PORLIXEL eta GALDUA aurrera datoz).

KAM.—Bai, baña zuok ara eldu-ala, bide onetaz elduko yatzuzan nire idazkiak argituko dabe zure ez-bai ori.

PORL.—Eta zuk Lonti'gandik iristeko alegi-nak egingo dozuzanak-

KAM.—Zure aita nasaituko dabe.

GAL.—Zori ona lagun bekitzu! zuk diñozun guztia begiko da.

KAM.—Nor dogu emen? (AUTOLIKA ikusiala). Gure asmorako erabiliko dogu au; eztcgu alperrik galdu bear gurs alderako izan leitekenik.

AUT.—(Bere kitean) Entzun izan ba'nabe, entzun, zer? Gitxienez eskegi egingo nabe.

KAM.—Nolan abil, lagun on? Zegaitik ikaratu az olan? Ez izan bildurrik, gizon; etxoagu iri gatxik egiteko asmorik.

AUT.—Ni gizon errukarri nozu, yaun.

KAM.—Ba, olangoxe izan adi eurrsrantzean be; ori eztausk iñok ostuko; orraitiño, ire landertasunaren azala aldatu egin bear yoagu; orrazkero, bertatik erantzi egizak ire soñekoak..., orrako orren bearrean gagozala gogoratu egik..., eta gizazindo onen soñekoak yantzi egizak: txakurrandi baten alderako be gauz ez diran orrek artzen dauzan soñekoak i zorrean iminiarren, autso au be ire alde (Dirua emon-ala!.

AUT.—Ni Iagun bearreko nozu, yaun... (Bere kitean) Nik ondo be ondo zazauedaz.

KAM.—Bai, arren, egik egiteko ori: aitonen seme au dagoneko narrugorritu dok ia.

AUT.—Benetan diñozu, ala, yaun? (Bere kitean) Daragoioenari usaina artzen asirik naz...

PORL.—Egik egiteko ori, arren.

AUT.—Izan be, baia artu izan dot: baña nire yakinkidetzeak ez artzeko diraust.

KAM.—Askatu, askatu botoiok eta kakotxok. (PORL. eta AUT. euren soñekoak aldatzen dabez). Neskato zori ontsu ori.... zure barrubarruan sartu nire iragarpena!.,. zuk ostondu egin bear dozu nonbaiten; artuizu zure maitearen txapela, ta sartuizu buruan begiak baño beragoraño; kokomarrotu egizu zure arpegia; saskildu zadiz; al dozun bestean zure antza alda egizu; begien bildur naz-eta, inck ezciçutzeka ontziratu zadizan.

GAL.—Antzeikia dagonetan dagonazkero, nik be niiea egin beaiko dot.

KAM.—Eztago beste bideiik_. Egin dozue zuok zuona, ala?

PORL.—Niie aitakin topo egin ba'nei oiain, eninduke aituko bere semetzat.

KAM.—Ez, zuk eztozu eroango txapelik (GAL-DUA'ri damotso). Erdu, andera, erdu. Agur, adiskide.

AUT.—Agui, yaun.

PORL.—Galdua ori! zei aztu yaku? Anen, itz bat (Biak bietaia itz dagie).

KAM.—(Beie kitean) Nik urien egin bear dodana, enegeii onein igesiaren eta norako bidea artu dabenaren bani emotea izango da; eta itxaioa dodanez, al ba'dot, onein atzetik yoateia beartuko dot a: eta aii lagun eginaz birrikusiko dot Sitxili; eta izan be, Sitxili ikusteko emakumek baño egairi andiagorik dot nik.

PORL.—Zori ona bekigu lagun! Onazkero, Kamil, gu ba-goaz itxas-ertzera.

KAM.—Lenago ta oba. (PORL., GAL., eta KAM.'ek alde).

AUT.—Ba-dakit arazo cnek zet-rra yot'ín dauen...., ba-dantzut: zizku-ostutzalleari bearreko yakoz belarria idigirik, begia zoli, ta eskua bizkor eukitea: sur ona be bearreko yako, beste ssntzuen egitekoaren usaina artzeko. Gizon geztoa gizentzeko tertzioa au dala ba-dakust. Zelan egiteko onango aldakuntzarik bere alderako zeren bategaitik ezik? Ze elbururen billa dabil aldakuntza onegaz? Segurutik, yainkoak gure alde dagoz urte onetan, eta edozer egin geinke, itsumustuka izanda be. Errege-semea bera zitalkeri itzalik egin-aginik da..., bere konpaidea aldean dauela, bere aitagandik igesirik: orreik dagiena erregeri iragartea zintzotasun litzakela ba'nenki, eneunskio iragarriko; ez iragartea zitalagotzat dot; eta olan nire ogibideari zinizoago nalxako.

AKETOA ta ARTZAIA aurrera ostera be.

Albora egik, mutil, albora: buru berorentzako emen gei geiago dogu: edozein bídaburu, edozein sal-etxe, yauretxe, batzar, epaitegi yako on gizon zurrari lan egiteko.

AKETOAK.—Begira, begira; zu bai ba-zareala gizon orain! eztago beste biderik neskato a zure eztala, iñona dala esatea baño.

ARTZAIAK.—Bai, baña entzun nagik.

AKETOAK.—Bai, baña entzun nagizu.

ARTZAIAK,—Orrazkero. ekin.

AKETOAK.—A zure soñetiko, ez odoletikorik eztanazkero, zuie aiagiak eta odolak eztautso egin izan irainik erregeri: eta orrazkero eztauko ak zetan zigortu ez zure aragirik. ez zure odolik. Eiakutsi egiozuz neskatoaii aldean idoio zeuntsazan zeiok; ixileko zeiok..., neskatoak aldean eztausnaz beste guztia: bein ori egindakoan ez izan legearen ardurarik: seguru zagoz orretaz.

ARTZAIAK.—Dan dana esango yautsat erregeri, itzik itxi barik esateka. Bai, eta aren semearen yolasak be bai; eta izan be, nire ustez, *a* eztok zintzo ez nitzako, ez bere aitarentzako, ni enegeren aitaginarreba-kide egin-aginik ibili izan dok-eta.

AKETOAK.—Izan be, erregeren aitaginarreba-kide izatea da zugandik urrinen legoken zera: eta olangorik yazo izatekotan zure odcla elitzatekean dan baño arean lainago ta aintzakoago.

AUT.—(Bere kitean) Zur be zur erabagi dozue. tentelok!

ARTZAIAK.—Tira ba, goazen erregegana: zorro onetan dagonak bizarrari azka iminiko dau errege!

AUT.—(Bere kitean} Eztakit alaka au ze eragozpen izan leiteken nire ugazabak igesteko.

AKETOAK.—Biotz-biotzez otoí egizu eirege bere yauregian idoro dagigun.

AUT.—(Bere kitean) Ni neurez zindo izan ezarien, batzuetan, alanbearrez, ba-naz orraitiño. Sartu dagidan sakelean nire ate-saltzalle-bizarra (Guzuriezko bizarra erantzi egiten dau). Kaxo, basenitanok! noia zoaze?

ARTZAIAK.—Enege-yauiegiia, yaun oiri eder ba'yatzu.

AUT.—Ze arazok, nogazkok zaroez ara? Zer daroazue zorro orretan? Non bizi zarie? Ze izen yatzue? Zenbana urte dozue? Ze ondasun dozue? Zuon yatorria ta beste edozein yakingarri iragarri ta erakus egídazue.

AKETOAK.—Yaun, erriko seme lau gatxatsuz gu.

AUT.—Guzur andi orixe: lauak zuok? Bai, zera! zuok latz eta uletsu zarie, ez lau eta aratz. Ez etorri nigana guzurra dariola: sal-erosleai bakanik dagoke guzunik esatea: eta aik guii. gudarioi, sarritan saltzen dauskue guzurra; cik emoten dauskuen guzurra guk diiu zindoz oidaintzen dautsegu, ez galtzaiduzko aiotz eta aistokadaz; oirazkero, eztauskue utsean emoten guzurra.

AKETOAK.—Zuk zeuk bai izan dozu guzurra sartzen dauskunaren antzík, zure era-msra apain-txairoakaitik izan ezpa'litz.

ARTZAIAK.—Eder ba'yatzu, yaun, itaun bat. Erregy-yuureyiiur suru, ulu?

AUT.—Eder izan, naiz izan ez, errege-yauregiko nozu ni. Eztozu somatzen yauregiusainik soñekootan, ala? Soñekook emoten dausten txairotasuna ez ete da yauregikona, ala? Ez ete doako zure surrari nigandik yauregi-sundarik? Ez ete dot somatzen nik yauregi-iguinik zure zirtzilkerian? Ala nik zure arazoa ukutu, naiz zuri iragarriazoagaitik, ni enazala yauregikorik uste dozu? Ni yauregitar nozu burutik beatzetaraño, eta zure arazoarí an aurrera naiz atzera eragingo dautsana izan be; orrazkero, zure arazoa iragarteko agintzen dautzut.

ARTZAIAK.—Erregentzako da nire arazoa yaun.

AUT.—Nor dozu bitartekotzat aganako?

ARTZAIAK,—Eztakit, eder ba'yatzu.

AKETOAK.—Errege - yauregikoak basaollar egaztiari esaten dautsoe bitarteko; esaiozu eztozula bat bera be.

ARTZAIAK.—Eztogu bat bera be, yaun; eztot basaollarrik, ez arrik, ez emerik.

AUT.—Gu, gizon tentel ezkareanok, gu bai ba-gareala zori ontsu! orraitiño ni neu be, neurez, oneik dirana izan neintekean, eta, orrazkero, eztodaz zapuztu bear.

AKETOAK.—Au yauregitar gallenetariko dogu, urrean.

ARTZAIAK.—Orren soñekoak eder dozak izan, baña eztarabiltz aratz eta txairo.

AKETOAK.—Orren burukeritsu dalakoxe zindoago dirudi: gizon andi da ori, bai orixe; aginetako zotzetik igarten dautsat.

AUT.—Zorro ori? Zer dozue zorro orretan? Norako dozue zorro ori?

ARTZAIA.—Yaun, zorro ta kutxa oneitan dagozan ixilkizunak andi baño andiago dirata, erregez bestek eztau yakin bear; eta ak yakingo dau ordubete-barru, ari itz egitera eldu ba'nadi.

AUT.—Agure, alperrik nekatu zara.

ARTZAIAK.—Zegaitik. yaun?

AUT.—Yauregian eztago errege; itxas-ontzi barrira yoana da gogaldi txarra uxatu ta egurastuten: eta izan be, zer benik aituteko gauz ba'zara, errege naibageturik dagola yakin bear dozu.

ARTZAIAK.—Olan dala diñoe, yaun..., artzaialabakin ezkontzeko zan bere semea dalata.

AUT.—Orrako artzai ori onazkero eskuak lotuta ezpa'dago, egaz igesiko al dau: ak entzun bearko dauzan biraoak, ak yasan bearko dauzan elorrioak, gizonik gogorrenari erasoteko, bidutziren biotza austeko asko iiiuuiju uira.

AKETOAK.—Ori uste dozu, ala, yaun?

AUT.—Ak berak bakarrik eztau yasango buruk asmau leikenik gordinena eta apenak idoro leikenik mingotsena: baita aren senideak be, berrogei belaunaldi urrin aurkituarren, eskegitzallearen bendean yausiko dira: eta ori guzti ori errukarri ta negargarri izanarren be, bearreko da. Ardiai txistuka dabilen agure zitalik, aari-yagolarik, bere alabea errege-semekin ezkondu-billa ibili izana andi da, gero, izan be! Balzuk diñoenez, orrako ori arrika ilgo ei dabe: baña, nire ustez, olango eriotzea bigunegi da arentzako. Izan be, gure errege-aulkia artegira eroatea! olangorik!... eriotza guztiak gitxiegi dira; gordinena, bigun-arinegi.

AKETOAK.—Orrako agureak semerik dauenik entzun ete dozu, yaun?

AUT.—Bai, ba-dau..., eta narrua eratsi bear litxakio ari bizirik: gero eztiz igurtzi, erlabiotegi-ganean iminita; eta gero an yarrai erdi-ilik geldítu arte: gero ugorkiz. espirituaz biztu, ugorkiz naiz beste edari beroz: gero, aragi bizitan dagola, eta aurreztik iragarrita dagon egunik beroenean luterrezko ormeari deutsala iminiko da. egoaldetiko eguzkiak bete-betean yoten dauela, ta ara euliak burrundadaka doakozala bertan ilik itxi arteño. Baña zer dala-ta daragoiogu euren gaiztakerien aldean euren zori txarrak uskeri baño ez diran azpiyale zitalotaz? Gizon zindo ta alozbako antza dozuenazkero, esaidaue, zek zaroaze erregegana? Arazoa buruan erabili ta aintzakotzat etsi ba'dagit, neuk eroango zauedaz erregeren ontzira; zuok aren aurreratu, zuon izenez eta aldez zerbait iragarri eta, erregez beste gizonífc izatekotan zuon eskabideak burutzeko, zer guztiotarako gizona emen dozue,

AKETOAK.—Al eta esku andiko dirudi gizon orrek: egiune egizu orrekin, emoiozu urrerik; eta agintaritza-ala artz muker-setati izanarren. sarritan, surretatik elduta, aurrera eroaten da urrez: ziskuaren barrualdea erakus egiozu orren eskuaren gane-aldeari, bai, ta dana dago eginik. Ez aztu, gero... arrikatu ta narrua bizirik kenduko dautzuela.

ARTZAIAK.—Yaun, gure egitekoa zure lepora artzea gogoko ba'yatzu, emen dozu nik dodan urrea: beste onenbeste be emongo dautzut eta gizon gazte au baitzat itxiko nik a ekarri arte.

AUT.—Agindua nik bein egindakoan, ala?

ARTZAIAK.—Bai, yaun.

AUT.—Ondo dago, ekazu erdia... -I be egiteko onetan erkide az, ala?

AKETOAK.—Zerbaitariko ta arean bai, yaun: baña nire auzia Iarri ta errukarri izanarren, eztot uste orregaitik narrua kenduko daustenik.

AUT.—Olangoxe auzian aurkitzen da arako artzaiaren semea be. Eskegi dagiela, besteentzako ikasbide izan dadin!

AKETOAK.—Nasai, nasai, aita! erregegana yoan bear dogu, eta ari erakutsi guk idorotako zer bakanak; *añ* iragarri bear dautsagu a eztala zure alabarik, ezta nire arrabarik be: ostantxean galduak gara. gureak egin dau.- Yaun, zuk zure egikizuna burutu dagizunean, neuk be gizon onek beste emongo dautzut; eta, onek esan dauenez, ni emen geldituko naz baitzat, orrek urrea ekarri arteño.

AUT.—Sinisten dautzuet-eta eztago bai-bearrik. Yoan nire aurretik itxas-ertzera; eskoatara artu: esiari begirada bat eginik, or nozue zuon atzetik ara.

AKETOAK.—Zori ontsu be zori ontsu gara gizon onegaz.

ARTZAIAK.—Goazen aurretik, orrek agindu dauskunez: yainkoak bidali dauskue ori gure onerako. (ARTZAIAK eta AKETOAK alde).

AUT.—Zindo izateko asmorik ba'neu, Zoriak enindukela yasango dakust: ak agora egozten daustaz sariak. Ereti bi dabilkidaz orain ondo esaten eta labankeri-zurikerietan: urrea ta nire ugazaba errege-semeari on-egitea; nok daki ze irabazi letorkidan ortik? Sator biok, itsu biok itxas-ontzira eroango dodaz; ak atzera legorreratu gura ba'Ieiz, eta erregeganako daben alaketeak beragazko zer-ikusirik eztauela uste ba'dagi, onein otsein izan nazalako ni zital deitu baño eztauko, olango izenek niri minik txikienik egtieko narrua gogorregi dot-eta, baita ortik letorken lotseak niri zirkinik eragiteko be. Agana eroango dodaz oneik: ba-leiteke onako au nitzako ereti bikain izatea. (Alde dagi).

V EKITALDI

I AGERLEKU.-SITXILI. LONTI'n yauregiko gela.

LONTI, KELOMEN, DION, PAULINE, ta beste balzuk aurrera.

KEL.—Yaun, dagoneko da asko egin dozuna, eta gurenek baño garbai geiago izan dozu; ezin egin izan zeinkean ordaindu eztozun gaiztakeririk; izan be, zure okerreriai zor yaken baño geiago ordaindu dozu: azkenengotzat, yainkoak egin izan dabena bera, egizu asketsi zure gaiztakeria; areikin batera, zeuk be asketsi egizu.

LONTI'K.—Nire emaztea ta aren on-indarrak oroitzen dodazan artean, nik ezin aztu nengikez areitan aurkitzen dodazan nire orbanak: eta, olan, oraindik be gogotan dodaz nik egin okerrak: nire okerrak ain andi jzan dira izan be-ta, nire bakalderria oñordeko barik gelditu da, eta ni eguño gizonek itxaron leiken lagunik eztiena manaturik, ondaturik gelditu naz.

PAUL.—Egia, egiegi, yaun: munduko emakume guztiak banan-banan ezkondu izan ba'zenduz, naiz emakume oso bat egiteko guztietarik onik artu izan ba'zendu be, orrako bat ori elitzatekean zuk il zenduna bestean on.

LONTI'k.—Ori uste dot neuk be… II! nik il neban a! bai, ori egin neban nik: baña nik egin *nebala esanaz.* zartada gogorra *la* gordina emoten daustazu: zure miñean eta nire gogorapenean, bietan da ori gordin eta mingots: arren, bai, arren, meatz baño ez egidazu esan olangorik.

KEL.—Ez bein be geiagotan, andera on; amaika zer esan zeinkezan aldi onetarako ongarriago, eta zure txerakortasunarí egokiago letorkiozanak.

PAUL.—Ori bariro ezkonduazoko leukienetariko zauguz zu.

DION'ek.—Zeuk be ori gura ez izatekotan, eztautsazu errukirik bakalderriari, eta eztozu erregenoaren oroitzarik be; zuk gitxi dozu gogoan zelango galbideak etorri Iekikiozan bakalderriari gure erregek ondorengorik ez izatekotan, eta begira dagozan guk eztakiguzanak zelan iruntsiko leukien. Zer dozu ederragorik eta gurenagorik erregeno zana ondo dagola gogoratzeaz poztutea baño? Orain errege nasaitzeko ta etorkizunaren onerako. zer gurenagorik erregearen oea ostera be arako lagun eztiren bategaz onetsi baño?

PAUL.—Eztago orretarako lain danik, yoan

zanaren aldean. Orrez ganera. yainkoak euren ixilkizunak betetzea gura dabe; eta izan be, ez ete dau esan Apolon yainkoak, ez ete dau esan ak, aren iragarpenaren arauz, Lonti erregek eztauela izan bear ondorengorik bere ume galdua idoro arte? Eta olangorik yazotea nire senar Antigon bere ilobiko estalkia ausirik nire aurrera agertzea bestean gaitz eta ustebako litzateke; bai, olangorik ustebako ta buruaz besterako litzateke; izan be, a seintxoakin batera il zan, uste onen aldez neure burua yokatuko neukenez. Zure onuz nire yaunak yainkoen aurka yokatu bear leuke, euren gurariaz bestera ibili... (LONTI'ri). Ez izan ondorengoren kezka ta ardurarik. Buruntzeak iritxiko dau ondorengorik; lainenari itxi eutsan Alesander Andiak berea: olan, omena zan aren oñordeko izateko.

LONTI'k.—Pauline on ori... dakidanez Ermione'n oroimena goi-goian dozun ori... Ene! zure onuari yarrai al izan nintxakon beti!.. olan izan ba'litz, oraintxe be nik aren begiak bete-betean begiratu al izango neunkez; bere ezpanetatik bere laztanen altxorra artu al neunkakean...

PAUL.—Eta aik emonak zureakaz aberatsagoturik itxi.

LONTI'k.—Egia diñozu. Eztago alango emazterik; orrazkero, eztot artuko emazterik; txarragorik artu ba'nei eta a baño obeto erabili, olango egitek aren gogo gurenari ostera be soña arrazoko leuskio; eta, bidebaga egiten dautsagun toki onetara naibageturik agertu ta gedar egingo leuke: "Zegaitik egiten daustazu bidebagakeri ori?".

PAUL.—Orretarako alik ba'leu, biderik asko leukake.

LONTI'k.—Bai, ba-leukake; eta ezkondu dodana ilteraño beartuko ninduke.

PAUL.—Nik beintzat ori egingo neunke. Ni izatekotan cñez ibilten lekiken aren iratxoa, zure emazte barriaren begiai so egiteko aginduko neunskizu, eta esateko agindu ia aren begietako zein ataltxo ilungaitik autu izan dozun; gero irrintze nengike, zurs belyrriak itzekaretzeko besteko irrintze egin be; eta oneik Iitzatekez nire itzak: "Oroi nire begiak"...

LONTI'k.—Izarrak, izarrak ziran aren begiak, eta beste begi guztiak txingar ilak!.. Ez izan emazterik artuko dodanaren bildunik; nik eztot artuko emazterik, Pauline.

PAUL.—Nire kitetiko baimenaz ezik emazterik eztozula artuko zin egingo daustazu, ala?

LON.—Ba, eztot artuko sekula be. Pauline: neure gogoarren dirautzut!

PAUL.—Orrazkero, ene yaun onok, zuok izan orren zinaren autorla.

KEL.—Geiegi zirikatzen dozu zuk.

PAUL.—Ermione'n irudia langoxe besterik idoro dagian arte beartu gura dot nik ori.

KEL.—Andera on...

PAUL.—Nik egin dot nire egitekoa. Orraitiño, nire yauna ezkondu ba'dadi... zuk gura izatekotan, yaun, eta agirian dago zuk gurako dozula... emoidazu zutzako erregenoa billatzeko egikizuna: ezta izango zure lengoa bestean gazterik; baña zure lengo erregenoaren iratxoa oñez ibiliko ba'litz, a zure besoetan ikusiak poztuko leukena langoxe izango da.

LON.—Ene Pauline zintzo ori, ni enaz ezkonduko zuk agindu arte.

PAUL.—Zure lengo erregenoak barriro arnasea artu dagianean yazoko da ori: iñoz bez ararteraño.

Leñargi-gizon aurrera.

LEÑARGI-g.—Porlixel dalako, Polixen'en semeak, nik eguño ikusi izan dodan emazterik lirainenakin, zure aurrera bide egiten iztea gura dau.

LON.—Nortuzuk dakaz bere laguntzat? Ori eztator bere aitaren ospe ta anditasunez: beste barik eta otoz-otoan agertzeak erakusten dauskunez, aren etorrera au ezta aurreztik gertaurikorik, bearrak eta besterik ezinak eragina baño. Ze lagungo dakar?

LEÑARGI-g.—Gitxi baño ez, eta eurak zirtzilak.

LON.—Aren emaztea datorrela berakin, diñozu?

LEÑARGI-g.—Bai; eta nire ustez, eguño eguzkiak argi egin dautson lurreko izakirik bardinbakoena.

PAUL.—Ermione ori! oraingo aldiak oro euren burua igaroak baño obetzat esten dabenez, zuk be zure obitik gaur agiri danari aurrera bidea egiten itxi bearko dautsazu. Yaun, zuk zeuk esan eta idatzi dozu, -baña orain zuk idatzia idatziaren geia bera baño otzago da. -zeuk esan eta idatzi dozu: "Etzan izan aren bardinik, eta ez izango be a bardintzekorik";.. ori izan zan zuk bein aren edertasunaz esan izan zenduna; zure esakune ori asko be asko ibitu ta zimeldu da, a baño oberik ikusi dozula esateko.

LEÑARGI'g—Parkatu, andera. bata nik ia azturik dot;.. parkatu;.. besteak, zure begia

beragandu dagianean, zure miña be beregandu-ko dau. Izaki onek yaurespide barririk asi ba'legi asi, beste yaurespiden aldeko guztien garra iraungi, itzali egingo leuke; eta beronek agindu-ala edonor bere yarraila egingo leuke.

PAUL.—Ostera; emakumerik ez, ala?

LEÑARGI-g.—Emakumek maite izango dabe ori eta edozein gizon baño lainago dala esango; eta gizonak, emakumerík bikainena dala esango dabe.

LON.—Oa, Kelomen; ire adiskide zintzo batzukin yoanik, gure aurrera ekarri egizak, guk besartean estutuko... Orraitiño be, iñondiko da au, (KELOMEN, Yaunak, eta Leñargi-gizonak alde) *a* onan ixilik gugana etortea.

PAUL.—Gure errege-semea, umerik pitxiena, onako au ikusteko bizi izan ba'litz, bikote ederra egingo eukean yaun gazte onekin: euren adinetan ilebeteren alderik be ez eben.

LON.—Arren, bego; ez yarrai; zuk ba-dakizu, barrien barri ilten yatala zuk aitatzen dozun bakotxean; segurutik, aitonen seme au ikusi dagidanean, zure itzak burua galduaginik iminiko naben gogapenak ekarriko daustez burura... Eldu dira...

Aurrera ostera be KELOMEN, PORLIXEL eta GALDUA, Lagungoakin.

Errege-seme, ezkontzagazko zintzo-zintzo izan zan zure ama: eta izan be, zu sortzerakoan, zure aitaren irudi bete-betea ta egin-egina ezarri eutzun: zure aitaren irudi egin-egina aldean dozu-ta, ogei ta bat urte baño ezpa' neuz, nire anai deituko zindukedaz, a deitzen nebanez, eta guk beñola egindako okerrerien batzuk eralgiko neunskizuz. Ondo be ondo etorria zauguz! Eta zure emazte liraina... yainkonoa!.. Ene! ai ene! nik galdu neban bikotea, olantxe, zuok bikote ori zagozenez egon eitekean *a* b i k o t e a zeru-lurren bitartean zutunik, guztien arrigarri! Orrez ganera, ta nire zorakeri utsez, zure aita adoretsuaren laguntasuna ta adiskidetasuna be galdu nebazan, eta *a* beste bein ikusi al izateko oraindik bizi gura neunke, nire bizitza au errukarritan be errukarri izanarren...

PORL.—Aren aginduz eldu naz Sitxili onetara, eta agandik dakartzudaz erregek bere adiskide anaiari bidali leiskiozan agur eta gorantziak: eta zartzaroaren begira dagon makaleriak bere indarren zati bat kendu izan ezpa'leutso, ak berak neurtu izango eukezan zure ta aren errege-yezarlekuen bitartean dagozan legor eta itxasoak, eta zure arpegia ikusiko eukean; berak esan daustanez, ak zu agintza-makilla guztiak baño, eta bizirik diran olangorik daroenak baño maiteago zauz.

LON.—Ene anai ori!... gizazindo on ori!... nik egin izan dautzudazan bide-bageak barriro biztuten dira nire buruan, nire barruan: eta zure otseintza, orren bakan-txeratsuok, nire naibagea barriztatzeko baño ez dira!.. Ondo etorria ona, lurrarentzako udabarria legetxe! Eta orrez ganera, ak ereduen eredu dan andera gazte au Netun'en esku bilgurgarrietan eta onenez be zakarretan imini izan dau, onen nekeen eta gitxiago onen galbideen lain enazan gizon oneri ikustaldi ta txera egiteko?

PORL.—Ene yaun on, Libi'tik etorri da au (8).

LON.—Esmal gudari adoretsua, yaun zindoomentsu *a*, bilduirez maite daben toki atatik, ala?

PORL.—Bai, andixik, errege yaukal ori; agandik gatoz, eta agur egiterakoan ak ixuri izan dauzan negarrak diragarrenez, aren alaba da au: andik onakoan itxasoa zearkatu izan dogu egoe-axe zori ontsuz, zu, nagusi ori, nire aitaren aginduz ikusteko; nire lagunik onen eta geienak zure Sitxili'ko itxas-ertzetik atzera bidali dodaz; eta Boemi'rako bidean dira, nik Libi'n izan dodan zori onaren barri ezeze, ni ta nire emaztea ona onik eldu izanarena be ari emoteko.

LON.—Yainko onetsiak guztitariko kutsutik garbituko al dabe gure eguratsa zuok emen zarien bitartean! Zuk aita guren-gallen dozu, aitonen seme txeratsu-maitagarri; eta nik gizon lotsagarri ari oben egin izan dautsat: eta orregaitik yainkoak, asarrez, oñordeko barik itxi izan nabe; zure aita, ostera, onetsia da zugaz, aren ontasunaren lain zarean orregaz, ak yainkoengandik irabazi izan dauenez. Ene! ni bai ba-nintzatekela zori ontsu orain, zuon antzeko ziran nire semea ta alabea begien aurrean ba'neuz!

Yaun andiki aurrera.

YAUNAK.—Yaun zindo-zindo ori, orain iragarriko dautzudana eleuskit iñok sinistuko. sinis-eragingeia onen urr ezpa-lego. Eder bekitzu, yaun andi orri, Boemi'ko bakaldun-

(8) Libi Sitxili'ren egoe-aldean aurrez-aurre ourkiízen dan lurraldea da, Legorrarteko Itxasoa bien bitartean dala.

uk ber-beruk uijur eyiieu uuuiiu nire bitartez; aren semea zuk estu dagizula eske dagotzu a, aren semeak, aitaganako lotsea ta bendekotasuna biak batera baztarturik, iges egin izan dau bere aitagandik, bere itxaropenetatik, eta artzai-alabakin iges egin be-eta.

LON.—Non dok Boemi'ko erregea? Hz egik.

YAUNAK.—Emen zure urian; agandik natortzu oraintxe; arriturik itz dagitzut; eta ez dira gitxiagogaitik nire arritua ta geznea. Dirudinez, bikote lerden onen yarrai zure errege-yauregira iraduz etorrela, bidean aurkitu dauz ak andera dirudin onen aita ta nebea, errege-seme onekin batera euren aberritik alde eginak.

PORL.—Kamil'ek iruzur egin daust; bai, orain arte aren omen eta zindotasunak ezetariko akatsik izan eztauen Kamil'ek.

YAUNAK.—Bai, ari ezarri egiozu erru ori; zure aita eregekin dago a.

LON.—Nor? Kamil, ala?

YAUNAK.—Kamil, yaun; arekin itz egina nozu; ak daukaz nik aitatu dodazan gizon landerrak. Eguño eztot ikusi izan gizonik aik bestean bildur-ikaraz; belaunbiko yarten dira, lurrari mun egiten dautsoe; birao egiten dautse euren buruai itz egin-ala; Boemi'ko bakaldunak entzungor egiten dautse, eta eriotzarik gordinenaz zemaitzen dauz.

GALDUA'k.—Nire aita errukariarena! Barrendariak iminten dauskuez yainkoak, eztabe gura gu ezkondu gadizanik.

LON.—Ezkonduta zagoze, ala ez?

PORL.—Oraindik ez, yaun, eta ezkonduko gareanaren antzik be eztago; nik ikusita dodanez, izarrak lenen ibar-sakostai argi ta mun egiten dautse: goikoai eta bekoai. bitzuei, bardin agertzen yakez era-eretiak.

ala?

PORL.—Izango da bein nire emazte izan dadinean.

LON.—Dakustanez, zure "bein" ori, zure aita baño bizkorrago ezpa'dabil, ezta etorriko astiro baño. Damu dot, damu andi, gero, zure bendekotasun-lokarriak ausiiik, zure aitaren gurariaz bestera yokatu dozulako, eta beste ainbeste damu dot zuk autua zure pozkarri oso izateko edertasunez bestean laintasunez aberats ez izateaz.

PORL.—Ene maite-kutun ori, eragi zure burubegiak: nire aitakin batera arerio agiri dogun Zoria gure eizean ibiliarren, ak eztau ezetariko alik eta indarrik alkarreganako gure mailasuna aldatzeko... Arren, yaun, gogora egizu, ni orain nazanez, zeu be gazte izana zareala; nire alde, nire bitarteko yarri zakidaz, zeuk orduan izan zenduzan biotzaldietaz oroiturik: zuk eskatuazkero, nire aitak zerik bikain-yorienak be emongo dautzuz, aletz uts bailitzaz.

LON.—Ak olangorik egitekotan, ak zirtzil-uskeritzat dauen zure maite liraina eskatuko neunskio.

PAUL. Yaun, ene nagusi, gazteegi da zure begia: zure erregenoa il baño ilebete lenago, a zuk orain begiratzen dozuna baño begiragarriago zan.

LON.—Oni egin izan dautsadazan begirakuneetan be axe etorri yat gogora.

(PORLIXEL'eri) Baña zure eskaria oraindik erantzuteko dago. Zure aitagana yoango naz: zure gurariak zure omena ez itzuli ta erauztekotan, zure ta zure gurarien adiskide nozu: egiteko orrek naroa orain zure aitagana; orrazkero, erdu nire yarrai, eta oartu ze bide artzen dodan. Goazen, ene yaun on. (Alde dagie).

II AGERLEKU.-Lengoxea. Errege-yauregiaren aurrera.

AUTOLIKA ta Leñargi-gizon aurrera.

AUT.—Arren, yaun, aren azalbenetan aren aurrean egon zara, ala?

I LEÑARGI-g.—Aren aldamenean egon naz ak zorroa askatu ta idigi dauenean; artzai zarrari zorroa zelan idoro eban esaten entzun dautsat: orduan, apur bat gelduta gelditu ondoren, gelatik alde egiteko agindu dauskue; auxe bakarrik, umea idoro egin ebala esaten entzun dautsadala artzaiari uste dot.

AUT.—Pozik yakingo neunke orrako zer ori zetan amaitzen dan.

I LEÑARGI-k.—Arazo onen ondorenaren txatalez besterik ez dakust nik bein beinean; baña nik errege ta Kamil'gan ikusi izan dodazan aldakuntzak arrituenak izan dira: alkar begiratuaren begiratuz begiak euren zuloetatik urten bear yakezala irudian; euren ixiliak berak solasean eragoion; euren soin-igikun eta aieruak itzik asko egiten izan dabe; munduren bat yarei, naiz ondatu dala entzun izan dabenarena egi-

ten izan dabe: andi eretxiaren biotzaldi itzala agiri izan da euren arpegietan; baña ikusten izan dauenaz besterik eztakian zurrenak be ezin esan eikean eragiten eutsena poza ala naibagea zanentz;.. baña batak edo besteak izan bear dau, nai ta nai ez. Emen dator zori onez zera obeto dakian gizazindoren bat.

Leñargi-gizon aurrera.

Ze barri dogu. Errogeri?

II LEÑARGI-g.—Poza iragarteko suak, eta suak, besterik ezer bez: bete da arako yainko-iragarpena; billatu ta idoro dabe erege-alabea; ordu onetan agertu dan arrigarriaren arrigarria azaldu ta iragarteko balat-egille guztiak ez dira asko. Emen dator Pauline anderearen ondasunzaina: orrek esan daiketzue geiagorik.

Irugarren Leñargi-gizona aurrera.

Ze bari <dogu orain, yaun? Zinezko, egiazko dala diñoen barri au, beñolako ipuinen ain antzeko da-ta, egia danentz ez-baian gelditzekoetariko da. Idoro dau erregek bere oñordekoa, ala?

III LEÑARGI-g.—Ori baño egiazkoagorik ezebez, egiaren inguruko zerak egiaren aldealdeko, egi-ernari, iñoz izatekotan: dantzuzuna ikusi dakusazula zin egingo zeunke. sinisbideak orrenbestean batera yoten dabeta. Ermione erregenoaren burusia; aren pitxia burusi-idunean: burusi orregaz batera idorotako Antigon'en idazkia, aren eskuz idatzia dala diñoena; antz-yardukeretan neskatoak dauen amaren antza; bere azibidearen ganetik ari darion zindo-usaina; oneik eta inguruko zer anitzek segurutasun osoz erregeren alabatzat diragarre neskatoa. Errege bien alkarganatzea eztozue ikusi, ala?

II LEÑARGI-g.—Ez.

III LEÑARGI-g.—Orrazkero, ikuskizunik ikusgarriena, azal-ezina galdu dozue. An ikusi zengikien poz bata bestea baño goragotzen, eta izan be naibageak negarrez eragoiola aikandik alde egin-bearrez esan eitekean; euren poza negarretan uger ebileneta. Begiak gora eragika eragoioen, eskuak gora yasoka. era-merai yaramonik egiteka, eta eurak ikusiaz etzenduzan ezagutuko euren yokabide eratsuz, euren soñekoz baño. Gure errege, bere alabea idoro izanaren pozez, bere kitetik urtenik, yauzi egiteko egoala esan eikean, eta poz ori galtzetiko izan bailitzan, gedar egin izan dau: "Ene! zure ama, zure ama!" eta gero Boemi'koari parka-eske erago dautso; gero bere suña besartean estutu dau; gero bere alabeari atximurka erago dautso, ari gogait eragiteraño; orain artzai zarrari eskerrak emoten daragoio, eta artzaia an dago aren aldamenean, ainbat erregeren agintzaldia ikusi ta eguraldiak erasoriko ur-odi bailitzan. Olango alkarregana batzeren barririk eztot nik, eta izan be, orrako ori azal-ezin da benetan.

II LEÑARGI-g.—Arren, zer yazo yakon umea emendik eroan eban Antigon'i?

III LEÑARGI-g.—A ixilik dago beñolako ipuinaren antzera, barriro azaltzeko geirik asko eukiarren, sinistea be lotan eta belarriak itxita dauzala egonarren. Artzek zati-zati egin eban a; artzaiaren semea da orrako orren autorla. eta ari sinisteko, aren xalotasun andiaz ganera, Antigon'en sur-zapi ta erestunak doguz. Pauline'k bere senarrarenak izantzat ezagutu dauzanak.

II LEÑARGI-g.—Zer yazo zan aren ontzi ta bide-lagunakaz?

III LEÑARGI-g.—Euren ugazabaren eriotzeagaz batera, eta artzaiaren begien auxrean itxasperatu ziran: eta olan, umea bertanbera izten lagun izandako guztiak galdurik ziran umea idoro baño len. Baña, ene! Pauline'n biotzak izan dauen burrukearena poz eta naibaga-artean! Aren begi bata lurra begira egon da bere senarra galdu izanagaitik, eta bestea gora-gora eragirik yainko-iragarpena beterik ikusiagaitik: erregealabea lurretik eragi ta bere besartean estu-estutu egin dau, bere biotzari yosteko izan bailitz, ordutik ara iñoz geiago galdugordetan aurkitu eztadin.

1 LEÑARGI-g.—Ekitaldi onen bentasuna erregek eta errege-semeak ikusgarri izan d'a. ekitaldia egín dabenak olangoxe izan dirata.

III LLÑARGI-g.—Biotz-eragingarrienetariko ukutze izan da, eta nire begietara amua egotzita, arrainik ez baña urik bai goatu izan daustana. arako erregek tapa-tapa ta argi ta garbi amaren eriotzea ta aren zertzeladak autortu izan dauzanean adi-adi egokon alabearen biotza itzalez ausi danean; oñaze-agiritik oñaze-agirira ak ai ene! esanala, negarak izan dirala nekez esango neunkena ixuri arte, nire biotzak beintzat odolezko negarra egin izan dau-ta. An izan dan gogorrenak be arpegiko margoak aldatu dauz; batzuk larritu egin dira; beste batzuk naibaga uts izan dira: mundu guztiak

iikiisi izun *tjd* i3u ÍIÍUSKÍZUH a, niundu guzt:a litzakean naibagetan.

I LENARGI-g.—Etorri dira errege-yauregira, ala?

III LEÑARGI-g.—Ez; Pauline'n ardurapean bere ama zanaren irudirik ba-dagoala errege-alabeak entzunik, Yulio Romano izeneko irudigille entzutetsuak aspaldi asi ta oraintsu burutu izan dauen irudia, eta irudigille antzetsu ori betikotasunaien yabe ba'litz, irudi orri arnas artu eragin eta izateari bere ekandua galazoko leuskionak bere lana irudi-geiaren ain antzeko egin izan dau-ta, or diñoenez, itz egingo zeunskio ta erantzunaren begira gelditu: ...ara yoanik diia maitasunaren iriitsak bultzauta; eta an bertan apaltzeko asmotan dira.

II LEÑARGI-g.—Pauline'k an zeregin andiren bat ebala uste izan dot nik: eta izan be. Ermione il zanazkero, a, bera beretara, egunoro birritan edo iru bider yoaten izan da etxe atara- Ara yoango gara gu be, ta gure laguntasunaz poza osotu, ala?

I LEÑARGI-g.—Nor egon be egoteko ara barik, orretarako baimenik izatekotan? Begikiñu bakotxeko txera arrai barriren bat sortuko da: gu andik alde eginik egonaz gure yakintzeak eztau ezei iiabaziko. Goazen. (Leñargi-gizonak alde).

AUT.—Lengo nire bizitzako lerarik ezpa'neu, neu nintzake batzarrekoen gogo-begiak nigan iminiazoko neunskezana. Neuk eroan nebazan agurea ta bere semea errege-semearen ontzira; aik zonoaz eta eztakit zer bestetzaz eragoten entzun nebazala esan neuntsan nik ari; baña bateko, a aldi atan artzai-alabatzak eukan bere maiteaganako leia ta ardureagaitik, -izan be, larritzen asia zan eta errege-semea bera be ez asko obeto, -bestetik, eguialdia zakai-ekaiztsu zalako, ixilkizuna agertzeka gelditu zan. Baña nitzat bardin da; eta izan be, ni izan ba'nintz ixilkizuna igarri ebana, eleuskiden sinistu izango nire ainbeste zer ez-sinisgarrien artean. Emen datoz nik gura eztodala on egin izan dautsedanak, eta euien zori ona oraindik lora-loratan dabenak.

ARTZAIA ta AKETOA aurrera.

ARTZAIAK.—Tiruk, mulil; ni enok gauz beste seme-alabarik izaleko, baña ireak guztiak izango dozak yaiotzatik leñargiko.

AKETOAK,—(Autolika'ri) Ondo aurkitua zara, yaun; zuk etzenaun egin gura burrukarik nikin lengo egunean, ni yatorriz leñargiko enintzalako. Ba-dakusazuz nire soñekook? Esaizu eztakusazuzala, eta oraindik be uste egizu ni erKízda yaintzaz Ieñargiko. Guzurtau nagizu; bai, guzurtau nagizu; eta dakusgun orain ni yaiotzaz leñargiko nazanentz.

AUT.—Yaun, orain ba-dakit yaiotzaz leñargiko zareana.

AKETOAK.—Bai, eta lau orduazkero beti izan naz.

ARTZAIAK.—Neu be olangoxe izan nok eta nok, mutil!

AKETOAK.—Bai, izan zara: ..Jbaña ni nire aita baño lenagotik izan naz yaiotzatik leñargiko; eta izan be, errege-semeak eskutik elduta bere anai deitu nau: eta geroago errege biak deitu dabe nire aita euren anai; gero nire anai errege-semeak eta errege-alaba nire arrebeak, biak deitu nabe euren anai-neba; eta orrazkero, negar egin dogu; eta une atan ixuri doguz eguño lenengoz leñargi-negarrak.

ARTZAIAK.—Geiagorik ixurtzeko lain biziko al gozak, seme.

AKETOAK.—Bai; ostantxean zori txarra litzake gurea, gure oraingo bizitzea onen berezkoaz besterako izanik.

AUT.—Biotz-biotzez eta apal-apalik eskatzen dautzuet, yaunak, asketsi dagidazuezala nik zuoi egindako uts-egiteak, eta nire ugazaba errege-semeari nitzaz eretxi onik emon dagiozuela.

ARTZAIAK.—Arren, seme, olan egik; leñargiko gareanazkero, txerakor izan bear yoaguta.

AKETOAK.—Ire bizitzea bide oneratu gura dok, ala?

AUT.—Bai, zuri, yaun on orri, eder ba'yatzu.

AKETOAK.—Ekazu esku ori; zin egingo dautsat errege-semeari, Boemi'n iñor bestean gizon zindo ta zintzo zareala,

ARTZAIAK.—Esan bai, esan einke ori, baña ez zinik egin.

AKETOAK.—Zinik ez egin orain leñargi-gizon nazanazkero? Esan, esan dagiela baserritarrak eta erriko semek; nik zin egingo dot (9).

(9) Emen agiri danez, edozein uskerigaitik zin egiteko ekandu zakarra zabal-zabal zan garai atako zaldun eta aitonen semeen artean. Onetara dator gure Axular'ek diñoan au be: "Ikusiko duzu burasoek eta nabusi-etxekoandrek, bere seme-alaba, sehiak, eta etxeko familia guztia, hargatik beltzuri batere egin gabe eta hartan bat-ere damurik artzen dutela iduririk egin gabe, nai duten iuramentu guztien egitera uzten dituztela" (GERO, XIX, 2).

ARTZAIAK.—Eta guzur izatekotan, seme?

AKETOAK.—Guzurrik andiena izanda be, benetako leñargi-gizonak zin egin leike bere adiskidearen alde... --Eta nik zin egingo yautsat errege-semeari i esku-lanetan trebe ta antzetsu azala, ta ez azala mozkortzen; baña nik ba-yakiat i ez azala trebe esku-lanetan eta al dokan guztietan mozkortzen azala: eta orraitiño nik zin egingo yoat ire alde, eta esku-lanetan trebe izango al ez.

AUT.—Aleginak egingo dodaz, yaun, olango izateko.

AKETOAK.—Bai, edozelan be alegindu adi beargin izaten: arritu egingo nintzake ni i beargin ez izatekotan mozkortuko ba'intz; sinis egidak. So! Erregeak eta errege-semealabak erregenoaren mami-irudia ikusten doaz. Goazen, yarrai akigu i be: itzako ugazaba on izango gozak. (Alde dagie).

III AGERLEKU.-Lengoxea. PAULINE'n etxeko gela.

LONTI, POLIXEN, PORLIXEL, GALDUA, KAMIL, PAULINE, Yaun andikiak eta Lagungokoak aurrera.

LON.—Pauline ben eta on ori, nik bai izan dodala nasaialdi lango nasaialdia zugandik!

PAUL.—Ene nagusi ori, ondo egin eztodana. ondo egiteko asmoz egin izan dot. Nire otseintza guztiak ondo be ondo ordaindu izan daustazuz: baña nire bizitza osoa be ezta asko zuk zure buruntza-anaiakin eta ezkonbarri diran zure erregetzearen oñordekoakin nire etxea ikusten etorteko egin daustazun aginduari, eskerrik eskerrenari, bear danez erantzuteko.

LON.—Pauline ori. nekea da guk emoten dautzugun omena:.. baiía gure erregenoaren mami-irudia ikusten gatortzuz: zure estalpea zear igaro-ala poz andi izan dogu angozer bakanak ikusirik; baña eztogu ikusi nire alabeak ikusi gura leukena, zera, bere amaren mami-irudia.

PAUL.—Bizirik zanean a bardinbako zanez, ak ilik dauen antzak zuok oraindik ikusi dozuen oro, naiz, gizonaren eskuk egin izan dauen oro gallentzen dau; orregaitik daukat nik a bakarrik, berezirik. Baña emen dozue: Io geldi-ixil-íxila eriotzearen antzeko dan bestean biziaren antz bizi-bizia dana ikusteko gertau zadize: adi-adi begira; eta ondo dagoala esan.

(PAULINE'k errezela bazterreratu, ta ERMIONE agerrazoten dau zutunik. mami-irudi bailitzan).

Gogoko yat zuon ixila... orrek díragar ondoen zuon arrituarena: baña orraitiño be itz egizue: lenen zuk, ene nagusi orrek. Ez ete da au aren antz-antzeko?

LON.—Arren egokera berbera!.. Asarre zakidaz, arri maitagarri, Ermione zareala esan al dagidan; edo, obeto esateko, zu Ermione'ago zara asarrerik egin-ezaz; a seintzaroa, naiz txerea bestean samur zan-eta... Baña orraitiño be, Pauline, Ermione'k ez eban orenbeste tximur arpegian; etzan a orrek dirudian aña zar.

POL.—Ene! ez urrik emotekorik be.

PAUL.—Orrexegaitik gure irudigilea trebeago ta gallenago; ak amasei bat urteri yoaten itxi dautse, eta orain bizi ba'litz langoxe egin izan dau.

LON.—Nasaialdi andi dot nire biotzean ori ikusiaz, nire biotzean oartzen dodan ziria bestean andi. Ene! olantxe egoten zan a zutunik, olangoxe bentasunaz, -bizi beroaz. orain otz dan bestean beroaz, -nik eguño lenengoz nire maite-mina iragarri neuntsanean! Lotsa-lotsaturik nago: ez ete nau arbuiatzen, zapuztuten arriak, ni arririk baño arriago izan nintzalako? --Arri yaukal ori, ik ire bentasunaz liluratzeko indarra dok eta liluratu egiten nok; ik nire gaiztakeriak araotu egin dozak nire oroimeneratu dadizan; eta ire alaba arrituari bizia kendu egin dautsak, ire aurrean erria lez zutunik egoteko!

GALDUA'k.—Eta emoidazu zure baimena; eta ez esan siniskeri dala, nik. belaunbikotu ta, gero, bere onespena eskatu ba'dagiot. -Andera, erregeno maite ori, ni biziten asi nintzan une berean zure bizia amaitu zendun ori, ekazu zure esku ori, mun dagiodan.

PAUL.—Ene! epe artu! egin barri da mami-irudia, margoa oraindik legortzeko dago.

KAM.—Ene yaun, barruregi sartu yatzu zure nabagea, amasei neguk ezin kendu, ta beste ainbeste udak ezin legortu izan dabe-ta: nekez iraun izango dau orren luzaro ezetariko pozek: eztago ori baño lenago il eztan naibagerik.

POL.—Ene anai maite, zure naibaga-bide izan zanak zure naibaga-kide izateko dauen gogoa besteko indarrik izango al dau naibaga ori zugandik uxatzeko.

PA-UL.—Izan be, e^{n}e yaiin_. irudi onek orTenbestean erasoko eutzunik yakin izan ba' neu... arria neure da-ta... eneunskizun erakutsiko.

LON.—Ez zabaldu errezela.

PAUL.—Eztozu begiratu bear luzaroago; zirkin egiten dauela iruáitu eztakitzun.

LON.—Iruditu dakidala, iruditu dakidala... Ilik al nengo, baña nire ustez, dagoneko... Zer zan ori egin ebana? -Begira, ene yaun, ez ete dozu uste arnasea artzen dauela? Eta zanok zear odola ibili dabilkola?

POL.—Iizalez ondo egina da ori: orren ezpanetan bizia bera agiri dala dirudi.

LON.—Orren begiaren geldia bera igitu egiten da, ta antzeak irri dagisku.

PAUL.—Errezela zabal egingo dot: nire yauna dagoneko dago ia beragandik urtenik-eta, zer au bizirik dagoala uste izango dau.

LON.—Pauline ezti ori, ogei urtean sinis eragidazu ori! zoro-aldi onen atsegina bardintzeko ez dira gauz mundu onetako sentzu guztiak. Geldi itxizu.

PAUL.—Damu dot zu orainarte eraginaz; baña areago be mindu zengikedaz.

LON.—Ori egizu, ori egizu, arren, Pauline; min au nasaialdirik andiena bestean gozo yat-eta... Orren arnasea datorkidala dirudit: nongo sintzelek ebagi eikean arnasea bera? Ez begist gizonek irririk egin, mun egin gura dautsot-eta!

PAUL.—Ene yaun on, ez egin olangorik: orren ezpanetako gorria oraindik ezo dago; alperrik galduko dozu. mun ba'dagiozu; zeure ezpanak margo oriotsuz loitu baño eztozu egingo. Errezela zabalduko dot, ala?

LON.—Ez, ez ogei urteotan be.

GALDUA'k.—Orren luzaro egongo al naz ni orren aldamenean, begiralatzat.

PAUL.—Epe artu zuk be: alde egin bertatik yauretxetxo onetatik, edo ostantxean gertau arrituago gelditzeko. Olangorik ikusteko adorerik ba'dozue, zirkin eragin mamiirudiari, ortik yatsiazo eta zuoi eskutik elduazo egingo dautsot: baña nik olangorik egitekotan ,nik alde txarreko beste mundukoak lagun dodazala esango dozue zuok, nik ezetz eta ezetz esan eta autortuarren.

LON.—AI dozuna eragin zuk orreri. Pozarren egongo naz ni begira: orrek zer esango, ni pozik nago entzuteko: eta izan be, orri itz eragitea ezta gatxago ori igiazotea baño.

PAUL.—Zure sinistea iratzarri bear dozu zuk orretarako. Guztiok ixilik egon, gero; ostantxean, galazotako zerik nik egiten dodala uste dabenak alde egin dagiela emendik.

LON.^Aurrera yo: oin batek be eztau egingo emendik zirkinik.

PAUL.—Eresi, iratzarri egizu ori; yo! (Eresla yoten) Tertzioa da; yatsi; itxi arri izatea; urreratu; ikaratu begira dagotzuzan guztiak. Erdu: zure ilobia bete-bete egingo dot: igi zadiz; bai, urten ortik: zure izkatasuna eriotzeari itxi egiozu, eriotzatik bizitza maitagarriak yareiten zauz-eta... Oartzen zarie igitzen dala: (ERMIONE bere oinpekotik yatsi egitea da) ez ikaratu; guren da, orrek egingo dauena, nire lilurapena be legezko danez: ez alde egin orregandik, barrien barri ilten ikusi arte; olangorik zuok egitekotan birritan ilgo zeunkie-ta. Bai, opatu zure eskua; ori gazte zanean zuk kutundu egiten zendun; orain, urteetan aurreratu danean, bera dagotzu zure maitasun-eske.

LON.—Ene bada; epel dago! (Besartean estututen dau). Onako au aztikeri ba'da, legezko, bedi, yatea legezko dan bestean.

POL.—Ermione'k be Lonti besartean estututen daragoio.

KAM.—Idunetik dingiliz dagoko Ermione: bizirik ba'dago, itz be egin dagiala.

POL.—Bai, eta non izan dan bizirik, edo-ta zelan alde egin dauen ilen artetik iragarri dagiala.

PAUL.—Bizi dala iñok esan ba'legitzu, beñolako ipuintzat arturik txistu ta iseka egingo zeunskio; baña bizi dala agiri da, oraindik itzik egin ez-arren. Begira egon apur baten... Bitartekoarena egizu, andera lirain; belaunbikotu ta zure amari onespena eska egiozu. -Erdu, andera on; idoro dogu gure Galdua.

(GALDUA eskeintzen dautso, ta GALDUA ERMIONE'n aurrean belaunbikotzen da).

ERM.—Yainkook, ona bera zuzendu zuon begiak, eta zuon ontzi gurenetatik zuon emariak ixuri nire alabearen buru-ganera! -Esaidazu, ene orrek, non euki, non yagon zauez? Non bizi? Zelan idoro? Zuie aitaren yauregian, ala? Eta izan be, entzungo dozu, yainko-iragarpenak zu bizirik zintzazalakoaren itxaroa emon ebala Pauline'n bitartez yakinik, nik bizirik iraun dodala ondorena ikusteko.

PAUL.—Astirik asko dogu orretarako gero be; orain bat-bateango edeskune ta azalbenez orreik zure poza muskildu gura ezpa' dabe. -Zoaze batera, irabazla bikain guztiok; zuon poza alkarren arlean banandu. Nik, uso zar onek, adar igarren batera egaz egingo dot, eta il arteño an erosta egingo

dautsat iñoz be iñok idoroko eztauen nire lagunari.

LON.—Ene! Ixilik, Pauline! nire ederraz zuk senar barririk artu bear zeunke. nik zurez emazte legetxe: egiunea dozu au, guk biok zin-bidez egina. Nirea idoro dozu zuk; baña zelan idoro dozun da yakiteko: eta izan be, nik ikusi nebanean, ilik zan, nire ustez; eta amaikatxo otoi eder egin izan dot onen ilobiaren ganean. Zutzako senargei zindorik idoroteko urrin yoan-bearrik eztot izango, aren gogoaren zati bat ba-dazagut-eta. -Erdu, Kamil, eta eskutik eldu egiok, orren laina ta zindotasuna guk errege-bikote onek emen autortuak dozak-eta... Goazen emendik... Ostera! begixa nire anaiea:.. nik zuon arteko begirakune aratz-garbiez izan neban susmo txarra zuok biok parkatu dagistazuen. (ERMIONE'ri) Zure suin au, erregeren seme au. yainkoak alan erabagirik, zure alabeakin ezkontzeko itza emonik dago,- Pauline on, eroan gagizuz emendik; alkarregandik banandu gintzazanazkeroko aldi luzean yazoak alkarri astiro itandu ta erantzun dagikeoguzan lekura: arin be arin eroan gagizuz! (Alde dagie).

AMAIA.

Salta'n 1960-X-4'gnean, Asisi'tar Pantzeska Deunaren egunez.

ITZ GITXI EZAGUN BATZUK

ALLUBETA.—(Zeanuri) Lokarri txirikordatua. esaterako, gorantxa lotzeko erabilten dan lokarria allubeta izaten da; bai, geien.

BALAT.—Itz *au* ezta euskerazkorik eta abesgeitzat yazokune arin-laburren bat dauan abesti esan gura dau.

BIDUTZI.—Mamu, izaki zakar-iguingarri ta bildurgarri. Orretaiko ziran orain lurpean euren azurak aurkitzen doguzan beñolako abere eskarga batzuk.

EDEN.—Euskelgaiztoz "bereno" naiz "pozoi" esaten yakon zera yatzu edena. Edenak zer biziarentzako kaltegarri ta ondagarri izaten dira. Edenak zer biziarentzako kaltegarri ta ondagarri izaten dira. Suge batzuk edena ixurtzen dabe euren aginetatik eta, orregaitik, guk suge guztiai bildur dautsegu.

ERKIDE.—Zerbait artzeko, naiz egiteko lagun edo kide dana yatzu ERKIDE.

GALBOTA.—Gariak yoten diranean gari-ale batzuk aldean dabezala eskutadatik lurrera yausten diran galburuai ereisten yake GALBOTA. Gari-alearen estalgiari berari GALAUTS, GALOTS, naiz AKARRO ereisten yako.

KONPAIDE.—Itz au ezta euskerazko. Laterati-ko baño (compedes). Abereai eta gizonai be ibilpidea eragozteko, naiz gatxago egiteko oñetan ezarten yaken lokarria esan gura dau. Itz au eguño bein entzun izan dot eta berean nire ama zanari. Laterazko itzak euskeldunen agoan zelango aldakuntzak izan dabezan ikas-zaleentzako emen dogu zer bakan bat.

LANDER.—Txiro, "probe", beartsu. "Beti izango dozuez landerrak zuon artean" esan eban gure Yaunak.

MILLA.—Izen au be Lateratiko dogu, eta "mille" zenbakitik dator, luzerea neurtzeko erabili-arren. Milla baten luzerea ta 1,609 kilometro luzera bardina yatzu.

TUKU.—Gizon eta emakume batzuk besteak baño tukutiago yatzuz. Zure emaztea beste gizonen batekin dabilela uste ba'dozu, artega ta larri bizi zara, tukuaren bendean yausi zara ta zori gaiztoko bizikerea daroazu; zure aragiak ezeze zure azurrak be iruntsiko dautsuzan gatxak eldu dautzu; susmo txarren bendeko zara. Emakume tukutia gizon tukutia baño okerrago da. Emazte tukuti 'dauen gizonaren errukarri!

YAKINKIDETZA,—Yakinkidetza zuk eta bestek zerbait yakitea da, or eurrez "kontzentzia" esaten dautsoen zera. Zer yatzu "kontzentzi" ori? Zuk eta bestek zerbait yakitea. Orrako BESTE ori gizon, naiz Yaungoikoa izan dateke. Yaungoikoak dana daki, baña zuk zeuk ezpa'dakizu, Yaungoikoak yakin-arren, zu etzara yainkide; ezta gizonek yakinik be, zuk zeuk ezpa'dakizu. Okerrik dagigunean gure kitean naibagea somatzen dogu, geure burua errukarri dogu, egin dogun ogerraz oartzen ba'gara; onik dagigunean, ostera, poztu egiten gara, on eginaz oartzen ba'gara, gure on-eginaz yakinkide ba' gara; baña egin dogunaz oartzen ezpa'gara, yakinkide ezpa'gara, ezkara ez naibagetzen, ez poztuten. Yakinkidetzea bein gure salatzalla ta zigor gogor yaku, bein txaloak yoten dauskuz. okerrik ala onik zein egin dogun. Yakinkidetzeak norbaiten aurrean gure eginetaz erantzun-bearra dakasku gogora; norbaitek epaitu, ebatzi egingo gauzala, eta gogorapen orrek larritzen gauz. Onenez be nik ezpa'dakit zer egin dodan, baña Yaungoikoak bai (Ak dana daki-ta), ni enaz larritzen. Zegaitik? Yakinkide enazalako: eztakit okerrik egin dodanentz; enaz yakinkide; enaz Yaungoikoaren yakinkide. Gizonek ba'daki nik egin dodan okerra, baña nik ez, ni nasai nago. Zegaitik? Ki gizon orren, naiz orrein yakinkide enazalako. Bego onenbestez bein. Enoa emen yakinkidetza-arloa osoan aztertu ta arakatzen, luze be luze lioake-ta.

IZTEGI - ERASKIN

ABESTI.—**Kantu.**
ABESTU.—**Kantau.**
AGAKA.—**Izki edo letren izendegi.**
AGIRIKA.—**Akarr, asarre.**
AIENATU.—**Alde eragin.**
AINBATU.—**Zenbat dan ikasi.**
AINBATZE.—**Zenbat dan ikastea.**
AKIAKULA.—**Apuko. atxaki.**
AKURATU.—**Errentan artu.**
ALAKA.—**Arrenkura. "kexa".**
ALATZ.—**Mirari.**
A**LETZ.—Uskeri.**
ALTXORR.—**Balio andiko zeren bat.**
A**NITZ.—Asko.**
ALDARRIKATU.—**Zaralak.3 iragarri.**
ANTZERKI.—**Komedi.**
ANTZOKI.—**Zerbait antzeztuteko toki, "teatru" euskel-gaiztoz.**
ALASOKO.—**Ez andi, ez txiki; erderazko "regular".**
APEN.—**Okerreri erantzuteko egiten dan okerra, "bengantza".**
Arratz (Oñati).—**DanborT.**
ARERI (Oñati).—**Areriotasun.**
ARATEGI — **Aragitegi, okelategi.**
ARGI-TAKET.—**"Kandela".**
ASPEREN.—**Arnas-estu.**
ASUARR (Zean.).—**Larr (landara narrazti-arrtsu).**
AUSI (Zean.).—**Zaunka; baita erderazko "digerir" be: aiarie ausi barik egoan urrean, "parece que no había digerido".**
AZOKA.—**Yaki-edari ta bestalango zerak salgei dagozan leku.**
AZPIL.—**"Plater"; Zeanuri'n baita beste leku batzuetan oramai deitzen daben ontzia be.**
AURTIKO.—**Oeko burapeko.**

BEREZMEN.—**Berezteko geitasun.**
BAILITZ.—**Ba'litz letxe.**
BAININTZAN.—**Ba'nintzan letxe.**
BALAT.—**Abesti kilikorr-biozkadadun.**
BARANO.—**Inguru.**
BAZKATU.—**Yaten emon.**
BARRANDARI.—**Asmo txarcez iñoren zerak yakiten dabilena.**
BELU.—**Berandu.**
BIDUTZI.—**Zer zakarr eta iñondiko.**
BURESTUN.—**"Koroe".**
BURUNTZA.—**"Koroe".**

EDZN.—**"Pozoi", "bereno", sikilikitu (Zean.).**
EDENDU.—**Edena, sikilikitua emon naiz artu.**
EDESTI.—**Yazokunetza, alan be yazokunok erriren batenak ba'dira.**
EDESTU.—**Yazokunak tapa-tapa eralgi, itzez naiz idatziz.**
ENDORE.—**Alkate, "Zegik ezer, hendorea, entzun artean bestea".**
EGAKI — **"Luma".**
ENTZIN.—**"fiau", euskel-gaiztoz; "Hordiaganik enzindu zeegik arean".**
ENTZITE.—**"Konpiantza", euskel-gaiztoz.**
EORTZI.—Gorpuri IUIT emon.
ERAN.—**Ilazo, il-eragin.**
ERALA.—**Ilazotzalla.**
ERAMERA.—**Zurikeri; arr-emoneko labankeri.**
ERESPATZ.—**Ereslari edo musikalari-talde.**
ERLAIN. —**Srreal tiko zidarr-txanpon.**
ERESI.—**"Musika".**
ERESKI3E.—**Baterako ots gozo; alkarrekin ondo datozan otsak.**
ERESKIDETASUN.—**"Armoni", euskel-gaiztoz.**
ERD'TU.—**Ume-egin emakumek.**
EROSTA.—**Negarrketa, alan be gorpuren aurrean.**
ETOI.—**Saltzalla, azpiyala, Yuda Iskariot izan zanez.**
EZPEL.—**"Boja", euskel-gaiztoz. Abarretariko da.**

GAIMEL,—**Olio, orio.**
GAIMEL-URRAITZ.—**Orio-zugatz edo abe.**
GALEN. — **"Mu'ta", euskel-gaiztoz.**
GARBA.—**Lora berezi, ez edozein lora; gaztaña-garba, intxaurr-garba, t. a.**
GARBATU.—**Loratu.**
GAULENDL— **Gabeko lenengo orduak.**
GESU BATEN (Zean.).—**Lasterr.**
GEZNA.—**Norbaiteri beren-beregi eroaten yakon barri.**
GUTUN.—**"Karta", idazki.**
GIZELI— **Giza-talde andi.**
GORRL—**Birao.**

IBAZI.—**"Mezidu", euskel-gaiztoz; zerbaitengarri egin norbere burua.**
IDAZKL—**Gutun. "karta".**
IDAZTI.—**"Liburu", euskel-gaiztoz.**
IDORO.—**Billa ibili ta lortu; "topau", euskel-gaiztoz.**
IGALI.—**Yateko landara-ale. "Fruta", euskel-gaiztoz.**
IGITU.—**Geldi egon dana ibilten asi; zirkin egin.**
IKUZL—**Urez garbitu.**
Ii.—Erderazko "junco", landara txiki, biribil eta iztingazale.
Ikurraztu.—Ikurratz edo "sillua" ezarri.
IKURRATZ.—**"Sillu", euskel-gaiztoz.**
INGI.—**Papel, paper, (eungi'tik ala?). Itz barri da.**
INTSIGI.—**Beste euskelgietako** atxikí.
IRADU.—**Astirik eza; "prisa", euskel-gaiztoz.**
IRARRI.—**Yarriazo; erderazko "ímprimir" esan gura dau.**
IRUSTU (Zean.).—**Argaldu.**
IRUKUTZI (Zean.).—**Ikuziazo.**
IRRIKA.—**Leia edo gurari bizi.**
ISKILLO.—**"Arma", euskel-gaiztoz.**
IZKA.—**Itzik ezin egin dauena.**
IZKATASUN.—**Itzik ezin egina.**
ITUN.—**Goibel, motel, "triste".**
IZKIDETU.—**Bertsoak azken-bardindu.**
IZPIDE.—**Zuzen egotea; "Izpidean zaude"=zuzen zagoz.**
IUTIKA, IKUTIKA.—**Yauzika, "saltoka", euskel-gaiztoz.**
IRAUNGI.—**Itxungi. amatau.**

LANDERR.—**Ez-euki, bearrtsu.**
LANDERRTASUN.—**Bearrtsutasun.**
LEL—**Izotz.**
LEIA.—**Zaletasun bizi.**
LEIAKIDE.—**Zerbait iristerakoan kide dana.**
LERR.—**"Piñu", euskel-gaiztoz. Emendik dator, urrean, "lerden".**
LUTIRUDI.—**Lurr oso naiz zatiren baten irudi.**

MEIKI (Arbizu).—**Erren, "koxo".**
MINTZUL.—**Itzik ezin egin dauena.**
MOTZ (Arratia).—**Itsusi; baita "motel" be.**
MUSKERR.—**Pizti narrazlari, eguzkizale ta bai bere margo edo kolorea be.**
MUSKILDU.—**Lorrindu.**
NEKOSTA.—**Erderazko "cipres" edo dalako zugatz edo abe.**

OIAN.—**Baso.**
OLERKARL—**Bertsolari.**
OLERKI.—**Bertsoz egindako lana.**
OLERTL—**Olerkiazko yakintza.**
OINBIDURR.—**Oñak estuteko asmakuntza.**
OKOLU, OKULU,—**Orma bik alkarr yoten daben lekuko barrualdea.**
OTEUN.—**Ogi deun, gure Berreroslearen gorputza ogi-irudipean.**
ONDARE.—**"Erentzi", euskel-gaiztoz.**
ONINDARR.—**Onerako indarr; "birtute", euskel-gaiztoz.**
OREIN.—**Basauntz.**
ORTZE.—**Gure buru-ganeko leku urdina; ortik Oñati'ko "oskarbi".**
OSKI.—**Narruzko oñetako gogorr; "zapata", euskel-gaiztoz.**
OTURUNTZA.—**Yataldi.**
ORO.—**Guztiak, esaterako "mendiak oro"=mendi guztiak.**

SASTAKAl.—**Ezpata-antzeko zer moko-zorrotz.**
SORI.—**Galazota eztagolako egin leitekena.**
SUODI.—**Su egiteko odi; "kañoi", euskel-gaiztoz.**

UGOLO.—**Uretan azten dan olo-antzeko landara, "arrosa", euskel-gaiztoz.**
UGUX (Zean.).—**Ur-yauzi, ur-saltu. "Catarata" erderaz.**
UKUZI, UGUTZAU.—**"Bateatu", euskel-gaiztoz.**
URREAN.—**Nonbait, agian.**
USIGI.USEGL—**Aginka egin.**
UZTA.—**Gari, arto, garagarr naiz beste onen bat batzea.**
URUTU.—**Uin, olatu.**

XALO.—**Izurbako, maltzurkeribako.**
XILIN.—**Ingelanda'ko zidarr-txanpon, liberaren ogeiren.**

TXANGO,—**Ortik zearr egiten dan ibiltaldi.**
TXANGOLARI.—**Ortik zearr ibili dan, naiz dabilena.**
TXIRO.—**Bearrtsu, landerr, ez-euki.**
TXOLET.—**Meazko edo metalezko katillu.**

YAKINKIDE.—**Beste norbaitekin zerbait dakiana.**
YAKINKIDETZA.—**"Kontzentzi", euskel-gaiztoz.**
YARAUSLA.—**Senideren ilburukoz zerbait artzen dauena.**
YARAUNTSI.—**Senideren ilburukoz zerbait artu.**
YAREI-EROSL—**Yareiteko erosi.**
YAREI (Oñati).—**Azkatu, itxi.**
YASAN.—**Eroan, "sufridu".**
YAURESKUNTZA,—**Yaurespide. "erlejiño", euskel-gaiztoz.**
YAURETSL—**Yaun etsi, gurtu.**
YAUZI,—**Saltu egin.**
YOPU.—**Norbere buruaren yabe eztana.**

ZAL.—**Zail.**
ZAMA.—**"Karga", euskel-gaiztoz.**
ZAURATZ.—**Zauri-atz, zauri-lorratz.**
ZINKIDE.—**Zin-bidez beste norbaitekin zerbaiterako a'kartu.**
ZINKIDETZA.—**"Koniuro", euskel-gaiztoz.**
ZILLEGI.—**Galazota eztagolako egin leítekena.**
ZILDAI.—**Lepotik estuteko asmakuntz^.**

TÑONDIKO (Zean.).—**Erderazko "extraño. chocantt". Eztakan Azkue'k.**